



EUSKO LEGEBILTZARRARI  
TXOSTENA  
1995

ARARTEKOAREN TXOSTENA  
EUSKO LEGEBILTZARRARI  
1995. URTEA

© ARARTEKO

**Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.**  
**Paper erreziklatua.**  
**I.S.B.N.: 84-87122-67-1. Liburu osoa.**  
**D.L.: VI-188/96.**



EUSKO LEGEBILTZARRARI  
TXOSTENA  
1995

**AURKIBIDEA**

<b>I. ATALA. AURKEZPENA</b> .....	<b>15</b>
<b>II. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK</b> .....	<b>21</b>
<b>2.1. OFIZIOZKO JARDUERAK</b> .....	<b>24</b>
2.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txostena .....	24
2.1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hiru kartzeletako egoerari buruzko azterketa monografikoa .....	29
2.1.3. EAEn adin-txikiko lege-hausleei eta adin-txikiko babesgabeen laguntzeko dagoen sistemari buruzko txostena .....	38
<b>2.2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATUKO DITUEN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN LOTURA IZANGO DUEN KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO EKIMENAK</b> .....	<b>39</b>
2.2.1. Talde, elkarte eta gizarte eragileekiko lankidetzaren harremanak	39
2.2.2. 1995-1996rako bi ikerketa-beka emateko deialdia .....	45
<b>2.3. GIZA ESKUBIDEEN DEFENTTSARAKO ERAKUNDE KIDEEKIN IZANDAKO HARREMANAK</b> .....	<b>46</b>
2.3.1. Herri Defendatzaileen Koordinazioari buruzko X. Jardunaldiak .....	46
2.3.1.1. Tolerantzia giza eskubideen aldeko balore .....	47
2.3.1.2. Jarduera eta irizpideen koordinazioa .....	76
2.3.1.3. Herri funtzionaria Ombudsmanen aurrean erreklamatzailerak .....	78
2.3.2. Giza eskubideak babestu eta sustatzeko erakundearen hiru kontinentetako lehen hitzaldia .....	79
2.3.3. Herri Defendatzaileen Europako V. Hitzaldia .....	92

<b>III. ATALA. KEXEN LABURPENA SAILEZ SAIL .....</b>	<b>93</b>
<b>3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA</b>	<b>95</b>
3.1.1. Sarrera .....	95
3.1.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	96
<b>3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA .....</b>	<b>99</b>
3.2.1. Sarrera .....	99
3.2.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	100
<b>3.3. HEZKUNTZA .....</b>	<b>102</b>
3.3.1. Sarrera .....	102
3.3.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	103
3.3.3. Ofiziozko jarduerak .....	111
<b>3.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLA- KUNTZA .....</b>	<b>111</b>
3.4.1. Sarrera .....	111
3.4.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	113
3.4.3. Ofiziozko jarduerak .....	129
<b>3.5. OGASUNA .....</b>	<b>132</b>
3.5.1. Sarrera .....	132
3.5.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	134
3.5.3. Ofiziozko jarduerak .....	141
<b>3.6. HERRIZAINGOA .....</b>	<b>142</b>
3.6.1. Sarrera .....	142
3.6.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	146
3.6.3. Ofiziozko jarduerak .....	153
<b>3.7. JUSTIZIA .....</b>	<b>155</b>
3.7.1. Sarrera .....	155
3.7.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	156
<b>3.8. INGURUGIROA .....</b>	<b>158</b>
3.8.1. Sarrera .....	158
3.8.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	160
3.8.3. Ofiziozko jarduerak .....	164

<b>3.9. HERRI-LANAK ETA ZERBITZUAK .....</b>	<b>166</b>
3.9.1. Sarrera .....	166
3.9.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	167
3.9.3. Ofiziozko jarduerak .....	170
<b>3.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA .....</b>	<b>172</b>
3.10.1. Sarrera .....	172
3.10.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	174
3.10.3. Ofiziozko jarduerak .....	178
<b>3.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA .....</b>	<b>184</b>
3.11.1. Sarrera .....	184
3.11.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	185
<b>3.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA .....</b>	<b>188</b>
3.12.1. Sarrera .....	188
3.12.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	189
<b>3.13. BESTE GESTIO BATZUK .....</b>	<b>195</b>
3.13.1. Sarrera .....	195
3.13.2. Aukeratutako kexa batzuk .....	195
<b>IV. ATALA. ESTADISTIKA .....</b>	<b>199</b>
4.1. OHARPEN OROKORRAK .....	201
4.2. ESTADISTIKAK ALORREZ ALOR .....	203
4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTADISTI- KAK .....	206
4.4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTADISTIKA .....	214
4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA .....	216
4.6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA .....	225
4.7. HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA .....	226
4.8. OFIZIOZKO KEXAK .....	228
4.9. DIAGRAMAK .....	230



<b>V. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK</b>	
<b>EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA .....</b>	<b>263</b>
5.1. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK .....	267
A) Eusko Jaurlaritza .....	267
B) Foru diputazioak .....	270
C) Udalak .....	272
D) Beste erakunde publiko batzuk .....	279
5.2. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BI BIDER EDO GEHIAGOTAN BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK .....	279
A) Eusko Jaurlaritza .....	279
B) Foru diputazioak .....	280
C) Udalak .....	281
D) Beste erakunde publiko batzuk .....	283
5.3. ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARRREN, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK .....	284
A) Eusko Jaurlaritza .....	284
B) Foru diputazioak .....	285
C) Udalak .....	285
<b>VI. ATALA. ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOAK BETETZEA .....</b>	<b>289</b>
6.1. ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOAK BETETZEA .....	291
6.2. ARARTEKOAK BIDERATUTAKO OFIZIOZKO ESPEDIENTEETAN EMANDAKO EBAZPENEN BETETZE MAILA .....	314
<b>VII. ATALA. GOMENDIO ETA IRADOKIZUN OROKORRAK .....</b>	<b>317</b>
7.1. ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA GIZA BALIABIDEEN ARLOAN: ENPLEGU-PLANGINTZAK ETA BERORIEK LAN-ESKAKINTZA PUBLIKOETAN DUTEN ERAGINA .....	319

7.2. GAUR EGUNGO ADMINISTRAZIO-ERREKURTSOEN ERREGI-MENETIK BERRAZTERTZE ERREKURTSOA KENTZEAK SORTUTAKO ERAGOZPENAK .....	323
7.3. LEGE-ERRESERBA PRINTZIPIOA ETA PREZIO PUBLIKOAK ORDAINTZERA BEHARTUTA NOR DAGOEN .....	324
7.4. LANBIDE TITULUDUNEN ETA ELKARGO PROFESIONALEN IHARDUERA ARAUTZEKO BEHARRA. PROFESIONALEN ZERBITZUEN ERABILTZAILA DIREN ALDETIK HERRITARREN ES-KUBIDEAK BABESTEA .....	331
7.5. NAHITAEZKO DESJABETZEAREN DISFUNTZIOAK: PREMIAZ-KO IHARDUNBIDEAREN GEHEGIKERIA .....	334
7.6. INFORMAZIO PUBLIKOA ETA HIRITARREN PARTAIDETZA HIRI-GINTZAN ETA ADMINISTRAZIOAREN BESTE ALOR BATZUE-TAN .....	348
<b>VIII. ATALA. AZKEN ONDORIOAK .....</b>	<b>351</b>

**I. ATALA**  
**AURKEZPENA**

Erakundearen buru naizenetik urte bete joan denez, atseginez aurkezten dut berorren jardueraren zazpigarren urteari dagokion txostena.

Eginkizun pozgarri honek erantzukizunaren zentzua sendotzen du. Demokrazia sistemen ezaugarri da kudeatzaile publikoek beraien jardueraren azalpena egitea, jarduera horren erantzule baitira agintea eman edo zeregina ezarri dietenen aurrean. Legebiltzar ordezkariari, urteroko azalpen-emate honek aukera luzatzen dio norberaren jardueraren eta administrazioarekiko azterketaren emaitzen gora-beherak aztertzeko. Baina, gainera, aukera aparta da Legebiltzarren arreta funtsezko zenbait gaitara zuzentzeko, gai horietan Legebiltzarren eskuhartze zuzenak giza eskubideak hobeto defendatzen lagun baitezake.

Txosten honek erakundeak 1995. urtean egindako jarduera biltzen du, eta bertan hiritarren, Arartekoaren eta Administrazioaren arteko harreman emankorra sendotu dela ikus daiteke.

Erakunde honek, enpresa eginkorrek bezala, bere emaitzak azaldu nahi ditu. Eta horretarako abiapuntua, erakundeak sortu zenean zituen helburuak lortu diren ala ez izango da. Horren lagungarri dira, batetik, zenbagarriak diren datu estatistikoaren zerrenda, eta, bestetik, sail bakoitzean bideratu diren alde kualitatiboaren azalpena.

Zenbatekoari dagokionez, jasotako kexen kopuruak %53ko igoera izan duela azpimarratu nahi nuke. Beren kexez pertsonalki aritzeko erakundera etorri diren hiritarren kopuruak ere gora egin du, %30a baita berorien proportzioa zenbateko osoan, eta baita talde-ordezkarri kopuruak ere, %18,44ko proportzioa duelarik. Horrek guztiak zabaldu egin du eskuhartzea. Gainera, gure kabuz harreman erraza bultzatu dugu gizarte zibilean boluntarioen lana bideratzen duten elkarteekin. Gizartearen benetako beharren neurtzaile direnez gero, oso lagungarri dira erakunde honen arreta bazterkeria motaren bat pairatzeko arriskua duten giza taldeengana zuzentzeko.

Ofiziozko jardueren kopurua bikoiztu egin da, neurri berean banatu direlarik gure kontrolpeko hiru administrazioen artean. Gainera, gai bakarreko hiru txosten berezi landu ahal izan dira: **Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia**, abenduaren 28an aurkeztua; beste bat, **Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelutako egoera**, 1995. urtean hasia eta 1996.ean aurkeztua; eta **Euskal Autonomia Erkidegoan adin-txikiko lege-hausleei eta adin-txikiko babesgabeei laguntzeko dagoen sistemari buruzko txostena**, dagoeneko diseinatua eta 1996an aurkeztuko dena.

Txosten honetan zenbatekoari buruzko datu berri bat jaso dugu, urtez urte konparatu daitekeena eta kexen biderapenaren azken emaitzaren adierazgarri izan daitekeena. Kexadunaren arrazoiak aztertu ondoren, erakundeak %45,24 kasutan egin du bere alde. Dagokien administrazioek hori onartu eta kasuen %66an gomendioak onartu dituzte. Proporzio horrek gorakada nabarmena du gai gutxi batzuk kenduz gero, trafikoa adibidez, kasu asko biltzen baitituzte eta horiei buruzko legea interpretatzerakoan jarrera kontraerriak baitaude. Zenbateko hori oso altua da, eta, harrigarria bada ere, behartze-indarra izan ordez bitartekari eta aholku emaile den magistratura erabiltzean gertatzen ari da. Datu horrek egiaztatzen du prozedura hauek baliagarriak direla arazoak konpontzeko.

Zainketa, irizpide independentzia, alderdikierarik eza, etengabe elkarrizketaz baliatzea eta konponbideak lortu arte tinko jarraitzea une oro gure jardueraren ardatz nagusi izan daitezen saiatu naiz. Ahalegin horrek emaitzarik eman duen aztertzeko unea da orain, eta baita ere ahalegin hori lagungarria izan ote den erakunde honen aginpidearen euskarri den limurtze-ahalmena sendotzeko.

Arartekoak kide dituen erakundeekiko harreman eta koordinazio arloan egindakoari dagokionez, aurtengo urriaren 5-6an Bartzelonako **Herri Defendatzaileen X. Koordinazio Jardunaldiak** egin dira, eta abenduaren 7-9 eta 10-11n Kanarietako **Gizakiaren eskubideen defentsarako Erakunde Hiru Kontinentetako I. Konferentzia** eta **Ombudsmanaren Europako Institutoaren Jardunaldietan** izan gara. Txostenean Arartekoak jardunaldi horietan aurkeztutako komunikazioak aurkituko dituzue. Horien eduki doktrinala ere irizpide izan da urtean zehar zenbait hitzalditan parte hartzeko eta zabalkunderako idazkiak egiteko, giza eskubideen kultura zabaltzeko lagungarri gisa.

Helburu horrekin berarekin **Agintari publikoen kultur eginkizuna** eta **Zerbitzu publikoen erabiltzaileen eskubideak** izeneko bekak eman dira aurretan.

Guri dagokigun prebentzio eginkizunetako bat aholkatzea denez gero, gomendio orokorrak aurkeztu ditugu antzemandako hutsuneak betetzeko eta akats orokorrak zuzentzeko. Akatsak aurkitu zaizkien administrazio-jardueren diagnosiaz gain, sailez sail azalduak, Legebiltzarrari honako gai hauei buruzko gomendio orokorrak aurkeztu nahi dizkiogu, arreta berezia eman diezaien:

- . Informazio publikoa eta herritarren partehartzea hirigintza eta bestelako administrazio alorretan.

- . Nahitezko desjabetzearen akatsak: premiazko prozedura neurritz gain erabiltzea.

- . Giza baliabideei buruzko administrazio-plangintza.

- . Enplegu-planak eta honek lan eskaintza publikoetan duen eragina.

- . Egungo administrazio-errekurto erregimenean berraztertze errekurtoa kentzeko zailtasuna.

- . Lege-erreserbaren irizpidea eta salneurri publikoak nahitaez ordaintzera behartutakoa.

Aurkezpen honi gure lanaren ikuspegi atsegin, zuzpergarririk emango diot amaiera. Arazo zehatzak konpontzea eta urratuak izan diren eskubideak

berreskuratzea helburu dira berez. Gainera, tentsiorik gabeko egoera sortzen dute, administrari eta administratuen arteko harremana egokiagoa bilakatzen da eta. Eguneroko elkar-adiskidetze zehatzetik abiatuta bakea ereitea hain da pozgarria, non Ararteko erakundearen lanean ari garenok horretaraxe zuzendu baitugu gure ahalegina.

Txosten hau 1995. urtean zehar egindakoa kontatzen duen pelikula da. Zeregina bera askoz ere alai eta biziagoa, pertsonen zerbitzura. Ararteko erakundearen, pertsona da nagusi.

Xabier Markiegi Candina  
ARARTEKOA

**II. ATALA**  
**ARARTEKOAREN**  
**JARDUERA NAGUSIAK**

Atal honetan zenbait jarduera azaldu nahi ditugu, hiritarrek aurkezturiko kexa-espedienteen biderapen hutsa ez izanagatik ere, erakunde honen helburua -hots, eskubideak babestea- lortzeko oso garrantzitsuak direnak.

Atala hiru zatitan egituratua dago:

Lehen zatiak 1995. urtealdian burututako ofiziozko jarduerak isladatuko ditu.

Lehendabizikoz, ofiziozko jarduera zehatzak III. atalean adieraziko dira; hartara, Arartekoaren ekimenak alorren arabera bilduko dira, ekimen horiek ofiziozkoak izan ala norbaiten eskariz burututakoak.

Hori bai, atal honetan emango da aurten egindako hiru azterlan monografikoen berri.

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia aipatuko da, 1994an hasi eta 1995eko bukaera aldera amaitu dena.

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko karteletako egoera aztertzen duen txostenaren inguruan 1995ean burutu diren ekintzak azalduko ditugu; txosten hori 1996an eman zaio Eusko Legebiltzarrari.

Azkenik, «EAEn adin-txikiko lege-hausleei eta adin-txikiko babesgabeei laguntzeko sistema»ri buruzko txostena aipatuko dugu, 1995eko azken hiruhilabetean hasi eta, orobat, 1996an bukatuko dena.

Bigarren zatian, giza eskubideak errespetatzeko kultura sortzen lagunduko duten ekimenak jaso ditugu, hori oso beharrezkoa baita gure erkidegoan. Zati honetan, aurreko urteetan erabilitako bideari jarraitzen dioten ekimenak bildu dira, esate baterako, giza eskubideen alorrean bi ikerketa-beka emateko deialdia.

Haatik, 1995ean gizarte zibilari hurbiltzeko ahalegin handia egin da, berorren arazoak guztiek entzuteko moduan adierazi nahi baititu Ararteko erakundeak.

Horretarako, aholkulari berezi baten lanpostua sortu dugu gizarte harremanez arduratzeko eta euskal gizarteko sektore eginkorrenekin harremanetan jarri gara, oso emaitza onak lortuz gainera, elkarteen eta gobernuaz kanpoko erakundeen bidez. Izan ere, hiritar guztien kezka diren gai berberak kezkatzen dute erakunde hau ere: bakea, hiritar baztertuenen eskubideak, edozein eratako ezintasunak dituzten taldeen arazoak.

Zati honetan gizarte-harreman horiek azaltzen saiatuko gara, 1995. urtean oso ugari eta estuak izan dira eta.

Bukatzeko, azken zatian, Estatu mailan, European nahiz mundu osoan Arartekoak kide dituen erakundeekin izandako harremanak adieraziko ditugu.



Zati honen helburua garrantzi bereziko gai batzuei buruz herri-defendatzaile guztiek onartu dituzten akordioak nabarmentzea da, bai eta topagune horietan Arartekoak egindako bi hitzaldi oso-osorik idaztea ere, hitzaldiok txosten honen bidez hedadura handiagoa izan behar dutela uste dugulako.

## **2.1. OFIZIOZKO JARDUERAK**

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/85 Legearen 17. artikulua dioenez, «bere berenezko bidez arauz-kontrako egoeraren bat ezagutu dezanean, bere arioz ekin ahal izango dio argipideketari».

Ofiziotako jarduerak oso garrantzitsuak dira, norbaiten eskariz burututako ekintzak ez bezala, Arartekoak berak erabakitzen duelako horiek burutzea, nahiz eta egia izan kasu zehatz batzuetan ofiziotako jarduerak ez direla aurrez pentsatutakoak, baizik eta erakundeak ematen duen erantzuna administrazio baten jokaerak agian eskubideren bat urratzen duela edo, besterik gabe, ez dela zuzena eta lehenbailehen esku hartu behar dela jakiten duenean.

1995 urtealdi honetan bi gai nabarmendu behar dira: lehena, soil-soilik kopuruari dagokio, alegia, 1995ean ofiziotako 38 jarduera zehatz burutu dira, eta horrek ia %100eko igoera adierazten du aurreko urtekoen aldean. Bigarren gaia, berriz, metodologiazkoa da, izan ere, lehenengo aldiz, ofiziotako jarduera hauek ez dira II. atal honetan sartu, III. atalean baizik, kexak bideratzeko jarduerekin batera zein bere alorrean sartu ditugularik.

Beraz, zati honetan 1995ean egindako hiru txosten monografikoak bakarrik jasoko dira:

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoerari buruzko txostena eta EAEn adin-txikiko lege-hausleei eta adin-txikiko babesgabeiei laguntzeko dagoen sistemari buruzko txostena.

Txosten hauen ildo nagusia Arartekoak gizarte talde baztertuenez azaldu duen kezka da, oraingoan adinekoez, presoez eta adin-txikikoez.

Azkenik, lehen esan bezala, administrazio-zentro itxietan bizi diren hiritarrei buruzko txosten monografikoen zikloa bukatzeko -udal deposituak eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak, ospitale psikiatrikoak, zaharren egoitzak eta kartzelak-, zenbait erakundetan barrolatuak dauden adin-txikikoei buruzko azterketa monografikoari ekin diogu 1995eko azken hiruhilabetean, hau da, babesik gabe eta zigorpean dauden adingutxikoen egoerari buruzko txostenari, oraindik egiten ari dena.

### **2.1.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EGOITZEZ KANPO ADINEKOENTZAT DAGOEN LAGUNTZARI BURUZKO TXOSTENA**

Txosten honen bidez egoitzetatik kanpo bizi diren aiton-amonen egoera aztertu nahi da, eta zehazkiago, aginte publikoek adinekoen premiei ematen

dizkieten erantzunak eta Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoentzako egoitzez kanpoko giza zerbitzuak erabiltzen dituzten aiton-amonen eskubideak zein diren.

Azterketa honetan, adinekoen egoitzez kanpo dauden bi eskaintza mota nagusiak arakutzen dira: etxez etxeko laguntza eta eguneko zentroak.

Ez dira aztertu egoitzez kanpo dauden beste giza zerbitzu batzuk, hala nola egoitzetan aldi baterako egonaldiak edo babes ematen duten familiak.

Familietan babes emateko dauden programak oso-oso urriak dira, eta zerbitzu hori erabili duten aiton-amonak oro har oso ongi hartu duten arren, hain gutxi direlako ez dugu horien azterketa zehatzik egin.

Bestalde, egoitzetan aldi baterako egonaldien esperientzia oso interesgarria ikusi da, gainera adinekoak zaintzen dituzten familiei laguntzen zaie adinekoek familia giroan egoten jarraitzen dutelarik; baina zerbitzuaren iraupena hain laburra denez gero, 2 egun eta 2 hilabete bitartekoa baita, zerbitzu horri buruzko azterketa egitea oso zaila gertatzen da, eta oso gutxi hedatua dagoenez gero, ez da azterketa hori justifikatzen.

Uste dugu, ordea, zerbitzu hori eskainiko duten plazak jarri beharko direla nahiz Eguneko Zentroetan, nahiz egoitzetan asteburuetako zerbitzua eskaintzeko. Helburu nagusia helburu zehatz batzuetan gauzatzeko da:

- 1- Euskal Autonomia Erkidegoko egoitzaz kanpoko adinekoentzako laguntza-zerbitzu sistemaren ebaluaketa.
- 2- Etxez etxeko Laguntzaz baliatzen diren aiton-amonen egoera aztertzea, beraien eskubideak zenbateraino errespetatzen diren eta zerbitzuaz eta langileez daukaten iritzia ezagutzea.
- 3- Euskal Autonomia Erkidegoko eguneko zentroen egoerari buruzko azterketa: dagoen eskaintza, prestazio eta zerbitzuen maila, higiezinaren egoera.

Ararteko erakunde honek, euskal aiton-amonen egoera aztertzeari ekin zionean, zenbait alor azterketa horretatik kanpo uztea erabaki zuen, hala nola, osasun gaiak edo pentsioekin lotutakoak eta etxebizitza edo denborapasa arazoak. Adinekoen bizitza kalitatean horiek eragin zuzena duten arren, ez zen ikusi burutu nahi zen proiektuan sartzeko premiarik.

Horrela, lehen txosten bat egin eta Eusko Legebiltzarrari 1993ko abenduaren 28an igorri zitzaion (batzordearen aurrean) 1992-1993 ekitaldiko txosten berezi gisa, adinekoen egoitzetan zeuden aiton-amonen egoera aztertzen zelarik.

Orain aurkezten dugun txosten hau adinekoentzako zerbitzu publikoen azterketen zirkulua ixteko bokazioarekin sortu zen, egoitzez kanpoko eskaintza aztertuz, alegia, nagusiki eguneko zentroak eta etxez etxeko laguntza ikertuz, lehen esan den bezala.

Ararteko erakundeak egin dituen beste lan monografikoen antzera, aztergaiaren errealitatera hurbiltzeko bide ezberdin eta osagarriak erabili dira.

Adinekoen egoitzei buruz egin zen lanak, egoitzez kanpoko zerbitzuei buruzko ikerketan kontuan eduki beharreko pautak batzuk eskaini zizkigun, zeharka eta maila batean bakarrik izan bazen ere.

Giza zerbitzu horien funtzionamenduari buruz hiritarrek aurkezten dituzten kexen oinarrian beti arazo oso zehatzak eta partikularrak dauden arren, planteatzen

diren arazoak sistemaren oker hutsak edo hedatuagoak ote diren jakiteko aukera ematen dute.

Propio ikerketari dagozkion faseei helduz, egoeraren alde aurretiko diagnosia egin eta behin-behineko gidoi bat diseinatu zen gaien arabera, aztertu beharreko arazoak mailakatzeko eta baloratzeko.

SIISen zegoen eta etxez etxeko laguntzarekin zerikusia zeukan dokumentazioa ere zehatz-mehatz aztertzeari ekin zitzaion. Guztira zazpirehun dokumentutik gora aztertu ziren, bereziki Europan garatutako politika orokorrak eta sailen arabekoak kontuan izan zirelarik. Inguruko herrialdeetan zerbitzu horien inguruan zegoen eskari eta eskaintzari buruzko datu estatistikoak ere bildu ziren, Euskal Herriko errealitatea egokiro kokatzen lagunduko ziguten erreferentzien bila.

Bigarren fasea lehenengoaren osagarria izan zen, eta horreterako bi mahai inguru antolatu ziren, horietara gaiarekin erlazionatuta zeuden eta alor ezberdinetakoak ziren pertsonak gonbidatu zirelarik.

Bilera bakoitzari egun bat eskaini zitzaion, eta alde aurretik gonbidatuei aztertzeko bidali zitzaizkien gidoiak jarraituz burutu ziren. Lehenengo bileran, administrazio eta antolaketa mailako gaiak eta lege eta finantzaketa aldetik zeuden arazoak aztertu ziren. Bertan, Ararteko bulegoko eta SIISeko ordezkarienez gain beste sail hauetako teknikariek ere parte hartu zuten:

- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate Zuzendaritza;
- hiru foru aldundiak;
- hiru hiriburuetako udalak;
- beste udal eta mankomunitate batzuk, hala nola Eibar, Audio, Tolosa eta Lea Artibai;
- Cáritas eta Gurutze Gorria.

Gai laboral eta enpresarialak aztertzeko egin zen bigarren bileran bildu ziren etxez etxeko laguntzarako bost enpresatarako teknikariak -ASAD, Arabako Laguntza, Servicios Sociales Integrados, Etxe Laguntza eta Guztiontzat- eta UGT, LAB, ELA, ESK-CUIS eta CC.OO. sindikatu etako ordezkariak. Sindikatuei dago-kienez, azpimarratu behar da Euskal Autonomia Erkidegoa jarduera eremutat daukaten guztiak gonbidatuta zeudela bileran parte hartzera.

Aztertu beharreko arazo nagusiak finkatu ondoren, galdeketak diseinatu ziren. Galdeketa horiek hirugarren fase batean erabiliko ziren, aztertu behar zen sailean zuzenki murgilduta dauden lau alorrak sakonki aztertzeko bide emango zutelarik. Hauek dira aipatutako lau alorrak: teknikariak, Administrazio Publikotik zerbitzua gestionatzen dutenak; enpresa partikularretako arduradunak, sarritan azpikontratazio bidez zerbitzu horien kargu daudenak; adinekoei laguntzeko eguneko zentro etako arduradunak; eta azkenik, etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen dutenak. Lehenengo hiru kasuak aztertzeko unibertso osoarekin egin zen lan.

Gaur egun Administrazio Publikotik etxez etxeko laguntza gestionatzen duten 144 teknikariei egin zitzaion itaunketa ondorengo gaiet buruzko informazioa biltzearren:

- zerbitzuaren antolaketa,
- zerbitzua jasotzeko baldintzak,
- norabideak eta araudiak,
- zerbitzuaren ezaugarriak eta laguntza-motak,
- datu estatistikoak eta funtzionamendua,
- premien ebaluaketa, eta
- langileen ezaugarriak, zegokien kasuetan bakarrik, hau da, langileak Administrazioak zuzenean aukeratuak eta kontratatuak ziren kasuan bakarrik.

Sail horretan administrazioen eskariz lanean ari ziren 29 enpresei ere egin zitzaizen galdeketa, eta bereziki lan alorreko gaiak azpimarratu ziren: kontratazio baldintzak, soldata mailak, ordutegiak, langileen prestaketa, etabar.

Azter zitezkeen gaien artean, besteak beste honako hauek finkatu ziren: egoitzez kanpoko zerbitzuen eskaintza urria, eta ondorioz eskari asko bete gabe utzi beharra; egoitzez kanpoko zerbitzuei buruz adinekoek daukaten informazio falta; etxez etxeko laguntzan aritzen diren langileen egoera, beraien zereginen eta lan baldintzen definizio eza eta soldata arazoak.

Etxez etxeko laguntzaz baliatzen direnen azterketa burutzeko lagin-teknikak erabili behar dira; teknika horiek lurralde historiko ezberdinetako zerbitzu-hartzaileen egoera adierazteko aski errepresentagarriak izan behar dute, ondoren Euskal Autonomia Erkidego mailan ondorioak ateratzeko.

Horrek, zerbitzu-hartzaileen etxeetara joatera behartzen gintuen, etxean bertan galdeketei erantzun ziezaieten. Era berean, administrazio ezberdinetara ere galdeketak bidali ziren, zein zerbitzu eta nola araututa zeuden ezagutzeko.

Inkesta egiteko oinarritzat hartu zen galdesortak ehun eta berrogeita hamar galderatik gora zituen eta bere helburua zerbitzuaren aspektu kuantitatibo eta kualitatiboak, zerbitzu-hartzaileen premiak eta premia horiei eskaintzen zitzaizen arreta ezagutzea zen. Zehazkiago, behatu nahi ziren aspektuak hauek ziren:

- Familiako eta gizarteko giroa: habitataren baldintza materialak -auzoa, etxebizitza, instalazioak, zerbitzuak, mugak, etabar-, familia mota eta zerbitzu-hartzaileak familian jokatzeko zuten papera, familiako kideen ezaugarriak.
- Zerbitzu-hartzaileek zeukaten autonomia pertsonala eta inguruak konpondu dizkion arazoak. Eguneroko jardueri eskaintzen zitzaizkien hogeita hamazazpi galderen bidez, adinekoaren gaitasuna neurtzeaz gain, eduki dituen edo daukan gabeziak betetzeko gertuko bere girotik jaso duen laguntza ere neurtu nahi izan zen.
- Zerbitzuaren ezaugarriak: ordutegia, egindako lanak eta zerbitzu-hartzailearen beharretarako egokitzapena.
- Zerbitzu-hartzaileak hartu duen laguntzari buruz duen iritzia.
- Adinekoak beste zerbitzu-aukera batzuk ezagutzen ote dituen eta egoitza batean sartzeari buruz duen jarrera.

Inkesta 1995eko martxoan egin zen EMAIKER, S.L. Azterketa Soziologikoetarako Kabineteak eta 505 zerbitzu-hartzailearen etxebizitzetan burutu zen:

une hartan zeuden 100 zerbitzu-hartzailetatik %6,3. Emaizta osoetarako espero den errore-tartea Autonomia Erkidego mailan %4,99 da.

Bestalde, txosten hau 1995eko azaroan bukatu den arte Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoei laguntzeko dauden 22 eguneko zentroak bisitatu ziren, kopuruak ematen baitzuen horretarako aukera, eta guztietan informazio bera jaso zen: inguru fisikoaren baldintzak, zerbitzu eta langile zuzkidura eta praktika profesionalak.

Esan behar da ikerketari ekin zitzaionean 13 eguneko zentro zeudela Euskal Autonomia Erkidegoan; kopuru hori 22ra igota zegoen txosten hau amaitu zenean.

Ikusten da, beraz, eguneko zentroak sortzeko joera badagoela; zentro horiek normalean udal mailakoak dira eta egoitza edo zahar-etxe bat dagoela aprobetxatuz irekitzen dira, eta litekeena da, ondorioz, txosten hau argitaratzerako beste batzuk martxan jarrita egotea.

Zentroetara egindako bisiten bidez, lehen esan bezala, eguneko zentroa kokatutako eraikinaren egoera materiala eta bete bahar dituen zereginetarako daukan egokitasun maila ikusi nahi ziren, giza zerbitzu horretaz baliatzen diren zerbitzu-hartzaileen egoera aztertzearekin batera.

Ararteko erakundeko ordezkariak ondorengo eguneko zentroak bisitatu dituzte:

ARABA	
AJURIA EGUNEKO ZENTROA	GASTEIZ
ARANA EGUNEKO ZENTROA	GASTEIZ
SAN PRUDENCIO EGUN. ZEN.	GASTEIZ
TXAGORRITXU EGUN. ZEN.	GASTEIZ
TXAGORRITXU E.Z. PSIKOGE.	GASTEIZ

BIZKAIA	
EGUNON ETXEA EGUNEKO ZENTROA	BILBO
TXURDINAGA EGUNEKO ZENTROA	BILBO
EGUNEKO ZENTROA	MUSKIZ
UDAL EGUNEKO ZENTROA	ORTUELLA
EGUNEKO ZENTROA	PORTUGALETE

GIPUZKOA	
EGUNEKO ZENTROA	DEBA
MATIA EGUNEKO ZENTROA	DONOSTIA
LAGUNTZA-ETXEA	DONOSTIA
NTRA. SRA. DE LAS MERCEDES	DONOSTIA
EGUNEKO ZENTROA	EIBAR
EGUNEKO ZENTROA	HONDARRIBIA
UDAL EGUNEKO ZENTROA	IRUN
EGUNEKO ZENTROA	LEGAZPIA
EGUNEKO ZENTROA	PASAI
EGUNEKO ZENTROA	ERRETERIA
EGUNEKO ZENTROA	TOLOSA
EGUNEKO ZENTROA	URRETXU

Eguneko zentroetara egindako bisitetatik eta zentro horietan egindako galdeketetatik ateratako emaitzekin, Euskal Autonomia Erkidegoan zentro horiek daukaten errealitatea zentuz ezagutzeko aukera izan da.

### **2.1.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAUDEN HIRU KARTZE- LETAKO EGOERARI BURUZKO AZTERKETA MONOGRAFIKOA**

1995eko uztailetik abendura bitartean, Arartekoak zenbait ekintza burutu ditu, ofizioz, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru kartzelen egoera hobeto ezagutzeko asmoz. Ekintza horiek ofizioz hasi genituen, Ararteko erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 17.1 artikulua dioenari jarraituz.

Ohiko txosten hau osatzen ari den unean (1996ko lehen hiruhilabetekoan), aldi berean Euskal Erkidegoko hiru kartzelen egoerari buruzko txosten berezi bat prestatzen ari da, Eusko Legebiltzarrari 1996ko martxoan helaraziko zaiona. Hortaz, txosten berezi horretarako utziko dugu egindako lanaren oinarriko edukien azalpena -egoeraren deskribapena eta diagnostikoa eta proposatutako hobekuntzak barne direla-, eta hemengo honetan haxe baino ez dugu egingo:

- 1) egindako ekintzak bere testuinguruan kokatu eta justifikatu;
- 2) aukeratu dugun proposamen metodologikoa argitu; eta
- 3) 1995eko bigarren seihilabetekoan (txosten honetako denbora-tartean) egindako pausoak labur azaltzea.

## **1- Ekimenaren testuingurua: alor penitentziariorako lankidetzaz hitzarmena eta etorkizunerako espero diren transferentziak**

- \* Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoeraren berri jakiteko eta aztertze erabakia hartu zuen bete-betean uste zuelako presoak egoera sozial eta pertsonal txarrean dauden pertsonak direla. Beste alde batetik, gure ekimenaren aurreko hiletan (1995eko lehen erdian), bai eta ekimena martxan zegoen bitartean ere (urte horretako bigarren erdian), presoek arduratzeko egitarauak gauzatzen ari diren edota presoek eskubideen aldeko lana egiten duten hainbat talde eta elkarte erakunde honetara hurbildu ziren beren arazo edo kezkak azaltzeko, eta Arartekoaren eskuhartzea eskatzeko. Horiek horrela, argi egon arren Arartekoaren ekimenak zailtasun eta muga batzuk aurkituko zituela esparru honen gestioa Estatuaren Administrazioaren eskumenekoa delako, gure erakundeak ofiziozko ekimen bat hasi zuen, pertsona horien egoera hobetzen laguntzarren.

Gizarte demokratikoen ezaugarria da kartzela zigorraren bidez eragiten den pairamena ahalik eta txikiena izatea. Horrela, espetxeratuta dauden pertsonak nolako egoeran dauden azaltzea, preso egoteak egitan dauzkan ondorioez jabetzea eta, geroago, informazio hori Legebiltzarrari eta gizarte osoari jakinaraztea bide egokia izan daiteke hiritarrek ondo jakin dezaten nolako kalteak eragiten dituen kartzelak, giza mailan eta gizarte mailan, eta, halaber, beharrezkoa dela zigorraren ordezkotako beste aukera batzuk erabiltzea, pertsona hauek beren erantzukizun pertsonala onartzea eta haien bergizarteratzea lortzarren, baina delituak jasaten dituztenen interesak eta eskubideak ahaztu gabe.

- \* Autonomi Estatuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak aginpide osoa duen arren «kartzelen eta bergizarteratzeko zentroen antolaketa, erregimen eta funtzionamendu» alorrean, horri dagozkion betekizunen transferentziari ez zaio oraindik ekin. Ildo honetatik, Eusko Legebiltzarrak prestatu zuen Burutu gabeko Transferentzien Negoziaketarako Lehen-tasunei buruzko Txostenean (Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, 95-10-17koa), lehentasuna duten transferentzien artean sartuta dago espetxeena.

Jakina denez, Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik ez du bere gain hartu kartzelen inguruko aginpidea. Hala eta guztiz ere, 1994ko apiriletik aurrera, indarrean dago «Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak alor penitentziariorako izenpeturiko Hitzarmen Nagusia» delakoa. Hitzarmen horren arabera, bi administrazioek batera lan egingo dute interes handiko alor batzuetan: esaterako, presoentzako osasun laguntzan, heziketan, lanerako prestakuntzan edota gizarteratzean. Hortaz, Arartekoaren ekintza hau hitzarmen horren ildotik ulertu beharra dago, haren eskumenen artean baitago hitzarmen hori izenpetu duen alde baten iharduera kontrolatzea, euskal Administrazioaren iharduera, alegia.

Hitzarmen horren bidez, bi erakundeek elkarlanean hasi nahi dute «Espainiako Konstituzioak eta indarrean dauden legeek kartzela zigorrerako ezartzen dituzten helburuak lortzeko, hau da, espetxeetan preso daudenen berreziketa eta bergizarteratzea lortzeko» (hitzarmenaren lehen klausula).

Haren indar-esparrua Euskal Erkidegoko hiru espetxeetan (Basauri, Martutene eta Langraizkoan) dauden preso guztiak dira, eta zazpi alorretan banatuta dago bi administrazioen arteko lankidetzak: informazioa, heziketa, lanbide heziketa eta enpleguaren suspertzea, suspertze pertsonala, osasun laguntza, laguntza soziala eta erregimen irekia.

Hitzarmen hau **erakundeen arteko lankidetzarako lanabes** bat da, balio handikoa izan daitekeena, azterketan nabarmendu den bezala, puntu asko ukitzen dituelako, haietako batzuk garrantzi handikoak. Gainera, lanabes horrek eskaintzen dituen aukera guztiak benetan gauzatu ahal izango badira, beharrezkoa izango da alderdi guztiak beraien baliabideak eskaintzeko gai izatea, bai eta, urtez urte, ekintza eta egitarau zehatzen bidez beraien lan-ildo nagusiak mamitzeko ere.

Eusko Legebiltzarrak zehazki jakin ahal izan zuen zein izan diren 1994an egindako ekintzak eta 1995erako iragarritakoak, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzak bere erantzuna bidali zuenean, Ezkerria Unida / Ezker Batua Talde Parlamentarioak «Eusko Jaurlaritzaren eta Justizia Ministerioak alor penitentziariorako izenpetutako Hitzarmen Nagusia betetzeko jarritako baliabideak» zehazteko informazioa eskatu ondoren.

Dena dela, kontuan izanda hitzarmenean bildutako edukiak nahiko zabalak direla eta, orobat, izenpetu zenetik denbora gutxi igaro dela, bere benetako garapena txiki samarra da oraindik, espero izatekoa zen bezala. Esperokizun hori egiaztatu egin ahal izan dugu gure ikerlana egin dugun bitartean. Esan daiteke, beraz, hitzarmena oraindik praktikan jarri ez diren asmo batzuen adierazpen bat baino ez dela, neurri handi batean; hau da, **eskaintzen dituen aukerak oraindik gutxi garatuta dituen lanabes bat dela.**

- \* Bestalde, kartzela zigorren betearazpenaren alorrean burujabe izatea ezinbesteko baldintza da euskal erakundeak politika penitentziariorako eredu orokor baterantz joan daitezen. Alor honetan burujabe izanik, instalakuntzak zaharberitu eta pertsonal mailako hutsuneak konpondu ahal izango dira, baina, batez ere, aukera edukiko da arazoaren sustraiei begiratzuz zigorrak betearazteko eredu egokia martxan jartzeko, erantzunak behar desberdinen arabera moldatuz.

Horregatik, prestatzen ari garen txostenean etorkizunera begirako ikuspegia erabiltzen dugu, euskal administrazioaren agintepeko oraingo esparruari dagozkion gaietara soilik mugatu gabe. Izan ere, oraingoa oso une garrantzitsua da, badirudielako laster Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartuko dituela alor



penitentziarioko eskumenak. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak eta gizarteak berak eskumen horiek nola hartuko dituen aztertu beharra dago. Arartekoaren ustez, gauzarik funtsezkoena ez da langileriaren eta bitarteko materialen transferentzia, baizik eta eskumen horrek dakarren burujabetasuna, hots, alor honetarako berrikuntzak eta antolakuntza berriak erabakitzeko ahalmena. Euskal Autonomia Erkidegoak aukera edukiko du orain giza eskubideen errespetuan sakontzen joateko, zigorrak betearazteko bere eredu berezia taiutuz. Eta Arartekoaren txosten bereziak horretan lagundu nahi du.

Txosten bereziaren bitartez gure erkidegoko kartzelen errealitateaz egin nahi den azterketa orokorra, beraz, gaur egun euskal administrazioak alor honetan daukan aginpideak beren testuinguruan jartzeko ahalegin bat da. Arartekoaren ekimen honek, ezer baino lehen, errealitate hori hobetzea bilatzen du, baina urrutirago ere iritsi nahi du. Eskubideak bermatzeko betekizuna duen erakunde honek giza eskubideak errespetatu egiten direla ziurtatu behar du, eta, kartzelak presoek eskubide horiei zor zaien errespetua zailtzen duen neurrian, zigor penitentziarioa erabat beharrezkoa den gutxienezko mailaraino murriztea proposatu behar du. Euskal espetxeak nolako egoeran dauden jakiteak lagundu behar du giza eta gizarte mailako kostu txikiagoa daukaten bestelako neurri alternatiboak -kartzela zigorraren ordekoak, alegia- hartzeko.

## **2- Erabilitako lan-metodologia**

Arartekoaren ekimena bere testuinguruan txertatu ondoren, hau da, hitzarmen nagusiaren arabera eta alor penitentziarioko eskumen osoak jasotzeko itxarokizunaren arabera azaldu eta gero, hona hemen gure lanaren oinarri gisa erabili den metodologia.

Espetxeak ikustera joan aurretik, bai eta halako lan-metodo bat aukeratu baino lehenago ere, zenbait puntu landu genituen, batez ere:

- Azterketarako eskema bat landu.
- Datuak biltzen lagunduko zuten lanabesak prestatu.
- Informazio-iturriak triangulatzeko aukera planteiatu.
- Prozesuaren simulazioak egin.
- Lehentasunak finkatu: aurretiaz oinarrizkoak izan zitezkeen puntuak aukeratu.
- Lan-egutegia eta denbora-epea zehaztu...

Barne-antolaketa argitzeko lan hori burutu ondoren ikusi zenez, proposatzen zen ekimenak honako ezaugarriak eduki behar zituen:

- . erabili beharreko metodologiak bai erdi-egituratutako elkarrizketak eta baita behaketa ere onartu behar zituen lehen informazio-iturri moduan;
- . erabilera (jasotzaile) desberdinak eduki zitzaketen datuak eskaini behar zituen;
- . arreta berezia eman behar zien hitzarmen nagusian bildutako edukiei;

- . aukera eman behar zuen beste informazio-iturri batzuekin konparatu eta triangulatzeko;
- . espetxe bakoitza azter-unitate gisa hartu behar zuen, besteekin lotuta, baina bere izaera bereziarekin;
- . ararteko erakundeko langileek egun-ordu kopuru onargarri batean egiteko modukoa izan behar zuen, beste enpresa batzuetara edo laguntzaile batzuegana jo beharrik gabe;
- . eta eginiko ikustaldien arabera berraztertu eta geroagoko lanetarako abiapuntu gisa erabiltzeko modukoa izan behar zuen.

Jakina, baziren beste aukera metodologiko batzuk erabil zitezkeenak, baina arrazoi desberdinengatik baztertu genituen. Beharbada, proposamen metodologiko honen alderdirik aipagarriena zera da: lehentasuna ematen diela presoekin egin beharreko elkarrizketei, lehen informazio-iturri gisa. Izan ere, pertsona horiek halako zerbitzu (zerbitzu penitentiario) baten erabiltzaileak dira, eta, berez, ezer baino lehen haien iritzia entzun behar da, zerbitzu hori baloratzeko orduan.

Esan gabe doa, aukeratutako metodoak mugak ere baditu. Baina, dena dela, guztiz garrantzitsua iruditu zitzaigun Arartekoa bezalako erakunde eskubide-bermatzaile bat askatasunik ez dutenen «bozeramale» bihurtzea, haien iritziak eta bizipenak jasoz, eta espetxeetako bizimoduaren alderdi gizatiarragoak azpimarratzea, eta ez juridikoak soilik.

Lanaren beraren ezaugarriengatik eta, orobat, Arartekoak berez hala nahi zuelako, garbi utzi nahi dugu azterketa hau Ararteko erakundeko langileek burutu dutela zuzenean, beste inongo zerbitzuen bitartekaritzarik gabe.

### **3- 1995. urtean egindako pausoen azalpen laburra**

#### **A/ Bisitaldiak egin aurreko pausoak**

Espetxeak ikustera joan aurretik, halako pauso batzuk egin genituen, haien artetik hauek direlarik aipagarrienak:

##### **a) Erakunde arduradunekin egindako gestioak**

Baimena eskatu genion Arazo Penitentiarioetarako Estatu Idazkaritzari, eta argitasunak emateko lehen kontaktu bat eduki genuen hiru espetxeetako zuzendariekin. Herriaren Defendatzaileari eta Eusko Jaurlearitzaren Justizia Sailburuari ere jakinarazi genien gure ekimenaren berri.

Orobat, bisitaldiak hasi baino lehen, Langraizko tratamendu-taldeko pertsona batzuekin harremanetan egon ginen, haiekin gure ekimen-proposameneko puntu batzuk aztertu eta zalantza metodologiko batzuk argitzearren.

##### **b) Lanerako erreferentzi puntu gisa kontutan eduki beharreko oinarriko arautegi eta dokumentazioa**

Atal honetan, honako arau eta agiriok aztertu genituen, besteak beste:

- 1978ko Espainiako Konstituzioa.
- Euskadiko Autonomia Estatutua (3/79 LO, abenduaren 18koa).
- Espetxeetarako Lege Organiko Orokorra (1/1979 LO, irailaren 26koa).
- Erregimen Penitentiarioaren Arautegia (1.201/1981 Erret Dekretua, maiatzaren 8koa).
- Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak alor penitentiarioarako izenpetutako hitzarmen nagusia, 1994ko apirilaren 18koa (EHAA, 1994ko urriaren 5koa).
- Hitzarmen nagusia betetzeko jarritako baliabideei buruzko eskariari Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak emandako erantzuna (erantzunak Eusko Legebiltzarraren erregistroan jasotako sarrera-eguna: 1995-03-29) (Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, 1995eko otsailaren 24koa).
- Herriaren Defendatzaileak «Espainiako egoera penitentiarioaz» egindako txostena, 1988koa.
- Presoek eta senitartekoez Arartekoari aurkeztu eta Herriaren Defendatzaileari bidalitako kekek.
- Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideetarako Batzordearen aurrean egindako agerraldiak, ikustaldiak eta azaldutako kekek...
- Presoentzako tratuari buruzko gutxienezko arauak eta arau horiek benetan aplikatzen direla ziurtatzeko prozedurak (Nazio Batuak, 663/1957 Ebazpena eta 47/1984 Ebazpena).
- Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen (73)5 zki.ko Ebazpena, atxilotuentzako tratuari buruzko gutxienezko arauari buruzkoa.
- Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak estatu kideei egindako R (87)3 zki.ko Gomendioa, Europako arau penitentiarioei buruzkoa.
- Europako Batzordeak torturari eta gizatasunaren aurkako tratu iraingariei aurre hartzeko egindako txostenak (Espainiara 1991 eta 1994an egindako bisitaldiei buruzkoak).
- Kartzenen Nazioarteko Behatokiak espetxeratuen atxilotze-egoerari buruz egindako txostena (1994).
- Kartzelei eta politika penitentiarioari buruz beste ombudsman batzuek egindako txostenak eta bibliografia orokorra.

#### **c) Konpromezu deontologikoak argitzea**

Gutxienezko baldintza hauek ipini genituen:

- helburuak zehaztea inplikaturiko guztiei;
- argibide-emateen anonimotasuna bermatzea;
- presoek beren borondatez onartzea elkarrizketak;
- zuzenean inplikaturiko guztiei «informazioa itzultzea».

#### **d) Beste aukera batzuk kontutan hartzea**

Egon zitezkeen beste aukeren artean, honako hauek aztertu genituen: txosten osagarriak eskatzea; beste erakunde batzuen ordezkariekin batera

lan egitea; diziplinarteko ikuspuntua erabiltzea... Aukera hauetako gehienak baztertua geratu ziren, zeren eta, interesgarriak izan arren, are zailtasun gehiago ipintzen baitzizkioten berez nahiko konplexua zen eta denbora luzeegia igaro gabe bukatu nahi zen prozesu bati. Gainera, haietako asko ez ziren ondo moldatzen Ararteko erakundearen ezaugarrietara, eta nekez laguntzen zuten planteiatutako lana erakundeak berak zuzenean egiten, hau da, beste bitarteko instantzia batzuetara jo gabe.

## **B/ Espetxeetara egindako bisitak**

Lehen informazio-iturri gisa geure oharpenak eta kartzelaren erabiltzaileekin (hots, preso dauden pertsonekin) egindako elkarrizketak erabiltzeko aukera metodologikoari jarraituz, honako **garapen kronologikoa** egitea komeni zela ikusi zen:

- Aldez aurretik: espetxeko zuzendariarekin hitz egin.
- **Ikusi:** modulo guztiak bisitatu eta instalakuntzak eta ekitaldiak aztertu.
- **Presoekin hitz egin:** preso batzuekin banan-banan hitz egin, espetxe bakoitzeko lagin moduan.
- **Lantalde, funtzionario eta zuzendaritzarekin bildu.**

Hasieran, egun desberdina jarri zen goian aipatutako lau puntuetako bakoitzerako. Hau da, lau egun desberdin, haien artean behar bezalako tartea utziz, hiru espetxeetako bakoitzerako. Geroago egiaztatu ahal izango den bezala, hasierako asmo hori ez zen nahikoa izan eta, kasu batzuetan, egun gehiago erabili behar izan genituen bisitaldietan. Izan ere, lan hau egin ahal izateko, uztailetik abendura bitartean 17 egun desberdinetan egon behar izan zuten bertan erakunde honetako pertsona batzuek: Arartekoak berak, Ondokoak eta erakundeko aholkulari batek.

**Aipatutako lau pausoei buruzko ohar batzuk** egitea komeni da:

\* **Aurretiaz espetxeko zuzendariarekin egin behar zen elkarrizketaz**

Bi helburu zituen: 1) Arartekoaren ekimenaren helburuak, metodologia eta pausoak argitu eta zehaztea; eta 2) espetxe bakoitzari buruzko oinarriko argibide (datu) batzuk biltzea.

\* **Moduloetara egin beharreko bisitaldiaz eta instalakuntza eta ekitaldien azterketaz**

Modulo guztiak bisitatzea planteiatu zen, arreta berezia emanaz hitzarmenaren edukiarekin lotura zuzena zeukaten instalakuntza edo ekitaldiei: eritegia, eskolak, lantegiak...

\* **Presoekin egin beharreko elkarrizketez**

Presoak aukeratzeko orduan, honakoa erabaki zen: modulo bakoitzeko zerrendetatik zozketan lortutako izen batzuk ateratzea; borondatearen eta antzinasunaren arabera zuzentzea (espetxeetara sartu berriak kanpoan utziz); eta hasieran aurrikusitako tipologiarekin konparatzea (zerrenda hori bigarren buelta batean osatu, egoera desberdineko irudia erdietsi ahal izateko: gazteak, emakumeak, atzerritarrak...).

Elkarrizketak egiteko lekua aukeratzeko orduan, espetxe bakoitzeko zuzendaritzarekin hitz egin genuen, eta modulo bakoitzean zeuden langela itxiak edo sarrerako pasabideak erabiltzea erabaki genuen.

Zer esanik ez, elkarrizketa erabat isilpekoa izango zela ziurtatu zitzaien guztiei. Bestalde, aukera eman zitzaien bai euskaraz, bai erdaraz, edota beste hizkuntza batzuetan (baina arazo gehiagorekin kasu honetan) hitz egiteko ere.

Elkarrizketa bakoitzaren berri jasotzeko protokolo simple bat erabili zen, ondoko hiru puntu hauek azpimarratzeko: 1) interesguneak; 2) arazoak eta kekek; eta 3) eman litezkeen pausoak.

Elkarrizketatu genituen pertsona askok azaldu zizkiguten arazoak askotan pertsonalak ziren, baina, hala ere, informazio oso baliagarria ematen zuten txostenaren helburu nagusietarako, eta, gainera, Arartekoa bezalako erakunde eskubide-bermatzaile baten nolabaiteko gestio bat eragin zezaketen. Kasuak banan-banan aztertu ondoren, hiru ekintza mota finkatu genituen:

- Elkarrizketatu genuen pertsonarengana zuzenean jo eta bere kasurako baliagarritzat hartzen genuen informazioa eskatu.
- Kasu horiek erakundeak gestionatu ohi dituen kexa espediente baten antzera bideratu, eta, beraz, askatasun osoa duen edozein hiritarri emango litzaiokeen antzeko erantzuna eman.
- Kasurik aipagarrienak espetxeko zuzendaritzarentzako idazki batean bildu, haien berri emateko eta zuzendaritzaren aginte-esparruan gertatzen diren egoerei emateko moduko irtenbideak bilatzeko.

Hala, bada, elkarrizketak egin eta ondoko asteetan, kasu horietako batzuk konpontzearen, halako gestio batzuk egin ziren: telefono deiak, elkarrizketatutako presoetako batzuei informazio idazki batzuk bidali, espetxe bakoitzeko zuzendaritzari bidalitako gutunak... Txosten hau osatzen ari zen unean, planteiatutako arazoetako batzuk konpondu egin dira, eta beste batzuk oraindik ez.

#### \* **Lantalde, funtzionario eta zuzendaritzarekiko bilerez**

Hitzarmenaren edukia kontutan hartuz, guztiz beharrezkoa iruditu zitzaigun honako hiru lantaldeekin behintzat biltzea:

- tratamendu taldearekin
- irakasle taldearekin
- sendagile taldearekin

Gainera, espetxe bakoitzeko zuzendaritzak azaldutako irizpidearen arabera, drogazalatasunez arduratzen den lantaldearekin eta funtzionarioen ordezkariekin ere bildu ginen.

Bilera hauetan hauxe egin zen:

1. Bakoitzaren ardurapeko alorreko arazo, proposamen eta ekintzak aztertu (osasuna, heziketa, informazioa...).
2. Elkarrizketetan presoek azaldutako keaxak edo proposamenak eta lantaldeetako kideen iritzia alderatu.
3. Beraien egoera profesionalaz edota espetxeari buruzko gai orokorrez lantaldeetako kideek azaldutako arazo, kexa edo hobetzeko proposamenak jaso.

## **C/ Preso dauden pertsonen aldeko elkarteekin eginiko bilerak**

Abenduan, halako bilera batzuk egin genituen preso dauden pertsonen laguntzeko egitarauetan parte hartzen duten elkarte eta talde batzuekin. Txosten honetako 2.2.1. atalean jasota dago bilera horietara deitu genituen elkarte horien zerrenda, baina haien ekarpenak ezagutzeko, txosten berezira jo behar da.

Joan den urteko uztailetik abendura bitartean espetheen egoerari buruzko argibideak lortzeko egindako pauso nagusiak laburbilduz, zera esan genezake:

- Hiru espetxeetako **instalazioak** (zeldak, erabilera amankomuneko lekuak, eritegiak, moduloak...) eta **ekintzak** (lantegiak, klaseak...) ezagutzeko hainbat **bisita** egin ziren.
- Hiru espetxeetako **114 preso elkarrizketatu ditugu** (zoriz aukeratu zirenak preso guztien lagin gisa, eta elkarrizketatuak izatea eskatu zutenak).
- Hamabost **bilera egin ziren espetxe bakoitzeko zuzendariekin eta lantaldeekin** (sendagileak, irakasleak, tratamendu-taldeak...).
- Preso dauden pertsonen aldeko egitarauetan sartuta dauden hogeita hamar bat **elkarte eta talderen** ahozko eta idatzizko ekarpenak ere eduki ditugu. (Ikus elkarteen zerrenda 2.2.1. atalean).

Horregatik guztiagatik, erakunde honek lan handia egin behar izan du hainbat pertsonal erabiliz eta baita Arartekoa bera, Ondokoa eta erakundearen aholkularietako bat espetxeetara joanez ere, guztira **17 egunez**, sei hilabetez zehar.

Egia esateko, garbi adierazi nahi dugu hilabeteotan gurekin lanean aritu diren erakunde arduradunek eta pertsona guztiek oso jarrera ona eta lanerako borondatea erakutsi dutela eta lana erraztu digutela: hain zuzen, zuzendariak, zentroetako talde profesionalek, presoek, zenbait elkartetako ordezkariak... Hona hemen gure esker onaren adierazpena, batez ere beren lana egiterakoan pertsona horietako askok izaten dituzten zailtasunak egiaztatu ahal izan ditugulako.

Atal hau amaitzeko, orain bertan esan dezakegu Arartekoak Eusko Legebiltzarrari kartzelen egoeraz aurkeztuko dion txosten bereziak hiru zati nagusi edukiko dituela:

- . Lehendabizikoa metodologikoa: bertan Arartekoak egin duen lanaren ezaugarriak eta mugak azalduko ditugu.
- . Bigarrena azalpenezkoa: gure ekimenean antzeman ditugun arazo nagusiak azaldu, eta, batez ere, hiru espetxeetan jasotako kexa eta iritziak bilduko dira.
- . Hirugarren zatian ondorioak emango dira batez ere, eta Arartekoak proposamen batzuk egingo dizkie erakunde arduradunei Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoera hobetzeko.

Lan hau hobeto ezagutzeko, txosten berezira jotzea gomendatzen dugu.

### **2.1.3. EAEn ADIN-TXIKIKO LEGE-HAUSLEEI ETA ADIN-TXIKIKO BABESGABEEI LAGUNTZEKO DAGOEN SISTEMARI BURUZKO TXOSTENA**

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan adin-txikiko asko eta asko dago zuzen-zuzenean erakunde publikoen babespean, tutorepean edo, behar izanez gero, zainpean. Horietatik gehienak famili giro gatazkatsuetatik datoz eta bi mailatan sailkatzen dira: alde batetik, adin-txikiko babesgabeak deritzenen egoera daukagu; horiek babestea hiru lurralde historikoetako foru aldundien ardura da eta famili harreraren bidez edo egoitzen bidez (zainpeko etxebizitzak eta haurrentzako egoitzak) ematen zaie laguntza. Beste alde batetik, adin-txikiko lege-hausleak deritzenak daukagu, Kode Penalean jasotako delituak egin dituztenak, eta horiei laguntzeko ardura Eusko Jaurlaritzak du, adin-txikikoen epaitegien ekimenean oinarrituz.

Erakunde horiek berek eskuratu dizkiguten datuen arabera, 1995ean foru aldundien menpeko haurrentzako zerbitzuek ia 1.200 adin-txikikori eman zieten arreta -374ri famili harreraren bidez eta 817ri egoitzetan-. Adin-txikiko lege-hausleen kopuruaz askoz ere datu gutxiago dago: alde batetik, kopuru horretan ez dira sartzen zenbait kasu, hain zuzen adin-txikikoen epaitegietan oharpena edo zainpeko askatasuna edo hauen ordezkoko neurriak (adibidez, guztiei ardura zaizkien lanak egitea komunitatearen alde) ezarri diren kasuak; bestetik, kopuru horrek 1995eko azaroan zeuden barneratze-kasuak biltzen ditu eta, zigorren iraupena oso laburra dela kontuan harturik, kopuru hori izugarri alda daiteke.

Adin-txikikoez arduratzeko gaur egun dagoen eredia eztabaida-iturri izan da azken urteotan. Honako hauek izan dira eztabaidagai: indarrean dagoen aginpide-banaketa egokia ote den, erakunde arduradunen jardun-bideak, lurraldeen araberrako ezberdintasunak, gizarte zerbitzuek beste era bateko zerbitzuekin (heziketa edo osasun zerbitzuekin, esaterako) koordinatzea, hain zuzen prozesuaren funtsezko aldiekin (kasu horiek antzematea eta gertutik ikuskatzea, edo famili giroan burutzen diren ekimenak zenbateraino diren eraginkorrak) zerikusirik duten zerbitzuekin.

Oro har, auzi horiek direla eta, zalantzan jar daiteke sistemak ondo funtzionatzen ote duen eta badirudi komenigarria izango litzatekeela gaur egungo

ekimen-eredua aztertzea. Azterketa horren lehen zatian haxe ikertuko litzateke: eskumen-banaketa egokia den ala ez, eta kasu horiek antzeman, atenditu eta gertutik ikuskatzeko prozedurak bateratuak, erabatekoak eta eraginkorrak diren ala ez. Bigarren zatian, aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko zerbitzuetan atenditzen diren adin-txikikoak zein egoeratan dauden neurtuko litzateke, alde batera utziz famili harrerapean daudenak, bide honek ia beti adopzio-aurreko egoera adierazten baitu; orobat, zati honetan neurtuko lirateke famili giroan burututako ekimenak, adin-txikikoa bere familiarengandik aldi baterako banatzea eragin zuten istiluak konpontzeko asmoz.

Txosten hau 1996an bukatuko da eta urte berean emango zaio Eusko Legebiltzarrari.

## **2.2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPECTATUKO DITUEN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN LOTURA IZANGO DUEN KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO EKIMENAK**

### **2.2.1. TALDE, ELKARTE ETA GIZARTE ERAGILEEKIKO LANKIDETZA HARREMANAK**

Gure gizartearen ezaugarri positibo eta pozgarrienetako bat elkartean, taldeetan eta gizarte eragileetan ia beti borondate hutsez eta interesik gabe parte hartzen duen pertsona kopuru handia da. Elkarte eta talde horiek egoera txarrean bizi diren pertsonak babesteko edo gizarte arazo ezberdinak konpontzeko egiten dute lan, eta horrela era askotakoak dauzkagu: talde bakezaleak, elbarrien elkar-teak, emakumeen, hirugarren adinekoen, atzerritarren laguntzarako, presoentzako, drogamenpekotasun arazoak dituztenentzako laguntza taldeak, eta abar. Gure erkidegoan dagoen elkarte multzoa gure gizartearen bizitasunaren adierazle da, eta aldi berean erakunde publikoen eta gizarte osoaren arteko harreman-bide pribilegiatua ere bada.

Ararteko erakundetik iazko urtean elkarlanerako espazioak zaindu eta talde ezberdinekin harreman sistematikoak bilatu dira. Horretarako, batzuetan esku-hartze eskariak edo talde horiek erakundearen aurkeztu dituzten kexak aprobetxatu dira; beste batzuetan, berriz, erakundearen izan da zuzenean harremanak eta informazio trukaketak sustatu dituenak.

Ararteko honek publikoki adierazi nahi du gure erkidegoko gizarte eragileekin harremanak izateko duen borondatea. Horretara ondorengo arrazoiek bultzatzen gaituzte: talde horien gizarte lanari erakundeak ematen dion garrantzia, eta horiek egiten duten lanak daukan balio biderkatzailea eta eredu-emailea. Arartekoa bezalako erakunde bermatzaile batentzat, gure erkidegoko pertsonen osaturiko elkarteak egiazko gizarte-antena dira, beste era batera inork ikusiko ez litzukeen arazoak eta egoerak antzemateko eta ezagutzera emateko aukera ematen duten sentsoreak.



Ez da ahaztu behar, beren eskubideen defentsarako kekekin gurea bezalako erakundeetara etortzen diren pertsonak sarriegitan ezaugarri eta maila sozial jakin batekoak direla. Askotan defentsa premiarik handiena daukaten pertsonak dira, hain zuzen, erakunde honetara jotzen ez dutenak: haren berri ez dakitelako, dagozkien eskubideak ezagutzen ez dituztelako, gizarte-trebezia oinarrikoak ez dauzkatelako, aurretik izandako esperientzia negatiboek eragindako mesfidantzagatik, erakundeekiko edo horien arazoak konpontzeko borondate edo gaitasunarekiko mesfidantzagatik... Pertsona horietako askok ez dute kekarik aurkezten hori egin dezaketela ez dakitelako, edo ez dakitelako ez non eta ez nola egin.

Garbi dago, gure erkidegoko elkarte eta talde gehienek bitartekaritza lan oso garrantzitsua egin dezaketela zokoratutako sektoreen edo bereziki minberak diren pertsona horien eta Arartekoa bezalako erakundeen artean: dauzkaten eskubideak eta arazoak konpontzeko bideak ezagutzera emanaz, beraien eskabideak adierazterakoan lagunduaz, administrazioari hiritarrekiko arretan arduraz jokatzeari esijituaz, eta ekintzen poderioz erakundeekiko konfidantza eta gizartekoherio handiagora eraginez.

Lehenago esan dugun bezala, gure erkidegoan dagoen elkarte, talde eta gizarte eragile kopuru handia gizarte-bizitasunaren adierazle garbia da. Era berean esan behar da ugaritasun eta aberastasun hori egiazko erronka dela beraiekin harreman iraunkorrak eduki eta elkarlanean aritu nahi duenarentzat. Horien eskariei erantzuten saiatzea eta jarduera-lehentasunak ezartzea besterik ezin da egin.

Horrela, 1995. urtean zehar, Ararteko erakundeak elkarlanerako harremanak eduki ditu, batzuetan estuagoak eta besteetan ez hain estuak, alor ezberdinetan gizarte lana egiten duten elkarteekin:

- bakebidea eta elkarrizketa bidezko auzien konponketa;
- emakumeen eskubideen defentsa;
- biktimentzako laguntza;
- kontsumitzaileen eskubideen defentsa;
- presoen eskubideen defentsa;
- elbarritasun mota ezberdinei gizarteak eman beharreko erantzuna;
- atzerriko etorkinen gizarteratzea;
- adin txikikoen adopzioa;
- arma merkataritzaren kontrola;
- zokoratuta eta familia laguntzarik gabe dauden pertsonentzako gizarte eta osasun alorreko laguntza;
- talde zokoratuen gizarteratzea eta gainbeheran dauden zonen errehabilitazioa;
- tratatu txarren prebentzioa eta tortura salaketak;
- drogamenpekotasun arazoak eta IHES gaitza daukaten pertsonentzako laguntza...

Noski, badira minberatasun berezia jasaten duten beste talde batzuk ere. Baina adierazi diren jarduera eremuek argi erakusten dituzte gure gizarteko pertsona askok pairatzen dituzten arazoak.

Urte honetan, idatziz nahiz ahoz lan bilerak eta informazio trukaketak ondorengo talde, elkarte edo antolakundeekin burutu dira:

- . Bakearen aldeko koordinakundea
- . Bortxakeriaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa
- . Gernika Gogoratuz
- . Neskameen Elkartea
- . Denon Artean
- . Bortxakeriaren Biktimei Laguntzeko Psikologoek Elkartea
- . Euskadiko Kontsumitzaileen Elkartea (EKE)
- . Intsumisoen sendikoen Elkartea
- . Kontzientzi Eragozleen Mugimendua (KEM)
- . Gaiso sendaezinak eta 70 urtetik gorakoak kartzelatik ateratzearen aldeko Plataforma (20 elkartetik gora biltzen dituen plataforma)
- . Elbarri Fisikoen Elkartearen Federakundea eta federakunde horretan sartuta dauden elkarteak
- . Bakea Orain
- . Gasteizko Etorrinak Gizarteratzeko Lan Batzordea
- . Ume-Alaia Elkartea
- . Gaiso Psikikoen Familiartekoen Euskadiko Elkartearen Federakundea (GPFE) eta federakunde horretan dauden elkarteak
- . Elkarri
- . Arma Merkataritzaren Gardentasunerako Plataforma (Amnistía Internacional, Greenpeace, Mugarik gabeko Sendagileak...)
- . Clara Campoamor
- . Bilbo-Etxezabal
- . Bakearen Aldeko Gazteak Fundazioa
- . Bizitegi Elkartea
- . Guraso bakarreko Familien Elkartea
- . Arnasa
- . San Frantzisko auzoko Elkarteak, parrokiako komunitatearen inguruan bilduak
- . SOS-Arrazakeria
- . Torturaren Aurkako Taldea (TAT)
- . Asociación de Lucha contra el SIDA y Autoapoyo a Afectados T-4
- . Etorrinak laguntzarako Bizkaiko GKEen Koordinakundea (CEAR, Bilbo-Etxezabal, Afrovasca, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, UGT, Elkartu, SOS-Arrazakeria...)
- . Presoen laguntzarako taldeak
- . ...

Kasu batzuetan, elkarteekiko elkarlana Ararteko erakundeak berak burututako lan monografiko baten barruan gauzatu da. Horrela, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoerari buruz egin den lanaren barruan (txosten honetako 2.1.2. atalean jasotzen dira lanari buruzko xehetasunak) ondoko elkarteekin egin dira bilerak eta informazio trukaketak:

- . AGIPAD (Drogei buruzko Ikerketarako eta Prebentziorako Gipuzkoako Elkarteak)
- . Alcohólicos Anónimos
- . Asociación de Lucha contra el SIDA y Autoapoyo a Afectados T-4
- . IHES gaitzaren aurkako hiritarren elkarteak
- . Drogak Eragindako Elkarteak (D.E.E.)
- . Etorkintza
- . Foronda
- . Deustua-San Inazioko Modulo Psiko-Soziala
- . Proyecto Hombre
- . ADSIS-BESTALDE (Gizarte Ekimenerako Zerbitzuen Elkarteak)
- . Bilbo-Etxezabal
- . Bizitegi
- . Cáritas (PAEX-Atzerritarren Laguntzarako Programa)
- . Gurutze Gorria
- . Gizabidea
- . I.R.S.E. (Lurralde Ezberdinen Bergizarteratze Erakundea)
- . Pastoral Penitenciaria
- . SOS-Arrazakeria
- . Eukal Herriko Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak
- . Salhaketa
- . TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- . Abokatu Bazkondeen presoentzako laguntza-txandak

Askotan, egin diren bileren ondorioz eta alderdi guztien arteko elkarlanaren ondorioz, beti ere bakoitzaren jarduera askatasunari errespetua izanez, hainbat jarduera sustatu dira:

- administrazio ezberdinen aurrean Arartekoaren ofiziozko jarduerak arazoak konpontzeko;
- elkartearen eta erakunde publikoaren arteko bitartekaritza lanak;
- erakundearen laguntza talde ezberdinek bultzatutako elkartasun kanpainei;
- Administrazioaren eta elkartearen arteko elkarlan-harremanak hobetzeko proposamen zehatzak;
- elkarteek aurkeztutako kexen bideraketa (talde nahiz banakako izaerakoak);
- lanerako baliagarria den informazio eta agiri trukaketa;
- lege aldaketak burutzeko iradokizunen aurkezpena...

Elkarlan giro horren barruan Ararteko erakunde honek burutu dituen jarduerak adierazgarri batzuk aipatuko ditugu jarraian, adibide gisa.

- \* Intsumisioen sendikoekin eta kontzientzi eragozleen mugimenduekin izandako harremanen ondorioz jarduerak ezberdinak burutu ziren; besteak beste, intsumisoei ematen zaien tratamendu penala aldatzeko pausoak eman zituzala eskatu zitzaion Herriaren Defendatzaileari. Herri Defen-

datzaileen Koordinaziorako X. Jardunaldietan aurkeztutako txostenaren eraskinean jasotzen dira proposamenak.

- \* Bartzelonan egin ziren Herri Defendatzaileen X. Jardunaldietan Arartekoak aurkeztu eta aipatu dugun komunikazioan (ikus txosten honetako 2.3.1. atala), talde bakezale eta giza eskubideen alde elkarrekin izandako bileretan aztertu ziren gaietako asko aipatzen dira: tolerantzia, bortxakeriaren biktimentzako laguntza, polizi jardunak...
- \* Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoerari buruzko azterlana osatzeko, -txosten honetako 2.1.2. atalean aurkezten den txosten berezia egitea ekarri duena-, presoen laguntzarako hogeita hamar bat talderekiko elkarlana egin da.
- \* 300 preso baino gehiagok kartzeletan xiringa esterilak erabiltzeko aukera eta arau aldaketa eskatu ondoren, eta profesionalekin hainbat bilera egin ondoren agiri bat osatu zen: «Kartzelako droga kontsumoari eta gaisotasun infekziosoen kutsapenari buruzko Arartekoaren proposamen eta iradokizunak». 1995eko abenduaren 1eko agiri hori erakunde arduradun ezberdinei igorri zitzaion (Justizia, Osasun, Erakunde Penitentiarioak... Sailak), prebentzio programak martxan jar edo zabal zitzaion eskatuz.
- \* Elkarte batzuek torturen kontra aurkeztu dituzten salaketak direla-eta, Arartekoak jarduerak burutu ditu erakunde eskudunen aurrean, beti ere puntu ilunak argitzera bideratutako jarduerak izan direlarik.
- \* Gasteizko Etorकिनak Gizarteratzeko Lan Batzordearekin eta SOS-Arrazakeriarekin lankidetzan, egoera penagarrian zeuden Ceutako jatorri afrikarreko pertsonen babes emateko kanpaina burutu zen erkidegoko udalen artean.
- \* Atzerriko etorkinen gaiari dagokionez, elkarte, batzorde eta koordinakundeekin izandako harremanari esker pertsona horien boto eskubidea edo erroldaratzeko irizpide amankomunak ezartzea bezalako gaietan elkarrekin lan egitea ekarri dute.

\* \* \*

Normala den bezala, elkarte bakoitzak zein alorretan lan egiten duen halako arazoei aurre egin behar izaten die eta, beraz, erakunde honen aurrean aurkezten dituzten eskariak ere bide horretatik joan ohi dira. Alde logiko horietaz gain, ordea, elkarte asko eta askori eragiten dieten arazo amankomunak ere badaude.

Adibidez, laguntza programetan parte hartzen duten edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten erakundeekin egindako bilera ugarietan ondorengo arazoak adierazi zitzaizkigun: finantzabide iturrien arazoa, programekin aurrera jarraitzeko bermerik eza, gizarte programen diseinoan edo garapenean aktiboki parte hartzeko eragozpenak eta abar. Arazo horiek are larriagoak dira sektorerik behartsuenei laguntza emateko alorrean mugitzen diren elkarrekin. Horregatik, hiru foru aldundietako Gizarte Ongizate sailei ondorengo proposamena luzatu zitzaion joan den azaroan:

*«Legeak erakunde honen gain uzten dituen eginkizunen arabera, Ararteko erakundea beraien kexak eta kezak adierazi nahi dituzten*

pertsona banakoentzat ez ezik, zeregin horrekin guregana jotzen duten elkarte eta taldeentzat ere zabalik dago.

Hilabete hauetan zehar, gure gizartean egoerarik okerrenean dauden sektoreei, hala nola elbarriei, presoei, IHES gaitza daukatenei, drogamenpekotasun arazoak dituztenei eta abarri laguntzeko lana egiten duten erakunde batzuekin harremanak edukitzeko aukera izan dut. Kasu batzuetan, elkarte horien jarduera eremua oso ondo mugatuta dago; beste batzuetan, laguntza jasotzen dutenen arazoak oso ezberdinak dira, hasi giza mailakoetatik eta osasun alorrekoetaraino.

Elkarte horietako gehienek elkartekideen edo borondatez horiei laguntzen dietenen dedikazio, ahalegin eta dirulaguntzei esker egiten dute lan; baina horietako askok herri, lurralde eta erkidego mailako erakundeetara ere jotzen dute beraien proiektuak burutzeko laguntza eske. Erakundeen laguntza horiek, sarritan, urtero egiten diren deialdi berezien arabera banatzen dira.

Gure erkidegoko erakundeen artean dagoen ahalmenen banaketa kontuan izanik, garbi dago gizarte ongizate politikei dagozkien baliabideen pisu nagusia foru aldundien esku dagoela.

Horregatik jotzen dut zuregana, Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailaren buru zarenez gero, azken asteotan erakunde honetan berebiziko ardurarekin azaldu zaigun kezka eta kexa hau jakinarazteko: gizarte laguntzako programetan diharduten erakundeentzako dirulaguntza politiken (partidak, irizpideak, formulak...) jarraipenerako bermeei buruzko kezka, alegia.

Maila batean, ez da orain sortu den kezka. Eragindako elkarreek behin eta berriz eskatu dute urteroko dirulaguntzen markoa gainditzeko komenigarritasuna eta beharra, horretarako beste formula bat ezarriz, segurtasun handiagoa emango diena eta, beraz, etorkizuna zalantza gutxiagorekin planifikatzeko aukera emango diena.

Azken aste hauetan gaia behin eta berriz atera bada, agian arrazoi hauengatik izan da: gizarte ongizate erakundeetako zerbitzu batzuetan egon diren arduradun aldaketa berriak, horrek administratuengan lehen momentuetan nolabaiteko nahasketa sortzen baitu; eta zenbait programatan gerta daitezkeen aurrekontu murrizketa posibleak.

Guzti horregatik, datorren urterako aurrekontuak osatzeko unea den hau zalantzak argitzeko edo jarduera formula berriak aurrizkusteko egokia izan daitekeelakoan, Arartekoak ondorengo gomendioak proposatzen ditu:

1. Datorren urterako eta ondorengoetarako aurrekontuak osatzera-koan, aurrekontu-urtearen marko murrizta gaindituko duten laguntza eta elkarlan bideak finkatzeko eta bultzatzeko aukera aurrizkustea. Egoerarik okerrenean dauden sektoreei laguntzen dieten erakundeei zuzendutako laguntzez ari gara, eta horietarako formula

egokiagoak aurkitzea proposatzen da: hitzarmenak, maileguak urteanitzeko konpromezuarekin, eta abar.

2. Oraindik halakorik ez dagoen kasuetan, gizarte ekintza koordinatuagoa burutzeko, parte hartzen duten gizarte sektore ezberdinen artean informazioa trukatzeko, eta gizarte ongizate politikak elkar hartuta aztertzeke eta hobetzeko aukera emango duten partaidentzarako mekanismo iraunkorrak sortzea.»

Aurreko proposamena osorik jaso badugu, hain zuzen izan da laguntzaren alorrean daukan balioarengatik, eta borondatezko lana egiten dutenek ukitzen dituzten alor askotan erabilgarria izateagatik.

Horregatik, urte honetan gizarte eragileekin izandako elkarlanari eskaintzen diogun atal hau amaitu baino lehen, beraien elkartasuna eta eskuragarritasuna eskertzeaz gain, ondorio orokor hau ere atera behar dugu. Gure erkidegoko talde, erakunde eta gizarte eragileek daukaten ahalatasuna eta gizarte indarra aprobetxatu nahi baditugu, erakunde bakoitzaren askatasun eta ahalmenak errespetatuz, Administrazioak horien elkartasunezko lana sustatzeko bitarteko guztiak jarri behar ditu, eta gizarte politikan aktiboki parte har dezaten aukerak eman behar dizkie.

Europako Elkartearen Hitzarmenak «Elkartasun erakundeekiko elkarlanerako Aitorpena» eraskinean dioen bezala: «Konferentziak, Europako Elkartearen sortu zuen Hitzarmeneko 117. artikulua helburuak lortzeko, honen eta elkartasun taldeen eta fundazioen arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratzen du, erakunde horiek baitira ongintza zentroen eta gizarte zerbitzuen ardura-dunak». Aitorpen horren izpiritua praktikara eramateko, gure administrazio-kulturan txertatuta dauden praktika modu asko aldatu behar dira.

### **2.2.2. 1995-1996RAKO BI IKERKETA-BEKA EMATEKO DEIALDIA**

Aurreko urteetan bezala, 1995ean ere Ararteko erakundeak bi ikerketa beka sustatu ditu.

Deialdia 1994ko urriaren 3ko erabakiaren bidez (EHAA, 196. zenb., urriaren 14koa) egin zen eta, ahozko nahiz idatzizko hautapen-proben ondoren, M<sup>a</sup> José Fernández de Landa Montoyari eta Álvaro Bilbao Ubillosi eman zitzaizkien, 1994ko abenduaren 26ko erabakiaren bitartez (EHAA, 11. zenb., 1995eko urtarrilaren 17koa).

Beka hauen helburua EAEn giza eskubideen babesarekin zuzenean ala zeharka zerikusia duten ikerketa monografikoak egitea da. Oraingoan erakundeak eta bekadunek ikerlanerako aukeratu dituzten gaiak hauexek izan dira: «Erakundearteko kontrola Europako Batasunean» eta «Berdintasun irizpidea eta elbarrituen eskubideak sustatzeko politikak. Bereizketa positiborako neurriak».

Lehen ikerketak, «Erakundearteko kontrola Europako Batasunean» izenburua duenak, Batasuneko kontrol-tekniken berezitasun eta akatsak gertutik ikertu nahi

ditu, Europako Batasunaren Itunaren ondoren lanean diharduten ikusketa-organo bakoitzaren azterketa zehatza eginez.

Europako erakundeen arteko harremanetan irizpide nagusirik ez badago ere -aginte banaketaren irizpidera bidera litekeena-, horrek ez du galerazi pixkanaka kontrol-espediente ugari agertu izana, Batasunaren aginte betearazlearen jardueran eragina dutenak. Europako Batasuna sortzen duten Itunaren 138. E. artikuluan Ombudsmanaren irudia sartu izanak eta oraintsu hura izendatu izanak ekimen-bide berri bat urratu du, Batasunaren jardueran gardentasun handiagoa lortzeko ahaleginean.

1995ean egindako bigarren lanari begira -berdintasun irizpideari eta elbarrituen eskubideak sustatzeko politikei buruzkoa-, ikerlanean berdintasun irizpidea da aztergai, eta baita, elbarrituei dagokionez, diskriminazioaren debekua ere.

Lanaren muina hauxe da: izatez bereiztaileak diren egoerak eragozteko, diskriminazio positibozko neurriak hartzea.

Lan horretan zehatz-mehatz aztertzen dira zenbait eskubide, hala nola, aisiarako eskubidea eta lan-munduan sartzeko eskubidea, edo elbarrituak enplegu publikora iristeko bidea.

Ikerlanari interesgarria deritzogu, bereziki baztertuta dagoen gizarte talde baten arazoei heltzen dielako.

Gainera, ohiko denez, 1996. urterako deitutako beken hautapen-espedientea bideratu da. Horrela, deialdia 1995eko irailaren 27ko erabakiaren bidez egin zen eta urriaren 6ko EHAAren 192. zenbakian argitaratu zen, oinarri-arauekin batera.

1996rako bi ikerketa-beka emateari dagokionez, berriz, beka horiek ematea onartu zen 1995eko abenduaren 20ko Arartekoaren erabakiaren bitartez (EHAA, 6. zenb., 1996ko urtarrilaren 9a), eta hautagai hauek aukeratu ziren: Carlos Barcina Fernández eta María Aragón Castiella.

Aztergaiak hauexek izango dira: «Agintari publikoen kultura eginkizuna» eta «Zerbitzu publikoen erabiltzaileen eskubideak».

## **2.3. GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO ERAKUNDE KIDEEKIN IZANDAKO HARREMANAK**

### **2.3.1. HERRI DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIOARI BURUZKO X. JARDUNALDIAK**

Jakina den bezala, Herri Defendatzailearen eta autonomia erkidegoetako ordezkarien arteko harremanen ardatz nagusiak koordinazioa eta elkarlana dira.

Espedienteen ohiko gestioa dela-eta urtean zehar erakunde kideek harreman estua izaten duten arren, urtero herri defendatzaileen arteko koordinazio jardunaldiak antolatzen dira, erakunde horiek denek dituzten arazoak eztabaidatu eta iritziak kontrajartzeko topaleku gisa.

X. Koordinazio Jardunaldi hauek Kataluniako Sindic de Greugesek antolatu zituen urriaren 5 eta 6an Bartzelonan, eta berorietan honako gaiok eztabaidatu ziren:

- Tolerantzia giza eskubideen aldeko balore.
- Herri-funtzionaria ombudsmenen aurrean erreklamatzailer.
- Jarduera eta irizpideen koordinazioa.

### 2.3.1.1. TOLERANTZIA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BALORE

Bilera honetan Herri Defendatzailea, Fernando Álvarez de Miranda jauna, izan zen mahaiburu-moderatzaile, eta hizlaria, berriz, Celso Montero Rodríguez jauna, Valedor do Poboren 2. Ondokoa.

Halaber, beste hauek ere aurkeztu zituzten txostenak:

Lehen hitzaldia: Xabier Markiegi Candina jaunak, Arartekoa.

2. hitzaldia: Manuel García Álvarez jaunak, Procurador del Común delakoa.

3. hitzaldia: Miguel Barceló Pérez jaunak, Valentziako Erkidegoko Sindic de Greugesen lehen Ondokoa.

Jarraian Arartekoak gainontzeko herri-defendatzaileei azaldu zien ponentzia dakargu hona hitzez hitz, interesgarria iruditzen zaigu eta:

\* \* \* \*

### «TOLERANTZIA EUSKAL GIZARTEAN

*‘Jarrera bakar batek gureganatuko du  
bakea: elkarri barkatzeko hitza  
hartzeak.’  
(Séneca)*

## 0.- SARRERA

*Euskal gizartea intolerantziaren eredu gisa erakutsi izan zaio, askotan, iritzi publikoari, eredu anakronikoa gainera. Oraindik behar bezala hezur-mamitu gabeko gizarte-modua dela esaten da, bakean biziitzea ezinezkoa zaion gizartea, Europan bete-betean sartuta eta XXI. mendearen atarian egonda ere, armak, estortsioa eta heriotza bidelagun dituen gizartea, politikako auke-rak inposatu ahal izateko.*

*Analisi horiek zenbateraino diren gehiegizkoak eztabaidatzen oraingoz hasiko ez bagara ere, onartu beharra dugu, saminez, gure gizartean intolerantziaren indarrezko adierazpenek bizirik dirautela oraindik ere, eta, gainera, baztertzearen goreneko gradua lortzen dutela askotan: heriotza. Eta berdin dio urteak aurrera joateak, gehiengoak garbi asko bakean oinarritutako*



elkarbizitzaren alde egiteak, autogobernua eskuratzeak eta, gutxika-gutxika, erakunde demokratikoak finkatzen joateak.

Ikuspuntu hori izanik, eta nahiz eta zaila zela jakin, 'Tolerantzia giza eskubideen aldeko balore' izeneko jardunaldi hauetan guk egin beharreko ekarpena, hain zuzen ere, hori zela iruditzen zitzaidan: bizi dugun errealitate benetan konplexu hori aztertzen saiatzea, baliozko azterketa egiten saiatzea.

Batzuen ustez Euskadi laboratoriorik bikaina da gizartea aztertu ahal izateko, gizarteko harremanak nolakoak diren ikusi ahal izateko. Nire helburua, jakina, ez da azterketa zientifikoa deituko genukeena egitea, giza eskubideen aldeko lanean erabat murgilduta dagoen erakunde bati dagokion azterketa egitea baizik. Ondorioz, begirada kritikoaren bidez, euskal errealitate mugikorren zentzuzko gatazka-iturri gainbegiratzen saiatuko naiz, nire ikuspuntua zein den erakutsi -bat gehiago izango da- eta, herri-defendatzaile garen aldetik, nondik nora jo ikusten lagunduko digulakoan.

Errealitate jakin batean oinarritutako ekarpena da, baina hortik zer ikasia atera daiteke antzeko beste errealitate batzuetan ezarri ahal izateko. Hori dela eta, lana baliagarria izatea nuen helburu nire ekarpena prestatzerakoan, eta ondoren datorren eskemak horri erantzun nahi dio:

- . Lehen zatia kontzeptuetara hurbiltzeko da, eta bertan tolerantzia tradizionalki izan denaren inguruan egingo dut gogoeta. Kontzeptu hori eguneratzea proposatuko dut, esanahi erabat positiboa eskuratuz, eta gure gizartean zenbaterainoko garrantzia eta ezartzeko nolako aukerak dituen nabarmenduko dut.
- . Bigarren zatian, Euskal Herriko gizarteak dituen alde on eta txar batzuk nabarmenduko ditut, beti ere indarkeriaren inguruan ari naizela; eta horietan oinarrituta, bakea eta adiskidetzeari lortuko dituen gizartea imajinatzen saiatuko naiz.
- . Hirugarren zatian, gizarteko hainbat taldek bakearen aldeko bide luzean pauso gogotsuak eman behar dituztela proposatuko dut. Pauso horietako batzuk, gainera, berehala ematekoak dira, orainari dagozkionak; beste batzuek lehenetsia izango dute, etorkizunean aurrera egitea ahalbidetuko baitute: euskal gazteei tolerantziak dituen baloreak zein diren erakutsi behar diegu.
- . Bukatzeko, azken ondorio gisa, herri-defendatzaileen erakundeetatik zer egin daitekeen azaltzen saiatuko naiz; gure gizartean tolerantzia sendotzeko bereziki nondik nora jo erakusten ahaleginduko naiz.

## 1.- 'TOLERANTZIA' KONTZEPTUA ETA HAREN EZARPENA

**Hiztegiak hartu** eta tolerantzia zer den ikusten badugu, hauxe adieraziko digute: 'Beste pertsona edo taldeen ideia edo ekintzekin ados egon ez

arren, hauek errespetatzean datzan jokaera' (Elhuyar, Hiztegi Entziklopedi-koa). Edo, gazteleraz, 'Respeto y consideración hacia las opiniones o prácticas de los demás, aunque repugnen a las nuestras' (Espainiako akademiaren hiztegia); edo 'Cualidad o actitud del que respeta o consiente las opiniones ajenas' (María Moliner).

Kaleko hizkeran, tolerantzia hitzak kutsu edo adiera negatiboa izan ohi du, eta sinonimoak bilatzen hasiz gero, sufrir, soportar, llevar con paciencia izango genituzke gazteleraz, nahiz eta ekintza horiek guztiak norberak onartu ez.

Euskarazko adieran tolerantziaren beste ordain batzuetan garbi ikusten da ideia hori, hauek izango bailirateke: jasankortasuna, jasapena, pairakor-tasuna...

Gure hizkuntzek bakoitzak bere ikuspuntua gehitzen diote kontzeptuari. Gauzak horrela, honela dio Pompeu Fabra-ren hiztegiko definizioak: 'disposición a admitir en los otros una manera de pensar, d'obrar, d'èsser, diferente de la nostra...'. Diccionario Xerais da Lingua delakoan, berriz, honela dator zehaztuta tolerantzia: 'Actitude teórica e práctica de respeto ás opinións e ós actos dos demais'; intolerantzia, berriz: 'Dogmatismo, actitude intransigente e violenta con respecto ás opinións, teorías ou ideas dos demais'.

Gainontzekoen iritziak errespetatzeak zer nolako garrantzia izan dezakeen baztertu gabe, noski, badirudi, hala ere, maila apalagoko balore baten aurrean gaudela, gaurkotasan handiegirik gabeko balore baten aurrean, gizartean beste balore batzuek zenbaterainoko indarra duten kontuan izanda. Horien artean elkartasuna, askatasuna, justizia edo giza eskubideak errespetatzea egongo liriteke. 'Toleratua izateak', egoera jasaten duenaren ikuspuntutik behintzat, ez dirudi gizartearen oso lorpen handia denik.

Hala ere, gaur egun gorantza doan balorea dugu tolerantzia, hain zuzen ere oinarrian gizakiaren duintasuna duen gaia delako, eta horrekin batera, pertsonen arteko bakezko elkarbizitza eraikitzen hasteko oinarri sendoa izan daitekeelako, herrien arteko errespetua eta elkartasuna ekar ditzakeelako. **Tolerantzia gaur egun ezinbesteko birtute demokratikoa da gutxiengo bat baino gehiago duten gizarte modernoetan.**

**Tolerantziak zenbaterainoko indarra izan dezakeen ikusteko, beharbada metodo egokia izango da egoerak alderatzea:** gizartearen zati handi baten jarreran intolerantzia nagusi izan den errealitateetara hurbil gaitzeko, errealitate horiek aspaldikoak edo gaur egunekoak izanik ere. Horrela, egoera horrek izaten dituen ondorio benetan kaltegarriak ezagutu ahal izango ditugu.

Tolerantzia eta intolerantzia desberdinak izango dira garai historikoaren eta kokagunearen arabera. Gauzak horrela, garai eta leku jakin batean intolerantzia eragingo duen arrazoia erlijio bata edo bestea izango da, beste egoera batzuetan politika edo iritzi desberdintasunek ekarriko dute ondorio bera; beste batean, ekonomian dauden aldeak izango dira iturburua, edo, bestela, arraza, etnia edo hizkuntza desberdina izatea... Intolerantzia agertzeko modua ere desberdina izango da: batzuetan, beste modu batean pentsatzen duena

sutan erreta hilko dute, baina modu ixilago eta ezkutukoagoak ere badira, baztertzearen bidez. Baina arrazoiak eta moduak era askotakoak izanik ere, sakoneko eragilea beti berbera da: 'besteak' modu okerrean hartzea; hau da, 'desberdina' izatea 'etsai' izatearekin lotzea.

**Beharbada, intolerantziaren adierazlerik muturrekoena fanatismoa izango da,** intolerantzia fanatikoa. Fanatismoa jarreraren gaisotasuna da, eta baditugu horren hainbat adibide, batzuk gertuegikoak eta beste batzuk, berriz, ez hain hurbilekoak, ez denboran ez espazioan. Jarrera esan dugu, eta pertsonaren edo gizartearen jarrera izan daiteke. Hona hemen gaisotasun horren ezaugarri nagusiak, Marciano Vidal-en arabera ('Ética civil y sociedad democrática', Desclée de Brouwer, Bilbo, 1984):

- Egia **osoaren** jabe garela uste izatea.
- Jabetza hori **handikeriaz** bizi izatea.
- Gainontzekoei egia indarrez **inposatzeko** gogo bizia izatea, misiolana bailitzan.

Gaisotasun horren ondorioak hauek izaten dira: agintekeria, intransjentzia eta exaltazioa.

Eta hortik zuzenean eratorriko dira indarkeria eta gerra edo armen exaltazioa:

- Biktimak ez du sinesgarritasunik izango, kontrako iritzia duena Satanen parekoa izango da: beste modu batean pentsatzen duena 'kanporatu' egingo dute, traidoretzat jo, edo, besterik gabe, ez da aberkidea izango.
- Historia ontasunaren eta gaiztakeriaren arteko borrokalekua dela pentsatzen da.
- Salbatzailearen eginkizuna norbere gain hartu eta 'gureen' (onen) eta 'besteen' (txarren, etsaien) arteko borrokan parte hartzera joango da.

**Gizartean intolerantzia nagusi izateak dakartzan ondorioak hain larriak direnez gero, erraz ulertzen da nazioarteko erakundeek, azken aldian, pertsonen eta herrien arteko tolerantziaren aldeko deia eta apustua egin izana.**

Horrek baino ezin du azaldu zergatik Nazio Batuen Sorrerako Kartan hitzaurrean bertan agertzen den tolerantziaren balorea aurrera eraman behar dela erakundearen helburuak sendotzeko: hots, gerrari aurea hartzeko eta mundu osoan bakea bultzatzeko. Horrek baino ezin du azaldu zergatik aukeratu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1995. urtea Tolerantziaren Nazioarteko Urtea izateko; edo zergatik Europako Kontseiluko estatu eta gobernuburuaren gailurrean erabaki zen elkarbizitza demokratikoa indartu eta intolerantziari eta bereizkeriari aurre egiteko Ekintza Orokorreko Plana idaztea, 1993an Vienan izan zuen bileran. Hain zuzen ere plan horren barruan sartzen da Europan 1995. urtean zehar garatzen ari den beste plan hau: Gazteak arrazakeriaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurka.

Izan ere, munduko herriak elkarri gero eta lotuago dauden garai honetan, gizarteak gero eta pluralagoak eta gero eta kultura gehiagoz osatutakoak diren neurrian, tolerantziak orduan eta garrantzi handiagoa bereganatu du. Hori dela eta, **gaur egun, tolerantzia hitza erabiltzen dugunean, herrien arteko elkarbizitza ulertzen dugu gehienetan:** gurea ez bezalako beste gizarte edo kultura batzuetako pertsona edo gizataldeen jarrerak, sinesmenak eta bizitzeko moduak errespetatzea eta modu kritikoan baloratzea da tolerantziaz egin daitekeen definizioa.

**Seguru asko gaur egun tolerantzia kontzeptua esanahi berria ari da bereganatzen, historian zehar izan dituen muga batzuk gaindituta.** Muga horietako batzuk arrazionalismoari eta ilustrazioari oso lotuta zeuden, eta horregatik zegoen kontzeptua politikako gertakariei lotuta. Beharbada, aldaketa hau ari da gertatzen:

- 'naturaren dohain' izatetik (hala zioen Voltairek) gizartearen lorpena izatera igarotzea;
- desberdintasuna 'onartu behar' izatetik, desberdintasuna onuragarria dela pentsatzera eta pluraltasuna gizartearen aberastasuna dela uste izatera igarotzea;
- bestea 'errespetatsetik', hobeto ezagutu nahi izatera eta aintzat hartzera igarotzea;
- erlijioaren edo ideologiaren arloan dauden desberdintasunetan oinarritutako tolerantziatik, ekonomian edo itxuran oinarritutako desberdintasunak ere gainditu nahi dituen jarrerara igarotzea;
- norbanakoaren eskubideei dagokien ezaugarria izatetik, gizataldeen eskubide kolektiboak ere biltzen dituen baldintza demokratikoa izatera igarotzea, gehiengoan eta gutxiengoan arteko harremanak bideratzeko norabide berria erakutsiz.

Beraz, bestea onartu eta errespetatzeko eskubidea ari gara defendatzen, nahiz pertsona nahiz gizataldea izan; gainontzekoek dituzten desberdintasunak onartu nahi ditugu, eta ez hori bakarrik, desberdinak izateko duten eskubidea ere onartu nahi dugu. Gainontzekoen nolakotasun bereziak bidezkoak direla onartu behar dugu. Bestea, edozein dela ere, norberak adina eskubide duen pertsona dela onartu beharra dago. Izan ere, Goethek esan zuenez: 'Egia esanda, tolerantziak behin-behineko gogo edo asmoa baino ez luke izan behar, azkenean, errekonozimendura iristeko'. Muinari helduz, eskatzen ari garena etikaren urrezko arauetako bat, arau zaharra, betetzea baino ez da, alegia, besteek gu hartzea nahi izango genukeen bezala hartzea guk besteak.

Inork uste izan dezake 'tolerantzia baino harantzago' joan garela, baina nik ez dut hala pentsatzen. Tolerantziak dituen mugak eta distortsioak (Marcusek kritikoki aztertu zituen) gainditu nahi ditugu, besterik ez, eta horretarako, kontzeptu horrek dituen gaitasunak garatu ditugu. Ondorioz, baliagarria zaigu herrien arteko elkarlanaren eta elkartasunaren oinarri moduan erabiltzeko; gainera, eskubideen eta berdintasunaren iturburu bihurtu da.

Esandakoagatik, tolerantziari ezin zaio egotzi batzuetan eduki duen nola-kotasun negatiboa, jarrera geldoaren edo ezkututzen denaren ezaugarria balitz bezala. Gaur egun, gure artean, tolerantziak adorez jardutea eskatzen du, eta tolerantea izateak norbanakoen -norbanako guztien- eta herrien -herri guztien- askatasunaren alde lan egitea eskatzen du.

## 2.- **EUSKADIKO ERREALITATEA GAUR EGUN: ARGILUNAK**

Gogoeta honen hasieran azaldu dudanez, askotan esan izan da euskal gizartea intolerantziaren eredu dela, elkarrekin bakean bizitzea ezinezkoa dela gizarte honetan eta armen indarkeria erabiltzea defendatu eta horietaz baliatzen dela jendea, politikako aukerak inposatzeko.

Euskadiri buruzko iritzi hori, zalantzarik gabe benetako gertakarietan oinarrituta egonda ere, euskal errealitatearen distortsioa edo sinpletzea da, eta zuzendu egin behar da, beste gertakari batzuk ezagutu ez dituelako edo ezagutu arren ez dituelako kontuan hartzen, komunikabideen eraginagatik eta jende askorengan errotuta dagoelako uste hori.

Indarkeria gai hartuta, eta gizarte tolerantea hezurmamitu nahi dugula kontuan izanda, gure gizartean indarra duten arlo positibo batzuk nabarmentzen saiatuko naiz.

### 2.1.- **ARGIAK**

#### a/ **Aurrera goaz**

**Askotan uste dugu arazoa ez aurrera ez atzera dagoela, baina susmo hori zalantzan jarri beharrekoa da.**

Aurrerapausoak oso astiro emandakoak badira ere, oroimen historiko apurren bat duenak ezin du ukatu **hainbat arlotan aurrerantza goazela**: alde bateko zein besteko talde armatu batzuek armak erabiltzeari utzi diote, gutxika-gutxika (Komando Autonomoek, ETA politiko-militarrak, ATEk, BVEk, GALek...); oso jarrera desberdinak dituzten alderdi politikoak elkarrekin analisiak trukatu eta jarduteko gutxieneko batzuk finkatzeko gai izan dira, alderdikeriak bazterrean utzita; erakunde demokratikoak sendotzen ari dira; gero eta gutxiago dira indarkeriaren aldekoak...

Baina itxaropena izateko aukera gehien gizarteak berak erakutsitako bilakaerak eskaintzen du, bakea lortzeko lanean zenbat pertsonak diharduen ikusita. 70eko urteetan amnistia denon helburutzat hartu zenetik ez da orain besteko gaitasunik egon giza eskubideen eta askatasun demokratikoen alde jendea mugiarazteko. Horren lekuko dira 1988tik hona izandako manifestazio jendetsuak, edo orain dela gutxi Alditrans enpresako langileek bultzatutakoak, beren lankide eta burua Jose Mari Aldaia aska dezaten eskatzeko.

Euskadin gero eta gehiago dira bizitzaren, giza eskubideen eta bakearen aldeko konpromezua publikoki hartu duten pertsonak eta gizarteko taldeak, eta horrek itxaropentsu jarri behar gaitu.

#### **b/ Intolerantzia gutxiengoaren jarrera da**

**Intolerantzia erakusten duten jardueren eta gizarte osoaren tolerantziaren arteko bereizketa egin behar dugu; argi eta garbi bereiztu behar dugu intolerantziaren adibide gutxi horien eta gehiengoaren elkarbizitza eta errespetuaren artean.**

Euskadira etortzen denak, bertako herrietara eta udaletxeetara hurbiltzen denak, proiektu desberdin eta baita kontrajarriak ere elkarrekin eta modu baketsuan aurrera eramaten ari direla ikusiko du, egitasmo horiek tolerantziaren adierazpenak baitira. Batzuek monopolioaz baliatu nahi badute ere, guztion onerako eskuratutako guneak dira horiek, eta pluraltasuna eguneroko lanean nabarmentzen da. Ondorioz, ez dirudi euskal gizarteak hainbeste ahalegin eta sufrimenduren ondoren lortutako gune horiei uko egingo dienik.

#### **c/ Bakea premia handikoa da**

**Euskal gizartean begi bistan dago bakea lortzeko nahia eta borondatea gero eta handiagoa dela.**

Seguru asko premia larri horren, gehiengoak bere egindako behar horren ondorioa da bakearen aldeko hainbeste elkarte sortu izana, eta indarkeriaren arazoa konpondu eta bakea lortzeko horrenbeste proposamen eta ekimen kaleratzea, oso ezaugarri desberdinetakoak izanik ere: esate baterako, Ajuria Eneko Mahaia edo Elkarriren Konferentzia, Parte Hartzeko Guneak edo Maroñoko Mahaia, etab.

Modu batean edo bestean, jarrera desberdinak eta baita muturrekoak ere defendatuz, giza eskubideen aldeko konpromezua hartu duten elkarte asko egotea, denak batera hartuta eta behar bezala bideratuz gero, oraindik banatuta dauden indarrak batzeko bidea izan daiteke. Horrela, bateratasunaren bidez, bakea lortu eta mantentzeko behar besteko gaitasuna izan dezakeen gunea lor daiteke.

#### **d/ Bizitzaren alde**

**Zalantzarik gabe nire ustez lehentasuna duen zerbait adierazi nahi nuke hemen: gizakiaren bizitza da lehenbiziko eskubidea, eta horren defentsan oinarritzen dira pertsonaren gainontzeko eskubide guztiak. Eskubide hori erabatekoa da, eta ezin du beste inolako eskubidek baldintzatu, ez norbanakoarena izanik ez gizataldeena izanik ere.**

Euskal gizarteak urte asko igaro du -urte gehiegi- indarkeriak eragindako heriotzak inguruan dituela. Alde bateko eta besteko hildakoak izan dira,

batzuentzat 'gure' hildakoak eta besteentzat 'besteen' hildakoak izan direnak. Baina, azken batean, denak hildako. Hori dela eta, ez da harritzekoa orain eta hemen hain gauza oinarrizkoaren defentsa, hau da, bizitzeko eskubidearen defentsa, gero eta balio handiagoa duen baloretzat aldarrikatzea.

Beharbada bizitzeko eskubidea neurri horretan baloratzea bakearen aldeko sentiberatasun handiarekin zuzenean lotuta egongo da. Eta kontraesana dirudien arren, euskal gizartearen ezaugarria da hori, argi geratu baita egoera adierazgarri batzuetan; esate baterako NATOri buruzko erreferenduma izan zenean edo GAL auziaren inguruko jarrera erakutsi denean. Euskal gizarteak gehiengoaren bidez eta demokratikoki NATOn sartzeari ezetz esan zion, beste arrazoi batzuen artean, militarismoaren eta agintekeriaren aurkako sentimenduak dituelako herri honek. Sentimendu horiek errotuta daude, gainera, esperientzia txarrak jasan izan direlako, eta horren ondorioz, hor ditugu ETArek eta gerra zikinaren aurkako jarrera sendoa. Kanpainako leloetako bat hauxe izan zen: 'gerrarik ez, ez zikinik, ez garbirik'. Zorionez, euskal gizarteko gehiengoari nazka eragin zioten GALen sarraskiek.

Esandakoaz gainera, euskal gizarteak eta bertako erakundeek kontzientzi eragozpena dela nahiz intsumisioa dela erakutsi duten sentiberatasuna, neurri batean behintzat, bakearen aldeko eta armen aurkako jarrera horren barruan kokatu behar da. Badakigu, dena den, egoerak helduleku asko dituela eta motibazioak era askotakoak direla.

Batzuek 'ETA, mátalos' esan eta beste batzuek, begia begi truk eginez, heriotza-zigorra -fisikoa zein gizartekoa- indarrean jarri nahi badute ere terrorismoak eragindako delituak dituztenentzat (biak ala biak ere muturreko jarrerak eta gutxiengoan), euskal herritar gehienek ahotsa, gero eta garbiago, adiskidetzearen aldekoa da. Eta ahots horien indarra ozenagoa da indarkeriaren eta terrorismoaren eraso jasan dutenak mintzatzen direnean, burugabekeriaren ondorioak beren larruan eta senitartekoenean bizi izanik ere, mendeku nahia alde batera utzita, elkarganatzearen alde mintzo badira.

### **e/ Gazteek lortuko dute**

**Bukaeran aztertzeke utzi dut garrantzi handikoa iruditzen zaidan arlo bat: belaunaldi gazteek izango duten eginkizuna. Euskadiko gazteak dira etorkizunean bakea izateko itxaropenik handiena.**

Javier Elzok, Deustuko Unibertsitateko Soziologiako Dekanoa eta Donostiako Gizarte-Laneko Unibertsitate-Eskolako zuzendaria denak, euskal gazteei buruz eginda duen azterlanetako bat aipatzean esaten zuenez, inolako zalantzarik gabe Euskadiko gazteak izango dira ETA armak uztera behartuko dutenak.

Gazte intsumisioak, iritzi kritikodun gazteak, gazte solidarioak, justiziarik ezaren aurkako eta mundu solidarioagoaren aldeko borrokan diharduten gazteak, heziketan tolerantzia zer den ikasiko duten gazteak. Hori dela eta, garrantzitsua da herri honetako gazteak egoki gizarteratzea, baina gai horri aurrerago helduko diot.

## 2.2. ILUNAK

Euskal gizarteak dituen alde onak azpimarratu nahi izan ditut, eta gaur egungo egoeraren argiuneak direla esan dut, etorkizunean itxaropena izateko bidea erakusten digutelako. Baina jakina, dena ez dago argi.

Alde ilunak ere ez dira gutxi, eta bat nabarmendu behar izango bagenu, **duen garrantziagatik eta oinarritzkoa izateagatik, gizartearen haustura aipatu beharko genuke.** Planteiamenduak ugari izatea edo politikako hainbat egitasmoren artean eztabaidak sortzea edozein gizarte modernotan gertatzen dena da, gizartea anitza den aldetik. Baina egoera horrek oso gutxitan sortzen du gizartean euskal gizartean sortu dena bezalako hausturarik; eta gertakari horrek zuzenean eragiten du familian, lagunartean edo gizarteko nahiz laneko harremanetan. **Gizartean hain sakona den haustura hori ez du eragin kulturarekiko, gizartearekiko edo politikarekiko iritzi desberdinak izateak, indarkeriaren erreferenteak baizik; izan ere, erreferente hori da, askorentzat, taldea besteengandik bereizten eta taldeari lotura ematen dion osagairik garrantzitsuena.**

Indarkeriaren erreferentziarik izango ez balitz, dauden egitasmoen arteko eztabaida eta tirabirak modu zibilizatuan burutuko lirateke. Normaldutako elkarbizitza demokratikoan jardungo genuke, denok onartutako arauen bidez. Beraz, lortzeke dugu pentsakera eta jarrerak desmilitarizatzea.

Orain dela hilabete batzuk, bakearen aldeko talde batek niri ere eskatu zidan -beste pertsona batzuekin ere egin zuen bezala- Euskal Herriko herritarren adiskidetze edo elkarganatzea nola ikusten nuen adierazten saiatzeko, idatziz. Erantzunaren izenburua '**Denontzako lekua**' izan zen, eta zailtasunak izanda ere, bizi izan ditugun azken hogeitau urteetako errealitate-amets-amesgaiztoari gainbegiratu ematen saiatu nintzen.

**Hogei urte horietan bi bide sendotu dira gure artean, kontra-jarritakoak, baina ez maila berean daudenak. Batak gehiengoaren aldeko iritzia dauka,** eta askatasun demokratikoak, autonomiaren bidezko autogobernua edo herriaren nortasuna -esate baterako hizkuntza- berreskuratzea adierazten ditu. **Bestearen alde gutxiengoa dago** eta aurreko errealitate hori ukatu eta gehiengoak haren jarreraren aurrean men egin dezala eskatu edo galdatzen du.

Euskal herritar gehienak trantsizioaren eta erreformaren alde daude; bakean, odolik eta astindu gogorrik gabe lortu nahi dituzte aldaketak. Gerra galdu eta irabazi zutenen arteko elkarganatzea lortu nahi dute. Beren burua euskalduntzat baino ez dutenen eta euskaldun izateaz gainera, espainiar edo frantziar sentitzen direnen arteko elkarganatzea lortu nahi dute. Euskaldun, gaztelar, kataluniar, extremaduratar, galiziar, aragoiar eta abarren arteko elkarganatzea dute helburu, Konstituzioak eta Estatutuak ezarri zuten autonomi-ereduaren bidez. Ereditu hori beste hainbaten artetik aukeratu zen, eta hautestontzietan herritarren aldeko iritzia jaso zuen, demokratikoki. 'Euskal arazoa' juridikoki eta politikoki gainditzeko saio historikoa izan zen.



Euskal herritarren gutxiengoa, berriz, egoera etetearen alde dago, indarkeriaz eta odolaz baliatuta. Elkarganatzetik ez. Hogeitau urte inorekin elkarganatu gabe, nahiz eta 1977an amnistia lortu eta euskal preso politiko guztiek espetxeetatik irten; nahiz eta kontzertu ekonomikoa lortu, hezkuntza eta osasun arlo propioa lortu, nahiz eta Euskal Irrati-Telebista edo Ertzaintza eta abar geureganatu.

Eta galdera hau egiten nion -orain ere egiten diot- neure buruari: ba al dugu Euskal Herrian, oraingoz, elkarrekin bizitzeko lekurik? Izan ere, erakundeen eta herrien arteko harremanen eredu juridiko eta politikoa halakoa edo bestelakoa izanik ere, beste arazo batek nauka arduratuta, nire ustez sakonagoa baita, eta euskal herritarren arteko elkarbizitzari erro-errotik eragiten baitio.

Auzoko edo aldekoarekin hogeitau urtez elkarganatzeko jardun dutenen artean, batzuek -ez denek- beste ahalegin bat egiteko borondatea dutela ikusten dut. Ez dute txantaiagatik men egiterik nahi. Baina, era berean, ez diote inori men egiteko eskatzen. Armak uzteko baino ez diete eskatzen. Hitza beteko dela sinesteko eskatzen diete, hitza eta hautestontziek diotena.

Hogeitau urte inorekin elkarganatu gabe daramatenen artean ere elkarri eskua eman beharra dagoela ikusten hasi direnak daudela susmatzen dut. Beste batzuek, ordea, bere horretan darraite: konbultsioa mantendu behar dute beren asmoak indarraren bidez inposatzeko.

**Elkarganatzekoaren alde bide bata edo bestea hartu dutenek elkarrekin topo egingo dutela pentsatu nahi dut; topo egin eta elkarri eskua emateko gertu egongo direla.**

Nire ustez errazagoa izango da elkarganatzeko dagoeneko hogeitau urte daramatenentzat. Gehiago dira eta bidearen zati bat egin dute. Lortutakoari uko egin gabe, nekeak eraginda moteldu gabe, txantaiari ezetz esanda, bidegileak izan daitezke osatzeke dagoen zatian aurrera jarraitzeko.

Baina nola elkarganatu dira horretarako borondaterik ez dutenak? ezin dut imajinatu; zalantzak baino ez ditut horretan. Nola adiskidetu dira beren buruekin gizarteratzeko bidean 1975etik 1985era eta, batez ere, 1985etik 1995era eraso eginez eta xaxatuz jardun dutenak?, nola onartuko dute beren burua harrotasunik gabe ikustea?

Aurreko hamarkadetan, gizarteratzeko, beren burua defendatu beharra izan zutenek barkatzen, ahazten, berregiten, elkarrekin bizitzen... ikasi dute. Nola ikasiko dute hori egiten, pertsonak baztertzeko eta hiltzeko gai ere badirenek?, nola bateratuko dituzte jarrera hain intoleranteak eta inoren bizitza, inoren ideiak eta borondatea errespetatzea?, nola onartuko dute hemen denok daukagula lekua?

**Harremanak tolerantzian oinarritutakoak izan daitezken, kalean, lanean, ikastetxean nahiz etxean egiten dugun guztiak gero eta estuagoa bihurtuko du gizartean dagoen etena, eta gero eta zabalagoa izango da elkarganatzeari eskainiko diogun esparru emankorra.**

Halaxe ikusi nuen, orain dela hilabete batzuk, Euskal Herriko herritarren elkarganatzea, eta halatsu ikusi nahi nuke orain ere.

### 3.- **BAKERANZKO BIDE LUZEA**

Beharbada gogoan izan eta onartu beharrekoa da Euskal Herriko indarkeriak ia hogeitaz urte iraun baldin badu demokrazia garaian, beste hainbeste behar izango direla harremanak eraldatu eta bake iraunkorra lortu ahal izateko. Garbi izan behar dugu bakea beti prozesua dela, amaitu gabeko borroka.

Jakina, ez dugu esan nahi terrorismoa gainditu beharra dagoela besterik gabe; balore batzuk finkatu beharra dago (bizitzak duen balorea, desberdintasunak duen balorea, elkarganatzek duen balorea...) eta, gero, horien gainean bakearen kultura jasotzen hasiko gara, euskal herritar guztientzako elkarbizitzako ereduak izan ahal izateko. Ondorioz, indarkeriaren erreferentia ber-bertan zuela hainbeste urtez bizi izan den gizartea etikoki berriz sortzeaz buruz ari gara hitz egiten, ideiak, hitzak, jarrerak, sinboloak, harremanak eta abar kutsatu baititu indarkeriak.

‘Alde egin dezatela’ esatetik ‘Hemen denontzako lekua dugu’ esatera aldatzeko, denbora behar izango da. **Urratsez urrats egin beharko dugu aurrera, etenik gabe, denontzako guneak sortuz, zauriak sendatuz eta indarkeriaren ondorioz gizartean altxatu ditugun hormak -barruko mugak- beheara botaz.**

Horregatik idatzi dut gogoeta hauen hasieran Senekaren aipu hura: ‘Jarrerak bakar batek gureganatuko du bakea: elkarri barkatzeko hitza hartzeak’. Hori da; Euskal Herrian ere elkarri barkatzeko hitza hartzeak baino ez digu ekarriko bakea.

#### . ‘Hitza hartu’

Erakundeen eta politikaren esparruan akordioak lortzeko beste ekimen batzuek izan dezaketen lekua gora-behera, elkarrekin ‘gizarteko hitzarmena’ berriz aurkitu, gure egin eta errespetatu beharra daukagu; gutxieneko arauen inguruko kontsentsua lortu behar dugu, gutxienekoak baina denontzat izango direnak. Eta hori, ez bakarrik gizartea eta horren instituzionalizazioa mantentzeko, baina baita besterik gabe pertsonen arteko elkarbizitza posible egiteko ere.

#### . ‘Barkatu’

Barkamen kontzeptuak, tolerantziarekin gertatzen den bezala, adiera humanista handia dauka. Barkamena edo indulgentzia epaitu, zigortu edo barkatzearekin lotuta dago, eta barkabera izateak ez du esan nahi ahula izatea edo norberak dituen iritziei uko egitea. Hala izan ordez, eskuzabala izatea gizarte indartsu, tolerante eta zintzoen bezko ezaugarria da.

. 'Elkarri'

Etengabe esan behar dugu garrantzi handikoa dela **denek** parte hartzea gizarte hitzarmena gauzatzeko. Behin eta berriz erakutsi digu azken urteotako historiak akordioen emaitzei jaramonik egin ez dietenek nahiago izan dutela kanpoan geratu eta sistema osoari aurka egiten jarraitu, gehiengoari gutxiengoaren nahia inposatzen saiatzeko.

**Tolerantzia, elkar onartzea eta elkarganatzeko borondatea bi-delagun hartuta baino ez dugu lortuko ondoren proposatuko ditugun pausoak ematea, eta, beharbada, etorkizunean eman beharko diren beste batzuk ematea, nahiz eta gaur pentsaezinak gertatu. Izan ere, indarkeriak bere horretan jarraitzea karga astunegia da etorkizuna itxaropenez ikusteko.**

Lehenbizi (3.1. atala) gaur-gaurkoari edo berehalako etorkizunari eragiten dioten urrats batzuk aipatuko ditut; hainbat agenteri dagokien kontuak dira. Horren ostean (3.2. atala) euskal gazteen heziketan tolerantzia printzipioak zer nolako garrantzia duen azalduko dut.

### 3.1. **Bakegintzan dihardutenen eginkizun batzuk**

'Bakeranzko bide luzea' izena jarri diot etorkizuna eraikitzeko langintzari, eta hor, denok, premia handiko eginkizunak ditugu. Gure ikuspuntu instituzionaletik, bakoitzak bere esparruan duen erantzukizuna errespetatuz, hauxe uste dugu:

. **ETA erakundeak, indarkeriaz baliatzen jarraitzen duenak, bere iharduera amaitzea erabaki behar du.**

92tik aurrera indarra nabarmen galdu duenez gero (orduan harrapatu baitzuten Bidarten buruzagitza), horren aurka egiteko, diskurtsoa eta negoziatzeko baldintzak gogortu egin ditu ETAk. Era berean, ingurukoek ere areagotu egin dute hainbat jarduera: Ertzaintzaren aurkako jarrera, kaleko borroka -arazoaren irudiek indarra izaten jarrai dezaten-, bakezaleen aurkako mugimendua Jose Maria Aldaiaren bahiketarekin batera, informazioaren munduko profesionalen aurkako erasoak...

Horrek guztiak erakusten duenez, politika dagoen egoeran egonda, ez dirudi pauso errealistak emateko gertu daudenik, bakea bilatzeko. Nahiago nuke oker banengo.

**Baina lanean jarraitu behar dugu ETAk gizartean alde dituen pertsonak iritziz alda daitezen eta horiek ere erakunde armatuari bertan behera geratu eta desegiteko eska diezaioten.**

- **1988ko akordioak burutzea ahalbidetu zuen izpiritua berreskuratu behar dute alderdi politikoek, akordio horietako eduki guztiak baliozkoak baitira gaur egun ere.**

Euskadi Bakeratu eta Normalizatzeko Ajuria Eneko Akordioa, edo Bakearen eta Tolerantziaren aldeko Iruñeko Akordioa nahiz Madrileko Akordioak alderdien arteko akordio politikoak izan ziren, eta kasuan kasuko legebiltzarrek berretsi egin zituzten. Oinarrian, indarkeria ez erabiltzeko konpromezuarekin batera (ezin bestela izan alderdi demokratikoen artean), indarkeriaren mintzagaia ez erabiltzeko konpromezua ere bazegoen (ez diskurtsoan, ez estrategietan, ez ekimenetan...) baldin eta alderdiren baten onerako edo hauteskundeetako emaitzei begira bazen.

Konpromezu hori berreskuratzeko, elkarrekiko konfidantza lortu behar da berriz, bakea sendotzeko behar den besteko konfidantza behintzat, oinarrikoa baita bakea. Alderdi politikoek ere behin eta berriz izan behar dute gogoan 'elkarri barkatzeko hitza' hartu behar dela.

Orduko izpirituak beste zerbait ere eskatzen die alderdiei: beharrezko lantresna eta metodo eraginkorrak eskuratzeko akordioak garatu eta ezartzeko. Horien bidez, ekintza positiboak bultzatuko dira gizarte osoan giza eskubideen, demokraziako printzipioen eta tolerantziaren aldeko jarrera aktiboa zabaltzeko. Baina politikan bertan ere -hori delako politikarien esparrua- jardun beharko dute, elkarrizketa politikoak lekua izan dezan hauteskontzientziaz bidez legitimitate erreprezentatiboa eskuratu duten guztien artean, bestelako legitimitate faktikoak bazterrean utzita.

**Ajuria Eneko akordioak izenpetu dituzten alderdiek bakearen aldeko elkarrizketarako proposatu behar dituzten edukiak, printzipioz behintzat, akordio horietan jasotakoak izango dira: akordioaren 17 puntuak eta, beharbada, gerora zehaztuko diren beste batzuk.** Beste batzuek mahairatutako proposamen politikoak eztabaidatzeko gertu egon beharko dute, baina beti, koherentzia dela eta, akordioak oinarri hartuta.

Akordioak lortu arte, **elkarrizketetan naturaltasunez eta diskrezioz jardutea** prozesua benetan serioa izatearen erakusle izango da.

Denek parte hartzea lortzen ez den artean, politikak ez du bere zereginera lortuko. Era berean, politikaren esparruan politikaz soilik hitz egitea -indarkeria erabat baztertuz- lortzen ez den artean, zibiltatea ez da nagusituko.

- **Demokraziako erakundeek legalitatea errespetatu eta giza eskubideak babesten dituztela erakutsi behar dute; eredu-garri izan behar dute eta baita aurrea hartu ere hurbiltzeko eta elkarganatzeko ekimenak bultzatzean.**

Zalantzarik gabe, demokraziako erakundeak aparteko gunea dira tolerantzia praktikatzeko. Elkarrekin bizi, parte hartu, pertsonak elkar errespetatzera behartzen dute, bakoitzaren ideiek duten aldeak eragindako haserrea alde batera utzita. Hurbildu beharra eskatzen dute, bakoitzak bereari sendo eutsi arren... eta balore horiek denak dira beharrezkoak, gizartea tolerantea izango bada.

Giza eskubideak babesteko ez dira nahikoa adierazpen erretorikoak. Tortura-modu eta tratu txar guztiak erabat galtzea lortu behar da, eta baita eskubide guztiak benetan errespetatzea ere, atxilotuen eta presoek eskubideak tarteko direla. Horretarako, ezinbestekoa da gardentasuna eta kontrol objektiboa bermatuko duten baliabideak izatea.

**Polizia-kidegoek** (Ertzaintza, Polizia Nazionala eta Guardia Zibilak) herritarrek babestu eta horien eskubideak eta askatasunak zaintzeko ardura dutenez gero, kontu handiz jardun behar dute bertako kideak aukeratu eta etengabeko prestakuntza eskaintzeko orduan. Gizarteak konfidantza izan behar du berengan, baina era berean, guztiz demokratikoki eta profesionalki eraginkorrak izanez jarduteko eskatu behar die. Eraginkorra izatea inoiz ere ez da giza eskubideak errespetatzeko premiaren gainetik egongo. Eta eraginkorrak izan ez eta delituei aurre hartu edo galarazten ez badituzte, orduan ere ez dute beren egitekoa beteko. Beren esku dagoenez koertzioa egiteko gaitasun zilegizkoa, etengabe eta zorrotz kontrolatu beharko da ahalmen hori.

**80ko hamarkadan GALEkin gertatutakoa argitzeak** garbi utzi behar du berriz ere zer ez den egin behar: GAL guztiz deitoragarria izan da berez duen perbertsitateagatik (bahiketa, tortura, hilketa) eta Estatuaren egituraren baitako erakundeek burutu izanak erasten dion erabateko larritasunagatik. Baina, gainera, beste ondorio benetan txar batzuk ere izan ditu euskal gizartean: indarkeriak eragindako kaltetu gehiago; justifikatu edo txalotu zutenen artean baloreen aldaketa izan da; Zuzenbideko Estatuak legitimaziorik gabe geratu da; herritarrei bakearen alde egiteko oztopoak jarri dizkie, bi aldetako sarraskien presiopean zeudelako; gorroto eta mendeku-nahiak indarra hartu du... Justizia administrazioak erantzuleak nor diren erabaki eta horretan botere publikoek benetan laguntzearekin batera, ahalegin handia egin beharko da Zuzenbideko Estatuak eta sistema demokratikoak galdu duten sinesgarritasuna berreskuratzeko.

- . **Gizarteko mugimenduek tolerantzia, errespetua eta elkarrikeria zabaltzeko behar dituzte**, horiek direlako eurek ere bere egiten eta defendatzen dituzten baloreak, bakegile diren aldetik.

Herritarrei duten bake eta askatasun nahia adierazteko bideak eskaintzeaz gainera, osmosis-lana ere egin dezakete Euskadiko gizarte mugimenduek; tolerantziatzko ideiak eta jarrerak hedatu ditzakete. Hautakundeetako emaitzen menpe ez daudenez gero, eta barneko

pluraltasunari esker, politikan alderdi desberdinetan dauden pertsonak batzeko eginkizuna izan dezakete. Era horretan, Euskal Herri anitza eta tolerantzia zer izango den aurrera dezakete.

Baina hori lortzeko, benetako gizarte mugimendu izan beharko dute, antolatuak eta egituratuak, gizartean txertatuak, barneko eztabaida eta guzti, zein eginkizun berezi eta muga dituzten argi izango dutenak, eta gizarteko lanaren alde egingo dutenak, alderdi politikoen esparruan sartu gabe.

- **Herritarrek benetako protagonista aktiboaren lekua hartu behar dute, haiek ere arazoaren zati direlako, irtenbidearen gako bat ere izan daitezkeela jakinda.**

Euskal herritarrek egunero erakutsi behar dute bakearen aldeko konpromezu aktiboa hartu dutela: gizarteko mobilizazioetan sarriago hartu behar dute parte; elkarbizitzaren aurkako jarreraren aurrean, ezkutatzeko izaten den joera gainditu egin behar dute; eta demokraziaren sendotasunean oinarrituta, aurrez aurre dauden pertsonak elkarrengana hurbiltzeko bideak zabaldu behar dituzte.

\* \* \*

Euskal Herrirako bakea lortzeko, denek hartu behar dute parte. Batzuk prozesuaren erreferenteak eta mugiarazleak izango dira, beste batzuk prozesu horretan aktiboki parte hartu eta konprometituta egongo dira. Kasu guztietan, eginkizun osagarriak izango dira, baina denek tolerantzia izango dute ezagutari, nahitaez.

Ajuria Eneko akordioan proposatzen zenez, 'indarkeria elkarrizketaren bidez amaitzeak', hainbeste aldiz aipatutako esaldiak, gizarteko elkarrizketaren, politikako elkarrizketaren, elkarri barkatzeko hitzarmenaren -lehen aipatu dugu- fruitua izan behar du, denak ala denak ere bake iturri direlako.

### 3.2. **Euskal gazteak eta tolerantzia**

Etikaren ikuspuntutik, gizarteak moralari dagokionez aurrera egitea nahi badugu, garrantzi handiko gaia da bakearen eta tolerantziaren aldeko heziketa jasotzea. Jakinekoa denez, balore horiekiko heziketa ezin da haurtzaroan edo gaztaroan bakarrik jaso, baina epe luzeari begira, oinarri-oinarrizkoa da gazteen belaunaldiek balore horiek lantzea.

**Gaur egun Euskal Herrian erabateko lehentasuna du gazteen artean tolerantzia eta bakezko elkarbizitza printzipioak sustatzeak.**

Gai honen inguruan luzexego hitz egin nahi nuke. Izan ere, seguru asko urte askotan heziketarekiko konpromezu berezia izan dudanez gero, ardura berezia dudalako hor. Gainera, goi-komisionatuek duten suspertze-lanak esparru horretan eginkizun nabarmena izan dezakeela uste dut.

## a/ **Diagnostikoa**

Azkenengo hamarkadetan, euskal gizartea indarkeriaren protagonista eta objektu, jasale eta eragile izan da. Egia da indarkeria, era batekoa edo beste batekoa, gizarte guztietan aurkitzen dela. Hala ere, gure artean gertatzen denaren alderantziz, gure inguruko oso leku gutxitan saiatzen dira indarkeriaren bidez etekin politikoa lortzen, 'hilketa politikoen' edo terrorismoaren bidez.

Horrek bereizten du, hain zuzen ere, guk bizi dugun egoera. Gure gizartea, seguru asko, ez da inguruko beste batzuk baino intoleranteagoa. Ez hori bakarrik; **seguru asko gaur egun indarkeriaren erreferentea baino ez da izango euskal gizartean intolerantziari bide ematen dion ia elementu bakarra. Hala esango nuke nik. Eta euskal gazteek gertakari hori gertuago edo urrutixeago dutela gizarteratu behar izan dute.**

Indarkeriazko ekintzetan aktiboki parte hartzea beti gutxiengoaren jarduna izan dela alde batera utzita, horren ondorioek gizarte osoari eragiten diote. Indarkeriazko gertakariez inguratuta luzaroan biziz gero, jarrera, pentsatzeko era, defendatu eta egokitzeko bideak... sortzen dira, baina oso desberdinak izaten direnak, askotan kontrajarriak, herritarren arabera. Gatazka kronikoek gizarteko harremanak, komunikazioa, pertzepzioak, gizartearen antolaketa eta abar eraldatu egiten dituzte.

Indarkeriaren aurrean izaten diren era bateko edo besteko jarrerak azterterakoan kontuan hartu beharreko eragileetako bat adina da. Dagoeneko, azterlan batzuek bereziki aztertu dituzte euskal gazteek hainbat indarkeria-motaren aurrean dituzten jarrerak eta egiten dituzten balorazioak. Azalpen honetan zehar azterketa horietatik ateratako ondorioetako batzuek baliatuko naiz. Hauek dira gehien aipatuko ditudan lanak: Euskal Gazteak, 1986; Euskal Gazteak, 1990; Euskadiko Gazteak Sozializatzeko Prozesua. Euskal Gazteak, 1994; Euskal Herria, baloreei buruzko Europako Inkestan. Euskaldunak desberdinak al dira? Den-denak Eusko Jaurjaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak argitaratutakoak dira.

Hainbat arrazoi direla bide, indarkeriak eta indarkeriaren baloreek eragin berezia dute gazteengan. Horrek ez du esan nahi gazteak beste batzuk baino indarkeria-zaleagoak direnik. Esan nahi duena da **jende multzo horrek oso modu berezian bizi duela indarkeria eta indarkeriaren dialektikak erraz eragin diezaiokeela.** Hala ere, azken aldian kaleko indarkeria areagotu egin den arren eta indar handiagoaz agertu bada ere, nahiz eta gizartean sortzen duen eragina benetan larria izan, gogoan izan behar dugu itxaropena izateko datuak ere badaudela, azken urteotan gazteen jarrerak izan duten bilakaera ikusita.

Ezin da esan ez kasu honetan ez besteetan multzo bateratua denik. Kontrakoa bai, ordea. Burututako azterketek erakusten dutenez, euskal gazteek indarkeriarekiko -gizarteko gertakari gisa- duten iritzia oso desberdina da beren artean ere, gizarteko beste edozein adin-taldetan gertatzen den moduan.

Gogoeta honen ikuspuntua zein den kontuan izanda, garrantzi handikoa da **indarkeriaren ingurukoan hainbat zirkulu kontzentriko bereiztea**. Hiru behintzat bereiz ditzakegu:

- Gertaera eta jokaera biolentoena; denetan talderik txikiena, esan beharrik ez badago ere. ('Egiten dutenak', esan liteke).
- Biolentzia erabiltzearen aldeko jarrerarena: prest izatea politikan ere erabiltzeko. ('Egiteko prest daudenak', esan liteke).
- Besteek egindakoari buruzko balorazio moralarena: ekintza biolentoak zuritzea. ('Egiteko prest egon ez arren, beste inork egitea gaizki iruditzen ez zaienak', esan liteke).

Bistan dago lehenbiziko zirkuluak -delitua egiteak- baduela bere legegosparrua, eta, jakina, justiziari dagokiola. Guk beste bi planutan egin dezakegu lan, jokabidearen eta balore sozialen esparruetakoa baita gure eginkizuna. Jokabidea eta balore sozialak, izan ere, oinarri-oinarrizko bi elementu dira gizarte kohesionatu zartaturik gabekoa eraiki nahi badugu. Esparru horretara berariaz mugatzeak, dena den, beste batzuetatik bereiztea esan nahi du, nahiz eta badiren beste batzuk ere aski garrantzitsuak eta beren entitate dutenak. Bereizte horrek ez dio, nolana ere, gizartean duen inportantzia handia kamusten, bai kolektibo askoz handiagoak harrapatzen dituelako bere baitan (ekintza biolentoak egiten dituztenen 'harrobi' izan daitezkeenak), bai faktore horiek gizarte bat, moralki osasuntsua izango dena, eraikitzea ekar dezaketelako gaur edo bihar.

Lehen ere egin dituzte euskal gazteriar buruzko azterketak, eta lokarriak aurkitu dituzte arestian aipatu ditugun jokabide, jarrera eta balorazioetan: sexua, jatorria, eskola-porrota, aisialdirako denboran atsegirik ez aurkitzea, era bateko prentsa irakurtzea, drogak edo alkohola hartzea... Lokarriak zuzenenak, ordea, hiru faktore hauetan aurkitu dituzte:

- Faktore politikoak (halako partiduaren aldeko botoa ematen dutenak eta 'paso' egiten diotenak botoa emateari; beren burua halako politikaren aldekotzat jotzen dutenak; nazionalitate sentimendua dutenak...).
- Faktore erlijiosoak (erlijio sinesmenaren eta Jainkoari nahiz Elizari izendatutako paperaren juxtu beste alderakoa dutenak...).
- Faktore sozialak (iraultza edo erreforma gizartea aldatzeko eredutzat jotzen dituztenak...).

Azterketa horiek egungo egoerara egokitu behar izanez gero, seguru aski beste faktore batzuk ere kontuan hartu beharko lirateke, esate baterako: gizartean iskanbila pizten aritzen diren pertsona larri batzuek gazteak erreklutatzea, manipulatzeko eta zuzentzea; eta baita ghetto moduan funtzionatzen duten zirkuituetakoa edo gertuko izatea ere.

Esan dezagun, aurrera segitu baino lehen, 'euskal gazteak' halakotzat edo bestelakotzat hartzea, sinplifikatu behar gorriak ekarritako zerbait dela, eta esparru konplexu xehetasunez betean kokatu eta interpretatu behar dela;



era askotako jokabideak baitaude esparru berean, baita horien kontrakoak ere askotan. Hori, jakina, normala da edozein gizarte konplexutan.

### **b/ Gazteak tolerantziaren baloreak irakatsiz hezitzea**

Gazte asko eta asko ikasten ari da, unibertsitatean batzuk eta handik kanpora beste batzuk. Bidezkoa izango da, beraz, egoera honen aurrean hezkuntzak zer egin dezakeen galdetzea. Zer egin dezakeen, zehazki, bakearen eta elkar ulermenaren aldeko jokabide eta baloreetan hezitzeko; biolentzia koakzio politikotzat baliatzearen kontrako jokabide eta baloreetan hezitzeko.

Kontuan izan behar dugu, nolana ere, hezkuntzak ere badituela bere mugak esparru honetan. Izan ere, eskola (unibertsitatea) agente bat besterik ez da sozializazio garaian; hor daude familia, komunikabideak eta kideek beren artean osatzen dituzten taldeak, indartsuenetako batzuk aipatze aldera. Hala, bada, lehentasunezko arreta eskaintzen diogu, baina ez baloreak transmititzeko beste bide batzuek baino indar handiagoa daukalako, baizik eta zerbitzu soziala delako eta, beraz, haren bitartez indar eta sustapen lana egiteko erabil daitekeelako edo erabili behar delako.

**Abian jarrita dauzkagun hezkuntza-erreformen asmo bat da zehaztea zer jokabide eta balore iritsi behar diren.** Unibertsitateaz kanporako mailetan bi bide taxutu dituzte baloreak lantzeko eskolan:

- 1) Berariazko atal bat sartzea arlo, ikasgai, maila eta etapa guztietan, eta orain arte tradizio handiagoa izan duten beste arlo batzuei (kontzeptu eta prozedurei, esate baterako) adinako garrantzia ematea.
- 2) 'Zeharkako lerroak' sartzea eskola curriculumean (maila eta etapa guztietan, hala berean). Garrantzitsuenetako bat, hizpide dugun gaiari dagokionez, 'bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntza' da.

Eskola curriculumari dagozkionak dira arestian aipatu ditugun bi neurriak. Ez dugu ahaztu behar, ordea, **hezkuntza sistemak badituela beste baliabide batzuk ere jokabide eta balore jakin batzuk garatzeko**, konparazio baterako:

- . irakasleak egin dezakeen tutoretza eta orientazio lana;
- . gazteen arteko elkartegintza; elkarrekin bizi izaten eta elkarri laguntzen ikasteko praktikaren bitartez, eta baita indarrak bideratzeko eta arazoak konpontzen aktiboki parte hartzeko ere;
- . ikastetxeen funtzionamendu eta antolaketa parte hartzeko bideak; modua jartzen baitute arazoak kritikoki azaltzeko eta aterabideak eskola osatzen duten guztien artean hitz eginda bilatzeko;
- . ikasleen eskubide eta betebeharrak, edo ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendu arauak; izan ere, haietan datoz elkarrekin bizitzeko arauak, arazoak konpontzeko bideak...

Baliabide eta lanabes ohikoak dira den-denak, balore jakin batzuk sendotzeko erabil ditzaketenak bai ikastetxeek eta baita irakasleek ere, nola unibertsitatean hala unibertsitateaz kanpo. Baliabide horiek erabiltzeko modua izatea, edozein moduz ere, praktikan garatzeko gaitasunaren baitan izango da; bere koxka duen gauza, jakina.

**Hala, lan horiek benetan egiten al diren ala eginkizun uzten diren aztertu beharko lukete herri-defendatzaileek.** Izan ere, ekimen franko ari da abian jartzen bakerako hezkuntzan (proposamen didaktikoak, materialak, bakearen alde konprometituta dauden taldeen arteko lankidetzatza...), baina maratila eta oztopoa ere nonahi dago. **Alde horretatik, guri dagokigu akuilu lana, Administrazioak bere gain har dezan bakerako hezkuntzan dagokion ardura instituzionala. Hala, bada, Administrazioak orientazioa, baliabideak, prestakuntza, laguntasuna, jarraipena, kontrola eta abar egiteko konpromezua hartu behar du.**

#### 4.- **HERRI DEFENDATZAILEOK EGIN DEZAKEGUNA**

Guk ere pentsatu behar dugu piska bat zer egin dezakegun bakearen alde. Horregatik, orain arte hartu nahi izan dudana ikuspuntutik -euskal gizartean dagoen tolerantziaren azterketatik- begiratu eta pista batzuk eman nahi nituzke herri-defendatzaileok zer lan egin dezakegun azaltzeko.

Hala, bada, alde banatara bereiztuko ditut -argitasun handiagoa izate aldera, beti ere- ekinbiderik orokorrenak eta berariazkoenak, nahiz eta gure eginkizunik behinenak -eskubideak defendatzeak, alegia- berekin dituen ares-tian aipatutako ekinbide berariazko horiek.

##### 4.1. **Ekinbide orokorrak**

**Gure ekinbide bakoitzarekin, tolerantziaren kultura zabaltzen eta sendotzen lagun dezakegu.** Hona hemen modu batzuk:

- Aurren-aurrena, **pertsuasio lana eginez egunero-egunero.**

Pertsuasio-instantzia da Herri Defendatzailea. Batzuetan, oztopo handia izaten da arazoak konpontzeko, baina, lanabesik garrantzitsuena ere bada, halaber, tolerantziaren kulturari eta jarrerak hurbiltzeari gure ekarpena egiteko. Bai denekin hitz eginez eta denei entzunez, bai egiten ditugun proposamen apalen bidez -gure proposamenek ez baitute betearazteko indarrik-, lagundu egiten dugu desadostasunak konpontzeko estilo eta manera errespetuzko bat sendotu dadin.

- **Auziak konpontzeko bitartekari lana eginez.**

Akaso, hauxe izango da gutxien erabili dugun aukeretako bat, bai gure legerian eta bai egunereko jardunean. Auzietan bitartekari izatea, ordea, modu egokia da gizarteari erakusteko elkarrekin hitz egitea dela gizakiak duen baliabidea; sistema bat, desadostasunak pertsonaren duintasuna gutxitu gabe azaltzeko bidea ematen duena; modu praktikoa demokraziaren erronka zera dela erakusteko: hurkoa arrazoibideak emanda komentatzea, indarkeriaren eta armen bideak baztertzuz.

- **Jokaera intoleranteak salatuz.**

Zer egina franko falta da oraindik administrazioa bera ere parte izango duen elkarrizketaren kultura sendotzeko. Hartarako, ordea, herritarrekiko nahiz herritarren elkarrekin komunikazio sistemak indartu behar dituzte administrazioek, eta elkarrizketa jarri behar dute administrazioaileek beren lanaren zerbitzura. Guri dagokigu, bestalde, harrokeriaz edo handikeriaz jokatzeko duten administrazioak eta administrazioaileak salatzea.

- **Herritarrei zer eskubide dauzkaten azalduz.**

Kontuan izan behar dugu, edozein moduz ere, gauza konplexua dela aipagai duguna: halako kultura mota bat sendotzea. Eta horrek behar duena da kide bakoitzak balore amankomun batzuk bereganatzea eta geroz eta argiago ikustea zer eskubide dituen. Alde horretatik, besteek baino gehiago behar dute pertsona edo kolektibo ahulenean beren eskubideen berri izatea. Hala, beren eskubideen berri emanen hasi behar izaten da, askotan, edozein baino samurrago menderatzeko moduko kolektibo horiek babesteko. Daitekeena da, beraz, jendeak errazago jasotzeko moduan erabili behar izatea guk geuk ere eskuarki erabiltzen ditugun lanabesak: urteroko txostenak, esate baterako. Ez baitugu ahaztu behar, izan ere, pertsona guztiak prestatu behar ditugula, denok eskubide berberak eta bakoitzak bere irizpideak izan dituzgun; tolerantziak ez baitu askatasunik ekarriko bestela.

- **Aginte publikoei esijituz.**

Gizarte demokratikoetan gestio-lan huts-hutsa baino gehixeago ere egiten dute aginte publikoek: gizartea hobetzeko prozesuak gidatzea eta gidari izatea ere badagokie. Planak eta baliabideak esijitu behar dizkiegu, beraz, bakea eraikitzeko azpiegitura soziala sendo dezagun.

- **Gizarte bidezkoago eta toleranteago baten aldeko apustua egin duten kolektiboei laguntza emanez.**

Era honetako kolektibo asko eta asko, daukaten pluralitatea eta kontsentsu gaitasuna daukatelako, adiskidetasunaren ikur eta hazi dira.

Indarrak biltzen, giza taldeak mobilizatzen eta tolerantziaren baloreei goreneko maila emateko giro soziala sortzen egiten duten lanari guk erantsi diezaiokeguna zera da: entzutea, hurbil egotea, bultz egitea eta haiekin batera lan egitea.

Denak ez ditugu aipatu, jakina, guk, gure instituzio hauetatik, beste lan asko egin ditzakegu-eta kontzientzia soziala eraikitzeko, halako balore zibiko batzuk sendotzeko, borondate aktiboak ugaltzeko eta tolerantziaren, berdintasunaren eta duintasunaren alde mobilizatzeko sektore asko. Seguru gaude, gainera, gaur inoiz baino beharrezkoagoa dela, eta tolerante izan behar dugula geure artean; hori baita bakea, demokrazia eta kohesio soziala irits dezagun laguntzeko modu bat.

#### 4.2. Ekinbide berariazkoak

Ekinbide orokor izendatu ditugun horiek aurrera ateratzeaz gainera, **guri tokatzen zaigu zaintzea -instituzio garantistak izanik gureak-legeak zorrotz betez eta giza eskubideak zintzo errespetatuz burutu ditzaten aginte publikoek beren ihardunak.** Esan gabe doa lotura zuzena duela arestian aipatutakoak egungo aztergaiarekin; ez baita nahikoa tolerantzia predikatzea, baldintza sozialak jarri behar dira gauzatzeko bidea izan dadin. Horretan zorrotz baino zorrotzago jokatu behar dugu: zorrotz jokatu behar dugu justiziarekin, zain egon giza eskubideak ez zapuzteko, eta, batez ere, zorrotz bizi izateko eskubidea eta pertsonaren duintasuna errespetatu daitezen.

Gure eginkizun nagusia, beraz, eskubideak bermatzea da, eta, alde horretatik, **biolentzia alde batera uzteko eskatu behar diegu bai praktikatzen dutenei eta bai laguntzen dietenei** (Eskerrik asko, bide batez, Jose Mari Aldaia askatzearen alde bidali dizkidazuen gutun eta telegramengatik), **baina, halaber, indarkeriaren kontra egin behar dutenean giza eskubideak zintzo errespetatzeko eskatu behar diegu instituzioei**, eta ekin hala jokatzeko ez badute.

Kontua ez da gure jardunaren neurri bikoitz hau bi alderdien erdi-erdian jartzea. Kontua da gure erantzukizunari ikuspuntu batetik heldzea, denok beretik: **biktima defenditu beharretik, alegia.** Guk tinko egon behar dugu, beti, biktimaren alde, edozein delarik ere biktima hori. Bestela ez baita kagu laguntzerik gure herrian bakea eraikitzen.

\* \* \*

Horiek horrela, **Euskadin egun bizi dugun egoera kontuan hartuta, Arartekoak uste du ondoren datozen proposamenak lasai ederrean aztertu eta, egoki irudituz gero, laguntzea dela Herri Defendatzaileok elkarlanean bakearen kulturari egin diezaiokegun ekarpen berariazkoa. Hona proposamenak:**

a/ Bakerako eta tolerantziarako hezkuntza:

1. **Gertutik zaintzea Administrazioak bere erantzukizunari hel-tzen diola eta hezkuntza sistemak bakerako hezkuntza es-kola curriculumaren barruan lantzen duela** behar diren orien-tazio, baliabide, prestakuntza, laguntza eta kontrolarekin.
2. **Gazteek ikastetxeetan parte hartzeko dauden baliabide guz-tiak garatzen laguntzea**, hura baita elkarrizketa, elkarlana eta auziak konpontzen ikasteko modu aski egokia.

b/ Administrazioko organoen zenbait ekintza:

3. **Eginahal guztiak egitea tratu txarrak eta torturak ekiditeko.** Hartarako, erne egon beharko dugu, eta kontrol moduak proposatu beharko ditugu zigorraren beldurrik gabe aritzeko moduko tokirik inolaz ere izan ez dadin, hala esaten baita bai Europako Itunean, 1950eko azaroaren 4koan, Giza Eskubideak eta Libertaterik Funtsez-koenak babestekoan, eta baita torturaren nahiz beste edozein tratu edo zigor krudel, anker edo degradanteren kontra Borroka egiteko Itunak, 1984ko abenduaren 10ekoak, zeinak 1979ko irailaren 26an eta 1987ko urriaren 10ean berretsi baitzituen Espainiak.
4. **Ahal den guztia defendatzea indarkeriaren eta terrorismoa-ren biktima izan direnei kaltea arindu beharra, materialki bezala moralki, nonahitik heldu delarik ere biolentzia eta terrorismoa.**

c/ Terrorismo delitua egiteaz salatuta daudenen tratamendu prozesal eta penala:

5. **Aldatu behar diren legeak aldatzeko proposatzea, terroris-moa egiteaz salatuta daudenei tratu berezia edo diskrimina-tzailea ematerik egon ez dadin.**

d/ Delitu egin izanagatik preso dauden pertsonak:

6. **Ahal dugun guztia egitea geure legeetan beretan ditugun neurriak garatu eta praktikan jartzeko eta presoak bergi-zarteratzeko**, hori baita justizia oinarri duen politika penitentziario ororen helburu gorena; ikus Konstituzioaren 25.2 artikulua eta Lege Organiko Penitentziario Orokorren 1. artikulua.
7. **Presoek beraien kondenak beren bizilekutik hurbil dauden kartzeletan bete ditzaten bultzatzea**; hartara, presoak bere gizar-tetik atera beharrik ez litzateke izango (hala jartzen du Lege Organiko Penitentziario Orokorren 12.1 artikuluan ere) eta arindu egingo litzateke, galanki, gurasoei eta lagunei lehenaz gainera dakarkien sufrimendua eta kostua.
8. **Kartzeletako administrazioak legeak, hainbat kasu desber-dinetan dauden presoak kartzelatik ateratzeko jarritakoak,**

**betetzen ote dituen zaintzea**, esate baterako: zigorraren zati jakin bat bete izana (Arautegi Penitentziarioaren 58. artikuluan jartzen duena) edo sendabiderik ez duten gaisotasunak edukitzea (60. artikuluan jartzen duena).

- e/ Kontzientzi eragozpena eta intsumisioa aintzakotzat hartzea (ikus eraskina):
9. **Kontzientzi eragozpenarentzat jarrita dauden legeak** -baita Kode Penalaren proiektuak aurrakusten dituenak ere- **aldatzeko behar diren neurriei lehenbailehen ekiteko eskatzea Gobernuari eta Gorte Nagusiei, zigorra kentzeko, soldadutza egiteari nahiz zerbitzu soziala egiteari uko egin ez gero.**
  10. **Gobernuari eskatzea, era berean, egoki jotzen dituen gestio guztiak egiteko intsumisoak kartzelara joan ez daitezen, oraingoek joan behar izaten duten eran; harik eta, beti ere, legeak aldatzeko eginbideak egin arte.**

\* \* \*

Nahiz eta, funtsean, arrazoi etiko eta demokratikoengatik esijitu egiten dugun, ez dugu ahaztu behar are interes handiagoa daukatela gora-behera hauek guztiak Euskadin: motibo berririk ez emateko auzia eta haserrea sortu dadin gizartean. Izan ere, iruditzen zait komeni dela elkarbizitze sistema demokratikoak eta haren instituzioek beraien legitimazio soziala berritzea, egunero-egunero. Hori iristeko, ordea, bide bat besterik ez dute: demokratikoki jardutea, eta halaxe ikustea gizarteak ere.

Baliteke horixe izatea bakea lortzeko guk egin dezakegun lanik handiena. Bakeak, ordea, errealitate sozialak bezalaxe, zaintzea eskatzen du, eta, batez ere, giza eskubideak gauzatzeko. Horra, bada, zer ematen diogun guk kohesio sozialari eta halako gizarte moderno bat -gizatasunean, tolerantzian eta elkartzasunean oinarritutakoa- eraikitzeko lanari.

## **ERASKINA:**

**Arartekoak ekainaren 9an Herri Defendatzaileari bidalia, kontzientzi eragozpenaren eta intsumisioaren auzian esku har dezan eskatzeko.**

Jaun txit goren hori:

Gure erakunde honetara behin baino gehiagotan etorri dira laguntza eske hainbat eta hainbat talde, intsumisioen familiek eratu dituztenak, eta baita Kontzientzi Eragozleen Mugimenduko ordezkari batzuk ere. Kolektibo horiek guztiak, bistan da, gure erkidegoko hiru probintzietan ari dira lanean.

Adierazi didatenez, intsumisoen egoerak kezka handia ematen die eta haien ustez derrigor aldatu behar dira legeak, gizarteak duen arazo larri honi konponbidea emateko.

Koordinazioa eta elkarlana dira gure instituzioen arteko harremanen oinarriak. Hala, bakoitzari izendatutako eskumenak ere zintzo errespetatu, zugana jo dut: euskal intsumisoen familiartekoei maiatzaren 25ean egin genuen bileran azaldu zizkidaten kezka zuri aurkezteko, eta, halaber, esku har dezazun eskatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta oihartzun eta garrantzi handiagoa hartzen ari den auzi honetan, zeina baita kontzientzi eragozpena eta intsumisioa.

Urte hauetan denetan, behin baino gehiagotan azaldu du zure ardura-peko erakunde horrek arestian aipatu dudan auziarekiko kezka. Begiratu besterik ez dago 8/1984 eta 48/1984 Legeetako puntu zenbaiten kontra-kontzientzi eragozpenari dagozkion zigor penal eta administratiboei buruzkoa baita lehenbizikoa eta kontzientzi eragozpena nahiz zerbitzu soziala arautzen dituen bigarrena-jarri dituzuen errekursoak, Konstituzioaren kontrako direlakoan; eta egin dituzuen lanak eta eman dituzuen aholkuak azkeneko urteotako txostenetan (1985ekoan, 1986koan, 1989koan, 1991koan...).

Bistan dago gero eta jende gehiago dagoela egun soldadutzarekiko kontzientzi eragozpena arautzen duten legeen kontra. Gure Autonomia Erkidegoko gehienak sentimentuz behintzat kontra daudela esan daiteke, hala erakusten dute egin izan diren azterketek.

Gaur egun 3.000 intsumiso daude gure erkidegoan konponbide baten zain; asko eta asko, gainera, kartzelan.

Era askotara azaltzen da gizarteak arazo honetaz duen kezka eta arbuioa, eta, jakinekoez denez, instituzio publikoek ezin dute horietatik aparte gelditu. Alde horretatik, eta garrantzi handikoak direlako kontu honetan ere, Eusko Legebiltzarrak eta Eukopako Parlamentuak hartutako ekinbide batzuk aipatu nahi dizkizut, eta baita Bilboko Auzitegi Probintzialaren adierazpen batzuk ere.

Eusko Legebiltzarrak, esate baterako, legez besteko proposamen ugari egin zituen aurreko legegintzaldian, eta aldi baterako erabaki asko ere hartu ditu, inork desio ez duguna gerta ez dadin: intsumisoak kartzelan sartzea. Proposamen askok, esan dezagun bide batez, alde izan du Eusko Legebiltzarraren gehiengoa.

Hor ditugu, konparazio baterako, 1991ko uztailaren 3an egindako bilkuran onartutako legez besteko proposamena, derrigorrezko soldadutza deusestatzeari buruzkoa; 1989ko apirilaren 13an egindako Osoko Bilkuran hartutako erabakia, kontzientzi eragozle izateko eskubideaz; edo 1993ko maiatzaren 14ko bilkuran onartutako akordioa, zeinaren bidez 'Intsumisioak dakarren arazoa konpontzeko behar diren neurri guztiak hartzeko eskatzen dien Legebiltzarrak aginte publikoei, eta baita intsumisioa zigorgabetzeko ere, hala eskatzen baitute Euskadin bizi diren pertsonarik gehienek.' (Testu osoa ere bidali dizut).

Estreinatu berri dugun legegintzaldi honetan bertan ere (V. legegintzaldian), Eusko Legebiltzarrak onartu egin du -1995eko martxoaren 24an, hain zuzen ere- legez besteko proposamen bat 'Euskadiko intsumisoak libre uzteari buruzkoa'. Hona zer dioen zehazki:

*'Eusko Legebiltzarrak erabaki du:*

- 1.- Eusko Legebiltzarrak legedi militarra eta Kontzientzi Eragozpenaren Legea eraberritu beharrari buruz hartutako erabakiak berrestea, bai eta Legebiltzarrak herri-aginteei egindako deia ere, alegia, intsumisioari irtenbidea emateko beharrezko neurri guztiak hartzeko eta, zalantzarik gabe, Euskadiko herritar gehienek eskatzen dutenez, intsumisioa zigorgabetzeko deia.*
- 2.- Adieraztea, aldi baterako egoera honek dirauen bitartean, zerikusirik duten estamentuek beharrezko neurriak hartu behar dituztela talde honek espetxean jarrai ez dezan.'*

Europako Parlamentuak berak ere hartu zuen erabaki bat Komunitateko Estatuetakoa kontzientzi eragozpenaren gainean, 1994ko urtarrilaren 19an. Urtarrilaren 19koan lehenago hartutako erabaki batzuetan esandakoa sakondu zuen Europako Parlamentuak. Lehenago hartutakoak dira 1983ko otsailaren 7ko Hamabi C68 1.3.1989 erabakia, esate batera, eta baita 1989ko urriaren 13ko erabakia ere, Hamabi C291, 1989-11-20koa, kontzientzi eragozpenak eragin eta soldadu joateari uko egitearen gainekoa dena. Hona hemen 1994ko erabakiak zer jartzen duen:

- '1. Guretzat, kontzientzi eragozle izatea pertsonak duen eskubidea da, egiazkoa eta berea, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak onartua 89/59 Erabakian eta estu lotuta dagoena norberaren libertateak erabiltzeko eskubidearekin. Horiek horrela direla, soldadu joanda nahiz zerbitzu zibila eginda eman daiteke zerbitzu komunitateari.*
- 2. Guri iruditzen zaigu, soldadu joan beharra izan eta erlijioak, etikak, filosofiak edo kontzientziak eraginda joan nahi ez duena dela <<kontzientzi eragozle>>. Halaber, definizio hori onartzeko eskatzen diegu Komunitateko estatu guztiei.*
- 3. Bat gatoz, orobat, Europako Kontseiluko Ministroen Komiteak derri-gorrezko soldadutzarekiko kontzientzi eragozle izateaz (R(87)8) Gomendioan adierazi zituen printzipio oinarritzarekin; eta iruditzen zaigu gomendioa gutxien-gutxienezko oinarri bat besterik ez dela arau batzuk jartzeko zerbitzu zibilaz, Europako Kontseiluko kide diren Estatu guztiek bete beharrekoak.*
- 4. Kontzientzi eragozpenak mundu guztian sortu du arazoa, hala erakusten du Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak 1989an hartutako Erabakiak, eta baita Europako Kontseiluko Ministroen Komiteak 1987an eman zuen Gomendioak nahiz 1989an hartu zuen*



- Erabakiak ere, dokumentu horietan baitator -eskubideen tartean-soldadutzarekiko kontzientzi eragozpena, eta azpimarkatu egiten dute soldadutzaren ordezeko zerbitzuak ez duela zigorra izan behar.
5. Seguru gaude eskubide hau -kontzientzi eragozpena- giza eskubideetatik eta libertate funtsezkoenetatik heldu dela; alde horretatik, Europako Elkarateak hitz ematen du -Europar Batasuneko Itunaren F artikuluko 2. atalaren arabera, beti ere- zintzo errespetatuko dituela bai eskubideak eta bai libertateak. Alor horretako legeriak elkarrekin egokitzea, beraz, Europako Elkarateari dagokion gaia da.
  6. Interes orokorreko gaitzat hartu eta hala aztertzeke eskatzen diegu Elkarteko estatu guztiei derrigorrezko soldadutza kendu eta armada profesionalak jarri dituztenen esperientzia, eta onartu dezatela estatu berean bizi diren guztiek eskubide eta betebeharrak berberak izan behar dituztela.
  7. Horiek horrela direla, bada, hauexek lehenbailehen aurkez ditzan eskatzen diogu Batzordeari:
    - proposamen bat Europako Elkartean giza eskubideak errespetatzeari buruzkoa, kontzientzi eragozle izateko eskubidea -1993ko martxoaren 11n hartu zuen erabakiko 49. atalean definituta dagoen eran-, babesteko; eta, hartara, egun Elkarteko kideen artean dauden diskriminazioak behin-betiko kentzeko;
    - beste proposamen bat zerbitzu zibil europarra sortzeko, Elkartean diren kontzientzi eragozleentzat eta borondatezkoentzat irekita egongo den zerbitzu zibila, alegia;
    - elkartrukatzeko programa bat, modua jartzeko ordezeko zerbitzu zibila egin nahi dutenei beren Estatutik kanpora edota Hirugarren Munduan, lankide joanda, egiteko.
  8. Eskatzen dugu aukera egon dadila zerbitzu zibila egin behar duenak Europako Elkarteko edozein estatutan -baita berea ez den beste batean ere- egiteko, bere estatuak beste bat hartu beharrik gabe eta baita zerbitzua bete behar duen estatuak armadarako bildu ez bazuen ere.
  9. Zerbitzu zibilak ere derrigorrezko soldadutzak adinaxe irautea eskatzen diegu Elkarteko estatuei, hala azpimarkatzen baitu lehen aipatu dugun Erabakiak, 1993ko martxoaren 11n hartuak, 51. artikuluan, Europako Elkartean giza eskubideak errespetatu beharraz ari delarik; eta Defentsa Ministerioaren mende ez dauden instituzioetan egitea zerbitzu zibila.
  10. Uste dugu, orobat, soldadutza betetzen ari denak dituen eskubide berberak izan behar dituela zerbitzu zibila betetzen ari den kontzientzi eragozleak ere, bai sozialki (lanbide hezkuntza hartzeko bidea izatea, esate baterako), bai ordainsariaren alderditik.
  11. Gaitzetsi egiten dugu estatu batzuetan kartzela zigorra jartzea objektoreari; konforme gaude Amnistia Internazionalak esaten duenarekin

eta gobernu greziarrari eskatzen diogu, bereziki hari, lehenbailehen jartzeko bere jarduna lehen aipatu dugun Erabakiak dakartzan printzipioetara egokitzeko behar diren neurriak.

12. Berriz azpimarkatu nahi dugu halako edo bestelako erlijioan sinesteko eskubidea pertsonak dituen libertate funtsezkoen sailekoa dela, Giza Eskubideen Karta Unibertsalean heldu diren libertate funtsezkoetakoa; hargatik, berretsi egiten dugu 1993ko urtarrilaren 21eko Erabakian eta 1993ko apirilaren 22koan nortasun agirietan norberaren erlijioa adierazteaz jartzen duena.
13. Kontzientzi eragozle izateko eta ordezeko zerbitzu zibila egiteko eskubidea protokolo batean jaso eta Giza Eskubideen Itun Europarrari erasteko eskatzen dugu.
14. Soldadu-biltzea eta soldadutza nahiz zerbitzu zibila kendu duten edo ez daukaten estatuei, berriz, kontzientzi eragozle izateko eskubide funtsezkoa bermatzeko eskatzen diegu, hala eta guztiz ere.
15. Lan bat agintzen diogu Batzordeari: atxikipena eskatzea Elkarteko kide diren nahiz kidegai diren estatuei 1983ko otsailaren 7an, 1989ko urriaren 13an eta 1993ko martxoaren 11n hartutako Erabakietan nahiz Erabaki honetan berean heldu diren printzipioekiko.
16. Lan bat agintzen diogu Libertate Publiko eta Barne Arazoetako Batzordeari: txosten bat egitea, urteko, Elkarteko estatuek zer-nola betetzen dituzten jasotzeko kontzientzi eragozpenari eta zerbitzu zibilari buruz batzorde horrek berak hartutako erabakiak; eta parte harrarazteko Kontzientzi Eragozpenaren Bulego Europarrari batzordeak egiten dituen lanetan.
17. Lan bat agintzen diogu, orobat, gure Lehendakariari: erabaki honen berri ematea Kontseiluari, Batzordeari eta baita Elkarteko kide diren nahiz kidegai diren estatuetako gobernuari eta parlamentuari.'

Esan dezagun, beste alde batetik, Bilboko Auzitegi Probintzialak -intsumisio kasu franko epaitu behar izan baitu- orain urte eta erdi erabaki zuela, aho batez, arrazoitutako azalpen bat bidaltzea Gobernuari -Kode Penaleko 2. artikulua babesean- intsumisioari zigorra kentzea eskatzeko. Hala, era horretako 68 testu bidali dizkio dagoeneko Bilboko Auzitegiak Gobernuari, eta eskatu diona zera da:

- '1) Behar den ekinbide legislatiboa proposatzea soldadutzaz eta haren ordezeko zerbitzu sozialaz gaur dauden legeak aldatzeko, eta zerbitzu alternatibo izateko orain ordezeko zerbitzu dena; zigorra kentzeko, orobat, soldadu joan edo haren ordezeko zerbitzua egin nahi ez duenari, eta Zuzenbide Penalaz kanpoko neurriak jartzea halakoak izaten direnerako.
- 2) Ezezkoari zigorrik ez zaiola kendu behar irudituz gero, berriz, errotik aldatzea eskatzen dugu orain indarrean dauden zigor-arauak, eta preso sartzea ez den beste zigor modu bat aukeratzea.'

Arartekoari kezka ematen dio Kode Penalaren Proiektuko 595. artikulua egoera hau egoki konpondu ordez gaiztotu egingo duela ikusteak, beste zigor bat erantsiko diolako kode berriak kartzelari: inhabilitazioa.

Izan ere, ez dugu uste zigorrak handituta etorriko denik konponbidea. Konponbidea elkartasuna errespetatuz eta kontzientzi eragozle izatea esku-bide dela aitortuz etorriko da; pertsonak duen giza eskubidea dela aitortuz, defentsan parte hartu beharretik libre geratzea ez baina, zenbaitek hala jo nahi duen arren.

Badira alderdi batzuk bereziki ukitu beharrekoak legeak aldatzekoan. Kontzientzi Eragozpenaren Legean, esate baterako, alternatibatzat jarri behar da zerbitzu soziala, eta ez ordezkatuz. Sartu egin behar da, era berean, soldadu joan eta gero ere kontzientzi eragozle izateko eskubidea. Eta kendu Kontzientzi Eragozpenaren Kontseilu Nazionalak onartu behar izatea kontzientzi eragozle izateko, herritarrek berez, libreki, izan behar dutelako esku-bide hori. Kode Penalak, berriz, ez du zigortu behar soldadutza edo zerbitzu soziala egiteari uko egiten diona.

Hala, bada, lehenbailehen hartu behar dugunez parte Herri Defendatzaileok -bidezko baita-, orain arte esandako arrazoiak aintzakotzat hartu eta bi gauza hauek eskatu behar dizkizut, legeak gure erakundeei ezarri dizkien eskumenak zintzo errespetatuz, beti ere. Hona eskaera:

1. Azter ezazu komeni ote den eskatzea Gobernuari eta Gorte Nagusiei lehenbailehen has daitezela ekinbide legislatiboak egiten kontzientzi eragozpenarentzat egun dauden legeak aldatzeko, eta soldadutza nahiz zerbitzu soziala egiteari uko egiteak dakartzan zigorrak kentzeko.
2. Harik eta lege aldaketa hori etorri artean, berriz, beharrezko iruditzen zaizkizun gestio guztiak egin itzazu intsumisoek jasan duten zigorra (kartzela) jasan beharrik ez izateko.

Pentsatu dut Zuzenbidea sustatzea dugula eginkizun -hala jarri baitzien Legeak gure instituzioei-, eta herritarrari kaltea edo bidegabekeria dakarkion legea aldatzeko eskatu behar diogula -aldatzeko aginpidea daukan organoari-, hori delako guk daukagun baliabiderik printzipalena herritarraren eskubideak eraginkortasunez defendatzeko. Hargatik hartu dut lizentzia zuri esku har dezazun eskatzeko.»

\* \* \* \*

## **«TOLERANTZIA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BALORE» GAIARI BURUZKO ONDORIOAK**

Hitzaldi ezberdinetan jasotako proposamenak luzaro eztabaidatu ostean, ondorio hauek onartu ziren:

«TOLERANTZIA GIZA ESKUBIDEEN  
ALDEKO BALORE» DELAKO LAN-ESPARRUAN  
ATERATAKO ONDORIOAK:

Aurtengoa Tolerantziaren Nazioarteko Urte izendatzea erabaki dute Nazio Batuek, 48/126 Erabakia bitarteko dela. Hala, Herri Defendatzaileok ere tolerantzia gizakiak elkarrekin bizitzeko oinarrizko baloretzat daukagu, eta, beraz, hauxe

ALDARRIKATZEN DUGU: bereziki saiatuko gara arraza, sexua, erlijioa, sinesmena, hizkuntza edo maila soziala bitarteko delako sortzen den diskriminazioari kontra egiten; hartarako, aldatu behar diren arauak aldatzea sustatuko dugu.

Eginahalak egingo ditugu, halaber; adin-txikikoek, zaharrek, elbarriek eta baita aginte publikoek bereziki kontu egin beharreko guztiek ere beren eskubide pertsonal eta kolektiboak izan ditzaten, gizatalde horiek baitira babesik handiena behar dutenak.

Hona, bada, guk hartu dugun konpromezua horiek iristeko:

1. Bakerako eta tolerantziarako hezkuntza. Erne egongo gara Administrazioak bere ardura instituzionalari heldu eta lan eragin diezaion hezkuntza sistemari bakerako hezkuntza eskola curriculumean sartzeko, behar diren orientabide, bitarteko, prestakuntza, laguntasun eta kontrol guztiekin.
2. Defendatu egingo dugu gazteek eskolako instituzioetan parte hartzeko baliabideak garatzea, berariazko modua baita elkarrekin hitz egiten, lan egiten eta arazoak konpontzen ikasteko.
3. Administrazioetako organoen ekintza batzuk. Eragotzi egingo dugu, eskueran ditugun baliabideak erabiliz, tratu txarrik eta torturarik izan dadin. Erne egongo gara, eta horrelakoak kontrolatzeko lanabesak proposatuko ditugu zigorrik gabeko gunerik izan ez dadin inon; hala jartzen du Europako Konbentzioan, 1950eko azaroaren 4koan, Giza Eskubideak eta Libertate Funtsezkoenak babestekoan, eta baita 1984ko abenduaren 10eko Konbentzioan ere, tortura eta beste edozein tratu txar edo zigor krudel, anker edo degradanteren kontra borroka egitekoan; biak berretsi baitzituen Estatu espainiarrak: 1979ko irailaren 26an bata eta 1987ko urriaren 10ean bestea.
4. Indarkeriaren eta terrorismoaren jasale izan direnek zerbaiten kalteordaina -materiala bezala morala ere- jaso beharra defendatuko dugu, nonahitik datorrela ere indarkeria eta terrorismoa.
5. Delitu egiteagatik preso dauden pertsonak. Geure legerian datozen neurriak garatu eta praktikara eraman daitezen sustatuko dugu, presoak eraginkortasunez eta erabat bergizarteratzeko.
6. Eginahalak egingo ditugu administrazio penitentziarioak kasu jakin batzuetan dauden presoek dagozkien arauak aplikatu diezazkien, esate baterako: zigorraren zati bat beteta dutenei arautegi penitentziarioaren

58. artikulua ren arabera- edo sendabiderik gabeko gaisotasunen bat dutenei -lehen esandako arautegiko 60. artikulua k bide ematen baitu hartarako.

7. Herri Defendatzaileoi kezka ematen digu egungo legeak soldadutza edo ordezko zerbitzu soziala egiteari uko egiten dieten pertsoneri ematen dien erantzunak. Herri Defendatzaileok pentsatzen duguna da zerbitzu sozialari uko egiten diona kriminalizatzeak ez diola mesederik egiten gizartea eraikitze ko erantzukizunean partaide izateari, eredu bihurtu behar bailuke zerbitzu sozialak partaidetza hori. Alde horretatik, guk defendatzen duguna da neurriak jartzea zerbitzu soziala libreki betetzea sustatzeko.

Hala, bada, Herri Defendatzaileok iradoki nahi duguna da azterketa egin beharko litzatekeela Konstituzioko 30.3 artikulua k zerbitzu sozialaz ezarzen dituenak garatzeko eta zerbitzu soziala alternatiba izateko, eta ez soldadutzaren ordezkoa.

Bien bitartean, iruditzen zaigu soldadutza edo zerbitzu soziala egiteari uko egiteak ez duela kartzelara sartzerik ekarri behar, eta interes orokorrari dakarkion kaltearen arabera koa izan behar duela jokabide horrek merezi duen zigorrak ere, horrelakorik merezi izanez gero.»

### **2.3.1.2. JARDUERA ETA IRIZPIDEEN KOORDINAZIOA**

Bilera honetan Arartekoa, Xabier Markiegi, izan zen mahaiburu-moderatzaile.

Bertan, hitzaldi hauek egin ziren:

- Lehen hitzaldia: Ombudsmanaren Nazioarteko Institutoaren jarduerari buruzko txostena, Antonio Rovira jaunak, Herri Defendatzailearen 2. Ondokoa.
- 2. hitzaldia: Ombudsmanaren Europako Institutoaren jarduerari buruzko txostena, Pilar Herrera andreak, Diputado del Común delakoaren Ondokoa.
- 3. hitzaldia: «Gizarte-komunikabideen bitartez ombudsmanek herritarrekin komunikatzeko erabiltzen duten komunikazio-pedagogia», Jesús Maeztu jaunak, Andaluziako Herri Defendatzailea.
- 4. hitzaldia: komunikabideei buruz, Juan Bautista Montserrat jaunak, Aragoako Justicia.

### **«EKINTZEN ETA IRIZPIDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA» DELAKO LAN-ESPARRUAN ATERATAKO ONDORIOAK**

«Nazioarteko foroetan,

Herri-defendatzaileok, beste estatuetakok kideko erakundeekin eduki ditugun eta edukitzen ditugun harremanei buruzko eta nazioarteko foroetan dugun partaidetzari buruzko eztabaida zabalaren ondoren, honako puntuotan bat gatzela adierazi nahi dugu:

1. Erakunde desberdinek are lokarri estuagoak eduki nahi dituzte elkarren artean, beraien ekintzetan eta kideko beste erakundeekiko harremanetan, bai eta Nazioarteko Ombudsman Erakundeetan eduki beharreko partaidetzan ere.
2. Herri Defendatzaileen Federakunde Iberoamerikarraren ekintzei gure laguntza adierazi nahi diegu, informazioa elkartrukatzeko eta Latinamerikako sistema demokratikoak sendotzeko prozesuei bultz egiteko.
3. Kanarietako Diputado del Común deritzan erakundeak Santa Cruz Tenerifekoan datorren azaroaren 7tik 9ra arte antolatuta, eta 'Giza eskubideak: elkartasuna eta garapena' gai nagusiaz egingo den Giza Eskubideen Babes eta Sustapenerako Erakundeen Hiru Kontinentetako Lehen Konferentziaren berri jakin dugu; haren hiru eztabaida-arlo nagusiak honako hauek izango dira:
  - 'Garapen-eredu orekatu eta tinkoa lortzeko nazioarteko lanabes juridikoak'.
  - 'Elkartasunaren egitura, kinka larrian dagoen munduan'.
  - 'Migrazioak eta kultur eskubideak'.

Erakunde bakoitzak ahal duen neurrian parte hartuko du konferentzia honetan, erakunde gonbidatzaileak izanik, haren garapena onuragarria izan dadin.

4. Hiru Kontinentetako Konferentziaren ondoren, Kanaria Handiko Las Palmasen, azaroaren 10 eta 11n egingo den Europako Ombudsman Institutuaren Bosgarren Konferentziaren berri jakin dugu.

Azkenik, herri-defendatzaileok NBERi zuzendu zaion Bakearen Karta delakoaren edukiaren berri jakin dugu: dokumentu hau joan den 1993ko apirilaren 22an izenpetu zen lehen aldizartzelona eta, geroago, lau kontinentetako 40 herrialde baino gehiagotako hainbat eta hainbat hiritan ere, eta kulturaren, unibertsitatearen, industriaren eta gizarteko beste hainbat alorretako pertsonalitateen aldeotasuna izan du. Horiek horrela, herri-defendatzaileok, munduan Bakeari oinarri sendoak eskaintzeko dauden oztopoak deusezteko ahaleginetan lagundu nahirik, hauxe erabaki dugu:

Denok izenpetzea NBERi zuzendutako Bakearen Karta, bakoitza bere erantzukizunetatik lan eginez, munduan Bakea lortzeko hartu dugun konpromezuaren adierazpide gisa.

### **Iritzi publikoarentzako adierazpenei dagokienez,**

Herri-defendatzaile erakundeek dauzkaten betekizunak eta egiten duten lana hiritarrei ezagutarazteko zereginari dagokionez bakoitzak daukan

esperientzia elkarri jakinarazi eta gero, herri-defendatzaileok uste dugu erakunde hauen berri ematen eta haien egitura eta antolaketa sendotzen igarotako lehen fasearen ondoren, orain beharrezkoa dela:

- Gizartearentzako informazioa emateko ahaleginak sendotzea, hiritarrek are hobeto jakin dezaten ez bakarrik erakunde hauek izan badirela, baina batez ere zeintzuk diren haien betekizunak eta ekiteko ahalbideak.

lido horretatik, hauxe proposatzen dugu:

- Eguneroko lanari buruzko argitasunak emateko ahalegina egitea, beti ere ekintza horietan eduki beharreko isilpekotasuna errespetatuz, derrigorrezkoa den bezala. Izan ere, herri-defendatzaileok bete-betean uste dugu iritzi publikoaren aurrean presentzia handiagoa edukitzea oso lagungarria izango dela erakundeontzat, gizarteak helarazten dizkigun kexak eraginkortasunez konpondu ahal izateko.»

### **2.3.1.3. HERRI FUNTZIONARIOA OMBUDSMANEN AURREAN ERREKLAMATZAILE**

Bilera honetan, erakunde hauetan garrantzi izugarria hartzen ari den gaia aztertu zen, alegia, herri-funtzionarioek beren administrazioen kontra aurkezten dituzten kexak gero eta gehiago direla.

Mahaiburu-moderatzaile Manuel García Álvarez jauna izan zen, Procurador del Común delakoa.

Hizlaria, berriz, Estatuko Herri Defendatzailea, Fernando Álvarez de Miranda jauna.

Gainera, zenbait hitzaldi eman ziren:

- Lehen hitzaldia: Francisco Tovar jaunak, Diputado del Comúnen Ondokoa.
- 2. hitzaldia: Juan Bautista Montserrat jaunak, Aragoako Justicia.

### **«FUNTZIONARIO PUBLIKOA HERRI-DEFENDATZAILEEN AURREAN ERREKLAMATZAILEA DENEAN» DELAKO LAN-ESPARRUAN ATERATAKO ONDORIOAK**

Gai horri buruzko hitzaldiak egin eta gero, herri-defendatzaileek bilera egin eta honako ondorioak atera zituzten:

«Administrazio publikoetako langileek herri-defendatzaileei kexa ugari aurkezten dizkiete beraien zerbitzuari, lan baldintzei, eskubide eta betebeharrei eta, oro har, beraien egoera profesionalari buruz; horregatik, herri-defendatzaileek gogoeta egin dute funtzio publikoaren esparru honetan egiten duten lanaz, eta uste dute Administrazioaren beraren barruan arazoak konpontzeko bideren bat

antolatu beharko litzatekeela: horrela defendatzaileen erakundeek aholkuak emango lizkiekete funtzionarioei beraien kezagaiak konpontzeko daudekeen bideei buruz.

Hala eta guztiz ere, herri-defendatzaileen ustez, derrigorrez parte hartu behar dute honelako arazoak sortzen direnean, alegia:

- a) Konstituzioak finkatzen dituen berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak kaltetzen direnean;
- b) ematen den zerbitzuaren kalitatea kolokan jartzen duen egoera bat dagoenean;
- c) eta Administrazioaren jardunean atzerapenak eta berandutzeak gertatzen direnean.»

### **2.3.2. GIZA ESKUBIDEAK BABESTU ETA SUSTATZEKO ERAKUNDEEN HIRU KONTINENTETAKO LEHEN HITZALDIA**

Kanarietako Diputado del Común erakundeak hiru kontinentetan (Europa, Afrika, Amerika) giza eskubideak babestu eta sustatzeko dauden erakundeen hitzaldia antolatu zuen azaroaren 7, 8 eta 9 egunetarako, giza eskubideekin, elkartasunarekin eta aurrerapenarekin lotutako gaiez eztabaidatzeko.

Beraz, gai nagusia, hots, «Giza Eskubideak: Elkartasuna eta Aurrerapena» oinarritzko hiru mintzalditan tratatu zen; mintzaldiotan gai hauek jorratu ziren:

- «Aurrerapen-eredu orekatu eta etengabea lortzeko nazioarteko tresna juridikoak»;
- «Krisian dagoen gizartean elkartasuna eratzea»;
- «Migrazioak eta kultura eskubideak»;

mintzaldiak egiteko ardura bertan ordezkariak zituzten erakundeetako hiru hizlariri eman zitzaien, hizlari bati kontinente eta erakunde-mota bakoitzeko (ombudsmana, batzorde nazionala eta ombudsmana-batzorde nazionala bitariko erakundea).

Mintzaldien mahaien banaketa:

#### **Lehen mahai:**

«Aurrerapen-eredu orekatu eta etengabea lortzeko nazioarteko tresna juridikoak».

Hizlaria: Jorge Madrazo Liz., Mexikoko Giza Eskubideen Batzorde Nazionalaren Lehendakaria.

Mahaiburua: Marten Oosting jauna, Herbeheretako Ombudsmana.

Hizlari-laguna: Justice Florence N. Mumba andrea, Zambiano Ikertzaile Orokorra.

Hizlari-laguna: Roberta L. Jamieson andrea, Ontario-Kanadako Ombudsmana.



### **Bigarren mahaia:**

«Krisian dagoen gizartean elkartasuna eratzea».

Hizlaria: Jacob Soderman jauna, Finlandiako Ombudsmana.

Mahaiburua: Ousmane Camara jauna, Senegalgo Errepublikaren Artekaria.

Hizlari-laguna: Jacques Pelletier jauna, Frantziako Errepublikaren Artekaria.

Hizlari-laguna: Jaime Córdoba Triviño jauna, Kolonbiako Herri Defendatzailea.

### **Hirugarren mahaia:**

«Migrazioak eta kultura eskubideak».

Hizlaria: Rachid Driss jauna, Tunisiako Giza Eskubideen eta Askatasunen Batzorde Nazionalaren Lehendakaria.

Mahaiburua: Fernando Álvarez de Miranda, Espainiako Herri Defendatzailea.

Hizlari-laguna: Jorge Mario García jauna, Guatemalako Giza Eskubideen Prokuradorea.

Hizlari-laguna: Abdallah Ningu, Tanzaniako Ikerketarako Batzorde Iraunkorrekoa.

«Migrazioak eta kultura eskubideak» gaiari buruzko lantaldean Arartekoak hitzaldi bat egin zuen «Kulturantzatasuna eta hezkuntza» izenburupean. Interesgarria delakoan, jarraian hitzez hitz transkribatuko dugu:

\* \* \* \*

## **«KULTURANIZTASUNA ETA HEZKUNTZA**

### **1.- GIZARTE IREKIAK**

\* *Giza migrazioen historiak 100.000 urte baino gehiago ere baditu eta ia beti gerra, gosete edo hondamenetan bizitzen segitzeko estrategiei erantzun izan diete. Baina norberaren jaioterritik ametsetako beste lurralderen batera jotzeko erabakia ez da beharizanaren ondorio hutsa, emakume eta gizonen itxaropenena baizik. Igarri-igarria da gizakiaren historia eta herrien kulturak horrelako joanaldiei esker aberastu direla.*

*Halako aspaldiko jazoera baten aurrean bagaude -agian zibilizazioa bera bezain zaharra-, askok aurrera egiteko eragingarritzat joa, agian galdetu beharko genioke geure buruari zergatik bilakatu den kezka-iturri garrantzitsua munduko hainbat bazterretan.*

*Egia da gaur egungo populazio-higiduretan badirela zenbait ezaugarri aurreko garaietan erabat edo hain indartsu ez zeudenak. Horrela,*

esate baterako, naziotik nazioarako higiduren erritmoa nabarmen gehitu da eta azken mende erdian, batez beste, urteko bost milioi lagun baino gehiago izan dira. Halaber, lagun horietako askoren kultura-urruntasuna handia gertatu da, gero eta eremu zein testuinguru urrunagoetatik datoz eta. Migrazioen oinarrian egon ohi diren zergati ekomomiko edo politikoei, ez bairik gabe, garraibide hobeak izatearen eta komunikabideen eraginaren ondorioak erantsi behar zaizkie. Egun, gizakiak arinago bidaiatzeaz gain, nazioen artean irudi, bitarteko, albiste eta abarren joan-etorria gero eta handiagoa da, horrek behar-tsuenen itxaropen-mailan eragin erabakiorra duelarik.

Hauek eta bestelako ezaugarri batzuk desberdintasun-sortzaileak dira eta egungo kezkak alde azal ditzakete, hala nola defentsa eta gaitzespen-jarrerak ere, hauek, arriskuz beteriko era batean zenbait gizartetan ugaltzen ari direla: arrazismoa, xenofobia, etnozentrismoa, atzerritarren egoera legez normaltzeko oztopoak... Baina, gu, denon eskubideen defendatzaile garen aldetik, bereziki kezkatu behar gaituzte halako jazoerei lehen emandako eta egun ere ematen ari zaizkien erantzunek. Hemen kultura izango dugu mugari eta ikuspegi jakin batetik aztertuko dugu: iparralde 'garatuko' herrien ikuspegitik, alegia.

- \* Gehiegi errazteko arriskua dagoela badakigu ere, lurralde jakin batean dauden herri eta kulturen harreman-eredurik hedatuenak bi direla esan dezakegu: zurgatzailea eta baztertzalea. Biok antzeko oinarria dute: beste gizakia txartzat edo gutxiagokotzat hartzea. 'Beste' hori ahalik eta arinen gutar egitea lortu beharko da, zibilizatu edo menpeko bilakatuaz edo egiazko federa erakarriaz (zurgatzea); edo ghetto-etan gorde, horrela eraginik izan ez dezan (baztertzea).

Historian zehar bi eredu horien araberrako gizarte-jokabideen adibide ugari ditugu, askotan emaitza lazgarriak izanik. Bestelako adibide bikainak ere baditugu, alegia, nola bizi daitezkeen bakean kultura eta herri desberdinak eta nola egin diezaizkioketen elkarri truke emankorrak, horrelakoak, maiz, gizarte partehartzaileentzako aldi bizi-bizi eta kultura-aberastasun handikoekin bat gertatu direlarik.

Errealitate anitzari emandako erantzun badaezpadako ageri bat gure gizarteetan eleaniztasunari eskainiriko trataeran nabarmentzen da. Horrela, Europako konstituzioetan erabilitako ereduak erreparatu gero, eleaniztasunaren aurreko hiru oinarritzko jarrera bereiz ditzakegu:

### 1. Zurgapen eraginkorra.

Jarrera hori XVIII. mendeko iraultzak finkaturiko eskemaren ondorioa da: estatu bakarra, nazio bakarra, hizkuntza bakarra.

### 2. Hizkuntz eroapena.

**Laissez faire** horrek, askotan, zurgapen eraginkorrak besteko emaitzak lortzen ditu: kultura nagusiak bestea zurgatzea.

### 3. Eleaniztasuna legez onartzea.

Hemen ondokoak bereiz ditzakegu:

a/ Gizakiak bere hizkuntzarekiko eskubide batzuen jabe delako hastapenean oinarrituriko hizkuntz politikak.

b/ Lurraldetasun-hastapenean oinarri hartutako hizkuntz politikak.

Baina, hizkuntz eskubideak konstituzioak berak onartu dituenetan ere, ez zaizkie herritar guztiei aitortzen, baizik eta halako lurralde jakin batean bizi direnei, halako hizkuntzaz mintzatzen direnei edo behar adinako gizarte-garrantzia dutenei... Horrezaz gain, eskubide horiek benetan indarrean jartzean, giza multzo batzuek ez dituzte askitatzat jo ohi eta, maiz, istilu-sortzaile eta jasanezintasunaren erakusgarri bihurtzen dira.

- \* Balirudike gero eta elkarrekiko harreman gehiago dituen mundu batean, komunikazio-sare gero eta indartsu eta arinagoak izanik, 'nortasuna' eta horren antzeko kontzeptuak lekuz kanpo daudela, aspaldi-aspaldikoak izateagatik. Eta, halaz ere, gizarte bateko kide sentitzeko beharrezana, lagunarte bateko kide sentitzekoa, berezkoa omen du gizakiak, hurbilekoengan babesa eta beroa bilatzen ditu eta. Areago, badirudi taldeaz bat sentitzeko premia hori gaur egun indartsuago sentitzen dutela kultura-erro bereizgarrien bila dabiltzan askok eta askok. Dударik gabe, 'jabetza-sentipena' bilatzea da: norberaren berdinak diren hurbiltasuna ezberdintasunean sentitzea.

Batzuek, Fetscher-en antzera, **(La tolerancia: una pequeña virtud imprescindible para la democracia. Panorama histórico y problemas actuales. Gedisa, Bartzelona, 1994)**, bere kultura-nortasunaz seguru dagoen pertsona baino ezin zaio ireki lagunari hau hobeto ezagutzen saiatzeko. Alderantziz, zenbat eta ahulago izan norberaren kultura-nortasunaren gaineko sentipena, orduan eta handiagoa jasanezintasunera jotzeko tentazioa. Pertsona bat jasangaitza da besteak gure berezitasunak zalantzan jartzen dituelako, eta horrek segurtasunik eza sortzen du. Horrela izatekotan, norberaren kultura-nortasuna eta beste kulturetara irekitzea alderdi kontraesanguratsuak barik, elkarrekiko osagarriak lirateke. Bestea aurkitzeko bideari ekitea norberaren nortasunaren bila abiatzearen laingoa litzateke; eta beste gizaki bat ulertzea, nork bere burua sakonago ulertzeko bide segurua.

Baina, nortasun kolektiboak -taldeenak, eta ez banakoenak- aipatzen ditugunean, hobe litzateke 'identifikazioaz' berba egitea nortasunaz baino, azken termino honek izatezko adiera bat dauka eta. 'Nortasun kolektiboa' kontzeptua, neurri handi batean, XIX. mendeko mugimendu erromantikoen ondorioa da, bereizgarriak izan zitezkeen osagaiak azpimarratzen zituztenen aldetik, alegia. Gaur, aldiz, munduak jo eta ke dihardu ikur-unibertso integratzaileak bilatzen, nortasun inte-

gratzaileak eraikitzen, ikur-unibertso desberdin horiek gehitzen eta denon sustraiak bilatzen.

Denok izan ohi gara talde desberdinetako kideak eta, beraz, identifikazio desberdinak ditugu. Gure gizarteek metatu eta zeharkatzen diren elkarlotura-sorta bat dute, horrek sare konplexuak sortzen dituelarik. Irudi bat erabiltzearen, gure edozein gizartek, benetan, mosaiko bat osatzen du; eta indar handiagoko edo txikiagoko koloreak izateak bereizten ditu elkarrengandik. Gure esperientziara joz gero, berehala konturatuko gara gutariko edonork ezaugarri amankomun gehiago dituela (balioak, interesak, sentipenak, iritziak, errealitatearen irudiak...) geografian urrun dagoen kultura batetik etorritako beste pertsona batekiko, ondoko etxean jaio den beste lagun batekiko baino, baina urruneko kultura horrekin nekez identifikatuko gara ohikotasuna irizpide gisa erabiliz gero.

Ikuspegi izatezko eta betiereko horrek (nortasun kontzeptuari berez atxekia) erraz asko darama fundamentalismorantz eta mota guztietako jarrera jasangaitzetarantz, ohikoa izatea irizpidetzat hartuta 'identifikatzeak' gizakien askatasunari eremu zabal bat irekitzen dio, etengabe bilakatuz doan erreferentzi gune batean.

Gizarte kulturantzetan sor daitezkeen jokabide eta ondorio negatiboak jakitun gara denok: gehiengo diren taldeetan gutxiengoak gaitzestea (arrazismoa, xenofobia...), bestea bereganatzeko jarrerak, kulturgabetzea, kultura-balioak eta norberaren nortasuna galtzea, norberaren kultura gutxiagotzat izatea, nahitaez integratzea... gutxiengoetan. Egia da, maiz, kultura-talde desberdinen arteko elkarbizitza istiluz eta kontraesanek beterik dagoela; baita, bestalde, ikuspegi desberdinak trukaturik batak bestea aberasteko ahalbidez josita ere. Berdinak diren gizakien arteko elkarrizketa beti izaten da aberasgarria; bere burua baino miresten ez duen kulturak, aldiz, kultura-bakarrizketan dihardu.

Historia gizon eta emakume guztientzat zabalik dagoen ahalbidetzat jotzen dugunok, kulturen arteko elkarbizitza bezalako jazoerei historian eman zaizkien erantzunak aski ez direla uste dugun aldetik, aurretik premia handiko zeregina dugu: denontzako etorkizun bideragarri eta bertan bizitzeko modukoa pentsatu eta planifikatzea, denek sarbidea izango duten gizartearen baitan.

## **2.- GUTXIENGOEN ESKUBIDEA DESBERDINAK IZATEKO**

Mendez mende, gure gizarte askotan, desberdina izatea -neurri batean edo bestean, ezaugarri batzuekin ala besteekin, garaien eta gizartearen balio-espenen arabera- akats gisa hartu da, normaltasunaren aurkako zeozertzat.

Halaber, 'atzerritar' terminoa, egun ere, eta inkontzienteki, elkarbizitza desitxuratzen eta arazoak eduki edo sortzen dituzten lagunei lotu ohi zaie. Ageri-ageria da pertsona aberatsa, munduko ezein bazterretan dagoela ere, ez dela hain 'atzerritar' izango herritar askoren begietan.

Ikuspegi horien ildotik, gehienok espero dugu gure gizartea osatu nahi duten desberdin eta atzerritar horiek gizarteratuko direla gure nerbioak ohitura arrotzez edo eskakizun neurrigabeez narritatu barik.

Gizartearen jarrera eta jokabide mota horiek heterofobiaren ondorioa dira maiz: nire desberdinaren, atzerritarra den lagunaren beldurra. Beldur horrek besterengandik babesteko kezka garamatza, 'beste' hori babestea kezkatu beharrean, horrexek behar izaten baitu, gehienetan, babesik handiena.

Kulturaren eremuan, horixe dugu-eta eremu oinarritzotzat, ezin dugu begien bistatik galdu oinarritzko osagai bat: gizaki bakoitzaren kultura-nortasunak onarpen askeko ekintza banakako baten ondorio izan behar duela. Inori ezin eska dakioke bere biografiaren zati bat alde batera uzteko.

Auzia ez datza, beraz, besteak 'gutariko baten modukoak' izatean, ondorio guztietarako 'gutariko bat' izatean baizik. Denei normaltasunaren pribilegiarako sarbide ematea da kontua, horrela Kanten harako baldintza eskakizun handiko hura beteaz, alegia, gizaki guztiak edonon duintasunean berdintzat tratatzea, berezko xedetzat, eta inoiz ez tresna huts gisa.

Denontzako berdintasuna desberdintasun guztien gainetik eskatze horretatik, ezinbestekoa da herritartasunaren auzia nazio-nortasunaren bestelakotzat jotzea.

Gure inguruari so eginez gero, egun Europa herritartasunaren ikuspegi berri bateko oinarriak ezartzen hasi bide da: herritartasun europarra, 1992ko otsailaren 7an Maastricht-en egin eta 1993ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dagoen Europako Batasunaren Itunean aipatua. Herritartasun horrek nazioan nazioko nortasunen mugak gainditzen ditu. Hala ere, honako honetan ere eutsi zaie bazterkeriei: Elkarteko herritarra gauza bat da, eta Elkartez kanpoko beste bat. Benetako auzokide guztiak, auzokide izate hutsagatik, ez dira erabateko eta berezko auzokideak.

Gure Europa gazte eta zahar honetan, populazio-higidura askoren lekukoa, Elkartez kanpoko inmigranteek hiru egoera berezitu bizi dituzte egun, gainontzeko europarrek ez dituztenez gero, gainditu beharreko diren egoerak:

### 1. Estatutu juridikoaren egonkortasunik eza

Milioika lagun bizi dira European gaur badaezpadako egoeran, aldian-aldian berrikus daitekeen egoeran. Lagun horiek, horrela, nekez egin ahal izango dituzte etorkizunerako egitasmoak edo ingurunean errotu. Horrelako baldintzetan, nondik nora eska diezaiekegu gizarteratzeko?

### 2. Kultura-bazterkeria

Arestian aipatu dugu zenbateraino diren murrizak lurralde berean elkarbizitzen diren kulturei eman dizkiegun erantzunak. Zenbaitetan

murriztasun hori bazterkeria hutsa bihurtzen da, biologi arrazismoa bera baino are arriskutsuago den kultura-arrazismo baten ondorio gisa, honek, besteak ez bezala, ez duelako muga garbirik. Bestalde, gizartean hedaturiko arrazismoa aurkatzen zailagoa da (banakakoaren oso bestela), gure zigor-legeek ezaugarri nabarmentzat banakakotatzen duten aldetik.

### 3. Gizartean eta politikan at uztea

Aipagai darabilzkigu, besteak beste, bozkatzeko eskubidea, hautagai eta hautatua izateko eskubidea, justiziaren laguntza edo bestelako gizarte-laguntzak jasotzeko eskubideak.

Nazioaz gaineko zuzenbidetik eta gizarte-elkarbizitzatik gaintitu beharreko hiru egoera jakin.

Begi bistan dago, azken garaiotan, nazioaz gaineko erakundeetatik gutxiengoaren eskubideekiko gero eta kezka handiagoa dagoela. Baina egia da, bestalde, gure egoeraz denaz bezanbatean, Europako Elkartearen legeak egungo hutsuneak gaintitzeko moduko eskubide-esparru bat eratuz ez doazen artean, herritar-defendatzailearen erakunde hauetan gaudenok gaurko legeen interpretazio ahalik eta zabalena eragiteko neurriak abiaraz ditzakegula. Gure ekinetik ondorioztaturiko adibide bat erabil daiteke erakusgarri gisa.

1993an Ararteko Erakundearen populazio inmigrantearen eskubide eta eginbeharren gaineko azterlan bat bururatu zen (**La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos**. Varona Martinez, G. Ararteko, Vitoria/Gasteiz, 1994). Aldi berean, gobernuz kanpoko erakunde zenbaitek aurkezturiko keza batzuetatik abiatuak, gure erakundeak gomendio orokor bat eman zuen atzerritarrek udal-erroldean sarbiderik izan zezaten, Legebiltzarrari 1993an bidalitako Txostenean jaso zelarik. Gomendioak gai horretaz erabili beharreko legeen interpretaziorik ahalik eta irekiena egitea defendatzen zuen, eta errolaturik egoteko eskubidea behin-behingo zenbait egoeratarik hedatzen zuen, horien artean, adibidez, ondokoak aipa daitezkeelarik: asiloa eskatutakoaren egoera-eskabidea, egoitza-baimena berriro luzatzeko eskabidea, ikasle-txartela eskuratzeko eskabidea, agiririk gabeko atzerritarrek izena emateko zedula... Euskal Herriko udalbatzar batzuek Arartekoaren gomendioa bereganatu eta horrelako lagunak eroldara jaso dituzte eta, ondorioz, hainbat gizarte-laguntza eta -zerbitzu eskuratzeko bidea eman zaie, lege-arau beraren interpretazio hertsuari eutsiz gero horrelakorik eskuratzetik izango ez luketelarik.

Arestikoan, argi eta garbi dagoenez, ez da lortu zuzenbidea aldaraztea, baina zuzenbidea politikan modu aurrerakoiago eta zuzenago batez erabiltzea sustatu da.

Zuzenbidearen eta politikaren bi alderdi osagarri horietan jardutea beharrezkoa da gure gizarteko gutxiengoetako lagun eta taldeen egungo egoera menperatzeko. Horrela, behin eta berriro azpimarratu behar dugu nazioarteko

Zuzenbideak populazio inmigrantearen baldintza juridikoei arreta berezia eskaini behar diela; gure herrietako legeek biztanle guztiak gutxieneko eskubide oinarritzko batzuen jabetzat jo behar dituztela (osasunerako, hezkuntzarako, gizarte-babeserako eskubideak...); jarrera arrazistak eta arrazismoa bultzatu edo horren zabalkundea egitea zigor-arauetan jaso behar dutela... Baina ezin ditugu alde batera utzi gure herriek dituzten beste zeregin batzuk, hala nola, izenpetu dituzten nazioarteko babes-hitzarmenak betetzea; atzerri-tarrarekiko politika irekiagoak erabiltzea; errefuxiatu eta babesa eskatutakoaren egungo kontzeptuak berriro definitzea, errealitate geopolitiko eta ekonomiko berriak kontuan izan ditzaten; defentsa-gabeziak edo administrazio-jardunbideen gehiegizko iraupenezko egoera jarraie izuri egitea...

Seguraski, gizakiaren eskubideen defendatzaile gisa, geure laguntza eman genieziaieke erabakiak betetzen diren aztertzeke nazioarteko erakundeek tresna eraginkor gisa aurrikusitako kontrol-erakundeei, eta geure jardunetan arreta berezia eskaini gizalderik beharrekoenen eskubideak defendatzeari.

Desberdina izateko eskubidea banakakoentzat ez ezik, gizarte desberdinentzat ere bada. Herrirentzat eta kulturentzat ere bada eta, bereziki, herri eta kultura 'gutxiagotuentzat'.

Horrela Europako Seguratasun eta Lankidetzarako Elkarteko (ESLEko) herrialde kideek 1990eko ekainean onartutako Kopenhageko Agiriak, horren IV. atalburua beste lege batzuen eta erakunde hartako herrialde kideen arteko biko akordioen jatorria izan delarik; Nazio edo Etnia, Erlijio edo Hizkuntz Gutxiengoetako Lagunen Eskubideen gaineko Adierazpenak, NBEko Batzar Nagusiak 1992ko abenduan onartua; Giza Eskubideen gaineko Nazioarteko Biltzarrak 1993ko ekainean Vienan egina; edo Europako Kontseiluaren Biltzarrak -hau ere eskualde mailan eta 1993ko ekainean Vienan egina-, garrantzi handia eman diete gutxiengoaren eskubideei. Leku garrantzitsua, gero eta handiagoa, Europako eremuko hainbat ekimenetan islada duelarik: Nazio Gutxiengoak Babesteko Erreferentzi Hitzarmena, Europako Kontseiluko ministroek 1995eko saioan onetsia; ESLEk nazio-gutxiengoak babesteko goi-mailako batzordekide bat izendatzea; Europako Parlamentuaren 1993/1994 Ebazpena, munduan giza eskubideak babesteari buruzkoa eta Europako Bata-sunaren politika giza eskubideei buruzkoa (DOCE C 126/15, 1995eko apirilaren 26koa).

Ez da gauza berria. Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Hitzarmenak 1950ean berriaz debekatzen zuen hizkuntzagatik edo nazio-gutxiengo bateko kidea izateagatik pertsonak baztertzea. Halaber, Giza eta Politika Eskubideen gaineko Nazioarteko Itunak 1966ko abenduan herri-botereei berdintasunaren alde eta bazterkeriaren aurka gogotik borrokatzeke eginbeharrari eusteko eskatzen zien.

Hala ere, nazioarteko gizarteari hornidura juridiko-diplomatiko garrantzitsu bat emateko aspaldi honetan behin eta berriro eginiko saioek alde handia dute Bosnia-Herzegovina edo Ruandako zein Europa, Afrika edo Amerikako beste hainbat herrialdeetako benetako egoera gordinarekiko. Dirudenez, errazagoa da eskubideak plazaratzea istilu berriak ager ez daitezen,

ezen ez eskubide horien egungo bortxaketak konpontzea, garbiketa etnikozko politikak gauzatzearaino heltzen dira eta.

Geuri dagokigu, giza eskubideen defendatzaile gisa, botere publikoek berdintasuna etengabe defendatzeko egin beharra bete dezaten zaintzea, horixe agindu baitie nazioarteko gizarteak. Gure herrietako agintariei gizakien edo herrien eskubideak errespetatuko direlako berme handiagoa diren nazioarteko akordio eta hitzarmenak ere izenpetzeko eskatu behar diegu, oraindik egin ez badute.

Baina ezin ahanztu dezakegu nahiz eta herritartasunak eta zuzenbideak pertsonen legezko egoera hobetzen duten, ez dutela ezinbestean gizartearen onarpen-maila areagotzen. Desberdinak direnen eskubideak aitortzea lehenengo urrats bat baino ez da -oso garrantzitsua, hala ere- elkar ezagutu, ulertu, onartu eta estimatuzetik igarotzen den ibilbide luze horretan. Bide hori ibiltzen dugunean, orduantxe izango dira gure gizarteak denei 'ongi etorri' esango dieten eropenezko eta abegi onezko gune irekiak.

### 3.- **ZENBAIT JARDUNBIDE ETA NOLA ERABILI HORIEK HEZKUNTZAN**

Gizarte ireki gero eta kulturantzagokoak eratzeko ikuspegi horretan, lau alderdi azpimarratu nahi ditugu hemen laburki, hezkuntza kulturarteko egoki baten oinarriak izan daitezkeelakoan:

- . kultura errealitate dinamiko eta irekiztat jotzea;
- . razionaltasuna landuta, aurriritzi eta estereotipoak gainditzea;
- . hizkuntzen zeregin berebizikoa;
- . eskola kulturak trukatu eta elkarrengana hurbiltzeko gune pribilegiozkoa izan ahal izatea.

Ageri-agerikoa denez, badira beste alderdi batzuk garrantzi-garrantzizkoak (adibidez komunikabideen edo laguntza zein abegi-erakundeen zeregina...) baina, komunikazio honetan mintzagaitzat hezkuntza hautatu dugunez gero, ez diegu behar bezala helduko.

#### a/ **Kultura zerbait ireki eta dinamikotzat jotzea**

Asko errazturik, kulturaren bi ikuspegi kontrajarri bereiz genitzake: norberaren kultura osotasun bateratu eta goi-mailakotzat jotzen duen ikuspegi egonkor eta etnozentrista; eta horren aurrez aurre, bestea, ikuspegi dinamiko eta irekia.

Bigarren ikuspegi horren arabera, kultura guzti-guztion jarduera dinamiko, moldakor eta aldakorra da, etengabe berdefinitzen ari delarik beste kulturek eta bere buruak eraginda.

Ikuspegi ireki hori baliagarria da norberaren kulturarentzat zein kultura 'arrotzarentzat':



- . Alde batetik, kultura oro, berez, anitza dela uste du, kultura-desberdintasunak ez direla soilik elkarrengandik urrun dauden kulturen artean, gizarte beraren barnean ere gertatzen baitira. Gure edozein gizarte hain da anitza gizakien jokabide eta asmoetan, non hurbilago senti gaitzekeen beste kultura-testuinguruetatik datozen lagunetatik gure ondoan hazitako batzuegandik baino.
- . Bestalde, kultura-erlatibismo osasungarri horrek kultura guztiak begirune baldintzagabeko baten jabe bilakatzen ditu, edozein hierarkizazio-saio gainditzen duela eta gehiagotasun zein gutxiagotasun-konplexuei itzuri egiten.

Horrela, kultura, gizarteko kideen bizimodua baldintzatzen duten errepresentazio eta arauen nahas-mahas ireki eta anbiguo gisa hartuta, gizaki horiek beroriek sortu behar dute behin eta berriro. Beraz, ekoizpen eta aldatze-eremu bizia da eta gizarteko kide guztiak esku hartu behar dute bertan nola edo hala.

Begi bistan dago soilik kulturaren ikuspegi dinamiko batek lagun diezakegula kulturantzatasunari tratamendu aberasgarri eta positiboa ematen eta tratamendu hori jardun-eremu desberdinetan erabiltzen, hezkuntzan, esate baterako.

Ikuspegi horrek zuzeneko erabilera du eskola-antolamenduaren osagairik garrantzitsuenetariko batean: ikasketa-planean. Zeren eta, Gimeno Sacristán irakasleak dioenez:

*‘Ezein kultura, berez, anitza da. (...) Kultura guztietan homogeneous gisa zer agertu eta edozein kultura-taldek -horrelakorik egin dezaketen eta hartarako gaiturik dauden lagunek- bere kulturatzat jotzen duenaren ‘kontakizuna’ agertzen da, nola talde batek azaltzen dion bere buruari nolako kultura-nortasuna duen; homogeneousotasun hori nortasuna azaltzeko lantzen den <<testua>> erraztean datza, erabakimena dutenek ezinbestekotzat jotako alderdietara baino mugatzen ez delarik. <<Testu>> horietako bat ikasketa-plana da. (...)*

*Gizalde batek bere kultura hezkuntzan nahikoa islaturik ikusten ez badu edo besterena baino gutxiago, besterik gabe, aukeraberdintasunezko arazo baten aurrean gaude.’ (Gimeno, J. [1991]: ‘Currículum y diversidad cultural’, Boletín de la Asociación de Enseñantes con Gitanos, 4. eraskina).*

Eta ez dezagun ahantz gure herrialde gehienetan eskola-plana eratzea, osorik edo aldez, botere publikoen eskunduntza dela eta eginkizun horren gainean zaintza, aurrikuspen eta sustapen-zereginak bete behar ditugula.

## **b/ Razionaltasuna**

Balirudike, batzuetan, ageri-agerikoa ez ikusteko artea gizarteak errealitate eraikitzen erabilitako osagarrietariko bat dela. Beharrezkoa da besteren gaineko hautematea nola antolatzen dugun argitzea. Ideologia

etnozentrismak eraturiko mekanismoen bitartez, bestea geure kulturatik aztertzeke joera handia izan ohi dugu, irudi eta estereotipo-sorta hautazko samarrera mugatu eta gutxiagoko, arrotz, exotiko eta abar gisa definitzen dugula.

Atzera ere, ikuspegi estatikoak gainditu beharrean gaude. Euskal Hiztegi Modernoak ondoko definizio hau damaigu estereotipo sarreran: Pertsona, giza talde, eta abarri buruz banan-banako azterketarik gabe erutzen den aurretiazko iritzi-multzoa, mota osoaz izaten den iritzia banako bakoitzari sistematikoki ezarriz sortua. Psikologia sozialaren eremuan, Simpson-ek eta Yungerek 'aurriritzi' terminoaren oso definizio erabilgarria eskaintzen digute: Gizalde batekiko sentipen-jarrera zurruna (halako eragingarri baten aurrean lehendik finkaturiko modu batean erantzuteko joera). Gizalde hori, bestalde, aurriritzia duenaren gogoan baino ez da izango agian.

Allport-ek aurriritziaren portaerazko adierazpenean bost maila bereizi zituen, ezinikusia hitzez adieraztetik (1. maila), bestea deuseztatzeraino (5. maila) doala, aurriritzitako gizaldeko kideei itzuri egitetik (2.a), horrelako kidea gutxietsi edo baztertzetik (3.a) edo gorputz-erasotik (4.a) igarota. Zorigaitzez, sailkapen horrek egun ere gure gizarte-jokabide askoren argigarri izaten segitzen du.

Egia da aurriritziek, ezagupenezko osagai bat (estereotipoa) ez ezik, alderdi sentipenezko eta jokabidezkoa ere badutela, baina, gure iritziz, hezkuntzaren ikuspegitik etengabe lan egin beharra dago horiek zalantzan jarri zein gainditzeko eta lehenengo urrats bat razionaltasunaren eremuan eman daiteke. Ondo kontuan izan beharrekoa dugu hautematea trebetasun soziala dela, horren arauak gizarteratu ahala geureganatzen ditugularik. Horrela, neska-mutilek oso tixikitatik barneratzen dituzte beste kultura-gizaldeen gaineko estereotipoak guraso, lagun, komunikabide eta abarren iruzkinak direla bitarte, ezagupenezko ahalegin murriz-murrizta eskatzen duen jardunbidea da eta, aldiz, sentipenezko segurtasun handia ematen du. Horra hor zergatik diren estereotipoak hain bereganatzen errazak eta hain ezabatzen zailak.

Gizarte anitza gauzatu ahal izateko, gero eta garrantzitsuagoa da inguruan bizi ditugun elkarmenpekotasunik, jokabiderik eta kontraesanik behinean ahalik eta modu razionalenean ulertu eta neurtzea. Arazoak razionalki ebaluatzeak kultura-politika irekiago baterantz daramake. Geure kultura urrunagotik ebaluatu ahal izatea kultura berri batera barneratzea bezain interesgarri gerta daiteke.

Hezkuntza-sistema ororen xedeetariko bat pentsatzen irakastea da, nork bere buruari arazoak planteatu eta horiek ebazten saiatzea: razionaltasuna, berbaldirako jariora eta eroapena. Apika bide horretatik, inoizko batean, denok onartuko dugu ezen, adibidez, larruaren kolorea melaninaren gorabehera hutsa dela, besterik ez.

### **c/ Hizkuntza, zubia eta muga**

Hizkuntza, ezbairik gabe, oinarrizko ikur eta nortasun-ezaugarria izan daiteke. Hizkuntza bat jakitea erabakiorra izan daiteke nork bere burua gizalde

bateko kideztat jotzeko, taldearen kontzientzia eratzten duten hautemate, interpretazio eta asmoen multzoan parte hartu ahal izateko.

Egia da ez dagoela zertan ahozko hizkuntzaren balioa gehiegi balioztaturik. Hizkuntza komunikaziorako lanabesetariko bat baino ez da, beste bat adierazpide askoren artean, jokabidearen adierazpenetariko bat besterik ez... baina, dituen mugak muga, elkarren hizkuntza jakitea bi kultura hurbiltzeko oinarritzko zubia da; ez jakitea, aldiz, kulturen arteko muga gaindigaitza.

Hizkuntza kulturak elkarrekin komunikatzeko bide garrantzi handiagoko ala txikiagokotzat jotzeak ikasketa-planen eremua guztiz iraul dezake, izan ere, hala, gertatzen ari da.

Nolanahi ere den, gero eta hizkuntza gehiago metatzen direneko gune geografikoak eratzeak hezkuntzan arazo konpongaitzak sortzen ditu. Ezin baititzakete herritar guztiek hizkuntza guztiak ikasi, eta ez baitirudi komenigarria denok gehiengoaren hizkuntza eta hori besterik ez ikasteak. Geure gizarteetan, hala ere, ageri-agerikoa da gehiengoaren hizkuntzak jakiteak baino ez dituela ahalbidetzen gutxiengoaren benetako eskuhartzea eta gutxiengo horiek gizarte osoaren multzora eraginkorki biltzea.

Hori dela bitarte -nahiz paradoxikoa dirudikeen-, kultur eta hizkuntz gutxiengoaren defentsa, nor bere hizkuntza lantzetik ez ezik, botere publikoek gutxiengoetako kideek gehiengoaren hizkuntza ikasi ahal izateko nahikoa bide bermatzetik ere igarotzen da, kultura nagusian duten gaitasuna areagotu ahal dezaten.

Gure gizarteetan zeregin hori, oinarri-oinarrian, hezkuntza-sistemena da.

#### **d/ Eskola kulturek elkar topatzeko gune pribilegiozko gisa**

Egun gehiengoak bere-bere egin du derrigorrezko eskolaratzearen helburua denoi benetako aukera-berdintasuna eskaintzea dela; norberaren berezko ahalmenak egiatan gauzatzen laguntzea.

Hala ere, eskolari, instituzio gisa, benetan, kontrakoa eskatu ohi zaio hain zuzen ere: homogeneizatzea. Maiz, eskolari, eta eskola-kulturaren ikuspegi etnozentriko batetik, halako kultura bat legitimatzeko oinarritzko zeregina betetzeko eskatu zaio. Hori eskolari instituzio gisa berez dagokion transmisio-zeregina dela defendatzen duenik ere bada.

Hargatik, eskola-ekimen guztiak ikuspegi horretatik ebaluatu ahal eta behar dira: etnozentrikoa al da?, desberdintasunak areagotu ala gutxiagotu egiten ditu?, ikuspegi kritikoa bultzatzen al du?, zein kultura igortzen du eta noren alde?, kultura-nortasun desberdinei begirunerik ba al die?...

Eskolak kulturantzatasunari hiru erantzun historiko eman dizkio: 1) bereganatu eta integratzea, 2) kultura-erlatibismoa, 3) kulturartekotasuna. Gaur, inoiz baino gehiago, azken honen alde egiteko beharra ikusten da oro har.

Kulturarteko hezkuntzak helburutzat ikasleari kulturantzatasuna eta balio-trukaketa ahalbidetzeko tresnak ematea du, horrela Giza Eskubideak balioztatzen eta defendatzen eskuhartze eraginkorra izan dezan beharrezko pres-taketa lortzeko.

*Helburu hori ez dago urrunegi 1948an NBEk Gizakiaren Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eginikotik: Hezkuntzak (...) nazio eta talde etniko zein erlijiosoen arteko ulerkortasunari, eroapenari eta adiskidetasunari lagunduko die (Adierazpeneko 26.2 artikulua). Zerbait beharrezkoa auzokide onen pareko bakezko elkarbizitza lortzeko, horixe aldarrikatzen baitu Nazio Batuen Osatze Gutunak bere sarreran.*

*Eskolako kulturartekotasuna dugu erronka nagusienetarikotzat eskola hedatze soziokulturaleko tokia ez ezik, protestarako eta kultura sortzeko lekua ere badela uste dugunok. Eskola kulturak elkarrengana hurbiltzeko pribilegiozko gunea, eztabaidarako eta errealtatearen gaineko ikuspegi eta irudiak negoziatzeko foro irekia izatera hel daiteke.*

*Hori erdiesteko, informazioa lantzerakoan objektibotasuna eta begirunea zaindu beharra dago, partehartzea eta elkartasunezko jarrerak sustatu, este-reotipo eta aurriritziak gutxitu, kulturaren ikuspegi etnozentrikoak (hierarkizatzaileak, egonkorrak...) gainditu, kultura-bazterkeriaren azpian ezkutatu ohi diren interesak kritikoki analizatu...*

*Arazoak dituzten gutxiengo etnikoetako ikasleei erantzutea baino areago da kulturarteko hezkuntza. Halakoei ez ezik, ikasle guztiei ere zuzentzen zaie, eta nork bere kultura-nortasuna ezagutzea eta beste herriena elkartasunean ulertzea batuko dituen kultura bat bultzatzen du; kulturarteko harremani laguntzeko eta jarrera kritiko, eroapenezko eta elkartasunezkoak bultzatzeko hautazko balioak eraikiko dituen kultura bat.*

*Begi bistan dago kulturarteko planteamendu batek eskolaren esparrua gainditzeko duela, baina, baita ere, eskolak, gizarte-instituzioa den aldetik, ezagumena eraikitzen eta jarrera zein balioak gauzatzen orokorrean eragiteko ahalmena duela. Hori bitarte, kulturartekotasunak ezein ikastetxeren hezkuntza-proiektuko osagaia izan behar du, indar handiagoz ala txikiagoz testuinguruen arabera.*

*Gero eta anitzagoa den mundu batean, kulturen mosaikoa da-eta, kulturarteko eskola, hautabide gauzagarria ez ezik, beharrezkoa ere bada, egungo eta etorkizuneko gizarte kulturantzek planteatuko dituzten beharizanetarako erantzun errealista, hautabide errotikakoa, estereotipoei eusteko elkarrenganako tartea bilatzen duten kultura edo eskola-ghettoen guztiz bestelakoa.»*

\* \* \* \*

**Gainera, giza eskubideak babestu eta sustatzeko erakundeen Hiru Kontinentetako Lehen Hitzaldi horretan, herri-defendatzaileok Bejiñgeko Ekintza Plataformaren (Bejiñg) guztiz aldeko agertu ginen, izan ere, plataforma horrek emakumeen eskubideen defentsak orain arte egindako bidea laburbiltzen du, eta emakumeen eskariak giza eskubideen defendatzaileen lanean kontuan har daitezkeen eskatu genuen. Era berean, Estatuaren jarduera positiboa sustatuko duela hitz ematen du, lege mailako berdintasuna gauzatuko duena eta emakumeen aurreapena eragozten duten trabak aztertuko dituena.**

Emakumeei buruzko Munduko IV. Hitzaldia Beijingen egin zen 1995eko irailaren 4 eta 15 bitartean, Berdintasuna, Aurrerapena eta Bakea lemapean.

Bertan erakundeek parte hartu ez zuten arren, Arartekoaren Ondokoak Gobernuaz Kanpoko Erakundearen Topagunean esku hartu zuen. Nazio Batuen ekimenaren bitartez, topagune horrek mundu osoko 30.000tik gora emakume bildu zituen Huairou-n.

1985ean Nairoibiko III. Hitzaldiarekin hasi ziren nazioarteko bileren ondorio izan zen Beijingeko bilera, eta bertan 2000. urtea arte emakumeak aurrera egiteko jarraitu behar duen bidea izan zen mintzagai.

Beijingeko ekintza Plataformak -189 herritako emakume ordezkariak sinatua bere egin zuen emakumearen kontrako bereizkeria-modu guztiak kentzeari buruzko Ituna, eta aitortu zuen emakumeen eta neskatuen giza eskubideak Giza Eskubideen zati utzi-ezin, osagarri eta banaezina direla.

Emakumearen aurkako edozein motatako indarkeria gaitzesten duten artikuluak dagokienez, denak ados agertu ziren. Artikulu horiek hauxe eskatzen dute: armak erabiltzen diren auzietan, bortxaketak gerra-delitutzat har daitezten, eta armak erosten diru gutxiago xahutu dadin. Halaber, emakumeak jasaten dituzten trabak kentzeko programak gauzatuko badira, balidabide gehiago eman beharra dagoela diote.

Plataforma hori emakumeek gizartean duten egitekoa sustatzeko beharrezko baldintzak sortzera bideratua dagoen programa da, eta eskatzen du berehalako eta hitzartutako neurriak har daitezten, generoen arteko berdintasuna lortzeko eta giza eskubideetan oinarrituriko gizarte baketsu, zuzen eta bidezkoa eratzeko.

### **2.3.3. HERRI DEFENDATZAILEEN EUROPAKO V. HITZALDIA**

1995eko azaroaren 10 eta 11n Herri Defendatzaileen Europako V. Hitzaldia egin zen Kanarietan. Bertan bildu ziren giza eskubideak defendatu eta sustatzen dituzten Europako ehunen bat erakunde, Estatu mailakoak, Autonomi Erkidegoetakoak, eskualdeetakoak, herrialdeetakoak edo sektoreetakoak, horien artean Arartekoa eta Espainiako Estatuko gainerako legebiltzar ordezkariak.

Lan-jardunaldi horietan honako gaiok tratatu ziren:

- Zuzenbide konparatuaren ikuspegitik herri-defendatzaileek dituzten bitartekoak.
- Herri-defendatzaileen bitartekoak eraginkorrak diren ala ez, batez ere gizarte alorrean.
- Herri-defendatzaileen lana eraginkorragoa izateko aukera.

**III. ATALA**  
**KEXEN LABURPENA**  
**SAILEZ SAIL**

## **ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK ALORREZ ALOR**

Orain arte, ohizko txostenetako III. atal honetan erakunde honek jasotako kexa garrantzitsuen bilduma egiten genuen, alorrez alor sailkatuta.

Baina joan den 1995. urtean, monografikoak ez ziren ofiziozko jarduerak asko ugaltu eta aurreko urteetan baino kopuru dexente handiagoa hartzera iritsi zirenez gero, oraingoan hobe iruditu zaigu atal hori aldatzea eta ofiziozko jarduera horien laburpena sartzea alor bakoitzean.

Horretarako, alor bakoitzean ekintzarik aipagarrienak biltzeari iritzi diogu onena, kontutan izan gabe ekintza horiek alde baten eskariz ala ofizioz hasi ote diren.

Hala eta guztiz ere, beharrezkotzat jo dugu alor bakoitzean ondo zehaztuta uztea zein diren ofizioz hasitako ekintzak eta zein kexa espediente bati erantzuten diotenak.

Nolanahi ere den, hemengo atal honetan Arartekoaren bulegoan jorratzen diren gaien ugaritasuna nabarmendu nahi dugu, sarritan azaltzen direnak errepi-  
katzen ez ibiltzearren.

### **3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURIS- MOA**

#### **3.1.1. SARRERA**

Alor honetan, lehen, bigarren eta hirugarren sektoreetako jarduera bereziei dagozkien kexak biltzen dira.

Guztira 18 kexa jaso ditugu, hots, erakunde honetan aurkeztutako guztien artetik %1,5.

Eragindako administrazioei gagozkielarik, honela banatu dira:

- Eusko Jaurlaritza .....	7
- Foru aldundiak .....	7
- Udalak .....	9

Eta edukiari begiraturaz, beste era honetara bana ditzakegu:

- Nekazaritza .....	12
- Merkataritza .....	5
- Industria .....	1

Merkataritzari buruzko kexen artetik, batzuek berriro salatu dute okindegietan prentsa saltzen dela, eta beste batzuek, berriz, kalez kaleko salmenta eta etxez etxekoa beharrezko baimena eduki gabe egiten direla.

Bestalde, industriari gagozkiolarik, aurtengoan kexa bakarra jaso dugu, eta bertan transformagailu elektriko baten kokapena jartzen zen auzitan, segurtasunagatik lurpean egotea hobe zelakoan.

Azkenik, nekazaritzari buruzko kexetan, ehiz arautegia hausteagatik izandako zigorren kontrako salaketak jaso ditugu, bai eta erreklamazio batzuk ere Administrazioak ez duelako behar bezala kontrolatzen nola ari den betetzen animalien babesari buruzko urriaren 29ko 3/1992 Legea.

### 3.1.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK

#### 3.1.2.1. NEKAZARITZA

*Ehiz arautegia hausteagatik ipintzen diren zigorrak (47/95)*

Gasteizko hiru biztanlek kexa azaldu zioten Arartekoari Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak zigorra ezarri zielako ehiz arautegia hausteagatik. Hiritar horiek, kexa aurkeztean, zigor hori salaketa izenpetu zuen zinpeko zaindariaren adierazpenetan oinarritu zela kritikatu nahi zuten, erabakia hartu zuen organoak inola ere kontutan hartu ez zituelarik pertsona horiek idatziz egindako arrazoi-bideak.

Foru sail horrek bidali zigun dokumentazioaren argitan, honako ondorioak atera ahal izan genituen: alde batetik, zigorra epez kanpo ezarri zela eta, bestetik, legehauste-agiriko azalpenei gehiegizko balioa eman zitzaizela, kontuan izanik funtzionario publikoa ez zen zinpeko zaindari batek eginga zela delako agiri hori.

Ikus dezagun zergatik diogun epez kanpo zeudela hasitako hiru zigor espedienteak: 1993ko urtarrilaren 15ean, salaketa egindako zinpeko zaindariaren idazkia jaso zen Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean; bertan, salaketa pertsona bakoitzak aurkeztu zuen errugabetze-eskeari buruzko bere iritzia azaltzen zuen zaindariak. 1993ko martxoaren 17an, espedientegileak emandako ebazpen-proposamenaren berri jakinarazi zitzaizkien pertsona horiei. Bi egun horien artean bi hilabete pasa igaro ziren. Geroago, 1993ko apirilaren 16an, pertsona horiek ebazpen-proposamenari buruz egindako arrazoibideak eman zizkion espedientegileak agente salatzaileari; eta 1993ko uztailaren 15ean, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean agente salatzailearen idazki bat sartu zen,



eskatutako txostena ematen zuena. Bi egun horien artean bi hilabete pasa igaro ziren. Ondoren, 1993ko uztailaren 28an, espedientegileak lehenago aipatu dugun txostena berriro eskatu zion salatzaileari. Txosten eskari hori berriro egin zen 1993ko urriaren 6an. Bi egun horien artean bi hilabete igaro ziren.

Kontuan izan behar dugu Administrazio Publikoen Lege-erregimenari eta Administrazio Prozedura Amankomunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea indarrean hasi aurretik ekin zitzaiola zigor espedienteak egiteari -zigorren eta legehausteen muga-epari buruzko aurrikuspenik ez zegoelarik ehiz arautegian bertan, ez eta honelako auzietan erabili beharreko Administrazio Prozedurari buruzko Legean ere-; horregatik, eta honen inguruan dagoen jurisprudentzia ugariaren argitan, gure ondorioa da Kode Penaleko 113 eta 114. artikuluetan finkatutako erregimena ezarri behar zela. Hortaz, gure ustez kasu honetan salatutako legehauste horiek epez kanpo zeuden, bi hilabetetik gorako etenak gertatu zirelako behin baino gehiagotan prozedura osoan zehar.

Beste alde batetik, zigortzeko sistema martxan jarri zuten legehauste-aktak egin zituen zinpeko zaindariaren salaketan adierazitakoaren egiazkotasunari buruz ere badago zer esanik; izan ere, erakunde honen ustez, bai organo espedientegileak, bai zigorra ezartzeko aginpidea duenak ere gehiegizko balioa eman zieten salatzailearen adierazpenei, lege-antolamenduaren aginduak bete gabe. Esandako foru sail horri bidali genizkion arrazoibideetan, gai honi buruz dagoen jurisprudentzia konstituzional eta arruntaren irizpideak laburbilduta eman genituen, argi utzi egiazkotasun-balio horrek mugak zituela eta, inolaz ere, ezin zuela erabateko indarrrik eduki. Ildo horretatik, gure argudioan genioen bezala, Konstituzio Auzitegiari jarraituz, funtzionario publikoek egindako salaketen egiazkotasun-balioari dagokionez, agenteek behar den moduan adierazitakoak daukan frogabalioa inkonstituzionala izango litzateke bakar-bakarrik baldin eta Legeak guztizko sinesgarritasuna emango balie argibide horiei: hau da, azken hauek espedientegai zen pertsonaren arrazoibideen gainetik jarriko balira besterik gabe, edo espedienteaz ebatzi behar duen aginteak gertakariak edo espedientegai zen pertsonaren erruduntasuna erabakitzeke erabil zitezkeen bestelako argudio edo probak gutxietsiz (Konstituzio Auzitegiaren 41/1993 Epaia, azaroaren 18koa). Espediente honen prozeduran behar bezala argitu ez ziren kontraesanak egon zirenez gero, atera genuen ondorioa izan zen zigorra eragin zuten gertakariak ez zeudela behar zen moduan egiaztatuta.

Azaldutako argudioetan oinarrituta, ezarritako zigorrak atzera bota zitezela gomendatu zuen Arartekoak. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak gomendioari jaramon egin, eta zigor erabakiak indarrrik gabe utzi zituen; ondorioz, kexa espediente itxi eta besterik gabe artxibatu egin genuen.

### 3.1.2.2. MERKATARITZA

*Bidai-agentzia baten ustezko zerbitzu txar batengatik egindako erreklamazioaren aurrean, kontsumo alorreko aginpidea duten administrazio-sailek ezer ez egitea (276/95)*

Hiritar batek Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saileko organo aginpidedunen jarduera bat azaldu zion Arartekoari.

Auzia honela laburbil dezakegu. Kexagileak halako batean idazki bat aurkeztu zuen aipatutako Sailaren Lurralde Ordezkaritzan, bidai-agentzia batek emandako zerbitzu bere ustez txarragatik jasan zituen «kalte ekonomikoengatik eta, batez ere, etiko eta moralengatik» ordaina eskatzeko.

Azaldu dugun auzi hau berez pribatua izanik, Lurralde Ordezkaritzako arduradun nagusiak argi utzi zion hiritarrari euskal administrazioak ezin zuela inolako erantzukizunik hartu. Horretaz gainera, turismo alorreko aginpidea duten zerbitzuek zigor prozedura bati ekin zioten, eta horren ondorioz ebatzi zen ikertutako enpresak ez zuela inolako legehauste administratiborik egin eta, beraz, ez zitzaiola inolako zigorrak ipini behar. Ebazpen hori kexa aurkeztu zuen hiritarrari jakinarazi zitzaion.

Zegokion administrazio sailari argitasunak eskatu eta gero, Arartekoa honako ondorio honetara iritsi zen: alegia, aginpidea zuten zerbitzuek kexagilearen eskariari erantzuteko egin zutena ez zela nahikoa izan, lege-antolamenduaren arabera bazegoelako bestelako biderik saiatzerik ere. Egiatan esan daiteke kasu honetan Administrazioak ez duela erantzukizunik, eta horregatik zuzena izan daiteke Administrazioak kargurik ez hartzea enpresa horri. Hala ere, Arartekoaren iritziz bistan zen legeetan dauden bide guztiak ez zirela saiatu, hain zuzen ere ez zirelako erabili lege-antolamenduak kontsumoaren gaian ustezko zerbitzu txarrak ematen dituzten enpresen eta hiritarren arteko akordioak lortzeko administrazioen eta kontsumitzaileen esku jartzen dituen lanabesak. Bi dira herri-administrazioei esandako erantzukizuna ezartzen dieten arauak: batetik, kontsumitzaileen babeserako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorreko 2.2 artikulua; eta, bestetik, zehazkiago, turismo eta ostalaritza zerbitzuei dagokienez, esandako Legearen ezarpenari begira osatutako produktu, ondasun eta zerbitzuen zerrenda onartu zuen martxoaren 8ko 287/1991 Erret Dekretuko I. eraskina.

Hiritarrak bidai-agentzia batekin izan zuen arazoa konpontzearen aginpidea zuten administrazio zerbitzuetara jo zuenean, bistan da zerbitzu horiek emandako erantzuna zuzena izan zela, baina egia da, orobat, ez zela saiatu aurretiazko akordio batera iristeko aukera eman zezakeen bidea, hiritarrak auzibideetara jo beharrik izan ez zezan, beti bide neketsuagoa izaten baita.

Hemen azaldu ditugun arrazoibide hauek zegokion administrazioari helarazi eta honako gomendioa egin genion: «...lege-antolamenduan jasotzen diren lanabesak erabiliz, hiritarrak egindako erreklamazioari behar bezalako erantzuna emateko bidezkoak diren ekintzak...» egitea, eginkizun zeuden gestioen emaitza aurretiaz erabaki edo ebatzi gabe.

Administrazio aginpidedunak ontzat hartu zuen gure gomendioa eta, ondorioz, kontsumo-arauegian era honetako auziak konpontzeko dauden tresnak martxan jarri ziren. Hortaz, espedientea itxi eta besterik gabe artxibatu egin genuen.

## 3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA

### 3.2.1. SARRERA

Alor honetan 27 kexa jaso dira, aurkeztutako guztien %2,3.

Sail hau osatzen dute azpisailen arabera kexak honela banatu dira:

- Elebitasuna .....	22
- Kultura .....	5

Honela banatzen dira eragindako administrazioen arabera:

- Eusko Jaurlaritza .....	14
- Foru aldundiak .....	5
- Udalak .....	8

Kulturari dagokion alorrean, ondare historiko artistikoaren lege betekizun arazoengatik aurkeztu diren salaketekin batera, gaztetxoen kirol praktikari dagoz-kionak ere jaso dira, eskola-kirolaren eta federazio baimenarekin egiten den kirolaren arteko uztarketa zaila planteiatzen zutenak.

Alorreko multzorik garrantzitsuena elebitasunarekin lotutako kexek osatzen dute. Sail honetan jasotako kexek adierazten dutenez, baliabide material edo pertsonalik ezagatik euskararen legeak dituen helburuen arabera zerbitzuak ez dira bete zenbait egoeratan.

Helburu hori betetzeko progresibitate printzipioaren ondorioz, ikuspegi juridiko estu batetik, egoera horietan legea zenbateraino ez den bete ebatzea ez da erraza. Edonola ere, hiritarrei beraiek aukeratutako hizkuntzan erantzun ez zaielako aurkeztutako kexa guztiak tramitera onartu dira, autonomia erkidego honetako Administrazioaren ardurapeko zerbitzuen jardueren kontra zuzentzen ziren kasuan.

Urtero gertatzen den bezala, autonomia erkidego honetan kokatuta dauden Estatuko Administrazioaren zerbitzuen kontra aurkeztu diren maila bereko kexak ere bideratu dira.

Atal honetan, hizkuntz berreskurapenean dagoen politizazioa salatzen duen kexaren bat edo beste ere aipagarria da. Kexa horiek administrazioen jarduerari zuzenean ez dagozkien arren, aipatzekoak dira, Euskararen Normalizaziorako Legeak helburutzat daukan hizkuntz berreskurapenean hizkuntzaren erabilera partidistak giza kontzientziazioa baldintzatzen duelako.

## 3.2.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK

### 3.2.2.1. KULTURA

*Eskola-kirola eta baimen federatuekin egiten den kirola (369/94)*

Eskola-kirolerako egun dagoen araudiak eskola adinetako kirol jarduera arautzen du, eskola-kirol programen bidez kirol federatuarekin uztartzen duelarik; programa horiek prestatzea foru aldundiei dagokie.

Ikastetxe bateko kirol-hezitzaile batek Arartekora jo zuen, ekainaren 5eko eskola-kirolari buruzko 160/1990 Dekretuak xedatutako helburuak hausten ari zirela salatzen.

Planteiatutako kasua aztertzeko, Bizkaiko Foru Aldundiari txosten bat eskatu zitzaion, salaketa lurralde horretatik baitzeturren. Aldundiko Kultura Sailak bidalitako txosten zehatz batean aitortzen zen arazoak zeuzkatela Dekretua onartu aurretik zeuden portaerak aldatzeko, eta Dekretua ezartzeko etengabe negoziatzen aritu behar izaten zutela parte hartzaileekin (klubekin eta federazioekin nagusiki), horrek zekarkien nekearekin.

Eragozpen horiek aitortu ondoren, araudiak adierazten zituen helburuen betetze maila %90ean zegoela esaten zen txostenean. Bestetik, arau-hauste batzuk zuzentzeko orduan, indarrean zeuden zigor-bideekin arazoak aurki zitezkeela ere adierazten zen.

Kexaren azterketa osatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari ere eskatu zitzaion txosten bat. Kirol Zuzendaritzak igorri zigun txostenean, Araudia ezartzeko zeuden tirabirak eta eskola-kirolerako araudia osatzeko zeuden eragozpenak elkarrekin lotzen ziren. Esan behar da eskola-kirolerako araudiak, azkenik, Kirolerako Euskal Kontseiluaren aldeko iritzia lortu duela.

Aurrebenjamin, benjamin, kimu eta gazte kategorien kirol jardueran egon zitezkeen arau-hausteak zirela-eta, kategoria horietan kirol federazioek ezin baitute baimen federatiborik eman, Arartekora jo zuen pertsonari hau adierazi zitzaion: irregulartasunen baten berri jakinez gero, Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari, eta, zehazkiago, arau-hauste espedientea irekitzea zegokion administrazio organoari jakinarazi beharko ziola.

*Oporretarako udal egitarauan euskaraz eta gazteleraz eskainitako postuen arteko aldea (429/95)*

Gasteizko Udalak urtero hiri horretako gaztetxoei zuzendutako udaleku eta uda egonaldiatarako egitarau bat antolatzen du. Jarduerak taldeka antolatzen dira eta euskaraz edo gazteleraz burutzen dituzte. Lehenengoetan parte hartzeko ezartzen den baldintzetako bat ikasketak B edo D irakastereduetan egitea da.

Txikitxoentzat, hau da, Haur Heziketako 2. eta 3. mailakoentzat, bi hizkuntzetan antolatutako talde kopuruetan aldeak zeudela ikusirik, pertsona batek Arartekora jo zuen kexa azaltzera. Talde horiek «Jolas Txokoak» deituriko

egitarauan kokatzen ziren. Kexa honela arrazoitu zuen: maila horretako umeentzat iragarritako sei taldeetatik lau euskaraz ziren eta hiriko hiru ikastetxetan burutzen ziren; gazteleraz, aldiz, bi talde bakarrik zeuden (bat txanda bakoitzean), eta biak ikastetxe berean burutzen ziren. Pertsona horren arabera, aipatu programako A eredukoek, zinetan baitzegoen bere semea, ezin zuten ikastetxea aukeratu (etxebizitzatik eskolara bitarteko distantziaren arabera): alderantziz, ezartzen zenera joan beharra zeukaten, erreklamatailearen kasuan, bere etxetik urruti geratzen zen batera.

Antzeko arazoak beste inoiz ere planteiatu izan zaizkio Arartekoari eta, beraz, udalaren irizpideak ezagunak ziren. Hala ere, gainerako zenbait alderdi egiaztatzeko beste txosten bat eskatu zitzaion Udalari. Erakunde honek erreklamataileari eman zion erantzunak, laburki, hauxe zioen:

Udaldirako egitaraua Udalaren euskara zerbitzuaren eskutik sortu zen hizkuntza horren eskola-girotik kanpoko erabilera bermatzeko. Horrela, eta Jolas Txokoei dagokionez, hasiera batean euskaraz bakarrik eratu ziren. Geroago gaztelerazko taldeak ere sortu ziren Arartekoak egindako gestioen ondorioz, Erakundeak iritzi baitzuen, egitaraua sortzeko egon zen izpiritua kontuan izan arren, euskara ez zekiten haurrek ere lekua izan behar dutela bertan.

Egindako ikerketaren bidez ikusi zenez, hizkuntza batean eta bestean egindako banaketa (bakoitzean 40 postu) erabakitzeke orduan, adin horretako haurrek hiri honetako ikastetxeetan zeuzkaten irakastereduetako portzentaien arabera jokatu zen. Halere, Udalak aditzera eman zuenez, 1995eko deialdiaren ondoren euskarazko taldeetarako aurkeztu ziren eskariak eskainitako postuak baino gehiago ziren; aldiz, gaztelerazko taldeetarako eskariekin alderantziz gertatu zen, eta iragarritako bi taldeetako bat bakarrik osatu ahal izan zen.

Horrekin guztiarekin argi ikusten zen Udalak egindako postu banaketa ez zela batere arbitrarioa, eta eredu jakin batean matrikulatuta egon beharra -hain zuzen B edo D ereduan, euskarazko taldearen kasuan-, taldea osatuko zuten ume gutziek edo gutxienez gehienek hizkuntza hori erabiliko zutela bermatzeko zela.

Zentroen kokapenari dagokionez, Jolas Txokoak hiriko Haur Hezkuntzarako ikastetxe publikoetan burutzen direla esan behar da. A ereduko taldearentzat horietako bat aukeratu zen, eta horregatik, ikastetxetik hiriko puntu ezberdinetarako distantzia kasu batetik bestera ezberdina zen.

Hori guztia kontuan izanik, aipatutako gai honetan Udalaren jokabidea arrazoizkoa izan zela ikusita, espedientea artxibatu egin zen.

### 3.2.2.2. ELEBITASUNA

#### *Trafiko seinaleak eta euskara (664/95)*

Pertsona batek kexa aurkeztu zuen trafiko seinale askotan euskara kontuan hartzen ez zelako. Kexarekin batera aurkeztu zituen txostenek hori frogatzen zuten.

Kexan adierazten zuenez, udala bat zetorren bere eskariarekin, legean hala aitortzen zelako. Horrela, aditzera eman zioten seinale berri guztiak autonomia

erkidego honetako bi hizkuntza ofizialak errespetatuz jartzen zirela, eta orain zeudenak piskanaka aldatuz joango zirela.

Interesatuaren ustez, egokitzapenak erabat motel zihoazen eta horregatik aurkeztu zuen kexa.

Kasu hauetan kontuan eduki behar den progresibitate printzipioaren kalterik gabe, Arartekoa Udal arduradunekin harremanetan jarri zen artean egin gabe zeuden aldaketak burutzeko zein asmo zeuzkaten jakiteko. Udalak adierazitakoaren bidetik, egokitzapenak egutegi jakin baten arabera egingo ziren, eta Arartekoaren iritziz hori zuzena zen.

Udalak eskuratu zigun informazioa kexa aurkeztu zuen pertsonari helarazi ondoren, kexa espedientea artxibatu egin zen.

*Administrazioarekiko harremanetarako euskara aukeratzea. Administrazioak erantzunetan eta inprimaki ofizialetan erabiltzen duen hizkuntza (846/95 eta 721/95)*

Lehenago ere esan dugu aurkeztutako kexa asko guztiz arrazoizkoak zirela. Horieta, euskara pausoka ezartzeko printzipioak zerikusi gutxi zeukan.

Horren lekuko da, hain zuzen ere, kexak eragin zituzten irregulartasunak konpontzeko egon zen bizkortasuna.

Lehenengo espedientean (846/95), Donostiako Lan Ordezkaritzan hitzarmen kolektibo bat euskaraz inskribitzea eskatu zuten interesatuek. Eskatutako inskripzioa baimentzen zuen ebazpena gazteleraz bakarrik jakinarazi zitzaielako aurkeztu zen kexa.

Bigarren kexan hau esaten zen: Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioak Donostian duen Ordezkaritzak luzatu behar zuen egiaztapenerako eskari-inprimakia gazteleraz bakarrik zegoen.

Bi sail horietako arduradunekin harremanetan jarri ondoren adierazi zitzaigunez, arazoa konponduta zegoen HAEEn laguntzarekin. Erantzunarekin batera inprimaki elebidunaren kopia igorri zitzaigun.

### 3.3. HEZKUNTZA

#### 3.3.1. SARRERA

Alor honi buruz 86 kexa iritsi zaizkigu guztira, hau da, erakundeak jaso dituen gutzien artetik %7,4.

Edukiari dagokionez honako zatiketa egin daiteke:

Bekak eta ikasteko laguntzak .....	39
Bestelakoak .....	34
Irakaskuntzaren programazio orokorra .....	8
EHU .....	4
Ikastegia aukeratzeko eskubidea .....	1

Jakina denez, hezkuntza alorreko administrazioak ahalmen handia dauka EAEn kalitatezko hezkuntza bermatzeko egitarau orokorrak antolatzeke orduan.

Horregatik, jaso ditugun kexa asko aztertzean, legezketasun hutsaren ikuspegitik begiratu baino areago, egokitasun irizpideak erabili behar ditugu, kontutan hartu behar baita hezkuntza egitarauak antolatzeke ahalmen horrek administrazioari ematen dion aukera askatasuna.

Horiek horrela, era honetako kexa espedienteetan, Arartekoak egin dezakeen gauza bakarra auzitan jarritako erabakia behar bezala oinarrituta dagoela frogatzen duen edozein arrazoi antzematea baino ez da, eta hori honako bi helburuok: alde batetik, ustezko alderdikeria edo arbitrarioratasuna eragozteke; eta, bestetik, erabakiaren eragina jasaten dutenen interesen babes eraginkorra ziurtatzeko. Hortaz, gure erakunde honen jarduerak ezin ditu inola ere ordezkatu dagozkion hezkuntzako sektore desberdinen ekimenak.

Arartekoaren iritziz, era honetako kexek argi uzten dute premiazkoa dela hezkuntzaren munduko sektore desberdinen (guraso eta ikasle elkarte, sindikatu, eta abarrek) parte hartzea bultzatzea, eta ikastetxeetako ordezkari-organoen partaidetza ere suspertzea.

Esan dezagun ez dela inondik ere berria tramitatu diren kexa espedienteetan gure erakunde honek erabili duen lan-ildoak: izan ere, espreski aipatuta dago gaur egungo hezkuntza-antolamenduko zenbait xedapenetan, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeko 6. artikuluan, adibidez.

Ikasleen onarpena eta eskolatzeari dagokionez -gai hau kexa askoren iturri izan ohi da-, joan den 1995. urtean berria den ekimen bat egin zen, Arabako Errioxako sasoikako langileen umeen eskolatzeko egokia ziurtatzeko.

Horrela, gure erakundearen partaidetzaren bidez eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aldeko jarrerari esker, benetako konpromezu batera iritsi ahal izan da herriz herri ibiltzera behartuta dauden ikasle horien eskolatzeko benetan integratua lortzeko.

Beste alde batetik, osasun arazo ez iraunkorrek jasaten dituzten ikasleen kasuan, haien eskolatzeko hobetzeko neurri positibo batzuetan sakontzeko beharra ere seinatu du Arartekoak.

Unibertsitate mailako irakaskuntzan ere aurkitu ditugu programazio orokorrari buruzko arazo batzuk, berez maila berezia izan arren.

Azkenik, badira kexa batzuk eragin aipagarria dutenak, irakasle-beharren programazioa gaizki egiteagatik ezin izan delako behar bezala bete ikasleei egiten zitzaizkien eskaintza.

### **3.3.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

*Donostiako zubi-eskola. Hango lanpostuen izaera bereziaren aitorpena (67/95; 86/95; 87/95 eta 96/95)*

Donostiako zubi-eskolako irakasle taldeak, «Camelamus adiquerar» izeneko ijito elkarteak eta Gipuzkoako Guraso Elkarten Federakuntzak (FAPAGIk) gure

erakundera jo eta auzitan jarri zuten eskola horretako lanpostu berezi batzuk betetzeko merezimendu-lehiaketa egiteko modua.

Haien kexaren arabera, lehiaketan ez zen eskatu inolako merezimendu berezirik, edozein lanpostu betetzeko erabiltzen diren ohikoetatik aparte, eskolako postu horietarako lehiatzen zirenen egokitasuna neurtzeko.

Gure erakundearen aburuz, alde batera utzita ikastetxe horretako proiektuaz egin daitezkeen gogoeta pedagogikoak, halako lanpostu bati izaera berezia ezartzen bazaio bidezkoa da merezimendu bereziak ere behar izatea horretarako, zeren eta, bestela, kontraesana bailitzateke lanpostu horiei horrelako sailkapena ematea. Horri dagokionez, oso adierazgarria zen konparaketa egitea kasu honetako lehiaketaren eta hezkuntza-berriztapeneko ikastetxeetako postu bereziak betetzeko egindakoaren artean.

Jarraibide hori hartu eta gero, gure erakundeak hezkuntza-administrazioari argitasunak eskatu zizkion gai honi buruz; administrazioak ukatu egin zuen gure planteiamendua, esanez eskola horretako lanpostuei izaera berezia ezarri zitzaieela lanpostuak beteko zituzten irakasleek beraien borondatez aukeratzen zituztela bermatzeko.

Hezkuntza-administrazioaren lehen jarrera horren aurrean, Arartekoak aditzera eman zuen esandako helburu hori lortzeko bazeudela aukeran beste bide batzuk, lanpostu horien egiazko izaerari buruzko zalantzak eragingo ez zituztenak; adibidez, klausula batean garbi uztea lanpostu horiek ezin direla derrigorrez esleitu lekualdaketa-deialdi arruntetan, destinoaren zain dauden irakasleak lurralde batetik bestera aldatzean gertatzen den bezala.

Orobat, Arartekoak berriro gogorarazi behar izan zituen zubi-eskola honetako lanpostuei izaera berezia ezartzeko kexagileen iritziz egon behar zuten oinarriak.

Izan ere, kexa aurkeztu ziguten taldeen arabera, ikastetxe honen proiektu berezia integrazio-erregimenean ikasteko zailtasun handiak zeuzkaten ume ijitoei zuzenduta zegoen: gure gizartean baztertuta eta bertara moldatzeko arazoak dauzkan arraza batekoak izateak eragiten zituen esandako zailtasunak.

Beste hitz batzuekin esanda, zubi-eskola horren helburua ijito herriari bere nortasuna bizitzeko aukera ematea da, herri horren ohiturak eta usadioak ondo ezagutuz, hain zuzen ere eskola hori benetako «zubia» izan dadin, ume ijitoei etorkizunean gizarteko kide izaten laguntzeko.

Horregatik, beldur ziren ijito herriaren ezaugarri horiek ezagutzen ez zituzten irakasleak ipiniko zizkietela, hori gertatuz gero arriskuan jar zitekeelako ikastetxearen helburu nagusia.

Horiek horrela, haien ustez, eskolako hezkuntza-proiektuaren ezaugarri bereziengatik, beharrezkoa zen hara bidalitako irakasleek ondo eta gertutik ezagutzea ijitoen mundua; horrela bakarrik ziurtatuko zen irakasle horiek benetako konpromezua hartzen zutela ikastetxearekin eta beharrezko harremanak izango zituztela familiekin, bai eta, orobat, prest zeudela era honetako ikasleekin egin beharrekotan lan sozial eta burokratikoak (epaitegi tutelarrak, gizarte laguntzaileak...) egiteko.

Hala eta guztiz ere, hezkuntza-administrazioak berriro adierazi zuen ez zela beharrezkoa irakasleek gaitasun berezirik edukitzea eta halako merezimendu jakinak eskatzea Donostiako zubi-eskolaren proiektuan sartzeko.



Puntu honetara iritsita, Arartekoak kexagileei jakinarazi behar izan zien ez ziotela onartu bere gomendioa, alegia, eskola horretarako lanpostuen izaera bereziagatik merezimendu-lehiaketan aparteko baldintzak eskatzea; hortaz, bitartekaritza lana egiten jarraitzeko beste biderik ez zegoela ikusita, kexa itxi eta artxibatu egin genuen.

Nolanahi ere, kexa honen eraginez egin ditugun gestioek garbi utzi dute beharrezkoa dela etorkizunean eskola honen hezkuntza-proiektuari buruz eztabaidatzea, kontutan izanik eskola horretan interesatuta dauden talde edo elkarte desberdinei dagokiela ekimen hori bultzatzea, Ararteko honen iritziz.

*Ikastetxe publiko batean hizkuntz eredu berria ezartzean sortutako gatazka (289/95)*

Ikastetxe publiko batean B ereduko lerro berri bat irekitzearen kontrako kexa bat iritsi eta gero, Arartekoak kexan salatzen ziren ekintza administratiboak aztertu egin zituen.

Kexa honetan B ereduko lerro berri bat irekiko zela salatzen zen, honako arrazoi hauengatik batez ere: 1) ikastetxearen burujabetza kolokan jartzen zelako, 2) hizkuntz ereduaren ezartzeko prozedura behar bezala ez zelako betetzen, eta 3) ikasleak onartzeko prozedura ere ez zelako behar bezala betetzen.

Arrazoi horiek aztertu ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kasu honetan ezarri behar zen antolamendua behar bezala errespetatuz jokatu zuela ebatzi zuen Arartekoak.

Ikastetxearen burujabetzari dagokionez, Arartekoak ez zuen uste kolokan geratzen zenik, hezkuntza-administrazioak heziketaren programazio orokorra erabakitzeak daukan ahalmenagatik, hain zuzen ere, ahalmen hori hizkuntz ereduaren erabaztearen baita.

Bestalde, ikastetxeak eredu hori jartzea eskatu ez zuen arren, horrek ez zuen esan nahi kasu horretan hizkuntz ereduak ezartzeko arautegiak dioena bete ez zenik.

Ikasleak onartzeko prozedurari gagozkiolarik, kexak Hezkuntza Ordezkaritzak egindako prematrikula aipatzen zuen. Berez prozedura hori ohikoa ez izan arren, bazegoen hori egiteko arrazoiak, gurasoek ikastetxeari esleitutako eskaintza ezagutu behar zutelako, eta berau oso garbi ez zegoelako, hain zuzen ere gatazkaren inguruko zertzeladengatik. Nolanahi ere, kasu honetan erabilitako prozedura aztertu ondoren, erakunde honek ez zuen ikusi onarpen-arauak behar bezala bete ez zirenik.

Jakina, orain arte aipatu ditugun hiru puntuek zerikusi zuzena zeukaten ikastetxearen berezko baldintzekin; hots, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako zentroen arautegian eskatzen diren gutxienezko baldintzak bete behar zituen. Lurrean Ordezkaritzako Eraikuntza-Unitate Teknikoak osatu zuen txostenaren argitan, kasu honetan ikastetxeak ez zeukan inolako oztoporik beste lerro bat bertan ipintzeko.

Kexagileek beste honako aukera ere planteiatu zuten: alegia, gatazka eragin zuen eredu-eskaintza auzo inguruko beste ikastetxe batean egitea. Berez aukera

hori egon bazegoen arren, guztiz bidezkoa zen Administrazioak hautatu zuena, kasu honetan auzitan jarritakoa alegia. Dena dela, aukera hori ere aztertu genuen.

Azterketa horretan derrigorrez eduki behar zen kontutan noiz egin zen kexa hau. Izan ere, kexa aurkeztu zen unean honakoa gertatzen zen: alde batetik, 17 ikasle matrikulatuta zeuden ikastetxeak eskaintzen zuten B ereduko lerro berrian; bestetik, B ereduko eskaintza, auzuneko ikastetxe guztietan emana, baita hitzar-tutakoetan ere, beteta zegoen.

Egin genuen azterketaren ondorioz, ez genuen aurkitu arbitrariotasunik Administrazioaren jardueran, eta, beraz, ez zegoen arrazoirik Arartekoak inolako ekimenik hasteko kasu honetan. Hala eta guztiz ere, honako IRADOKIZUNA egin nahi izan genion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari: alegia, kasuren batean istiluak gerta daitezkeela jakinez gero, hobe da komeni diren kontsultak egitea eta eragindako sektoreen partaidetza duten aginte-organismoek eskaintzen dituzten partaidetza-aukera guztiak erabiltzea.

Gure azterketaren emaitzen berri kexagileei bidali eta Administrazioari esan dugun iradokizuna helarazi ondoren, Arartekoak kasu honetan izandako eskuhar-tzea bukatu eta espedientea artxibatu egin zuten, ikastetxea egokitzeko egin behar ziren obrak benetan burutu zirela egiaztatu eta gero.

#### *Ikastetxe baten kokapen berria (537/95)*

Bilboko ikastetxe bateko eskola-kontseiluak gure erakundera jo zuten laguntza eske, Bilboko hiri-antolamendurako plan orokorrean hirialde hartan hezkuntza-erabilerako lursail bat egotea aurrikusita zegoelako eta ez zekitelako ikastetxeari kokapen berria emateko proiekturik ba ote zegoen.

Kexa onartu eta gai honi buruzko argitasunak eskatu ondoren bidali ziguten informazioaren arabera, hezkuntza-administrazioak garbi azaldu zizkigun zegozkion arduradunak aztertzen ari ziren aukera desberdinak, bai eta bakoitzaren alde on eta txarrak ere.

Lehen aukerak, ikastetxe berria egiteak, bazeukan alde txar nabarmen bat, eskueran dauden baliabideen erabilera zuzenaren ikuspuntutik: izan ere, plangintzako datuen arabera, badirudi epe laburrean behar baino ikasle-postu gehiago egongo direla auzune horretan.

Bigarren aukera etorkizunean itxiko diren irakaskuntza ertaineko ikastetxeetako lokalak gutxinaka-gutxinaka hartuz joatea zen, baina horrek ere bazuen bere alde txarra: alegia, lokal horiek poliki-poliki hartuz joanez gero, ikastetxeak denbora luzea eman beharko du kokapen finkoa eta egonkorra lortu arte.

Hirugarren aukera lehen hezkuntzako ikastetxe batekin elkartu, biak bat egin eta horrela haren lokalak hartzea zen, baina horrek bai ikastetxe bata, bai bestea ere beraien hezkuntza-proiektuak bertan behera uztera behartuko lituzke.

Bi ikastetxeak bat egiteko ahalbidea baztertuz gero, hirugarren aukera hori izan zitekeen denen artetik egokiena, baina hori posible izateko ondo aztertu behar zen nola banatuko ziren lokalak, bi ikastetxeek elkarri traba ez egiteko; gainera, helduen heziketa iraunkorreko ekintzak ere beste norabait eraman eta

96-97 ikasturterako plangintzan ikastereduen eskaintza nolabait moldatu egin beharko zen, besteak beste.

Hartu beharreko irtenbidea topatzen erraza ez izanik, hezkuntza-administrazioa prest azaldu zen eragindako alde guztiekin hitz egin eta adostasunera iristeko, 95-96 ikasturtean zehar, hezkuntza-hirialde hartarako plangintza-beharren araberrako konponbidea aurkitzarren.

Administrazioaren jarrera hori ikusirik, Arartekoak bere bitartekaritza bukatzea komeni zela ebatzi zuen, hobe zelako eragindako aldean artean negoziatzea Bilboko ikastetxe horren behin-betiko kokapena, horretarako ekimenak abian zeudela jakin eta gero.

*Elbarritasun iragankorrak dauzkaten umeen eskolatzea (293/95)*

Ebakuntza baten ondoren, neskatala batek hiru hilabetez egon behar zuen gorpil aulki batean, eta haren aitak Arartekora jo zuen, derrigorrezko ikasketak egiten ari zen ikastegira normaltasunez joaten jarraitzeko neurririk ez zegoela salatzearen.

Kasu honetan, ez zegoen familiaren esku neskatilak horretarako behar zuen garraiabide berezia ematea, baina gainera, ikastetxean ez zegoen igogailurik ere, eta horrek askoz zailtasun handiagoak ipintzen zizkion neskatilari eskolara arazorik gabe joateko.

Hezkuntza alorreko arduradunekin harremanetan jartzean, Arartekoak jakin ahal izan zuen laguntzako irakasle ibiltarien zerbitzuak erabiltzen direla era honetako kasuetan, hau da, osasun-arazo iragankorrak dauzkaten ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko, elbarrien integrazioari buruzko apirilaren 7ko 13/82 Legeko 29. artikuluari jarraituz; arau honetan esaten denez, ospitaleetan dauden eskolomeen ikas-prozesua ez eteteko, pedagogi zerbitzu berezi hori eskaini behar da.

Are gehiago, Administrazioak berak jakinarazi zuenez, hezkuntza-premia bereziak kontzeptua normalean elbarritasun edo ezgaitasun iraunkorra daukaten umeei bakarrik aitortzen zaie, eta ez gaisotasunagatik edo bestelako osasun arrazoiengatik aldi batean soilik eskolara joan ezin direnei.

Etxez etxe ematen diren laguntza zerbitzu ibiltari hauek egonda, ezin esan daiteke argi eta garbi Administrazioak bere eginbeharra bete ez duenik, zeren eta era honetako arazoak dauzkaten ikasleei eskolatzearen oinarriko segimendua behintzat bermatzen baitaie.

Dena dela, gure erakundearen iritiz, era honetako kasuetan kontua ez da administrazioaren eginbeharra betetzen den ala ez, umeen eskolatzearen ikuspegitik; aitzitik, bestelako bide batzuk bilatu behar dira ume horien integrazioari handiena lortzeko egoera horietan ere: hau da, ahaleginak egin beren betiko eskolan ikasten jarrai dezaten, beraien errendimenduan kalterik ez gertatzeko.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, neurri positiboak bakarrik erabil daitezke kexa honetan bezalako osasun-arazoengatik beste ikasleen aldean desberdintasun-egoeran geratzen diren umeekin, gainontzeko ikaskideen ikas-prozesutik baztertuta gero ez daitezten.

Gure erakundearen aburuz, Administrazioari dagokio era honetako neurri positiboak hartzea esandako helburua lortu ahal izateko, berak baitu bere gain EAEko ikasleei eskolatze egokia emateko erantzukizuna.

Nolanahi ere, gaur egungo lege-antolamenduaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hitzarmenak egin ditzake gizarte edo osasun zerbitzuekin edota bestelako erakunde publiko zein pribatuekin, era honetako beharrei erantzuna emateko orduan koordinazio handiagoa lortzeko.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak beste aukerako bide batzuk bilatzea gomendatu zuen, elbarritasun edo ezgaitasun iragankorrak dauzkaten ikasleei behar bezalako atentzioa emateko, euskal eskola publikoa arautzen duen gaur egungo legerian finkatutako ikuspegi integraztailetik.

*Eskolaz kanpoko ekintzetarako hezkuntza-premia bereziak (273/95)*

Displejia espastikoa zeukan ikasle batek laguntzaile bat zeukan eskola-jarduera arruntetan parte hartzeko, baina ez ordea eskolaz kanpoko ekintzetan, eta horregatik haren gurasoek Arartekora jo zuten, laguntza eske.

Zehazki, kexa hau aurkezteko arrazoia beraien semeak baserri-eskola batera hiru egunetz joateko aurkitu zituen arazoak izan ziren. Antza denez, ikasle honetaz arduratzen ziren irakasleek eta PATek berak ere oso egokitzat jo zuten umeak baserri horretan egin behar zen ekitaldian parte hartzea, euskaraz mintzatzeko zeuzkan arazoekin zerikusia zuten arrazoiengatik eta, bestetik, umeak bere burujabetzan eta gizarteratzean ere aurrera egiteko.

Kasu honek hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleentzako politika integraztailearekin daukan lokarriagatik, Arartekoak Hezkuntza Sailari argitasunak eskatu zizkion, jakiteko zein diren Sail horretan dauzkaten irizpideak kexa honetan aipatutakoa bezalako ekintzetan parte hartzeko laguntza behar duten umeei buruz.

Hezkuntza Sailaren erantzunaren arabera, PATetako talde multiprofesionalek aurretik diagnostikatu dituzten ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzuten diete, eta beharrezkoa bada curriculuma norbanakoari egokitzeko bidea erabiltzen da. Erantzun horretan, orobat, hauxe adierazi zitzaigun:

«Kasu horietan, barnetegietara joateko irtenaldietan edota ohiko eskola-ingurutik kanpo egiten diren egonaldietan ere ematen da era honetako zerbitzua; normalean, ikaslearen laguntzaileak berak hartzen du bere gain eginkizun hori, baina hori ezinezkoa denean ordezkioak bilatzen dira ekintza edo egonaldi horien egunetarako.»

Irizpide orokorra hori izanik, eskolaz kanpoko ekintzetan laguntzailea kontratatzea ezinezkoa izandako kasuak oso gutxi izan zirela aitortu zuten.

Kasu honetan, kexa aurkeztu zuten gurasoen semeak laguntzaile bat eduki zuen baserri-eskola bera bisitatzera joan ziren hurrengo aldian.

Eskoriatzako irakaslegoaren unibertsitate-eskolako zuzendaritzak Ararteko honen bitartekaritza eskatu zuen, Euskal Herriko Unibertsitateko gobernu-batzordeak uko egin ziolako titulazio berriak martxan jartzeko egin zuten eskariari.

Zuzendaritzaren iritziz, musika ikasketak emateko beren eskariari buruz unibertsitateko organo ahalmenedunek hartutako erabakiaren legezketasuna zalantzan jar zitekeen, hain zuzen ere ikastegiak sortzeko eskubide funtsezkoa mugatzen zela esan nahi zuelako batetik, eta bestetik administrazioaren ekintzek motibazioa eduki behar dutelako.

Egia da Unibertsitatearen Erreformatarako Legearen 57. artikulua arabera ikastegiak sortzeko askatasunaren barruan -Espainiako Konstituzioaren 27.6 artikuluan bermatuta- titulartasun pribatuko unibertsitate eta goi-mailako irakaskuntza-zentroak sortzeko askatasuna ere badagoela.

Dena dela, ikastegiak sortu ahal izateko beharrezkoa da baimena edukitzea, hartara unibertsitate mailako irakaskuntzaren programazio orokorraren egokitasuna bermatzeko.

Hari horretatik, unibertsitateen eta unibertsitate-zentroen sorrera eta onarpenari buruzko apirilaren 12ko 557/1991 Erret Dekretuari jarraiki, unibertsitateak, zentroak eta ikasketak sortu eta onartu ahal izateko, kontutan izan behar dira derrigor goi-mailako irakaskuntzaren programazio orokorrak dituen beharrak, ikasleagoak planteiatutakoak, bai eta zientziaren aurrerakuntzak eragindako adar berriak sortzeko beharra eta sektore profesional desberdinen beharrianak ere; orobat, horiek denek ingurune geografikoan duten eragin maila ere izan behar da kontutan, hirigintza-plangintza alorrean indarrean dauden arauen arabera.

Oinarri horien gainean, EHUKo gobernu-batzordearen erabakia aztertzeke orduan, unibertsitateko arduradunek irakaskuntzaren programazio orokorraren inguruan azaldu zituzten arrazoien berri eduki beharra zegoen.

Horretarako, EHUKo Idazkari Nagusi txit argiak unibertsitate horretako gobernu-batzordeak 1994ko otsailaren 14an, martxoaren 17an eta ekainaren 30ean egindako bileretako akten kopia bidali zuen gure erakundera.

Otsailaren 14ko eta martxoaren 17ko bileretan, gobernu-batzordeak beharrezkotzat jo zuen maisu-titulazioari buruzko hezkuntza-eskaintza orokorra prestatzea, eta horretarako Unibertsitatearen berezko zentroak eta atxikitakoak ere hartu beharko ziren kontutan, titulazio horien berezitasunengatik eta, lan-merkatuan irteera zaila dutenez gero, horiek berrantolatzeke beharzagatik,

Ildo horretatik, gobernu-batzordekide batzuen ustez, ezinezkoa zen atxikitako zentroetan maisu-titulazioko ikasketak ipintzeko eskariak onartzea inolako mugarik gabe, hain zuzen ere Unibertsitatearen berezko zentroetan eman nahi ziren eta emateko moduan zeuden titulazioak mugatu zirelarik. Hortaz, proposamen orokor bat eskatzen zen, eztabaidan agertutako zertzelada guztiak kontutan hartuko zituena, ikasketak ipintzeko eskariei buruzko akordio zabal batera iritsi ahal izateko.

Azkenik, ekainaren 30eko bileran, Ikasketen Antolamendu Batzordeak proposamen bat aurkeztu zion gobernu-batzordeari, alegia: atxikitako zentroetan

maisutituluiei zegozkien ikasketak ipintzeko eskariei mugak jartzea, eta horiek bakar-bakarrik onartzea dagokion campuseko berezko zentro batean ikasketa horiek ipintzeko eskaria duten titulazioetarako; izan ere, horrela bakarrik egin daiteke ikasketa-eskaintza arrazionala, titulazioak ematen dituzten zentro guztiak kontuan hartuz, berezkoak izan zein atxikitakoak izan, baina eskaintza arrazional horrengatik berezko zentroak kaltetu gabe atxikitakoen onerako, berauei horrelako baldintzarik ipini ez zaielako.

Esandako akta horiek aztertu eta gero, erakunde honek garbi ikusi zuen kexagileek zalantzatan jarri zituzten Unibertsitatearen erabakiek bazutela arrazoi egokirik, eta, beraz, Unibertsitateko organoek programazio orokorra antolatzeko daukaten erabakimena behar bezala erabili zela; bestela esanda, ez zen aurkitu inolako irregulartasunik edo arbitrariotasunik unibertsitate-organo horien jardueran, erakunde honen eskuhartzea justifikatzeko.

### *Unibertsitate mailako ikasketa plan berrien ezarpena (858/95)*

EHUko Geografia eta Historia fakultateko ikasle batek 95-96 ikasturtean matrikula egitean izan zituen arazoak jakinarazi zizkion Arartekoari.

Haren arabera, geografia eta historia ikasketako bosgarren urtea hastera zihoanean, eta lehen ikasmilako asignatura bat baino ez zuela gainditu gabe, 1994ko martxoan onartutako plan berrietara moldatu beharko zuela esan zioten, eta horrek kalte handia egingo zion, jadanik eginda eta gaindituta zeuzkan asignatura batzuk galduko zituelako, besteak beste.

Kexa hau onartu ondoren, Arartekoak azaroaren 27ko (eta, gerora, ekainaren 10eko 1.267/1994 Erret Dekretuaren bidez aldatutako) 1.497/1987 Erret Dekretuko 11. artikuluko 3. idazatian agintzen dena aztertu zuen, bertan espreski ematen baita aditzera titulu ofizialak emateko ikasketa-planak -osorik edo zati batez eraldatuak- ikasturtez ikasturte iraungiko direla, unibertsitateak berak aintzat hartutako salbuesenezko kasuetan izan ezik.

Esandako arauari jarraituz ere, ikasturte bakoitza iraungi eta gero, lau azterketa deialdi egin behar dira ondoko bi ikasturteetan, eta, deialdi horietan ikasleek ez badituzte gainditzen jarri zaizkien azterketak, orduan ikasten jarraitu nahi dutenek plan berrien arabera jarraitu behar dute, unibertsitateak jartzen duen moldapenaren edota, beharrezkoa bada, konbalidazioaren bitartez.

Dena dela, erakundeak plan homologatuen ezarpenari buruzko gora-beherak zehaztasunez ezagutzen ez zituenez gero, Arartekoak argitasunak eskatu zizkion EHUri.

Filologia eta Geografia-Historia Fakultateko dekanok bidali zigun informazioaren arabera, 1993/94 ikasturtean ekin zitzaion Historia lizentziaturako plan berriari.

Hortaz, plan zaharreko lehen ikasmilako asignaturetarako deialdi bereziak 1995eko irailean agortu ziren.

Horrela, legezotasunaren ikuspegitik begiratuta, Arartekoak ez zuen inolako irregulartasunik aurkitu Unibertsitateko arduradunek Historia Lizentziaturarako

plan berrira moldatzeko eskatze horretan, zeren eta, esan dugun bezala, azaroaren 27ko 1.497/1987 EDk espreski jasotzen baitu horri buruzko aurrikuspena.

Guztiarekin ere, kexagileak plan berrira moldatzeko beharrari buruz aurretiaz nahikoa informaziorik eman ez ziotela adierazi zuenez gero, bidezkoa iruditu zitzaion Ararteko honi gomendio bat egitea EHUKo idazkari nagusiari: alegia, etorkizunera begira, egoki diren neurriak hartzea behar adinako informazioa emateko ikasketa-planen aldaketa jasaten duten ikasleei, planak ezarri baino lehenagoko matrikula-aldietan.

### **3.3.3. OFIZIOZKO JARDUERAK**

*Sasoikako langileen umeen eskolatzea (24/95/OF)*

Arabako Errioxan sasoika lan egiten duten pertsonen egoera gertutik ezagutzearren Arartekoak egin zuen bisita batean, bertan berrogeita hamar bat familia zeudela eta ikasteko adineko seme-alaba ugari zituztela ikusi ahal izan genuen.

Bisita egin zenean, ume horiek, hogeit hamar inguru, udaletxepeko eskola batera joaten ziren, irakasle baten ardurapean. Arartekoaren iritzi, talde horretako umeen ezaugarri desberdinengatik eta taldearen jarraikortasun-faltagatik beragatik, ezin esan zitekeen ume horiei ematen zitzaizkien eskolatzeko baldintzak betetzen zituenik.

Hezkuntza Saileko arduradunei egoeraren berri eman eta gero, arduradunek berehala agindu zuten ume horiek herriko ikastetxe publikoan jaso zitzatela, beste gainontzeko ume guztiak bezala -zuzendariari esan ziotenez-, baliabideak ondo antolatuz, ikasle guztien arteko elkarbizitza bermatzeko eta tratu bera emateko.

Geroagoko batean, Hezkuntza Sailak berriro jo zuen Arartekora, bai eta aditzera eman ere kasu hauek gehien gertatzen diren lekuak zein diren aztertuko zutela, horrela sasoikako langileen umeen eskolatzeko-premiak behar den bezala asetzeko.

## **3.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTO-LAKUNTZA**

### **3.4.1. SARRERA**

Ararteko erakundeak funtzio publikoari dagozkion 93 kexa bideratu ditu 1995. urteari dagozkion ekitaldian, hots, guztien artean %8,1.

Bestalde, administrazioaren antolakuntza azpisailean 75 kexa jaso dira, hots, jasotako guztien artean %6,5.

Eragindako administrazioen arabera, hauxe da kexen banaketa:

- Eusko Jaurlaritza .....	101
- Foru aldundiak .....	24
- Udalak .....	44

Azpisail bakoitzean dauden zatien arabera, kexen banaketa honela geratzen da:

#### Funtzio Publikoa:

- Funtzio Publikoa-Hezkuntza .....	37
- Funtzio Publiko Orokorra .....	31
- Funtzio Publikoa-Osasuna .....	21
- Funtzio Publikoa-Herrizaingoa .....	4

#### Administrazioaren Antolakuntza:

- Administrazioaren Antolakuntza .....	38
- Administrazioaren jardunbidea .....	29
- Kontratazioa eta ondarea .....	7
- Intimitate-eskubidea babestea .....	1

Aukeratutako kexek ikustera pasatu aurretik, laburpen honetan hau azpimarratu behar da: erakundeak aztertu behar izan dituen alor honetako kexa asko eta asko funtzio publikoan sartzeko hautaketa prozesuei buruzkoak dira.

Era horretako prozesuetan sartutako hiritarrek ez dute Ararteko erakunde hau bezalako erakunde bitartekarien laguntza eskatzeko zalantzarik izaten, eta tramitera onartutako kexak kontuan izanik, garbi dago jende asko aurkezten den hautapropa horietan parte hartzen dutenek beraien eskubideei buruzko ezagutza maila handia daukatela.

Aldi berean, bitartekaritza eskari horiek garbi erakusten dute, esate baterako, justiziaren bidetik jota baino bizkorrago eta azkarrago ebazten direla auziak Arartekoaren bitartekaritzaren bidetik joz gero.

Kexa hauetan, ohizkoa den bezala, enplegu eta kargu publikoetan sartzeko nagusi izan behar duten berdintasun, meritua, gaitasun eta publikitate printzipioak noizbait hautsi ote diren planteiatu dute kexagileek.

Era berean, defentsarik gabeko egoera nabariak sortarazi zituzten prozedura mailako hainbat aspektu ere salatu dituzte.

Sarrera deialdiei buruzko kexen bideraketari esker erakunde honek ikusi duenez, funtzionario direnentzat mugikortasun prozesuak eta lehenengo aldiz sartuko direnentzat sarrera prozesuak aldi berean kudeatzeak disfuntzio arrisku handiak dakartza.

Azpimarratzekoa da, disfuntzio horiek ez dutela eragin txarrrik barne egituren antolaketa zuzen eta egoki batean bakarrik, baizik eta, garrantzitsuagoa dena, horien kontrol eraginkor baterako aukerak asko murrizten direla, ez baitaude alor honetako administrazio ezberdinei aitortzen zaien diskrezionalitatea mugatzeko behar diren erreferenteak (hutsik dauden lanpostuak, eta abar).



lazko urteko ekitaldian Ararteko erakunde honek bideratu dituen beste zenbait kexa, sarrerarako azpisail horri zuzenean ez badagozkio ere, horrekin harreman estuan daude, zeren eta irakaslegoaren berrantolaketarako irizpide berrien arabera zenbait langile sartzeko edo onartzeko egin ziren aurrikuspen berezien ondorio baitira. Publiko bihurtutako ikastoletako pertsonalaz ari gara, noski.

Erakundeak burutu duen bitartekaritza lanaren bidez lehendik zeuden lan harremanetan babes-izpiritua sartu ahal izan da, Konstituzioak 35.1 artikuluan jasotzen duenaren bidetik. Horrela, sare publikoan sartutako ikastoletako langileak berriz onartu behar izan dira, horien kanporaketa zegokion justizia atalak ezegokia zela ebatzi baitzuen.

Bestalde, gure bitartekaritzari esker, langile horiek lehendik zeuzkaten tratamendu berezien ondorioz sorturiko bateraezintasun, lansari alde eta abarren-gatik ezarrirako gehiegikeriazko egoera jakin batzuk konpondu ahal izan dira.

Funtzio publikoan sartzan diren beste alor batzuk aztertzea pasatuz (hala nola: egoera administratiboen aitorpena, soldatak, lizentziak eta baimenak, eta abar) aipatzekoak dira bigarren jardura aitortzeari buruzko bitartekaritzak, eskari horiek berriak baitira.

Erakunde honen iritziz, alor honetan eragindako administrazioek eta, batez ere, udal erakundeek daukaten diskrezionalitate jokabidea beste era batera bideratzeko aukera emango duen prozedura arautua behar da. Horrela, azken finean kexak eragin dituzten tratu desberdina emateko arriskuak baztertu egingo lirateke.

Aurrekoaren ildotik, gehiegizkoa eta oso hedatua dagoen, eta bestalde kontrolatzea zaila den praktika bat ere azpimarratu behar da: antolakuntza neurrien izenean diziplina ekintzak burutzea behin-behineko funtzionarioen kontra.

Herri-administrazioek beraien bitartekoak berrantolatzeko diskrezionalitate handia daukatela aprobetxatuaz, egiazko diziplina zigorrak ezartzera iristen dira, horretarako dagoen administrazio prozedura erabat ahazten dutelarik.

### **3.4.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

#### **3.4.2.1. FUNTZIO PUBLIKOA**

*Sarrera eta mugikortasun prozesuak aldi berean burutzea (61/95)*

Gipuzkoako Foru Aldundiak nekazaritza eta espazio naturaletarako goi mailako teknikari postu bat betetzeko lehiaketa-oposaketari buruzko kexa bat bideratzerakoan ikusi zenez, sarrera eta mugikortasun prozesuak aldi berean kudeatzeak zenbait disfuntzio ekarri zituen.

Ararteko honek eragindako Administrazioari jakinarazi behar izan zion horrelako prozesuak ezin zirela aldi berean burutu, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 22.2 artikuluan aurrikuspen zuena bete nahi bazen. Izan ere, aipatutako artikulua dioenez, enplegu publikorako eskaintzak hutsik dauden postu guztiak hartu behar

ditu kontuan, bestela, lehenengo aldiz sartuko liratekeen funtzionarioei lekurik utziko ez litzaiekeelako.

Erakunde honen ustez, funtzionarioen arteko mugikortasun prozesua -hots, lekualdatze lehiaketak- ebatzi ondoren bakarrik zehaz daitezke gutxienezko bermeekin dagokion enplegu eskaintza publikoan atera beharreko postuak; hori guztia, noski, mugikortasun prozesuaren ondoren hutsik geratzen diren postuen arabera.

Bestela, enplegu publikorako eskaintza egiten denean postu hutsak gordetzen ez badira, oso erraz gerta daiteke lekualdatze lehiaketa ebatzi ondoren eskaletako funtzionarioak, azpieskaletakoak eta klase berezietakoak oposatzaile hautatuak izatea bai, baina lanpostu hutsik geratu ez delako kanpoan utzi behar izatea.

Arazoa zehazkiago aztertzea pasatuaz, bideratu zen kexan bazegoen puntu deigarri bat: iragarritako postu hutsari zegokionez, deialdiko baldintzetan betekizunak zehatz-mehatz adierazten ziren -zalantzarik gabe Pagoetako Natur Eskola Parkerako arduradun mailarekin parekagarriak-. Deialdia egiten zuen administrazioak, ordea, bideratzen ari ziren lekualdatze lehiaketa ebatzi ondoren hutsik geratuko ziren postuak betetzea besterik ez zuen nahi.

Bestalde, lekualdatze lehiaketa ebatzi gabe zegoenez gero, deialdian iragartzen ziren sarrera baldintzak guztiz zalantzan jartzen ziren, esate baterako, hizkuntz gaitasunari zegozkionak. Beraz, lanpostuen zerrendan alde zuzenetik jasotako baldintzekin behin-betiko konparaketarik ezin zen egin.

Eragindako administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegia, onartu egin zuen sarrera eta mugikortasun prozesuak bakoitza bere aldetik kudeatzea komeni zela.

Halere, deialdian eskatzen ziren sarrera baldintzei zegokienez otsailaren 27ko 3/85 Legeak 13.1 artikuluan xedatzen duen salbuespena planteiatu zuen. Lege eta artikulua horren arabera sortzen eta arautzen da erakunde hau, eta jakina denez, Arartekoa bere jarduerak etetera beharturik dago, baldin eta jarduerak hasi ondoren pertsona interesatuak epaitegi arruntetan auzia edo gorajotzea ezartzen duen kasuan, eta hain zuzen hori zen gertatzen zena, kexagileak Euskal Herriko Epaitegi Gorenean zegokion administrazio-auzi errekurtsua ezarri baitzuen. Arrazoi horregatik itxi eta artxibatu behar izan zen kasua.

*Zenbait bideraketa-jarduerei buruzko publizitatea lehiaketa-oposaketa deialdietan (988/95)*

Eusko Legebiltzarrean mandatari postu baterako hautaketa prozesuaren hasiera ezagutzera eman zen moduaren kontrako kexa jaso zen erakunde honetan.

Hain zuzen, Ararteko honi Legebiltzarreko Mahaiak hartutako erabakiari buruzko iritzia eskatzen zitzaien, hartan onartu baitzen postuaren berri Legebiltzarreko iragarki oholaren bidez argitaratzea.

Kexa onartu ondoren egin zen azterketaren bidez, Arartekoak jakin ahal izan zuen deialdiko oinarrietan ez zela ezer esaten iragarki horren argitalpenaz.

Hau besterik ez zuen esaten 6.1 oinarriak: eskariak aurkezteko azken

egunetik hasi eta gehienez hiru hilabeteko epean hasi beharko zela hautaketa prozesua.

Horregatik, Legebiltzarreko Mahaiak erabaki zuen deialdia egiten zuen organoak ez zeukala hautaketa prozesurako egutegiari buruzko ahalmenik. Ahalmen hori deialdiko baldintzen autointegrazio baten bidez epaimahai kalifikatzailearen esku uzten zen, bera zelako hautatuen proposamena egin behar zuena.

Hori horrela hartuta, eta deialdiko seigarren oinarriko laugarren puntuan epaimahai kalifikatzailearen erabakiak argitaratzeko bide bakarra Eusko Legebiltzarreko iragarki ohola izango zela esaten zenez gero, Mahaiak zioen auzitan jarritako akordioa zuzena zela, eta hori azpimarratzeko aurkeztu ziren hautagaiei buruzko datu estatistikoak eskuratu zitzaizkigun, proben hasiera egiaz argitaratu zela frogatzen zutenak.

Ararteko honen ustez, ordea, funtzio publikoan sartzeko indarrean zegoen araudia aztertuz garbi ikusten zen ez zetozeela bat kexak zalantzan jartzen zuen akordioa bezalakoak argitaratzeko irizpidea eta Legebiltzarrak defenditutako soluzioa.

Ikusirik 1990eko ekainaren 22ko Legebiltzar Administrazioako Langileen Estatutuan eta Lege-Erregimenean horri buruzko aurikuspen zehatzik ez zegoela, eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legeak xedapenen araubidezko garapen propiorik ez zeukala, beste araudi batera jo beharra zegoen. Horrela, martxoaren 10eko 364/1995 Erret Dekretuan jasota dagoen araudi gehigarria makurtu behar da, zeinaren arabera onartzen baita Estatuko Administrazio Orokorraren Zerbitzura sartzeko direnei buruzko Araudi Orokorra (apirilaren 10eko Estatuko Boletín Ofiziala, 85. zkia.).

Erret Dekretu horretako 20.2 artikulua zehazki xedatzen duenez, azterketen hasiera egunaren eta dataren argitalpena onartutako eta kanpoan geratutako hautagaien zerrenda argitaratzearekin batera egin behar da, eta bi ekintzen arduraren aginpidea duen organoak dauka, dagokion aldizkari ofizialean sartu behar duelarik.

Arau bidezko aurikuspen hori, ordea, hautaketa probak egin aurretik behar den gutxienezko publikizitatea emateko borondate onaren baitan dago. Hori eginez gero, interesaturik dauden hautaketa prozesuan parte hartzeko orduan haiengan eragina eduki dezaketen aurreko jarduerak egiaz ezagutzeko aukera bermatuko zaie hautagaiei.

Horregatik, erakunde honen iritziz, hautaprobek hasiera-egunari zegokionez deialdian egondako hutsunea betetzeko, onartutako behin-betiko hautagaien zerrenda argitaratzeko erabili zen bide bera aukeratu behar zen, hau da, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar zen.

Ondorioz, aurrerantzean tramite bideei eta, zehazkiago, Legebiltzarrak aurrerantzean egingo zituen hautaketa prozesuetan hasierako eguna eta lekuaren iragarkiari behar duten gutxienezko publikizitatea ematea gomendatu zen.

Kexagileak zioenez, administrazio publiko guztien ekintzetan nagusitu behar duen legezketasun printzipioaren aurrean interes orokorra zeukalako bakarrik aurkeztu zuen kexa eta ez, beraz, Mahaiak hartutako erabakiarekin kaltetuta sentitu zelako; horregatik egin genuen lehen adierazi dugun etorkizunerako gomendioa.

Izan ere, jarduerak berriz aztertu izan balira, hautaketa prozesuan parte hartu eta akordio eztabaidagarri horren kontra azaldu gabe Legebiltzarrean lanean sartzeko itxaropenak zeuzkatenei kalte handia eragingo zitzaien.

Erantzun gisa igorri zitzaigun txostenean, Eusko Legebiltzarreko Presidente jaunak jakinarazi zuen erakunde honek egindako gomendioa onartzen zutela.

Are gehiago, deialdien argitalpenean aurkitutako hutsuneez Mahaiak hartu berri zituen azken erabakiak erakunde honek defenditutakoarekin bat zetozela zehazten zuen.

Horregatik, kexa itxi eta artxibatu egin zen, bere tramitazioa eragin zuten prozedura mailako arazoak betirako gaindituta zeudelakoan.

*Funtzio publikoan sartzeko probetan aurreko esperientzia baloratzea (890/95)*

Eusko Legebiltzarreko bost administrazio-laguntzaile lanpostu betetzeko egindako lehiaketa-oposaketa deialdian interesaturik zegoen emakume batek Ararteko honen iritzipean jarri zuen deialdi horretan aurrikusitako merituen profesionalen balorazioa.

Interesatuak deialdiko baldintza jakin bat indargabetzea eskatzen zuen, antzera edo beheagoko betekizunekin lanean eskaintako zerbitzuen balorazioa Eusko Legebiltzarrean burutueta bakarrrik mugatzen zutelako, alde batera utziaz gainontzeko beste zerbitzu guztiak, bete nahi zen lanpostuari funtzionalki egokitutakoak izan ala ez.

Ararteko honek behin eta berriz adierazi duenez, lehiaketa-oposaketa prozesuetan ebaluatu beharreko merituen, bete nahi den postuaren arabera, hautagai posibleen egokitasuna neurtzera bideratu behar dira, eta horretarako datu eta irizpide objektiboak bakarrrik erabili behar dira, horiek edozein lekutan edo baldintzatan bete direla ere.

Horrela, eta aurreko esperientzia profesionala izanik auzitan zegoena, merituen hori deialdi libre bidez iragarritako postuaren eduki funtzionalera egokitzen zen ala ez neurtu behar zen, egokitze mailaren arabera esperientzia horren balorazioan egon zitekeen aldaketaren galerarik gabe.

Aurreko arrazoietan oinarriturik, Ararteko honek txosten bat eskatu zion Legebiltzarrari, bere ustez proba horietan interesatuta zeuden hautagaien esperientzia profesionala neurtu behar zuen zazpigarren oinarri eztabaidatua nola arrazoitzen zen adieraz zezan.

Legebiltzarreko Mahaiak emandako erantzunean esaten zenez, bere zerbitzura lan egingo zuten funtzionarioak hautatzeko probak arautzerakoan, eta zein merituen eta gaitasun kontuan hartu behar diren erabakitzerakoan, deialdia egiten duen erakunde orok eduki behar omen du iritzi askatasun tarte bat. Eta gehiago ere jakinarazten zuen: ez zela funtsik gabea legebiltzar administrazioak merituen artean erakunde horretan eginiko lana puntuatu eta baloratzea.

Lehen erantzunaren ondoren egin zen azterketan Ararteko honek, besteak beste, gogoeta hau egin zuen, duen interesagatik osorik ematen duguna:

«Jakina da konstituzio jurisprudenziak behin eta berriz adierazi zuela berdintasun printzipioaren hausketa bakarrik gertatzen dela 'desberdintasunak justifikazio objektibo eta arrazoizkorik ez daukanean, eta justifikazio hori auzitan dagoen neurriaren helburu eta ondorioen arabera aztertu behar da, eta erabilitako bitartekoen eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionalitate harremanak arrazoizkoa izan behar du.'

Hautaketa proba batean esperientzia administratiboa bidezkoa dela eta, beraz, berdintasun printzipioa errespetatzen duela iriztea bakegarria da. Beraz, konparaziorako erabil daitezkeen beste egoeren aurrean, esate baterako administrazio publiko ezberdinetan lan esperientzia edukitzearen aurrean, tratamendu ezberdina justifikatzen duen faktore diferentzialik badagoen ebatzi behar da (kasu honetan, deialdia egiten zuen legebiltzar administrazioan egindako lana bakarrik baloratzea, beste zerbitzu guztiak alde batera utziaz).

Horretarako, ondo zehaztu behar da zein faktore bereizgarri den Administrazio publikoan izandako esperientzia froga dezaketen hautagaiei oinarrietan tratu desberdina ematea justifikatzen duena, bai eta faktore hori Legebiltzarreko funtzio publikoaren berezitasuna izan ote daitekeen ere.

Beraz, gaiari buruzko eztabaida maila horretan kokatu ondoren esan behar da, Ararteko honen ustez, Legebiltzar horrek zenbait ezaugarri zituen jendea kanpoan uzteko hartutako erabakia justifikatzeko txostenean aipatzen dituzten aurrekariak ez dietela erantzuten deialdi honetako irizpide berdinei.

Bai 1989ko urteari dagokion EAeko Administrazio Orokorren enplegu eskaintza bereziak, bai osasun alorrean aipatutakoak eta bai Euskal Administrazioako beste sail batzuetan egin direnek ere (irakaskuntzaren funtzio publikoa) egoera oso zehaztetan aurkitzen dute kokapena eta justifikazioa, baina garbi dago horietan oinarrituta arrazionalizatu nahi diren administrazio egiturak ez datozela bat funtzio publiko iraunkor eta normalizatuak izan beharko lukeenarekin.

Konstituzio Auzitegiaren 67/1989 epaiak aztertzen du bere aldetik hautaketa prozesu berezia nola ulertu behar den. Jasotzen duen kasua Extremadurako funtzio publikoari dagokio, eta langile ez iraunkorrak (kontratatuak eta behin-behinekoak) kontratatzeko irizpideez ari da. Autonomia mailako araudi baten arabera, kontratatatuak eta behin-behinekoak bi deialdiren bitartez administrazioan sartzeko bide berezi bat arautzen zen. Konstituzio Auzitegiak, lege aginduak helburu berezia zeukanez eta behin-behinekoa eta denboraldi baterako ezartzen zenez gero, justifikatu eta onartu egiten du meritu bezala administrazio haren zerbitzura lanean egindako denboraren antzintasuna kontuan hartzea.

Zentzu horretan, hau aitortzen du: 'berdintasunaren ikuspegitik, arau honen konstituzionaltasuna neurtzerakoan, kontutan izan behar da haren bidez lortu nahi den helburua, bai eta helburuaren eta bereizketa egiteko erabilitako bidearen artean proportzionalitaterik ba ote dagoen ere'.

Legebiltzar honek bost administrazio-laguntzaile lanpostu betetzeko egindako lehiaketa-oposaketa deialdiak ez dio erantzuten goian aipatu den bezalako egoera berezi bati. Alderantziz, erakunde horretan planteiatutako langile premiak normal hornitzeko deialdi arrunta dela esan daiteke.

Testuinguru horretan ulertu behar da guk gure lehenengo idatzian egiten genuen gogoeta, non gogoratuko baituzu nola azpimarratzen genuen lanpostuaren eduki funtzionalera egokitzeko bakarrik eduki behar dela kontuan aurretiko esperientzia profesionala.

Horri dagokionez, erakunde horretan aurretik izandako esperientziaren balorazioak Legebiltzarreko funtzio publikoaren berezitasunari erantzuten diola adierazten duzue zuen txostenean.

Argudio hori ulergarria izan zitekeen aurreko esperientzia hori orain bete nahi den postuaren antzeko beste batzuetan eskatu izan balitz.

Baina ez da horrela; deialdiaren testuan, eta maila txikiagoan bada ere, Eusko Legebiltzarrean ardura gutxiagoko lanpostuetan lanean aritu izana ere baloratuko dela aurrikusten baita.

Horregatik dio erakunde honek legebiltzar mailako funtzio publikoaren berezitasuna argudiatzea eztabaidagarria dela, batez ere lehiaketa-oposaketa honetan bete nahi direnak administrazio-laguntzaile lanpostuak direnean.

Legebiltzarreko funtzio publikoa tratu ezberdina emateko faktore bereizlea den ala ez erabakitzeke, agian interesgarria da ezagutzea Gorte Nagusiek eta gainerantzeko parlamentu autonomoek legebiltzar mailako funtzio publikoari buruz zer aurrikusten duten eta antzeko ezaugarriak dituzten postuetarako deialdietan hori nola jasotzen den.

(...)

Horrek esan nahi du meritu gisa administrazioiko esperientzia baloratzen duten parlamentu autonomo *guztiek* parlamentu mailako esperientziak gain beste administrazioetan lortutako esperientzia ere baloratzen dutela, lana zein postutan egin den ikusirik balorazio hori egokitu daitekeelarik. Horregatik, esan daiteke deialdi-aginduan jasotzen diren baldintza berdinaren aurrean ez dagoela parlamenturik beraiei dagokien administrazioan lortutako esperientziatik kanpo beste administrazioetan izandakoak baloratzen ez dituenik.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegora itzuliaz zera ikusten dugu: Lehendakaritza, Justizia eta Autonomia Garapenerako Sailburuaren 1990eko urtarrilaren 30eko Aginduan, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan sartzeko karreradun funtzionarioak hautatzeko lehiaketa-oposaketa deialdia egiten baitu, 6.3. baldintzan hau dio: «lehiaketan edozein Administrazio Publikotan egindako lana baloratuko da (...), eta beraz Administrazio honetan egindako lana bakarrik ez da baloratuko, ez baitago beste administrazioetako esperientziekiko faktore bereizgarririk.»

Horregatik, eduki funtzional bereko lan esperientzia egiaztatu ezin duten hautagaiak kanpoan uzteko arrazoi objetibo berririk eskuratu ez zitzaigunez gero,

Ararteko honek gomendatu egin zuen deialdiko baldintzak berritzeko neurriak har zitezela, eta aurreko lan esperientziaren merituan beste administrazio publiko batzuetan langile edo funtzionario maila berarekin lanean arituei leku egin ziezaitela.

Legebiltzarreko Presidente jaun txit gorenak ondoren emandako erantzunean adierazi zuenez, emandako gomendioa onartu eta deialdiko 7.2.2. baldintza ere berehala aldatu zen. Horren ondoren, kexa itxi eta artxibatu egin zen.

*Aldi baterako edo behin-behineko beharrak betetzea (851/95)*

Euskal Kontu Publikoen Epaitegiak auditorietarako behin-behineko premiak betetzeko laguntzaile postuetarako ezarri zuen sistemaren kontrako kexa bat jaso zen erakundearen.

Hain zuzen, 1995eko martxoan ezagutu ziren epaitegi horretarako ekonomilari bat aukeratzeko egin zen lehiaketa-oposaketa prozesuaren behin-betiko emaitzak. Horren ondoren, 1994ko urrian deialdi publiko bidez lan poltsak osatu ziren, eta horiek indarrean jarraitzen ote zuten jarri zen auzitan.

Kexaren aurrean, Arartekoak gai horretan esku hartzeko ahalmenik bazeukan aztertu behar izan zuen.

Erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak ez du aurriztuzko epaitegi horren administrazio jardura fiskalizatzeko eskumena ematen dion titulu berezirik.

Baina, Euskal Kontu Publikoen Epaitegia sortzen duen otsailaren 5eko 1/1988 Legeak dio zuzenean Eusko Legebiltzarraren ardurapean egongo dela.

Erakunde honen iritziz, beraz, Arartekoari Legebiltzarraren jardura administratibo hutsa ikuskatzeko ahalmena ematen dion tituluak dioena (otsailaren 27ko 3/85 legea, 13.2 art.) epaitegi horren administrazio jarduerari ere aplikatu lekioketela uler daiteke; izan ere, horrela ez balitz, justifikatzen zaila litzatekeen kontrolik gabeko espazio baten aurrean geundeke.

Aurreko guztiari, gainera, azalpen kronologiko huts bat gehitu behar zaio: gure legeak ezin zuen epaitegi horren administrazio jardura aztertzeko biderik finkatu, gurea epaitegia sortu eta osatu baino lehenagoko legea delako.

Beraz, gure artekaritza burutzea bidezkoa izan zitekeela erabaki ondoren, eta kexari zegokionez, Ararteko honek enplegu publikoetan sartzeko prozesuetan berdintasun, meritu, gaitasun eta baita publizitate printzipioa ere lege ikuspegi soiletik errespetatu ote ziren fiskalizatu zuen.

Puntu horiei zegokienez ez zen ikusi gure artekaritza justifika zezakeen inolako lege-hausterik; ordezkapen zerrendak sistema publiko eta objektibo baten ondorioak ziren, eta horiei ezin zitzaizkien inolako lege-hausterik leporatu.

Halere, aldibaterako era horretako premiak betetzeko ezar daitezkeen sistemekiko egon daitezkeen eskuzabaltasun mailari buruzko oharpen batzuk egin behar izan zituen Ararteko honek. Izan ere, administrazio publiko ezberdinek beraien bitartekoak kudeatzeko daukaten diskrezionalitatearen arabera sistema bat edo bestea ezarri, Arartekoak duen funtzio eragilearen ikuspegitik etorkizunerako proposamenak egin behar ditu, hiritarren interesei arreta hobea eskaintzeko.

Zentzu horretan, nekez justifika zitekeen aurreko zerrendetan edo poltsetan sartuta ez zeudelako ordezkapen horiek egiteko interesatuak kanpoan utzi izana. Izan ere, kanpoan geratutakoek antzeko beharrak edo behar berdinak behin-betirako hornitzeko hautaketa prozesuetan parte hartuak ziren, meritu eta gaitasun baldintzak askoz estuagoak zirelarik.

Horri dagokionez, eta erakunde honen iritziz, ordezkapenentarako hautagai zerrenda berriak ez osatzeko egon zitezkeen kudeaketa arazo posibleek ezin zuten negatiboki eragin behar horiek denboraldi batez hornitzeko interesa zeukaten hautagaien itxaropen zilegietan.

Horregatik hau izan zen erakundeak iradoki zuena: aurrerantzean, antzeko postuak behin-betiko hornitzeko iragarrita zeuden hautaketa prozesuen emaitzak kontuan eduki zitatzela aldi baterako postuak hornitzerakoan.

Iradokizunak izan zuen harrera ona ikusirik, Arartekoak bere jarduera amaitutzat jo zuen, ondorioz, kexa itxi eta artxibatzeke agindua eman zelarik.

#### *Funtzionario baten behin-betiko atxikidura (344/95)*

Gipuzkoako Udal batek bere osoko bilkuretako batean erabaki zuen bertako funtzionario bat, udaltzaina zehazkiago adierazteko, behin-betirako delineante postura atxikita uztea. Delineante postua barne promozio prozesuan hutsik geratuta zegoen.

Postu horretan interesaturik zegoen hiritar batek erakunde honetan salatu egin zuen behin-betirako atxikidura hori, etorkizunean udal horretan sartzeko bere itxarokizunak etenda geratzen zirelako.

Akordioa berez harrigarria izanik, Arartekoak indarrean zegoen lanpostu zerrendaren arabera funtzionarioaren ezaugarriak (taldea, maila, kategoria, aurretik zeukan administrazio egoera eta abar) eta atxikidura-postuarenak ezagutu nahirik informazioa eskatu zuen. Bestetik, erabaki eztabaidagarri hori hartzeko kontuan izan ziren oinarri juridikoei buruz ere galdegin zitzaion udalari.

Erantzunean, alkateak bere jarduera burutzeko eduki zituen arrazoiak adierazi zituen -ertzaintzaren hedapena eta ondorioz udaltzainak gutxitzea-; arrazoi juridikorik ez zen adierazten.

Zorionez, lanpostuak hornitzeko jarraitu behar diren bideak argitzeko Ararteko erakundeak burutu zuen lehen gestioari esker, eta aldi berean Eusko Jaurlaritzako Erakunde Harremanentarako eta Toki Administrazioako Zuzendaritzak esku hartu izanari esker, udalak bereziki gaia aztertzeko egindako beste osoko bilkura batean bidegabeko akordio hori bertan behera uztea erabaki zuen. Gure aldetik kexa itxi eta artxibatu egin genuen.

#### *Bigarren jarduera batera atxikitzea (557/95)*

Gaisotasun bategatik udaltzain lanak egiteko eragozpenak zituen emakume batek Ararteko honen bitartekaritza eskatu zuen. «Bigarren jarduera» batera atxikitzea nahi zuen, ezarriko zitzaion ordutegiarekin familiarekiko betekizunak, eta zehazki semetxo batekikoak, behar bezala betetzeko aukera edukitzeko.



Eragindako udalarekin harremanetan jarri ondoren, honek adierazi zuen ez zegoela interesatuak eskatutako ordutegia ezartzeko biderik (nahitaez 8:00etatik 18:30era), antolaketa ikuspegitik, horretarako egin zen txostenaren arabera bigarren «jarduera zegokion zerbitzuari gehien interesatzen zitzaion ordutegia» 15:00etatik 22:00ak artekoa zelako.

Ezekoa emateko arrazoiak asko ez zirela ikusirik, Ararteko honek ondoko oharrak luzatu zizkion udalari:

«Erakunde honek badaki 'bigarren jarduerak' antolaketa mailako betekizun ukaezinak dituela esfortzua eta nekea dakarkiten lanetarako ezinduta dauden funtzionarioen zerbitzu berezien kasuan (781/86 EDLko 169.1 art.), eskuartean daukagun honetan bezala.

Baldintza horien artean, lehen, eragindako funtzionarioaren jarduera berbideratzeko postu bat egotea da.

Horri dagokionez, eta kexa espediente honen bidetik, ez dirudi kexa aurkezleak udaletxeko telefono zentrolean lana egiteko atxikitua izatearen kontra ezer daukanik.

Baina, agian, erdibide bat egon daiteke, bai udal horrek defenditzen duen zerbitzu hobea eta eraginkorragoa ziurtatzeko, eta baita interesatuak bere familiari arreta zuzena eskaintzeko defenditzen duen bidea eskaintzeko ere, bigarren jarduera hori goizez ordutegi jarraituarekin lan egiteko hutsik legokeen posturen batera berbideratuaz.

Edonola, bigarren jardueran sartzeko ezinbestez telefonista lanak egin beharko baditu, berriro antolakuntza baldintzetara itzultzen gara, ordutegira, hain zuzen.

Zentzu horretan, Ararteko honen iritziz, udaltzaingo zerbitzuak osatutako txostenaren kontra ez litzateke ezer esaterik egongo, baldin eta bertan iragarritako ordutegiak (15etatik 22etara) antolakuntza arrazoiei bakarrik erantzuten badie, hau da, zerbitzuaren premiak eta horretarako dagoen pertsonala hartzen baditu kontuan.»

Kexa bideratzen ari ginen bitartean, bi alderdiak irtenbide adostu batera iritsi ziren, udalak onartu egin baitzuen interesatuak berak egindako beste ordutegi proposamen bat.

Horrela, Ararteko honek kexaren oinarrian zegoen arazoa gainditutzat jo eta ondorioz kexa itxi eta artxibatu egin zuen.

*Ahaidetasun maila zabaltzea adineko familiartekoen zainketarako lan baimenak lortzearen (353/95)*

Administrazioan lan egiten duen langile batek arazoak zituen Lan Baldintzen Akordio Arauemailean iragarritako baimen eta lizentziak lortu eta gaisorik zeuden familiartekoak zaintzeko.

Planteiatzen zuen kasuak ez zeukan Akordioaren hausketarekin zerikusirik, hori zuzen betetzen zelako. Familiarteko gaisoak zaintzeko lizentzien arauketak ahaidetasun mailan muga bat ezartzen zuen, eta kasu honetan ez zen betetzen maila hori.

Administrazioaren aldetik jokabide irregularrik ez zegoen arren, kexa tramitera onartu zen, aiton-amonak familia giroan edukitzeko egoera horiek daukaten garrantziagatik.

Zentzu horretan, 1993ko Euskadiko Plan Gerontologikoak, aiton-amonak beraien giroan zaintzeko laguntzak sustatzeko, aiton-amonak elbarriak zaintzeko behar diren eszedentziak eta baimenak ematea jasotzen du. Alabaina, familiar-tekoen kargu egiten diren askok ahaidetasun mailarengatik arazoak izaten dituzte, lan alorrean egoera horiei ematen zaien tratamendua dela bide.

Horregatik, Administrazioari familiar-teko gaisoak zaintzeko ematen diren baimenak beste kasu honetara ere zabaltzea iradoki zitzaion: alegia, ahaidetasunaren bigarren maila gainditu arren, Akordioan aurrikusitakoaren pareko premia frogatzen zen kasura.

Iradokizun horri erantzunez, Administrazioak aukera hori zegokion Sektore Mahaian planteiatuko zuela jakinarazi zion Arartekoari.

*Irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea: hutsegite bategatik aurkeztu gabetzat jotako lehiatzaile baten defentsarik eza (362/95)*

Bigarren irakaskuntzako irakasleen kidegorako hautagai baten kexa idatzia jaso zen erakundearen. 1994ko apirilaren 20ko Aginduaren bidez irakaslegoan sartzeko hautaprobetan geografia eta historia espezialitaterako aurkeztu zen.

Interesatuak igorri zigun idatziaren bidez Ararteko honen iritzipean jartzen zuen 1994ko abuztuaren 4ko Aginduaren kontra berak aurkeztu zuen gorajotzearen aurrean hezkuntza administrazioak hartutako erabakia. Aipatutako Aginduaren bidez argitara eman ziren hautaprobetan aukeratu zirenen zerrendak.

Hezkuntza administrazioak, interesatua aurkeztu gabekoen artean sartzera eramane zuen hutsegitea zuzendu ondoren eta, halaber, kalifikazioa eman zuen epaimahaiko presidentearen txostena zuzena ez zela onartu arren («presidente honek gogoan du, zalantzarik gabe, lehiatzaile hori aurkeztu zela eta epaimahaiaren aurrean gai bat osorik garatu zuela, nahiz eta aurrerago batzordeak aukeratu zuen lehiatzaile taldean sartzeko behar zuen kalifikazioa ez lortu»), aurkeztutako gorajotzea ez zuen onartu, aipatutako ebazpenaren aurretiazko oharpenetan adierazitakoaren kontra ere azaltzen zelarik:

«...hitzez hitz adierazten den epaimahaiaren erantzunak ez die erantzuten gorajotzaileak aurkeztutako eskariei, zeinak azterketa egin zion epaimahaiaren kalifikazioa jasotzeko eskubidea baitauka; izatekotan epaimahaiaren jarduerak administrazioaren funtzionamendu okerra adierazten du eta epaimahaiak horren ardurapean daude. Zerbitzu publikoen funtzionamendu okerraren ondorioz kaltetua ezin da inoiz defentsarik gabe aurkitu.»

Erakunde honen ustez, kasu honetan zitekeena zen interesatuaren defentsarik eza egotea: izan ere irakaskuntzako funtzio publikoan sartu ezinik aurkitzen zen, horretarako datu erabakiorra ezagutu gabe, hots, epaimahai kalifikatzaileko kideek eman zioten kalifikazioa.

Horregatik, aipatutako epaimahaia osatu zuten kideei bilera dei berezia egin zitzaizen interesatuari zegokion kalifikazioa ezagutzeko bidea emango zuen txostena osa zezaten.

Epaimahaia erakunde honek egindako gomendioa beteaz bildu zen, eta epaimahaiko idazkaritzaren agiriak aztertu ondoren, azkenik hautagaiari emandako kalifikazioa ziurtatu ahal izan zen.

Halere, kalifikazio horri merituen baremoan jasotako besteak batu arren, interesatuak ez zuen lortzen hautatuen zerrenda aldaraztea ekarriko zuen azken puntuaketarik.

Horregatik, kexan planteiatutako arazoa gaindituzat jo eta ondorioz espediente itxi eta artxibatzeko agindua eman zuen Ararteko honek.

*Bidegabeko despidoa: berronarpen aukera Espainiako Konstituzioko 35.1 artikulua arabera (125/95 eta 410/95)*

Sare publikoan sartuta zegoen Donostiako ikastola bateko irakasle batek Ararteko honen bitartekaritza eskatu zuen bere despidoa bidegabekoa zela Gizarte Epaitegiak ebatzi ondoren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hartu zuen jokabidearen aurrean.

Administrazioak erabakitako kalteordainaren aukera ez zitzaion zuzena iruditzen, ikastola sare publikoan sartu aurretik mugarik gabeko harreman erlazioa finka baitzitekeen; ikastetxearen beharrei egokiro erantzuteko aldi baterako irakasle berriak kontratatu behar izan ziren.

Ararteko honek ikusten zuen auzitan jarritako jarduera epaitegiek aurretik azaldutako iritzia bidetik egon zitekeela. Halere, Herriaren Defendatzaileak emandako 21/1985 gomendioan jasotzen ziren zenbait gogoeta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari helaraztea komenigarria zela ikusi zen. Aipatutako gomendioa antzeko ezaugarriak zituen espediente bat bideratzean osatu zen, eta interesgarria denez gero, osorik ematen dugu hemen:

«Espainiako Konstituzioko 35.1 art. -I Tituluko 2. Kapituluko 2. Atala: ‘Espainiar guztiak daude lana egitera behartuak, eta guztiak daukate lanerako eskubidea’, eta Konstituzioaren agindu horren arabera aginte publiko guztiak daude hori bermatzera behartuak -Administrazioa barne». «Lanerako eskubidearen ustezko izaera programatikoa, berehala ezarri ezin diren arauko aspektu edo atalen kasuan bakarrik ezarri ahalko da.»

«Zentzu horretan, Espainiako Konstituzioko 35.1 artikulua lanik gabe dauden hiritarrei dagokienez ez dio Estatuari lanpostuak sortzeko bidea emango duten portaerak izatea besterik eskatzen.»

«Baina, jada sortutako lanpostuei dagokienez, aipatutako aginduaren arabera, lanpostu eskubidea bermatuta eduki duenari ezin kenduko zaio eskubide hori arrazoi zuzenik gabe.»

Gogoeta horien ondoren Herriaren Defendatzaileak ondorio hau atera zuen: Estatuak, bere aginte publikoen nahiz enpresari gisa parte hartzen duen lan

harremanen bitartez, babestu eta errespetatu egin behar du langileak bere lanpostutik arrazoi zuzenik gabe kanporatua ez izateko daukan eskubidea.

Are urrutirago ere joan zen baieztatzean epaitegiek emandako ebazpen bidez ezegokitzat jotako despido edo kanporaketak zeudenean langileak berro-nartzeko aukera azertu behar zela, ondorengo baldintzak betetzen ziren honako hiru kasu hauetan, hain zuzen ere: zerbitzu mailako premiek hori gomendatzen dutenean; lan harremanak arazotsuak ez diren kasuan; eta egin beharreko lanaren ezaugarriek edo baldintzek esijitzen ez dutenean. Izan ere, bestela, Espainiako Konstituzioaren 35.1 artikulua dioena, alegia, langilearen duintasun pertsonala, morala, profesionala eta soziala kaltetzeaz gain, Langileen Estatutuko 4.2.a) artikulua ere hautsi zitekeen.

Ararteko honek, aurreko gogoetak bere egin zituen eta hezkuntza adminis-trazioari hasieran hartutako erabakia berriz azter ezala iradoki zion.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako lehen erantzunean, LOGSE legean eta EAeko unibetsitateaz kanpoko irakastaldee buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legean jasotako berrantolamenduaren ondorioz irakastalde ezber-dinen artean (ikastoletatik pasatuak, bitarteko egonkorrak, eta abar) zeuden arazoak aipatzen zituen. Horren ildotik, berronarpen posiblea nekez onar zitekeela zioen, talde horiei emandako tratua berdintasun printzipioan hausketak gerta zitezkeelako.

Jarrera hori ikusirik, sare publikoan sartu ziren ikastoletako langileentzako euskal heziketa sistemaren berrantolamendu orokorrean aurrakusi ziren xedapen bereziak gogorarazi behar izan zituen erakunde honek. Horien bidetik, ezin zen esan berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak hausteko arriskua zegoenik, euskal heziketa sistemaren berrantolamendu orokorraren azken helburuaren arabera, antolamenduak berak lantalde ezberdinen artean sartu zituen tratu des-berdintasunak neurrizkoak eta, beraz, ez arbitrarioak zirelako.

Horrela, eta aurreko gertaera argitu ondoren, erakunde honek egindako iradokizuna berriro zentzuzkoa gertatzen zen, horregatik berronartzeko premia berriz azpimarratu zelarik.

Harremanekin aurrera jarraitu eta gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak azkenik adierazi zuen onartzen zuela eta, horrenbestez, kexa itxi eta artxibatu egin zen.

*Sare publikoan sartutako ikastoletako langile batzuek Udal plantilan sartzeko zeuzkaten arazoak (339/95)*

Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeak araututakoa ezartzerakoan, ikastola batzuek ikastetxeen sare publikoan sartzea erabaki zuten.

Ikastolen sarrera hori bakoitzari zegokion Dekretuaren bidez onartu zen. Prozesua horrela burutu ondoren, ordea, arazoak sortu ziren pertsona batzuk udal batzuetako plantiletan sartzekoan.

Espediente hau zabaltzeko bidea eman zuen kasuan, «Karmelo ikastola» ikastetxe publikoko langileak kexu ziren, sare publikoan sartzeko Dekretuak II.

eraskinarekin zerikusia zuten langileak udalean sartuko zirela zioen arren, udalak aurrikuspen hori betetzeari uko egiten ziolako.

Udalak ez zuen aurrikuspen hori ezartzen zuen Dekretuaren aurka jo, baina uko egin zion langileak bere plantilan sartzeari. Horregatik, langile kaltetuek gizarte epaitegira jo zuten beraien interesak defendatzeko.

Kexa Arartekoari planteiatu zitzaionerako, gizarte epaitegiak langileen aldeko epaia emana zuen, baina zenbait arazorengatik epaia betetzeko orduan atzerapenak gertatzen ari ziren.

Ikuspegi horretatik ezin zen esan epaia betetzen ari ez zenik, hori behin-behineko ezarpen bidean zegoelako eta lan prozeduran iragarritako prozedurari egokitzen zitzaiolako.

Arrazoi horrekin batera, beste gai bat ere izan zuen Arartekoak kontuan kexa onartzerakoan: interesatuen nahiaren itxurazko funtsa, ikastola ikastetxeen sare publikoan sartzeko bide ematen zuen Dekretuaren aginduarekin guttiz bat zetorrena.

Horregatik, kexa bideratzea onartu eta Bilboko Udalari iradoki zitzaion, epaia eman ondoren, hori betetzeko pausoak eman zitzala, epaia betetzeko orduan gertatzen ari zen atzerapena eragiten zuten prozedura faseak horrela aurreratu.

Iradokizun horri erantzunez, Udalak txosten bat bidali zigun. Bertan azaltzen ziren integraziorako Dekretuan aurrikusitako bide ezberdinen artetik langileei eskainitakoak, eta gehitzen zuen, epaia betetzeari zegokionez betetzeke zeuden bide prozesal guztiak agortuko zituela. Udalak horrela jokatu zuen, eta behin-behineko exekuzio prozedura agortu ondoren langileak udal plantilan sartu ziren.

*Soldata egokitzea sare publikoan sartu ondoren (529/94)*

Bere lantokia sare publikoan sartu ondoren, Donostiako ikastetxe bateko langile batek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo zuen bere ustez ezohizkoa zen egoera bat konpontzeko, alegia, ez ziotelako ordaintzen indarrean zegoen hitzarmen kolektiboaren arabera.

Soldata erreklamazio hori zela-eta, aipatutako sailak interesatuari jakinarazi zion, erabat ezinduta egoteagatik pentsionista zenez gero (bere garaian arrazoi horregatik aldatu zuten lan mailaz), ezin zuela lanean jarraitu administrazio publikoan.

Azken oharraren larritasuna zela medio, emakume langile horrek erakundera jo zuen ustezko bateraezintasun horri buruzko xehetasun guztiak argitu nahirik.

Erakunde honetatik egin zen lehen informazio eskariari erantzunez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak adierazi zuen pentsioen eta hartzeko aktiboen arteko bateraezintasun posibleari buruzko behin-betiko ebazpena eman zain zegoela. Ebazpena emateko, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 3.2. artikulua irismena ezagutu zain zeuden.

Horregatik, erakunde honek zuzenean Gipuzkoako INSSeko Lurralde Zuzendari andrearengana jo zuen, zeinak baieztatu baitzuen interesatuak bere ohizko maistra lanak egiteko ezintasun iraunkor osoagatik pentsionista izaera aitortuta zeukala. Horrela, ezin zuen interesatuak bere lanean jarraitu, baina horrek

ez zuen esan nahi ezintasun aitortpena emateko zeuzkan arazoezin bateragarria zen beste lanen bat egin ezin zuenik.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko zenbait arduradunekin hainbat harreman eduki ziren, espedientea ebatzea zegokion funtzionarioak jarrera uzkurra ageri baitzuen, eta haien ondorioz hezkuntza Administrazioak azkenik bi prestazioen arteko bateragarritasuna aitortu zuen.

Lehen arazo hori gainditu ondoren, kexagileak hasieran planteiatutako soldata erreklamazioan kokatu ahal izan zuen Ararteko honek bere artekaritza.

Horri dagokionez, erakunde honek zehaztu behar izan zuen interesatuari ordaintzen zitzaion soldatak, hain zuzen, bere maistra lanetarako ezintasun iraunkor osoa aitortu ondoren ezarri zitzaion erabaki bitxi bati erantzuten ziola.

Erabaki horren arabera, hiritar honek jasotzen zuen soldata maistra zenean jasotzen zuena bera zen, ikastetxeak ordaintzen zuelarik INSSek ordaintzen zion ezintasun-laguntzaren eta maistra soldataren arteko aldea.

Ikastetxe hori sare publikoan sartu zenean, ordea, erakusle maila eman zitzaion eta, beraz, hezkuntza administrazioa ezin zen lehen aipatutako erabaki bitxi horretara mugatu: aldiz, zegokion negoziazio markora egokitu behar zuen (ikastolen hitzarmenera, alegia), horrek zekartzan ondorio guztiekin.

Horregatik, indarrean zegoen hitzarmenaren arabera, interesatuari erakusle mailaren araberrako soldata aitortu ziezaiola gomendatu zion Ararteko honek.

Azken gomendio honek ere harrera ona izan zuela ikusirik, Ararteko honek espedientea behin-betiko itxi eta artxiba zedila agindu zuen.

*Irakaskuntzan ordezkapenak egiteko hautagai zerrendetan izandako barmemo okerra (765/95)*

Gaztelaraz elektrizitate praktikak emateko espezialitatean ordezkapenentarako hautagai zegoen behin-behineko irakasle batek salaketa hau egin zuen Ararteko honen aurrean: lehiaketaren zerrendan hautagaien ordenan hutsegite bat zegoela eta, Gipuzkoako lurralde ordezkaritzan behin eta berriz eskatutako zuzenketa eskariei ez zietela erantzuten.

Bere salaketa, hain zuzen, sare pribatuan zeukan lan esperientziari buruzko atalari zuzentzen zitzaion, izan ere 2.938 lanegun frogatuta eduki arren, 938 bakarrik aitortzen zizkiotelako.

Interesatuak kexan adierazten zuenez, aipatu lurralde ordezkaritzako hezkuntzako arduradunek onartzen zuten beraien hutsegitea, eta ohartzen ziren hutsegite horrek zer-nolako ondorio larriak zekarzkie berari: izan ere, seguruenik 95-96 ikasturte hasierako lanpostu izendapenetan ezingo zen sartu, lanpostu gutxi zeudelako betetzeko.

Halere, behin eta berriz eskatu zitzaie zuzenketa burutzeko prozedura eta kudeaketa mailako zenbait eragozpen zeudela adierazten zuten: erreklamazioak egiteko eperik eza, zerrendak azaroan berregeneratuko zirela, eta abar.

Erakunde honen ustez, ordea, 95-96 ikasturte hasierako lanpostu izendapenen gertutasuna zen, hain zuzen ere, arazo horiek -kudeaketa pertsonal prozesurik egon ezean aintzat hartu beharko zirenak- gaindiarazteko arrazoiak.

Horregatik, hezkuntza administrazioari gomendatu egin zitzaion berehala zuzen zezala baremazioan egindako errakuntza, abenduaren 26ko Administrazio Publikoen eta Administrazio Orokorreko Prozeduren Lege Erregimenerako 30/92 Legeko 105.2 artikuluan iragarritako ahalmenaz baliatuz. Jakina den bezala, aipatu artikulua administrazio publiko guztiei bide ematen die ofizioz edo interesatuen eskariz edozein unetan beraien ekintzetan egin daitezkeen hutsegite materialak zuzentzeko.

Aurreko gomendioa onartu zenez gero, 95-96 ikasturteko lanpostuak betetzeko prozesuaren aurrean zegokion babesema eman zitzaion interesatuari eta, ondorioz, kexa itxi eta artxibatzeke agindua eman zen.

*Polizia kidegoetan sartzeko halako altuera bat edukitzea esijitzean egon daitekeen diskriminazioa (381/95)*

Administrazio publikoek polizia funtzionario izateko halako altuera bat eskatzean hori bazterkeriazko praktika izan daitekeela uste zuen hiritar batek Arartekora jo zuen, honek bere iritzia eman zezan eskatuz. Kexa orokorra zen, eta betekizun hori Estatuko Segurtasun Indarretan, Ertzaintzan eta udaltzaingoetan esijitzen zela zioen.

Gai hori ebazteko ez zen eragindako administrazioei informazioa eskatu beharrik ikusi, gaia lege kontu soila zela uste izan zelako. Egin zen azterketaren bidetik ondorio hau atera zen: salatutako baldintzak ez zuen Konstituzioan jasotako puntu bakar bat ere hausten.

Hiritarrari bidali zitzaion erantzunean jakinarazi zitzaion bezala, Konstituzio Auzitegiaren eta alor juridikzionaleko administrazio-auzietarako salen jurisprudentziak hau ebatzi dute: funtzio publikoan sartzeko berdintasun, meritua eta gaitasun printzipio konstituzionaletan ez dagoela lege-hausterik postu jakin batzuetarako halako baldintza batzuk eskatzen direnean, baldin eta esijentzia hori burutu beharreko laneko betebeharrekin zuzenean erlazionatuta badago.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Ertzaintzari eta udaltzaingoei ezartzen zaien uztailaren 17ko Euskal Herriko Polizien 4/1992 Legea garatzeko uztailaren 19an indarrean sartu zen 315/1992 Dekretuaren bidez onartutako hautaketa eta prestakuntzarako Arautegiak 4.c) artikuluan haxe xedatzen du: aipatutako polizia kidegoetan sartu nahi dutenek, gizonak gutxienez 1,70 m. izan behar dutela, eta emakumeek 1,65 metro.

Beraz, baldintza hori esijitzeak Konstituzioan jasotako printzipioak hausten ez baditu, eta legezketasun printzipiora makurtu behar direlako administrazio publikoetako eskumena duten erakundeek errespetu osoz bete behar dituzten indarrengo arauak beraien mugak zehazten badituzte, ondorio hau atera dezakegu: poliziagaiei horrelako baldintzak ezartzen dizkieten administrazio erabakiek ez dutela antolamendu juridikoa hausten.

Horrela jakinarazi zitzaion kexagileari, eta irregulartasunik ikusi ez zenez gero, besterik gabe espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

### 3.4.2.2. ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

*Bide heziketa irakasleen gaitasun ziurtagiriaren titulua lortzeko hautaketa prozesuan hautagai bat kanpoan utzi izana (811/95)*

Hiritar batek erakunde honetara jo zuen Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzaren ebazpen bidez eginiko hautaketa prozesu batean kanpoan utzi zutelako. Deialdia bide heziketa irakasleen gaitasun ziurtagiria ateratzeko zen.

Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzak aipatutako ziurtagiria atera nahi zuen pertsona hori kanpoan uzteko arrazoia, hain zuzen, deialdiko baldintzetan espreski adierazten zen epe jakin batean halako agiri batzuk ez aurkeztea izan zen. Kaltetuak zioenez, erabaki hori ez zen zuzena, bere esanetan, deialdiko baldintzak zehaztasun osoz betetzen saiatu zelako.

Eragindako administrazioari eskatutako informazioa jaso ondoren ikusi zenez, egia zen interesatuak deialdiko oinarrietan adierazten zen epea igaro eta gero aurkeztu zituela agiriak eta Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzak bere aurrikuspenak bete zituela akordioak betetzen hasterakoan, epea bete eta berehala ekin baitzitzaion konputuak egiteari. Hori horrela izan arren, hautagaia prozesutik kanpo utzi izana deialdiko oinarrien interpretazio oker bategatik gertatu zela iritzi genuen.

Egia da prozeduraren arau erregulatzailen arabera, onartutako hautagaien zerrenda jendearentzat ikusgai jarri ondoren, horiek epe jakin batean zenbait agiri aurkeztu behar zituztela. Baina egia da, orobat, ez arau erregulatzailerek ez eta bide heziketarako irakasle ziurtagiria lortzeko prozedura arautzen zuten xedapen orokorrek ere ez zutela adierazten zein ondorio ekarriko zituen aurrikuspen hori ez betetzeak.

Gai hau baloratzera kontuan izan genuen aipatutako deialdiak ez zuela hautagaiak funtzio publikoan sartzeko helbururik. Baina egia da prozedura horien oinarritzko printzipioetan administrazio jarduera burutzerakoan aintzat hartzekoa zela lanbide jakin bat burutzeko administrazioak eman behar duen onespena lortzeko hautaketa mekanismo bilakatzen dela administrazioa bera. Zentzu honetan, kontuan izan behar da deialdiko oinarriak haren lege bihurtzen direla eta behin eta berriz eman den jurisprudentziaren ildotik, horiek onarpenaren aldeko zentzuan interpretatu behar direla. Horrek duen azken helburua zera da: meritu eta gaitasun printzipioak hobekien bermatzeko aukera izatea, egon daitezkeen zehaztasun faltak eta kontraesanak gainditzeko eta bere testuingurua osatzen duten xedapen legal eta arau mailakoekin osatzeko. Horrela, ondorio batera iritsi ginen: hautagaia kanpoan uzteko erabakia ez zetorren bat aztertu den prozeduran jasotako arauekin.

Aurreko gogoetak kontuan izanik, abenduaren 26ko Administrazio Publikoen eta Administrazio Orokorreko Prozeduren Lege-Erregimenerako 30/92 Legeak 71. artikuluan aurrikusitakoaren bidetik interesatuari aurkeztu beharreko agiriak igortzeko hamar eguneko epea eman ziezaiotela gomendatu zitzaion Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari, baina baita adierazi ere epe horretan aurkezten ez bazituen, espedientea besterik gabe artxibatu egingo zela.



Bidezaingo eta Ibilgailu Sailak ontzat hartu zuen erakunde honek emandako gomendioa eta kexa espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

*Material grafikoa inprimatzeko hitzarmenen luzapenen legezkotasuna (837/95)*

Arte grafikoen enpresa batek auzitan jarri zuen Eusko Jaurlaritzaren ardura-peko Argitalpen Zerbitzu Zentralak aurreko urtean lehiaketa bidez 1996rako esleitutako hitzarmenak luzatzeko akordioa. Hitzarmen horiek liburuen fotokonposaketa, fotomekanika, inprimaketa, enkuadernaketa, bidaltze eta banaketa lanetarako ziren. Horrekin, aipatutako enpresak zioenez, banaketa aurreko urteetan jarraitutako irizpideetatik alderatu egiten zen, hitzarmena ez luzatzeko erabakitik, alegia.

Administrazioak aditzera eman zigunez, artean ez zen segurua hitzarmenak luzatuko zirela, horrek bi alderdien arteko akordioa behar zuelako hurrengo urtean ezarriko ziren prezioei buruz. Nolanahi, luzapena egitea lehiaketa bidez hitzarmena esleitzeko arau-baldintza orrietan iragarritako aukera bat zen, hain zuzen aurreko urteetatik ipinia, horri buruzko datu zehatzen bidez ikusarazi ziguten bezala.

Inolako bidegabekotasunik ikusi ez zenez gero, espedientea itxi egin zen, bai eta bi alderdiei horren berri eman ere.

### **3.4.3. OFIZIOZKO JARDUERAK**

*Enplegu publikoan sartzeko berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak (10/95/OF)*

Enplegu publikoan sartzeko berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioen ezarpenaren alorrean sarritan jardun behar izaten du Arartekoak.

Bitartekaritza egin dugun kasuetan sarbiderako printzipio konstituzionaletan ulerbide okerrak egin direlako izan da: hots, bidegabeko ezarpenak egin nahi izan gabe, sarbide-prozesuen oinarrietan mugak jartzen zirelako. Hori gertatu da Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak postu jakin batzuetarako egindako deialdiekin, adibidez.

Gure partehartzea eragin zuten deialdiko atalek ondorengo alor hauekin zeukaten zerikusia:

- Gutxienezko lan esperientzia eskatzea, deialdietan sartzeko baldintzen artean.  
Hautagai asko kanpoan uzten ziren eta, horrenbestez, enplegu publikoan baldintza berekin sartzeko eskubidearen alorrean geunden.
- Oposaketako bigarren zatira pasatzen ziren pertsonen kopurua mugatua zen, baita lehen zatia gainditzeko ezarritako nota gaindituta edukita ere. Neurri hori meritu eta gaitasun printzipioekin bateraezina gerta zitekeen, oinarrietan adierazten zen nota gainditu arren ondorengo probetan

parte hartzea galerazten zuelako, eta ez zegoelako muga hori justifika zezakeen inolako arrazoi objektiborik.

- Azkenik, lehiaketa fasean ez zen zehazten meritu batzuk frogatzeko modua.

Geroago nekez arrazoitu zitezkeen balorazioei aurre egiteko, puntuaketa bitarteko objektibagarrien bitartez egitea komeni zen.

Arrazoi horietan oinarriturik, Arartekoak oinarriak aldatzea, eta aldi berean deialdia aldi baterako etetea gomendatu zuen, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioetara egokitzeko modua ikusten zen bitartean.

Ohar horiek ontzat hartu zituen Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailak, eta gomendioan adierazitako oharpenekin ados zegoela jakinarazi ondoren, deialdiko oinarriak aldatu eta eskariak aurkezteko epe berri bat ireki zuen.

*Hiri Jabegoaren Kamara Ofizialen erreziiboak ordaintzeko derrigortasuna (18-19-20/95/OF)*

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Hiri Jabegoaren Kamara Ofizialek pasatutako erreziiboak ordaintzeko dagoen derrigortasunaz hiritarrek egindako hainbat kontsulta jaso ziren erakundeetan.

Horren aurrean, Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 17. artikuluan esaten denaren bidetik ofiziozko espedienteak irekitzea erabaki zen.

Horrela, Arabako kamarak bidalitako erreziiboak aztertu ondoren, badago lehenik gauza deigarri bat: hain zuzen «Eusko Jaurlaritzak onartutako derrigorrezko kuoten» ordainketaz hitz egiten da. Ez da behin ere aipatzen euskal kamaren araudia onartzen zuen 312/1988 Dekretua indarrean sartu zenetik jabeek askatasun osoa daukatela horietan sartu ala ez erabakitzeko.

Bizkaiko kamararen kasuan, kuoten borondatezko izaeraz hitz egitean, ez dakigu oharkabean edo zer, zehaztasun falta hori are larriagoa da, zerga izaerako kontzeptuak erabiltzen baitira, hala nola «zergapeko», «ordain-gutuna» edo «ordainketarako borondatezko epea».

Garbi dago deitura horietako bat ere ez datorrela bat hiri jabegoaren kamararako bazkideek ordaintzen dituzten kuoten borondatezko izaerarekin.

Lurralde historiko bakoitzeko Zergetarako Foru Arau Orokorreko 31. artikulua xedatutakoaren arabera, «zergaren Foru Arauak egitate zergagarritik eratorritako zergaren zama ezartzen dion pertsona natural edo juridikoa» da zergapekoa.

Zentzu horretan, berriro esan behar da ez gaudela zerga baten aurrean, eta are gutxiago hitz egin daiteke egitate zergagarriaz, kontzeptu horiek Administrazioari dagokion behartzeko gaitasuna dakarkitelako.

Horrenbestez, erakunde honen iritziz, hiri jabegoko kamarek bidalita jasotako erreziboen idazkera ilunaren aurrean zera pentsa daiteke: horrela idatzita daudela, hain zuzen ere, jasotzen dituzten jabeek zerga baten aurrean eta, beraz, ordaindu beharreko zerbaiten aurrean daudela pentsarazteko.

Adierazitako guztiagatik, eta aipatutako 312/88 Dekretuaren arabera hiri jabegoaren kamarak Lurralde Antolakuntza, Hirigintza eta Ingurugiro Sailaren ardurapean daudelako, azken honi jakinarazi zitzaizkion egindako gogoetak.

Sailburuaren txostena jaso eta beronen edukiaren arabera, Bizkaiko kamarak erabilitako idazkerari zegokionez Saila eta gu guztiz bat gentozen erabilitako hitzen desegokitasunaz, zerga izaera ematen zitzaenez gero, erreziboa jasotzen zute-nengan nahasketa sor zezaketelako.

Era berean, Arabako kamarak kuoten ordainketarako erreziboekin batera bidalitako azalpenak ere ilunak gerta zitezkeen; Sailaren iritziz, ordea, bertan esaten ziren gauzen artean ez zegoen okertzat jo zitezkeen ezer.

Halere, Publizitatearen 34/1988 Lege Orokorrak arautzen duena ikustea komeni da. Lege horrek arautzen du aztertzen ari garen gaia, eta publizitate engainagarriari dagokionez Europako Elkarteko Estatu kideen xedapen legalak hurbiltzeko 1984ko irailaren 10ean onartutako Elkarteko Direktiba Espainiako zuzenbidean sartzea dakar. Eta Lege horren bidetik, puntu batzuk azpimarratu behar dira.

Aipatutako lege-testuko 2. artikulua arabera, publizitatea zera da: pertsona fisiko edo **juridiko**, **publiko** edo pribatu orok merkataritza, industria, artisautza edo profesional jardura baterako, zuzenean edo zeharka ondasun higigarrien, higiezin, zerbitzuen, eskubideen eta betebeharren kontratazioa sustatzeko egindako komunikazio modu guztiak».

Eta 4. artikuluan, publizitate engainagarria honela definitzen du: «donola, aurkezpena barne, hartzaileak **hutsegitera daramatzen edo eraman ditzakeena...**».

Baina, beste hau ere badio:

«Ondasunen, iharduereen edo zerbitzuen funtsezko datuak isiltzen dituen publizitatea ere engainagarria da, isiltzen diren datuengatik hartzaileak hutsegitera eraman baditzaie».

Ikuspuntu horretatik baieztatu daiteke publizitate bat engainagarritzat jotzeko ez dela beharrezkoa huts egiten duenak nahita huts egitea, nahikoa litzateke iragarkiak abstraktuki zehatzak direla jo arren, hartzaileek oker ulertzeko bidea ematea.

«Suszeptibilitate» elementua ere sartu beharra dago, hau da, publizitatea engainagarritzat jotzeko hutsegitera eramateko arriskua egotea nahikoa da.

Zentzu horretan, Bizkaiko kasuan ez bezala Arabako eta Gipuzkoako Hiri Jabegoaren Kamara Ofizialek bidalitako erreziboetan berez hutsegitera eraman dezaketen elementuak sartzen ez badituzte ere, Eusko Jaurlaritzaren 312/88 Dekretua aipatzen dute elkarte horietan egotea borondatezkoa dela inondik ere aipatu gabe. Beraz, gure aburuz, Arabako eta Gipuzkoako Kamarek bidalitako erreziboek jendea hutsegitera eraman dezakete, hain zuzen gertatu den bezala.

Edonola, gai honetan eskumena daukaten alderdiek erabilitako argudioetatik kanpo badago datu objektibo bat: kamaretako bazkide izateko derrigortasunari buruz erakunde honi egin zitzaizkion kontsultak hiru lurralde historikoetatik egin zitzaizkigu.

Azaldutakoaren arabera, eta Sailak hiru kamarei datozen ekitaldietan agertu den egoera zuzentzeko neurriak har ditzatela agindu diela gure aldetik pozez

hartu genuen arren, Arartekoa sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen arabera, erakunde honek haxe gomendatu zuen: alegia, 1995eko errezibo batzuk bidaltzekotan egonda ere, neurriak une hartan bertan har zitzatela kamarek, planteiatutako zalantzak argi gera zitezten. Horretarako, bidaltzen ziren erreziboekin batera jakinarazpen pertsonalak bidal zitzatela, edota egokiak ikus zitezkeen beste neurri batzuk har zitezela gomendatu genuen.

### 3.5. OGASUNA

#### 3.5.1. SARRERA

Ezer baino lehen ogasun sailean jasotako kexa kopuruaren gorakada aipatu behar da, 125 jaso baitira, 1994ko ekitaldian baino ia bi aldiz gehiago, eta horrela kexa guztien %10,8ra iritsi dira.

Azpisailen arabera, hau da banaketa:

- Udal tributoak eta salneurri publikoak .....	62
- Foru tributoak .....	55
- Beste batzuk .....	8

Kopuru aldetik, PFEZ delakoarekin erlazionatuak dira garrantzirik handiena dutenak, agian zerga pertsonal nagusia delako eta bere ezarpen eremua ia hiritar guztiengana zabaltzen delako.

Alor honetan zergaren kuotan kenketa ezberdinak egiterakoan gerta daitezkeen diskriminazioengatik aurkeztutako kexak aipa ditzakegu. Alde batetik, kenketarako eskubidea bera aitortzea eskatzen duten kexak daude eta, bestetik, eskubide hori gauza dadin frogatu beharreko baldintzei dagozkienak.

Horrela, atzerrian hizkuntzak ikasteagatik egin daitezkeen kenketen arazoa aztertu zen ofizioz, kenketa hori Araban bakarrik onartzen delako.

Banatutako gurasoen erreibindikazioei ere erantzun zaie, seme-alabak beraiekin bizi ez izanda ere horien eskola gastuengatik kenketak egiteko eskubidea lortzeari dagokionez.

Baina kenketen inguruan gertatzen diren arazorik nabarmenenak ohiko etxebizitzan inbertsioak egitearen ondoriozkoetan antzematen dira. Urte honetan zergapeko gipuzkoarrek aurkeztutako 25 kexa inguru jaso ziren, eta Foru Ogasunak garaje erosketari ezar diezaiokeen kenketa ez onartzeagatik izan dira, berez garajea ez delako etxebizitzatzat jotzen. Administrazio horretako ardura-dunekin izandako harremanen ondorioz agian lortuko da PFEZren Araudian interpretazio ezberdinak sortarazten dituen artikulua aldatzea.

Era berean, PFEZren aitoperna egiterakoan banakakoa edo baterakoa aukeratzeko orduan zergapeko batzuek egindako hutsegiteengatik 1994an sortutako auzia ere aipatu behar da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailak barne erabilerarako tresna bat dauka era horretako disfuntziorik gerta ez dadin,

eta hori zergapekoari informazioa eskuratzeko eta zerga sistema zuzenagoa lortzeko aurrerapen handia da dudarik gabe.

Gainerantzeko foru zergei dagokienez, Ondare Eskualdaketei buruzko Zergarako, balioetsitako preziodun etxebizitzak direlakoak salbuesteari buruz sortutako auziak agian izango du konponbidea dagokion Foru Araua aldatzen denean, hobeto uler dadin beste era batera idazten bada.

Balio erantsiaren gaineko Zergak oraindik kexa gutxi eragiten ditu, eta hori, agian, aurreko txostenean adierazi genuen bezala, profesionalek eta enpresariak beraien zerga betekizunei buruz aholkularitza hobea eta handiagoa daukatelako gertatzen da.

Zerga horri buruz jaso ditugun kexa apurrak aldizkako aitortpenak aurkeztu beharrekin lotuta zeuden.

Toki ogasunen alorrera pasatuaz, aldizka kobratzen diren zergen jakinarazpenak eta horien kudeaketarako prozedurak eragiten dituzten kexak aipatu behar dira, bereziki atzeratutako erreziobengatik igortzen diren kitapenengatik eta horiek zatika ordaintzeko eskariengatik sortzen direnak.

Udal zergen barruan, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga izan da 1995. urtean kexa gehien eragin dituen, ezarri behar den tarika finkatzerakoan udalek kontuan eduki beharreko potentzia fiskalarekin erlazionatuta.

Tasengatik, legez, zerbitzuaren kostua baino gehiago kobratu ezin denez, zergapeko batzuek kexa aurkeztu dute hori horrela egiten ez zelako. Horrela, Gasteizen itxitako saltokiak zeuzkaten jabe multzo baten kexak bideratu dira, udalak funtzionamenduan zeuden negozioak bailiran kobratzen zielako.

Baina udal alorrean erakundearen are arreta handiagoa eskatu duen gai bat aipatu behar dugu: udalen esku dauden zerbitzuen prezio publikoen kobraketa, alegia.

Toki Ogasunen Legeak tasa eta prezio publikoen arteko bereizketa eztabai-datua egin zuenetik, azken horiek gero eta pisu handiagoa lortu dute udalen dirusarrera sisteman. Edateko ur hornidura etxeetara eramatea, udalen kirol instalazioak erabiltzea, musika eskolen errezioboak, horiei guztiei orain prezio publikoa ezartzen zaie.

Diru iturri publiko horrek, ordea, arazoak sortzen ditu; zergen kasuan kobraketak egiteko administrazioek antolamendu juridikoaren arabera ahalmen guztiak dauzkaten arren, horien ezaugarri guztiak ez dira berdinak.

Adibidez, prezio publikoen kasuan, ezin da zergapekoaren ordezkoez hitz egin, eta horrela zerbitzu hartzailea bakarrik dago hori ordaintzera behartua.

Bestalde, tasetan ez bezala, horren zenbatekoa gutxienez zerbitzuaren kostua izango da, erabilera publikoarengatik edo interes sozialarengatik muga horren azpitik ezartzea erabakitzen denean salbu.

Aurrikuspen horrengatik interesatu zen Arartekoa ur hornidurari ezartzen zitzaion prezio publikoen kobraketa sistemaz, eta ofizioz tarifen mailaketa kentzea gomendatu zuen, horren ordezkoez metodo objetiboagoa erabil zedin, gastatutako metro kubikoen arabera kobratuz, adibidez; formula horren ezarpena aztergai dute gaur egun zerbitzua ematen duten erakundeek.

Gizarte laguntzaren alorrean prezio publikoa kobratzeak ere garrantzi berezia du. Hirugarren adinekoentzako egoitza zerbitzuengatik eta etxez etxeko laguntza

zerbitzuengatik laguntza-hartzaileek ordaindu behar izaten dutenak disfuntzioak sortzen ditu sarritan erabiltzaileen gaitasun ekonomikoa mugatua delako. Horrela, aurkeztu diren kexei unean-unean erantzuteaz gain, erakunde honek hirugarren adinekoei buruz egin dituen ikerketa lanetan sakonki aztertu da puntu hori.

Euskal Herriko udaletan langileak aukeratzeko prozesuetan parte hartzeko esijitzen diren prezio publikoen gaia ere aztertu da.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorren kontrako kexak ere aipatu behar dira, kasu horietan ere prezio publikoen auzia aztertu delarik.

Eta multzo horretan irakaskuntza zerbitzuengatik kobratzen diren prezio publikoak, alegia, unibertsitateko matrikula diruak itzultzeko arazoengatik sortutakoak azpimarratu behar dira.

Urtero jaso izan da Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) kontrako kexaren bat arrazoi honegatik: ikasleak, beste fakultate batean onartua izan ondoren, matrikula bertan behera uztea eta, beraz, matrikula dirua itzultzea eskatu du. EHUri behin eta berriz eskatu zaio neurriak har ditzala informazio faltagatik ikasleak egoera horretan aurki ez daitezzen, eta unibertsitateko arduradunek informazio hori ikasleei eskuratzen zaizkien agirien bidez hobetu dela dioten arren, garbi dago ez dela nahikoa izan, oraindik arazoak sortzen baitira.

### **3.5.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

#### **3.5.2.1. FORU TRIBUTUOK**

*Banatutako gurasoen «haurren zaintzari» dagokion kenketa (430/95)*

Legez banatuta zegoen erreklamatzailerik gasteiztar batek bere seme-alaben eskola gastuen %50eko kenketa egin nahi izan zuen 1994ko ekitaldiko errenta aitortpenean.

Epai bidez seme-alaben zaintza bere emazte-ohiari eman zitzaionez gero, aitortpena aztertu zuen Arabako Foru Ogasuneko funtzionarioak ukatu egin zion goian aipatutako aukera.

Erakundeak ikusi zuen Arabako Lurralde Historikoan PFEZ delako zergaren Foru Arauak 78.3.b.2) artikuluan adierazten duenaren bidetik epaitegien erabakiz janarizko pentsioa ordaintzen duenari ez zaiola ukatzen kenketa hori egiteko eskubidea. Hori bai, aginduaren arabera, ordainketak egin dituela frogatu behar da.

Zentzu horretan gomendioa zuzendu ondoren, Foru Ogasuneko zuzendariak onartu egin zuen interpretazio irizpide hori, eta seme-alabekin bizi ez diren guraso banatuen aitortpenean kenketa erdibana ezartzea erabaki zen, baldin eta beste gurasoen antzera seme-alaben mantenurako ordaintzen dutela frogatzen badute.

PFEZri buruzko Foru Arauaren bidez bere garaian onartu zen aldaketari gehitu behar zaio beste hau ere: alegia, onartu egiten da gurasoek bakoitzak bere aldetik egiten duten aitortpenean seme-alabengatik egiten duten kenketa

erdibanatzea, seme-alabekin bizi ez denak horien mantenu ekonomikorako dirua jartzen duen neurrian. Neurri hau pauso bat gehiago da justizia eta berdintasun printzipioetan oinarritutako zerga sistema lortzeko bidean.

*PFEZn kenketa egitea unibertsitateaz kanpoko ikasketengatik (603/95)*

Arrasateko biztanle batek bidalitako kexa jaso zen erakunde honetan. Bertan, familia unitateko kidea den alaba batek unibertsitate ikasketak egiten zituela, baina PFEZren aitortzean horien gastuak ezin zituela kendu adierazten zuen.

Bere alaba Irudi eta Soinu ikasketak egiten ari zen Andoaingo Lanbide Eskolan, eta ikasketa horiek ofizialak diren arren ez daukate unibertsitateko ikasketa mailarik.

Horrela, ikasle horri gurasoen etxetik kanpo bizi beharrak gastu handiak eragiten zizkion arren, horiek ez zeukaten eraginik Pertsona Fisikoen gaineko Errenta Zergan.

Zentzu berean 1994an beste gipuzkoar batek aurkeztu zuen kexa baten bidetik, erakunde honek lege aldaketa bat egitea gomendatu zuen: kenketak ikasketak planetan sartuta dauden ikasketa guztiei ezartzea, ikasturte osorako matrikula egin bada eta ikasturteak hiru hiruhilabeteko iraupena badauka, adibidez Arabako Lurralde Historikoaren Foru Arauak jasotzen duen gisara.

Orduan zehaztu eta orain berriro gogoratzen dugun bezala, ez genuen Foru Ogasunek bidegabeko jarduera bat burutzea eskatzen, baizik kenketa egiteko eskubiderako egon zitezkeen kasuak zabaltzea, gertuko exenpluei jarraituaz, eta beti etorkizuneko ekitaldiei begira.

Orain kexadunak bidalitako kexaz baliatuaz, eta orduan gomendioa egiteko zeuden arrazoiek indarrean dirautela ikusirik, Gipuzkoako Batzar Nagusiei PFEZren araudia alda zezatela gomendatzea komenigarria ikusi zen, aurrerantzean hezkuntza sistemako planetan sartutako ikasketa guztiei kenketak egiteko aukera eman diezaieten.

Gipuzkoako Ogasun eta Finantzatarako Foru Diputatuak aldaketa hori proposatuko zuela adierazi zuen eta, horrenbestez, 1996an aurkeztu behar den 1995eko errenta aitortzean goi mailako lanbide ikasketak eta goi mailako ikasketa artistikoak egiteagatik ere egin ahalko da kenketa.

*PFEZren aitortzean ondasun higiezinak baloratzeari buruz (670/95)*

Bizkaiko zergapeko batek PFEZrako ondasun higiezinak baloratzeko moduari buruz bidalitako kexa bat jaso zen erakunde honetan.

PFEZren 7/91 Foru Arauak 34.b) artikuluan xedatzen dituen ezarpen arauak eragin ditzaketen diskriminazio posibleengatik gehiagotan ere egon dira kexak.

Agindu horrek dioenez, alokatu gabeko higiezinaren kasuan, horiek errendimendu osotzat joko dira, Ondareari buruzko Zergaren ondorioetarako higiezin horiek konputatuta daukaten balioari %2ko kantitatea ezarriko zaiolarik. Eta Zerga horri dagokionez, hiru balio hauetako handiena ezartzen zaie higiezinei: katastrala, zergapekoak aitortua eta Administrazioak frogatua.

Horrela, ezaugarri berdin-berdinak dituzten bi higiezinak, zerga horretan ezarri beharreko errendimendua kalkulatzeko, balio oso ezberdinak eduki ditzakete, agian bati katastroko balioa ezarriko zaiolako, eta besteari salerosketako eskritura publikoetan aitortutako balioa.

Trataera desberdintasun horren zentzua ezin da ulertu, kontzeptu horrengatik gaineratzen zaion errendimendua berez fikzio legal bat dela kontuan izaten badugu.

Edonola, agindu hori aldatzeko gomendioa egitea komeni ote zen baloratu baino lehen, gaiari buruzko informazioa eskatu zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiari.

Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatuak bidalitako txostenaren bidez jakin dugu hemen ikusi den arazoa aztertzen ari direla, Bizkaiko Biltzar Nagusiei desoreka horiek desagerraraziko dituen araua zuzen dezaten proposatzeko.

Ondasun higiezinari gaineratzen zaion balioa ezartzeko portzentaia mailaketa litzateke aldaketak egin beharrekoa, mailaketa katastroko balioaren adina-koa edo hori baino handiagoa dena ezarriz. Horrela, Bizkaiko Biltzar Nagusiek onartu ala ez, PFEZren 7/91 Foru Arauaren 34. artikulua honela idatzita gerta liteke:

«Aurreko ataletan finkatu denaren galerarik gabe, aipatzen diren portzentaia ezartzerakoan aitortu beharrekoaren eta katastroko balioaren arteko erlazioaren aukera egin ahalko du sujetu pasiboak:

- Aitortzen den balioa katastroko balioa: 1	%2,00
- Aitortzen den balioa katastroko balioa: 1etik 1,5 bitartekoa	%1,90
- Aitortzen den balioa katastroko balioa: 1,5 eta 2 artekoa	%1,75
- Aitortzen den balioa katastroko balioa: 2tik 2,5 bitartekoa	%1,25
- Aitortzen den balioa katastroko balioa: 2,5etik 3 bitartekoa	%1,00
- Aitortzen den balioa katastroko balioa: 3tik 4 bitartekoa	%0,75
- Aitortzen den balioa katastroko balioa: 4 baino handiagoa	%0,50

Aldi berean, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Tributoen Zuzendaritza Nagusia diskriminazio hori mozteko neurriak aztertzen ari da, higiezinaren errendimenduak ateratzeko kontuan hartu beharreko erreferentzia bakarra 1996tik aurrera katastroko balioa izan dadin.



Kexa espedientean adierazitako disfuntzioak konpontzeko bidean zeudela irizita, espedientea artxibatu egin zen.

### 3.5.2.2. TOKI MAILAKO TRIBUTOAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

*Aldizka kobratzen diren zergen ordainketa zatikatzea (127/95)*

Erreklamazioa egin zuen gasteiztar baten esanetan, 1993ko eta 1994ko urteei zegokien Ondasun Higiezin Zergaren erreziboak normaltasunarekin kobratu zizkieten banketxearen bitartez; aldiz, 1991ko eta 1992koak 1995ean jakinarazi zizkieten, jaso eta egun gutxiko epean ordaindu behar izan zituelarik.

Erreziboen kantitateak ikusirik, 44.613 eta 45.476 pta. hurrenez hurren, ordainketa geroratzea eskatu zion Gasteizko Udalari, eta horrek %11 inguruko interesa ezarriko ziotela jakinarazi zion.

Interesatuak ez zeukan kobratu nahi zizkieten kantitateen kontrako ezer, baina atzerapenaren erruduna udala zenez, ez zitzaion bidezkoa iruditzen aipatu-tako interesa kargatzea.

Horretaz gainera, 1991ko kitapena Zergaren Erroldan alta eman ondorengo lehena zenez gero, eta zerga aldizka kobratzen dena izan arren, pertsonalki eta interesatuari bakarrik jakinarazi behar zitzaion.

Erakunde honek gomendio bat luzatu zuen: hots, aldizka kobratzen diren zergapeko sujetu pasiboek haien ordainketa helbideratuta daukatenean, eta udalari egotzi beharreko erruengatik kobratzen ez denean, inolako interesik ezarri gabe erreklamatzeko diren erreziboak hainbat hilabetetan kobraketa zatikatzea onar dadila.

*Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ezartzeko potentzia fiskalari buruz (1046/95)*

Bilboko Udalak jakinarazpen bat luzatu zion erreklamatzailerari, adieraziz Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarako aitortutako potentzia fiskala eta Zirkulazio Kodearen 260. artikulua ezartzen duenaren arabera kalkulaturakoa bat ez zetozelako zuzenketa egitera zihoazela.

Horrela, ikuskaritza teknikoaren txartelean aitortzen zen 12 zaldiko potentzia 12,42ra pasatzen zen eta, horrekin, udal zergan ezarri beharreko tarifa 12 zaldi baino gehiagokoa zen, kuotan horrek zekarren gehikuntzarekin.

Horri dagokionez, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ezar-penerako arauari buruzko abenduaren 22ko 1.576/1989 Erret Dekretuko 1. artikulua honela dio:

«...zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala Zirkulazio Kodearen 260. artikuluan xedatutakoaren arabera finkatuko da».

Eta Zirkulazio Kodeak, berriz, 260. artikuluan hau adierazten du:

«Industria Ministerioko probintzia ordezkartzen ibilgailuen ezaugarrietan motorraren potentzia fiskala, motor motaren arabera defektuz gutxi gora-behera bi dezimalen bidez adierazten dena izango da».

Beraz, garbi dago zaldi fiskalak dezimalez adierazi behar direla. Gertatu dena, ordea, hau izan da: 2.140/1985 Erret Dekretuak zioenez, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren txartelak betetzerakoan potentzia zaldi fiskaletan adierazi behar zela, dezimalak alde batera utziaz. Hau da, ibilgailuaren ezaugarri teknikoak txartelean jasotzerakoan dezimalak ez ziren jartzen.

Bi xedapenak elkarri kontrajarrita egin ez zitezkeen eta interpretazio okerrik egin ez zedin, 1995eko urtarrilaren 20ko Agindua onartu zen, 2.140/85 Erret Dekretua berridatzi eta Zirkulazio Kodera egokitzen duena.

Bilboko Udalaren jokoaren bidegabekeriarik ez zela egin ikusirik, espedientea artxibatu egin zen.

*Jarduerarik gabeko saltokiei zaborren tasa ezartzea (185/95/16)*

Itxita zeuden saltoki batzuen jabeek bidalitako kexa idatziak jaso ziren erakunde honetan. Gasteizko Udalak zabor bilketaren tasagatik bidalitako kitapenaren kontra azaltzen ziren idatzietan.

Kexagileek ziotenez, tasa ezarritako saltokiak itxita zeuden eta beraietan ez zen inolako jarduerarik burutzen.

Zentzu horretan, derrigorrez hartu beharreko zerbitzu baten aurrean gauden arren, ezarri zitzaieen tasaren udal ordenantzak bigarren atalean zioenarekin ados ez zeudela zioten interesatuek, atal hori merkataritzari oro har eta bulego lokalei zegokielarik.

Puntu honi dagokionez, aipatutako ordenantzak zazpigarren atalean aurrakusten du aurreko ataletan sartzen ez diren higiezinak «Ogasun eta Ondare Saileko Zinegotzi-Delegatuak emandako ebazpenaren bidez, antzekotasunagatik egokiena irizten denaren arabera ordainduko dute». Eta honela jarraitzen du: «desadostasuna dagoen kasuan, Ogasun Batzordeari alde aurretik txostena egin ondoren, Ogasuneko Gobernu Saileko Zinegotzi-Delegatuak ebatziko du».

Ikuspegi horren arabera, inolako jarduerarik burutzen ez duten lokalei orain arte ezartzen zitzaieen tarifa baino txikiagoa ezartzeko egokitasuna planteiatu beharko litzateke.

Gomendio horren ondorioz, Gasteizko Udalaren Ogasun eta Ondare Saileko zuzendariak erakundeari bidalitako idatzi baten bidez jakinarazi zigan aukera hori aztertzen ari zirela, eta har zitezkeen neurrien artean era horretako lokalei kuota txikiagoa ezartzea zegoela, beti ere jabeek lokalen jarduerarik eza frogatu beharko dutelarik.

Edonola, azken erabakia Udalbatzarrak hartu beharko du, ondoren ordenantza fiskalean jasoko delarik; aldaketa egiten den ekitaldian sartuko da indarrean.

Horrela, kexak eragindako arazoa konponbidean zegoela ikusirik, espedientea artxibatu egin zen.

*Etxebizitza bateko jabeari edateko ur horniketagatik prezio publikoak ordaintzeko esijitzea (833/95)*

Kexa honen aurkezlea Urduñako etxebizitza baten jabea zen eta etxea alokatuta eduki zuen, irailean emandako epai baten bidez maizterrak botatzea agindu zen arte.

Alokera kontratuak iraun zuen denboran maizterrek ordaindu gabe utzi zituzten, besteak beste, edateko ur hornidurari zegozkion hainbat erreziho.

Erreklamatzailerak zioenez, «Aguas del Norte» enpresak ez zuen kontratu berririk egin nahi jabeak atzeratutako errezihoak ordaintzen ez zituen bitartean.

Horren ildotik, adierazi behar da prezio publikoen izaera ez dela zerga sarreren berdina eta, beraz, ez dagokiela sujetu pasiboen erregulaziorako Zergetarako Foru Arau Orokorrean eta Herri Ogasunen Foru Arauan tasentzat aurrikusten den ezarpena. Horrela, prezio publikoak «ordaintzera beharturik» dauden bakarrak zerbitzua hartu dutenak edo jardueraz baliatu direnak dira, eta, beraz, ez dago beste sujetu arduradun, solidario edo subsidiariorik.

Aipatutako Udalari gomendio bat bidali zitzaion, esanaz kobraketa horrek ez zeukala inolako euskarri legalik, eta Alkateak azaroaren 29ko datarekin jabeari igorri zion idatzian esaten zitzaion «Aguas del Norte»ren bulegoetatik pasa zitekeela eskatutako alta formalizatzerara, eta ez zeukala atzeratutako errezihoak ordaindu beharrik.

Kexagaia konpondutzat jo ondoren, espedientea artxibatu egin genuen.

### **3.5.2.3. BESTE TRIBUTU BATZUK**

*Zerbitzu akademikoengatik ordaindutako prezio publikoak itzultzeari buruz (830/95)*

Hizkuntza Eskola Ofizialak tasa akademiko bat ez ziola itzuli nahi salatzen zuen Gasteizko biztanle baten kexa idatzia jaso zen erakundean.

Aurkezlearen arabera, euskara ikasteko eskola horretan matrikulatu nahirik, zegokion inprimakia hartu eta matrikula ordaina Gasteizko aurrezki kutxa batean horretarako zegoen kontuan sartu zuen.

Egun berean, osasun arrazoiengatik, matrikula ez osatzea erabaki eta ordaindutako dirua itzul ziezaiotela eskatu zuen.

Eskaria ez zitzaion onartu EAeko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoen 3/1990 Legeak 10. artikuluan ezartzen duenaren bidetik, zeinaren arabera sujetu pasiboari gaineratu ezin zaizkion arrazoiengatik egitate ezargarria burutzen ez denean bakarrik itzuliko baitira tasak.

Halere, sail horretako tasei buruzko aipaturiko Legeko IV. atalean jasotzen den 75. artikulura jotzen badugu, tasak «dagozkion zerbitzuak ematen diren momentuan» ordainduko dira; baina beste hau ere gehitzen du: «ordainketa eskaria egiten den unean aurrez ordaintzea ere esijitu ahalko da».

Zentzu horretan, erreklamatzailerak zerbitzu akademikoez ez baliatzeaz gain (izan ere hori ez litzateke nahikoa izango dirua itzultzeko), ez zen ezta matrikula osatzera ere iritsi.

Horregatik, erakunde honen iritiz, tasa sortu gabe zegoen eta ezin zen esijitu ere egin, eta zentzu horretan bidezkoa zen itzultzea.

Horrela, erakunde honetatik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egindako gomendioaren ondoren, ordaindutako dirua itzultzeko tramiteei ekin zitzaie, horretarako interesatuari Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan handik pasa zedila eskatu ziotelarik.

*Elbarritasunari dagozkion zerga-salbuespenak Zenbait Garraio Bitartekori buruzko Zerga Berezia (ZGBZB) ezartzerakoan (251/94)*

Matrikulazio-zerga izenez ezagunagoa den Zenbait Garraio Bitartekori buruzko Zerga Berezia ezartzerakoan elbarritasunari dagozkion zerga-salbuespenak aitortzeko izandako arazoengatik kexa espediente bat bideratu zen erakundean.

Kexagileak exentzio hori eskatu zuen %80ko elbarritasuna duen eta ibiltzeko gorpildun aulkia erabili behar izaten duen semea garraiatzeko ibilgailu monobolumen bat erosterakoan.

Ezetzko ebazpena jakinarazi zuenean, Bizkaiko Foru Ogasunak bere erabakia arrazoitzeko argudiatu zuen ez zegoela frogatuta jabeak bakarrik erabiliko zuela; antza denez, jabeak gidatzeko agiririk ez zeukalako iritsi ziren ondorio horretara.

Zerga hori arautzen duen 38/1992 Legean ez da, ordea, inon esijitzen baldintza hori, eta Arartekoaren ustez, gerta daitekeena da jabearentzat bakarrik izatea, nahiz eta horrek ez gidatu.

Zentzu horretan, erakunde honek Ogasun Sailari informazioa eskatu zion erabilera eskusibo hori frogatzeko interesatuak zer erakus zezakeen esan zezan. Merkataritzako Agenteez erosten dituzten automobileren BEZren kenketa egiteko aukerei buruz egindako kontsultan, Zergen Zuzendaritza Nagusiak Administrazioari gaineratzen zion sujetu pasiboak bere aitortpenetan egindako hutsegiteak zuzentzeko betekizuna.

Ogasun Zuzendariak hau erantzun zuen: «ez dago zergapekoak zein froga azaldu behar duen zehaztu beharrik, eta ibilgailuaren erabilera eskusiboa izango dela aitortzen duen aitaren agiria baino ez da behar».

Bizkaiko Foru Epaitegi Ekonomiko-Administratiboak 1995eko ekainaren 21ean eman eta uztailearen 14an interesatuari jakinarazi zitzaion ebazpenaren bidez, Gregorio del Rio jaunak egindako erreklamazioa onartu egin zen, Arartekoak erreferentzia txostenetan adierazitako argudio berberetan oinarrituaz.

Kexagaia konpondutzat jo ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

### 3.5.3. OFIZIOZKO JARDUERAK

*PFEZren aitorpenean kenketa bat egiteko baldintzei buruz (9/95/OF)*

Europako Elkarte Ekonomikoan hizkuntz ikasketa ofizialak egin eta PFEZn kenketak egiteko aukerari buruzko kontsulta batzuk egin zizkioten Arabako zergapeko batzuek erakunde honi.

Alegazio egileek ziotenez, kenketa hori sortu zuen otsailaren 28ko 1/1994 Foru Arauaren arabera kenketa egiterakoan, atzerrian gutxienez hilabete pasatu izanaren froga esijitzen zen, agiri ofiziala zegokion Espainiako Kontsulatuak eman behar zuelarik.

Alabaina, 1994ko ekitaldian kenketa egiteko aukera ematen duten ikasketak burutu zituzten pertsona gehienek, baldintza hori ezagutzen ez zutenez gero, ez zuten izena eman zegokien kontsulatuan. Orain, beraz, ikasketak burutu izanaren ziurtagiriak, eta janari, egonaldi eta bidai gastuenak eta fakturak eskuartean zeuzkaten arren, kontsulatuko ziurtagiri hori lortzea ia gutziz ezinezkoa zitzaien.

Horrela, eta urtarrilaren 25eko 136/1984 Erret Dekretuaren arabera, atzerrian hilabetetik gora pasatzen duen Espainiako hiritar orok, dagoen hirira iritsi eta hogeita hamar egunera dagokion kontsulatuan izena eman beharra daukan arren, kontsulatuaren ziurtagiria aurkeztu beharra malgutzea egokia dirudi. Horretarako, Foru Araua aldatu beharko litzateke, kenketa egiteko hilabete kanpoan egon izana frogatzearekin nahikoa izango litzatekeelarik.

Gomendioa zentzu horretan egin ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Sailak aldaketa onetsi egin zuen, alde zuzenetik Biltzar Nagusiak agindua onartu ondoren.

*PFEZ delakoa ordaintzeko aukera aldaketa (35/95/OF)*

PFEZ delakoa ordaintzeko egindako aukeraketan, urte berean aukera hori aldatzeko ezintasunari buruzko kexak jasotzen jarraitu dugu 1995eko ekitaldian.

Zergapekoek, zerga ordaintzeko araudia ezagutzen ez zutelako, zerga ordaintzeko modua adierazteko orduan, bakarka edo batera atalean «x» marka beraien kalterako zen laukian jarri zuten. Horren ondorioz, bestea aukeratu izan balute baino 100.000 pezeta inguru gehiago ordaindu behar izan zuten.

Horren ildotik, gure erakundeak gomendio hau luzatu zion Gipuzkoako Foru Ogasun Sailari: PFEZren Foru Arauak 88. artikuluan aldaketa galarazten duen arren, hutsegite horretan erori ziren zergapekoei errakuntza zuzentzen utz diezaietela.

Gomendio horri esker, Ogasun Saileko Zuzendari Nagusiak barne agindu bat eman zuen, aurrerantzeko kanpainetan ezar dadin. Aginduekin, arazo horiek eta sistema informatikoa erabiltzearen ondorioz aitortu gabeko errentekin sor zitezkeen arazoak konpontzea lortu nahi zen: horretarako, zergapekoak, ateratzen zaion kuota berriaren arabera hamar eguneko epea edukiko du, zerga ordaintzeko modua berresteko edo zuzentzeko.

Irizpide horrekin, erakunde honek bideratu dituen zenbait kexatan adierazten ziren bidegabeko egoerak sortzeko aukerak baztertzeko dira, eta zergak biltzen

dituen administrazioari objektibotasun eta eraginkortasun handiagoa ematen zaio, zergapekoen eskubideak bermatzearen.

### **3.6. HERRIZAINGOA**

#### **3.6.1. SARRERA**

Herrizaingoaren alorrean sartzen diren administrazio publiko ezberdinen jardueri dagozkien laurogeita bederatzi kexa aurkeztu dira 1995. urteko ekitaldiaren barruan. Ikuspegi kuantitatibotik, horrek esan nahi du %46ko igoera egon dela aurreko urtean erakunde honetan bideratu zen sail horri buruzko kexa kopuruarekin konparatuz. Gehikuntza kuantitatibo honek ez du, ordea, kontrolpean jarri beharreko jardueren izaera-aldaketarik ekarri, zeren eta, aurreko kasuetan bezala, gehienak trafikoaren antolaketarako arauak hausteagatik ezarritako zigorrei baitagozkie. Horrela, aurkeztu diren 89 kexetatik 69 administrazio jarduera horretan garatutako zigorren kontrakoak izan dira. Horien artean 48 Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingoaren Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzaren ardurapeko erakundeek bideratutako prozeduren kontrakoak izan dira, eta 21 Toki Administrazioetako erakundeek bideratutako prozeduren kontrakoak, zehazki Bilboko eta Gasteizko udalen kontrakoak.

Ordena publikoaren azpisailean sartu diren 12 kexetatik 10 Euskal Herriko Polizia Sailetakako funtzionarioen kontrakoak izan dira, sei Ertzaintzako kideen kontrakoak eta lau udaltzaingoetako polizien kontrakoak. Beste kexetan kasu desberdinak daude, eta horien artean hiru aipa daitezke, atzerriko hiritar batzuek udal erroldetan sartzeko izan zituzten eragozpenen ondorioz aurkeztutakoak.

Trafiko gaiekin zerikusia duten kexa asko aurkeztu direnez gero, eta administrazioak alor horretan edukitzen duen jokoerak hiritarren eragin handia eduki ohi duenez gero, Arartekoak gai honetan egindako jarduerak zehaztasun nahiko handiz aztertzea garrantzitsua da. 1994. urteko ekitaldiaren txostenean esanenez, prozedurazko aspektuak betetzen ez direlako jotzen dute hiritarrek Arartekora. Hain zuzen, hau zen azpimarratu genuena: gai honi dagokion zigor prozeduraren batean sartuta dauden hiritarrei espedienteetan emandako administrazio ebazpenen berri ediktu bidez jakinarazpena egiteko dagoen ohitura txarra. Hori ikusirik gomendio orokor bat egin zen, eta bertan adierazi genuen aurkitutako arazoaren jatorria Administrazio Publikoaren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.4 artikulua testuan eta horren ezarpenetako jurisprudentziako irizpide zehatzik ez egotean datzala.

Konstituzioaren 21.4 artikulua hausketaren ikuspegitik, Konstituzio Auzitegiak izan du aukera jurisdikziopeko jardueri dagokien ediktu bidezko jakinarazpenaren neurria eta mugak aztertzeko. Bestalde, Auzitegi Gorenak 1993ko urriaren 10ean emandako epaiaren arabera, Konstituzio Auzitegiak administrazioaren jakinarazpenei buruz azaldutako iritziekin funtsean bat dator. Tesi horiek

lehen aipatu dugun gomendio orokorrean egin ziren gogoetekin bat datoz punturik nagusienetan, eta gomendioa ezaguna denez gero, ez dugu berriz hemen jasoko.

Ediktu bidezko jakinarazpenen arazoak ez dira izan, ordea, hiritarren eta administrazioen praktiken arteko tirabira elementu bakarrak. Iazko urteko ekitaldian badira Arartekoaren bitartekaritza behin eta berriz eskatu duten beste bi gai ere: arau-hausteen iraungipenaren arazoa, eta arau-haustea gertatzen den unean araua hautsi duena identifikatzeko eta salaketa jakinarazteko ibilgailua ez gerazteagatik sortutako ondorioak.

Arau-hausteen iraungipena Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuak (martxoaren 2ko 339/1990 Erret Legegintza-Dekretu bidez onartua) 81.1 artikuluan eta otsailaren 25eko 320/1994 Erret Dekretuaren bidez onarturiko gaiari buruzko Zigor Prozeduren 18. artikuluan araututa dago. Horrela, bada, arau-hausteen iraungipenaren arauketak desadostasunak ekarri ditu bere ezarpenean, eragindako administrazioetakoren batek interpretazio irizpide ezberdinak erabili dituelako. Desadostasuna ia puntu bakar batera mugatzen da: arau-hausteen iraungipen epearen kontaketa eteteko jarduera gisa «jakinarazpena» ulertzeko modura. Arartekoaren arabera, kontuan izanik trafikoko gaietarako zigor erregimena antolamendu zehatzarekin sartzeko delakoa, bere aurrikuspenak modu murriztailean interpretatu behar dira. Horrenbestez, antolamendu juridikoaren arabera interesatuari adierazi nahi zaion administrazio ekintzaren berri emateko ekintza baino ez da gure ustez «jakinarazpena». Jakinarazpenaren data, eta hala behar izanez gero iraungipenerako kontuan eduki behar dena, adierazpena egiten den eguna edo data izango da. Administrazio erakunde batzuen ustez, ordea, jakinarazpena posta zerbitzuan sartzeko den eguna eta pertsonalki jakinarazpena egiteko ahalegin antzuak «jakinarazpenak» dira arau-hausteen iraungipenerako. Irizpide horrengatik, Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzak ez die jaramonik egin erakunde honen ustez arau-hausteen iraungipenak eraginda zegoen kasuetarako zuzendutako hainbat eta hainbat gomendiori.

Egia da gai honi buruz ez dagoela jurisprudentziarik interpretazio irizpide bateratuaz Bidezaingo Legearen Testu Artikulatuko 81.1 artikuluan jasotzen diren aurrikuspenen pisua ebatzi duenik.

Sortu den beste desadostasun puntu bat Bidezaingo Legearen Testu Artikulatuko 77. artikuluan eta Zigor Prozedurarako Arautegiaren (otsailaren 25eko 320/1994 Erret Dekretuaren bidez onartua) 10. artikuluan dauden aurrikuspenen pisuari dagokio. Gai horrek nolabaiteko garrantzia eduki zuen hiritarren belarrietara komunikabideen bitartez iritsi ondoren, Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenaren Administrazio Auzietarako Salak emandako ebazpenetan jasotzen ziren iritziek oihartzuna izan baitzuten. Ebazpen horiek auzi honi zegozkion: arau-haustea gertatu dela ikusten den unean, ibilgailua gerarazi eta salaketa jakinarazi ez izana, eta ondoren jabeari bidaltzen zaion salaketa agirian ibilgailua ez gerarazteko egon ziren arrazoi zehatz eta bereziak ez agertzea.

Trafikoko gaietarako Zigor Prozeduren Araudia onartu zen arte, trafikoa zaintzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen ziren agenteei arauak ezartzen dien bezala salaketa unean bertan jakinarazteko beharkizuna ez betetzearen ondorioak ez

zeuden behar bezala zehaztuta. Araudi horrek dio, ordea, unean bertan jakinarazten ez diren salaketak ondoren zehatz-mehatz justifikatzen ez badira, baliorik gabeak izango direla. Baliogabezia hori lehen aipatu diren Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenak emandako epaiek ere baietsi dute, aipatutako araudia indarrean sartu aurretik egindako arau-haustetan egon ziren jardueren izaera zela medio.

Hori bai, aztertzen ari garen gaiarekin lotutako arazoek bidetik, Arartekoaren esku jarritako arazo gehienak aipatu den Araudia indarrean sartu aurretik gertatutako arau-hausteei dagozkie eta, esan bezala, Araudi hori izan da salaketa horien baliogabezia zehaztu duena. Esan behar da, bestalde, Justizia Epaitegi Gorenen Administrazio Auzietarako Sala desberdinek ez dutela gai honi buruzko doktrina bateratu bat eraiki beraien epaien bidez, ez bederen aipatutako araua indarrean sartu aurretik gertatutako ekintza ez zilegien kasuan. Euskal Herriko Justizia Epaitegi Goreneko Administrazio-Auzietarako Salak eman dituen ebazpen ezberdinetan adierazitakoa, ordea, kontuan izatekoa da. Horren arabera, Zigor Erregimenerako Araudiak 10.2 artikuluan trafikoko gaitetarako adierazten duen baliogabezia, araudia indarrean sartu aurretik gertatutako arau-hausteei ere ezargarria da Euskal Herriko Epaitegi Gorenen iritziz, izan ere «...salatuari arau-haustea egin duen unean jakinarazpena egiteko agintaritzaren agenteek daukaten derrigortasuna, eta horrela egiten ez bada salaketan bertan horretarako egon diren arrazoiak azaldu beharra ez da eratortzen aipatutako Erret Dekretutik, lehen aipaturiko Legearen 77. artikulutik baizik (**Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunerako Legearen Testu Artikulatua**); araudi horrek ez betetzeak dituen ondorio juridikoak -bere baliogabezia- baino ez ditu jasotzen, eta hori prozedura mailako aspektu bat ez denez gero, eskatzailearen alde jokatu behar du, zigor mailako gaia delako» (E.95.04.12)

Tesi horiekin ez datoz bat eskudun diren administrazio guztiak, eta desadostasun horiengatik ez zaie jaramonik egin luzatutako gomendio ezberdinei. Gomendioak ez ditugu egin salaketa agirian ibilgailua ez gelditzeko egon ziren arrazoiak adierazten ez ziren kasuetan bakarrik, baina baita ez gerarazteko emandako arrazoiak «zehatzak eta bereziak» ez zirenean ere, «trafikokoaren premia» orokorrak ezin baitira hartu arrazoi zehatz eta bereziak bailiran.

Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioen jardueren kontrako kexen kasuan, aipagarria da ustez txarrak eragiteagatik aurkeztu direnen garrantzi txikia. Gure eskuetara iritsi eta aztertu diren kasuetan ez dugu funtsezko eskubideen kontrako praktikarik aurkitu.

Gai honi buruzko aipamena amaitu aurretik beste bat ere aipatu nahi dugu: administrazio publiko ezberdinek zigorrak ezartzeko daukaten ahalmenaren aurrean hiritarrek daukaten zenbait jokabide mota, ondorioz, batzuetan, arrazoirik gabeko kexak aurkezten baitituzte Arartekoaren aurrean. Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua 73.2 artikuluan ibilgailuen jabeek lankidetzarako ezartzen dien derrigortasuna sarritan ulertzen den moduz ari gara. Konstituzio Epaitegiak eta justizia erakunde orokorrek emandako ebazpenetan behin eta berriz ezarri da, arau-hauste bat gertatzen denean ibilgailua gidatzen zihoana jabea ez den kasuan horrek gidaria



identifikatu behar duela; beraz, betebehar horrek ez du inolako konstituzio eskubiderik hausten; halere, hiritar batzuek eskubide horretan oinarriturik kexa justifikatu nahi izaten dute. Lege izaera duen arau hori bete beharrak Konstituzioan jasotako eskubideak hausten dituela pentsatzeak askotan ekarri du zigor espedientea ireki behar zuen administrazioarekin kolaboratu nahi ez izatea. Administrazioak kasu horietan legearen barruan jokatu duenez gero, horregatik aurkeztu diren kexei ezin izan diegu erantzun.

Trafiko zigorrak ipintzeko dagoen araudiaren ezarpenarekin lotutako beste gai bati buruzko tartekaritza ere eskatzen diote hiritarrek Arartekoari: dagozkien jardueren jakinarazpenik ez dutela jaso adierazten dute, eta guk administrazio eskudunei informazioa eskatu eta jaso ondoren jakiten dugu jakinarazpenak bidali bai, baina interesatuek atzera bota izan dituztela.

Administrazioaren jakinarazpenak atzera botatzea hiritarren eskubidea bada ere, hiritarren eta administrazio publikoen arteko harremanetan behar den kolaboratzeko jarrera ez dagoela adierazten du horrek eta, bestetik, interesatuak defentsarako eduki ditzakeen aukeretan atzera botatze horrek eduki ditzakeen ondorioak ez direla ezagutzen; izan ere, hartzaileak edo bere ordezkioak igorketa atzera botatzen badu, jakinarazpena egin dela ulertuko da eta prozedurek dagozkien bidetik jarraituko dute.

Gure iritziz, administrazioek dagozkien lanak gara ditzaten hiritarren erantzun emankorra behar da, helburu amankomunak lortzeko kolaborazioa eskaini behar delarik.

Atzerritarrek udal erroldetan sartzeko izan dituzten arazoekin erlazionatutako kexa batzuk ere jaso dira joan den urtean. Askotan azaldu ez bada ere, gai horrek kezka handia sortu du erakunde honetan, udal erroldan sartuta egotea beharrezkoa baita prestazio eta gizarte laguntza batzuk jasotzeko. Udal erroldetan sartu nahi duten atzerritarrak gehienetan egoera ekonomiko eta pertsonal penagarrian bizi direla kontuan izaten badugu, interesatu horiek aipaturiko erroldan sartzeko jarraitu behar duten bideko trabak laxatzea komeni da, eginkizun horretan antolamenduko aurrikuspenak errespetatuz, baina eskuzabaltasunez eta elkartasun izpirituaz jokatuz. Arartekoak, eragozpen horiek kontuan izanik, gomendio orokor bat egin zuen 1993. urtean, legeen arabera atzerritarrak udal erroldetan sartzeko aukera ematen zuten egoerak azalduz. Gomendio horren edukia kontuan izanez eta eragindako udalen lankidetzarekin konpondu dira gure eskuetara iritsi diren arazoak.

Azkenik, Herrizaingo alorrean burututako ofiziozko jardueren nondik norakoa azalduko dugu. Jarduera hori, alde batetik, Ertzaintzaren funtzionarioen jardueren ikerketara bideratu da, jarduera horiek izan duten berezitasunagatik komunikabideetan nolabaiteko eragina izan dutelarik. Arrazoi horiengatik irekitako espediente guztiak bertan behera utzi behar izan ditu Arartekoak, ikergai ziren jarduera guztiak justiziaren ardurapean jarri zirelako. Baina gure arreta berezia beste gai batzuei ere zuzendu diegu. Atzerritarren egoera eta administrazio publikoek onartutako laguntza programen onurak jasotzeko dituzten arazoak ere ikergai izan ditugu, eskatzen zitzaizkien zenbait baldintza diskriminatorioak izan zitezkeelako.

Jarraian aukeratutako kexa batzuen laburpena eskaintzen dugu, aztergai izan dituzten gaiengatik azpimarragarriak baitira.

## 3.6.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK

### 3.6.2.1. BIDEZAINGOA

*Trafiko arau erregulatzaila hausteagatik ezarritako zigor prozedura batean jakinarazpena ediktu bidez egin izanari buruz (661/94)*

Bilboko biztanle batek kexa aurkeztu zuen Ararteko erakundearen Bilboko Udalarekiko zerga bilketa betearazleko zerbitzuek isuna ordain ezan premiamendu bidezko prozedura ireki ziotelako. Isuna, antza denez, trafiko arau erregulatzaila bat hausteagatik ezarri zitzaion; interesatuak, ordea, ez zuen espediente horren berririk izan, ez ziotelako ez salaketarik ez zigor ebazpenik bidali.

Arartekoak hala eskatuta Bilboko Udalak bidali zuen txostenean esaten zenez, honela gertatu ziren gauzak: 1993ko abuztuaren 24an trafiko arau erregulatzailaren arau-hauste bat gertatu zen ibilgailu bat autobusek eta taxiak bakarrik erabil dezaketen karrilean aparkatu zelako. Irailaren 10ean egin zen interesatuari pertsonalki jakinarazpena emateko lehen saioa, baina pertsona hori etxetik kanpo zegoenez gero, ez zen lortu. Hilabete bereko 23an egin zen jakinarazpenerako bigarren saioa, baina egun horretan ere ez zen lortu. Egun berean, irailaren 23an, alegia, Bizkaiko Jaurerriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen salaketa. Azaroaren 9an, eta tartean jakinarazpena egiteko beste saiorik gabe, aldizkari ofizial horretan argitaratu zen zigorraren ebazpena. Ondoren isuna kobratzeko bide judizialari ekin zitzaion.

Bilboko Udalari bidalitako gomendioan jakinarazi zitzaion bezala, garbi dago azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Administrazio Publikoen eta Prozedura Administrazioaren Erregimen Juridikorako Legea) 59.4 artikuluan aurrikusia ez zela bete, jakinarazpenerako ediktuzko bidea aipatutako legearen eta Konstituzio Auzitegiak emandako jurisprudentzian finkatutako baldintzak errespetatu gabe egin zelako. Bilboko Udalari gogorarazi zitzaion bere jokoak ez zuela errespetatu Konstituzioak 24.1 artikuluan aitortzen duen eskubidea, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz aitortu duenez ediktu bidezko jakinarazpena ezin delako zuzenean gauzatu. Aldez aurretik pertsonalki jakinarazpena egiteko dauden bideak agortu behar dira, bere eraginkortasuna mugatua dela kontuan izanik (51/1994 Konstituzio Auzitegiaren Epaia); horregatik, ediktu bidezko jakinarazpena ordezko aukera izango da, hau da, interesatuari jakinarazpena egiteko dagoen azken irtenbidea.

Isuna pertsonalki jakinarazteko saio bakar bat egin zen eta zigorraren ebazpena jakinarazteko bat ere ez; hori ez da nahikoa administrazio ekintza horiek ediktu bidez jakinarazteko. Horren ondorioz, zigor espedientea eta premiamendu bidezko espedientearen ondorioz hartutako erabakiak indarrrik gabe uztea gomendatu zen.

Bilboko Udalak gomendia onartu eta aipatutako administrazio akordioak atzera bota zituen. Beste tramiterik gabe, ondoren, espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

*Trafiko arau erregulatzailleak hausteagatik irekitako zigor prozeduraren bideraketan egondako arazoei buruz (111/95)*

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzako organo eskudunek abiada handiegian gidatzeagatik ezarritako isuna bideratzeko modua salatzen zuen kexa bat aurkeztu zuen hiritar batek erakunde honetan. Hauek ziren kexaren arrazoi nagusiak: lehenik, arau-hausteaz ohartu ziren agenteek ez zutela ibilgailua gerarazi arau-hauslea identifikatzeko eta salaketa jakinarazteko; bestetik, arau-haustea iraungita edo epea gaudituta zegoen; eta azkenik, zigorraren kontra ezarri zuen gorajotzea bere aurka ebazteko bi urte eta bost hilabetez luzatu zela.

Ararteko erakundeak eskatuta Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzak eskuratu zigun informazioaren arabera ondorengoa zen gertatu zena: 1992ko maiatzaren 5ean zinemometro egindako neurketen bidez trafiko arau erregulatzailen arau-hauste bat ikusi zen, autoa abiadura handiegian zihoi-lako. Ez zen autoa gerarazi arau-hauslea identifikatu eta salaketa jakinarazteko. Handik egun batzuetara, 1992ko ekainaren 1ean, bere jabearen etxean buletin bat jaso zen, bertan arau-haustea gertatu zen unean jakinarazpena ez egiteko egon ziren arrazoi bereziak eta zehatzak adierazten ez zirelarik. Bost egun beranduago, ekainaren 6an, ibilgailuaren jabeak errugabete-orri bat aurkeztu zuen, bereziki arau-haustea gertatu zen unean salaketaren jakinarazpenik ez zitzaiola egin alegatzen zuelarik. Zigor espedientean badago 1992ko uztailaren 1eko data duen ofizio baten kopia bat; ofizioa bidezaingoko lurralde arduradun batek Bidezaingoko Ertzaintzaren Baseko Zuzendaritzari zuzentzen dio, arau-haustea gertatu zen uneko ibilgailuaren argakia eskatzeko. Interesatuak bere aldetik aitoritzen du, 1992ko uztailaren 2an Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzaren sail eskudunak jakinarazpen bat bidali ziola, zeinetan adierazten baitzitzaion bere alegazioen idatzia salaketa egin zuen agenteari bidali zitzaiola zegoen txostena egin zezan. Espedientean ez dira ageri ez argakia ez eta salaketa egin zuen agentearen txostena ere. Urte bereko irailaren 22an zigor ebazpena eman zen, interesatuari 20.000 pezetako isuna ezarri ziona. Jakinarazpen hori 1992ko irailaren 23an eskuratu zitzaion hiritarrari, eta honek urriaren 19an aurkeztu zuen gorajotzea. Gorajotzea tramitera onartu zen, epez kanpo aurkeztuta egon arren, eta 1995eko otsailaren 3ko Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendariaren erabakiz gorajotzea ezetsi egin zen.

Aurrekariak kontuan izanda, Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzari eskatu zitzaion atzera bota zitzala zigor ebazpena eta horren kontra aurkeztutako gorajotzeari emandako ezezko erantzuna, eta horretarako ondorengo arrazoiak eman ziren. Lehenik eta behin, arau-haustea gertatu zen unean salaketa jakinarazi ez zelako eta salaketaren agirian arrazoiak zehazki azaldu ez zirelako Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuak (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzaldiko Erret Dekretu bidez onartua) 77. artikuluan aurrikusitakoa hautsiaz. Betebehar horren ondorioak otsailaren 25eko 320/1994 Erret Dekretuaren bidez onarturiko zigor erregimenerako Araudiaren 10.2 artikuluari esker agitu dira, jakinarazpena arau-haustea

gertatzen den unean egin ezean, salaketak indarrrik ez duela adierazten baitu. Euskal Herriko Justizia Epaitegi Goreneko Administrazio Auzietarako Salak ere horrela ulertu du, besteak beste 1995eko apirilaren 12an emandako epaiaren bidez; aipatutako araudia indarrean sartu aurretik gertatutako egitateak aztertzen ziren bertan.

Bestalde, erabakia atzera botatzeko beste arrazoi hau ere ematen zen: arau-haustea epez kanpo zegoen, interesatuak agiriren bat jaso zuen egunaren (1992ko uztailak 2) eta zigor ebazpena eman eta jakinarazten den bitartean (hurrenez hurren irailak 22 eta 23), aipaturiko Bidezaingoari buruzko Legearen Testu Artikulatuak 81.1 artikuluan aurrakusten duen bi hilabeteko epea gaindituta zegoelako. Une hartan indarrean sartu gabe zeuden Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta lehen aipaturiko zigor prozedurei buruzko Araudia.

Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendariak ez du onartu egindako gomendioa ez eta gurearekin ados zetorren Herri Defendatzaileak adierazitako iritzia ere, interesatuak bi erakundeen aurrean aurkeztu baitzuen bere kexa.

*Trafiko arau erregulatzaileen arau-hauste bat gertatu zen unean ibilgailua geraraztea galarazi zuten arrazoiak salaketa agirian adierazi ez izana (139/95)*

Gasteiztar batek Arartekora jo zuen kexa batekin, Gasteizko Udalak trafiko arau erregulatzaile bat hausteagatik ireki zion zigor espedientea bideratu eta ezarri zioten isunari buruzko erakunde honen iritzia eskatuz.

Hiritarrak eskuratu zigan informazioaren eta Gasteizko Udaleko zerbitzu eskudunek igorritakoaren arabera, hau gertatu zen: 1995eko urtarrilaren 11n Udaltzaingoko funtzionario batzuek trafiko arau erregulatzaileen hauste bat ikusi zuten, behar bezala seinalatutako leku batean pasoa ez emateagatik, jendea harra-patzeko arriskuarekin. Udaltzainek, espedientean jasota dagoen txosten batean adierazten den bezala, ez zuten ibilgailua gerarazi arau-hauslea identifikatzeko eta salaketa jakinarazteko, une haietan trafiko handia zegoelako. Aurrerago ibilgailuaren jabeari etxera bidali zioten agirian ez ziren zehazten ibilgailua une hartan bertan ez gerarazteko egon ziren arrazoi bereziak eta zehatzak. Auziarekin zerikusia zeukaten beste alegazio batzuekin batera, interesatuak errugabetze-orrian jakinarazpenik ezaren gaia aipatzen zuen arren, Gasteizko Udalak ebazpen arrazoitu bidez isuna ezarri zion.

Garbi dago udal administrazioaren jokabideak hautsi egin zituela Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuak 77. artikuluan jasotako aurrikuspenak (aipatutako testua martxoaren 2ko 339/1990 Erret Legegintza Dekretu bidez onartu zen eta otsailaren 25eko 320/1994 Erret Dekretu bidez onartutako zigor prozedurarako Araudiko 10.2 artikulua bitartez garatu). Aipatu diren aurrikuspenek garbi uzten dute trafikoa erregulatzeaz arduratzen diren agenteek arau-hauste bat gertatzen den une berean egin behar diotela jakinarazpena hausleari. Horrela egiten ez bada, ondoren bidaltzen den agirian argi eta garbi adierazi beharko da jakinarazpena unean bertan gitea zerk eragotzi zuen. Bi pauso horietako bat betetzen ez bada,

jakinazpenak ez dauka baliorik eta, ondorioz, ezta ondoren irekitzen den espedienteak ere. Ondorio horretara iritsi zen ezinbestean Euskal Herriko Justizia Epaitegi Goreneko Administrazio Auzietarako Sala, besteak beste 1995eko apirilaren 12ko datarekin emandako epaian. Epaitutako egitateak bazuen kasu honetan berezitasun bat: zigor prozeduraren araudia indarrean sartu aurretik gertatua zen, esan den bezala 10.2 artikuluan esaten baita horrela jakinarazitako salaketek ez daukatela baliorik.

Eta hori izan zen Gasteizko Udalari emandako gomendioan adierazi zitzaiona, ezarritako zigorra indargabetzea eskatzen zitzaiolarik. Udalak gomendia onartu, zigorra kentzea erabaki eta interesatuari isunaren dirua itzuli zion.

*Trafiko arau erregulatuak hausteagatik bideratutako prozeduretan emandako erabaki eta ebazpenen jakinarazpena enpresa pribatuek egitea legezkoa ote den (931/95)*

Hiritar batek Arartekora jo zuen bertoko zerbitzu juridikoei gai hau ebatz ezazten eskatuz: trafiko arau erregulatuak hausteagatik bideratzen diren prozeduretan erakunde eskudunek emandako akordio eta ebazpenen jakinarazpena enpresa pribatuek egitea legezkoa ote den. Bilboko Udalak azaldutako sistemaren bidez funtzionatzen duelako aurkezten zen gai hau.

Interesatuari jakinarazi zitzaion Arartekoa ez dela izaera kontsultiboa duen erakundea, eta beraz hiritarrek ezin dutela bertara jo edozein eratako kontsultak egitera; halere, planteiatutako gaia administrazio publikoen jarduerekin estuki lotuta zegoenez gero, eta horiek Arartekoaren kontrolpean jar daitezkeenez gero, erakunde honek gaia aztertzeari ekin zion.

Hauek izan ziren ateratako ondorioak:

Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorren Erregimen Juridikorako 30/1992 Legeak 59.1 artikuluan jasotzen dituen aurrikuspenen arabera, administrazio erakundeek jakinarazpenak egiteko edozein bitarteko erabil dezakete, baldin eta interesatuak edo bere ordezkioak jaso dutela eta jakinarazpen ekintzaren eguna, nortasuna eta edukia garbi adierazita uzten badira. Honela, aukera ezberdin ugari erabil daitezke, aipatutako aginduan ezarritako baldintzak errespetatzen badira. Horrenbestez, aipatutako prozeduretan jakinarazpenak enpresa pribatu baten bidez egitea ezin da esan antolamendu juridikoan jasota dagoenaren kontra doanik.

Ondorio hori indartzera dator apirilaren 24ko 1.005/1974 Dekretuko 3.c artikulua, zeinaren arabera arautzen baitira asistentzia kontratuak. Eta gure ustez artikulua horretan arautzen denak indarrean jarraitzen du xedapen indargabetzaile bakarraren arabera; izan ere, hor espreski jasota dago Administrazio Publikoen kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legeko 1.d) atalak jakinarazpenak materialki burutzeko kontratuak egiteko aukera.

Halere, jakinarazpenak enpresa pribatuen bidez egiten badira arazoak sor daitezke, egiten dituztenek funtzionario publiko izaerarik ez daukatelako eta, ondorioz, horien jarduerak egiazkotzat hartzerik ez dagoelako. Hori dela medio, arazoak sor daitezke, adibidez igorpenak atzera bota direla frogatzerakoan.

### 3.6.2.2. ORDENA PUBLIKOA

*Hiritar batek Udaltzaingoko funtzionario batekin istilu bat izan ondoren Udalari informazio jakin batzuk eskatu eta horrek erantzunik ez ematea (771/95)*

Hiritar batek Arartekora jo zuen Getxoko Udalari eskari batzuk luzatu eta erantzun ez izana azter zezan. Aipatutako Udalari informazio jakin bat eta Udaltzaingoko agente baten kontrako diziplina neurriak har zitzala eskatu zion interesatuak idatzi baten bidez; udaltzain horrekin istilua izan zuen.

Udalari eskari hori egiteko arrazioen oinarrian ondorengo gertaerak zeuden. Egun batean, trafiko arau erregulatzailen hauste bategatik salaketa lanak egiten ari zen Getxoko Udaltzaingoko agente batek hirugarren pertsona bati gruari zegozkion tasak ordain zitzala nola eskatzen zion ikusi zuen interesatuak. Egoera ezohikoa zela iritzi eta agentearengana eta hirugarren pertsonarengana hurbildu zen eta azken honi esan zion bere ustez ez zuela eskatzen zitzaion kantitatea ordaindu behar, eta hori bi arrazoiengatik: alde batetik, ibilgailuak trafikoa oztopatzen ez zuelako eta, bestetik, gruak artean ibilgailua lotu gabe zeukalako. Agenteak hori ikusi zuenean agiriak eskatu zizkion interesatuari identifika zedin. Interesatuak, bere aldetik, agiri profesionala eskatu zion agenteari, baina funtzionarioak eskaria betetzeari uko egin zion. Orain kexa aurkezten zuenak, hasieran identifikatua izateari uko egin bazion ere, azkenik agiria erakutsi zion agenteari.

Funtzionarioaren jokabidearen ondorioz, interesatuak idatzi bat zuzendu zion Getxoko Alkateari 1994ko maiatzaren 24ko datarekin; bertan gertatua eta bereziki identifikaziorako izandako gora-beherak azaltzen zituen, esanez nortasun agiria han bertan azaldu zuela bere burua identifikatzeko poliziaren egoitzara eraman ez zezaten. Interesatuak puntu hauei buruzko informazioa eskatu zuen: 1) Istiluan berarekin parte hartu zuen pertsona Udaltzaingoa funtzionarioa zen ala ez, eta 2) funtzionarioa izanez gero, agente horrek delitu edo hutsegiteren bategatik akusatzen zuen ala ez. Era berean, gertatutako istiluaren ondorioz Udalak bere datu pertsonalak jasotzen zituen txostenen bat edukiz gero, suntsi zezala; eta, azkenik, gertatutakoaren larritasunagatik funtzionarioaren kontrako neurriak har zitzala eta eskari horien ondorioz burutuko ziren jardueren berri eman ziezaiola. Getxoko Udalak 1995eko irailaren 11n interesatuaren eskariei erantzun gabe jarraitzen zuen.

Kexa jaso ondoren aipatutako udalari informazioa eskatu genion, eta horrek Alkatearen idatzi baten bidez justifikatu egiten zuen erantzunik eza, Udaltzaingoko arduradun batek sinatutako agiri batean oinarriturik. Ematen ziren arrazoiak hauek ziren: lehenik, aurkeztutako idatzi hori gora-behera batzuk azaltzen zituen kexatzat (sic) jo zutela, eta eskarien balorazio zehatzarekin amaitzeko baieztatzen du funtzionarioaren kontrako neurriak hartzeko eskariari ez zaiola erantzuten, kasu horietan hiritarren eskubideak agintaritzari gertakizunen berri ematearekin amaitzen omen direlako.

Gaia osorik aztertu eta gero, kontutan hartu beharreko ohar hauek egin genizkion Getxoko Udalari. Lehenik, idatziari erantzunik ez emateak Administrazio

Publikoen eta Administrazio Prozedura Amankomunen Erregimen Juridikorako azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 42. artikuluan xedatutakoa nabarmenki hausten zuela, aurkezten den eskari edo idatzi orori erantzun beharra ezartzen duelako.

Kexa aurkezleak egindako eskari zehatzei dagokienez, interesatuak eskatu ondoren polizia funtzionarioak bere izaera hori frogatu nahi ez izateak Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak 30.3 artikuluan ezartzen duen betebeharra haustea dakar. Funtzionarioak interesatuari bere burua identifikatzeko eskatu izanari buruz, berriz, esan behar da arau-hauste penalak edo administratiboak ikertzeko edo horrelakoei aurre egiteko ez zenez gero -eta hala zela frogatu zen kasu honetan-, eskari horrek Hiritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak 20.1 artikuluan finkatutakoa hausten zuela. Gertakariaren ondorioz Udalaren eskuetan egon zitezkeen datuei dagokienez, aldiz, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua Arautzeko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoak ematen dituen aginduen edukia gogorarazten zen. Azkenik, polizia funtzionarioaren kontrako diziplina neurriak hartzeko eskariari ez erantzuteari dagokionez, erakunde honen ustez isiltasun hori legez kontrakoa zen, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplina Erregimenerako Araudiak (maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretu bidez onartuak) 30.2 artikulua agintzen duenaren arabera.

Azaldu ditugun argudioengatik Getxoko Udalari gomendatu egin zitzaion hiritarraren eskariari berehala eman ziezaiola erantzun formala, erantzun horrek aipatutako argudioetan azaldutako gogoetak kontuan eduki behar zituelarik.

Getxoko Udalak gomendioa onartu eta eskatutako erantzunak eman zizkion interesatuari. Ondorioz, espedientea itxi eta artxibatu egin zen, baina aurretik udal horri gogorarazi zitzaion hiritarren eskariei ez erantzuteak, antolamendu juridikoaren arau-hauste nabarmena izateaz gain, hiritarrek gizarte demokratikoan betetzen duten lekua ez ezagutzea esan nahi duela.

### **3.6.2.3. BESTE KEXA BATZUK**

*Atzerritarrak udal erroldan sartzeaz (106/95)*

Errefuxiatuen laguntzarako gobernuz kanpoko erakunde batek Arartekora jo zuen, errefuxiatu izaera onartzeko administrazioaren eta justiziaren ebazpenaren zain zegoen atzerritar talde baten egoera azter zezan. Arazoa hau zen: Arartekoaren gomendioari jarraituz -1994ko txostenean jasota dago-, Galdakaoko Udalak udal erroldan sartu zituen hiritar horiek, 1993an atzerritarrak udal erroldetan sartzeko emandako gomendio orokorraren bidetik. Alkatezak, ordea, 1994ko ekainaren 4an sarrera hori onartzeko ezarri zuen Dekretuan, alta hartzeko muga bezala 1995eko ekaina finkatu zuen. Denbora muga hori gertu zegoelako, eta administrazio erakundeek eta justizia epaitegiek zegozkien ebazpenak muga hori baino lehenago emango ez zituztelako, kaltetuek erakunde honen bitartekaritza eskatu zuten udal erroldan automatikoki baja eman ez ziezaieten,

administrazioaren jarduera horrek, besteak beste laguntza eta gizarte zerbitzurik gabe utziko zituelako.

Galdakaoko Udalak Arartekoaren informazio eskariari emandako erantzunaren arabera, denbora muga hori ezarri zen, hain zuzen ere, urtebeteko epean eragindakoen egoera partikularrak argituko zituzten administrazio erakundeen eta justizia epaitegien ebazpenak emango zirela pentsatu zelako.

Eragindako administrazioak eman zuen erantzuna ikusirik, Arartekoak Dekretua aldatzea gomendatu zuen, erroldan alta emateko eperik ez zezatela ezarri eskatuaz, lehenago esan den bezala, epe horretan prozedurak ebatzi gabe egon zitezkeelako. Erroldan alta edo baja ematea eragindako pertsonetako bakoitzaren egoera aldaketaren baitan uztea komeni zen, egoera aldaketa hori ebatzi gabe zeuden prozeduretan administrazioaren eta justiziaren aldetik egongo ziren akordioek erabakiko zutelako.

Galdakaoko Udalak gomendioa onartu eta baldintza bat jarri zuen: eragindakoek beraien egoera pertsonalean eduki zitzaketen aldaketen berri puntualki udalari eman ziezaiotela, erabaki horiek erroldan altan jarraritzea baldintza zezaketelako.

Udalaren erantzuna bidezkoa eta zentzuzkoa zela ikusirik, eta kexa aurkeztu zuen gobernuz kanpoko erakundearekin harremanetarako konta zezaketela adierazi ondoren espedientea itxi egin zen.

*Ustez administrazio arau-haustea egin zuen hiritar baten kontra partikular batek aurkeztutako salaketari Udalak erantzunik eman ez izana (609/95)*

Hiritar batek erakunde honen zerbitzuetara jo zuen kexa hau aurkezteko: Basauriko Udalak ez zion erantzun bere ustez administrazio arau-hauste bat egin zuen beste hiritar baten kontra ezarritako salaketaren bideraketan emandako pausoei buruz.

Hiritar horrek 1994ko irailaren 28an udal horretako zerbitzuetan salatu zuen pertsona batek zaborrak bota zituela bide publikora, gaiari buruz zeuden udal ordenantzetan jasotako aginduak hautsiaz.

Zegokion udal administrazioari informazioa eskatu ondoren, salaketa bideratu zela eta salatzaileak emandako datuen arabera administrazio araua hautsi zuen pertsonari espedientea ireki zitzaiola esan zitzaigun.

Prozedura bideratu eta salatutako ekintzari eta ustezko arau-haustearen egileari buruzko proba fede-emailerik ez zegoenez gero, inolako ardura administratiborik aitortu gabe espedientea largatea erabaki zen.

Salatzaileari, ordea, ez zitzaion udal administrazioak eragindako jardueri buruzko ezer jakinarazi.

Arartekoak, Udalak zigor espedientea bideratu zuen modua epaitzen sartu gabe, abuztuaren 4ko 1.398/1993 Erret Dekretu bidez onartutako Zigortzeko Ahalmenaren Egikaritzarako Araudiak 11.2 artikuluan agintzen duena hautsi zuela iritzi zuen, artikulua horren arabera udal administrazioek nahitaez jakinarazi behar baitiete salaketa aurkezleei prozedurari ekin zaion ala ez. Udalari horrela jakinarazi



zitzaion, eta ireki zen zigor espedientea edozein unetan zegoela ere, egindakoaren berri interesatuari jakinaraz ziezaiola gomendatu zitzaion.

Udalak gomendioa onartu eta erreklamatzaileri hartuta zeukan erabakia jakinarazi zion. Erakunde honek, berriz, espedientea itxi eta artxibatu egin zuen besterik gabe.

### 3.6.3. OFIZIOZKO JARDUERAK

*Bidasoako Ospitalea seinalizatzeko premiaz (2/95/OF)*

Ofizios kexa espediente bat ireki zen Mendeluko bidegurutzean -Hondarri-bitik Irunerako Gi/4361 errepidean- Bidasoako Ospitalean dagoen Tanatorioa adierazten duen seinale bat dagoelako; aldiz, ospitalea eta larrialdietarako zerbitzua bera ere ez zeuden behar bezala adierazita.

Ospitalea eta bertako larrialdietarako zerbitzuaren garrantzia gutxienez Tanatorioaren parekoa zela irizita, bidearen jabea eta, beraz, instalazioen eta errepide seinaleak behar bezala edukitzeko ardura zeukan Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Azpiegituretarako Sailari seinale bat ipintzeko eskatu zitzaion, ospitalerako eta larrialdietarako zerbitzuetarako bidea adierazteko. Eskaria egiteko martxoaren 2ko 339/1990 Erret Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuak 57.1 artikuluan xedatzen duena hartu zen kontuan.

Guk emandako gomendioari Foru Aldundiak eman zion erantzunaren arabera, errepideen zuzendaritzak ez ditu jartzen zerbitzuak adierazten dituen seinaleak, interesatuak dira Aldundiari baimena eskatu eta horrek eman ondoren seinaleak jartzen dituztenak. Arartekoak, antolamendu juridikoaren arabera zeregin hori errepideen jabeen zeregina denez gero, gomendioa bete zezala eskatu zion Administrazioari, baina txosten hau idazten den egunean erantzunik jaso gabe jarraitzen dugu.

*TAOren bidez araututako zonetan aparkatzeko behar diren buletinak lortzeko prozedura hobetzeko premiaz (17/95/OF)*

TAOren bidez araututako aparkaleku zonak erabiltzeko behar diren txartelak salmenta puntu jakin batzuetan eta, beraz, ordutegi zehatzetan bakarrik eros daitezkeenez gero, halako ordu batzuetan egoten diren eragozpenengatik ofiziosko kexa espedientea ireki zen. Honen helburua hau zen: Gasteizko udal arduradunek txartelak emateko makina automatizatuak ezartzeko aukera balora zezatela, Euskal Herriko beste hiri batzuetan erabiltzen den sistemaren ildotik.

Egin zitzaion informazio eskariari erantzunez, Gasteizko Udalak erantzun zuen txartelak emateko makina automatizatuak jartzeko gastuari ezin ziola aurre egin; zerbitzu hori, berriz, enpresa pribatuen bidez eskaintzen bazen, ustiaketa baldintzak ez zirela onargarriak gertatzen. Horregatik erabaki dute TAO zonetako

estanko, hotel eta dendetan saltzea txartelak. Udalaren esanetan, sistema horren bidez, kontuan izanik aipatu diren zerbitzu batzuek ordutegi jarraitua daukatela, txartelak erosteko arazorik ez dago zertan sorturik.

Gaia aztertzeaz dago.

*Ertzaintzaren zerbitzuek hiritar bati emandako tratuan ustez egondako irregulartasunaz (5/95/OF)*

Ofizios kexa espediente bat ireki zen, emakume bati ustez tratu desegokia eman ziotelako (guregana iritsitako informazioen arabera) Ertzaintzaren Komisaldegia batera bere senarraren atxilotetarekin erlazionatutako eginbideen egoera ezagutzera joan zenean.

Arazoa, antza denez, salaketa bat aurkezterakoan sortu zen, pertsona interesatua ia itsua zenez eta salaketaren edukia irakurri ez zitzaionez gero, erabat defentsarik gabe aurkitu zelako.

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak eskuratu zigun informazioaren arabera, gauzak hasieran eman zitzaigun bertsioan adierazitakoaren guztiz bestela gertatu ziren, eta polizia funtzionarioek zuzentasun osoz jokatu zutela ikusi genuen. Horrekin batera, eginbideak irekitzeko egon zen legez-kontrakotasunak izaera publikoa zeukanez gero, eta, beraz, ofizios persegitu zitekeena, beste tramiterik gabe espediente itxi eta artxibatu egin zen.

*Jose Ignazio Zabala eta Jose Antonio Lasaren gorpuen ehorzketan gertatu ziren gora-beheri buruzko ikerketa (11/95/OF)*

Jose Ignazio Zabalaren eta Jose Antonio Lasaren gorpuei Tolosan lurra emateko egunean gertatu ziren gora-beherak ikusi ondoren, Arartekoak ofiziozko jarduera irekitzea erabaki zuen.

Horretarako, ETBri gertaeren grabazioak eskatu zizkion, eta Herrizaingo Sailari gertaerei buruzko bertsioa eta horien balorazioa.

Ikerketa hau ireki zela jakinarazi zitzaizen familiartekoei, eta haien azalpenak baliagarriak izan zitezkeelakoan haien borondatezko kolaborazioa eskatu zen.

Jose Antonio Lasaren eta Jose Ignazio Zabalaren familiartekoei bidali ziguten idatzian, gertatuaren ardura Ertzaintzari leporatzen zioten, eta horregatik salaketa aurkeztu zuten Tolosako Epaitegian.

Idatzi horretan bertan Arartekoari eskatzen zioten Eusko Legebiltzarreko Presidenteari, Mahaiari eta talde guztiei helaraz ziezaiola beraien egonezina Erakunde eta Herrizaingo Batzordean beraiei entzun nahi izan ez ziotelako.

Eskari hori beteaz, Ararteko honek protesta Parlamentuko Presidenteari helarazi zion, Mahaiari eta taldeei igor ziezaiea espreski eskatuaz.

Hasitako ikerketari dagokionez, aztergai ziren gertakizunengatik Tolosako Epaitegian salaketa jarri zenez gero, Arartekoak bere egitekoa bertan behera utzi zuen.

*Euskal Herriko kaleetan gertatutako bortxakeriaren ondorioz hiritar batek eta Ertzaintzako funtzionario batek zauri nahiko larriak jasan zituztela jakin ondoren, ofiziozko kexa espediente bat ireki zen gertakizunen ardura norena izan zitekeen jakiteko asmoz.*

**Euskal Herriko kaleetan jasaten den bortxakeriaren ondorioz emakume batek eta Ertzaintzako funtzionario batek zauri nahiko larriak jasan zituztela jakin ondoren, ofiziozko kexa espediente bat ireki zen gertakizunen ardura norena izan zitekeen jakiteko asmoz.**

**Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak eskuratu zigun informazioaren araber, elkarren artean zerikusirik ez zeukaten bi kasuengatik epaitegian ikerketak ireki zirela jakin ondoren, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak 13. artikuluan dioena beteaz espedientea itxi eta artxibatzeko agindua eman zen.**

### **3.7. JUSTIZIA**

#### **3.7.1. SARRERA**

1995. urtean sail honetan 64 kexa jaso dira, honako banaketarekin:

Justizia Administraritza .....	50
Eusko Jaurlaritza .....	6
Abokatu bazkundeak .....	8

Alor honetan sartzen diren kexak hiru multzo nagusitan banatzen dira. Alde batetik justizia Administrazioaren funtzionamenduaren kontrakoak daude, eta kexa horiek, erakunde hau sortzen eta arautzen duen Legeak 9.2 artikuluan xedatzen duenez, ikertzeko eta ebazteko gaitasuna duen organoari -hots, Ministerio Fiskalari edo Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiari- bidali behar zaizkio.

Lehen multzo honi, prozedura judizialen bideraketan, edo horien ebazketan gertatzen diren gehiegizko atzerapenen kontra planteiatutako kexak dagozkie; horien artean gehienak epaitegietan eta auzitegietan dagoen lan pilaketarengatik gertatzen dira.

Era berean, multzo honetan sar daitezke ondorengo kasuak ere: salaketa bat aurkeztu ondoren epaitegi eskudunak auzia behin-behinekoz artxibatzea erabaki eta jarduera horien berri ez emateari dagozkionak. Zentzu hertsian hartuta eskumen funtzioari zegokion beste kexa multzo handi bat gure legearen 13. artikuluan oinarriturik atzera botea izan zen, eta ondorioz ez da kontutan hartu sail honetan.

Kexen bigarren multzoa justizia gaietan administrazio autonomikoak duen jarduerari dagokio, batez ere Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren kudeaketari. Arartekoak kexa multzo honetan jarduteko eta kontrolatzeko ahalmen osoak dauzka, Autonomia

Estatutuak 13., 34. eta ondorengo artikuluetan Euskal Autonomia Erkidegoari emandako eskumenekin lotuta daudelako. Halere, alor honetan planteiatzen dira arazo gutxien.

Iazko ekitaldian zehar kexa adierazgarri bakarrak EIZIE itzultzaileen elkarteak planteiatu zituen: prozedura judizialetan epaileak eskatuta gazteleratik euskararako eta alderantzizko interpretariak behar direnerako zerbitzuak enpresa pribatu bati esleitzearen kontrako kexa zen, eta kexen laburpenei dagokien atalean jasota dago.

Azkenik, justizia kontzeptua ikuspegi zabalean hartuta, alor honetan hirugarren kexa multzo bat ere sartzen dugu: alegia, hiritarrek abokatuen jarduera profesionalaren kontra aurkeztutako erreklamazioen aurrean, abokatuen bazkondeek azaltzen duten jokaerari dagozkienak.

Gogoratu behar da bazkunde profesionalak, zuzenbide publikozko erakundeak izaki, zuzenbide administratiboaren ardurapean daudela eta, beraz, horko sail batean egiten diren jarduerak Arartekoak fiskaliza ditzakeela.

Zentzu horretan, gero eta kexa gehiago aurkezten dira ustez abokatuen bazkondeen utzikeriaren kontra, horiei dagokielako beharrezko diziplina ezartzea eta abokatuak beraien lanbidean errespetatu beharreko arau deontologikoak zaintzea.

Oro har, alde batetik egia da epaiketaren ebazpena erreklamatzailaen interesen aldekoa izaten ez denean profesionalaren jarduera zalantzan jartzeko joera dagoela; baina egia da, orobat, Bazkondearen aurrean ardurak eskatzeko prozedurak asko luzatzen direla, askotan ageriko arrazoirik gabe.

Gai honi dagokionez, aipatu behar da batzuetan ez dagoela espedientea amaitutzat jotzeko ebazpena eta horren aurka aurkez daitezkeen errekursoak erabakitzeko beharrezko motibaziorik.

### **3.7.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

*Prozedura judizialetan interpretari lanak egiteko titulazioa eskatzeari buruz (735/94)*

Erreklamatzailak, guztiak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretariaren Elkarteko (EIZIE) kide zirenek, Euskal Autonomia Erkidegoko Epaitegi eta Auzitegi ezberdinetan euskaratik gaztelerara eta alderantzizko interpretaritza lanak egin behar dituzten interpretariei zinpeko interpretari titulua ez eskatzearen ondorioz beraien ustez gertatzen den egoera planteiatu zuten.

Horrela, indarrean dauden xedapenak zehazki aztertu ondoren, Aginte Judizialaren Lege Organikoak 231. artikuluan dioena aipatu behar da: «ahozko jardueretan, Epaileak edo Epaitegiak erabiliko den hizkuntza ezagutzen duen edonor gaitu ahalko du, pertsona horrek aldeaz aurretik zin egin edo hitza eman ondoren».

Alor penalean, ordea, Auziperatze Kriminalaren Legeak 441. artikuluan hauxe aurriztzen du:

«Interpretaria, herrian badago, horretarako titulua daukatenen artetik aukeratu da. Ez badago, erabiliko den hizkuntzako maisu bat izendatuko da, eta hori ere ez badago, hizkuntza ezagutzen duen edozein pertsona».

Bi agindu horien arabera, eta espezialitate printzipioaren ildotik, garbi egon beharko luke hizkuntza ezagutzen dutenen artetik edonor aukeratzeko epaileari emandako ahalmenak, subsidiarioki horretarako titulua daukaten interpretarien artetik aukeratzeko ahalmenaren pean egon beharko lukeela.

Erreklamatzailen ustez, epaileen eta magistratuen eskariz jardun beharko luteken profesionalen ordez pertsona juridikoak izendatzea ez da bidezkoa.

Puntu horri zegokionez, erreklamatzaileek adierazten zuten 1994. urtean Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak Bilboko enpresa bati esleitu ziola interpretaritza zerbitzua.

Zentzu horretan, eta beste hizkuntza batzuen kasuan erreparorik azaldu ezin bada ere, euskara behar den kasuetarako deigarria gertatzen zen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (HAEE) Itzulpen Zerbitzu Ofizialaz baliatu ez izana, zerbitzu horren abuztuaren 30eko 461/91 e-estruktura Dekretuak betekizunen artean ondorengoak ezartzen dizkionean (16.2.e) art.):

«Epalearitza ihardunetan, hots, epaialdi, aurrez aurreko adierazpen eta abarretan, euskarazko nahiz gaztelaniazko interpretaritza egitea, epailetza-organoek Zuzentza Sailaren bitartez eska dezatenean».

Helburu horrekin, artikuluko bereko 5. atalean hau aurrikusten da: «Itzulpen Zerbitzu Ofiziala hartu ditzan lan guztiez arduratuko da, *hala behar izanez gero besterengana jo behar badu ere.*

Aipatutako Sailari gai honi buruzko informazioa eskatu ondoren, Justizia Administrazioarako Sailburuordetzak bidalitako idatzian itzulpen zerbitzua enpresa pribatu batek eskaintzeari buruz zera adierazten zen: HAEEren Itzulpen Zerbitzuak lan zama handia zeukanez gero eta hiru Entzutegietatik eskaria etengabea zenez gero, beste bide batzuk aukeratzeko erabaki zela, babes judizial eraginkorraren eskubidea hautsita gerta ez zedin.

Sailak, horretarako, alde zurretik Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiari kontsulta egin ondoren, 1994ko erdialdera esleitu zen kontratazio espediente bat ireki zuen. Horren helburu bakarra Justizia Administrazioaren funtzionamendu eraginkorragoa lortzea zen.

Prozedura judizialean interpretari lanetan parte hartuko dutenek horretarako titulua edukitzeari dagokionez, azkenik eta orokorrean esan behar da titulurik gabeko interpretariak ahozko jardueretan parte hartzea subsidiarioa dela Auzipepatze Kriminalaren Legeko 441. artikuluko eta gai bera tratatzen dutenek diotenaren ildotik; idatzizko jardueretan, ordea, dagokion titulu ofiziala eduki behar du interpretariak, bereziki alor penalean.

Erakunde honek Justizia Sailari planteiatu zion gauza bakarra hau izan zen: esleipena zeukan enpresa kontrola zezala, bere bidez interpretaritza zerbitzua eskaintzen duten pertsonen maila profesional egokia berma dadin.

*Abokatuen bazkondeek emandako ebazpenen edukiari buruz (496/95)*

Urtebete lehenago partikular batek abokatu baten jokabidearen kontra aurkeztutako salaketari Donostiako Abokatuen Bazkondeak erantzunik ez ematearen kontrako kexa idatzi bat jaso zen erakundearen.

Erakunde honen zeregina Bazkunde horrek ebazpena eman zezala lortzera bideratu zen, urtebete baino gehiago zelako kexa aurkeztu zela. Hori lortu ondoren, ordea, ebazpenaren edukia ikusirik, Bazkundeari zenbait gogoeta egitea komeni zela ikusi zen.

Kexa aurkezleak urtebete zain pasatu ondoren, emandako erantzunean esaten zen abokatuaren jokabide profesionala zuzena izan zela, baina ez zen ematen erabaki hori zertan oinarritzen zen jakiteko argibide txikiarik ere.

Zentzu honetan, gogoratu behar da Administrazio Publikoen eta Administrazio Orokorren Prozeduraren Lege Erregimenerako 30/92 Legeak, 2. artikulua arabera Zuzenbide publikozko erakundeei dagokienak, 89. artikuluan dioena: ebazpenetan erabakia adierazi beharko da, erabakia *arrazoitua* izango da testu legal bereko 54. artikuluan jasotzen diren kasuetan, eta horren kontra jotzeko *errekurtsoak* adieraziko dira, errekurtso horiek zein administrazio edo justizia erakunderen aurrean eta zein epetan jar daitezkeen ere jakinaraziz.

Erabakiaren arrazoiak adierazten du diskrezionalaren eta arbitrarioaren arteko muga; izan ere, erabakiaren motibaziorik edo arrazoirik ez badago erabakiaren euskarri bakarra hartzen duenaren borondatea delako, eta euskarri hori Zuzenbide Estatuan ez da nahikoa, agerian dagoen bezala. Arrazoitu gabe dagoena horrexegatik da arbitrarioa hain zuzen ere, jurisprudentzia ugaritan jakinarazi den bezala.

Eman behar diren arrazoibideak garbiak diren kasuan labur adieraz daitezke, eta hori Administrazioan dagoen lan kopuruaren ondorioa izan daiteke, normalean lan kopurua izugarria baita, baina ezin da onartu inolako arrazoirik ez ematea.

Bestalde, interesatuari jakinarazten zitzaion ebazpenaren edukiaren kontra errekurtsoak aurkezteko aukerari dagokionez, eskuartearen daukagun kasuan ez zen aipatzen erabakia Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren aurrean errekurritzeko aukerarik, ez eta hori burutzeko eperik ere.

Kexagileari ohar hauek aditzera eman ondoren, eta erreklamazioaren bat aurkeztutako hiritarrei zuzendutako ebazpenetan edukia zaintzeko konpromezua Bazkundetik jaso genuenez gero, espedientearen artxibatu egin zen.

## **3.8. INGURUGIROA**

### **3.8.1. SARRERA**

Alor honi dagozkion 66 kexa jaso dira 1995. urteari dagokion ekitaldian, jasotako guztien artetik %5,7 alegia.

Eragindako administrazioen arabera, honela bil ditzakegu:

- Udalak .....	62
- Eusko Jaurlaritza .....	5
- Foru aldundiak .....	1

Edukiari dagokionez, honela bil ditzakegu:

- Hiri jarduera sailkatuak .....	60
- Ingurugiroarekiko beste arazo batzuk .....	6

Hiri jarduera sailkatuen azpisailean biltzen diren kexei dagokienez, azpimarratzekoa da taberna, pub, gimnasio, musika akademia eta antzeko jarduerak eragindako zarata, usain, ke eta abarreatatik gertatzen direla berriro ere.

Egoitza publiko horien funtzionamendu irregularraren ondorioz hiritarrek jasaten dituzten ingurugiro mailako erasoaren aurrean dagozkien salaketak aurkezten dituzte udaletxeetan. Hainbat hilabetez, kasu batzuetan baita hainbat urtez ere, auzitan dauden arazoei erantzuna eman zain egon ondoren, erakunde honetara jotzen dute egoera horien aurrean herri-agintariek ustez daukaten geldokeria edo eskuzabaltasuna salatzearen.

Gai honi dagokionez, gogoratu behar dugu jarduera horiek udal baimenerako erregimenaren ardurapean daudela eta, beraz, administrazioak kontrol iraunkor bat ezarri behar duela, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Arautegian (JGOKAA) aurrikusitakoaren arabera zeregin hori Udalei dagokielarik. Ararteko honen zeregina, beraz, biztanleek aurkeztutako salaketen aurrean ikuskari lana betetzea udalen lana dela gogoratzea da, eta beraiek erabaki behar dutela salatutako gertaerak egiak ote diren, eta jardueri dagokien udal baimenetan ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen ote dituzten.

Erakunde honek ikusi duenez, jarduera horien funtzionamenduaren ondorioz sortzen diren arazo asko eta asko ez lirateke gertatuko jarduera irekitzeko baimena eman aurretik JGOKAAko 34. artikulua agintzen duen bezala, udalek beharrezko ikuskaritza egingo balute, jarduera hori kokapen baimenean adierazitako neurri zuzentzaileetara egokitzen ote den jakiteko.

«Ingurugiroarekiko beste arazo batzuk» deituriko azpisailean sartzen diren kexei dagokienez, alderdi baten eskariz aurkeztutako salaketa gutxi egon direla esan behar da. Horien artean, hondakin biltegien ustezko funtzionamendu okerraren kontrakoak, HCHz kutsatutako lurak biltzeko seguritate zelda baten kokalekuaren kontrako salaketa, eta hirian egondako trafiko aldaketengatik ustez sortutako aire kutsaduraren kontrakoak aipa ditzakegu.

Bestalde, Ararteko hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 17.1 artikuluan dioenaren arabera, Ararteko honek komunikabideen bitartez ezagutu dituen ingurugiroarekiko ustezko irregulartasun eta kalteen kontra egin diren salaketen aurrean ofizioz esku hartzea erabaki du.

Horrela, aluminio fundizio lanak egiten zituen lantoki batek hondakinak Las Carrerasen metatu zituelako erakunde honek egin zuen ikerketa aipatu behar da. Bizkaiko Foru Aldundiak Zornotzan daukan lur batzuetan aurkitu ziren produktu oso kutsatzailez beteriko bidoiei buruz egindako azterketa lanak ere aipatu behar dira.

Eta azkenik, Urkiolako Parke Naturalaren Patronatoak zona horretako harrobi bat bere mugetatik atera omen zelako aurrera eramandako ekintzak ere aztertu dira.

### **3.8.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

#### **3.8.2.1. HIRI JARDUERA SAILKATUAK**

*Biztanle batek bere etxean zaratengatik jasaten zituen gogaipenak zirela medio egindako salaketaren aurrean udalak ezer egin ez izana (487/94)*

Elgoibarko biztanle batek kexa idatzia aurkeztu zuen Ararteko honen aurrean herri horretako udalaren pasibitatearen kontra. Bere etxe azpian zegoen taberna-jatetxe baten funtzionamendu irregularragatik zaratak eta usinak jasaten zituelako, salaketa aurkeztu zuen udalean, baina ez zitzaion erantzun.

Zentzu horretan, interesatuak zioen Ertzaintzak behin eta berriz egin zituela zarata neurketak bere etxean, bai eta frogatu ere indarrean zegoen araudiak jartzen duen muga gainditzen zela; jarduera hori, bestalde, inolako baimenik gabe zegoela ere adierazten zuen.

Elgoibarko Udalak, lehenik, jarduera hori 1954ko urtetik funtzionamenduan zegoela adierazi zigun eta, beraz, 1961eko JGOKAA onartu baino lehenago zegoen irekitze baimena zeukala.

Era berean, jakinarazi zigunez, egoitzaren jabeari ez zitzaion JGOKAaren arabera jarduera legeztatzea eskatu, Udalak jabetza aldaketa gertatzen denean barkarrik eskatzen omen duelako hori. Bestalde, udal zerbitzuek ikuskaritza bisitak egiteko premiarik ez zuten ikusten.

Gai horri dagokionez kontuan izan behar da baimenari atxikita dauden jarduera horiek une oro daudela Administrazioen aginduetara makurtu beharrean eta, beraz, horien bilakaera etengabe berrazter daitekeela. Horregatik, udalaren etengabeko kontrolpean daudenez gero, udalek edozein momentutan eska diezaiekete funtzionamendu zuzena.

Bestalde, jarduerak JGOKAA onartu aurretiko udal baimena edukitzeak ez du esan nahi ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan jasotako baldintza teknikoetatik salbuetsita dagoenik. Aipatutako Dekretua izaera orokorreko arau teknikoetara, etxebizitzetarako hiri lurrian kokatzen diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei dagokie.

Azterketaren ondorioz, Ararteko honek gomendio bat luzatu zion Elgoibarko Udalari udal zerbitzu teknikoek zegoen ikuskaritza egin eta taberna-jatetxearen jarduera aipatutako 171/85 Dekretuan jasotako baldintza teknikoetara egokitzen ote zen erabaki zezaten.

Era berean, eskatu genuenez, ikuskaritza egin eta ikusten bazen jarduerak ez zituela betetzen bete beharreko baldintza teknikoak eta salatutako gogaipenak



egiazkoak zirela, erabaki beharko zuen jarduera horrek funtzionamenduan jarrai zezakeen ala ez.

Emandako gomendioari erantzunez, Elgoibarko Udalak jakinarazi zigun Hirigintza Batzordeak jardueraren jabeari gomendioa helaraztea erabaki zuela, arazoa konpontzen saiatzeko hartzen zuen erabakia adieraz zezan.

Ararteko honek gogorarazi zion Udalari kexaren oinarrian zegoen arazoa konpontzea Udalari berari zegokiola JGOKAAk aurrikusten duen bezala, horretarako ahalmena, eta beraz erakunde honetatik egindako gomendioak bere baitan eskatzen duena gauzatzea alkateen esku jartzen baitu.

Azkenik, Elgoibarko Udalak erantzun zuen taberna-jatetxea 1954. urtetik funtzionamenduan zegoenez eta ordurarte inolako arazorik sortu ez zuenez gero, egoitza udal zerbitzu teknikoek ez ikuskatzea erabaki zutela.

Ararteko honek egindako gomendioa ez zela onartzen ulertu eta espedientea itxi eta artxibatu egin zuen, bai eta Udalari jakinarazi ere gomendioa bete ez izana txosten honetan jasoko zela.

*Taberna jarduera batek insonorizatu gabe egoteagatik ingurukoei eragindako gogaipenak (531/94)*

Hernaniko biztanle elkarte batek aurkeztutako kexa bat jaso zen erakunde honetan, non salatzen baitzituzten beraien etxepean zegoen taberna baten funtzionamenduak eragindako irregulartasunak.

Biztanleek ziotenez, urteak zeramatzaten aipatutako tabernak eragindako zaratak eta gogaipenak jasaten, eta jabeekin adiskidetasun akordio batera iritsi ordez arazoa are larriagoa bihurtu zen tabernan indar eta potentzia handiagoko bozgorailuak ipini eta gainera ia egunero goizaldera arte atea eta bi leihoak zabalik zituela egoten zelako.

Kexagileek adierazten zuten, halaber, Hernaniko Udalaren aurrean aurkeztutako salaketen ondorioz, Udalak tabernaren jabeari agindu ziola bi sarreradun atea jarri eta zaraten kontra isolatzeko zeuzkan neurri sendoagoak ipin zituela. Bizilagunen esanetan, ordea, neurri horiek gauzatzeko epea gaintu eta tabernaren jabeak eskatu zitzaizkion neurriak hartu gabe jarraitzen zuen.

Horri zegokionez, Udalak jakinarazi zigun tabernako jabeek ez zituztela bete beharreko neurriak epe barruan hartu, epe hori oporraldiarekin batera gauzatu zelako.

Tabernako jabeak, halere, musika ekipoa erabiltzen eta inguruko etxebizitzetakoei zarategatik gogaipenak eragiten jarraitu zuen.

Horregatik, eta tabernak inguruko etxebizitza kaltetuenei eragiten zien zaratak baimendutako gehieneko neurria gaintzen zuenez gero, Ararteko honek Hernaniko Udalari gomendatu zion neurri bermatzaile gisa musika ekipoa ken ziezaiola jabeari eta Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretura egokituz insonorizazio proiektua aurkez zezala.

Aipatutako udalak, azkenik, jabeak irratia, telebista edo musika-haria ez zen musika aparailu oro erretiratzen ez zuen bitartean tabernari baimena kentzea ebatzi zuen.

**Horrenbestez, kexa eragindako arazoa konpondu zela-eta, Ararteko honek kasu honetan zegokion jarduera amaitutzat jo zuen.**

*Irregularitasunak harategi jarduera baten funtzionamenduan (556/94)*

**Bilboko biztanle baten kexa aurkeztu zen erakunde honetan. Bertan, bere ezinegona azaltzen zuen Bilboko Santutxuko merkatuan zeuden harategi jarduera batzuen ondorioz zeuden irregularitasunengatik.**

**Zentzu horretan, haren arabera, lokal horietan handitze lanak egin ziren, horretarako egokitu ziren solairuarteetan frigorifiko kamarak ezartzeko. Berritze lan horien ondorioz, frigorifiko kamaren konpresoreek sortzen zituzten zaratek eta dardarizoez eragindako gogaipenak jasan behar izaten zituzten, horien eragina gaueko orduetan are handiagoa zelarik.**

**Bilboko Udalak igorri zigun txostenean ikusten zen bezala, aipatutako loka-lean egin ziren lanak legeztatuta zeuden.**

**Halere, ezin zen garbi erabaki instalazioek jarduera baimenean iragarritako neurriak betetzen zituen ala ez. Ez zegoen garbi, alegia, zaratek eta dardarizoez eragindako gogaipenei aurre egiteko beharrezko neurri teknikoak ba ote zituen ala ez, izan ere udal espedientearen jasota zeuden zaraten neurketen emaitzen arabera baimendutako zaraten muga gairatzen zela esaten zen, baina ondoren ez zen adierazten aurkitutako arazoak konpontzeko jarduera horien jabeek neurriak hartu ote zituzten, ez eta horren arabera teknikoek azterketa berriak egin zuten.**

**Bestalde, era horretako egoitzetan, irekitzeko emandako baimenean ezartzen diren neurri zuzentzaileak jarduera martxan jartzerakoan betetzen dira, eta ondoren, piskanaka-piskanaka, denbora joan ahala, neurriak laxatu egiten dira.**

**Arartekoak, horregatik guztiagatik Santutxuko merkatuan zeuden harategi jarduerari beste ikuskaritza tekniko bat egin ziezaietela gomendatu zion Bilboko Udalari, horrela ikus zezan jarduera horiek ezarritako neurri zuzentzaileetara eta indarrean dagoen hiri arautegira egokitzen ote ziren.**

**Udalaren iritziz ez zen beharrezkoa beste ikuskaritza bat, haien ustez jarduera horiek emanda zegoen baimenaren arabera eta baimendutako zarata maila baino handiagoak eragin gabe burutzen zirelako; aurreko urteei zegozkien txostenetan oinarritzen ziren hori adierazteko.**

**Ararteko honen iritziz, emandako gomendioa ez zen onartu eta espedientearen itxi eta artxibatu egin zen, Bilboko Udalari adierazi ondoren gomendioa onartu ez izana txosten honetan jakinaraziko zela.**

*Musika moderno talde baten entseien zaratak eragindako gogaipenak (482/95)*

**Erakunde honetan Amurrioko biztanle batzuek sustatutako kexa bat jaso zen. Bertan salatzen zutenez, herriko txabola batean musika modernoa jotzen zuen talde batek entseiuak egiten zituen sarri, eta musikaren bolumenagatik inguruan gogaipenak jasan behar izaten zituzten.**

Amurrioko Udalarekin harremanetan jarri eta jakin genuen ahaleginak egin zituztela eragindako alderdien artean -txabolaren jabeak, musikariak eta biztanleak-tartekaritza egiteko, eta zeuden interesen artean akordioa lortzen saiatzeko, horrela bizilagunei ahalik eta gopaipenik txikiena eragingo zien orduetan entseiuak egiteko ordutegia finkatzearren. Halere, ez zen arazoarentzat konponbide eraginkor eta arazoizkorik bilatu.

Azkenik, musika taldeak bere jarduerarako baimenik ez zeukanez gero, Udalak musika entseiuak egitea galarazi zion, egun bakar batean ere entseiuak egiten bazituzten zigortuak izango zirela jakinaraziz. Era berean, aurrerantzean musika jarduerekin jarraitu nahi bazuten JGOKAARI atxikitako jarduera gogaikarriei dagokien baimena eska zezatela adierazi zitzaien.

*Pub jarduera bateko jabeari lokala ixteko ezarritako zigorrekin adostasunik ez (616/95)*

Pub jarduera bateko jabeak erakunde honetara jo zuen bere herriko udalak jazarria sentitzen zela salatzeko; baimendutako jende kopurua baino gehiago onartu izanagatik ezarri zitzaion ixteko zigorragatik zen kezku.

Jabeak zioenez, arrazoi horregatik itxi zen lokal bakarra zen berea, eta asteburuetan goizaldeko orduetan jende kopurua kontrolatzea zaila zela adierazten zuen.

Bestalde, lokalaren segurtasuna hobetu eta horrela gertatzen ziren jende pilaketei aurre egiteko jarduera aldaketarako baimena udalari eskatu ziola ere adierazi zuen jabeak, baina, udalak aukera hori ez ziola onartu.

Udalarekin harremanetan jarri, eta esan ziguten beraien datuen arabera ez zela inon ageri jabeak lokalaren segurtasuna hobetzeko lanak egiteko inolako baimenik eskatu zuenik eta, beraz, ez zitzaiola ukatu.

Zentzu horretan, udal txostenean gehitzen zen udala ez zela jarri eta ez jarriko ere lokalaren segurtasuna hobetzea ekarriko zuten erabilera aldaketarako obrak egitearen kontra.

Adierazitako beste lokalekiko diskriminazioari zegokionez, ikusi zen jardueraren jabeari lokala irekitzeko eta martxan jartzeko emandako baimenean espreski adierazten zela gehienez 116 pertsona sar zitezkeela bertan. Betebehar hori lokalaren baldintza berezi hauengatik jarri zitzaion: 290 metro karratuko sotoa da, irteera bakarra du eta kanporaketarako goiera 3,40 metro ingurukoa; adierazitako jende kopuruarena, beraz, segurtasunerako funtsezko neurria zen.

Erakunde honi eskuratu zitzaion udal espedientearen arabera, ordea, segurtasun hori behin eta berriz hautsi zuten jabeek edo negozioaren arduradunek, eta horregatik ireki zitzaizkien zigor espedienteak.

Horrela, jakin ahal izan genuen egoitza ixtea erabaki aurretik jarduera gutxienez bost aldiz salatua izan zela gehienezko jende kopurua gainditzeagatik.

Zigorrik larriena, urte baterako lokala ixtea ekarri zuena hain zuzen, udaltzainek egindako ikuskapen batean lokalaren barruan gutxienez 505 pertsona aurkitu ondoren ireki zen espedientearen egiaztatua geratu zen. Jende kopuru hori oso larritzat jo zen lokalaren baldintzak kontuan izanik, eta udal suhiltzaileen

buruzagiak adierazi eta txostenean jaso zenez, «larrialdi batean lokaletik pertsona apur batzuk baino ezin irtengo ziren, eta gehienak barruan geratu beharrean egongo ziren».

Horregatik, udalak inolako diskriminazio joerarik gabe eta beharra gertatuz gero jendea kanpora ateratzeko benetako arazoak dituen lokal batean sartzen diren pertsonen segurtasuna bermatzeko nahiarekin jokatu zuela ebatzi zuen erakunde honek.

Zentzu horretan, eta administrazioaren portaera kasu honetan indarrean dagoen legediaren arabera izan zela ikusirik, Arartekoak bere jarduera amaitutzat jo zuen.

### **3.8.2.2. INGURUGIROAREKIKO BESTE ARAZO BATZUK**

*Herriko plazan zeuden zuhaitz apaingarriak botatzearekin adostasunik ez (420/95)*

Erriberako Antezanako biztanle batzuek aurkeztutako kexa idatzi bat jaso zen erakunde honetan. Hau zen bertan salatzen zena: Erriberako Antezanako Administrazio Batzarraren presidentek eta idazkariak herriko plazan zeuden lau zuhaitz apaingarri, 80 urtetik gora zeuzkaten gaztainondoak hain zuzen, moztarazi zituztela.

Biztanleek ziotenez, egia zen zuela urtebete baino gehiago egindako konzejuan zuhaitzak moztea erabaki zela, horiek plazako zorua altxatzen zutelako, baina ondorengo saio batean garbi geratu zen herriko beste biztanle gehienak zuhaitzak moztearen kontra zeudela.

Halere, eta interesatuen harridurarako, zuhaitzak bota egin ziren.

Horri zegokionez, Administrazio Batzarreko presidentek Ararteko honi jakinarazi zion zuhaitzak mozteko akordioa gehiengoaren botoekin erabaki zela, eta hori frogatzen zuen aktaren kopia bidali zuen. Administrazio aktetan ageri zenez, akordio bakar hori hartu zen, hain justu, zuhaitzek, zaharrak zirelako, plazako zoruan egiten zituzten kalteengatik.

Era berean, antolakuntza berriaren arabera plaza inguruetan beste zuhaitz batzuk landatzeko aukera aztertu zela ere adierazten zuen.

Horrela, administrazioaren aldetik irregulartasun juridikorik ez zela egon ikusita, kexa espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

### **3.8.3. OFIZIOZKO JARDUERAK**

*Ustez kontrolik gabeko isurketak zabortegei batean egin izana (1/95/OF)*

Egunkari batean argitaratutako informazio baten bidez, Las Carrerasesko (Abanto) zabortegei batean 300 kamioikadatik gora hondakin isuri zirela jakin genuen; hondakinak aluminio fundizio lanak egiten zituen antzinako enpresa

bateko lurretatik atereak ziren eta, beraz, isurketek kutsadura eragin zezaketela pentsa zitekeen.

Informazioa egiazkoa zela ziurtatu ondoren, eta isuriketa gertatutako lurretan material oso kutsagarriak egon zitezkeelakoan, Abantoko Udalari informazioa eskatu zitzaion.

Udalaren erantzunean esaten zen Lorenza izeneko antzinako harrobiaren hondakinen ustiaketak beharrezko jarduera baimena bazeukala, eta hori frogatzen zuen agiria bidali zigun. Era berean esaten zen ustiaketa arduratzen zen enpresak aldiro aurkezten zuela zabortege horretan metatzen ziren isurketen zerrenda, bai eta adierazi ere hondakinak nongoak ziren, isurketa noiz egin zen, zenbat kamioikada bota ziren eta beste gora-behera batzuk. Azkenik, ingurugiro jardueretan aditua den Gaiker enpresak aldiro egiten zituen analisisen kopia ere igorri zigun.

Erakundea Gaiker enpresako teknikariek harremanetan jarri zen analisisen emaitzak interpretatzeko, eta horien balioa egiaztatu ondoren, jarduera amaitutzat jo zuen.

*Urkiolako Parke Naturalaren mugak harrobi jarduera batek gainditzea (6/95/OF)*

Ararteko honek komunikabideen bitartez jakin zuen Amantegi harrobiaren jarduerak Urkiolako Parke Naturalari ustez kalteak eragin zizkiola.

Egunkarietan azaldutako berrien arabera, Amantegi Harrobiak Urkiolako Parkean sartu ziren, parke barruan beharrezko baimenik gabe pista bat irekiaz.

Hori zela eta, Urkiolako Parke Naturalaren Patronatoko presidentek Ararteko honi jakinarazi zionez, berriak zioena egia zen, aipatutako lantokiak beharrezko baimenik gabe parke barruan sartu zen pista bat eraiki zuen, eta, horregatik, zigor espediente bat ireki zitzaion ustez Euskal Herriko Naturaren Zainketarako Legea hautsi zuelako.

Azkenik, zigor espedientearen ebazpena ezagutu genuen: aipatutako enpresari 4.000.000 pezetako isuna ezarri eta aldatutako puntuak lehen bezala uztera kondenatua izan zen, azken eginkizun horretarako hartu behar zituen neurriak adierazten zitzaizkiolarik. Eta horrenbestez, Arartekoak kasu honi zegokion jarduera amaitutzat eman zuen.

*Bidoi kutsagarrien kontrolik gabeko biltegia (15/95/OF)*

Ararteko honek jakin zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren lur batzuetan, zehazki Zornotzako udalerrian, produktu oso kutsagarriak betetako bidioiak zeudela.

Zentzu horretan, egunkarietan azaldutako berriak zioenez, bidoi horiek lau urte zeramatzen kutsatzen, denborarekin bidoi batzuk zartatuta zeudelako eta horien isurketa 50 metro karratuko eremuan zabandu zelako; landaretza erabat suntsituta zegoen eta lurrazala kaltetuta.

Bizkaiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintzarako Foru Diputatuari eskatu genion gaiari buruzko informazioa, lur horien kutsadura garbitzeko hartu zituzten edo hartu asmo zituzten neurriak jakinaraz ziezaizkiguten.

Ingurugiro eta Lurralde Ekintzarako Saileko Diputatu andreak jakinarazi zigunez, bidoi horien berri izan bezain laster eta sortutako kutsadura arazoa berehala konpontzearen, sail hori Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailordetzako Ingurugiro Kalitatearen Zuzendaritzako Hondakin Kutsagarri eta Arriskutsuen Zerbitzuarekin jarri zen harremanetan. Zerbitzu horrek aztertu zuen bidoieta zegoena eta 3.000 ppm baino gehiagoko P.C.B. maila zeukan olio kloratua zela ikusi zuten; horregatik enpresa espezializatu bati eskatu zitzaion bidoiak erretiratu eta lurra garbi zezala. Garbiketa lanen kostua enpresa kudeatzaileak hartzen zuen bere gain, horren bidez eskuratuak baitzituen Foru Aldundiak lur horiek.

Kaltetutako lurretan bidoiak erretiratu eta garbiketa lanak egiteko beharrezko neurriak hartu zirela ikusirik, Ararteko honek gaiari zegokion jarduera amaitutzat jo zuen.

### **3.9. HERRI-LANAK ETA ZERBITZUAK**

#### **3.9.1. SARRERA**

Herri-lanen azpialorrari buruzko kexetan, herri-lanak betearazteko tramite guztiei dagozkien gora-beherak jartzen dira auzitan, hasi egitasmo teknikoaren idazketatik eta eraikuntzaren ondoriozko erantzukizunetaraino.

Normalean, egitasmo teknikoen edukiaren aurkako kexak auzokide-elkarteek egiten dizkigute, eta egokierari buruzkoak edota zehaztasun teknikoei buruzkoak izan ohi dira. Askotan, halako herri-lan batek auzokide ugari kalte egiten diolako aurkezten dizkigute kexa hauek.

Herri-lan bati ekin aurretik, Administrazioak eraikuntza hasteko hartu behar dituen lursailak bere esku eduki behar ditu. Normalean, lursail horiek desjabetzea izaten da hartzen den bidea. Bada, horrelakoetan hiritarrek kexa ugari egiten dituzte: batzuek ez dutelako inolaz ere nahi Administrazioak beraien lurak desjabetzea; beste batzuek, aldiz, desjabetzaren hori eskatu egiten dute, hain zuzen ere beraien lursailak berdegune bezala sailkatuta daudelako; beste batzuetan, ordea, balioespena berehala ordaintzea eskatzen dute, edota kalteordainak eskatzen dituzte, soberako lursailak sarbiderik gabe geratu direlako.

Beste alde batetik, zerbitzuen azpialorrari buruzko kexak ez dira ugariak, baina bai era askotakoak, Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuen antzera. Oro har, etxeko kontsumorako ur hornidura, kaleetako garbiketa eta zabor bilketa zerbitzuak izaten dira kexagai nagusiak.

Azpialor honetan, Arartekoak hiru aldiz egin behar izan ditu ofiziozko jarduerak, administrazio batzuek ez dutelako kontutan izan elbarrientzako sarbideak ipini beharra hiri barruko edo hiri arteko garraiorako autobusak erosi dituztenean.

### **3.9.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

#### **3.9.2.1. HERRI-LANAK**

*Errepide zati bat atondu eta hobetzarren egindako desjabetzapen baten ondorioz lursail hondar batean izandako kalteak (452/94)*

Hiritar batek azaldu zigunaren arabera, Arabako Foru Aldundiak haren lursail baten jabetza kendu zion Arespalditza eta Menagarai arteko C-6210 errepidea atondu eta hobetzeko proiektua gauzatzearren.

Administrazioak behin baino gehiagotan hitz eman omen zion soberan geratutako lursail-zatiak egoera egokian utziko zizkiola, baina ordura arte ez zuen agindutakoa bete.

Desjabetzapenaren ondorioz, lursail batek ez zeukan sarbiderik eta ezin izan zuen erein; eta beste lursail batean isurbide-hodi batzuk konpondu behar ziren, lursaila urpean gera ez zedin, errepidearen kota gorago utzi zelako.

Arartekoak Arabako Foru Aldundiari argitasunak eskatu zizkionean, erakunde horrek erantzun zuen 51.557 pezetatan baloratzen zituela 1.829 m<sup>2</sup>-ko lursaila erein ezin izateagatik kexagileari eragindako kalteak. Bestalde, lursail hondar bat sarbiderik gabe geratu zela onartu eta konponbide bezala orduko ubide-lanak zabaltzea eta, lursaila eta hurbileko herri-bidea lotzeko, 230 metroko luzerako zerbitzubide bat egitea proposatu zuen; horretarako, beste 1.380 m<sup>2</sup> desjabetu beharko ziren, eta horri bidea atontzeko lanen kostua erantsi.

Azkenik, kexagileari aditzera eman genion Foru Aldundiarekin harremanetan jarri behar zuela, Administrazioak lursail osoa desjabetzea hobe ez ote zen aztertzeko, kontutuan izanda nolako gastuak eta desjabetzapen-arazoak gertatuko ziren lursail hondar horretarako sarbide egoki bat egiteko.

*Aixolako urtegirira doan errepidearen mantenua zein erakunderi dagokion zehazteko, Arartekoak egindako bitartekaritza lana (633/94)*

Eibar, Elgeta, Ermua eta Zaldibarko alkateek Arartekoaren bitartekaritza eskatu zuten, Ermua parean hasi eta Aixolako urtegirira doan CN-634 errepidearen mantenua zein erakunderi dagokion zehazteko.

Jakingarri bitxi bezala, aipatu behar da delako errepide hori bi foru lurralde desberdinetatik (Gipuzkoa eta Bizkaitik) eta hiru udalerrri desberdinetatik (Ermua, Zaldibar eta Elgetatik) igarotzen dela. Gainera, Aixolako urtegia, Espainiako Iparreko Konfederakunde Hidrografikoak 70.eko hamarkadako bukaeran eraikitakoa, Eibar urez hornitzen duena da, eta, beraz, Gipuzkoako Ur Partzuergoak gestionatzen du ur hornidura hori. Bestalde, urtegiak paisaia-balio handia dauka, eta Ermua eta Eibarko biztanleek askotan erabiltzen dute beraien aisialdian.

Urtegirako bidea bisitatu ondoren, Arartekoa lau alkateekin eta Gipuzkoa eta Bizkaiko obra hidrauliko eta herri-lanetarako foru sailtako diputatuekin bildu zen. Bileran horietan, Zaldibar eta Elgetako alkateek argi utzi zuten ez zitzaizela

interesatzen errepidearen mantenua beraien gain hartzea, bide-zati handiena beraien udalerritik igarotzen zen arren, hain zuzen ere herri horietako jendeari ez diolako inolako zerbitzurik ematen.

Arartekoaren ustez, beharrezkoa zen Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak elkarlanean aritzea gai honetan, errepidearen ezaugarriak bereziak direlako, bai haren kokapenagatik eta bai haren erabileragatik ere.

Gehiago zehaztuz, errepideko lehen kilometroa Ermua eta Zaldibarko Udalen ardurapean egotea proposatu zuen, halako egoitza eta jarduera batzuei zerbitzua ematen dielako. Aldiz, Aixolako urtegiari iritsi arteko gainontzeko zatia, hasierako bidetik apartatu egiten zena, foru aldundiek hartu behar zuten beren gain, hitzarmen baten bitartez.

Hitzarmen horretan, gure proposamenari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak errepidea konpondu eta egokitu beharko zuen, ezer baino lehen, eta gero bi aldundiek batera ordaindu beharko zuten errepidearen mantenua, lurralde historiko bakoitzean errepideak zeukan luzeraren arabera. Hartara, Bizkaiko Foru Aldundiak mantenu gastuen %59 hartu beharko zuen bere gain, eta Gipuzkoako gainontzekoa, hots, %41, baina baita errepidearen mantenua eta kontserbazioa sustatzeko daukan erantzukizun zuzena ere.

*Herri-lanak egiten direnean hiritar batzuek jasan behar dituzten gogaienak (22/95)*

Irungo baserri-auzo bateko biztanleek beren protesta azaldu ziguten Elordi auzoan etxerako ura tratatzeko estazio bat eraikitzeko lanengatik kalteak jasaten ari zirelako, sarbideetan batez ere.

Bizilagun horiek argi onartzen zuten tamaina horretako lan batek (1.000 milioiko aurrekontuarekin) dexente lagunduko zuela irundar gehienen bizimodua eta haientzat dauden zerbitzuak ere hobetzen, eta horregatik halako gogaipen batzuk nozitu ere egin beharko zituztela. Baina, haien ustez, Administrazioak derrigorrez hartu behar ditu neurriak herri-lanek eragindako kalteak konpondu edo ordaintzeko, batez ere obrak burutzeko lanak urtebetez luzatu behar badira, kasu honetan gertatzen ari zen bezala.

Azkenik, bideak eta obrak bisitatu eta gero, Arartekoak Irungo Udalera eta Eusko Jaurlaritzaren Herri-Lan Sailera jo zuen, haiek direlako lanak eginarazten ari direnak, auzora sartzeko dauden bideetako bat gutxienez egoera egokian egoteaz ardura zitezen, bai eta obrak amaitu aurretik sarbideetako zati batzuk berehala konpon zituzten ere.

### **3.9.2.2. ZERBITZUAK**

*Gizarte zerbitzu batean taberna-jatetxea jartzean, adinekoen biltoki baten espazioa mugatzeagatik Udalaren kontra azaldutako salaketa (704/93)*

Adineko hiritar talde batek salatu zuen Lemoizko Udalak taberna-jatetxe bat jarri nahi zuela haren jabetzako Armintzako «Arrantzale Etxean», berez etxea



konpontzeko jatorrizko egitasmo teknikoan horrelakorik aurrikusita egon ez arren. Gainera, ostalaritza alorreko erabilera hori sartuz gero, adinekoen biltokiaren espazioa murriztuta geratuko zen.

Etxea konpontzeko lanak obra eta zerbitzuetarako foru plan batzuetan liburutegi eta kultur etxeetarako zeuden egitarauen kontura ordaindu zirenez gero, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Lemoizko Udalari eskatu genizkien argitasunak. Gainera, Arartekoa bera joan zen Armintzara, arazoa gertutik ezagutzeko.

Azterketa sakona egin ondoren, Arartekoak kexagileei aditzera eman zien udalbatzarrek badutela eskumenik legearen arabera jarduera ekonomikoak sustatzeko, taberna-jatetxeak adibidez. Bestalde, ez zegoen inolako araurik adinekoen biltoki batek eduki behar dituen ezaugarri eta dimentsioak finkatzen duenik; hortaz, bai haien sorrera eta bai haien dimentsioak ere Udalak bere kasa erabaki zitzakeen, eta Arartekoak ezin zuen hor eskurik sartu.

Udalaren arabera, taberna-jatetxearen bitartez dirusarrerak lortu nahi ziren, «Arrantzaleen Etxean» kultur ekintzak egin eta finantzatzeko, eta kultur eta gizarte zerbitzuetarako azaleran gehiegizko eraginik eduki gabe.

Hirigintzaren ikuspegitik, Lemoizko Arau Subsidiarioetan babespekotzat jota dago eraikina eta komunitaterako hornimendu erabilera dauka; horien arabera, ikuskizun jarduerak onartuta daude, baina ez ostalaritzakoak.

Bizkaiko Foru Aldundiak Obra eta Zerbitzuetarako Foru Planaren kontura emandako dirulaguntzei dagokienez, egiaztatu ahal izan genuen laguntza horiek erabakitzeo oinarri gisa erabilitako arkitektura-egitasmoan, Udalak behiala onartutakoan, ez zegoela ostalaritza erabilerarik.

Bukatzeo, Arartekoak honako gomendio hau egin zion Lemoizko Udalari:

- «1- Arau Subsidiarioetan aldaketa bat sartu beharko da komunitaterako hornimenduei onartzen zaizkien erabileretan; izan ere, egungo Hirigintza-Ordenantzako 36. artikuluaen arabera, ez dago taberna-jatetxe bat egiterik Armintzako Arrantzale Etxean.
- 2- Armintzako Arrantzale Etxearen erabileran egindako aldaketa horren berri eta haren arrazoiak jakinarazi behar zaizkio Bizkaiko Foru Aldundiaren Udalekiko Harremanetarako Sailari, foru erakunde hori delako batez ere konpontze-lanak finantzatu dituen, kultur ekintzak sustatzeko egitarauen kontura.»

*Hiritar batzuk ez daude ados Udalarekin ur-hartze bat konpontzeko gastuengatik (528/94)*

Bilboko jabe-elkarte batek azaldu zigunez, Udalak 98.885 pta. ordaintzeko errekerimendua egin zien haien etxea hornitzen duen ur-hartzea konpondu eta giltzak aldatzeagatik.

Horren aurrean, ur-hartze hori haien atariak eta ondokoak batera zeukatela zioten, eta, beraz, gastuaren erdia besterik ez zutela ordaindu behar; gainera, Udalak ez zien obra hori egingo zutela adierazi ez bizilagunei, ez jabe elkarteari berari ere. Azkenik, errekurtsioa aurkeztu omen zuten, baina erantzun ordez, gainordaina ipini zieten udal ordainagirian.

Bilboko Udalari argitasunak eskatu genizkionean, erantzun ziguten egia zela ur-hartzearen konponketak eta giltza-aldaketak bi etxe desberdinei eragiten ziotela, ur-hartzea biena zelako, eta, beraz, haietako bakoitzak konponketa gastuen erdia besterik ez zuela ordaindu behar.

Horretaz gainera, onartu egin zuten jabe-elkarteari ez ziotela alde zurretik abisurik eman, hain zuzen ere konponketa premiazkoa zelako eta une hartan ez zutelako bizilagun bat bera ere aurkitu etxean.

Udalak aurreko ordainagirian azaldutako diru-kopuruaren erdiarekin beste ordainagiri bat bidaliko zuela jakinarazi eta gero, espediente itxi egin genuen.

*Lursail batean gorotz-hondakinen isuriak agertzea (89/95)*

Getxotar batek bere salaketan adierazi zigun bere lursail bat osasungarritasun eta higie egoera txarrean zegoela aldameneko beste lursail batetik isuritako gorotz-hondakinengatik.

Hari horretatik, Getxoko Udalak txosten tekniko bat bidali zigun aditzera emateko zergatik isurtzen ziren gorotz-hondakin horiek, eta nolako neurri teknikoak har zitzakeen salatutako auzokideak isuri horiek inori gogaipenik eragin gabe bideratu ahal izateko.

Nolanahi ere, txosten horrek argi zioen aipatu dugun arazo hau bi auzokideren artekoa zela, eta beraz haren konponbidea ez zegokiola administrazioari, jurisdikzio arruntari baizik.

Horri dagokionez, kontutan hartuz Lur Erregimenaren eta Hiri Antolaketaren Legeko 245. artikuluan ezarritakoa, eta, bestalde, gogoan izanik udal horrek berak 1994an alkatearen dekretu batez errekeritu ziola isuriak eragiten zituen jabeari arazo hori konpontzeko, Ararteko honek honako gomendioa egin zion Udalari: alkatearen dekretu baten bidez ebazpena egin eta errekerimendua egin ziezaiola jabe horri udal txosten teknikoan proposatutako neurrietako bat har zezan halako epe batean.

Getxoko Udalak oso-osorik onartu zuen Arartekoaren gomendioa, eta, horrenbestez, kexa honi zegokion espediente itxi eta artxibatu egin genuen, salatutako arazoa laster konponduko zelakoan.

### **3.9.3. OFIZIOZKO JARDUERAK**

*Sarrera-arranparik gabeko autobusak erostea hiriko garraiorako (4/95/OF)*

Komunikabideen bitartez jakin genuen Donostiako Udalak hartutako erabaki baten inguruan sortu zen arazo baten berri; izan ere, esandako erakundeak hamar autobus erosi zituen hiriko garraio zerbitzurako, baina ibilgailuek ez zeukaten elbarrien sarrera errazteko arranparik, eta horregatik ofiziozko ikerketa bati ekitea erabaki genuen, Ararteko erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/85 Legeko 17.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hortaz, kontutan izan behar da Konstituzioko 49. artikularen arabera herri-ginteez derrigorrez hartu behar dituztela aintzat elbarritasun arazoak, zentzumenezkoak edo psikikoak dituzten pertsonak, behar duten atentzioa eta laguntza emanez eta bereziki babestuz, Espainiako Konstituzioak hiritar guztiei aitortzen dizkien eskubideez baliatzerik izan dezaten. Horiek horrela, pertsona guztien berdintasuna lortzeko jomugarekin, Arartekoak Donostiako Udalarari gomendioa luzatu zion. Bertan eskatzen zitzaion alda zezala hartutako erabakia, hiriko garraiorako autobusetan esandako elbarritasunak edo bestelako behar bereziak dauzkaten pertsonen ere erabiltzeko erraztasunak emanez; gure ustez, horretarako egokiena ibilgailuetan sarrera-arranpak ipintzea izango zela ere esan genuen gomendio horretan.

Horren ondoren, Donostiako Tranbia Konpainiaren Administrazio Batzarra bildu eta, azkenik, elbarrientzako sarrera errazteko arranpak zituzten plataforma baxuko hamar autobus berri erostea erabaki zuten.

Hartutako erabakia eskertu eta gero, Arartekoak amaitutzat eman zuten auzi honetan izandako eskuhartzea.

*Elbarri batek autobus egokitu batean sartzeko izandako arazoak (14/95/OF)*

Elbarri batek egunkari batera bidalitako gutun baten bitartez jakin genuen pertsona horrek arazoak izan zituela Donostia-San Pedro zerbitzua egiten zuen autobusean sartzeko, gurpil-aulki elektronikoa erabiltzen zuelako bere kasa mugitu ahal izateko.

Pertsona horren salaketaren arabera, elbarri-aulkietarako arranpa jaisteko eskatu zuenean, autobuseko gidariak ez zuen operazio hori egin nahi izan ez omen zekiela nola egin; inoiz ere ez omen zuen azaldu pertsona horri autobusera igotzen laguntzearen aldeko jokoerarik, eta elbarriak beste pertsona batzuei eskatu behar izan zien horretarako laguntza.

Gainera, bidaia amaitu zuenean, beste horrenbeste gertatu omen zen, gidariak ez zuelako arranpa jaisteko sistema martxan jarri, eta beraz salataileak beste pertsona batzuen laguntza eskatu behar izan zuen berriro autobusetik jaitsi ahal izateko.

Gertaera horren salaketaren berri izatean, Arartekoak Gipuzkoako Garraio eta Errepide Foru Diputatuarengana jo eta eskatu zion iker zezala zer gertatu zen pertsona horrekin, bai eta esan ere ikerketa horren emaitza jakin nahi zuela.

Esandako foru erakundeak jakitera eman zigun 1993az geroztik elbarri-aulkietarako sarrera-arranpak dauzkaten plataforma baxuko ibilgailuak erosteko politikari ekin ziotela, eta 10.500.000 pezetako dirulaguntzak eman ere eman dituztela, kontzesionarioek era honetako sistemak dituzten autobusak ipin ditzaten lehenagokoen ordez.

Gainera, haien adierazpenaren arabera, ibilgailu horiekin bidaiari-garraio erregularren erabilera bultzatu nahi zuten, mugikortasun murrizteko pertsonen sarrera erraztuz, gero eta gehiago direlako, eta gurpil-aulkian mugitzen diren pertsonen garraio publikoak erabiltzeko erraztasunak emanez.

Ziotenez, bazekiten halako arazo batzuk bazeudela, prentsan azaldutako albiste batzuen arabera, autobusek zorua nahiko baxu edukita plataformak trabatu eta tresneria matxuratu egiten delako; gainera, gauzak are gehiago larritzeko, espaloien altuera homologatu gabe dago eta horregatik batzuetan arazoak gertatzen dira plataformak edo arranpak beraietan finkatzeko orduan.

Hala eta guztiz ere, esandako arazoei aurre hartzearren, plataformak egoera onean edukitzeko neurriak hartzea eskatu omen zieten kontzesionarioei, bai eta azaldu ere kontzientziazio lana egin beharko zutela beren enplegatuen artean ibilgailuon helburuak egokiro bete ahal izateko.

Gauzak horrela, foru erakunde horrek esan dugun arazoa konpontzearren hartutako neurriak ikusita, Arartekoak bukatutzat eman zuen kasu honetako jarduera.

*Bidegurutze bateko arriskuak konpontzeko egin beharreko obrak (28/95/OF)*

Ofizioz, kexa espediente bati ekin genion, ikusi genuelako N-240 autobian, Legutio bidean, abiada gutxitzeko karril bat dagoela stop seinale batez araututa, Gasteiza doan trafikoa gainditu eta Goiaingo Industrigunera sartzeko. Langileak lantegietara sartzeko orduetan, industrigunera doan bidea hartu nahi duten ibilgailuak abiada gutxitzeko karrilean ahal baino gehiago pilatzen dira eta, horregatik, galtzadak dituen bi karriletako ezkerrekoaren zati bat ere okupatzen dutenez gero, istripuak gertatzeko arriskua handia da.

Eusko Jaurjaritzaren Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Sailari argitasunak eskatu ondoren, erakunde bietako arduradunek onartu egin zuten arrisku horiek benetakoak direla.

Hari horretatik, Ertzaintzaren Bidezaingo Unitateak neurriak hartu ditu dagoeneko esandako bidegurutzea zaintzeko, eta, gainera, Arabako Foru Aldundiak ere dagozkion administrazio neurriak hartu ditu goi-pasabide bat eraikitzeko; horregatik, espediente besterik gabe itxi eta artxibatu genuen, arazoari ulean uneko eta egitura mailako konponbidea eman zitzaiola ikusi ondoren.

### **3.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA**

#### **3.10.1. SARRERA**

Alor honetan, guztira 85 kexa jaso ditugu, hau da, guztien artetik %7,3.

Azpisailen banaketaren arabera, sail hau osatzen duten kexak honela banatzen dira:

- Osasuna .....	49
- Gizarte Ongizatea .....	36

Eragindako administrazioei dagokienez, honela banatzen dira kexa horiek:

- Eusko Jaurlaritza .....	49
- Foru aldundiak .....	30
- Udalak .....	8

Osasun alorrari buruz aurkeztu zaizkigun kexetako asko informazio eskubidearen ingurukoak ziren.

Informazio eskubidea berez ez da helburu bat, bitarteko bat baizik; izan ere, eskubide hori informazio hutsaz kanpoko beste helburu batzuk lortzeko ezinbesteko baldintza izaten da askotan. Esate baterako, eskubide hori oso garrantzitsua da osasun eskubidearen inguruko gora-behera batzuetarako, erabiltzaileen eskubideei buruzko katalogoan eman zaion lekuak frogatzen duen bezala.

Gastuak itzultzeko eskariei emandako ukoari buruzko kexetako batzuetan ere agertzen zaigu osasun alorreko profesionalak ez dutela beharrezkoa zen halako edo holako informazioaren bat eman eta horregatik gertatu direla arazoak. Horrela, adibidez, paziente batzuek, eman zaien tratamendurekin edo diagnostikoarekin ados ez zeudelako, osasun sistema pribatura jo dute eta gero gastuak Administrazio publikoak beraiei itzultzea eskatu izan dute, baina seguru aski ez zuten beste sistema horretara joko bigarren iritzia edukitzeko eskubidea zutela jakin izan balute.

Beste kexa batzuetan, ordea, hiritar batzuek eman zaien tratamendua ez zela egokia edota zabarra zela salatu dute. Hauetako askotan, norberaren prozesuari buruzko argibide egokiak jasotzeko eskubidea behar bezala ez dela bete ikus dezakegu.

Osasun alorreko administrazioak dauzkan baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko egiten dituen ahaleginek nolabait azal ditzakete kexa batzuen bidez ezagutu ditugun ekintza oker batzuk. Kasu hauetan, gaizki aplikatuta zegoen Administrazioak halako paziente bati emandako asistentziaren gastuak horiek ordaindu behar dituzten hirugarrenei pasatzeko daukan eskubidea. Hauetan, ospitaleak eraso fisikoak jasandako pertsona batzuei fakturatu zizkien gastuak, ordainketa egin behar zuena (erasotzailea) aurkitzea zaila zelako. Antzeko jarrera aurki dezakegu, orobat, eskola-asegurua oker eskatu den kasu batzuetan, dagokion irakaskuntza mailan ez delako derrigorrezkoa aseguru hori.

Gizarte ongizatearen alorrean jaso ditugun kexek oso lotura handia izan dute aiton-amonen egoitzei eta etxez etxeko laguntza zerbitzuei buruzko gure txostenetan aipatzen ditugun arazo batzuekin. Kexa askotan salatu dira, adibidez, dauden baliabide urriak, zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu behar dituzten prezioei edota ordainketa egin behar duten pertsonen buruzko irizpide garbirik eza, edota laguntza zerbitzuak erabili ahal izateko irizpideen erabilera.

Bukatzeko, azpimarratu nahi dugu batzuetan denbora gehiegi behar izaten dela laguntza eskariak onartzeko, kexa batzuetan ikusi dugun bezala. Kontutan izanik zertarako diren laguntza horiek, garbi dago eskari horiek bizkor bideratu behar direla.

### 3.10.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK

#### 3.10.2.1. OSASUNA

*Pazienteaz arduratzeko dauden zerbitzu batzuen isiltasun administrati-  
boa (477/94)*

Sendagile-kontsultarako ordua aldatu ziotela-eta, Osakidetzaren zerbitzuen jarduerarekin konforme ez zegoen pertsona batek erreklamazio idatzi bat aurkeztu zion Paziente eta Erabiltzaileak Atenditzeko Zerbitzuari (PEAZ delakoari). Zenbait hilabete geroago, inolako erantzunik jaso ez zuenez gero, gure erakundera jo zuen.

Lehenago ere jaso ditu Arartekoak era honetako kexak, zeinetan hiritarrak kexu baitira ez dietelako inolako erantzunik eman halako zerbitzu bati idatziz helarazitako planteiamenduei. Horregatik, Arartekoak Osakidetzari aditzera eman zion honelako kasuetan pazienteak zalantzatan jartzen duela bere iritzia entzunarazteko formalki antolatuta dauden bideen balioa, eta ezinean sentitzen dela administrazio zerbitzuaren aurrean. Erakunde honen iritziz, beti erantzun behar zaie erabiltzaileek egoki den moduan aurkezten dituzten kexei, Osasun Sailburuaren 1990eko ekainaren 19ko Aginduaren 14. artikuluan adierazten den bezala.

Gure adierazpenari erantzunez, Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiak zirkular batzuk bidali zituen barruti bakoitzeko zuzendaritzetara, jakitera eman ziezaieten lurralde horietako PEAZei derrigorrez erantzun behar ziotela jasotzen zituzten erreklamazioei.

*Arazo administrati-  
boa, osasun laguntza emateko atzerapena (10/95)*

Erakunde honetara jo zuen pertsona baten arabera, bere semeari ebakuntza egin behar zioten Nafarroako Autonomia Erkidegoko erietxe publiko batean, bertara bidali baitzuen Osakidetzak, baina ebakuntza hori atzeratzen ari zen bi erkidegoetako osasun zerbitzuen arteko koordinazio faltagatik.

Pertsona horrek zioenez, semeari ebakuntza egin behar zion erietxeak horretarako baimena emana zuen, baina gastuei buruzko argitasun batzuk eskatu omen zizkion Osakidetzari, eta honi ez zitzaion beharrezkoa iruditzen horrelakorik egitea. Hartara, gazteak behar zuen osasun laguntza atzeratzen ari zen.

Erakunde honek Osakidetzara jo zuen, kasu honen berri izateko. Jakinarazi zigitenez, Nafarroako erietxe hura Osasun Sistema Nazionalean sartuta egonda, ez zitzaion bidezkoa iruditzen erietxe horrek Osakidetzara bezalako osasun-erakunde publiko bati egitea faktura, eta horregatik ez zituzten eman nahi eskatutako argitasunak.

Hala ere, auzia nolabait konponbidean jartzearen, Osakidetzak idatziz jo zuen Nafarroako erietxe horretara, gastuak bere gain hartzeko prest zegoela adieraziz, eta horren ondoren gazteari berehala egin zioten behar zuen ebakuntza.

*Osasun laguntza emateagatik eskatutako ordaina (175/95)*

Osasun sistema publikoko erietxe batek emandako laguntzaren gastuak eskatu zizkiela-eta, pertsona batzuek kexa aurkeztu zioten Arartekoari. Pertsona horiei sendatu zitzaizkien lesioak beste pertsona batzuek eragindakoak zirelako jokatu zuen erietxeak era horretara.

Ararteko erakundearen iritziz, emandako laguntzaren gastuak erreklamatzeko eskubidea kasu honetan aplika daiteke hain zuzen erasotzaileak biktimari eragin dion kalteagatik, eta horrek aukera ematen duelako erasotzailearen aurkako auzietan alde interesatu bezala aurkezteko. Dena dela, lege eta arauen arabera ez da bidezkoa erasotzailearen ordez biktimari eskatzea gastuen ordainketa.

Horiek horrela, Osakidetzari gomendatu egin genion zegozkion agindua eman zitzala horrelako kasuetan, hau da, pertsona bati osasun laguntza ematen zaionean beste batek eragindako lesioengatik, gastuen ordainketa kaltea egin duenari eskatzeko, eta ez osasun laguntza jaso duen pertsonari.

Gertaera horren berri jakin ondoren, Osakidetza zuzendari nagusiak ontzat hartu zuen Arartekoaren gomendioa, eta egoera oker hori konpontzeko agindua eman zuen.

*Sendagile berrien izendapena eta informazio eskubidea (61/94)*

Auzo-elkarte batek kexa aurkeztu zigun, osasun zentro batean sendagileak berriro izendatzeko moduagatik.

Auzo horretan etxebizitza batzuk eraiki ondoren, hango osasun zentroak biztanle multzo handiagoari eman behar zion atentzioa. Horregatik, beste sendagile bat ipini zuten, eta, ondorioz, sendagileak berriro banatu behar izan zituzten osasun txartel indibidualetan. Aldaketa hori gutxi gora-behera 1.500 pertsonarekin egin zuten, ofizioz, haiei aurretiaz ezer esan gabe.

Kexa eragin zuen arazoa azkenik konpondu zen arren -aldaketa izandako pertsonetako batzuek berriro eskatu zuten sendagilea aldatzea-, Arartekoak horrelakoetan erabiltzen den prozedura zein den jakin nahi izan zuen.

Osakidetza Zuzendaritza Nagusiak bidali zigun txostenaren arabera, prozedura bat baino gehiago erabiltzen ziren.

Zentro eta barruti batzuetan, erabiltzaileei bai ematen zaie argitasunik haiengan eragina duten gertakariei buruz, bai eta hartutako neurriei eta haien esku dauzkaten aukerei buruz ere, eta aditzera ematen zaie sendagilea aukeratzeko eskubideaz balia daitezkeela. Aitzitik, beste batzuetan, adibidez kexa hau eragin zuen kasuan, ez da aldaketei buruzko argibiderik ematen, baina ofiziozko banaketan kontutan hartzen dira halako faktore batzuk, familia berari sendagile berbera ipintzea, esate baterako.

Osakidetza onartu egiten zuen txosten horretan era horretako gauzak zuzendu behar direla, eta, asmo horrekin, agindu bat atera zuen, erabiltzaileari sendagilea aukeratzeko eskubideaz baliatzeko behar duen informazioa errazteko, osasun zerbitzuak erabili baino lehen ere.

**Agindu horrekin aurrerapauso nabaria eman zen Administrazioaren ekinztetan informazio eskubidea bermatzeko, eta horregatik, kexa aurkeztu zigun elkarteari honen guztiaren berri eman ondoren, espedientea artxibatu egin genuen.**

*Eskola-asegurua eta ikasleei ematen zaien osasun asistentziaren gastuak (171/95)*

**Lehen hezkuntzako ikasle batzuk osasun zentro batera eraman zituzten eskola orduetan jasan zuten istripu batengatik. Horregatik, asistentziaren estaldura zela eta, eskola-asegurua ziurtagiria eskatu zieten ikasleak bertara eraman zituztenei.**

**Kasu honetan, kexa Bizkaiko ikasle-guraso elkarte batek aurkeztu zuen, baina ez istripua jasan zuten ikasleei eman zitzaien asistentziagatik, eskola-asegurua eskatzeagatik baizik.**

**Berez, zuzena da Osakidetzak emandako asistentziaren gastuaren ordainketa eskola-aseguruari eskatzea, eta hainbat arautan jasota dago, osasun laguntzaren antolaketari buruzko 63/1995 Erret Dekretuan, adibidez.**

**Hortaz, ordainketa hori beste bati -kasu honetan, ikasleen eskola-aseguruari eskatzea arauzkoa dela ziurtatu ondoren, aztertzeke zegoen noraino iristen den aseguru horren derrigorrezkotasuna unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan.**

**Bada, hortxe zeukan oinarria kasu honetako kexak; izan ere, Osakidetzari geroago eskatu zitzaion beste txosten batean onartzen zen bezala, eskola-asegurua ez zen derrigorrezkoa kasu honetako ikasleen irakaskuntza-mailan.**

**Horren ondorioz, Osakidetzaren zuzendari nagusiak osasun zentro eta erietxe guztietako zuzendaritzei aditzera eman zien zein arauen arabera jokatu behar zuten eskola-asegurua inguruan, kexa hau eragin zuen egoeraren antzekorik ez gertatzeko. Horrenbestez, guraso elkarteak aurkeztu zigun kexaren ondorioz hasi genuen ekimena amaitutzat eman genuen.**

*INSERSOren hirugarren adinekoentzako opor egitarauko postuen banaketa (819/95)*

**INSERSOk 1995-96 urterako zeukan Hirugarren Adinekoentzako Opor Egitarauko postuak banatzeko moduari buruzko kexa batzuk jaso genituen erakunde honetan.**

**Postu horiek baimendutako bidai-agentziei eskatu eta epea 1995eko irailaren 27an ireki zen, goizeko 10etan, programa informatiko baten bidez agentzia horiek eta INSERSO konektatu ondoren.**

**Kexagileen arabera, konexioa egin eta epea ireki zenetik ondoko minutuaren barruan postuetako asko beteta zeuden, zehazki 1996ko apirilaren 11an eta 25ean Mallorcara joateko Arabarako zeuden guztiak. Pertsona horien ustez, ezinezkoa zen hain denbora laburrean horrelakorik gertatzea, eta horregatik pentsatzen zuten seguru aski agentzia batzuek epea ireki baino lehen ere onartu zituztela eskaerak, beraien txandaren zain hainbat ordu itxaroten egon zirenen kalterako. Bertako komunikabideek ere antzeko iritzia azaldu zuten arazoaren berri eman zutenean.**



Berez opor egitarau honen antolatzailea Gizarte Arazoetarako Ministerioa bada ere, euskal aldundiek beren laguntza ematen dute finantzatzeko. Horregatik, eta kasu hau argitzeko interesa geneukanez gero, Arartekoak argitasunak eskatu zizkion Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Sailari, hirugarren adineko pertsona askori zegokion arazoa zelako berau.

Labur esanda, honako hau izan zen esandako foru sailak eman zigun erantzuna:

A) Alde batetik, aipatu ditugun susmoak gezurtatu zituen, esanez posible zela postu horiek hain denbora laburrean agortzea. Izan ere, esan zuten, aipatu ditugun irteera-egun eta oporlekura joateko Arabarako zeuden postuak 22 ziren gutxira; eta, bestalde, lurralde honetan egitarau barruko postuak saltzeko baimenduta zeuden agentziak ere 22 ziren. Hortaz, nahikoa zen agentzietako bakoitzak salmenta irekitzen zen momentuan postu bana saltzea denak berehala agortzeko. Gainera, agentziek terminal informatiko bat baino gehiago izaten dute, eta haietako bakoitzak 9 erreserba egin ditzake programan sartzen den bakoitzean, salmentak bizkortzearen.

B) Bestetik, opor egitarauko administrazio arau eta baldintza teknikoetarako orrian akats bat zegoen, onartu zuten, ez baitzegoen garbi debekatuta aurreinskripzioak egiteko aukera, berez hala behar zuen arren. Horregatik, bidai-agentzia batzuek aurreinskripzioak egin zituzten, eskatzaileen artean itxarokizunak piztuz, itxarokizun faltsuak hala ere, benetan postuak ezin zirelako erreserbatu 1995eko irailaren 27ko goizeko 10ak baino lehen, programa informatikoaren bidez.

Honen guztiaren ondoren, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Sailak aditza eman zion INSERSOri neurriak hartu beharko zirela ondoko urteetan horrelako aurreinskripziorik egiteko aukera galarazteko. Sailak esan zigunez, INSERSOrekin egin ohi dituen bileretan berriro azalduko du jarrera hori, eta beste proposamen batzuk ere egingo ditu opor sistema hau hobetzeko, berez konplexua izan arren oso onuragarria delako haien helburua diren pertsonentzat.

Gauzak honela, Arartekoak bere aginpidearen arabera auzi honetan parte hartzen jarraitzeko arrazoirik ez zegoela-eta, espedientea artxibatu egin zen.

*Laguntza eskaria ukatu diote beste administrazio batean aurkezteagatik, administrazio laguntzailea izan arren (674/94)*

Emakume batek gutxienezko dirusarrera bermatzeko sorospena eta beste pertsona bati laguntzeko sorospena eskatu zituen.

Eskari hori udalari egin zion, eta hortik Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailera bidali zuten, bera baita era horretako laguntzak erabakitzeko ahalmena daukana.

Emakumeak erakutsi zuen dokumentazioaren argitan, eskariari ezezko erantzuna eman zioten, garaiz kanpo egina zela esanez. Argudio hori agertzen zen eskariari ezezko erantzuna ematen zion foru aginduaren kontrako gorajotzeaz egindako ebazpenean: alegia, eskaria udaletxean garaiz aurkeztu zen arren, erakunde horrek ez zuela ahalmenik Bizkaiko Foru Aldundiarentzako idazkiak ondorio horietarako jasotzeko.

Arartekoak kexa hau onartzea erabaki zuen, bistan zelako eskaria epearen barruan aurkeztu zela udalaren oinarrizko unitatean, udalaren beraren ziurtagiri batean aitortzen zen bezala.

Ahalmenei buruzko argudioetan oinarrituta, eta azken zertzelada honi jaramonik egin gabe, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailak bere ustez laguntzaren ukapena zuzena zela erantzun zuen bere txostenean, 4 hilabeteko atzerapenarekin.

Txosten hori aztertu eta gero, Arartekoak egiaztatu ahal izan zuen ez zegoela oinarri sendorik esandako erabakia hartzeko.

Kexa hau onartzean, gure erakundeak kontutan hartu zuen era honetako laguntzen arauketan udalek ez daukatela inolako betekizunik ikuspuntu formaletik.

Hala eta guztiz ere, arrazoi soil horretan oinarritutako erabaki batetan ezin utz daiteke bazterturik udalek berez daukaten betekizuna, herri-aginte erakundeak direlako haiek ere.

Hortaz, formaltasunak gainditzearren, Arartekoak kasu honetako pertsonaren eskaria tramitera onartu behar zela adierazi zuen, hiritarrari nekez esan baitakioke kasu honetan foru aldundia edo udala administrazio «bakarra» ez direla.

Gainera, kontuan izanik kasu hauetan foru aldundiaren eta udalen arteko lankidetzaren gertatzen dela, askoz zentzu gehiagorekin esan daiteke Administrazioa bakarra dela administratuarentzat.

Hala, bada, gainontzeko kasuen aldean tratua desberdina gerta ez zedin, Foru Aldundiak bere txostenean aditzera eman zuen era honetako laguntza eskari guztietan hartu dela aintzat aurkezpene bere bulegoetan egin den data.

Hori horrela izanik, litekeena zen kasu honetan mesedezko tratua gertatzea hiritar honek aurkeztutako eskariarentzat. Hala ere, gainontzeko kasuekiko konparaketarekin aurrera jarraituz gero, berehala aurki zitezkeen ezaugarri desberdin batzuk kasu honi bestelako trataera emateko: adibidez, eskaria «galduta» egin zen udaletxean -udalak berak ziurtatu zuen bezala-, eta, ondorioz, epea kanpo aurkeztu zitzaion Foru Aldundiari.

Kontutan izan behar zen horixe zela kexaren arrazoia, eta kasu honetan bilatzen zena ez zela udaletxean egindako aurkezpenari Foru Aldundian egindakoaren balio berbera ematea, besterik gabe.

Adierazi ditugun gogoetabide hauetan oinarrituta, Arartekoak eskaria onartzeko gomendioa egin zion Bizkaiko Foru Aldundiari.

Txosten hau osatzen ari zen bitartean, arazo honek Gizarte Ongizate Saileko arduradun berrien erantzunaren zain jarraitzen du.

### 3.10.3. OFIZIOZKO JARDUERAK

*Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailak zerbitzu sozialen alorrerako onartutako laguntza eta dirulaguntza egitarau batzuetan atzeritarrei ustez emandako bazterkeriazko tratua (38/95/OF)*

Honako kasu honen berri jakin genuen gure erakundeko zerbitzuek etorkinei laguntzen dieten gobernu kanpoko erakundeekin dituen ohiko harremanetan

eta alor honetako aginpidea duten herri-administrazioen lanaren segimendua egitean: Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailak, martxoaren 29ko 42/1994 Dekretuaren bidez egin zuen laguntza eta dirulaguntzetarako deialdi irekian, atzerritarrei era honetako laguntzak emateko baldintza bezala haien jatorrizko estatuaren eta Espainiaren artean truke-harremana egotea eskatzen zen.

Baldintza hori bazterkeria dakarren neurria izan daitekeela kontutan izanda, argitasunak eskatu dizkiogu esandako foru sailari, baina orain arte ez dugu inolako erantzunik jaso.

## **KARTZELA BARRUKO DROGA-KONTSUMOARI ETA GAISOTASUN INFEKZIOSOEN KUTSAPENARI BURUZ ARARTEKOAK EGINDAKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUNAK**

Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera aztertzeko egindako bisitaldietan kartzela barruko droga-kontsumoari buruzko zenbait kexa jaso ziren.

Kexa hauek aztertu eta gero Arartekoak erakunde arduradunengana jo zuen honako hau adieraziz:

«Agur t'erdi:

Joan den urriaren 19an, erakunde honek Martuteneko espetxera bisitaldi bat egin zuen, hango presoekin elkarrizketa batzuk egitearren; egun hartan, intsumiso taldearen ordezkari bat elkarrizketara etorri zen eta ondoko egunean Presoen Zaintzarako Epaile andreaki aurkeztu behar zioten errekurtsio-kexa baten kopia eskuratu zigan; dokumentu horretan, kartzeletara xiringak sartzea debekatzen duten barne-arauak aldatzea eskatzen zen. Kexarekin batera, txosten zabal bat ere bazegoen, bai eta Basauri, Langraitz, Iruñea eta Martuteneko espetxeetako ehundaka presoren sinadurak ere, haien adostasun seinale gisa. Bestalde, eskari bat egin zioten Arartekoari txostenari erantsitako gutun batean: alegia, dokumentazioa irakurri eta ahaleginak egin zitzala haren berri zabaltzeko eta haien proposamenak aurrera ateratzen laguntzeko. Antzeko eskaria egin ziguten kolektibo bereko beste ordezkari batzuek, Basauri eta Langraizko espetxeetan geroago elkarrizketa egin genienean.

Beste alde batetik, joan den uztailetik hona, erakunde honek hainbat bisitaldi egin ditu gure Erkidegoko espetxeetako presoen egoera hobeto eza-gutzeko eta hobekuntzak proposatzeko asmoz. Ikustaldi horietan, hiru espetxeetako ehun preso baino gehiagorekin hitz egin dugu, eta solasaldi horietako gehienetan azaltzen zen drogaren arazoa, eta, batez ere, kartzelan xiringa gutxi dagoenez gero, gaisotasunak kutsatzeko arriskua; haien ustez, hori da kartzeletako arazo latzenetariko bat. Batzuek arazo pertsonala dela uste dute, baina beste batzuek, aldiz, lekuko gisa ikusten duten arazoa, egunero aurkitzen dutena beren ondoan.

Egindako elkarrizketa ugarietan jaso dugun informazioaren arabera, honi dagokionez, gure Erkidegoko espetxeetako egoerak honelako ezaugarriak ditu:

- . kartzeletan droga ugari dago;
- . nahiko erraza da droga eskuratzea;
- . preso asko drogaren inguruko arazoengatik daude kartzelan;
- . kartzela barruan, asko dira droga kontsumitzen jarraitzen duten presoak, kasu askotan zainetatik sartuz; hau da, asko dira zainetaratu egiten den droga kontsumitzen duten presoak;
- . presoen arteko portzentaia handi samarra HIESduna da;
- . preso hauek oso xiringa gutxi dauzkate, eta horregatik dauden apurrik elkarbanatu eta behin eta berritan erabiltzen dituzte, edota droga zainetartzeko sistema txar eta arriskutsuagoez baliatzen dira;
- . erabilera horien ondorioz, gaisotasun infektuzkoak (HIES, hepatitis, tuberkulosia...) kutsatzeko arrisku handia dago, batez ere kontuan hartuz kartzeletako masifikazioa eta haietan aurkitzen den osasun eta higie egoera;
- . egoera horren eraginez, presoen arteko harremanetan ere arazoak sortzen dira (presioak, mehatxuak, borrokak...);
- . egitarau alternatiboetan edo arriskua gutxitzeko egitarauetan (metadona...) parte hartzeko arazoak daude.

Eman dugun ikuspegi honetan hainbat zehaztasun sar genitzake, aldeak baitaude kartzela batetik bestera, bai eta espetxe beraren barruko modulo batetik bestera ere. Dena dela, jaso ditugun lekukotasun guztiak bat etorri dira esan dugun honetan, eta ez bakarrik elkarrizketatu ditugun presoek berek eman dizkiguten azalpenak, baina baita espetxeetan lan egiten duten profesionalak (sendagileek, hezitzaileek, terapeutek...) emandakoak ere.

Bestalde, garbi dago nolako zailtasunak dauden kartzela bezalako leku batean xiringak sartu edo trukatzeko egitarau bat aurrera ateratzeko, behar den bezalako zabaltasunarekin gainera. Horretarako lege edo arau aldetik dauden arazoak, bai eta era honetako ekimen baten alde on eta txarrak behin baino gehiagotan jorratu ditugu Ararteko erakundeko kideek gure Erkidegoko hiru espetxeetako lantalde profesionalekin egin berri ditugun bilera eta eztabaidetan.

Dena dela, arazoak nabarmentzen diren bezala, garbi utzi behar da kartzela bezalako erakunde itxi batek aukera egokia eskain dezakeela osasun eta gizarte laguntza emateko beraren ezaugarri soziodemografikoengatik gabezia handiak izan dituen pertsona multzo bati (gehienak gazteak dira, ikasketarik gabeak edo kultur ezagutza gutxikoak, lanik gabeak, famili arazoak dituztenak, etab.). Egoera latz horietan bizi diren pertsona horietako askorentzat, kartzela zenbait egitarau ezagutu eta haietan parte hartzeko eduki duten lehen aukera izan daiteke, edo beharbada tratamendua jasotzeko edo beraien osasunerako arrisku gutxiagoko ohiturak berenganatzeko aukera bakarra.

Izan ere, kartzeletan xiringak banatzea ez da berez helburu bat, bitarteko bat baizik, jakina; hau da, kartzelan dauden pertsonen osasuna zaintzeko eta zenbait ohiturak dauzkaten arriskuak ahalik eta gehien murrizteko modu bat, hori baita lortu nahi den helbururik funtsezkoena.

\* \* \* \* \*

Horiek horrela, ez dugu eztabaidatzen hasi nahi espetxeak drogarik gabeko leku bihurtzeko aukerarik badagoen ala ez, edo hori komeni den ala ez, batez ere gure kartzeletako egoera zein den jakinda; gainera, ondo dakigu eragin handiko arazoa dela hau -jende asko ukitzen duelako, eta funtsezko eskubide batzuk (osasuna eta bizitza) jokoan daudelako-; horregatik, Ararteko honek arazo honen irtenbidea bilatzen lagundu nahi du, eta horretarako honako gomendio eta iradokizunak egiten ditu:

1. Presoentzat egiten diren ekintza guztiak zintzotasun osoz errespetatu behar dute **osasun eskubidea**, pertsona bati ezin baitzaio eskubide hori mugatu kartzelan dagoelako, Konstituzioko 15. eta 25. artikuluek dioten bezala; eskubide hori pertsona guztiak dute, eta, beraz, baita drogamenpeko edo HIES gaitza dutenek ere, eta horregatik pertsona horiek eskubide osoko hiritartzat hartu behar dira, berez horixe direlako.
2. **Presoen bizitza eta osasuna zaintzea** administrazio penitentiarioaren betebeharra da ezer baino lehenago, Lege Penitentiario Orokorren hirugarren artikulua dioen bezala.
3. Arazoaren handitasuna eta dauden baliabideen urritasuna ikusita, konponbidea ezin da sistema penitentiarioaren gain bakarrik utzi; aldiz, **hainbat administrazioen ahalegin bateratu eta osagarria behar da** (osasun eta gizarte alorretakoena, autonomikoena), **eta gizarteko beste maila batzuen lankidetz handia ere** (gobernu kanpoko erakundeena, esate baterako).
4. Presoen osasun eskubidea benetan gauzatzeko modua egon dadin, eta kartzeletan drogarekin eta HIES gaitzarekin dagoen arazoaren erantzun gisa, Munduko Osasun Erakundeak (Kartzeletan HIES gaitzari aurre egin eta kontra egiteko neurriei buruzko kontsentsu-bilera. Geneva, 1987ko azaroak 16-18; eta Global Programme on AIDS. Who guidelineez on HIV infection and AIDS in prisons. Geneva, 1993ko martxoa) jarritako irizpideei jarraitu behar zaie, egitarau eta bitarteko jakin batzuk abian jarritz, beti ere kontutan hartuz ondoko irizpide nagusia: **«Nazio bakoitzean HIES gaitzaren aurka antolatzen diren egitarauetako jarraibide orokorrak komunitate guztiarekin bezala aplikatu behar dira kartzeletan».** (Adostutako adierazpenaren c. atala.)

5. Jakina den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan **prebentziozko egitarau alternatibo batzuk jarri dira martxan** azken urte hauetan, droga-kontsumoak eta gaisotasun kutsagarrien hedapenak dakartzaten **arriskuak gutxitzeko**: esate baterako, metadona kontrolpean banatzeko egitaraua, edo xiringak trukatzekoa.
6. Gure Erkidegoan aurrera eraman diren egitarau horien garapenari buruzko **balorazio orokorra** -egitarauen ardura izan duten erakundeek berek jakinarazia-, bai eta lortutako emaitzei buruzkoa ere, oso **positiboa** izan da, eta horregatik beste esparru batzuetan -kartzelan, adibidez- ere sartu edo zabaldu beharko lirateke egitarau horiek.
7. Gure artean egin diren ikerlan guztien arabera, **xiringak elkarbanatzea** gaur egun HIES gaitza eta beste gaisotasun batzuk odolaren bidez kutsatzeko **arrisku-faktorerik handiena** da; horregatik, Arartekoaren ekimen hau eragin duen proposamena bezalakoak kontutan hartu eta aztertu egin beharko lirateke gutxienez.
8. **Kartzelan xiringak trukatzeko egitarau bat martxan jartzeko aukera ezin da aldeztetik baztertu**, Munduko Osasun Erakundeak aitortzen duen bezala, honakoa esaten duenean: hots, «segurtasun neurri hain zorrotzak ez dauzkaten espetxe batzuen kasuan, komenigarria izan daiteke orratz hipodermiko esterilizatuak banatzeko aukera aztertzea».
9. Era horretako egitarau bat martxan jartzeko orduan, ondo ateratzeko **baldintza guztiak zaindu eta behar diren bitarteko guztiak ipini behar dira**: zentro barruko harremanen ezaugarriak, kartzela inguruko biztanleentzako informazioa, lantalde profesionalen partaidetza, erakunde laguntzaileen elkarlana, egitaraua burutzeko baldintza esperimentalak...; hori dela eta, beharrezkoa izan daiteke fase desberdinetan zehar banatzea, edota esperimendu gisa ekitea egitaruari, baina hori ezin da egitaraua baztertzerko aitzakia moduan erabili, hura abian jarritz bakarrik jakin baitaiteke nolako emaitzak dauzkan.
10. Gure datuen arabera, **Martuteneko kartzelak** dituen ezaugarrietatik (tamaina, presoen tipologia, harremanak, lantalde profesionalen jokamoldea, baliabideak, gizarteko kolektiboen partaidetza...), aukerako lekua izan daiteke xiringak aldatzeko egitarau bat esperimendatzeko; horretarako, barne-arauak aldatu, eta Eusko Jaurlaritzak gaur egun sustatzen duen xiringa-aldaketarako egitarauetan sartu beharko litzateke.

11. Xiringak edota zainetaratze-tresna antzuak erabiltzeko aukera kontutan hartu arren, ezin da ahaztu badirela **beste alternatiba batzuk ere, beharrezkoak direnak eta erabil daitezkeenak kartzeletako osasun arazoak gutxitzeko; esate baterako: osasunerako heziketa, drogarik gabeko egitarauak, kartzela zigorra zentro edo baldintza alternatiboetan betetzea (harrera-etxeak, eguneko zentroak, lanpostu babestuetan aritzea, famili-harrera...), drogari uzteko eta kalteak murrizteko egitarauak, drogagaiak sendagilearen kontrolpean banatzea, baldintzapeko askatasuna ematea gaisotasun sendaezinak dituztenei...**
12. Aukera eta bide horiek erabiliko badira, **informazio** zuzena eman beharko zaie presoek ahalbide horiei buruz, tratamenduak jasotzeko **motibazioa** bultzatu beharko da haien artean, eta **behar diren bitartekoak** ipini beharko dira; izan ere, informazioa, motibazioa eta bitartekoak egotea ezinbesteko baldintzak dira drogamenpekoen partaidetza lortzeko eta legearen arabera kartzela zigorrak izan behar duen bergizarteratzeko helburua bete ahal izateko.
13. Arazo hauek guztiak ezin dira ikuspegi bakar batetik begiratu; **diziplinarteko arreta** eskatzen dute, eta horrek dagokion islada eduki beharko luke espetxeetan lan egiten duten profesionalen arteko elkarlanerako dauden barne egituretan (Drogamenpekotasunei Aurre egiteko Taldeetan edo antzekoetan).
14. Espetxeetako lantalde profesionalaz aparte, **euskal administrazioaren menpeko zerbitzu batzuen eta gizarte barruko beste baliabide batzuen partaidetza ere beharrezkoa da** -elkarlanerako hitzarmenen edo bestelako bideen bitartez-, bai presoek osasun zainketa orokorrari eta gizarte ongizateari begira, bai presoek kartzelaratu aurrean edo ondoan zeuzkaten tratamenduekin jarraitzeko eta haien familiei laguntzeko ere.
15. Era honetako arazoei aurre egin eta horretarako behar diren egitarauak martxan jarri ahal izateko, beharrezkoa da herri-aginteak **gizarte zibila informatu eta kontzientziatzeko lan pedagogikoa egitea, gizartean dauden elkertasunaren aurkako iritzi edo jokamolde batzuk aldatzen laguntzeko.**

\* \* \* \* \*

Hortaz, kontutan izanda Ararteko honek bete behar duen egitekoa, hau da, euskal hiritarren eskubideak bermatzea eta administrazioak administratuen beharrizanei ematen dien erantzuna zuzena izan dadin zaintzea, erakunde honek:

**1. Azaldu ditugun gomendio eta iradokizun hauek helarazi nahi dizkie Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari eta Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantza Sailari; orobat, Justizia Ministerioarekin izenpetuta eta indarrean dauden akordioen ildotik, proposatzen die ahalik eta lasterren neurri egokiak har ditzatela, gure kartzeletako oraingo egoerak beraietan preso daudenen osasunerako dakartzan arriskuak murriztu ahal izateko.**

**2. Herriaren Defendatzaileari ere bidaliko dio txosten berezi hau, Administrazio Penitentziarioari eska diezaion, beharrezkoa iruditzen bazaio, behar diren neurriak hartzea.»**

Proposamen hau 1995eko abenduaren 1ean bidali genien erakunde arduradunei. Geroago, horietako gehienek proposamena onartu dutela erantzun diote Arartekoari, eta erakundearteko lantalde bat martxan jarri dela adierazi digute, gure Erkidegoko kartzeletako batean xiringak trukatzeko programa esperimental bat ezartzeko asmoz.

### **3.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA**

#### **3.11.1. SARRERA**

Arlo honetan 5 kexa aurkeztu dizkigute. Horietatik lau Lan sailari dagozkio eta bat Gizarte Segurantza sailari.

- Eusko Jaurlaritza ..... 4

Laneko arau-hausteengatik hasitako zigor prozedurei buruzko kexak Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza atalean sailka genitzakeen, arau-hausteei buruzko akten edukia eta, beraz, balioa ere auzitan jartzen direlako. Hala ere, hemen bildu nahi izan ditugu, akta horien berezitasunengatik: izan ere, lan mailako zein gizarte mailako arau-hausteetarako zigorren oinarri izan daitezke, eta administrazio desberdinei eragin, bai Autonomia Erkidegokoari, bai Estatuaren Administrazioari ere.

Gizarte Segurantzaren erregimenaren aldaketarekin, aldaketa batzuk gertatu dira erregimen berezian sartutako funtzionarioei ematen zaien osasun laguntzan. Aldaketa horiengatik kexa batzuk egon dira, funtzionarioek ordura arteko osasun laguntzarekin jarraitu nahi zutelako.

Gizarte segurantzaren alderdi berezi horretaz aparte, alor honetaz jaso ditugun kexen gaiak gure ahalmen-esparrutik kanpo zeuden. Dena den, Herriaren Defendatzaileari bidali dizkiogunean -izan ere, bera da-eta ahalmena daukan erakundea-, Ararteko honek gai horietaz daukan iritzia ere eman du.



### 3.11.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK

#### 3.11.2.1. LANA

*Arau-hausteei buruzko aktak eta egiazkotasun-balioa (578/95)*

Enpresa batek kexa aurkeztu zigun ez zietelako jaramonik egin bere arrazoibideei, zenbait zigor ezartzeko oinarri bezala erabili zen arau-hausteei buruzko akta errekurritu zuenean.

Kexa hau aztertzean, kontutan izan genituen, alde batetik, arau-hausteei buruzko akten egiazkotasun-balioa, eta bestetik akta horien eragin maila ere; izan ere, azken honi dagokionez, bai gizarte mailan, bai gizarte segurantza mailan ere izan dezakete eragina, eta, beraz, herri-administrazio desberdinak inplikatu akta berberaren auzian.

Arartekoak ontzat ematen du Administrazioaren jarrera, alegia arau-hausteei buruzko aktak egiazkotzat hartu behar direla. Hala eta guztiz ere, gure erakundearen arabera hori ezin da horrela izan akta horiek ez badituzte beharrezko baldintzak betetzen, eta kasu honetan horixe gertatzen zen, hain zuzen: izan ere, aktan ez zegoen behar adinako irizpide-oinarririk, aparteko orduen kopuru zehatza -zigorrek horregatik ezarri ziren- jakiteko.

Lan-ordu gehiegi egiteagatik zigorra ezarri ahal izateko, pentsa liteke haien kopurua zehaztea alferrekoa izan daitekeela benetan gehiegi direla egiaztatu ondoren. Baina enpresariak arrazoi horretan oinarrituta aurkeztu zituen arrazoi-bideak ukatzeko orduan ez zen kontutan hartu akten egiazkotasun-balioak beste esparru batzuetan ere bazeukala eragina: zehazki, gizarte segurantza alorreko arau-hausteei, ordaindu gabeko kotizazioengatik egin behar diren kitapen osagarriak baitaude.

Azken esparru honetan, bistan zen aparteko ordu kopurua zehaztea ez zela inondik ere alferrekoa. Gizarte mailako arau-hausteetarako zigorrei begira onartzen bazen aktaren balioa, ahaztu egiten zen arau-hausteei buruzko aktak izan behar duen batasuna. Irizpide hori erabili zuen Arartekoak, Administrazioak azaldutako egiazkotasun-balioari zegokionez.

Azkenik, arau-hausteei buruzko aktan oinarrituta egin zen gizarte segurantzaren kuoten kitapena dexente aldatu zen, salatutako arau-haustearen zehaztapena finkatzeko egin beharrekoak burutu ondoren.

#### 3.11.2.2. GIZARTE SEGURANTZA

*Erregimen bereziak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzea (519/94)*

Arabako miñoiak Ertzaintzaren mendera sartu ondoren, haietako talde batek kexa aurkeztu zigun gizarte segurantzaren erregimen orokorrean sartu zituztelako,

Ertzaintzako gainontzeko kideak bezala. Eusko Jaurlaritzaren esku geratu baino lehen, langile horiek Foru Elkarkidego baten bidez jasotzen zuten osasun laguntza.

Kexagileen arabera, Miñoigoa gizarte segurantzaren sisteman sartzea haien adostasuna eduki gabe Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 47/1992 Legeak Arabako Miñoigoko funtzionarioen gizarte-aurrikuspen erregimenari buruz daukan xedapen gehigarriaren kontra zihoan. Haien ustez, ez zegoen inolako arazorik haien eskaria onartzeko, Aldundiko funtzionarioek Foru Elkarkidegoaren bidez jarraitzen zutelako osasun laguntza jasotzen.

Nahi horrek arrazoikoa zirudielako onartu genuen kexa. Hala ere, zegokion espediente ireki eta gero, Arartekoak bertan behera utzi zituen ekintza guztiak, kexagileek administrazioarekiko auzi-errekurtso bat ezarri zutelako arrazoi berberagatik.

*Neskameak (412/95)*

Bizkaiko Neskameen Elkarateak egindako kexa bat jaso genuen erakunde honetan.

Haren bitartez, elkarateak Arartekoari bitartekaritza eskatzen zion, neskameen alorreko lan baldintzen hobekuntza orokorra lortzen laguntzeko.

Horrela, alde batetik, honako bi dekretu hauek indarrrik gabe uzteko eskatzen zuten: abuztuaren 1eko 1.424/1985 Dekretua, neskametzako lan-harreman bereziari buruzkoa; eta irailaren 25eko 2.346/1969 Dekretua, Neskameen Gizarte Segurantzaren Sistema Bereziari buruzkoa. Horretaz gainera, haien berezitasunak kontutan hartu behar dituen lan-arauketa berria eta Sistema Orokorrean sartuak izatea ere eskatzen zuten.

Beste alde batetik, epaile eta magistratuak abstenitu edo horiei uko egiteko auzi-legerian dauden arrazoen artean epaile eta magistratu horiek neskameak izatea sar dadila eskatzen zuten, neskameen auzi-erreklamazioak ebatzi behar dituztenerako; bestalde, lan-ikuskaritzak esparru honetan partaidetza eraginkorra izan dezala ere eskatzen zuten.

Kexa honetan azaldutako gora-beherak Arartekoaren ahalmen-esparrutik kanpo zeuden; izan ere, Herriaren Defendatzaileari zegokion horiek aintzat hartzea eta, bidezkoa izanez gero, kexa hori tramitatzea Estatuaren Administrazioan zegokion sailaren aurrean.

Hala ere, Arartekoari zuzena iruditu zitzaion halako gogoeta orokor batzuk helaraztea Herriaren Defendatzaileari, alor honetan EAEn egin diren ekimen batzuen azterketaren ondorioz, eta haien bidez erakunde horri ekimena erabakitzen lagunduko ziolakoan. Hona hemen Arartekoaren gogoetak:

«...Azaldutako lehen gaiari dagokionez, hots, neskameak dauzkaten epaile eta magistratuak abstenitzeko edo horiei uko egiteko arrazoi berezi bat sortzeari dagokionez, ez da beharrezkoa inolako arrazoibidea azaltzea, zeren eta Ararteko honen ustez horretarako nahikoak dira Epaibide Zibilaren Legeko 189. artikuluan jasota dauden arrazoi orokorrak; dena dela, aurretiaz halako ohar bat egitea komeni da, era honetako

enplegatuen gizarte-babesaren tratamenduan gutxienez aldaketa bat sartzeko premia azaltzearen.

Izan ere, bistan da badirela gai honetan bat ez datozen bi arauketa: batetik, irailaren 25eko 2.346/1969 Dekretua, Neskameen Gizarte Segurantzza Sistema Bereziari buruzkoa; eta, bestetik, abuztuaren 1eko 1.424/1985 Dekretua, neskametzako lan-harreman bereziari buruzkoa; eta hori horrela da bi arau horiek, konstituzioaren aurrekoa bata eta ondorengoa bestea, lan-harremani buruzko ikuspegi guztiz desberdinetatik prestatuta daudelako. Horrela, 1.424/1985 Erret Dekretua indarrean jarri zen arte, neskameen lana zerbitzu-alokera bailitzan hartzen zen. Horren ondorioz, jakina denez, 2.346/1969 Dekretuan jasota zegoen gizarte-babes sistema berezia ezin zen besteren kontuko langileentzako erregimena izan, eta, horrela, noizean behingo lana egiten zuten neskameak langile autonomoen pare geratzen ziren, aplikazio eta kotizazio betebeharreri zegokienez.

Neskametzak lan izaera daukala aitorturik 1.424/1985 Erret Dekretua onartu ondoren, ez dirudi salbuespenik edo tratamendu berezirik egin daitekeenik kontratu motagatik edo eguneko lanaldiaren iraupenagatik, nahiz eta egia izan halako langile batzuen babes maila dexente murriztuta gera daitekeela, lan-legedian egin berri diren aldakuntza batzuen ildo berari jarraituz.

Hari horretatik, ezin esan daiteke esparru juridikoan edo sozio-laboralean aurki daitekeenik inolako arrazoirik etxeko langileei tratu desberdina emateko gainontzeko langileen aldean, alor honetako langileek sistema berezia edukitzen jarrai dezaten.

Aitzitik, kasu honetan pentsatzen bada neskame-enplegatzaileentzat beste enpresari guztientzat bezalako betebeharrak ipiniz kontratuarekin ez luketela jarraitu nahi izango, edota Gizarte Segurantzaren diruzaintzan gestio-arazoak gertatuko lirатеkeela, horrek esan nahiko luke zera ahazten dela: alde batetik, kotizatu behar direnak benetan lan egindako orduak baino ez lirатеkeela -eta ez da puntu hau auzitan jartzen dena lan finkoa duten neskameen kasuan-; eta, bestetik, gestio-arazoak ezin direla jarri dauden eskubideen babes eraginkorra oztopatzeko argudio bezala.

Bestalde, neskametzak lan-harreman berezien artean sartzea justifikatzen duten arrazoiak ez doaz ezertan ere esan dugunaren aurka. Alderantziz, esparru honen berezitasunak ikusita, neskametzaren lan-harremani aparteko arauketa eman behar zaie, eta horregatik erantzun handiagoa eta hobe ere eskaini behar zaie sektore honen behar bereziei, bertan ezinezkoak direlako negoziaketa kolektiboak bezalako babes edo defentsa aukerak.

Gauzak horrela, eta kexako bigarren puntuan azaldutakoaren haritik, badirudi sektore honen berezitasunei eman zaien tratua berraztertu edo aldatu egin beharko lirатеkeela, hainbat abusu gertatu baitira haien eraginez, bai soldatekin, bai eguneko lanordu kopuruarekin ere.

Horrela, aipatzekoak dira soldata osotik mantenuagatik egiten den %45eko kenketa edota lanpostuan egon beharreko ordu kopurua,

1.424/1985 Erret Dekretuko 6.2 eta 7. artikuluetan finkatutakoa, hurrenez hurren.

Azkenik, komenigarria litzateke neskametz-lanetarako kontratuak idatziz egitera behartzea, horrela langile horien eskubideak hobeto babes daitezkeelako eta, gainera, erakunde honen iritziz, ikuskaritza-zerbitzuen ekintza eraginkorragoa izateko aukera egongo litzatekeelako, garbi dagoelarik hori bultzatu beharreko zerbaite dela.

Honaino egin ditugun oharretan oinarrituta eta Legeak gure erakundeei ezartzen dizkien betekizunak errespetatuz, arren eskatzen dizut azter dezazula komeni ote den Gobernuari eta Gorte Nagusiei iradokitzea beharrezkoak diren neurriak har ditzatela neskameen lan-harremanei buruzko egungo legeria aldatzeko, esandako zentzuan: alegia, neskameak Gizarte Segurantzaren sisteman sartzeko, eta, lan-harreman hori berezia izatean, eman behar den babes berezia areagotzeko.»

## 3.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

### 3.12.1. SARRERA

Alor honetan 81 kexa aurkeztu dira, eta beren edukiaren arabera honela banatzen dira:

- Etxebizitza .....	19
- Hirigintza .....	62

Joan den 1995. urtean, etxebizitza azpialorrari buruzko kexa gutxiago jaso genituen. Baliteke Administrazioaren jardura publiko txikia izatea horren arrazoiak: izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Hirigintza Sailak aurreko beste urte batzuetan baino etxebizitza gutxiago sustatu zituen.

Etxebizitza babestuei buruzko kexen gaiari bagagozkio, batzuek auzitan jartzen dute erosketa finantzatzeko laguntzen banaketa, hainbat alderditatik; beste batzuek, aldiz, baremoen araberako puntuazioan oinarrituta hartzen diren esleiketa erabakiak eztabaidatzen dituzte; azkenik, beste kexa multzo batean etxebizitza babestuen eraikuntza-akatsak salatzen dira.

Beste azpialorrean, hirigintzan alegia, kexagai nagusiak plangintza, hirigintza-diziplina eta hirigintza-oztopoak dira.

Plangintzari dagozkion kexetan sartuz, Arartekora jo duten hainbat eta hainbat taldek plangintzaren proposamen orokorrak jarri dituzte auzitan, edota haiengan eragin zuzena daukaten plan partzial edo berezien aurkako jarrera azaldu dute. Kasu horietan, Arartekoak nekez har dezake parte, auzitan jartzen direnak ez direlako legezketasun kontuak, komenigarritasun kontuak baizik; izan ere, kasu hauetan, Administrazioak -udalek, batez ere- ahalmen handiak dauzka.

Plangintzari buruzko beste kexetan, Udalak beraien jabetzako lurrei buruz

emandako hirigintza-informazioak argitu edo egiaztatu nahi izaten dituzte hiritarrek. Jaso ditugun beste idazki batzuetan, aldiz, lursailen jabeek protesta egiten dute ez daudelako ados plan orokorrak edo arau subsidiarioek beraien lurrei emandako sailkapen edo kalifikazioarekin.

Azpialor honen barruan, hirigintzak jaso ditu kexa gehienak, eta haien gaiak honako hauek dira: obrak egiteko baimenak ukatu izana; udalei egindako eskariak, partikularren batek betetzen-agindua bete ez dituenean exekuzioari subsidiarioki ekin diezaioten; edo udalbatzarren aurkako salaketak, haien gelditasunarekin inolako hirigintza-lizentziarik ez daukaten obrak onartzen ari direlako.

Azkenik, hirigintza eta arkitektura oztopoak ere kexagai izan dira behin baino gehiagotan, eta ofiziozko jarduerarik ere egin izan dugu horien inguruan, hiru aldiz egin ere: hain zuzen, mugikortasuna murriztuta daukaten hiritarrek jasaten dituztelako oztopo horiek. Ofiziozko jardura horien bitartez, Bilboko metroko eta Lamiakoko geltokietan, eta Topoaren Galtzarabordako geltokian (Errenterian) antzemandako sarrera-oztopo batzuk konpondu nahi genituen.

Elkarte batzuk izan dira gai honi buruzko kexak aurkeztu dizkigutenak, hain zuzen ere salatu nahi zutelako hirigintza eta arkitektura oztopoak desagertarazteko arauak ez direla behar bezala betetzen hainbat aparkaleku eta eraikin publikotan: adibidez, justizia administrazioaren egoitzetan, Ertzaintzaren eta udaltzaingoaeren zenbait lekutan, udaletxeetan...

### **3.12.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

#### **3.12.2.1. HIRIGINTZA**

*Balkoi baten legez kontrako itxiera desagiteko agindua: Udalak bete ez izana (809/93)*

Lasarte-Oriako biztanle batek salatu zuenez, Udalak ez zuen bete alkatetzaren agindu bat; horretan, beste biztanle bati baimenik gabeko balkoi-itxiera bat desegin zezala agindu eta jakitera eman zitzaion Udalak subsidiarioki botako zituela egindako obrak baldin eta agindua betetzen ez bazuen.

Udalak Arartekoari adierazi zionaren arabera, udalerrri hartan balkoi eta terrazak ixteko obra ugari egin dira, Udalaren derrigorrezko baimena eduki ez arren, eta horregatik ez zioten ekin alkatetzaren agindua betearazteari.

Arartekoak gomendio idatzi bat helarazi zion Lasarteko Udalari, erantzun gisa; idazki hartan, batetik legez kontrako itxieren ugalketak sortutako eragozpenak eta bestetik betearazpen subsidiarioak aurrera eramateko dauden arazo administratiboak aztertzen ziren. Dena dela, udalbatzarrari gogorarazi genion legez kontrako aurrekariak ez dutela behartze-indarrik eta, gainera, Administrazioa legezketasunaren jarraibide konstituzionala betetzera behartuta dagoela; azkenik, udal erabakiak bete eta betearazi behar dituen Alkatetza bera denez gero, onartutako dekretua Udalak subsidiarioki exekuta zezala eskatu genion.

*Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi batean kokatutako familia-bakarreko etxebizitza bat eraikitze lizentzietan eskatzen diren baldintzak (220/94)*

Arrigorriagako biztanle batek obra-lizentzia eskatu zion Udalari familia-bakarreko bi etxebizitza eraikitze bere lursail batean, berez lurra urbanizatu ezinezkoen artean sailkatuta egon arren. Pertsona horrek 80 hektarea inguru zituen, eta haietako 30etan espezie hostozabalak eta kiwi-arbolak landatuta zituen; gainera, ardiak ere ipini nahi zituen.

Lizentzia ukatzeko, Udala Bizkaiko Foru Aldundiaren foru aginduan oinarritu zen; izan ere, agindu horren arabera, era horretako lizentzietan derrigorrezkoa den aurretiazko txostena eman zuenean, Aldundiak uko egin zion familia-bakarreko bi etxebizitza eraikitze baimena emateari, hain zuzen ere bi eraikin horiek ez zirelako derrigorrezkoak eskatzaileak abian jarri nahi zuen nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategian.

Gainera, esandako foru agindu horretan Nekazaritza Sailaren txostenean azaldutako irizpide batzuk ere jasota zeuden; guk hona ekarri nahi izan ditugu, kasu hauetan hartu beharreko irizpide orokorrak direlako:

«Nekazaritza Sailaren irizpidearen arabera, ustiategi batean etxebizitza bat eraiki ahal izateko, ustiategiak bi era hauetako batekoa izan behar du: abeltzaintzako, etxebizitza beharrezkoa izanik ustiategiko titularra bertan egon dadin azizendak ume-egiteko daudenean edo haietaz ardura-tzeko beste eginbeharrekoetan; edota nekazaritza intentsibokoak, negutegiak adibidez, leku itxietako mikroklima kontrolatzeko bertan egotea beharrezkoa baita.

Irizpide horri jarraituz, era honetako ustiategiek gutxienez pertsona heldu baten eskulanaren beharra -hots, alor honetan, urtean 1.800-2.000 ordu inguru- eduki behar dute, eta ustiategiak lehenagotik egon behar du funtzionamenduan, etxebizitza kokatu baino lehen ere.

Kasu honetan, eskatzailearen ustiategia osatu gabe ere dago, eta eraldaketa-egitarau bat dauka etorkizunerako, baina, izatez, nekazaritzako eta basogintzako jarduera denez gero, ez da sartzen gure irizpideetan; abeltzaintza bakarrik har genezake aintzakotzat, baina oraindik ez da horretan erabiltzen, eta erabiliko balitz ere pertsona heldu baten urteko lanaren beharra eduki beharko luke gutxienez, hots: bataz besteko datuen arabera, 157 ardi eduki beharko lituzke.»

Lizentzia ukatzeko erabakian inolako irregulartasunik ez zegoela-eta, Arartekoak kexa artxibatu eta halaxe adierazi zien alde guztiei.

*Eraikin babestu bat zaharberritzeko legez kontrako lizentzia (500/94)*

Emakume batek salatu zigunaren arabera, Artziniegako Udalak herriko alde zaharreko etxe babestu bat zaharberritzeko obra-lizentzia bat onartu zuen. Zehaz-

kiago, altuera, material ezegoki, teiltupearen erabilera onargabe, beheko solairu eta abarri buruzkoetan hirigintza-arauak betetzen ez zirela salatu zuen.

Arartekoak argitasunak eskatu zizkien bai Udalari, bai Arabako Foru Aldundiaren Kultura Sailari -etxe-multzo monumentalara zelako- eta Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarerako Zuzendaritzari. Gainera, Artziniegara bertara joan zen, higiezinaren zer-nolakoak ezagutzeko.

Azterketa juridikoa egin ondoren, Udalari gomendio bat egin zion, arazoa korapilatsua zela azalduz, auzitan jarritako higiezina Artziniegako alde zaharreko etxe-multzo monumentalaren barruan sartuta zegoelako; bestalde, Justizia Auzitegi Gorenaren epai batek irdargabetuta utzi zituen Artziniegako Arau Subsidiarioak; gainera, lizentzia eman ondoren, Arabako Foru Aldundiak Artziniegako eta Erreta-Tuterako alde zaharren barne-erreformarako egitasmo berezia onartu zuen.

Gure azterketan ikusi ahal izan genuenez, Udalak ez zuen eskatu Arabako Foru Aldundiaren baimena, obra-lizentzia onartu aurretik beharrezkoa dena, Euskal Kultur Ondarerako Legearen 29.1 artikuluan agintzen den bezala.

Gainera, lizentzia onartzeko ekintzan bertan, hirigintza-arauak hautsi egin ziren, erabilerari, eraikuntzaren ezaugarrirei eta altuerari zegokienez. Hala eta guztiz ere, lizentzia eman zenetik lau urte igaro zirenez gero, Udala ekiteko epea kanpo zegoen.

Azkenik, Artziniegako Alkateari egindako gomendioan, Arartekoak gogoratu egin zion aurrerantzean lizentziaren bat onartzeko orduan derrigorrezkoa zela haren ekintzetan hirigintza eta kultur ondarearen babeserako legeetan esaten dena betetzea.

*Obra-lizentzietan, udalek teknikari proiektugileen gaitasuna kontrolatzeko beharra (561/94)*

Baserria zatitu eta bi etxebizitza egiteko udalaren obra-lizentzia lortu ondoren, emakume batek dirulaguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzari baserriaren barruko egitura aldatzeko.

Lurralde Ordezkaritzaren erantzunean, aditzera eman zioten goi-mailako arkitekto batek osatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar zuela dirulaguntza lortu ahal izateko, eta horregatik atzera bota ziotela berak aurkeztutakoa, industri injineru batek egina zelako.

Arartekoak, arazoa aztertu eta gero, Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzaren errekerimendua zuzena zela adierazi zion kexagileari; izan ere, goi-mailako arkitektoak dira, eta ez industri injineruak, etxebizitzak osorik konpontzeko proiektuak egiteko ahalmen aitortua duten aditu bakarrak.

Horretaz gain, aditzera eman zion udalek derrigorrez kontrolatu behar dutela obra-lizentziek eduki beharreko proiektuak osatzen dituzten teknikarien gaitasuna. Horregatik, gauzak zuzen egitearren, lizentzia onartzeko tramitean bertan, udalak eskatzaileari jakinarazi behar izango zion industri injineru batek eginiko proiektua ezin zela onartu, eta beraz goi-mailako arkitekto batek idatzitako proiektua aurkeztu beharko zuela. Espedientea itxi aurretik, erakunde honek gai honetaz duen irizpidea eman zion Udalari.

*Errepide bat zabaltzean, familia-bakarreko etxebizitza bat lurrera bota ondoren etxebizitza berria lortzeko eskubidea (718/94)*

Galdakar batek jakinarazi zigunez, Bizkaiko Foru Aldundiak etxea desjabetu eta lurrera bota zion, 634 errepide nazionalan, El Gallo eta Erletxeta artean, galtzada zabaltzeko obrak egiteko.

Horregatik, Galdakaoko Udalari obra-lizentzia eskatu zion lehenagokotik hurbileko lurretan etxebizitza berria egiteko.

Lurra urbanizatu ezinezkoa izanik, Udalak derrigorrezko txostena eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza Departamentuari, eta hau lizentzia ematearen alde azaldu zen, lehenago bertan zegoen etxebizitza bat jabeari berreskuratzeko zelako.

Beste alde batetik, Foru Aldundiak etxebizitza hori desjabetu eta hilabete batzuk geroago behin-betiko onartutako Galdakaoko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren errebisioan, artikulua sartu zen Hirigintza-Ordenantzan, zeinen arabera azpiegitura orokorrak egiteko desjabetzen diren etxebizitzak jabeek etxea berreskuratzeko eskubidea baitaukate, lehenagokoa beren ohizko bizilekua bazen.

Arartekoak Galdakaoko Udalari egin gomendioan, Plan Nagusi errebisatua atzerako indarrez ezartzeko eskatu zion, bai eta, ondorioz, auzokideari lizentzia eman ziezaiola ere familia-bakarreko etxebizitza egiteko urbanizatu ezinezko lurretan.

Galdakaoko Udalak, ordea, berretsi egin zuen lizentzia ez emateko erabakia, arkitektoaren txostenean oinarrituz.

Orduan, Arartekoak berriro adierazi zion Udalari derrigorrez eman behar zuela lizentzia, eta alkateari, berriz, arazo juridikoa zela hura eta, hortaz, ezadostasuna konpontzeko legegariaren txostena behar zela; horregatik, Udalaren idazkariak ebazpena prestatu eta Udalbatzarrak horren arabera erabaki zezala proposatu zuen.

Idazkariaren txostena auzokidearen aldeko agertu zen, eta hartara Galdakaoko Udala familia-bakarreko etxebizitza eraikitzeko lizentzia Plan Nagusia argitaratu eta indarrean sartu bezain azkar ematera konprometitu zen.

*Aparkalekuetan elbarrien sarbidea errazteko neurririk ez egotea (177/95)*

Elbarri talde batek kexa idatzi bat bidali zion erakunde honi, Zarautzen lurpeko aparkaleku batzuk eraikitzen ari zirelako elbarrien edo mugikortasun murrizteko pertsonen sarbidea errazteko neurririk hartu gabe.

Ildo horretatik, kexagileek ziotenez, Zarauzko Udalari salaketa aurkeztu ziotenean, erakundeak erantzun omen zien ezen, oztopo arkitektonikoen desagerpenari buruzko abenduaren 19ko 291/198 Dekretuaren arabera, ez zela beharrezkoa igogailurik ipintzea esandako aparkalekuetan.

Erakunde honek gomendio bat bidali zion Zarauzko Udalari, aditzera emanez ezen, dekretu horren arabera tankera horretako aparkaleku batean igogailurik ipintzea derrigorrezkoa ez den arren, 4.1 artikuluan, aldiz, hauxe dioela: «eraikinetan egiten diren aparkalekuetan, 40 plazatatik batek gutxienez hanketatik elbarri diren pertsonentzat izan beharko du».



Orobat, artikuluko horren 4. idaztiaren arabera, «aurreko idaztiaren aipatutako plaza horiek (elbarriak garraiatzen dituzten ibilgailuetarako direnak) eraikineko sarbideetatik hurbil kokatu behar dira, eta eraikinak berak gurpil-aulkian mugitzen diren elbarrien sarbidea errazteko eraberritu behar dira, eraikineko beste zatietara joateko inolako oztopo fisikorik egon ez dadin».

Horregatik, Arartekoak derrigorrezko neurri teknikoak har zitzala eskatu zion Zarauzko Udalari, herrian erakitzen ari ziren aparkaleku berrietan elbarrien edo mugikortasun murrizteko pertsonen sarbidea errazteko.

Azkenik, udalbatzarrak aparkalekuetako lehen solairuan elbarrien sarbidea errazteko «arrastatzeko makina» bat instalatzea erabaki zuen.

### 3.12.2.2. ETXEBIZITZA

*Etxebizitza babestuen promozio bat esleitzeko prozesuaren zuzentasuna (740/93)*

Hiritar batek esan zigunez, Intxaurrendoko babes ofizialeko etxebizitza batzuk hirtartutako erregimenean eraiki eta esleitzeko lehiaketa batean parte hartu zuen, baina etxerik lortu gabe. Aldiz, etxe horietako batzuk lehenagotik beste batzuen jabe ziren hiritar batzuei esleitu omen zitzaizkien. Bestalde, haren esanetan, baremoak zeuzkaten zerrendak ez ziren argitaratu eta, beraz, prozeduraren gardentasuna kolokan zegoen.

Etxe horien promozioaren eta esleiketaren arduraduna VISESA (Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.) izanik, enpresa publiko horri eskatu genizkion argitasunak.

VISESAren erantzunean, ordea, jakitera eman zitzaigun bakoitzaren neurgaiak puntuatzeko erabilitako baremoaren kopia eskuratu zitzaizela eskatu zuten guztiei, eta, gainera, erreklamazioa aurkezteko epea izan zutela eskatzaile guztiek.

Horretaz gain, erantzun horretxetan esan zigutenez, egia zen esleiketarietako batzuk beste etxe batzuen jabe zirela, aukera hori aurrikusita zegoelako etxea eskatzen zutenak onartzeko baldintza-orrietan. Hala ere, esleiketari horiei baldintza hau ezarri zitzaion: lehenagoko etxea saldu behar zutela esleitzen zitzaion berria jaso ahal izateko.

Halaber, VISESAk esleiketetan edozein irregulartasun gertatu zela jakinez gero, salatzeko gonbidapena egin zuen, salatazailearen izena isilik gordetzeko konpromezuaz. Horrela ikerketa hasi ahal izango zuen, gertatua egiaztatzeke eta esleiketa zuzentzeko, guztiz bidezkoa izan ez bazen.

Azkenik, kexagileak aditzera eman zigun VISESAren gutun bat jaso zuela eta bertan esan ziotela etxebizitza babestu bat esleitu egin zitzaizela Intxaurrendon.

*Justizia auzitegietan elbarrien sarbiderako dauden oztopoak (179/95)*

Erakunde honetan jaso genuen idazki batean, elbarri talde batek justizia auzitegietan elbarrien edo mugikortasun murrizteko pertsonen sarbiderako dauden oztopoak salatu nahi zituen.

Adibide bezala Bergaran gertatutako kasu bat jarri zuten; izan ere, pertsona elbarri batek hango auzitegira joan behar izan zuen batean, arazo handiak eduki zituen bertara sartzeko, elbarrientzako sarrera errazteko biderik ez zegoelako.

Horiek horrela, Arartekoak Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarekin hitz egin eta proposatu zion azterketa sakon bat egitea gaur egun justizia auzitegietan dauden oztopo arkitektonikoak desagertarazteko ahalbideei buruz, eta, halaber, ahal zen neurrian oztopo horiek benetan desagertarazteko obrei ekitea.

Orobat, erakundeak eskatu zuen eraikuntza-proiektu berrietan betearaz dadila oztopo arkitektonikoen desagertarazteko buruzko abenduaren 19ko 291/198 Dekretua, herri-administrazioak derrigorrez bete beharrekoa dena.

Horren ondoren, aipatutako sailak txosten bat bidali zigan, aditzera emateko nolako neurriak hartzen ziren, oro har, bere ardurapeko eraikinetan, eta zehazkiago Bergarako auzitegian.

Hari horretatik, Bergarako auzitegian elbarriak sartzeko dauden oztopoak haren balio arkitektoniko nabarmenari egozten zizkion: antza denez, beheko solairuaren maila ez dago auzitegia kokatuta dagoen Arizoa plazako sarreraren altuera berean.

Altuera bien arteko aldea 1,90 metrokoa da gutxi gora-behera, eta kanpotik arranpa bat jartzea garestia eta alferrekoa zen, bebarruan eskailera batzuk daudelako eta eraikinaren kanpoaldeko osagaiei eragiten diolako, berauek plazako osagai ere izanik.

Aurkitu zen irtenbide posible bakarra sarrera Mizpildi kalean jartzea izan zen, bertan badagoelako beheko solairuaren altuera berean dagoen puntu bat. Hasieran, atxilotuak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat pentsatuta zegoen arren, elbarrientzako sarbidea hor jar zitekeen, horretarako aukerak ematen zituelako, bai bere ezaugarriengatik, bai erabilera-mailagatik ere. Sarbide hori osatzearen, badago elbarriek erabiltzeko moduko igogailu bat ere (horretarako egokiak diren edukiera, botoi-kokapen, ate eta abarrekin), solairu guztiak lotzen dituena.

Bestalde, aditzera eman ziguten datozen urteetan konponketa gehiago egingo zirela eraikinean, eta orduan aintzat hartuko zirela elbarrien sarbidea errazteko neurriak; gainera, laster sarbidearen seinalizazioari ere ekingo ziotela esan ziguten.

Bestalde, maila orokorragoan egindako ekintzei dagokienez, jakitera eman ziguten gaur egun auzitegi-erabilerarako aurikusita dagoen 155.000 m<sup>2</sup>ko azalera osotik 150.000 m<sup>2</sup> baino gehiago eraiki berriak izango direla, eta, beraz, arautegiko agindu guztiak beteko direla. Horietatik, 70.000 m<sup>2</sup> jadanik erabilgai daude, eta urtealdi honetan beste 20.000 m<sup>2</sup> gehiago jartzea espero da; gainontzeko 60.000 m<sup>2</sup>ak, ordea, proiektu edo kontratazio fasean daude, eta hortaz prozesu honen guztiaren bukaeran eraikin zaharretako 3.500 m<sup>2</sup>ak baino ez dira geratuko, eta horiek moldatzeko lanak ere egiten ari dira.

Horren argitan, Arartekoari Eusko Jaurlaritzaren Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak ahalegin handia egiten ari dela iruditu zitzaion, nahiz eta egia izan Administrazioa horretara behartuta dagoela, auzitegiatarako sarbidea bermatzeko; horregatik, amaitutzat eman zuen bere ekimena.

*Desjabetzapen-espediente batean elkarren adostasunez erabakitako diru-kopurua ordaintzean Administrazioak izandako atzerapena (503/95)*

Hiritar batek azaldu zigunez, elkarren adostasunezko akta bat izenpetu zuen Administrazioarekin, Santurtziko Udalaren lur ondarea zabaltzeko egindako derrigorrezko lur-desjabetzapen batean; desjabetzapenaren onuraduna Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila zen.

Agiri horren arabera, balioespen gisa erabakitako diru-kopurua agiria izenpetu zenetik gehienez sei hilabeteko epearen barruan ordaindu behar zen, baina epea igaro arren balioespenaren kantitatea jaso gabe zegoen.

Argitasunak eskatu genizkion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari, bai eta honek erantzun ere atzerapen hori gertatzen ari zela beharrezko diru-fondoen tramitazioa konplexua zelako (interesaturiko bi herri-administrazioen jarduerak, Euskal Autonomia Erkidegoarena eta Santurtziko Udalarena alegia, bateratu behar izan baitzuen), desjabetutako lursailak asko zirelako eta ordainketa-datak aurretiaz finkatu behar zirelako.

Kexaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak berehala ordaindu zion jabeari elkarren adostasunezko aktan erabakitako diru-kopurua.

### **3.13. BESTE GESTIO BATZUK**

#### **3.13.1. SARRERA**

Ohi bezala, beraien gaietatik erakunde honen laneko alor desberdinetan sailkatu ezin diren kexak dira sail honetan biltzen direnak.

Joan den 1995ean jaso ditugunetatik 52 kexa sar daitezke sail honetan, hots erakundeak tramitatu dituen espediente guztien artetik %4,5.

Ez da lan erraza alor honetako gai bereizgarriak aukeratzea, era askotakoak direlako. Hala eta guztiz ere, bai esan dezakegu gehien tramitazioan bitartekaritzan aritu garela nagusiki, kexa hauetako gaiak, berez garrantzi handikoak izan arren, gure erakunde honen ahalmen-esparrutik kanpokoak zirelako.

#### **3.13.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

*Atzerriko erakunde kidekoekin izandako elkarlana (636/94)*

Emakume batek Arartekoari adierazi zion bere neba desagertu egin zela istripu baten eraginez, haren itsasuntzia Argentinako uretan ainguratuta zegoelarik, kostaldetik 50 kilometrotara. Hildakotzat eman zuten.

Itsasuntziaren jabe zen itsas konpainiaren ordezkari baten bidez jakin zuen familiak gertatutakoa. Nolanahi ere, handik lau hilabetera, familiak artean oso

gutxi zekien herri hartako agintariak gertakari hura argitzeko egiten ari ziren ikerketaz; gainera, desagertutakoaren gauzak berreskuratu nahi zituzten, eta horretarako behin baino gehiagotan egin zioten eskaria konpainiari.

Ordurako, desagertutako gertatu zenetik lau hilabete igaroak ziren eta urruntasuna oztopo handia zen familiak ezer ere egin ahal izateko. Horregatik, logikoa den bezala, kezkatuta, pertsona horrek laguntza eskatu zion Arartekoari, kasu honetan zer egin zitekeen jakiteko.

Jakina, kexa honetako gaia erakunde honen ahalmenetik kanpo zegoen, baina kasuaren zertzelada bereziengatik eta ombudsman direlakoen artean egon ohi den lankidetzaz-izpirituagatik, Arartekoak Argentinako Errepublikako Herri Defendatzaileari jakinarazi zion kasu honen berri, bai eta eskatu ere ikerketak zertan ziren eta desagertutako pertsonaren gauzak non eta nola zeuden jakiteko egin beharrekoak egin zituzala zegozkion erakundeen aurrean.

Argentinako herri-defendatzaileak bidali zigun erantzunean, gai honi buruzko argitasunak lortzearen zein administrazio eta auzi erakundetara jo zuen aipatu, eta aditzera eman zigun ezin izan zuela frogatu esandako pertsonaren heriotza edo haren kausa ere. Pertsona horren gauzei dagokienez, jakinarazi zigun agentzia bati eman zitzaizkiola senitartekoei bidaltzeko, eta azkenik bidali egin zitzaizkiela, aztertu zuten dokumentazioak zioenez.

*Zahar-sari edo erretiro-pentsioaren kalkulua -Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan kotizatutako aldien kontaketa (546/95)*

Gasteizen bizi zen jubilatu batek bere zahar-sari edo erretiro-pentsioaren inguruko arazo bat azaldu zigun.

Pertsona horren arabera, 1969-1990 bitartean 21 urte ziurtatuta zituen Espainiako langile autonomoen sistema berezian.

1946-1965 bitartean beste 20 urte eginak zituen, berak esan zuen bezala, Frantziako gizarte segurantzaren sisteman, besteren kontuko langile bezala.

60 urte bete eta jubilatu zenean, Frantziako agintariak %25eko pensioa onartu zioten; baina, Espainian kotizatutako urteak ere zenbatu izan balira, Frantziako %50eko gehienezko pensioa lortzeko eskatzen diren 37,5 urteak edukiko zituen.

Kexagile honek azaldutako arazoa Arartekoaren ahalmen-esparrutik kanpo zegoen, nabarmenki.

Dena dela, haren nahia, alegia Espainian egindako kotizazioa ere kontatzea, gaur egungo antolakuntza komunitarioarekin -Kontseiluaren 1478/71 EEE Araudia, 1971ko ekainaren 14koa- bat zetorrenez gero, Arartekoak Frantziako Mediateur delako erakundeari jakinarazi zion kasu honen berri, kexa tramitatzeko aukerarik ba ote zeukan azter zezan.

Duela gutxi, Mediateur erakundeak erantzuna bidali digu, aditzera emanez dagokion administrazio sail frantsesak (Gaisotasun Asegururako Eskualdeko Kutzak) berriro aztertuko duela azaldutako arazo hau eta, beraz, jubilatu honen interes ekonomikoei behar bezalako babesa eman zaiela esan daiteke.

«Plazandreak» izeneko hautesle-batasunak idazki bat bidali zion Ararteko erakunde honi, haren kideen iritziz hauteskundeetako arau batzuek bazterkeriazko tratua ematen zielako beste talde politiko batzuen aldean.

Erakunde honek kasu honen azterketa egin ondoren, aditzera eman genion talde horri ezinezkoa zela beraien kexa planteiatzea Konstituzioko 23.2 artikuluan aldarrikatuta dagoen funtsezko eskubide baten hausketa bezala.

Izan ere, Konstituzioko 2. artikulua arabera, hiritar guztiak dute gai publikoetan parte hartzeko eta kargu publikoetara berdintasunean iristeko eskubidea.

Konstituzio Auzitegiak berak (75/85 KAE) adierazi duen bezala, funtsezko arauaren agindu horrek honako berezitasuna dauka: alegia, askatasun handia uzten diola legegileari eskubide horren erabilera arautzeko, hau da, kargu horietara iristeko sistema antolatzeko eta, zehazkiago, hiritarrak zuzenean hautatutako karguak direnez gero, dagokion hauteskunde sistema eratzeko.

Egia da legegileari arauak finkatzeko askatasun hori emateaz aparte, konstituzio-agindu horrek argi eta garbi dioela eskubide hori «berdintasunean» erabili behar dela, Konstituzioko 14. artikuluan onartzen den jarraibide orokorraren gauzapean konkretu bezala.

Hala eta guztiz ere, berdintasun eskubide demokratikoa hainbat tankera desberdinetara tiau daiteke demokrazian, berez legearen aurreko berdintasuna delako, edota, 23.2 artikulua berak dioen bezala, hauteskundeak oro har gertatzen diren lege-baldintzei dagokien berdintasuna; beraz, berdintasun horrek ez du aurreosatzen halako hauteskunde sistema bat eta beste bat baztertzeko, baizik eta legegileak aurretiaz eta askatasunez finkatuko duen sistemaren barruan txertatu behar da, bazterkeria eragiten duten desberdintasunak eragotziz, baina sistemaren arauetan oinarrituta, eta beste sistema batekiko erreferentziarik egin gabe.

Legearen beraren bitartez proportzionaltasun hutsaren arauetan jar daitezkeen salbuespenek badute helburu garbi bat, legegileak bilatzen duena: hots, hauteskundeetako proportzionaltasunaren eraginez hautesleen ordezkapenean gehiegizko zatiketa ez egotea, eta ordezkapen hori nolabaiteko garrantzia daukaten talde politikoen gain uztea.

Helburu horren balio konstituzionalak berak justifikatzen ditu, azken buruan, kexan adierazitakoa bezalako mugak; antzeko zerbait esan daiteke, auzitegiaren arabera, kontutan hartzen bada hauteskundeak, oro har, ez direla soilik 23.2 artikuluan aldarrikatutako banakako eskubideak (bakoitzarenak edo taldearenak) erabiltzeko bide bat, ezpada Estatu demokratikoaren erakundeei adierazpen-gaitasuna emateko eta erakunde horiei halako norabide orokor bat emateko gai diren erabakigune politiko batzuk finkatzeko bide bat.

Bestalde, gehiegizko zatiketaren arriskua ez da bakarrik proiektatzen ordezkapen politikorako erakundeen lanera -hori berez arrazoi nahikoa delarik hauteskundeetako banaketa egiteko hesi batzuk ipintzeko-, baizik eta ordezkapen hori beren gain hartzen duten elkarteetara ere, hau da, alderdi politikoetara eta hautesle-batasunetara, hainbat pertsona eta talde desberdinen interesak batu behar dituztelako maila politikoko beren egitasmo eta ekintzetan.

Azken finean, esandako helburuak azaltzen du zergatik mugatzen den komunikabide publikoetan propaganda egiteko denbora ere, edota hauteskundeetarako finantzaketa sistema bera (1983ko maiatzaren 24ko KAE - Aranzadi 2.589).

Eskubide eta askatasunen babeserako dagoen erakunde gorenak, hots, Konstituzio Auzitegiak, kexan azaldutako gai desberdinei buruz dauzkan gogoetabideak hauek izanik, Arartekoak ezin zuen kexa espediente hau tramitatu funtsezko eskubide baten hausketa gertatu den kasua balitz bezala.

Dena den, beti ere egiazko berdintasunera iristeko egin beharreko lan onuragarriaren mesedetan, Arartekoari komenigarria iruditu zitzaion kexa honen berri jakinaraztea, alor honetan gizartean dagoen sentiberatasuna erakustearren, eta kontutan izanik etorkizunean halako lege-aldaketa batzuk egitea komeni ote den aztertzeraz eraman dezakeen gaia izan daitekeela berau.

Horregatik, eta kexan azaldutako arazoa Arartekoari otsailaren 27ko 3/85 Legeak ipini dion ahalmen-esparrutik kanpo geratzen zenez gero, erakunde honek kexa hau Herriaren Defendatzaileari igortzea erabaki zuen.

## **IV. ATALA ESTATISTIKA**

#### 4.1. OHARPEN OROKORRAK

Mila bederatzehun eta laurogeita hamabosgarren urtean zehar erakunde honi hiritarrek bakarka edo taldeka aurkeztu dizkioten eta aztertu eta ikertu diren kexen artetik 266 kasutan eman die Arartekoak babesa erreklamatzaileriei, zabarkeriaz edo hiritarrekiko gehiegikeriaz jokatu izan duten administrazioen aurrean. Kasu horietan, eragindako administrazioak Arartekoaren gomendioa jaso du, zentsuratutako jardueraren ondorioak konpon zitzen.

Joan den urtean erakundeaz aztertutako kexen artetik %45,24 kasutan hiritarrari eman zaio arrazoia. Lehen begiradan portzentaia hori txikia edo murrizta dela pentsa badaiteke ere, ondorio desberdina aterako dugu Administrazioarekiko Auzitegietan erreklamatzailerik edo salatzaileek lortutako emaitzekin konparatzen badugu, erreklamazio horiek Ararteko erakundeaz aztertzen diren kasuekin parekotasun handia daukatelarik.

Euskal Herriko Justizia Epaitegi Goreneko jardueren azken estatistikak laster argitaratuko dira 1995eko euskal urtekari estatistikoan. Bertan 1991ko epaiak aztertzen dira ebazpen eta gaien arabera sailkapena eginaz, eta emaitzak hauek dira: epaien %23,7 Administrazioaren kontrakoak dira, edo beste era batera esanda, epaien %23,7tan salaketa-aurkezleari ematen zaio arrazoia.

Arartekoak erreklamatzailerari arrazoia eman dion kasu ugarietz gain, erakundearen jarduera aztertzerakoan beste aspektu hau ere azpimarratzekoa da: Arartekoak administrazioaren baten jarduera zuzena ez zela ikusi ondoren luzatu edo egin dion gomendioa askotan bete izan da. Gomendioak eta iradokizunak egin diren hiru kasutatik bitan Administrazioak kontuan hartu ditu.

#### Jasotako kexak

Ararteko erakundeaz 1995. urtean guztira 1.155 kexa jaso dira, aurreko urteko 755ekin konparatzen baditugu %53ko gorakada egon dela ikusten da. Horrela, Ararteko erakundeaz sortu zenetik 1994ko urtea salbuetsita egon den kexa kopuruen etengabeko gorakada joerarekin jarraitzen da.

	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995
Guztira	585	614	769	783	823	755	1.155

(Ikus 1. diagrama 230. orrialdean)



## Onartu gabeko kexak

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/85 Legeak 21. artikuluan adierazten ditu hiritarren kexak atzera botatzeko arrazoiak. Zentzu horretan, 1995ean jasotako kexa guztien artetik, lehenik arrazoi ezberdinengatik onartu ez direnak bereiztu behar dira. Ez onartzea batez ere auzia aldez aurretik epaitegien aurrean aurkeztuta egoteagatik gertatu da, epaitegiek ordurako epaia emana zutelako edo emateko bidean zeudelako. Partikularren arteko auziak ere ez dira onartu.

Edonola, erakunde hau 1995. urtean erreklamazioei ahalik eta babes juridikorik handiena ematen saiatu da; horrela, prozedura arauak interpretatzerakoan, beti administratuak aurkeztutako kexa onartzearen aldeko apustua egin da *in dubio pro actione* arauaren bidetik. Kexak atzera botatzen direnean, Arartekoa beti saiatzen da hiritarrari aholkua ematen, azaldutako arazoak konpontzeko biderik egokienak izan daitezkeenak azaltzen, alegia.

## Onartu gabeko kexak eta arrazoiak

Auzitegira eramandako kexak .....	45
Norbanakoen arteko arazoak .....	35
Erakundearen eskumenetik kanpokoak .....	20
Formazko akatsa .....	8
Bidezko interesik eza .....	7
Aragabetasun-eza begibistakoa izatea .....	6
Aurretiaz Administrazioaren aurrean kexa aurkeztu gabekoak .....	5
Herri Defendatzailearen bulegoan, biderapenean .....	4
Legez ezarritako epeak bete arte itxaron behar du .....	3
Urtebetetik gora iragandakoak .....	2
Izenik gabea .....	1
Beste batzuk .....	1
<hr/>	
Guztira .....	137

## Herri Defendatzaileari igorritako kexak

Ararteko erakundean zuzenean bideratzen ez diren kexen artean, Estatuko Administrazioaren jarduerari dagozkionak eta, beraz, Arartekoaren kontrol eremutik kanpo daudenak aurkitzen dira, horiek Herri Defendatzaileari igortzen zaizkiolarik. Horiekin batera, beste erkidego batzuetako parlamentu ordezkariak igorritakoak daude.

Herri Defendatzaileari 1995. urtean igorri zaizkion kexak aurreko urtean baino %71 gehiago izan dira.

Herri Defendatzaileari igorritako kexak .....	84
Beste defendatzaileei igorritako kexak .....	4

## Hainbat gestio eragin dituzten kexak

Ararteko erakundeak onartu, baina egiaz euskal administrazio publikoaren jarduera baten kontra zuzendu ez diren erreklamazioei tratamendu estatistiko ezberdina ematen zaie.

Hiritarrak planteiatu duen arazoa konpontzeko hainbat gestio eragin dituzten kexak dira, alegia, eta logikoaenez, izaera ezberdineko arazoak eta gaiak sartzen dira horietan. Hari horretatik, izen hori daraman alorrean jasotzen dira aztertu diren gaiak.

Hainbat gestio eragin dituzten kexak ..... 52

## Alor eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexak zuzen interpretatzeko modua

Lehen hurbilpen batean, badirudi hiritarrek bi gauza erlazionatzen dituztela: administrazio jakin edo alor zehatz baten jarduerengatik aurkeztutako kexak eta hiritarrek administrazio horren utzikeria edo aginte-gehiegikeriak eragindako funtzionamendua txartzat jotzea.

Erakunde honen ustez, ordea, kexa kopuruaren aurrean egin daitezkeen lehen interpretazio hori oso ondo argitu behar da, eragindako administrazioekiko atera daitezkeen berehalako ondorioak okerrak eta bidegabeak izan ez daitezkeen.

Horrela, *a priori* administrazio jakin baten jardueragatik aurkeztutako kexa kopurua adierazgarria bada ere, are gehiago da, eta hori da garrantzitsuena, administrazioak oker jokatu izanagatik erreklamatzailerak arrazoa zenbat kasutan zeukan ikustea. Bestalde, Ararteko honentzat kexa kopuruaren datu hotza baino garrantzitsuagoa da administrazio jakin horren jarrera, hala erakunde honetatik eskatutako informazio eskariei epe barruan erantzuteko betekizunaren aurrean, nola erreklamazioaren azterketa eta ikerketa egin ondoren emandako ebazpenen aurrean azaldutako portaera. Hau da, Arartekoaren iritziz Administrazioak irregulari jokatu duelako egin zaizkion gomendio eta iradokizunak onartzen diren ala ez jakitea.

Estatistika atal honetako datuak baloratzerakoan faktore geografikoa ere kontuan hartu behar da; izan ere, aurrerago ikusiko den bezala, erreklamatzailerak erakunde honen egoitzatik gertu edo urrunago bizitzeak eragin erabakiorra dauka. Gasteizko kasua dugu kexa kopuruaren eta faktore geografikoaren arteko harreman horren adibidea, Euskal Autonomia Erkidegoko beste hiri eta herriekin konparatuz askoz erreklamazio gehiago aurkeztu baitira.

## 4.2. ESTADISTIKAK ALORREZ ALOR

Kexak gai-alorren arabera aztertzerakoan, guztietan ikusten dugu erreklamazioak gehiago direla aurreko urtearekin konparatuz.

Aurreko urtean bezala, 1995ean ere Funtzio Publikoaren eta Administrazio Antolakuntzaren alorrari dagozkio kexa gehienak. Halere, erreklamazio guztien artean alor honek duen pisu erlatiboa gutxitu egin da, aurreko urtean zeukan %23tik 1995ean %19ra pasatu delarik.

Ogasun alorrak bigarren postuan jarraitzen du, eta hori da hain zuzen kexa gehikuntzarik handiena izan duena. Osasun eta Gizarte Ongizate alorrekin batera, Ogasunarenak ia bi aldiz kexa gehiago jaso ditu. Hezkuntza eta Herri-Lan eta Zerbitzuen alorrean kexen gehikuntza %100 baino handiagoa izan da.

Hirigintza eta Etxebizitza alorrak garrantzia galdu eta hirugarren postutik seigarrenera pasatu da erreklamazioa kopuruari dagokionean; halere, iaz baino 19 kexa gehiago jaso dira.

	Zenbat kexa jaso	%
Funtzio P. eta Adm. Antol.	168	19,13
Ogasuna	125	14,24
Herrizaingoa	89	10,14
Hezkuntza	86	9,79
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	85	9,68
Hirigintza eta Etxebizitza	81	9,23
Ingurugiroa	66	7,52
Justizia	64	7,29
Herrilanak eta Zerbitzuak	64	7,29
Kultura eta Elebitasuna	27	3,08
Mek., Ind., Merk., eta Tur.	18	2,05
Lana eta Gizarte Segurantzza	5	0,57
<b>Guztira</b>	<b>878</b>	<b>100</b>

(Ikus 3. diagrama 232. orrialdean)

### **Kexen sailkapena azpialorren arabera**

Mila bederatziehun eta laurogeita hamabosgarren urtean zehar jasotako kexen gaien araberako banaketa aztertzen bada, ondorengo koadroan ikus daiteke azpialor bakoitzak nolako eragina daukan Ararteko honek lana antolatzeko bereizten dituen gaietan izandako aldaketan.

Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza alorrean egon den gehikuntza, aurreko urtean ez bezala, Administrazioaren Antolakuntza azpialorrean egondako gehikuntzari zor zaio. Hezkuntzan ikasketetarako Bekak eta Laguntzak azpialorrean egon den gehikuntza ikusgarria da, azpialor horretan ia bost bider kexa gehiago jaso baitira. Osasuna, Bidezaingoa, Elebitasuna eta Justizia Administrazioaren zerbitzuen azpialorretan jasotako kexak ere asko gehitu dira. Ogasun alorrean egondako gehikuntza nabarmenari dagokionez, Foru tributoen eta Udal tributoen azpialorren eta bereziki bigarrenaren artean banatzen da.

<b>Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza.....</b>	<b>168</b>
<b>Funtzio Publikoa .....</b>	<b>93</b>
- Funtzio Publikoa-Hezkuntza .....	37
- Funtzio Publikoa-Orokorra .....	31
- Funtzio Publikoa-Osasuna .....	21
- Funtzio Publikoa-Herrizaingoa .....	4
<b>Administrazioaren Antolakuntza .....</b>	<b>75</b>
- Administrazioaren Antolakuntza.....	38
- Administrazioaren Jardunbidea .....	29
- Kontratazioa eta Ondarea .....	7
- Intimidade-eskubidea babestea.....	1
<b>Ogasuna .....</b>	<b>125</b>
Foru-tributoak .....	55
Udal zergak .....	26
Prezio publikoak .....	24
Udal arielak .....	12
Bestelakoak .....	8
<b>Herrizaingoa .....</b>	<b>89</b>
Bidezaingoa .....	69
Herri-bakea .....	12
Bestelakoak .....	8
<b>Hezkuntza.....</b>	<b>86</b>
Bekak eta ikasteko laguntzak .....	39
Bestelakoak .....	34
Irakaskuntzaren programazio orokorra .....	8
EHU .....	4
Ikastegia aukeratzeko eskubidea .....	1
<b>Osasuna eta Gizarte Ongizatea .....</b>	<b>85</b>
Gizarte Ongizatea .....	36
Osasuna .....	49
<b>Hirigintza eta Etxebizitza .....</b>	<b>81</b>
Hirigintza .....	62
Etxebizitza .....	19
<b>Ingurugiroa .....</b>	<b>66</b>
Saikaturiko hiri-ekintzak .....	60
Ingurugiroari eragiten dioten beste gora-behera batzuk ....	6

Justizia .....	64
Justizi Administrazioa .....	50
Abokatuen bazkondeak .....	8
Eusko Jaurlaritzako Justizi Saila .....	6
Herrilanak eta Zerbitzuak .....	64
Herrilanak .....	27
Udal zerbitzuak .....	22
Garraioak .....	15
Kultura eta Elebitasuna .....	27
Elebitasuna .....	22
Kultura .....	5
- Historia eta arte-ondarea .....	2
- Bestelakoak .....	2
- Astialdia .....	1
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	18
Nekazaritza, Abeltzantza eta Arrantza .....	12
Merkataritza .....	5
Industria .....	1
Lana eta Gizarte Segurantza .....	5
Lana .....	4
Gizarte Segurantza .....	1

#### **4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTATISTIKAK**

Ararteko erakundearen ikerketa eremuan sartzen diren euskal administrazio guztiak eduki dute aurreko urtean baino kexa kopuru handiagoa. Gorakadarik handiena Autonomia Erkidegoko Administrazioaren (Eusko Jaurlaritzaren) gestioak eragindakoa izan da, gehien jaso dituena bera delarik; toki administrazioarekin konparatuz 7 puntuko portzentai alde dauka.

	Zenbat	%
Eusko Jaurlaritzako Administrazioa	373	41,53
Toki Administrazioa	353	39,35
Foru Administrazioa	147	16,37
Gainontzeko administrazioak	24	2,68
<b>Guztira</b>	<b>897</b>	<b>100</b>

(Ikus 4. diagrama 233. orrialdean)

### **Foru administrazioen kontra aurkeztutako kexak**

Gipuzkoako foru administrazioa izan da maila horretan kexa gehien jaso dituen, jarraian Bizkaikoa eta Arabakoa daudelarik.

Guztien kontra aurkeztu dira aurreko urtean baino kexa gehiago; gehikuntza handiagoa izan da, halere, Gipuzkoan eta Araban.

### **Kexak foru diputazioen arabera**

	Zenbat	%
Gipuzkoa	61	41,5
Bizkaia	50	34,02
Araba	36	24,48
<b>Guztira</b>	<b>147</b>	<b>100</b>

(Ikus 5. diagrama 234. orrialdean)

### **Toki administrazioaren kontra aurkeztutako kexak**

Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioen kontra aurkeztutako kexei dagokienez, Bizkaia da oro har kexa gehien jaso dituen. Jarraian Araba dago, kexak bikoiztu egin direlarik, eta azkenik Gipuzkoa, gutxienekin, aurreko urtean baino gutxiago ere jaso dituelarik.

Gasteizkoa da kexa gehien jasotzen dituen toki administrazioa, eta dudarik gabe, erakundearen egoitza hiri horretan egonik bertako hiritarrentzat eskurago dagoelako gertatzen da hori.

Bizkaian eta Gipuzkoan ere hiriburuetakoa toki administrazioak dira kexa gehien jasotzen dituztenak. Bizkaian Basauri eta Getxo eta Gipuzkoan Irun ere kexa askotxo jasotzen dituztenak dira.

## Toki Administrazioaren aurkako kexak

	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
Bizkaiko udalak	136	38,52
Arabako udalak	110	31,16
Gipuzkoako udalak	72	20,39
Arabako administrazio batzarrak	19	5,4
Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak	16	4,53
<b>Guztira</b>	<b>353</b>	<b>100</b>

## Autonomia Erkidegoko udalen kontra aurkeztutako kexak

<b>Arabako udalak</b>	<b>Zenbat</b>
Gasteiz .....	89
Oka-Iruña .....	4
Laudio .....	3
Amurrio .....	2
Biasteri .....	2
Artziniega .....	1
Barrundia .....	1
Kanpezu .....	1
Iruaitz-Gauna .....	1
Lantziego .....	1
Erribera Goitia .....	1
Añana Gesaltza .....	1
Donemiliaga .....	1
Urkabustaiz .....	1
Uriona .....	1
<b>Guztira .....</b>	<b>110</b>

<b>Arabako administrazio batzarrak</b>	<b>Zenbat</b>
Luxaondo .....	11
Antezana .....	1
Kaizedo behekoa .....	1
Sagastieta .....	1
Munain .....	1
Olabarri .....	1
Pipaon .....	1

Saratxo .....	1
Bezanauri .....	1
	----
Guztira .....	19

<b>Bizkaiko udalak</b>	<b>Zenbat</b>
Bilbo .....	49
Basauri .....	14
Getxo .....	13
Barakaldo .....	9
Santurtzi .....	7
Abanto-Zierbena .....	6
Portugaleta .....	3
Bermeo .....	2
Elorrio .....	2
Erandio .....	2
Galdakao .....	2
Gorliz .....	2
Urduña .....	2
Plentzia .....	2
Alonsotegi .....	1
Zornotza .....	1
Arrigorriaga .....	1
Bakio .....	1
Balmaseda .....	1
Durango .....	1
Elantxobe .....	1
Etxebarria .....	1
Leioa .....	1
Lemoiz .....	1
Loiu .....	1
Muskiz .....	1
Ondarroa .....	1
Orozko .....	1
Ortuella .....	1
Sestao .....	1
Sopela .....	1
Trapagaran .....	1
Zalla .....	1
Zamudio .....	1
Zierbena .....	1
	----
Guztira .....	136



<b>Gipuzkoako udalak</b>	<b>Zenbat</b>
Donostia .....	19
Irun .....	7
Beasain .....	4
Hernani .....	4
Pasaia .....	4
Errenteria .....	4
Arrasate .....	3
Belauntza .....	3
Zarautz .....	3
Elgoibar .....	2
Hondarribia .....	2
Lasarte-Oria .....	2
Oiartzun .....	2
Altzo .....	1
Amezketeta .....	1
Azpeitia .....	1
Berastegi .....	1
Eibar .....	1
Getaria .....	1
Ibarra .....	1
Ikaztegieta .....	1
Legorreta .....	1
Ordizia .....	1
Soraluze .....	1
Tolosa .....	1
Zizurkil .....	1
-----	
Guztira .....	72

### **Euskal Autonomia Erkidegoko (Eusko Jaurlaritzza) Administrazio orokorraren kontra aurkeztutako kexak alorren arabera**

Eusko Jaurlaritzako Administrazioaren jarduera edo hutsegiteen kontra aurkeztutako kexei dagokienez, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza eta Hezkuntza dira, Herrizaingoa, Osasuna eta Gizarte Ongizatearekin batera kexa gehien jasotakoak, %80 hain zuzen.

Kexa gehien eragin dituzten alorrak hauek dira dagokien ordenan ezarrita: Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, Hezkuntza eta Herrizaingoa. Ia alor guztietan gehitu dira kexak, baina lehen aipatutako horietan izan da gorakadarik nabariena.

	Zenbat kexa jaso	%
Funtzio P. eta Adm. Antol.	101	27,08
Hezkuntza	86	23,06
Herrizaingoa	60	16,08
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	49	13,14
Hirigintza eta Etxebizitza	19	5,09
Herrilanak eta Zerbitzuak	16	4,29
Kultura eta Elebitasuna	14	3,75
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	7	1,88
Ogasuna	6	1,61
Justizia	6	1,61
Ingurugiroa	5	1,34
Lana eta Gizarte Segurantzza	4	1,07
<b>Guztira</b>	<b>373</b>	<b>100</b>

(Ikus 6. diagrama 235. orrialdean)

### **Eusko Jaurlaritzaren kontrako kexak sailen arabera banatuak**

Eusko Jaurlaritzako ia sail guztiek jaso dituzte 1994. urtean baino kexa gehiago, baina Hezkuntza, Osasuna eta Herrizaingoa kontrako kexetan egon da gorakadarik handiena.

Eusko Jaurlaritzaren kontrako lau kexatatik hiru aipatutako hiru sail horien kontrakoak dira, eta horien artean Hezkuntza da gehien jasotakoa, erreklamazioen heren bat baino gehiagorekin.

Aldiz, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak portzentaietan hiru puntuko beherakada izan du Eusko Jaurlaritzaren kontra aurkeztutako kexa guztien artean.

	Zenbat kexa jaso	%
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	135	36,19
Osasuna	80	21,4
Herrizaingoa	70	18,76
Lurr. Antolam., Etxeb. eta Ingurugiroa	22	5,9
Just., Ekon., Lana eta Giz. Segurantzza	18	4,8
Garraioak eta Herrilanak	17	4,5
Ogasuna eta Herri Administrazioa	11	2,9
Industria, Nekazaritza eta Arrantza	10	2,6
Merkataritza, Kontsumoa eta Turismoa	5	1,3
Kultura	5	1,3
<b>Guztira</b>	<b>373</b>	<b>100</b>

(Ikus 7. diagrama 236. orrialdean)

### Foru administrazioen kontrako kexak alorren arabera

Foru aldundietan, aurreko ekitaldietan bezala, lurralde historikoetako administrazioen kontra Arartekoari aurkeztzen zaizkion kexa gehienak eragiten dituen Ogasun alorra da, erreklamazioen ia %43 jasotzen dituelarik. Atal honetan Gipuzkoako Foru Ogasuna da buru 63 kexarekin, ondoren Bizkaia 16rekin eta Araba 10ekin daudelarik.

Osasuna eta Gizarte Ongizatea eta Funtzio Publikoa eta Administrazio Antolakuntza alorrak dira berriro ere garrantzitsuenak, foru erakundeen jardueratik ikertzeko orduan alor horretako espedienteak izan baitira ugariak. Eragiten duten kexa kopuruaren aldetik, Ogasunarekin batera, beste bi horiek dira garrantzitsuenak, aurten gehikuntza handia izan dutelarik.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ogasuna	10	16	37	63	42,85
Osasun eta Giz. Ong.	10	14	6	30	20,40
F.P. eta Adm. Antol.	4	9	11	24	16,32
Herrilanak eta Zerbitzuak	1	5	2	8	5,44
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	4	1	2	7	4,76
Herrizaingoa	3	3	-	6	4,08
Kultura eta Elebitasuna	3	2	-	5	3,40
Hirigintza eta Etxebizitza	-	-	2	2	1,36
Hezkuntza	1	-	-	1	0,68
Ingurugiroa	-	-	1	1	0,68
<b>Guztira</b>	<b>36</b>	<b>50</b>	<b>61</b>	<b>147</b>	<b>100</b>

(Ikus 8. diagrama 237. orrialdean)

## Toki administrazioaren kontrako kexak alorren arabera

Toki administrazioaren kontra aurkeztutako kexen alorren araberako banaketan ez da inolako joera aldaketarik nabaritzen. Ia alor guztietan aurkeztu dira gehiago eta gorakada handiagoa da lehendik kexa asko eragiten zituztenetan, hala nola: Hirigintza eta Etxebizitzan, Ingurugiroan eta Ogasunean, eta Herri-Lanetan eta Zerbitzuetan, ia bikoiztu egiten dituztelarik.

Funtzio Publikoan eta Administrazioaren Antolakuntzan eta Herrizaingoa erreklamazio gutxiago jaso dira.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Hirig. eta Etxeb.	11	32	20	63	18,7
Ingurugiroa	34	16	12	62	18,4
Ogasuna	33	17	6	56	16,6
Herrilan. eta Zerb.	26	18	3	47	13,9
F. P. eta Adm. Ant.	7	19	18	44	13,1
Herrizaingoa	7	26	2	35	10,4
Nek., Ind., Merk., Tur.	5	3	1	9	2,6
Kultura eta Elebitasuna	3	-	5	8	2,4
Osas. eta Giz. Ongiz.	-	4	4	8	2,4
Hezkuntza	3	1	1	5	1,5
<b>Guztira</b>	<b>129</b>	<b>136</b>	<b>72</b>	<b>337</b>	<b>100</b>

(Ikus 9. diagrama 238. orrialdean)

## Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen kontrako kexak

Orain arte aztertu ditugun, foru, toki eta Eusko Jaurlaritzaren administrazioen kontrako kexez gain, erakunde honetan bere ikerketa esparruari dagozkion beste administrazio batzuen kontrako kexak ere jaso dira. Zuzenbide publikozko ente eta erakunde publikoak, bazkondeak (erakunde kolegiatuak), Eusko Legebiltzarra, eta abar dira horiek.

Erakunde publikoak .....	12
Beste erakunde batzuk .....	5
Estatuko Administrazioa .....	3
Eusko Legebiltzarra .....	3
Arabako Batzar Nagusiak .....	1
<b>Guztira .....</b>	<b>24</b>

## **Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuen kontrako kexak**

Ararteko erakundea arautzen duen 3/85 Legeak 9.2 artikuluan aurrikusten duenez, Justizia Administrazioaren funtzionamendua helburu duten kexak kasu bakoitzean ikerketzeko eta ebazteko ahalmena duen erakunde eskudunari pasatuko zaizkio.

Horregatik, euskal administrazio publikoen kontrako kexak kontatzerakoan kexa multzo hori alde batera utzi behar da, beste aginpide baten funtzionamenduaren kontra doazelako.

Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zaizkion beste txostenetan adierazi den bezala, erakundeak kasu horietan Ministerio Fiskalari, edo, hala dagokionean, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiari igortzen dizkio, ikerketa lana beraiek egin eta burututako azterlanen berri erakunde honi eman diezaion.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuen funtzionamendua auzitan jartzen zuten 58 kexa espediente bideratu dira guztira, aurreko urteko emaitzekin konparatuz %50eko igoera, beraz.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuen funtzionamenduaren kontrako kexak ..... 58

### **4.4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTADISTIKA**

Bizkaia Lurralde Historikoko biztanleak izan dira 1995. urtean ere Ararteko erakundearen aurrean kexa gehien aurkeztu dituztenak.

Jarraian, eta gipuzkoarren aurretik, arabarrak daude, erreklamazio kopurua asko igo dutelarik.

Kexa kopurua hiru lurraldeetan igo den arren, lehen aipaturiko geografia faktoreak eragin zuzena izan du Arabako biztanleek aurkezturiko kexen portzentaia %105 igitzean.

#### **Lurralde banaketa kexen jatorriaren arabera**

	<b>1989</b>	<b>1990</b>	<b>1991</b>	<b>1992</b>	<b>1993</b>	<b>1994</b>	<b>1995</b>	<b>Joera</b>
Bizkaia	288	284	293	332	376	349	528	+51,29%
Gipuzkoa	188	195	244	241	250	234	281	+20,09%
Araba	97	125	158	201	182	160	328	+105%

(Ikus 10. diagrama 239. orrialdean)

#### **Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko**

Kexen lurralde historikoaren arabera jatorriaren azterketa konparatua egiteko, probintzia bakoitzetik jasotako kexen kopuru absolutua probintzia ba-

koitzak duen biztanle kopuruarekin konparatuko dugu. Ondorengo koadroan kexen lurralde banaketa egiten da 10.000 biztanleko unitatea kontuan hartuaz.

Konparaketa honetan ikus daitekeenez, Araba da berriro ere kexa portzentaia altuena duena, batez bestekoa 5,33ra iristen delarik lurralde horretan.

	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995
Araba	4,3	4,5	5,8	7,4	6,7	5,9	11,59
Bizkaia	3,3	2,7	3,6	3,5	3,7	3,5	4,54
Gipuzkoa	3	2,9	2,5	2,8	3,3	3	4,11

(Ikus 11. diagrama 240. orrialdean)

### **Kexen banaketa lurralde bakoitzean**

Ararteko erakundearen 1995. urtean kexak aurkeztu dituzten hiritarren jatorriari dagokionez, behin eta berriro hiru hiriburuak dira nagusi maila horretan.

Hiritarren jokaera, ordea, ezberdina da hiru lurraldeetan. Araban, Gasteizko hiritarrak dira kexa gehien aurkeztu dituztenak, guztietatik %80,48 hiriburukoak baitira; aldiz, Bizkaian erdia baino gehiago hiriburutik kanpo bizi diren pertsonenak dira, eta Gipuzkoan lautik hiru.

<b>Araba</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Gasteiz	264	80,49
Beste udalerriak	64	19,51
<b>Guztira</b>	<b>328</b>	<b>100</b>

<b>Bizkaia</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Bilbo	219	41,48
Beste udalerriak	309	58,52
<b>Guztira</b>	<b>528</b>	<b>100</b>

<b>Gipuzkoa</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Donostia	108	38,43
Beste udalerriak	173	61,57
<b>Guztira</b>	<b>281</b>	<b>100</b>

(Ikus 12. diagrama 241. orrialdean)

## EAE kanpotik iritsitako kexak

Ohizkoa den bezala, badago Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko hiritarrek aurkeztutako kexa kopuru txiki bat. Aurten kopuru horrek ere gora egin du, guztira 18 aurkeztu baitira; horien artetik 16 Estatuko beste zona batzuetatik iritsi dira eta 2 atzeritik.

<b>Beste autonomia erkidego batzuetatik igorriak</b>	<b>Zenbat</b>
Gaztela eta Leongo K. A. ....	5
Kataluniako K.A. ....	2
Nafarroako Foru Komunitatea .....	2
Valentziako K.A. ....	2
Andaluziako K. A. ....	1
Aragoiko K. A. ....	1
Galiziako K.A. ....	1
Errioxako K.A. ....	1
Murtziako K.A. ....	1
	----
Guztira .....	16

<b>Beste Estatu batzuetatik igorriak</b>	<b>Zenbat</b>
Argentina .....	1
Frantzia .....	1
	----
Guztira .....	2

## 4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA

Ekitaldi honetan 575 erreklamaziori buruzko azterketak eta ikerketak burutu dira. Horietatik gehienak 1995. urtean aurkeztuak ziren, baina 206 aurreko urteetan aurkeztu baina urte berean osatu gabe geratutakoak ziren.

Arartekoak 1995ean burutu dituen ikerketen ondorioz, 575 erreklamazioetatik 266 kasutan eragindako administrazioaren kontrako eta kexa aurkezleen aldeko ebazpena eman du. Horrela bada, kexagileen artetik %45,24k arrazoiarekin jo zuten Arartekora.

	Kexaduna			Kexaduna			Besterik	
	Zenbat	zuzen	%	oker	%		%	
1995ean burutuak	588	266	45,24	280	47,62	42	7,1	

(Ikus 13. diagrama 242. orrialdean)

### **1995ean burututako espedienteak hasiera urteen arabera banatuta**

1995ean osorik bideratu diren 369 kexekin batera, aurreko urteetan aurkeztutako beste 206 kexari zegozkien espedienteak bideratu dira. Multzo honetatik gehienak 1994ko bigarren seihilabetekoan aurkeztuak ziren.

1990 .....	1
1991 .....	6
1992 .....	7
1993 .....	24
1994 .....	168
1995 .....	369
Guztira 1995ean bukatutako espedienteak.....	575

### **1995ean aurkeztutako kexetatik burutuak eta tramitean daudenak**

Euskal administrazio publikoren baten kontra 1995ean aurkeztu ziren 820 kexen artetik %45 urte berean bideratu eta itxi dira; aldiz, beste 451 espedientek beraien bidea jarraitzen zuten abenduaren 31n. Azken kopuru horretan egun horretara arte irekitako espediente guztiak sartzen dira, noski.



	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
F. P. eta Adm. Antol.	80	88	37	44	7
Ogasuna	58	67	22	45	-
Herrizaingoa	55	34	26	8	-
Hezkuntza	58	28	9	19	-
Osas. eta Giz. Ong.	36	49	22	22	5
Hirig. eta Etxeb.	39	42	8	33	1
Ingurugiroa	48	18	8	9	1
Justizia	-	6	-	6	-
Herrilan. eta Zerb.	48	16	4	8	4
Kultura eta Elebitasuna	20	7	1	6	-
Nek., Ind., Merk., Tur.	8	10	4	6	-
Lana eta Giz. Seg.	1	4	2	2	-
<b>Guztira</b>	<b>451</b>	<b>369</b>	<b>143</b>	<b>208</b>	<b>18</b>

(Ikus 14.etik 17.era bitarteko diagramak 243.etik 246.era bitarteko orrialdeetan)

### **Euskal Autonomia Erkidegoko (Eusko Jaurlaritza) Administrazio orokorraren kontrako kexen prozedura estatistika**

Joan den urtean Eusko Jaurlaritza bezala ezagutzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren kontra aurkeztutako kexen artetik 174tan eman du Arartekoak ebazpena. Ebazpen horietatik %40,80an hiritarrek aurkeztutako argudioak zuzenak direla iritzi dio.

**Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Eusko Jaurlaritza**

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
F. P. eta Adm. Ant.	46	55	17	34	4
Hezkuntza	59	27	9	18	—
Herrizaingoa	41	19	14	5	—
Osasu. eta Giz. Ong.	17	32	19	11	2
Hirig. eta Etxeb.	4	15	5	10	—
Herrilanak eta Zerb.	12	4	2	1	1
Kultura eta Elebitasuna	11	3	1	2	—
Nek., Ind., Merk., Tur.	4	3	1	2	—
Ogasuna	1	5	1	4	—
Justizia	—	6	—	6	—
Ingurugiroa	4	1	—	1	—
Lana eta Giz. Seg.	—	4	2	2	—
<b>Guztira</b>	<b>199</b>	<b>174</b>	<b>71</b>	<b>96</b>	<b>71</b>

(Ikus 18. eta 19. diagramak 247. eta 248. orrialdeetan)

**Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak sailez sail. Eusko Jaurlaritza**

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
Hez., Unib. eta Ikerketa	78	57	18	36	3
Osasuna	33	47	23	21	3
Herrizaingoa	42	28	18	10	—
Lurr. Ant., Etxeb. Ing.	8	14	4	10	—
Jus., Ek., Lan., G. Seg.	5	13	4	9	—
Garraioak eta Herrilanak	12	5	3	1	1
Merk., Kon., Turismoa	8	3	—	3	—
Ogas. eta Herr. Adm.	8	3	—	3	—
Ind., Nek. eta Arrantza	7	3	1	2	—
Kultura	2	3	—	3	—
<b>Guztira</b>	<b>203</b>	<b>176</b>	<b>71</b>	<b>98</b>	<b>7</b>

(Ikus 20. eta 21. diagramak 249. eta 250. orrialdeetan)

## Foru administrazioen prozedura estatistika

Foru Aldundien kontra 1995ean Arartekoari aurkeztu zitzaizkion kexen artetik 67ri buruzko ebazpena eman dugu. Horien artetik %35 kasu baino gehiagotan interesatuari eman diogu arrazoia.

### Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Foru administrazioak

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
Gipuzkoa	37	24	5	17	2
Bizkaia	26	24	10	12	2
Araba	17	19	9	8	2
<b>Guztira</b>	<b>80</b>	<b>67</b>	<b>24</b>	<b>37</b>	<b>6</b>

(Ikus 22.etik 24.era bitarteko diagramak 251.etik 253.era bitarteko orrialdeetan)

### Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak alorrez alor. Foru administrazioak

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
Ogasuna	38	25	9	16	-
Osas. eta Giz. Ong.	15	15	3	10	2
F. P. eta Adm. Ant.	10	14	6	5	3
Herrilan. eta Zerb.	5	3	-	2	1
Nek., Ind., Merk., Tur.	2	5	3	2	-
Herrizaingoa	4	2	2	-	-
Kultura eta Elebitasuna	3	2	-	2	-
Hirigintza eta Etxebizitza	2	-	-	-	-
Hezkuntza	-	1	1	-	-
Ingurugiroa	1	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>80</b>	<b>67</b>	<b>24</b>	<b>37</b>	<b>6</b>

(Ikus 25. eta 26. diagramak 254. eta 255. orrialdeetan)

## Toki Administrazioen prozedura estatistika

Gure erkidegoko toki administrazioei dagokienez, 1995ean aurkeztutako kexen artetik 135 ebatzi dira eta erreklamatzailerei heren batean baino gehiagotan eman zaie arrazoia.

**Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Arabako udalak**

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
Gasteiz	42	47	18	28	1
Oka-Iruña	4	-	-	-	-
Laudio	3	-	-	-	-
Amurrio	1	1	-	1	-
Biasteri	1	1	1	-	-
Artziniega	1	-	-	-	-
Barrundia	1	-	-	-	-
Kanpezu	1	-	-	-	-
Iruraitz-Gauna	1	-	-	-	-
Lantziego	1	-	-	-	-
Erribera Goitia	1	-	-	-	-
Añana Gesaltza	-	1	-	1	-
Donemiliaga	1	-	-	-	-
Urkabustaiz	1	-	-	-	-
Uriona	1	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>60</b>	<b>50</b>	<b>19</b>	<b>30</b>	<b>1</b>

**Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Arabako administrazio batzarrak**

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>
Luxaondo	11	-	-	-
Antezana	-	1	-	1
Kaizedo behekoa	1	-	-	-
Sagastieta	1	-	-	-
Munain	1	-	-	-
Olabarri	1	-	-	-
Pipaon	-	1	-	1
Saratxo	1	-	-	-
Bezanauri	1	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>17</b>	<b>2</b>	<b>0</b>	<b>2</b>

**Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Bizkaiko udalak**

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
Bilbo	25	24	10	14	-
Basauri	11	3	1	2	-
Getxo	7	6	2	3	1
Santurtzi	1	6	-	5	1
Barakaldo	4	5	2	2	1
Abanto-Zierbena	5	1	-	1	-
Portugalete	3	-	-	-	-
Bermeo	1	1	-	1	-
Elorrio	1	1	-	-	1
Erandio	-	2	1	1	-
Galdakao	-	2	2	-	-
Gorliz	2	-	-	-	-
Urduña	1	1	1	-	-
Plentzia	2	-	-	-	-
Alonsotegi	1	-	-	-	-
Zornotza	-	1	1	-	-
Arrigorriaga	1	-	-	-	-
Bakio	1	-	-	-	-
Balmaseda	1	-	-	-	-
Durango	1	-	-	-	-
Elantxobe	1	-	-	-	-
Etxebarria	1	-	-	-	-
Leioa	-	1	1	-	-
Lemoiz	-	1	1	-	-
Loiu	1	-	-	-	-
Muskiz	1	-	-	-	-
Ondarroa	1	-	-	-	-
Orozko	1	-	-	-	-
Ortuella	1	-	-	-	-
Sestao	1	-	-	-	-
Sopela	-	1	1	-	-
Trapagaran	-	1	1	-	-
Zalla	1	-	-	-	-
Zamudio	1	-	-	-	-
Zierbena	1	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>79</b>	<b>57</b>	<b>23</b>	<b>30</b>	<b>3</b>

**Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Gipuzkoako udalak**

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
Donostia	13	6	1	4	1
Irún	3	4	1	2	1
Beasain	4	-	-	-	-
Hernani	2	2	-	2	-
Pasaia	3	1	1	-	-
Errenteria	1	3	2	1	-
Arrasate	2	1	-	1	-
Belauntza	2	1	-	1	-
Zarautz	1	2	1	1	-
Elgoibar	1	1	1	-	-
Hondarribia	1	1	1	-	-
Lasarte-Oria	2	-	-	-	-
Oiartzun	2	-	-	-	-
Altzo	1	-	-	-	-
Amezketeta	1	-	-	-	-
Azpeitia	1	-	-	-	-
Berastegi	-	1	-	1	-
Eibar	1	-	1	-	-
Getaria	1	-	-	-	-
Ibarra	-	1	-	1	-
Ikaztegieta	1	-	-	-	-
Legorreta	-	1	-	1	-
Ordizia	1	-	-	-	-
Soraluze	-	1	1	-	-
Tolosa	1	-	-	-	-
Zizurkil	-	1	-	1	-
<b>Guztira</b>	<b>45</b>	<b>27</b>	<b>9</b>	<b>16</b>	<b>2</b>

**Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Toki administrazioa**

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
Hir. eta Etxeb.	35	28	3	24	1
Ingurugiroa	45	17	8	8	1
Ogasuna	17	39	14	25	-
Herrilan. eta Zerb.	38	9	3	3	3
F. P. eta Adm. Ant.	27	17	10	6	1
Herrizaingoa	20	15	12	3	-
Nek., Ind., Merk., Tur.	5	4	-	4	-
Kultura eta Elebitasuna	6	2	-	2	-
Osas. eta Giz. Ong.	7	1	-	1	-
Hezkuntza	2	3	1	2	-
<b>Guztira</b>	<b>202</b>	<b>135</b>	<b>51</b>	<b>78</b>	<b>6</b>

(Ikus 27. eta 28. diagramak 256. eta 257. orrialdeetan)

**Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Toki administrazioaren beste sail batzuk**

	<b>Bid.</b>	<b>Buk.</b>	<b>Kexaduna zuzen</b>	<b>Kexaduna oker</b>	<b>Besterik</b>
Herrilan. eta Zerb.	5	2	1	1	-
Ogasuna	4	1	-	1	-
Osas. eta Giz. Ong.	2	1	-	-	1
Kultura eta Elebitasuna	1	-	-	1	-
F. P. eta Adm. Ant.	1	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>13</b>	<b>4</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>1</b>

#### 4.6. ESTADÍSTIKA SOZIOLOGIKOA

Ararteko erakundeak 1995ean aurkeztu diren kexen azterketa soziologikoari erreparatuaz ikus daitekeenez, erreklamazio kopurua asko aldatu den arren (%50etik gora igo baita), erreklamazioaren sexuaren aldetik ez da aldaketa handirik egon. Emakumeen portzentaia beherakada txiki bat egon bada ere, %30 inguruan dago; gizonenak %51n jarraitzen du, eta erreklamazioa egiten duten taldeen kopurua igo egin da eta %18an dago.

<b>Sexua</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Gizonak	600	51,94
Emakumeak	342	29,61
Taldeak	213	18,44

(Ikus 29. diagrama 258. orrialdean)

Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerrari buruzko azterketa egiten bada, euskaraz aurkeztutako kexa kopurua asko igo da ekitaldi honetan, hiru bider gehiago aurkeztu baitira euskaraz, 68ra iritsiaz; horiei bi hizkuntza ofizialetan idatzitako beste 26 gehitu behar zaizkie.

Euskaraz aurkeztu diren kexa asko euskararen aldeko taldeek aurkeztu dituzte eta Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legea hautsi duten kasu batzuk zuzentzeko bitartekaritza eskatu diote Arartekoari.

Euskaraz idatzitako kexa kopuruak gora egin duen arren, guztiekin konparatuz oraindik proportzio txikia da.

Hiritarrari erantzuteko orduan, berak aukeratu duen hizkuntza erabiltzeko irizpidea dauka Ararteko honek, gure autonomia erkidegoan hizkuntzaren normalizaziorako indarrean dauden lege xedapenak beteaz.

<b>Hizkuntza</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Gaztelera	1.061	91,86
Euskaraz	68	5,89
Elebrietan	26	2,25

(Ikus 30. diagrama 259. orrialdean)

Azkenik, kexak aurkezteko moduari dagokionez, gutuna da erreklamazioa egiteko erabiltzen den formarik arruntena. Kexen artetik %30 erakundearen egoitzan bertan aurkeztu dira, eta kopuru hori zalantzarik gabe igo egingo da Bilbon eta Donostian Ararteko erakundeak hiritarrei informazioa emateko bulegoak irekitzen direnean. Bada beste datu adierazgarri bat ere: ia 50 erreklamazio fax bitartez bidali dira.



<b>Jasotzeko modua</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Idatziz	753	65,19
Erakundearen egoitzan	352	30,48
Faxa	48	4,16
Telefonoz	2	0,17

#### **4.7. HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA**

Iaz euskal hiritar gehiagok erabili dute zerbitzu hori. Aurreko urtearekin konparatuz ia %30eko gorakada (%29,3) izan du.

547 bisita errezibitu dira erakundeetan, hilean batez beste 45,6, beraz. Horien artetik 243 kexa formal bilakatu ziren, guztien artetik %44,4, alegia. Horietatik 11k taldeak ordezkatzeko zituzten.

Kexa bilakatu ez ziren gainerantzeko bisita batzuk Arartekoaren jardura eremua gainditzen zuten arazoei zegozkien eta, beraz, ezin ziren kexa bezala bideratu; beste kasu batzuk agiri gehiago behar zituzten eta administrazio erakundeetan aurrean beste gestio batzuk burutu beharra zeukaten; eta, azkenik, beste kasu batzuetan, edo planteiatutako gaiak ezin ziren kexa bezala bideratu, edo bisitara zetozen beraien espedienteen bideraketa nola zegoen ezagutzera edo hiritarrek eskuartean zeukaten gaiarekin aurrera jarraitzeko zein pauso eman jakin nahi zuten.

Errezibitutako bisiten artetik %75 banakakoak izan dira. Zerbitzu honetara guztira 708 pertsona etorri dira, horien artetik %53 gizonak eta %47 emakumeak izan direlarik.

	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Gizonezkoak	374	53
Emakumezkoak	334	47
<b>Guztira</b>	<b>708</b>	<b>100</b>

Adinari dagokionez, pertsona gazteenak (23 urtez azpitik) eta zaharrenak (60 urtez goitik) izan dira erakundera pertsonalki gutxien jo dutenak, guztien artean %20 osatu dutelarik. Gainerantzeko %80 ondoko koadroan ageri diren hiru adin tarteetan (24-59 urte) sartzen direnek burututako bisitak izan dira, hiruretan antzeko eraginarekin (%26 eta %28 artean).

Bisiten banaketa adin taldeen arabera:

<b>Adina</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
23 urte arte	44	6,2
24-34	184	26
35-46	200	28,2
47-59	186	26,3
60 edo gehiago	94	13,3
<b>Guztira</b>	<b>708</b>	<b>100</b>

(Ikus 31. diagrama 260. orrialdean)

Urtean zehar burututako bisiten banaketari dagokionez, martxoan jaso ziren bisita gehienak eta zerbait gutxiago ekainean eta urrian. Bestalde, udaldian eta neguko oporretan beherakada gertatzen da.

### **Bisiten banaketa hilabeteen arabera**

Urtarrila .....	36
Otsaila .....	32
Martxo .....	90
Apirila .....	49
Maiatza .....	51
Ekaina .....	65
Uztaila .....	39
Abuztua .....	21
Iraila .....	24
Urria .....	63
Azaroa .....	43
Abendua .....	34
<b>Guztira .....</b>	<b>547</b>

Bisiten jatorri geografikoari dagokionez, berriro ere erakundearen egoitza Gasteizen egoteak daukan eragina azpimarratu behar dugu. Bisiten %65 hiri horretako jendearenak ziren, arabarrek egindako bisiten %91 osatzen dutelarik.

Lurralde historikoen arabera, bisita gutxien egin digutenak gipuzkoarrak izan dira %9,5ekin, jarraian bizkaitarrak daude %17rekin. Kopururik handiena Arabari dagokio %72rekin, lurralde horrek daukan biztanleriarekin bat ez dato-rena, izan ere EAEko %13 osatzen baitu.

## Bisitarien jatorri geografikoa lurralde historikoen arabera

	Zenbat	%
Araba	393	72
Bizkaia	94	17
Gipuzkoa	51	9,5
Besterik	9	1,5
Guztira	547	100

(Ikus 32. diagrama 261. orrialdean)

### 4.8. OFIZIOZKO KEXAK

Hiritarrak aurkeztuta Arartekoak aztertu dituen kekez aparte, gure erakundeak bere kasa ikertu ditu euskal administrazio publikoen ustezko jarduera irregularrak gerta zitezkeen kasu batzuk. Ofiziozko jarduerak dira hauek, Ararteko erakundeak sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 17.1 artikuluan Arartekoari ezarritakoak, eta aukera ematen diotenak bere ikerlana hasteko, Administrazioaren bidegabeko ekintzak edo utzikeriak kaltetutako hiritarren erreklamazioei itxaron gabe.

Joan den 1995. urtean, Arartekoak 38 ofiziozko kexaren tramitazioari ekin zion, aurreko urtean baino bi aldiz gehiagori beraz.


Ofiziozko kexak berdintsu banatu dira alor batetik bestera, baina Arartekoaren jarduera gehien eragin dutenak Osasun eta Gizarte Ongizatea, Herrizaingoa, Ogasuna, Herri-Lan eta Zerbitzuak, Ingurugiroa eta Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza izan dira.

	Ofiziozko Kexak	Zenbat
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	7	18,4
Fun. Pub. eta Adm. Antolak.	6	15,8
Ogasuna	5	13,2
Herrizaingoa	5	13,2
Herrilanak eta Zerbitzuak	5	13,2
Ingurugiroa	4	10,5
Hirigintza eta Etxebizitza	3	7,9
Beste gestio batzuk	2	5,2
Hezkuntza	1	2,6
Guztira	38	100

**Arartekoaren ofiziozko jardueretan ikertu diren administrazio publikoei gagozkielarik, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek antzeko kopurua dutela ikus daiteke, Arartekoak hasitako ofiziozko kexen aldetik.**


<b>Foru administrazioak .....</b>	<b>13</b>
<b>Eusko Jaurlaritza .....</b>	<b>12</b>
<b>Toki administrazioak .....</b>	<b>10</b>
<b>Beste administrazioak .....</b>	<b>8</b>

## JASOTAKO KEXAK




### 1. DIAGRAMA

## KEXEN EGOERA ONARPEN PROZEDURAREN ONDOREN




## 2. DIAGRAMA

**EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN AURKAKO  
KEXAK ALORREZ ALOR BANATURIK**



**3. DIAGRAMA**


## ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO KEXEN BANAKETA



### 4. DIAGRAMA




## FORU ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA




### 5. DIAGRAMA

## EUSKO JAURLARITZAREN AURKAKO KEXAK ALORREZ ALOR BANATURIK




**6. DIAGRAMA**

## EUSKO JAURLARITZAREN AURKAKO KEXAK SAILEZ SAIL BANATURIK




### 7. DIAGRAMA

**FORU ADMINISTRAZIOEN AURKAKO KEXAK  
ALORREZ ALOR BANATURIK**




**8. DIAGRAMA**

**TOKI ADMINISTRAZIOAREN AURKAKO KEXAK  
ALORREZ ALOR BANATURIK**




**9. DIAGRAMA**

## KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO LURRALDE BANAKETA




**10. DIAGRAMA**

**KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO LURRALDE  
BANAKETA 10.000 BIZTANLEKO**



**11. DIAGRAMA**


## KEXEN BANAKETA LURRALDE BAKOITZEAN



### 12. DIAGRAMA




**1995ean BUKATUTAKO KEXEN EGOERA  
EMAITZAREN ARABERA**



**13. DIAGRAMA**

**1995ean AURKEZTUTAKO KEXETATIK  
BIDERAPENEAN JARRITAKOEN EGOERA**




**14. DIAGRAMA**

**1995ean AURKEZTUTAKO KEXETATIK BUKATUAK  
DAUDENEN EGOERA EMAITZAREN ARABERA**

**KEXADUNAK BADU ARRAZOIA**

143




**KEXADUNAK EZ DU ARRAZOIRIK**

208


**15. DIAGRAMA**

## BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA ALORREZ ALOR




**16. DIAGRAMA**

**BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA  
ALORREZ ALOR EMAITZAREN ARABERA**




**17. DIAGRAMA**

**EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO  
KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA  
ALORREZ ALOR**




**18. DIAGRAMA**

**EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO  
KEXEN BANAKETA ALORREZ ALOR EMAITZAREN ARABERA**



**19. DIAGRAMA**


**EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO  
KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL**



**20. DIAGRAMA**




**EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO  
KEXEN BANAKETA SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA**




**21. DIAGRAMA**

## ARABAKO FORU ALDUNDIA



**22. DIAGRAMA**

## BIZKAIKO FORU ALDUNDIA




BUKATUTAKO KEXEN  
ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA  
EMAITZAREN ARABERA


23. DIAGRAMA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA




**24. DIAGRAMA**

**FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA ALORREZ ALOR**




**25. DIAGRAMA**

**FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA  
ALORREZ ALOR EMAITZAREN ARABERA**




**26. DIAGRAMA**

**TOKI ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA ALORREZ ALOR**



**27. DIAGRAMA**


**TOKI ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA  
ALORREZ ALOR EMAITZAREN ARABERA**



**28. DIAGRAMA**




## KEXEN BANAKETA KEXADUNAREN ARABERA




**29. DIAGRAMA**

## KEXEN BANAKETA HIZKUNTZAREN ARABERA




**30. DIAGRAMA**

## BISITARIEN BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA



**31. DIAGRAMA**

## BISITARIEN JATORRIA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



**32. DIAGRAMA**

V. ATALA  
**ADMINISTRAZIOAREN SAIL  
BATZUEK ARGIBIDEAK EPE  
BARRUAN EZ EMATERI EUSTEA**

Garbi dago antolamendu juridikoak Ararteko erakundeari ematen dion betekizuna -alegia, Administrazioaren jarduna kontrolatzea eta ikertzea- ezin dela garatu erakunde horien baimenik eta elkarlanik gabe.

Horri dagokionez, eta 1995eko ekitaldian zehar burututako jardunei dagokienez, esan behar da aurkeztu zaizkigun kexen bidetik administrazio publikoei lankidetzat eskatu diegunean, funtsean jarrera positiboa aurkitu dugula erakunde horietan. Jarrera on hori erakutsi arren, batzuetan eskatutako informazioa bidaltzeko orduan atzerapenak ere egon dira, atzerapen horiek espedienteen ebazpena epe onargarrian ematea galarazi dutelarik. Administrazio eskudunek informazioa ematerakoan izaten duten atzerapenak, erakunde honekiko betekizunek ez betetzeaz gain, hiritarrekiko eta horiek gure erakundera jotzen duten unetik dauzkaten eskubideekiko errespetu falta ere adierazten du.

Gogoeta honen ondoren eskaintzen diren zerrendetan adierazita dago zein espedientetan egin behar izan den behin edo gehiagotan eskatutako informazioa igortzeko eskaria. Azalpen horrek erakusten du egoera noraino iristen den; alabaina erakunde honekiko elkarlana betetzeko zaletasunik txikiena azaldu duten administrazio erakundeak zehazki aipatzea zilegi delakoan gaude.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, 1994ko txostenean bezala aurtengoan ere aipatu behar dugu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erakutsi duela lankidetzarako joerarik gutxien. Hemeretzi kexa espediente bideratzeko hogeita bi aldiz erreklamatu behar izan zitzaion informazioa. Hemeretzi espediente horietatik bitan beste horrenbeste aldiz eskatu behar izan zitzaion informazioa bidaltzea.

Toki Administrazioaren alorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek erakutsitako elkarlanik eza aipatu behar da. Gasteizko Udalari, berrogeita zazpi aldiz erreklamatu behar izan zitzaion informazio osoa edo informazio zati bat, erakundea bideratzen ari zen hogeita hamasei kexa espediente burutzeko. Hogeita hamasei espedientetatik bitan hiru eskabide luzatu behar izan zitzaizkion. Bilboko Udalaren kasuan, hogeita hiru espediente bideratzeko hogeita hamasei aldiz eskatu behar izan zitzaion informazioa. Hogeita hiru espediente horietatik bitan hiru aldiz egin behar izan zen eskabidea. Azkenik, Donostiako Udalaren kasuan, hamar espediente bideratzeko hamahiru aldiz eskatu behar izan zaie informazioa bidal edo osa zezaten.

Aipatu diren salbuespenez gain, lankidetzarako joerarik gutxien azaldu dutenak aipatzea interesgarria izan daiteke, esandako administrazioen joera nagusia hori ez izan arren. Eta horrela Erandioko Udala aipatu behar da, espediente

bat burutzeko informazioa lau aldiz eskatu behar izan baitzitzaion, eta Biasteriko Udalari, espediente baterako hiru aldiz.

Arartekoaren aldetik administrazio publiko ezberdinei luzatutako gomendioen betetze mailaren azterketa txosten honetako beste atal batean egiten bada ere, esan behar da, batzuetan, gomendioak jasotzen dituzten erakundeak uzkur agertzen direla Arartekoak luzatutako gomendioari ematen dioten erantzuna honi jakinarazteko.

1) Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Saila nabarmendu behar da, izan ere, hamaika aldiz bidali behar izan zitzaion errekerimendua lau gomendio betetzeari buruz zer egingo zuen jakiteko, gomendio hauetako batean lau aldiz, eta beste batean hiru bider.

Foru aldundi bereko Ogasun eta Finantza Sailari, berriz, lau bider luzatu behar izan zitzaion errekerimendua gomendio bat betetzeari buruzko informazioa bidal ziezagun.

Gasteizko Udalari hamaika aldiz eskatu behar izan zitzaion sei gomendiorekin egindakoa jakinaraz zezan; kasu horietako batean lau aldiz.

2) Amurrioko Udalari bost aldiz eskatu behar izan zitzaion gomendio bat bete zuen ala ez jakinarazteko.

Bilboko Udalak zazpi gomendio bete ote zituen jakiteko hamar aldiz egin behar izan zitzaion eskaera. Berangoko Udalari lau bider eskatu behar izan zitzaion gomendio bat bete zuen ala ez adieraz zezan.

Getxoko Udalari, bestalde, egindako gomendioa beteko zuen jakiteko lau aldiz eskatu behar izan zitzaion informazioa. Azkenik, Irungo udala aipatu behar da, bost aldiz eskatu baitzitzaion gomendio bat betetzea.

Atal honetan zenbait administrazio erakunde aipatu diren arren, amaitzeko esan behar da espediente arazotsuetan gora-beherak izan badira ere, horrek ez duela esan nahi beste kasu batzuetan Arartekoari beharrezko lankidetzeta eskaini ez diotenik.

Jarraian azaltzen diren zerrendetan, lehen datak eskaera-ofizioa noiz bidali den adierazten du; parentesi artean agertzen den zenbakiak, berriz, errekerimendua zenbat aldiz egin den, eta ondorengo datek errekerimendu horiek noiz egin diren ematen dute aditzera. Bestalde, Bi, eta B laburdurek, hurrenez hurren, espediente bideratzen ari den edo bukatua dagoen adierazten dute.

Betidanik, erakundearen jarduerari buruzko txostena zein urteri zegokion kontuan izanda, soil-soilik urte hartan egindako errekerimenduak jaso izan dira atal honetan.

Dena den, kexa-espediente batzuetan, erakundeak egindako informazio-eskaerak edota gomendioak betetzerakoan gertatzen den atzerapenak urtealdi bat baino gehiago irauten du.

Hau dela eta, aurtengo txostenean 1995ean zehar bideratu diren kexetan egindako errekerimendu guztiak jasotzea erabaki dugu, nahiz eta aurreko urteetan eginak izan, administrazio batzuek gure eskaera edo gomendioak ez betetzeari nola eutsi dioten bere osotasunean erakusteko asmoz.

## 5.1. **ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK**

### A) **Eusko Jaurlaritz**

#### **Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila**

##### *Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailburua*

746/94 - Bi - Bertakoentzat aparkaleku publikoa ematerakoan ustez gertaturiko araugabetasunak.  
1995-02-03 (1) 1995-02-22

##### *Zerbitzu zuzendaria*

374/95 - Bi - Prentsa salmenta okindegi eta elikagai dendetan.  
1995-07-20 (1) 1995-10-20

#### **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

##### *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua*

565/94 - Bi - Irakasleen ordezkapenei buruzko araudia.  
1995-03-09 (1) 1995-05-08

607/94 - B - Karrerako funtzionaria behin-betiko destinoa noiz emango zain.  
1995-03-03 (1) 1995-05-03

729/94 - B - Eskola unitateen birrantolamendua.  
1994-12-30 (1) 1995-02-22

##### *Sailburuaren Kabinete Teknikoko Zuzendaria*

276/94 - B - Behin-behineko irakasleen lansariak.  
1994-12-09 (1) 1995-01-17

481/94 - B - Lansaria lanpostuari egokitzea.  
1995-01-13 (1) 1995-02-22

512/94 - B - Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko hautapen-probak: kalifikazioak haztatzeko zenbait bide erabiltzea.  
1995-12-02 (1) 1995-01-17

529/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1994-12-16 (1) 1995-01-17

565/94 - Bi - Irakasleen ordezkapenei buruzko araudia.  
1995-06-09 (1) 1995-08-23

568/94 - B - Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko hautapen-probak: epaimahaiak emandako kalifikazioa.  
1994-12-02 (1) 1995-01-17



- 194/95 - B - Ikastetxe batzuk baterabiltzeko aukera: ukitutako funtzionarien administrazio egoeran horrek duen eragina.  
1995-03-30 (1) 1995-05-05
- 295/95 - Bi - Irakasle kidegoaren lekualdatze-lehiaketan antzintasuna balioztatzea.  
1995-07-23 (1) 1995-08-22
- 538/95 - B - B ereduko haur hezkuntzarako gela bat zabaltzeko baimena ez ematea.  
1995-07-13 (1) 1995-08-24
- 574/95 - Bi - Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzarako beka ukatzea.  
1995-07-10 (1) 1995-08-24
- 610/95 - B - Titulazio berriak jartzeko eskaria.  
1995-07-10 (1) 1995-08-22
- 621/95 - Bi - Semea eskolaratu ezina.  
1995-07-13 (1) 1995-08-24
- 780/95 - Bi - Ikasgai guztiak eman ez zirelako ikasturtea luzatzea.  
1995-11-13 (1) 1995-12-05

#### *EHUko Idazkari Nagusia*

- 184/94 - Bi - Dietetika eta elikadura ikasketak beste unibertsitate-ikasketen baliokidetzat jotzea.  
1994-04-22 (1) 1994-06-02 / **1995-01-16**
- 13/95 - B - Plaza kopuru mugatua Arte Ederretako Fakultatean.  
1995-03-24 (1) 1995-05-03
- 610/95 - B - Titulazio berriak jartzeko eskaria.  
1995-07-10 (1) 1995-09-15

### **Ogasun eta Herri Administrazio Saila**

#### *Zerbitzu Zuzendaria*

- 576/93 - Bi - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-09-16 (4) 1994-05-10 / 1994-03-18 / 1994-11-18  
/ **1995-01-04**
- 695/93 - B - Etxebizitza erostean neurritz gaineko salneurria kobratzeagatik zigor-espedientea zabaltzea.  
1994-12-29 (1) 1995-01-31
- 140/95 - Bi - Behartze-bidea.  
1995-04-12 (1) 1995-06-23
- 691/95 - Bi - Eusko Jaurlaritzak Bizkaian duen Ordezkaritzan erakundeari zuzendutako idazkia ez onartzea.  
1995-08-31 (1) 1995-12-05

### *HAEEko Zuzendaria*

401/95 - Bi - Lan-poltsen sistema erabiltzea estatistika-teknikoentzako lanpostu hutsak betetzeko.  
1995-05-24 (1) 1995-08-21

## **Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila**

### *Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zuzendaria*

195/94 - Bi - Nekazal elkarte profesionaleri dirulaguntzak emateko irizpideak.  
1995-02-03 (1) 1995-02-23

### *Zerbitzu Zuzendaria*

157/94 - B - Gas naturalaz hornitzeko zerbitzu publikoa Lasarte-Orian.  
1994-11-11 (2) 1994-12-22 / **1995-01-31**

## **Herrizaingo Saila**

### *Zerbitzu Zuzendaria*

672/94 - B - Trafiko-zigorra.  
1994-12-02 (1) 1995-01-17  
697/94 - Bi - Poliziaren jarduera.  
1994-12-02 (1) 1995-01-16  
147/95 - Bi - Administrazioan euskaraz hitz egin ezina.  
1995-04-12 (1) 1995-11-13  
484/95 - B - Poliziaren jarduera.  
1995-06-02 (1) 1995-08-30  
590/95 - Bi - Poliziaren jarduera.  
1995-06-30 (1) 1995-08-30  
710/95 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-08-18 (1) 1995-12-05

### *Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaria*

477/93 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-03-17 (1) 1995-06-19

## **Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila**

### *Zerbitzu Zuzendaria*

651/94 - Bi - Hirigunean kokaturiko gasolindegia lekuz aldatzea.  
1995-04-26 (1) 1995-10-03  
121/95 - B - Etxebizitza soziala elbarritu batentzat egokitzea.  
1995-07-03 (1) 1995-09-01

## **Osasun Saila**

### *Araubide Judirikoaren Zuzendaria*

374/95 - Bi - Prentsa salmenta okindegi eta elikagai dendetan.  
1995-07-20 (1) 1995-10-20

### *Osakidetzako Zuzendari Nagusia*

780/92 - Bi - Adinekoen egoera zahar-egoitzan.  
1995-06-15 (1) 1995-08-24

701/94 - B - Hirurtekoak kontuan hartzea.  
1994-12-16 (1) 1995-07-17

737/94 - B - Atzerapena lekualdatze-lehiaketa batean.  
1995-01-27 (1) 1995-02-22

134/95 - B - Osasun zentro batera joateko lekualdatze-lehiaketarik ez egotea.  
1995-07-10 (1) 1995-08-24

## **Garraio Saila**

### *Eusko Trenbideak-en Zuzendari Nagusia*

13/95O - B - Arkitektura-oztopoak.  
1995-09-05 (1) 1995-10-18

826/95 - Bi - Trenen ordutegi aldaketak.  
1995-10-27 (1) 1995-11-27

## **Lehendakariordetza Saila**

### *Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaria*

720/94 - B - Izendapena bertan behera uztea ebazpena betetzearen ondorioz.  
1994-12-23 (1) 1995-02-01

## **B) Foru diputazioak**

### **- Arabako Foru Diputazioa**

## **Ogasun eta Finantza Saila**

### *Ogasun eta Finantza Saileko Diputatua*

23/95 - B - NUIZen egindako kitapenarekin ados ez egotea.  
1995-03-03 (1) 1995-05-02

## **Herrilan eta Garraio Saila**

### *Herrilan eta Garraio Saileko Diputatua*

452/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-09-30 (1) 1995-01-16

28/95O - B - Istripu-arrisku handia sortzen duen dezelerazio-karrila N-240 errepidean.  
1995-10-16 (1) 1995-11-29

## **Lehendakaritza Saila**

### *Lehendakaritza Saileko Diputatua*

671/94 - Bi - Hirurtekoak kontuan hartzea.  
1994-12-02 (1) 1995-07-17

## **Toki Erakundeekiko Harremanetarako eta Hirigintzarako Saila**

### *Foru Diputatua*

500/94 - B - Etxea berriztatzeko obra-baimena ematea.  
1994-12-28 (1) 1995-01-17

## **- Bizkaiko Foru Diputazioa**

## **Nekazaritza Saila**

### *Nekazaritza Saileko Diputatua*

687/94 - B - Laukiz aldean ehiza egitearen ondorioz jasandako arazoak.  
1994-12-07 (1) 1995-01-16

423/95 - B - Kuota ordaintzeko epeak arrantzarako baimenean.  
1995-05-30 (1) 1995-09-01

## **Gizarte Ongizate Saila**

### *Gizarte Ongizate Saileko Diputatua*

647/94 - Bi - Elbarritu bati ibilgailua erosteko dirulaguntza ematea.  
1995-01-09 (1) 1995-02-22

## **Herrilan Saila**

### *Herrilan Saileko Diputatua*

113/95 - B - Herrilanengatik Bidezaingoko legea haustea.  
1995-05-18 (1) 1995-10-20

## - Gipuzkoako Foru Diputazioa

### Gizarte Ongizate Saila

#### *Gizarte Ongizate Saileko Diputatua*

534/94 - Bi - Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera (GGD) eskatzea.  
1995-01-20 (1) 1995-02-22

### Ogasun eta Finantza Saila

#### *Ogasun eta Finantza Saileko Diputatua*

593/94 - B - Uren ustiaketagatik OEZ ez ordaindu behar izatea.  
1995-02-03 (1) 1995-03-22

168/95 - B - BEZ deklarazioak ez aurkezteagatik Ogasunak zigorra ipintzea.  
1995-03-24 (1) 1995-05-02

527/95 - B - Etxebizitzan inbertitutako diru-kopuruak NUIZ aitortzean kentzea.  
1995-07-10 (1) 1995-08-24

603/95 - B - Unibertsitate-ikasketengatik NUIZ aitortzean kenketa egiteko baimenik ez ematea.  
1995-07-10 (1) 1995-08-24

607/95 - Bi - NUIZ aitortzea aurkeztea.  
1995-07-10 (1) 1995-08-24

### Gizarte Zerbitzu Saila

#### *Gizarte Zerbitzu Saileko Diputatua*

814/95 - Bi - Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera (GGD) jasotzeko eskaria.  
1995-10-09 (1) 1995-11-13

## C) Udalak

### - Araba Lurralde Historikoa

#### *Artziniegako Alkatea*

500/94 - B - Etxea berriztatzeko obra egiteko baimena ematea.  
1994-09-05 (3) 1994-11-07 / 1994-12-28 / **1995-01-17**

#### *Kanpezuko Alkatea*

652/95 - Bi - Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergari dagozkion hainbat kuota beharrik gabe kobratzea.  
1995-09-01 (1) 1995-11-17

## Gasteizko Alkatea

- 783/93 - Bi - Kanposantu islamikorik ez izatea.  
1994-06-24 (2) 1994-09-13 / **1995-01-12**
- 785/93 - Bi - Kanposantu islamikorik ez izatea.  
1994-06-24 (2) 1994-09-13 / **1995-01-12**
- 302/94 - B - Bahitutako eta enkante publikoan ateratako ibilgailuaren udal-  
-zerga kobratzea.  
1995-12-16 (1) 1995-07-17
- 589/94 - B - Uraren erreziboak kobratzea lokalaren jabea aldatu eta gero.  
1994-10-21 (1) 1995-01-16
- 632/94 - B - Ibilgailua gidatzeko baimena bidegabe kentzea.  
1995-01-13 (3) 1995-01-17 / 1995-02-23 / 1995-03-24
- 685/94 - B - Udalaren zergak ordainarazteko zerbitzuaren portaerak sor-  
turiko ondoeza.  
1994-12-09 (1) 1995-01-16
- 705/94 - B - Erakusketa aretoa irekitzeko ordutegia.  
1994-12-16 (1) 1995-01-17
- 2/95 - B - Udalaren kirol instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko  
salneurri publikoak duen bonifikazioari buruz informaziorik  
ez ematea.  
1995-01-27 (1) 1995-02-23
- 17/95O - Bi - TAOren talonarioak lortzeko zailtasunak.  
1995-09-22 (1) 1995-12-04
- 46/95 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1995-02-24 (1) 1995-03-22
- 185/95 - B - Itxita zegoen lonja baten jabeari zaborren ariela bidaltzea.  
1995-03-30 (1) 1995-05-03
- 186/95 - B - Itxita zegoen lonja baten jabeari zaborren ariela bidaltzea.  
1995-03-30 (1) 1995-04-27
- 190/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-30 (1) 1995-05-03
- 191/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-30 (1) 1995-05-03
- 192/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-30 (1) 1995-05-03
- 193/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-30 (1) 1995-05-03
- 217/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-30 (1) 1995-05-03
- 223-228/95 - Bi -  
Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-30 - (1) 1995-05-03
- 374/95 - Bi - Prentsa salmenta okindegi eta elikagai dendetan.  
1995-07-20 (1) 1995-10-20

- 481/95 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-06-09 (1) 1995-08-30
- 492/95 - B - Trafiko-zigorra.  
1995-06-02 (1) 1995-08-30
- 540/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-06-30 (1) 1995-07-31
- 693/95 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1995-09-15 (1) 1995-10-30

#### *AMVISAko Gerentea*

- 646/94 - B - Ur kontsumoagatik prezio publiko gisa bidalitako errezi-  
boarekin konforme ez egotea.  
1994-11-24 (1) 1995-01-16

### **Administrazio batzarrak**

#### *Sagastietako Administrazio Batzarra*

- 49/95 - Bi - Administrazio Batzarrak jarritako saneamendu-hodiarekin  
konforme ez egotea.  
1995-10-18 (1) 1995-12-04

#### *Saratxoko Administrazio Batzarra*

- 155/95 - Bi - Herri-bidea egoera txarrean egotea.  
1995-10-10 (1) 1995-12-04

### **- Bizkaia Lurralde Historikoa**

#### *Abanto-Zierbenako Alkatea*

- 63/95 - B - Udalaren geldotasuna hirigintza-baimena ikuskatzerakoan.  
1995-06-23 (1) 1995-10-19
- 755/95 - Bi - «Gerrako umeak» deritzan taldeko kide batek etxebizitza pu-  
blikoa eskatzea».  
1995-10-27 (1) 1995-12-05

#### *Barakaldoko Alkatea*

- 37/95 - B - Trafiko-zigorra.  
1995-03-03 (1) 1995-05-03
- 469/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-10-09 (1) 1995-12-01
- 803/95 - Bi - Bi etxebizitza desjabetzea.  
1995-10-17 (1) 1995-12-01

### *Basauriko Alkatea*

- 265/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-09 (1) 1995-05-02
- 495/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-08-01 (3) 1994-09-08 / 1994-12-05 / **1995-01-16**
- 746/94 - Bi - Bertakoentzat aparkaleku publikoa ematerakoan ustez gertaturiko araugabetasunak.  
1995-02-03 (1) 1995-02-22
- 105/95 - Bi - Atzerritarrei udal erroldan sartzeari ukatzea.  
1995-03-10 (1) 1995-05-03
- 208/95 - Bi - Titularra den lanpostua ez bezalako postuari behin-betiko birratxikitzeko eskaria atzertzerakoan Udalak atzerapenez jokatzeari.  
1995-04-07 (1) 1995-06-09  
1995-10-09 (1) 1995-11-29

### *Bermeoko Alkatea*

- 164/95 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-30 (1) 1995-05-09

### *Bilboko Alkatea*

- 503/94 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1994-11-24 (1) 1995-01-05
- 525/94 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1994-12-16 (1) 1995-01-17
- 528/94 - B - Bizilagun elkarte bati ur-hodia konpontzeagatik kobratzea.  
1994-12-16 (1) 1995-01-16
- 598/94 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1994-12-02 (1) 1995-01-17
- 666/94 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1994-12-02 (1) 1995-01-16  
1995-03-03 (1) 1995-05-08
- 682/94 - B - Lur azpiko aparkalekua eraikitzeagatik eraikinak kalteak jasateari.  
1994-12-02 (1) 1995-01-16
- 35/95 - B - Autobus zerbitzuaren inguruko istiluak.  
1995-02-24 (1) 1995-03-22
- 43/95 - Bi - Zabor miaketa.  
1995-02-24 (1) 1995-03-22
- 81/95 - B - Trafiko-zigorra.  
1995-02-24 (1) 1995-03-22
- 248/95 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-04-27 (1) 1995-06-15



- 272/95 - B - Trafiko-zigorra.  
1995-04-12 (1) 1995-06-15
- 340/95 - Bi - Bilbon kalez kaleko salmenta baimentzea.  
1995-06-09 (1) 1995-08-23
- 474/95 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-06-02 (1) 1995-08-31
- 487/95 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-06-09 (1) 1995-08-30
- 567/95 - B - Trafiko-zigorra.  
1995-06-30 (1) 1995-08-31
- 615/95 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-07-10 (1) 1995-12-04
- 946/95 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-11-13 (1) 1995-12-12

#### *Durangoko Alkatea*

- 79/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1994-03-30 (3) 1994-05-09 / 1994-07-04 / **1995-01-16**

#### *Elorrioko Alkatea*

- 813/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-10-09 (1) 1995-11-27

#### *Erandioko Alkatea*

- 548/93 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-03-17 (1) 1995-05-02
- 124/95 - B - Enplegu publikoa eskaintzeko deialdietan parte hartzeagatik kobratutako arielarekin konforme ez egotea.  
1995-04-27 (1) 1995-06-19

#### *Getxoko Alkatea*

- 306/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-05-30 (2) 1994-09-12 / **1995-01-04**
- 454/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-06-02 (1) 1995-11-29
- 520/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-06-09 (1) 1995-09-04

#### *Gorlizko Alkatea*

- 614/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-07-10 (1) 1995-08-30

### *Leioako Alkatea*

30/95O - Bi - Eusko Trenbideak-en estazio batean argirik ez.  
1995-11-03 (1) 1995-11-27

### *Urduñako Alkatea*

659/95 - Bi - Etxerako laguntza ukatzea.

1995-09-29 (1) 1995-11-13

833/95 - B - «Aguas del Norte» enpresak ur edangarria hornitzeagatik le-  
hendik kobratzeko zeuzkan erreziboak kobratzea.

1995-10-27 (1) 1995-11-29

### *Portugaleteko Alkatea*

435/94 - B - Diziiplina-espedientea.

1994-10-10 (2) 1994-11-28 / **1995-01-17**

32/95 - Bi - Kalera iristeko obra egiteko baimena eskatzea.

1995-03-07 (1) 1995-05-03

### *Sestaoko Alkatea*

457/95 - Bi - Eraikina hondamen egoeran dagoelako adierazpena.

1995-10-19 (1) 1995-12-01

### *Zallako Alkatea*

382/95 - Bi - Orubeen jabetza izateko eskubidea.

1995-07-31 (1) 1995-12-15

## **- Gipuzkoa Lurralde Historikoa**

### *Antzuolako Alkatea*

561/94 - B - Eusko Jaurlaritzak etxebizitzarako emandako dirulaguntzak.

1994-12-30 (1) 1995-02-01

### *Beasaingo Alkatea*

243/95 - Bi - Etxebizitza batetik ixteko atea kentzea.

1995-05-23 (1) 1995-07-18

773/95 - Bi - SASFAL- Osakidetza integrazioa.

1995-10-27 (1) 1995-12-05

### *Belauntzako Alkatea*

867/95 - Bi - Udalak legez kontra jokatzeari.

1995-11-30 (1) 1995-12-28

### *Donostiako Alkatea*

- 132/94 - B - Kuota igoera zahar-egoitzan.  
1994-12-30 (1) 1995-01-31
- 311/94 - Bi - Jausteko zorian dagoen eraikina.  
1994-05-30 (2) 1994-09-08 / **1995-01-16**
- 708/94 - B - Gorotz isurketak bere jabetzako lurretan.  
1995-01-20 (1) 1995-02-23
- 296/95 - Bi - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-04-27 (1) 1995-05-18
- 749/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-10-27 (1) 1995-11-27
- 772/95 - Bi - Garbitasuna zona publikoan.  
1995-10-20 (1) 1995-12-04
- 814/95 - Bi - Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzea.  
1995-10-09 (1) 1995-11-13

### *Hernaniko Alkatea*

- 169/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-24 (1) 1995-05-02  
1995-08-04 (1) 1995-10-20

### *Hondarribiko Alkatea*

- 521/94 - B - Pub-galeria bat jartzeko baimena ukatzea.  
1994-12-16 (1) 1995-01-16

### *Irungo Alkatea*

- 27/95 - Bi - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-11-07 (1) 1995-11-27

### *Lasarte-Oriako Alkatea*

- 165/95 - Bi - Gainbalio gisa premiabidezko probidentzia bidaltzea.  
1995-03-24 (1) 1995-05-02

### *Errenteriako Alkatea*

- 68/95 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1995-02-24 (1) 1995-03-24

### *Tolosako Alkatea*

- 741/94 - Bi - Udalak onartutako erabakia betetzea.  
1995-01-30 (1) 1995-02-23
- 119/95 - Bi - Eremu-konpentsaziozko proiektuaren onarpenarekin ados ez egotea.  
1995-04-24 (1) 1995-05-22

*Zarauzko Alkatea*

52/95 - B - «Gutziz betetako alde»tzat jotako aldean bi taberna irekitzeko baimenak ematea.  
1995-02-24 (1) 1995-03-24

**D) Beste erakunde publiko batzuk**

**Bizkaiko Jaurerriko Abokatuena Bazkun Ohoretsua**

*Dekanoa*

713/95 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-02-16 (1) 1995-01-13  
718/95 - B - Bazkunak ez jardutea.  
1995-09-01 (1) 1995-10-18

**Bilboko Metroa**

*Zuzendari Gerentea*

30/95O - Bi - Eusko Trenbideak-en estazio batean argirik ez.  
1995-11-03 (1) 1995-11-27

**Urkiolako Parke Naturalaren Patronatoa**

*Lehendakaria*

6/95O - B - Jarduera gogaikarriak.  
1995-03-24 (1) 1995-05-02

**5.2. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BI BIDER EDO GEHIAGOTAN BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK**

**A) Eusko Jaurlaritza**

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

*Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua*

481/94 - B - Lansaria lanpostuari egokitzea.  
1995-04-07 (2) 1995-05-08 / 1995-08-23

*Kabinete Teknikoko Zuzendaria*

476/94 - B - Publiko bilakatutako ikastoletako irakasleak bereganatzea.  
1995-01-13 (2) 1995-02-01 / 1995-02-22

565/94 - Bi - Irakasleen ordezkapenei buruzko araudia.  
1995-11-11 (2) 1995-01-17 / 1995-02-22

### **Ogasun eta Herri Administrazio Saila**

*Zerbitzu Zuzendaria*

649/94 - Bi - Behartze-bidea.  
1994-12-02 (2) 1995-02-20 / 1995-03-24

### **Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saila**

*Zerbitzu Zuzendaria*

491/95 - B - Lezo eta Erreterria bitartean CAMPSAren depositoa jartzea.  
1995-07-10 (2) 1995-06-04 / 1995-10-20

### **Osasun Saila**

*Osakidetzako Zuzendari Orokorra*

54/95 - B - Euskalduntze-prozesuan jarraitzeko liberazio-eskaria ukatzea.  
1995-02-24 (2) 1995-03-20 / 1995-05-02  
171/95 - B - Eskola-asegurua.  
1995-03-24 (3) 1995-06-09 / 1995-07-18 / 1995-08-24

### **B) Foru diputazioak**

#### **- Arabako Foru Diputazioa**

#### **Lehendakaritza Saila**

*Lehendakaritza Saileko Diputatua*

523/95 - B - Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren heziketa-proiektua era-  
tzea.  
1995-06-16 (2) 1995-08-23 / 1995-10-18

#### **- Bizkaiko Foru Diputazioa**

#### **Gizarte Ongizate Saila**

*Gizarte Ongizate Saileko Diputatua*

674/94 - Bi - Gutxienezko lansaria eta besteri laguntzeko ordainsaria es-  
katzea.  
1994-12-30 (3) 1995-01-31 / 1995-02-23 / 1995-03-24

## C) Udalak

### - Araba Lurralde Historikoa

#### *Biasteriko Alkatea*

- 354/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-05-04 (3) 1995-06-09 / 1995-09-01 / 1995-10-17
- 489/95 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1995-06-16 (2) 1995-09-04 / 1995-10-20

#### *Gasteizko Alkatea*

- 427/94 - B - Enplegu publikoaren eskaintza.  
1994-12-23 (2) 1995-02-01 / 1995-02-22
- 437/94 - B - Trafiko-zigorra.  
1994-09-16 (3) 1995-01-04 / 1995-02-23 / 1995-03-22
- 479/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-10-05 (2) 1995-01-16 / 1995-02-23
- 127/95 - B - Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.  
1995-03-30 (2) 1995-05-03 / 1995-06-12
- 128/95 - B - Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.  
1995-03-30 (2) 1995-06-12 / 1995-08-23
- 183/95 - B - Itxita zegoen lonja baten jabeari bidalitako Jarduera Ekono-  
mikoaren gaineko Zerga.  
1995-03-30 (2) 1995-04-27 / 1995-06-12
- 504/95 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-06-23 (2) 1995-08-30 / 1995-12-04
- 628/95 - Bi - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-09-15 (2) 1995-11-07 / 1995-11-29

### **Administrazio batzarrak**

#### *Izarrako Administrazio Batzarra*

- 291/94 - Bi - Arazoak ur-horniduragatik.  
1994-05-30 (4) 1994-09-12 / **1995-01-04 / 1995-02-23 / 1995-03-24**

### - Bizkaia Lurralde Historikoa

#### *Alonsotegiko Alkatea*

- 405/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-05-18 (3) 1995-09-04 / 1995-10-20 / 1995-11-27

### *Bilboko Alkatea*

- 554/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1994-10-05 (3) 1995-01-16 / 1995-02-23 / 1995-03-24
- 732/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1994-01-05 (2) 1994-02-23 / 1995-03-24
- 743/94 - B - Ustez suhiltzaileek esku hartu zutelako kobratutako salneurri publikoa.  
1995-01-13 (2) 1995-02-23 / 1992-03-22
- 114/95 - Bi - Bere etxebizitza atarian autobus-geltokiaren markesina jartzea.  
1995-06-16 (2) 1995-10-03 / 1995-10-31
- 395/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-02-03 (2) 1995-03-22 / 1995-05-03  
1995-06-09 (2) 1995-09-01 / 1995-10-20
- 473/95 - Bi - Bilboko Udaltzaingoan arkitektura-oztopoak egotea.  
1995-06-05 (3) 1995-09-04 / 1995-10-20 / 1995-11-27

### *Erandioko Alkatea*

- 516/94 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1994-09-09 (2) 1994-01-16 / 1995-02-23  
1995-03-07 (3) 1995-05-02 / 1995-06-09 / 1995-09-01

### *Getxoko Alkatea*

- 89/95 - B - Bere jabetzako lurra gorotz hondakinez josita egotea.  
1995-03-09 (2) 1995-05-02 / 1995-06-14
- 400/95 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1995-05-18 (2) 1995-09-04 / 1995-10-18

### *Santurtziko Alkatea*

- 33/95 - B - Ikastetxea ixtea.  
1995-02-03 (3) 1995-03-20 / 1995-05-02 / 1995-06-09

## **- Gipuzkoa Lurralde Historikoa**

### *Amezketako Alkatea*

- 283/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-05-26 (2) 1995-09-01 / 1995-10-20

### *Beasaingo Alkatea*

- 536/95 - Bi - Bere etxebizitza aurrean zinea eraikitzea.  
1995-07-26 (2) 1995-10-19 / 1995-11-28

#### *Donostiako Alkatea*

- 311/94 - Bi - Tabernak baimenik gabe jardutea.  
1995-06-09 (2) 1995-09-04 / 1995-10-20
- 85/95 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1995-07-20 (2) 1995-08-31 / 1995-10-18
- 176/95 - Bi - Udalean arkitektura-oztopoak egotea.  
1995-03-22 (2) 1995-05-03 / 1995-06-12

#### *Hernaniko Alkatea*

- 575/94 - B - Obrek eragindako kalteengatik erreklamazioa egitea.  
1994-10-10 (3) 1995-01-16 / 1995-02-23 / 1995-03-24

#### *Irungo Alkatea*

- 665/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-12-02 (3) 1995-01-05 / 1995-02-23 / 1995-03-24
- 27/95 - Bi - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-02-03 (2) 1995-03-16 / 1995-05-19

#### *Elgetako Alkatea*

- 606/94 - Bi - Itokinek etxean kalteak sortzea.  
1995-03-24 (2) 1995-05-05 / 1995-06-19

#### *Oiartzungo Alkatea*

- 494/95 - Bi - Traste-gela etxebizitza moduan erabiltzeko baimena.  
1995-06-02 (2) 1995-10-19 / 1995-12-01

#### *Pasaiako Alkatea*

- 515/95 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-06-09 (2) 1995-08-24 / 1995-10-17

### **D) Beste erakunde publiko batzuk**

#### **Gipuzkoako Abokatuen Bazkun Ohoretsua**

##### *Dekano-Lehendakaria*

- 496/95 - Bi - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-06-08 (2) 1995-08-24 / 1995-10-25



### 5.3. **ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKI-TEARREN, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK**

#### A) **Eusko Jaurlaritza**

##### **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

###### *Kabinete Teknikoko Zuzendaria*

362/95 - Bi - Txanda librea duten bigarren mailako hezkuntzako irakasleentzako hautapen-probak.  
1995-07-10 (1) 1995-08-22

###### *Hezkuntza Administrazioaren Sailburuordea*

377/94 - B - Irakasle kidegoaren lekualdatze-lehiaketan nahitaezko destinoak ematea.  
1994-12-30 (1) 1995-02-01

##### **Ogasun eta Herri Administrazio Saila**

###### *HAEEko Zuzendaria*

401/95 - Bi - Lan-poltsen sistema erabiltzea estatistika-teknikoentzako lanpostu hutsak betetzeko.  
1995-10-09 (1) 1995-04-28

###### *Zerbitzu Zuzendaria*

649/94 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-06-30 (2) 1995-08-31 / 1995-11-21

##### **Herrizaingo Saila**

###### *Herrizaingo Sailburua*

697/94 - Bi - Poliziaren jarduera.  
1995-05-17 (2) 1995-08-30 / 1995-12-01

##### **Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila**

###### *Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburua*

467/94 - B - Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren jarduera; bertan uko egiten dio itunepeko etxebizitza baten sal-erosketa kontratua ontzat emateari.  
1994-12-16 (1) 1995-01-17

## B) Foru diputazioak

### - Bizkaiko Foru Diputazioa

#### Gizarte Ongizate Saila

##### *Gizarte Ongizate Saileko Diputatua*

- 186/94 - Bi - Pentsioa bertan behera uztea.  
1995-01-30 (4) 1995-02-23 / 1992-03-22 / 1995-06-09  
/ 1995-11-21
- 463/94 - Bi - IFASeko erizain-laguntzaile postuen txandak zehatz-mehatz  
eta banan-banan katalogatzea.  
1994-12-30 (3) 1995-02-01 / 1995-02-23 / 1995-03-22
- 674/94 - Bi - Administrari postuetarako oposaketan espedientea ikusteko  
aukera izatea eta epaimahai kalifikatzaileak bere erabakiak  
arrazoitu behar izatea.  
1995-08-11 (2) 1995-08-31 / 1995-11-03
- 228/94 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1995-07-13 (2) 1995-02-23 / 1995-03-24

#### Ogasun eta Finantza Saila

##### *Ogasun eta Finantza Saileko Diputatua*

- 474/93 - Bi - Familiako kide bat zerga-kenketarako kontuan hartzea.  
1994-12-09 (4) 1995-01-26 / 1995-03-02 / 1995-06-09  
/ 1995-08-24

### - Gipuzkoako Foru Diputazioa

#### Ogasun eta Finantza Saila

##### *Ogasun eta Finantza Saileko Diputatua*

- 431/94 - Bi - NUIZ aitorpenean garajeagatik zerga-kenketarik ez egitea.  
1995-02-01 (1) 1995-03-21

## C) Udalak

### - Araba Lurralde Historikoa

##### *Amurrioko Alkatea*

- 323/94 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1994-10-14 (6) 1994-12-23 / 1995-01-27 / 1995-02-23  
/ 1995-03-24 / 1995-05-03 / 1995-06-09

### *Gasteizko Alkatea*

- 676/93 - Bi - Gainkargua Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan.  
1994-05-20 (2) 1995-01-16 / 1995-01-31
- 301/94 - B - Trafiko-zigorra.  
1994-06-20 (4) 1995-01-04 / 1995-02-23 / 1995-03-22  
/ 1995-05-03
- 437/94 - B - Trafiko-zigorra.  
1995-06-09 (1) 1995-08-30
- 480/94 - B - Trafiko-zigorra.  
1995-01-05 (2) 1995-02-23 / 1995-05-03
- 725/94 - B - Zabor-arielen kobraketa.  
1995-03-17 (1) 1995-05-03
- 492/95 - B - Trafiko-zigorra.  
1995-10-09 (1) 1995-12-04

## **- Bizkaia Lurralde Historikoa**

### *Abanto-Zierbenako Alkatea*

- 94/94 - Bi - Eraikinean beste solairu bat eraikitzea.  
1995-07-20 (2) 1995-10-19 / 1995-11-28

### *Basauriko Alkatea*

- 438/94 - B - Auzokideek pairatzen dituzten arazo larriak.  
1995-05-26 (1) 1995-09-01
- 711/94 - B - Langile hornidurarako deialdi baten hautapen-proba balioztatzea.  
1995-01-20 (1) 1995-02-17

### *Berangoko Alkatea*

- 589/93 - B - Ur-horniduragatik Udalari zor zitzaizkion diru-kopuruak ordaintzea.  
1994-03-25 (5) 1994-05-11 / 1994-09-12 / 1995-01-16  
/ 1995-02-23 / 1995-03-24

### *Bermeoko Alkatea*

- 18/94O - B - Kalabozoen egoera.  
1995-01-24 (2) 1995-05-05 / 1995-08-31

### *Bilboko Alkatea*

- 686/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-11-24 (1) 1995-01-16
- 525/94 - B - Trafiko-zigorra.  
1995-04-12 (1) 1995-11-29

- 556/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-12-16 (2) 1995-01-16 / 1995-02-23
- 584/94 - B - Trafiko-zigorra.  
1994-12-23 (2) 1995-02-23 / 1995-03-22
- 598/94 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-03-17 (1) 1995-05-03
- 666/94 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-05-26 (2) 1995-08-30 / 1995-11-14
- 474/95 - Bi - Trafiko-zigorra.  
1995-10-09 (1) 1995-12-04

#### *Durangoko Alkatea*

- 273/94 - B - Trafiko-zigorra.  
1994-09-05 (1) 1995-01-05

#### *Ermuako Alkatea*

- 633/94 - Bi - Herri-bidearen konponketa.  
1995-05-18 (1) 1995-12-05

#### *Galdakaoko Alkatea*

- 718/94 - B - Etxea eraikitze baimena ukatzea.  
1995-06-30 (1) 1995-10-20

#### *Getxoko Alkatea*

- 342/93 - Bi - Erdisoto bat merkataritza-lokal gisa erabiltzeko aukera.  
1993-11-22 (7) 1994-03-21 / 1994-04-20 / 1994-09-09  
/ **1995-01-16** / **1995-02-23** / **1995-03-22** / **1995-06-14**
- 89/95 - B - Bere jabetzako lurra gorotz hondakinez josita egotea.  
1995-07-31 (2) 1995-09-01 / 1995-10-20

#### *Gorlizko Alkatea*

- 493/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-12-23 (2) 1995-01-31 / 1995-02-23

#### *Mallabiko Alkatea*

- 527/94 - B - Errepidearen egoera.  
1994-12-23 (2) 1995-02-23 / 1995-05-03

#### *Plentziako Alkatea*

- 60/94 - B - Urzuriaga mendia birlandatzeagatik lehendik ordaindu gabe zeuden diru-kopuruak ez ordaintzea.  
1994-03-11 (3) 1994-06-20 / 1994-04-12 / **1995-04-27**

*Sopelako Alkatea*

147/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-10-14 (1) 1995-01-16

*Zierbenako Alkatea*

62/94 - Bi - Hodi nagusia mantentzea eta konpontzea.  
1995-06-30 (2) 1995-10-19 / 1995-12-01

**- Gipuzkoa Lurralde Historikoa**

*Eibarko Alkatea*

626/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-12-02 (1) 1995-02-03

*Elgoibarko Alkatea*

487/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-11-24 (1) 1995-02-03

*Hernaniko Alkatea*

531/94 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1994-11-24 (3) 1995-01-16 / 1995-02-23 / 1995-03-24

*Irungo Alkatea*

110/94 - Bi - Jarduera gogaikarriak.  
1994-07-13 (6) 1994-12-16 / 1995-01-31 / 1995-03-16  
/ 1995-05-03 / 1995-06-08 / 1995-09-01

*Lasarte-Oriako Alkatea*

809/93 - B - Alkatetza Dekretua ez egiteratzea.  
1995-12-02 (1) 1995-01-16

VI. ATALA  
**ARARTEKOAK EGINDAKO  
GOMENDIOAK BETETZEA**

## 6.1. ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOAK BETETZEA

Arartekoak bere gain dauzkan ardurak betetzeko egiten diren jardueren artetik, bereziki hartu behar da kontutan erakundeak sortu eta arautu zuen Legeko 11.b) artikuluan aipatutako ahalmena. Hau da, Arartekoak gomendioak egin diezaizkieke herri-administrazio desberdinei, haien jarduera aztertu ondoren, haietan aurkitutako irregulartasunak edo legekontrakotasunak konpontzeko edo haien zerbitzuak hobetzeko. Ahalmen hori garrantzitsua da, tresna bat delako herri-administrazioek lege-antolamenduaren kontrako ekintzekin hiritarraren eskubi-deetan eduki dezaketen eragin txarra konpontzeko eta auzitan jarritako zerbitzu publikoa hobetzeko. Helburu horiek zein mailatan betetzen diren jakiteko, oso egokia da zehaztea zenbat diren administrazioek kontutan hartzen eta betetzen dituzten gomendioak eta zenbat ez. Horri dagokionez, esan nahi dugu erakunde honentzat oso atsegingarria dela jakitea bere gomendioa bete dela eta, hartara, halako arazo bat konpondu edo halako zerbitzu bat hobetu dela. Une horietan, ezin garbiago geratzen da eguneroko lanaren bidez honelako erakunde batek daukan betekizun garrantzitsua.

Joan den 1995. urtean, Arartekoak ehun eta berrogeita hiru gomendio egin zituen guztira: haietatik hirurogeita zortzi bete egin ziren, eta hogeita hamasei azken erantzunaren edo ebazpenaren zain daude; beste hogeita hamabost ez ziren bete eta lau zuzendu egin ditugu, eragindako administrazioak azaldu zituen argudioak aztertu eta gero.

Emandako gomendioak .....	143
Erakundeak atzera botatako gomendioak .....	4
Erantzun zain dauden gomendioak .....	36
Erantzuna jasotako gomendioak .....	103
Onartutako gomendioak .....	68
Onartu ez diren gomendioak .....	35

Hortaz, 1995ean eman eta behin-betiko erantzuna jaso duten gomendioen artetik %66 onartu dira. Emaizta hauek ondo neurtu ahal izateko, beharrezkoa da ondoren emango ditugun oharrek kontutan izatea.

Hasteko, garbi esan nahi dugu administrazio desberdinek, oro har, jarrera egokia izan dutela zuzendu dizkiegun gomendioak aztertzeke orduan.

Urtean zehar, hainbat kexa egon dira antzeko planteiamendua izan dutenak eta, Arartekoaren aldetik, erantzun berbera jaso dutenak. Bada, era honetako

arazoei erantzuna emateko orduan Arartekoak erabili duen irizpidea berbera izan bada ere, administrazioek gomendioei jaramonik ez egiteko erabilitakoak ere behin eta berriz errepikatu dira, espero izatekoa zen bezala; horregatik, onartu ez diren gomendioen kopurua handia izan den arren, kasu horietan egon diren arazoak beti berdintsuak izan dira, garbi dagoelarik horiei buruzko jarrera desberdina agertu dutela Arartekoak batetik, eta eragindako administrazioak bestetik.

Arartekoaren lan osoaren barruan gure gomendioei emandako ukoek duten garrantzia neurtzeko, garbi eduki behar da kasu horietan lege-antolamenduaren aginduei buruzko ulerbide desberdinengatik gertatzen direla behin eta berriz, bai gure erakundearen aldetik eta bai eragindako administrazioen aldetik, errepikatzen diren jarrera horiek.

Zuzendu dizkiegun gomendioak direla-eta, herri-administrazio desberdinekin eduki ditugun desadostasunak aztertzean, eta geroago arazoak zehaztasunez jorrazteko aukera egon badagoen arren, komenigarria da hementxe bertan ikustea zertan oinarritzen den esan dugun desadostasun hori, haren garrantziari buruzko ikuspegi zabalagoa eduki ahal izateko.

## **EUSKO JAURLARITZA**

Arazo hau aztertzen hasteko, Eusko Jaurlaritzaren organo desberdinen jardueretan aurkitu ditugun berezitasunak ikusiko ditugu.

Eusko Jaurlaritzan, batez ere bi dira gure gomendioetako batzuk onartu ez dituzten sailak: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Herrizaingo Saila, eta, zehazkiago, lehenengoaren Langilegoaren Kudeaketa Zuzendaritza eta bigarrenaren Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritza.

Hezkuntza alorreko administrazioaren jardunaren inguruan 1995. urtean bideratu ditugun kexa-espedienteetan gai ugari ukitu dira eta, beraz, zaila da guztiei buruzko azterketa orokorrik eskaintzea, kasu honetan izan dugun ekimenaren azalpena ikuspegi zabal batetik eginez.

Oro har, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zuzendaritzetan -adibidez, Ikastetxe Zuzendaritzan eta Unibertsitate Zuzendaritzan- oso harrera ona aurkitu du gure erakundearen ekimenak, haiekin gure bitartekaritza-lanak egitea egokitu zaigunean. Horren froga dugu bederatzi gomendio bakarrik geratu direla onartu gabe, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren organo desberdinei bidalitako hogeita zazpietatik.

Dena dela, onartu ez dizkiguten gomendioak eragindako kexa-espedienteak aztertzean, badirudi lankidetzarako jarrera askoz epelagoa dela langilegoaren kudeaketan finkatuta dauden prozesuen kasuetan.

Horri dagokionez, garbi utzi nahi dugu gure erakunde honek ondo dakiela nolako baldintzak eta mugak dauden langilegoaren kudeaketa alorrean hezkuntza-administrazioak egiten duen lanean. Haien artean, jakina, Estatu osorako prozesu horietako batzuk aldi berean kudeatu beharra dago, edota haietan eragindako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen kopuru handia, etab.



Hala ere, baldintza eta muga horiek sistematikoki erabili ohi dira -gure ustez, oker erabili ere (komunitateaz gaineko arau prozesalen ulerbide okerrak, etab.)- halako gomendio batzuk ez onartzeko, hain zuzen ere haien bitartez Administrazioaren kudeaketa lana hobetzea eta kasu horietan eraginda gertatzen diren pertsonen eskubideei babes egokia ematea besterik bilatzen ez denean.

Gure gomendioak ez onartzeko esan ditugun baldintza eta mugak erabiltzea ez litzateke gaitzestekoa izango, baldin eta muga eta baldintza horiek esan nahi dutenari buruzko motibazio zehatza edukiko balute. Baina hori horrela ez denez gero, hezkuntza alorreko administrazioak, eta, zehazkiago, Langilegoaren Kudeaketa Zuzendaritzak sarritan gure gomendioak ez onartzea Arartekoarekiko lankidetzarik ezaren froga dela baino ezin esan daiteke.

Esanak esan, Saileko agintari gorenetakoa batzuek norbanakoen arazoei buruzko kexa-espediteren batean izandako partaidetzaren bitartez, gure erakundeari kexa azaldu dioten pertsona batzuen eskubideak bermatu ahal izan dira kasuren batean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari bidali dizkiogun gomendioek jasotako ukoak aztertzean, ezer baino lehen argi utzi behar da kasu gehienetan trafiko-arauak hausteagatik ezarritako zigorrak izan direla kexak eragin dituzten arrazoiak; horregatik, kasu hauetan, bi erakundeen arteko desadostasunaren azpian dauden arazoak ondo zehaztea komeni da. Hasteko, esan dezagun onartu ez zaizkigun gomendio guztietan honelako zertzeladak antzeman zirela Administrazioaren espedienteetan: a) salaketaren berri ez zen ematen lege-haustea gertatzen den ekintzan, horren arrazoa azaldu gabe ondoren ibilgailuen jabeek bidali ohi zaizkien salaketa-orrietan, edota «trafikoaren beharrak» besterik ez aipatuz zurbide bezala; eta b) zigortzen den ekintza epez kanpo zegoen.

Horregatik, zuzendaritza honi egin dizkiogun gomendio guztietatik (24tik) onartu ez direnak asko (16) izan direla esan badaiteke ere, arazoa ez da uko horien kopurua, baizik eta halako arau batzuei buruzko ulerbideari buruz dauden desadostasunak. Desadostasun horiek Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunerako Legearen (martxoaren 2ko 339/1990 Erret Legegintza Dekretuak onartutakoaren) 77. eta 81.1 artikuluetan finkatutakoaren irismenari buruzkoak dira.

Bi artikuluko horietako lehenaren arabera (77.aren arabera, alegia), agintaritzaren agenteek lege-haustea antzeman duten unean eskuratu behar diote salaketa ustezko lege-hausleari, eta arrazoi egokiak egonez gero bakarrik atzera daiteke eskuratzeko hori, arrazoi horiek garbi adieraziz dagokion salaketa-orrian. Agindu honen irismena areago zehaztu da otsailaren 25eko 320/1994 Erret Dekretuaren bidez onartutako gai honi buruzko zigor-arautegian; izan ere, haren 10.2 artikuluari jarraituz, agintaritzaren agenteek salaketarik egiten badute salatutakoa geldiarazi gabe, salaketa horiek ezin dira baliozkoak izan, beraietan ez bada garbi adierazten zergatik izan den ezinezkoa ibilgailua geraraztea.

Eсандako legea indarrean jarri eta gero, horrelakorik gertatu ez dela egiaztatu den kasuetan (hau da, bidezainek ekintzan bertan ustezko lege-hausleari salaketa eskuratu ez, eta ondoren berari bidalitako salaketa-orrietan horren arrazoiak garbi azaldu ez diren kasuetan, hots, «trafikoaren beharrak» esapide lausoa baino erabili

ez denean), Arartekoak salaketa horiek indargabetzeko eskatu du. Jarrera hori hartzeko arrazoiak esan ditugun artikuluetako arauak diotena eta auzitegiek -zehazkiago esanda, Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazio Auzietarako Salaren 1995eko apirilaren 12ko epai batek- gai honi buruz emandako ulerbidea izan dira.

Administrazioak erabilitako argudioak, esan bezala, ez dira zuzenak Ararteko honen iritziz; izan ere, esandako epaiaren tesiak ematen duen oinarriari dagokionez, beste autonomia erkidego batzuetako auzitegi batzuek bestelako jarrera azaldu duten arren, epai horretan azaldutako arrazoibideak gai honi buruzko azken erabakia dira, eta horren poderioz zuzenduta geratu dira lehenagoko azterketa eta ondorioak. Bestalde, Arautegiko 10.2 artikuluko arauak atzerako indarrez aplikatzeko ezintasunak -lehen esandakoaren zertzeladekin, ekintzan bertan eman beharreko jakinarazpena ez duten salaketak baliorik gabe utziko bailituzke-, esan behar dugu interesatuaren onura handiagoa lortzearren bakarrik eduki lezakeela arau horrek atzerako indarrak. Honetaz, 1995eko apirilaren 12ko epaiak hauxe dio: «Lehen esan dugunari (hots, salaketak ez duela baliorik ekintzaren unean bertan ez bazaio jakinarazten ustezko lege-hausleari, ondoren horren arrazoiak zehaztu gabe) ez dio ezer kentzen 320/1994 Erret Dekretua hemen aztertu dugun ekintzaren ondorengoa izateak; izan ere, agintaritzaren agenteek ustezko arau-hausleari ekintzan bertan salaketaren berri jakinarazi beharra ezartzen duena ez da esandako Erret Dekretu hori, baizik eta lehenago aipatu dugun Legeko (martxoaren 2ko 339/1990 Erret Legegintza Dekretuak onartutako Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunerako Legeko) 77. artikulua. Hortaz, arautegiak egiten duen gauza bakarra arauak ez betetzeak -hots, baliorik ez izateak- daukan ondorio juridikoa argitzea besterik ez da, eta hori ez da prozedurazko arazoa; horregatik, gaurko demandagilearen alde egin behar du, zigor-materia bat denez gero».

Trafiko Legearen 81.1 artikulua (lege-haustearen indargaltze epeak eta horien kontaketa eteten duten ekintzak zehazten dituen) ulertzeko moduz dauden desadostasunei gagozkielarik, Arartekoaren ulerbidea honako hauxe da: alegia, esandako arauan Estatuak daukan zigor-ahalmenaren azalpen bat dagoenez gero, arau horren arabera indargaltze epearen kontaketa eten dezaketen ekintzak murriztapenez interpretatu behar direla. Aldiz, Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzaren arabera, espediente bat etenda egonez gero, dagokion zigorra iraungi ahal izateko derrigorrezkoa da Administrazioaren gelditasuna erabatekoa izatea. Nolanahi ere, indargaltze-epearen kontaketa eteteko ekintza izan daitekeen neurrian, salaketaren jakinarazpentzat zer hartu behar den zehazteko orduan erabatekoa da iritzi-desberdintasuna. Ildo horretatik, Administrazioaren organo honek dio jakinarazpen idatzia posta zerbitzuei bidaltzea eta jakinarazpena egiteko alferrik egindako saioak ere jakinarazpentzat hartu behar direla ondorio guztietarako. Alabaina, aipatu dugun 81.1 artikulua hitzez hitz dioena besterik da: «Indargaltze-epearen kontaketa (...) 78. artikuluan finkatutakoaren arabera eginiko jakinarazpena gertatuz gero eten daiteke»; horregatik, Arartekoaren aburuz, jakinarazpena bakar-bakarrik egin dela esan daiteke baldin eta interesatuari berari jakinarazi bazaio Administrazioaren ekintzaren berri, lege-antolamenduaren arabera doktrina jurisprudentzialak zehaztutako diseinuarekin.

Komeni da esatea euskal administrazioek onartu ez dituzten gomendio guztietatik %50 lehenago esandako arrazoiengatik trafikoari buruz egindakoak direla.

## **TOKI ADMINISTRAZIOA**

Toki Administrazioaren organoek onartu ez dizkiguten gomendioak aipatzeko orduan, Bilboko Udalak izandako jarrera nabarmendu behar da. Joan den 1995. urtean zuzendu genizkion hamasei gomendioetatik bederatzi onartu zituen, bost ez, eta beste bi erantzunaren behin-betiko ebazpenaren zain daude oraindik.

Udalbatzar horrek gure gomendioak betetzeko orduan daukan jarrerari buruz inolako baloraziorik egiten hasi gabe, kezkarria da batzuetan gomendio horiek onartuko ez dituztela erantzuteko bidaltzen dizkiguten txostenek ez dutela behar adinako oinarririk.

Arartekoak oso ondo daki legeei eta/edo egokitasunari buruzko irizpide garbiak erabili behar direla halako administrazio-organo bati gomendio bat egiten zaionean lehenago hartutako erabakiren bat atzera bota dezan edota halako jarduera bat zuzen dezan; horregatik, gomendioen oinarri edo argudio horiek argitzeko ahalegina egiten denean, ez da batere gizalegezkoa Administrazioak beste horrenbeste ez egitea bere kontrako jarrera azaltzeko. Bada, jarrera horixe aurkitu dugu zenbaitetan Bilboko Udalari gomendioak zuzendu dizkiogunean.

## **FORU ADMINISTRAZIOA**

Arartekoak zuzendutako gomendioak ez onartzeari dagokionez, ez dago ezer berezirik esateko hiru lurraldeetako foru administrazioetako organoei buruz.

Azalpen hau amaituta, erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 27. artikuluan agindutakoari jarraituz, Arartekoak egindako gomendioetatik onartu ez direnak ekarriko ditugu hona.

## **ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK**

### **EUSKO JAURLARITZA**

#### **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

*67/95/20, 86/95/20, 87/95/19 eta 96/95/19 espedienteak.* Donostiako Zubi-eskolan lanpostu berezi batzuk betetzeko merezimendu-lehiaketa iragarri zela

eta, Arartekoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari iradoki behar izan zion halako lanpostuei izaera berezia ezartzen bazitzaien, bidezkoa zela merezimendu bereziak ere behar izatea, izan ere, bestela, kontraesana bailitzateke lanpostu horiek horrela sailkatzea. Hala ere, hasierako iradokizun hau ez zuen onartu, hezkuntz administrazioak uste baitzuen lanpostu batzuei izaera berezia ezarri zitzaie lanpostuak beteko zituzten irakasleek beren borondatez aukeratzen zituztela bermatzeko. Erakunde honek behin eta berriz alegazioak egin arren, hezkuntz administrazioak bereari eutsi zion eta adierazi zuen Zubi-eskolaren ohiko jardunerako ez zela beharrezkoa, irakasleei hainbat merezimendu berezi eskatuz, haiek kualifikazio berezia erakutsi behar izatea; orduan, Arartekoak, bitartekaritza-lana egiteko beste biderik ez zegoela ikusita, gomendioa ez zela onartu jakinarazi zion interesatuari.

*675/95/20 espedientea.* Kasu honetan, gure gomendioa aurrerantzean Langilegoaren Erregistro Zenbakia irakasle funtzionarioei egokitzeari buruzko lege-antolamenduak sarrera berriko lehiatzaileen karrera profesionalean eraginik ez izatea zen, baina onartu gabe geratu zen, edo horixe ulertu behar izan dugu behintzat, hezkuntza alorreko administrazioaren organoak emandako erantzun honetatik: alegia, «...ahal delarik, dagozkion neurriak hartu egingo dira (...) une bakoitzean indarrean dauden arauak horretarako aukera ematen dutenean. (...) Estatuak ahalmena dauka hezkuntza alorreko oinarritzko legeak finkatzeko, eta horregatik era honetako konpromezu bat baliteke Administrazio honek ezin bete izatea».

*622/94/20 espedientea.* Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazio Auzietarako Salaren epai batek agindu zuenez, hezkuntza administrazioak batxilergoko katedradun numerario lanpostu huts bat erantsi behar zuen 1989-90 ikasturteko lekualdatze-lehiaketan. Erabaki hori betearaztearren, lanpostu hutsak esleitzeko prozesua behin-betiko erabaki zuen Agindua aldatu egin zen. Aldaketa horren eraginez, 1990-91 ikasturterako lekualdatze-lehiaketa erabaki zuen Agindua ere aldatu behar izan zen, eta ondorioz indarrik gabe geratu zen halako pertsona bati egin zitzaion lanpostu-esleiketa, eta pertsona horrek kexa aurkeztu zion Arartekoari. Gertatutakoa aztertu eta gero, Arartekoak aditzera eman zion esandako Sailari epaia betearaztearren nahikoa izango zela auzitan jarritako katedrako hutsunea esleitzea, gainontzeko esleipenak indarrik gabe utzi beharrean. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ordea, gure erakundeak egindako gomendioa ez zela onargarria adierazi eta, bestetik, lehenago esleitu zitzaion lanpostua lortu gabe geratu zen pertsonak aurkeztu zuen administrazio-errekurtsoari buruz ahalik eta lasterren erabakitzeko konpromezua hartu zuen.

*88/95/20 espedientea.* Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke azterketetan arazo batzuk sortu ziren, azterketariei aukerarik ez zitzaielako eman zuzendutako azterketak ikusi ahal izateko; horregatik, Arartekoak 1992ko txostenean sartu zuen gomendio orokor bat gogorarazi behar izan zion esandako sailari: alegia, «Hautaketa-prozeduretan Administrazioaren espedientea ikusteko ahalmena. Jar-duera hori ez onartzeak sor dezakeen defentsa eza». Dena dela, Hezkuntza, Uniber-

tsitate eta lkerketa Sailak, oinarririk gabe, Ararteko honi erantzun zion ez zituela onartzen gomendio horretan gure erakunde honek azaldutako irizpideak.

*321/95/20 espediente*a. Lekualdatze-prozedura batean parte hartzeko eskabide-orrian funtzionario batek oker jarri zituen eskatu zituen destinoaren kodeak, eta horrek halako arazo batzuk sortu zizkion -baina ez ziren konpondu, aipatu sailari eskatu zitzaion arren-; horregatik, Arartekoak gomendio bat egin zuen, era horretako errakuntzen ondorioz kalterik ez gertatzeko: alegia, lekualdatze-lehiaketetan, nahi den lantokiaren kodeaz gainera haren izena ere jar dadila arauzko eskabide-orrietan. Langilegoaren Kudeaketa Zuzendaritzak, aldiz, Estatu osoan batera egiten diren azterketetako prozedura-arau amankomunak onarrizkoak direla erantzun zuen, eta horregatik ez zuen gure gomendioa onartu.

*505/95/20 espediente*a. Behin-behineko irakasle funtzionario batek ez zuen onartu nahi izan 1994-95 ikasturtearen hasieran ezarri zioten lantoki aldaketa, eta horregatik herri-administrazioarekiko bere lotura hori galdu egin zuen. Sailari horren inguruko argitasunak eskatu ondoren, hezkuntza alorreko administrazioak onartu egin zuen lantoki aldaketa horretan bestelako arrazoirik ere egon zela, programazioaren eta plangintzaren arazoietatik aparte, ordura arte inoiz ez antzemandako zerbait egon zelako: hots, hartutako erabakia zigor gisa hartu zela. Hezkuntza alorreko administrazioako arduradunekin egin ziren gestio eta bileren ondorioz, argi geratu zen irregulartasun bikoitza zegoela kasu honetan. Alde batetik, agintearen erabilera okerra, zigortzeko helburu argia zeukan antolaketa-neurria zelako hartutakoa; eta, bestetik, pertsona horren eskubideen zanpaketa, ezin izan baitzuen bere burua defenditu, ez zelako erabili zegokion prozedura. Hori guztia ikusirik, Arartekoak kasu honetako jarduera guztiak indargabetzea gomendatu zuen. Alabaina, Administrazioak ez zuen gomendioa onartu, pertsona horrek ez zuelako inolako erreakziorik eduki lehen lekualdatzeagatik, eta bere borondatez eta behar bezala adierazita uko egin ziolako behin-behineko funtzionario egonkorra izateari.

*658/95/20 espediente*a. Lekualdatze-lehiaketa batera aurkeztu zen funtzionario baten merituen balorazioan halako gora-behera batzuk gertatu zirela-eta, Arartekoak gomendio bat bidali zion zegokion sailari. Haren arabera, ezer baino lehen, lehiatzaileei nahi dituzten merituz guztiak adierazteko moduko eskabide-eredua diseinatu behar zen; gainera, gomendioan beste honako bi puntu hauek ere bazeuden: batetik, lehiatzaileek ez dutela adierazitako merituzkoak zuzentzeko dokumentaziorik aurkeztu behar Administrazioaren esku dagoenean; eta, bestetik, prozedura horietan administrazio-errekurtsioak aurkezteko bidea ipini behar dela, desadostasuna gertatuz gero zuzenean auzibide arruntetara jo beharrik egon ez dadin. Alabaina, Langilegoaren Kudeaketa Zuzendaritzak ez zuen gomendioa aintzat hartu nahi izan, esanez eskabide-eredua oinarrizkoa dela Estatu osoko esparrurako egiten diren lehiaketetan eta haietan funtsezko aldaketarik sartuz gero kaltea egingo litzaiekeela interesatuei. Gainera, zuzendaritza horren arabera, lehiatzaileek berek agertu behar dituzte beren merituzkoak, eta, beraz, ez da Administrazioaren ardura zeintzuk hartu behar diren kontutan zehaztea; horretaz gainera,

Herri Administrazioen Lege Erregimenari eta Administrazio Prozedura Amankomunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.f artikulua zorrotz aplikatu ahal izateko beharrezkoa da arautegi bat garatzea. Azkenik, haien iritziz, errekursoak aurkezteko bide administratiboa ipintzeko, saileko arduradunak halako jarduera deskontzentratzaile bat hasi beharko zuen, eta erabaki hori Sailburuak aztertu beharko zuen, hainbat daturen argitan. Erantzun hori jaso ondoren, Arartekoak honakoa jakinarazi zuen: batetik, eskabide-orrirako proposatzen zen aldaketak ez zuela ezertan ere kolokan jartzen Estatu osorako erabiltzen zen oinarrizko eredia; bestetik, esandako 35.f) artikulua agindutakoaren aplikazioari buruz, Administrazioaren esku egiaztatuta dauden merituen adierazpen hutsarekin ez litzatekeela beharrezkoa izango lehenago esandako Legearen 71.1 artikuluan sartutako zuzenketa-bidea; eta, azkenik, administrazio-errekursoak aurkezteko bide bat ipintzeari dagokionez, egia dela saileko arduradunak antolaketa-erabaki bat hartzea beharrezkoa dela horretarako, baina proposatutako neurri horren bitartez bakar-bakarrik hautaprotetako erabakiak arintasunez berraztertzeo aukera eman nahi dela.

### **Herrizaingo Saila**

*477/93/19, 672/94/19, 686/94/19, 15/91/19, 75/95/19, 92/95/19, 102/95/19, 109/95/19, 111/95/19, 126/95/19, 156/85/19, 235/95/19, 239/95/19, 241/95/19, 332/95/19 eta 334/95/19 espedienteak.* Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzak espediente hauei guztiei buruz egin ditugun gomendioak ez ditu onartu, lehenago esan ditugun ulerbide-desadostasunengatik.

### **Ogasun eta Herri Administrazio Saila**

*477/93/19 espedientea.* Ogasun Sailordetzak ez zuen onartu espediente honi buruz bidali genion gomendioa, alegia, zigor-prozedura batean ezarritako isuna ordainarazteko hasitako premiabidearen barruko ekintzak bertan behera uztea. Gomendio hori egiteko, Arartekoak erabili zuen argudioa hauxe zen: zigor-erabakiaren jakinarazpena -kitapenaren jakinarazpentzat har daitekeena- onartu ez zenez gero, ezinezkoa zen behar bezala frogatzea jakinarazpena egina zenik. Bestalde, premiabide-espedientearen barruan egindako ekintzen jakinarazpena ediktu bidez egin zenez gero, lege-antolamendua hautsi egin zen, ohiz kanpoko jakinarazpen-bide horren erabilera ez zegoelako behar bezala zurituta, jakinarazpena eskura emateko saioek ustez jasotako ukoa ez baitzen behar bezala ziurtatu.

## **TOKI ADMINISTRAZIOA**

### **Bilboko Udala**

*525/94/19 espedientea.* Espediente honetan, Bilboko Udalari gomendatu egin genion trafiko arau-hauste batengatik (zehazki esanda, aparkatze okerragatik)

ezarritako zigor administratiboa indargabeturik uztea, baina udalak ez zuen gomendioa aintzat hartu. Gomendio horren oinarri gisa, Arartekoak aditzera eman zuen haren iritziz, esandako arau-haustea benetan gertatu zela frogatu zen arren, arau-hauste hori epez kanpo zegoela. Izan ere, salaketaren jakinarazpenean (arau-haustearen egun berean egin zen, hots, 1994ko martxoaren 15ean) ez zegoen behar bezala adierazita salatutako pertsonak benetan jaso ote zuen ala ez, edota uko egin zion. Geroago, 1994ko apirilaren 24an, ediktu bidezko jakinarazpena inola ere zuritu gabe, esandako salaketa argitara eman zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, salatutakoaren bizilekuko udaletxeko iragarki-taulan ipini gabe. Zigor-erabakia salatutakoari berari jakinarazi zitzaion geroago, 1994ko maiatzaren 26an. Erakunde honen iritziz, salaketaren jakinarazpena bai era batera eta bai bestera ere gaizki egin zegoen, ez zuelako betetzen lege-antolamenduan agintzen dena, eta horregatik ezin zen egintzat eman; horiek horrela, arau-haustea epez kanpo zegoela ondorioztatu behar izan genuen. Aldiz, Bilboko Udalak ez zuen onartu gure gomendioa, esanez gure erakundeak berak aitortu zuela arau-haustea benetan gertatu zela, baina ez zuen bestelako azalpenik eman gure partaidetza eragin zuten prozedurazko arazoei buruz. Arartekoaren ustez, Udalaren jarrera hori ez da zuzena.

*666/94/19 espedientea.* Espediente honetan, trafiko-arauak hausteagatik hartutako bederatzi zigor erabaki atzera bota eta indarrrik gabe uztea gomendatu genion Bilboko Udalari, baina erakunde horrek ez zuen aintzat hartu nahi izan. Bederatzi prozedura horietan irregulartasunak ikusi genituen bai salaketen, bai zigorren jakinarazpenetan, ediktuak erabili zirelako horretarako behar adinako zurbiderik eduki ez arren. Argi utzi nahi dugu zigor erabaki guztien eta salaketa horietako batzuen kasuan, ediktu bidezko jakinarazpena erabili zela lehenago interesatuari berari zuzenean jakinarazteko ahaleginik (alegia, emaitzarik gabeko ahaleginik) egin gabe. Egoki den bezala oinarritutako gomendioa egin ondoren, hau da, ikertutako espediente guzti-guztietan aurkitu genituen irregulartasun guzti-guztiak argi azalduta, Bilboko Udalak bere erantzunean erabili zuen argudio bakar eta okerra espediente guztiak behar bezala bideratu zirela izan zen, besterik ez.

*265/95/19 espedientea.* Espediente honetan, Bilboko Udalak zati batez ez zuen onartu gure erakundeak bidali zion gomendioa; bertan, trafiko-arauak hausteagatik hartutako bi zigor erabaki indarrrik gabe uzteko eta segituan azalduko ditugun gertakariei buruzko barne-ikerketa hasteko eskatu genion. Zigor erabakiak indarrrik gabe uztea gomendatzeko, kontutan hartu genuen salaketa-orrien jaso-agiriak identifikatu gabeko pertsona baten izenpeaz egin zirela, interesatuaren sinaduraren lekuan, Bilboko Udalaren zerbitzuek ere aitortu zuten bezala. Egiatzatu ahal izan zenez, interesatu hori Bilboko bere etxetik kanpo zegoen salaketa-orrien jakinarazpenari zegozkion jaso-agiriak izenpetu zirenean. Bilboko Udalaren barruan jakinarazpenak egiteko betekizuna daukan zerbitzuaren jardunean horrelako irregulartasuna antzeman ondoren, Ararteko erakundeak ikerketa bati ekin behar izan zion gertatutakoa argitzeko eta egon zitezkeen erantzukizunak zehaz-

teko. Bilboko Udalak, ordea, ez zuen gomendioa onartu nahi izan, esandako zertzelada hau guztiz salbuespenezkoa zela esanez. Gainera, herri-administrazioen jakinarazpenak iristen direnean hiritarrek agertzen duten jarrera oztopatzailea gaitzesten zuela adierazi zuen.

*513/95/19 eta 611/95/19 espedienteak.* Bi espediente hauetan ere Bilboko Udalak ez zituen aintzat hartu nahi izan gure erakundeak egin zizkion gomendioak. Bi kasuetan, trafiko-arauak hausteagatik hartutako zigor erabakiak bertan behera uztea eta zigortutakoek ibilgailua erretiratzearen tasa moduan ordaindu zutena beraiei itzultzea gomendatu genuen, hain zuzen ere udalaren jardunean ez zirelako errespetatu lege-antolamenduaren aginduak, Ararteko honen iritziz. Bi kasuotan, arazoa berdintsua zen, gutxi gora-behera; hots, Bilboko kale batzuetan egin behar ziren obra batzuen ondorioz, udal zerbitzuek behar bezala jarri zituzten seinaleak zegozkien kaleetan; alabaina, obrak egitearren, kaleak ibilgailurik gabe utzi behar ziren egunak iritsi zirenean, bi kasuotako ibilgailuak haietan aparkatuta zeuden -ez dago argi seinaleak jarri aurretik ala ondoren aparkatu ote ziren-, eta horregatik hiriko kaleetatik erretiratu eta horretarako dagoen lekura eramán zituzten. Ondoren, ibilgailuak salatu eta haien jabeek erretiratzearen tasa ordaindu behar izan zuten. Alde batera utzita ezin izan dela egiaztatu jabe horiek ba ote zekiten ala ez aparkatzeko debekua zegoela leku hartan eta une hartan, ondorio bezala esan behar dugu udalaren ekintza horrek ez dituela errespetatzen Zirkulazio Arautegiaren 292.III.f) artikuluko arauak: alegia, kaleak konpontzeko obrak daudela eta, ibilgailuak kaleetatik erretiratu beharra dagoenean (eta horixe gertatzen zen bi kasuotan), derrigorrezko informazio lana egiteaz aparte, agenteek ezin dutela inolako salaketarik egin ez eta dirurik jaso ere ibilgailuak lekuz aldatzeagatik. Alabaina, Bilboko Udalak ez zuen aintzat hartu gomendio hau, esanez salaketarik egin eta ibilgailuak lekuz aldatzeagatik dirua ordainarazi ezina premiazko obretan bakarrik dagoela. Arartekoaren iritziz, aipatu dugun arauaren testuak ez du biderik ematen Bilboko udalbatzarraren bereizketa hori egiteko.

## **Elgoibarko Udala**

*44/95/15 espedientea.* Elgoibarko Udalaren kasuan, hirigintza-ekimen baten ondorioz kokapenaz aldatu behar zuen enpresa bati jarduera hasteko tasa eta zergen ordainketa ez eginaraztea gomendatu zuen Arartekoak, baina esandako erakundeak ez zuen ontzat hartu. Gomendio hori emateko orduan, honakoa hartu genuen kontutuan: alegia, obra-eragilearekin akordiora iritsi zen arren lokalak uzteko, berez bazegoela aukerarik enpresari jabetza kentzeko, akordiorik lortu ezean. Izan ere, ekitate-jarraibidean oinarritu ginen gomendio hori emateko, zenbait epaitan finkatu den doktrina jurisprudenziala aintzat harturik: izan ere, doktrina horren irizpide orokorraren arabera, jabetza kentzen duten administrazioek ordaindu behar dituzte gastuak, enpresa batek bere lokalak utzi eta beste kokaleku batera aldatu behar badu, eta gastu horien barruan daude, besteak beste, obrak edo jarduerak egiteko lizentziagatik ordaindu beharreko tasa eta zergak ere. Hala ere, esandako udalak ez zuen aintzat hartu helarazi genion gomendioa, esanez



kasu honetako industriaren kokapen-aldaketa jabearen eta obra-eragilearen arteko akordioz erabaki zela, Elgoibarko Udalak erabaki horretan esku hartu gabe.

### **Amezketako Udala**

*283/95/17 espediente*a. Espediente honetan, Amezketako Udalak ez zuen ontzat hartu Ararteko erakundeak bidali zion gomendioa. Herri hartako enpresa batek sirena bat jarri zuen lantokian, eta biztanle batek kexa aurkeztu zigun sirena horrek gehiegizko zarata ateratzen zuelako; zegozkion eginbeharrekoak egin eta sirenak sortutako soinua udalerrri hartako Arau Subsidiarioek onartzen zuten gehieneko maila baino handiagoa zela egiaztatu ondoren, herri hartako udalbatzarrari gomendatu egin genion enpresaren jabeei aditzera eman ziezaiela sirenaren soinua-maila indarrean zegoen arautegiak onartutako mailara jaitsi behar zutela, edota, bestela, hori ezinezkoa balitz, sirenaren ordeztu beste tresnaren bat jar zezatela betekizun berbera egiteko. Amezketako Udalak, aldiz, ez zuen onartu gure gomendio hori, esanez kexa bakarra aurkeztu zela gai honengatik eta, berrogeita hamar urtez funtzionatzen egon eta gero, sirena hotsa herriko bizitzaren osagai bihurtu zela. Hala eta guztiz ere, sirena-hotsak ohiz baino gutxiago irautea lortu zuten.

## **BAZKUN ADMINISTRAZIOA**

### **Arabako Odontologo eta Estomatologoek Bazkunde Ofiziala**

*214/95/16 espediente*a. Arabako Odontologo eta Estomatologoek Bazkunde Ofizialak ez zuen onartu espediente honen barruan Ararteko erakundetik bidali genion gomendioa: alegia, ikerketa egin zezatela gure erakundeari aurkeztutako kexa batean salatutako bazkide baten akats profesionalari buruz. Alabaina, esandako bazkundeak ez zuen horrelako ikerketarik burutu, eta horregatik ezinezkoa izan zen erakunde honentzat jaso zuen kexari buruzko jarrera formalik hartzea.

## **ONARTUTAKO GOMENDIOAK**

Arartekoaren egiteko honen berri hobeto ematearren, hona hemen onartu diren gure gomendioetako batzuk:

## **EUSKO LEGEBILTZARRA**

*890/95/20 eta 976/95/20 espediente*ak. Administrazio-laguntzaile lanpostuetarako iragarritako deialdiko arauak zuzentzea gomendatu genuen kasu honetan, hain zuzen ere aurreko lan-esperientziari dagozkion merituen artean beste administrazio publikoetan funtzionario edo lan-kontratuko langile kategorian berberaz emandako zerbitzuak sartzeko.

## **EUSKO JAURLARITZA**

### **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

*481/94/20 espediente*a. Irakasle funtzionario batek Arabako Lurralde Ordezkaritzako giza eta material erako baliabideen plangintzako arduradun lanetan jardun zuen bitartean jaso ez zituen soldata-zatiak ordaintzeko gomendatu genuen kasu honetan.

*565/94/20 espediente*a. Espediente honetan, 1994ko apirilaren 29ko Ebazpenean ezarritakoari jarraituz, irakasle funtzionario bat berehala ordezkatzeko gomendatu genuen, sei urte baino gutxiagoko umeez arduratzeagatik aukeran dagoen lanordu-murrizpenaz baliatzerik eduki zezan. Halaber, erabaki horretan 4. idatzia aldatzeko gomendioa ere egin genuen, ordezkapenei buruzko arau orokorraren aplikaziotik salbuesteko hemen adierazitako kasua, alegia, sei urte baino gutxiagoko umeez arduratzeagatik aukeran dagoen lanordu-murrizpenaz baliatzearen ondorioz gertatzen diren lan-uzteak.

*607/94/20 espediente*a. Kasu honetarako Sailak berak proposatzen zituen irtenbideetatik, irakaskuntzaren alorrean atzeraka doazen espezialitateetako irakasle titularren interesentzat onuragarriagoa zena aukeratuko zela ziurtatzeko neurriak har zitezela gomendatu genuen.

*729/94/20 eta 28/95/20 espediente*ak. Eskola-unitateen plangintzari zegokionez, aurrerantzean, lurraldeetan hartzen ziren erabakiak eta hezkuntza-administrazioaren zerbitzu nagusiek bere kasuan hartu beharrekoak guztiz batera etortzeko behar ziren neurriak har zitezela gomendatu genuen.

*125/95/20 eta 410/95/20 espediente*ak. Kasu honetan, kexagileak hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuko irakasle moduan berronartzea gomendatu genuen, Espainiako Konstituzioaren 35.1 artikuluari jarraituz, zeinek agintzen baitu langileak bidezko arrazoirik gabe despeditua ez izateko daukan eskubidea errespetatu eta babestu behar dela.

*141/95/20 espediente*a. Espediente honetan, 1994ko apirilaren 20ko Aginduz iragarri zen irakaskuntzako funtzio publikora sartzeko deialdian erlijio-irakasle lanetan jardun zirela azaldu zuten lehiatzaile guztiei tratu berbera emateko neurriak har zitezela gomendatu genuen.

*293/95/20 espediente*a. Ezgaitasun edo elbarritasun iragankorrak dauzkaten ikasleen beharrei erantzuna emateko orduan, Euskal Eskola Publikoaren gaur egungo arau-markoan finkatuta dagoen integrazio helburua aintzat hartzearen, bide alternatiboak jartzeko edota orain daudenak aurrerago eramateko gomendioa eman genuen.

*617/95/20 espediente*a. Kexagileari hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketa ikusten utzi eta kalifikazioaren arrazoiak argitzeko gomendatu genuen.

*841/95/20 espedientea.* Kexagileak egindako erreklamazioari buruzko erabakia espreski hartzeko gomendioa eman genuen.

### **Euskal Herriko Unibertsitatea**

*13/95/20 espedientea.* Aurrerantzeko ikasturteetan, barruti erdibanatuko sistemaz ikasleak onartzean, ohizko sarbiderako ezarriko diren gutxienezko kalifikazioak zorrotz eskatzeko gomendatu genuen.

*318/95/18 espedientea.* Prestakuntza curricular osoa ematearren, hautazko ikasgaien eskaintza egiatan bete ahal izateko moduko neurriak har zitezela gomendatu genuen, ikasleek itxarokizun horiekin hasten dituztelako beraien ikasketak.

*378/95/20 eta 379/95/20 espedienteak.* Kexagileek halako graduondoko titulu batzuk luzatzeko egindako eskariei espreski baiezeko edo ezezko erantzuna emateko gomendatu genuen.

*858/95/20 espedientea.* Aurrerantzean, ikasketa-planetan izandako aldatuen eragina jasaten duten ikasleei plan berriak martxan jarri aurreko matrikulaldian behar adinako informazioa emateko gomendioa egin genuen.

### **Herrizaingo Saila**

*180/95/17 espedientea.* Sail honen ardurapeko eraikinetan oztopo arkitektonikoak desagertarazteko eta, bere kasuan, horretarako egin beharreko obrei ekiteko dauden ahalbideei buruzko azterlan bat egiteko konpromezua har zedila gomendatu genuen. Orobat, eraikuntza-proiektu berrietan oztopo arkitektonikoen desagertpenari buruzko arauak betetzeko ere gomendatu genuen.

*811/95/19 espedientea.* Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari honako gomendioa eman genion: alegia, hamar eguneko epea eman ziezaiola halako ziurtagiri bat lortzeko hautaprobetara aurkeztutako lehiatzaile bati horretan jarraitu ahal izateko behar zuen dokumentazioa aurkezteko.

*881/95/20 espedientea.* Kasu honetan kexa aurkeztu zuen pertsonari ebazpena espreski emateko gomendatu genuen.

### **Osakidetza**

*175/95/18 espedientea.* Eraso bat jasandakoei ematen zaien asistentziagatik eskatzen den ordaina kaltea jasan duenari barik, egin duenari esijitzea gomendatu genuen.

*353/95/18 espedientea.* Senitartekoen gaisotasunagatik onartzen diren lizentzia eta baimenen kasuan, ahaidetasun-mailagatik ukatu ordeztu, premia dagoela ziurtatzen den egoera guztietan emateko ahalbidea azter zedila gomendatu genuen.

982/95/18 *espedientea*. Erietxe bateko umeentzako laguntza-unitatearen erabileran antzemandako okerra zuzentzeko neurri egokiak hartzeko gomendioa eman genuen.

### **Ogasun eta Herri Administrazio Sails**

874/95/19 *espedientea*. Premiabidezko dirusarrera oker baten ondorioz, halako diru kopuru bat eta erreklamazio-egunetik sortarazitako korrituak itzultzeko gomendatu genuen.

385/95/19 *espedientea*. Premiabidezko probidentzia baten aurkako berraztertze-errekurtso bat ebatzi zuen Ogasun Sailburuordearen erabaki bat indargabetu eta beste bat emateko gomendatu genuen, bertan kontutan har zitezen errekurtso-idazkian hiritarrak agertutako arrazoibide guztiak, batez ere trafikoko isunaren iraungipenari buruzkoa, horixe baitzegoen premiabidezko espedientearen oinarrian. Gomendioari erantzunez, Administrazioak zigorra iraungita zegoela onartu eta premiabidezko espedientea bertan behera uztea erabaki zuen.

### **Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantz Sails**

179/95/17 *espedientea*. Gaur egun Justizia Administrazioaren ardurapeko eraikinetan dauden oztopo arkitektonikoak desagertarazteko aukerei buruzko azterlan bat egiteko konpromezua har zedila gomendatu genuen. Orobat, eraikuntza-proiektu berrietan oztopo arkitektonikoen desagertarazpenari buruzko arauak betetzeko ere gomendatu genuen.

578/95/18 *espedientea*. Arau-hauste aktetako akats batzuetan oinarrituta emandako ebazpen bat zuzentzeko gomendatu genuen.

### **Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sails**

276/95/19 *espedientea*. Bidai agentzia batek emandako zerbitzu oker baten ondorioz, sortutako arazoan organo eskudunek bitartekari lana egiteko gomendatu genuen.

### **Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sails**

1128/95/20 *espedientea*. Kasu honetan, zerbitzu-emankizun deialdi baten ebazpenaren kontrako kexa aurkeztu zuen pertsonak egin zuen errekurtsoa ez onesteko Agindua bertan behera uzteko gomendatu genuen, bertan antzemandako motibazio-akatsa zuzentzearen.

## **FORU ADMINISTRAZIOA**

### **Arabako Foru Aldundia**

*47/95/19 espediente.* Nekazaritza Foru Sailari gomendatu egin genion bertan behera utz zitzala ehiza arauak hausteagatik hasitako hiru zigor espedientetan ipinitako isunak, zigortzen zen ekintza hori epez kanpo zegoela ziurtatu genuelako, besteak beste.

### **Bizkaiko Foru Aldundia**

*228/94/19 espediente.* Gizarte Ongizateko Foru Sailari hiritar batek behin baino gehiagotan eginiko eskabide bati espreski erantzuteko gomendioa eman genion.

### **Gipuzkoako Foru Aldundia**

*69/95/19 espediente.* Nekazaritza eta Espazio Natural Sailari gomendatu egin genion ehizaren inguruko gai batez hiritar batek egindako informazio eskariari espreski erantzuna emateko.

*244/95/16 espediente.* Hiritar bat foru jabetzako ospitale batean gaiso egon zen aldiari zegozkion prezio publikoak itzultzeko gomendioa egin genion Ogasun Sailari.

*1052/95/16 espediente.* Pertsona Fisikoen Errenta Zergaren aitortpenean hiritar batek aukeratutako tributazio mota onar zezala gomendatu zitzaion Ogasun Sailari.

## **TOKI ADMINISTRAZIOA**

### **Arabako udalak**

#### **Gasteizko Udala**

*427/94/20 espediente.* Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22.3 artikuluan ezarritakoa zorrotz betetzeko gomendioa eman genuen kasu honetan, alegia: lan-eskaintza publikoetan sartuta dauden lanpostuak ezin direla kendu edo aldatu. Halaber, aurrerantzean funtzionario berriak hautatzeko lehiaketa-oposizioetarako deialdietan buruzagitza tankerako lanpostu hutsak sartzeko ere gomendatu genuen.

*437/94/19 espediente.* Prozedura akatsak antzeman genituela-eta, trafiko arauak hausteagatik hasitako zigor espediente batean ipinitako isuna bertan behera uzteko gomendatu genuen.

*480/94/19 espedientea.* Kasu honetan, trafiko arauak hausteagatik hasitako zigor espediente bati buruz emandako ebazpena bertan behera uzteko gomendatu zen, zigortzen zen ekintza epez kanpo zegoela ziurtatu zelako eta jakinarazpenak egiteko moduan irregulartasunak aurkitu zirelako.

*646/94/16 espedientea.* «Gasteizko Udal Urak, S.A.» enpresari honako gomendioa egin zitzaion: hots, espediente honetako kexagileari ur kontsumoagatik bidali zitzaion ordainkizuna berriro kalkula zezatela, aurreko denbora-tarteetako batez bestekoak ateraz.

*725/94/16 espedientea.* Zabor bilketaren tasaren derrigorrezko ordainarazpenari zegokion premiabidezko gainordaina bertan behera utzi eta zergadunak bere zorraren zati nagusia ordaintzeko epea luza zedila gomendatu genuen.

*139/95/19 espedientea.* Trafiko arauak hausteagatik hasitako zigor espediente bati buruz emandako ebazpena bertan behera uzteko gomendatu zen, ibilgailua ez zelako geldiarazi legez kanpoko ekintza gertatu zenean eta horren arrazoiak ez zirelako aditzera eman gerora ibilgailuaren jabeari bidali zitzaion salaketa-orrian.

*301/95/20 espedientea.* Judizmendi gizarte etxeko kirol instalazioetan, espazio irekien oinarrizko diseinua errespetatuz, aldageletarako zona amankomunean hiritarren intimitatea errespetatzeko neurriak har zitezela gomendatu genuen, hiritar horiek gutxienezko intimitate baldintzak eduki ezean gizarte etxera joateari uko egin beharrik izan ez dezaten, arrazoi etiko edo moralengatik ez ezik, baita gerta litezkeen arazo fisiko edo psikikoengatik ere.

*480/95/16 espedientea.* Zabor bilketaren tasa arautzen duen Ordenantzako tarifan, etxabe itxietarako aplikazioan, aldaketa sartzeko gomendioa egin genuen.

*481/95/19 espedientea.* Trafiko arauak hausteagatik hasitako zigor espediente bati buruz emandako ebazpena bertan behera uzteko gomendatu zen, zigorra erabakitzeko froga bakarra trafikoa zaintzeko ahalmena ez zeukan agente batek egindako salaketa izan zelako.

*492/95/19 espedientea.* Zigor prozedura batzuei buruz emandako ebazpenak atzera botatzeko gomendioa eman genuen, jakinarazpenean irregulartasunak gertatu zirela egiaztatu zelako eta arau-haustea epez kanpo zegoelako.

## **Bizkaiko udalak**

### **Bilboko Udala**

*593/91/17 espedientea.* Trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigorra bertan behera uzteko gomendatu zen, espedientean zigortzen zen ekintza epez kanpo zegoelako. Bilboko Udalak bidali zigun erantzunean aditzera eman zigun aipatutako isuna kendu egin zutela gure gomendioa iritsi baino lehen ere.

*610/94/19 espediente.* TAO delakoa arautzen duen Udal Ordenantza hausteagatik ezarritako zigorra atzera botatzea gomendatu genuen, zigorra erabakitzeko froga bakarria trafikoa zaintzeko ahalmena ez zeukan agente batek egindako salaketa izan zelako.

*661/94/19 espediente.* Trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigorra bertan behera uzteko gomendatu zen, salaketaren eta zigorraren berri jakinarazteko prozeduran irregulartasunak antzeman zirelako (ediktu bidez egin zen, inolako zuribiderik gabe).

*732/94/19 espediente.* Trafiko arauak hausteagatik hasitako zigor espedientearen inguruko zertzelada batzuei buruz, Bilboko Udalari bidali zitzaion argi-bide eskari bati erantzuna espreski emateko gomendatu genuen.

*3/95/17 espediente.* San Inazio auzoa garbitzeko lanak azkar has zitezela gomendatu genuen, leku hartako segurtasuna eta osasungarritasuna behar bezala ziurtatzeko.

*248/95/19 espediente.* Trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigorra eta geroago hasitako premiatze-ekintzak ere bertan behera uzteko gomendatu zen, kasu honetan zigorra erabakitzeko froga bakarria trafikoa zaintzeko ahalmena ez zeukan agente batek egindako salaketa izan zelako eta, gainera, irregulartasunak antzeman zirelako jakinarazpenaren prozeduran.

*387/95/19 espediente.* Trafiko arauak hausteagatik hasitako zigor espediente bati buruz emandako ebazpena bertan behera uzteko gomendatu genuen; izan ere, ibilgailuaren jabeari salaketaren berri jakinarazi ziotenean, honek gidaria bera ez zela erantzun zion Udalari, bai eta arau-haustearen nortasuna eman ere, baina ez osorik, ordea. Hala eta guztiz ere, salaketa berari egin zitzaion, zigortu beharreko arau-haustearen egilea bailitzan.

*474/95/19 espediente.* Trafiko arauak hausteagatik hasitako zigor espediente bati buruz emandako ebazpena bertan behera uzteko gomendatu genuen, egiaztatu zelako, alde batetik, zigortzen zen ekintza epez kanpo zegoela, eta, bestetik, ediktu bidez egin zen jakinarazpenaren prozeduran irregulartasunak aurkitu zirela.

*567/95/19 espediente.* Trafiko arauak hausteagatik hasitako zigor espediente bati buruz emandako ebazpena bertan behera uzteko gomendatu genuen, besteak beste, zigortzen zen ekintza epez kanpo zegoela egiaztatu zelako.

## **Galdakaoko Udala**

*718/94/15 espediente.* Errepide bat zabaltzeko egin beharreko obregatik desjabetutako etxe baten ordez, kexagileari familia bakarreko etxebizitza egiteko lizentzia emateko gomendioa eman genuen.

106/95/19 *espediente*a. Atzerritar batzuen egoera juridikoa normaltzeko zegozkien erabaki administratibo eta jurisdikzionalen zain zeudela-eta, erroldaratzeko epea bertan behera uzteko gomendatu genuen.

### **Getxoko Udala**

89/95/17 *espediente*a. Udalari gomendatu egin genion lursail baten jabeari eska ziezaiola bere lursail horretatik isuritako ur beltzak beste lursail batera iragazten ez uzteko neurriak har zitzala.

771/95/19 *espediente*a. Getxoko Udalari gomendatu egin genion espreski erantzun ziezaiola hiritar batek hango Udaltzaingoko funtzionario baten ekintza bati buruz egin zuen informazio eskariari.

### **Zornotzako Udala**

406/95/17 *espediente*a. Ostalaritza-lokal baten bermezko itxiera gomendatu genuen, ez zeuzkalako beharrezkoak ziren instalazio eta irekitze baimenak; horrekin batera, jabeari derrigorrezko legeztapena lor zezala eskatzeko gomendioa ere egin genuen.

### **Basauriko Udala**

609/95/19 *espediente*a. Ustezko arau-hauste administratibo batengatik egindako salaketa zela-eta, udalbatzarraren organoek hartutako erabakiak salaketa aurkeztu zuen hiritarrari jakinarazteko gomendioa egin genuen.

### **Lemoizko Udala**

704/93/15 *espediente*a. Arau subsidiarioak aldatzeko gomendatu genuen, haietan ez dagoelako araututa taberna-jatetxe erabilera ipintzea hirugarren adinekoentzako zerbitzua ematen zuen eraikuntza batean.

## **Gipuzkoako udalak**

### **Abaltzisketako Udala**

223/94/18 *espediente*a. Halako administrazio-emakida batean finkatutako arauak garatzeko gomendioa eman genuen, haren helburuen betetze maila kontrolatzearen.

### **Azkoitiko Udala**

751/91/17 *espediente*a. Ostalaritza-jarduera bat ezkutuan, hau da, beharrezko lizentziak eduki gabe egiten ari zela jakitean, gure erakundeak Alkatetzaren dekretu baten bidez behin-betiko itxi zedila gomendatu zuen. Lokala itxi zenean, kexaren arrazoa desagertarazi zela-eta, Arartekoak onartutzat jo zuen gomendio hau.



## **Errenteriako Udala**

*40/95/19 espediente.* Berdeguneak egin eta lorategi bihurtzeko moduko lursailak ahalik eta lasterren lortzeko gomendioa eman zen.

## **Zarauzko Udala**

*177/95/17 espediente.* Aparkaleku berri batzuk eraikitzen ari zirela-eta, elbarrien eta mugikortasun murrizteko pertsonen sarbidea errazteko neurri teknikoak har zitezela gomendatu genuen.

## **BESTE TOKI ERAKUNDE BATZUK**

### **Izarrako Administrazio batzarra (Araba)**

*291/94/19 espediente.* Ur zerbitzura lotzearen tasaren kitapenagatik hiritarrek kexa aurkeztu zuten unean indarrean zegoen ordenantzaren arabera egin zedila gomendatu genuen.

### **Luxaondoko Administrazio batzarra (Araba)**

*456/94/15 espediente.* Bide batean inolako ekintzarik ez egiteko gomendioa eman genuen, jabetza publikokoa zela frogatu gabe zegoelako.

## **BAZKUN ADMINISTRAZIOA**

### **Arabako Hiri Jabegoaren Kamara Ofiziala**

*885/95/16 espediente.* Behin baino gehiagotan baja eskatu zuen bazkide bati eskaria onartzeko gomendatu genuen.

## **ERANTZUN ZAIN EDOTA BEHIN-BETIKO EBAZPENIK GABE DAUDEN GOMENDIOAK**

## **EUSKO JAURLARITZA**

### **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

*671/94/20 espediente.* Kasu honetako kexagileak Araba Lurralde Historikoan zeuden eta gaur egun Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jabetzakoak diren ikastetxe batzuetan 1975-76 eta 1978-79 ikasturteetan eman zituen zerbitzuen frogabide gisa Arabako Foru Aldundiak lehendik luzatutako ziurtagiri bat osatzeko gomendioa eman genuen; gomendioaren arabera, zerbitzu horien zerrenda, eskatutako titulazioa, lan-baldintzak, jasotako soldata eta zerbitzu

horien bestelako ezaugarriak ere adierazi behar ziren, bai eta nolako lotura izan zuten ere administrazioarekin, ekainaren 25eko 1.461/1982 Erret Dekretuari jarraituz.

*1022/95/18 espediente*a. Publikazio prozesua etenda geratu ondoren, ikastetxe baten egoera azter zedila iradoki genion hezkuntza alorreko administrazioari.

*1034/95/20 espediente*a. Egindako eskari bati erantzuna espreski emateko gomendatu genuen.

## **Euskal Herriko Unibertsitatea**

*246/95/20 espediente*a. Irakasle funtzionarioen seme-alabak tasa akademiakoetatik salbuesteko orduan, ikasleen errendimendua kontutan ez izateko gomendioa egin genuen.

*1043/95/18 espediente*a. Ikastetxe batean eskolen normaltasuna berreskuratzeke beharrezko neurriak har zitezela gomendatu zen.

## **Herrizaingo Saila**

*169/94/19 espediente*a. Zigor espediente bat bideratzeko orduan, kexagileen erruduntasunari buruzko zertzelada batzuk kontutan izan zitezela gomendatu genuen. Herrizaingo Sailak egokitzen jo zituen arrazoibideak bidali zizkigun, eta aztertu gabe daude.

*559/94/19 espediente*a. Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigorra atzera botatzeko gomendioa egin genion. Administrazio organo horrek egokitzen jo zituen arrazoibideak bidali zizkigun, kexagileak zigor-erabakiaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuela jakinaraziz. Orduan, kexa-espedientearen biderapena eten egin zen, aipatutako administrazio-errekurtsioa ebatzi arte.

*697/94/19 espediente*a. Iradokizun bat helarazi genion Herrizaingo Sailari, Ertzaintzak hiritar batzuen identifikazioa egiteko erabili zuen moduari buruz. Esandako administrazio-organok egokitzen jo zituen arrazoibideak bidali zizkigun, eta aztertu gabe daude.

*116/95/19 espediente*a. Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigor erabakia bertan behera uzteko gomendioa egin zitzaion. Esandako administrazio-organok egokitzen jo zituen arrazoibideak bidali zizkigun, eta aztertu gabe daude.

*132/95/19 espediente*a. Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigor erabakia bertan behera uzteko gomendioa egin zitzaion. Esandako administrazio-organok egokitzen jo zituen arrazoibideak bidali

zizkigun, bai eta adierazi ere kexagileak administrazio-errekurtsua aurkeztu zuela zigor erabakiaren kontra. Horregatik, kexa-espedientearen biderapena eten egin zen, aipatutako administrazio-errekurtsua ebatzi arte.

*140/95/19 espedientea.* Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigor erabakia bertan behera uzteko gomendia egin zitzaion. Esandako administrazio-organoak egokitzat jo zituen arrazoibideak bidali zizkigun, eta aztertu gabe daude.

*394/95/19 espedientea.* Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigor erabakia bertan behera uzteko gomendia egin zitzaion. Esandako administrazio-organoak egokitzat jo zituen arrazoibideak bidali zizkigun, eta aztertu gabe daude.

*558/95/19 espedientea.* Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigor erabakia bertan behera uzteko gomendia egin zitzaion. Esandako administrazio-organoak egokitzat jo zituen arrazoibideak bidali zizkigun, eta aztertu gabe daude.

### **Ogasun eta Herri Administrazio Saila**

*649/94/19 espedientea.* Kexagileari halako diru-kopuru bat ordainarazi zitzaion, baina, geroago, bakar-bakarrik exekutututako zorraren zati nagusiari zegokiona itzuli zioten; horregatik, diru-kopuru horrek sortarazitako korrituak ordaintzeko gomendia eman genuen.

### **Garraio eta Herrilan Saila**

*22/95/15 espedientea.* Irunen egiten ari ziren ubidetze-lanak iraun bitartean, sarbideak egoera onean edukitzeko eta, obrak amaitu ondoren, lehengo moduan uzteko beharrezko neurriak har zitezela gomendatu zen.

### **Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila**

*482/95/20 espedientea.* Etorkizunean gerta zitezkeen beharrak ase ahal izateko asmoz, ordezkapenak egiteko hautagai zerrenda bat osatzea eta funtzio publikorako sarrerak eduki behar dituen berdintasun, meritua eta gaitasun jarraibideetan oinarritzea gomendatu zen.

## **FORU ADMINISTRAZIOA**

### **Bizkaiko Foru Aldundia**

*186/94/01 espedientea.* Gizarte Ongizate Sailak, kasu honetako hiritarra bere ezkontidearengandik banatzeko tramiteak hasi eta bere egiazko egoera zibila

egiazatzeko moduan egon arte, gizarte ongizateko fondoaren konturako pentsio baten ordainketa etetea erabaki zuen; horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Segurantzak Sailburuak arazo honetan esku hartu eta azpimarratu egin zuen pentsio horiek derrigorrez duten izaera subsidiarioa. Hala eta guztiz ere, kontutan izanda Gizarte Ongizate Sailak berezko banaketa -errola edo egoitza udal egiaztagiri bidez ziurtatua- eta epai bidezko banaketa baliokidetzat jotzen zituela, Ararteko honek ezin zuen ebatzi irregularra zenik gizarte ongizateko fondoaren dirulaguntzen arautegian espresi azaldutako beste frogabideetara jotzea, dagokion hiritarrak epai-frogarik aurkezterik ez daukanean. Nolanahi ere, gure erakundeak auzi honetako dirulaguntzaren ingurukoa azkar erabakitzea gomendatu zuen, zeren eta gizarte ongizateko era honetako laguntzen helburua hain zuzen ere bizitzeko beharrianak asetzeko bide azkar eta eraginkorra eskaintzea baita.

*674/94/18 espedientea.* Laguntza-egitarau baten deialdian ustez epez kanpo aurkeztu zela-eta onartu gabe geratu zen eskabide bat tramiterako onartzea gomendatu genion Gizarte Ongizate Sailari. Izan ere, egiaztatu ahal izan genuenez, eskabidea deialdiak ezarritako epearen barruan aurkeztu zen kexagilea bizi zen herriko udaletxeko gizarte zerbitzuetan, eta horretan oinarritu ginen gomendio hau egiteko.

*793/95/20 espedientea.* Hiritarrek aurkezten dituzten eskabide guztiei buruzko ebazpena espreski emateko gomendioa egin genion Gizarte Ongizate Sailari.

## **Gipuzkoako Foru Aldundia**

*431/94/16 espedientea.* Kasu honetan, Ogasun Sailari honako gomendioa egin zitzaion: alegia, Pertsona Fisikoen Errenta Zergaren ondorioetarako, garaje baten erosketa onar dadila ohiko etxebizitzan egindako inbertsioei dagozkien kenketak gauzatzeko.

*538/94/16 espedientea.* Honako gomendioa egin genion Ogasun Sailari: mugako langile izaera onartzea bi herrialdeetan indarra daukan Frantzia eta Espainiaren arteko Hitzarmenean sartuta dauden pertsonen, eta, beraz, inolako atxekipenik ez egitea.

## **Arabako udalak**

### **Gasteizko Udala**

*676/93/16 espedientea.* Trakzio Mekanikoa duten Ibilgailuen Zergaren derri-gorrezko ordainarazpena egiteko bidalitako kitapen batean premiatze-gainordaina kentzeko gomendioa eman genuen.

*184/95/16 espedientea.* Lursailen Balio Gehikuntzaren Zergaren kitapenari dagokion kuota murriztea gomendatu zen kasu honetan.

## **Barrundiako Udala**

*259/95/15 espediente*a. Lursailen itxitura eta errepedetik utzi beharreko tarteari buruzko arautegia Arabako Foru Aldundiak daukanera moldatzeko gomendioa eman genuen.

## **La Puebla de Labarkako Udala**

*407/94/15 espediente*a. Informazio publiko oker bat emateagatik bere ondarezko erantzukizuna aitortzea eta, ondorioz, halako egitasmo tekniko bat zuzentzearen kostuagatik kalteordaina ematea gomendatu zen.

## **Laudioko Udala**

*620/94/15 espediente*a. Lan Heziketarako Udal Zentroaren ondare egoera ikertzeko eta zentroan egiten ari diren inbertsio-obrak zein egoeratan dauden argitzeko gomendioa eman genuen.

*564/95/19 espediente*a. Animalien babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legea ustez hausteagatik eginiko salaketak zirela bide, udalbatzarrak hartutako erabakien berri zegokion hiritarrari jakinarazteko gomendatu genuen.

## **Bizkaiko udalak**

### **Bilboko Udala**

*598/94/19 espediente*a. Hiritar batek ustez izandako lesioa eta sortarazitako gastuak espedientearen biderapenean egiaztatuz gero, haren ondasunek izandako ustezko kalteengatik Udalak bere ondarezko erantzukizuna onartzeko gomendioa egin genuen.

*51/95/15 espediente*a. Errepide baten egoera okerragatik ibilgailu bati gertatu zitzaion istripu baten eraginez, Udalbatzarrak bere ondarezko erantzukizuna onartzea eta, ondorioz, jasandako kalteak ordaintzea gomendatu zen kasu honetan.

### **Abanto-Zierbenako Udala**

*464/95/15 espediente*a. Udalbatzarrak Zierbenatik banandutako udalarekin elkarlanean jarduteko gomendioa eman genuen (bideratzen ari diren espedienteen kopia bidaltzea, hain zuzen ere).

### **Zierbenako Udala**

*62/94/15 espediente*a. Hondartzako dutxetako ura jasotzeko aparteko hodi bat ipintzea gomendatu genuen kasu honetan.

*94/94/15 espediente*a. Abanto-Zierbenako Udaletik banandu ondoren, Udal horrek onartutako obra-baimen bat berraztertzeke gomendioa egin genuen.

## **Gipuzkoako Udalak**

### **Beasaingo Udala**

*243/95/15 espedientea.* Halako lursail bat ez zela utzia izan eta, beraz, jabetza pribatukoa izaten jarraitzen zuela onartzeko gomendioa eman genuen.

*536/95/15 espedientea.* Hitzarmen bateko epeak ez betetzeagatik udalbatzarrak zeukan erantzukizuna onartzea eta, ondorioz, kaltea jasandako hiritarrari kalteordaina ematea gomendatu zen.

### **Irungo Udala**

*22/95/15 espedientea.* Ura ubidetzeko obrek zirauten bitartean, hiritarren etxeetarako sarbideak erabiltzeko moduan egoteko eta, obrak amaitu ondoren, egoera egokian uzteko neurriak har zitezela gomendatu genuen.

### **Soraluzeko Udala**

*691/94/15 espedientea.* Ura hornitzearen tasa baten kitapena bertan behera uzteko gomendioa eman genuen.

## **6.2. ARARTEKOAK BIDERATUTAKO OFIZIOZKO ESPEDIEN-TEETAN EMANDAKO EBAZPENEN BETETZE MAILA**

Iazko urtean ofizioz hasiera emandako espedienteen bidetik, Arartekoak hamaika gomendio luzatu dizkie Euskal Herriko Administrazio Orokor, Foru Administrazio eta Udal Administrazioei.

Arartekoak burututako jarduera horrek izan duen aspekturik garrantzitsuen hau izan da: luzatutako hamaika gomendioetatik bederatzi onartu egin dituzte jasotako administrazioek, eta bi behin-betiko ebazpena jaso zain daude. Guztiei eskaini zaie arreta. Hori horrela izanik, ontzat hartzen dugu jarduteko modu hau, alde batetik, ikerketa eta tratamendu premian dauden egoerak ezagutzeko bidea ematen duelako eta, bestetik, lortutako emaitzengatik.

Gai hau hobeto ezagutzeko, emandako gomendioen edukia azalduko dugu jarraian, onartu direnak eta behin-betiko ebazpenaren zain daudenak bereiztuz.

## **ONARTUTAKO GOMENDIOAK**

### **EUSKO JAURLARITZA**

#### **Lurralde Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila**

*18/95/160, 19/95/160 eta 20/95/190 espedienteak.* Babesa eskaintzeko dauzkan ahalemenez baliatuz, interesa zeukaten partikularrek Hiri Jabetzako Ka-

mara Ofizialekiko eduki zitzaketen zalantzak argitzeko neurriak har zitzala gomendatu zitzaion.

## **Euskal Herriko Unibertsitatea**

*29/95/160 espediente.* «Ikaslearen Gidan» «Euskal Herriko Unibertsitatera sartzea» atalean bi ohar hauek garbi adieraz zitzatela gomendatu zitzaion: matrikula ezabatzen denean zer gerta daitekeen, ordura arte ordaindutako diru kantitateak ez direla itzuliko, alegia; eta arrazoi horregatik ikasleek behin-behineko matrikula egiteko aukera daukatela, ordainketa matrikula formalki egiterakoan egin beharko delarik.

## **FORU ADMINISTRAZIOA**

### **Arabako Foru Aldundia**

*9/95/160 espediente.* Pertsona Fisikoen Errenta Zergari dagokionez, kasu honetan Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari otsailaren 28ko 1/1994 Foru Araua alda zezala gomendatu zitzaion, ondorengo helburuarekin: Europako Batasuneko hizkuntzak atzerrian ikasteko egindako gastuengatik kenketa egin ahal izateko baldintza modu malguagoan ezar zezan.

### **Gipuzkoako Foru Aldundia**

*35/95/160 espediente.* Ogasun eta Finantza Sailari gomendatu zitzaion Pertsona Fisikoen Errenta Zergaren aitortpena banaka edo batera egiteko aukerari dagokionez, bi kasuen emaitzen berri izan ondoren erabakitzeko eskubidea ematea, baita kitapena egin ondoren ere, kasu horretan aitortpena egiteko aukeratutako moduaren ondoren beste aitortpen bat egin beharko litzatekeelarik.

## **TOKI ADMINISTRAZIOA**

### **Gasteizko Udala**

*18/94/190 espediente.* Udaltzaingoaren atxiloketa zentrora egindako bisitaren ondoren, egitura eta kontserbazio egoera onean zegoen arren, bere aukeren barruan hobekuntza lanak egin zitzala gomendatu zitzaion udalari. Lan horiek instalazioak eta funtzionamendua Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko kalabozoei buruz egindako txosten berezian jasotzen ziren baldintzetara egokitzeko dira.

### **Bermeoko Udala**

*19/94/190 espediente.* Udaltzaingoaren atxiloketa zentrora egindako bisitaren ondoren ikusi zenez, kokapen berriari esker aurreko instalazioen egoera txarra gaindituta zegoen. Udal arduradunen jarduera ontzat hartu eta egitura eta kontserbazio egoera onean zegoela ikusi arren, bere aukeren barruan hobekuntza

lanak egin zitza gomentatu zitzaion. Lan horiek instalazioak eta funtzionamendua Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko kalabozoei buruz egindako txosten berezian jasotzen ziren baldintzetara egokitzeko dira.

### **Donostiako Udala**

*4/95/170 espediente*a. Hiri garraiorako zerbitzuaren autobusak berritze-rakoan, elbarrien premietara egokitzeko beharra kontuan har zezatela gomendatu zitzaion.

## **BEHIN-BETIKO EBAZPENA EMAN GABEKO GOMENDIOAK**

### **FORU ADMINISTRAZIOA**

#### **Gipuzkoako Foru Aldundia**

*2/95/190 espediente*a. Mendeluko bidegurutzean -Hondarribitik Irunerako errepidean (Gi-4361)- Bidasoako Ospitalea adieraziko zuen bide seinalea (Ospitalea) ezar zezala gomendatu zitzaion Garraio eta Errepide Sailari. Bide seinale hori ondorengo beste informazio hauekin osatzea gomendatzen zen: Larrialdiak/Urgencias eta Tanatorioa. Administrazioak hasiera batean gomendioa onartu nahi izan ez zuenez gero, Arartekoak berriro luzatu behar izan zion gomendioa. Une hauetan eskaria erantzun zain dago.

### **TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **Bilboko Udala**

*3/95/170 espediente*a. Ingurugiroa Babesteko Udal Ordenantzaren 88. artikulua eta Ostalaritzako eta Kideko Establezimenduak arautzen dituen Ordenantzako 22. artikulua aldatu eta ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuko xedapenetara (etxebizitzetarako hiri lurrean kokatuko diren jarduera gogaikarri, osasungaitz eta arriskutsuei ezarri beharreko arau teknikoetara) egokitu zitza gomentatu zitzaion. Bilboko Udalak emandako erantzuna aztertzeke dago oraindik.



**VII. ATALA  
GOMENDIO ETA IRADOKIZUN  
OROKORRAK**

## **7.1. ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA GIZA BALIABI- DEEN ARLOAN: ENPLEGU-PLANGINTZAK ETA BERORIEK LAN-ESKAINZA PUBLIKOETAN DUTEN ERAGINA**

Administrazio publikoa eraldaketa prozesu-sail baten eraginpean ari da, administrazio nagusiki zerbitzu-emaille bihurtzeko erronka planteatzen dion prozesuan. Gizartearen modernizazioak zerbitzuen eraginkortasun handiagoa eta efizientziaren eta kalitatearen hobekuntza eskatzen dizkio Administrazio publikoari, hori guztia botere publikoak hiritarregana hurbiltzeko xedez, administrazio arinago, eraginkorrago eta kostu txikiagoko baten bitartez.

Prozesu horri atxikitzen zaio jite koantitatiboko beste bat, ezinbestekoa gertatzen dena lurraldetan deszentralizaturikoa eta Europako Batasunean integrazio ekonomiko eta politikoaren bidean den Estatu bat egituratzeko.

Eraldaketa hori kosteak handitu gabe eta elkarren interesetarako era erangikorrean egin behar da; behar horrek garbi eskatzen du bi eratako elementu osagarriak erabiltzea: izaera orokorreko plangintza-elementuak, batetik, eta beroriek dagozkien arloetara egokitzeko elementu puntualagoak, bestetik.

Dudarik gabe, sakonera handiko prozesua dugu, baina ez haren dimentsioa ez haren konplexutasuna ezin dira amaigabeko aitzakia bihurtu prozesuari ez ekiteko, atzerapenak prozesuaren gauzatzea bera kolokan jar baitezake eta, larriago dena, zalantzan jar baititzake arlo publikoaren egitekoa eta arlo horrek gizarte-eskakizun berriei erantzuteko duen gaitasuna.

Abenduaren 29ko 22/1993 Legeak, Zergen gaineko Neurriez, Funtzio Publikoaren Erregimen Juridikoaren Erreformaz eta Langabetuen Babesaz aritzen denak, zentzu berean aitortzen du, motiboen azalpenean, funtzio publikoaren arloan beharrezko gertatzen dela zenbait neurri ezartzea, administrazioko erakunde egituren arrazionalizazio eta doikuntzatik abiatuz, Administrazio publikoaren giza baliabideen errendimendua hobetzeko, haien antolamendu eta ustiapena arintasun eta eraginkortasun handiagoko prozesuetan oinarrituz eta langileen kosteak optimizatuz.

Neurri horien artean, beren garrantzia dela-eta nabarmentzen dira enplegu-plangintzak eta lan-eskaintza publikoaren arautze berria, biak hala biak ere antolakuntza administratiboaren teknika giza baliabideen arlora aldatzeko apustu sendoa:

«Administrazio publikoek enplegu-plangintzak era ditzakete, funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei dagozkienak: plangintza horiek bildurik jasoko

**dituzte dagozkion arloko giza baliabideak optimizatzeko egin beharrekoak, aurrekontuetako muga barnean eta langile-politikako irizpideekin bat etorri».**

**«Aurrekontuetan izendaturiko eta dauden langileekin bete ezinezko giza baliabideen beharrak lan-eskaintza publikoan aterako dira».**

**Funtzio publikoaren lege-erregimenaren eraldaketa honek hainbat kritika jaso ditu alde askotatik, hartan aurrikusitako neurri-multzoa bilaturiko helburuak betetzetik urrun dagoelako.**

**Iritzirik alarmistenen bereziki azpimarratu dute erreforma honetan gehiegizko arreta jarri zaiola giza baliabideen efizientzia eta malgutasunari, administrazio publikoek arlo honetako ekintzetan izan beharko luketen objetibitate eta alderdiga-betasunaren kaltetan. Era berean azpimarratu dute litezkeen disfuntzioen arriskua, lege-erregimen bikoitza gertatzen baita antolamendu-egintza enplegu-plangintza baten barnean kokatua izan ala ez.**

**Bestalde, jarrera moderatuagoek zalantzan jarri dute ordenamendu konstituzionalarekiko bateragarria ote den, eta bereziki Konstituzioko 103.3 artikuluan ezarritako legezko erreserbarekiko.**

**Azkenik, erreformaren beharra bera ere dudatan jarri da, zenbaiten ustetan, gutxiengoa izanik ere, bilatutako aldaketak zailtasun handirik gabe lor baitzitezkeen abuztuaren 2ko Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurriei buruzko 30/84 Legearen bitartez.**

**Zinez, aipatu 30/84 Legea eta jite bereko 6/89 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoaz aritzen dena, biak saiatu ziren lan-eskaintza publikoak funtzio publikoaren antolamendurako tresna gisa erabiltzen, indarrean zeuden aurrekontuetako kredituekin lotuz, aurrekontuetan aurrikusitako lanpostu hutsei zegozkien bezainbatean.**

**Hala eta guztiz ere, dela erakunde honek behin eta berriz salatu duen arlo honetako praktika ezegokiarengatik, dela, hasieran aipatu bezala, gaurko egoerak gainezka egin duelako jatorrizko ordenamendua sortu zuen egoeraren aldean, garbi azaltzen zaigu inplikaturiko arlo guztiak bat datozela antolamendu zorrotz baten beharra azaltzean. Antolamendu berri horrek bata bestearekin egokitu beharko lituzke zerbitzuen eraginkortasun handiagoa eta horretarako benetan beharrezko diren baliabideak, beti ere gastu publikoa arrazionalizatzeko xedez.**

**Aurrekoaren froga garbia da Estatu mailan Administrazioak eta sindikatuek 1995-97 aldirako sinaturiko hitzarmena, funtzio publikoko lan-egoerari buruzkoa. Hitzarmenean alde biek aitortzen dute enplegu-plangintzak giza baliabideen antolamendu integralerako tresna estrategikoa direla, Administrazioako esparru bakoitzaren egitura okupazionala arrazionalduz eta soilduz; horrek ahalbidetuko du egoera ezberdinei lanaren birantolatze, eraldatze eta banatze erabakien bidez aurre egitea, enplegu-egonkortasun egoera baten barnean.**

**Hori dela eta, erakunde honen iritziz, proposaturiko erreformaren bidea behin onaturik, arazoa ez da haren gainean berriz eztabaidatzea; horrek ez du oztopo izan behar, hala ere, etorkizunean, adierazitako objektzioak kontrastatu**

eta baloratzeko, EAerako ezinbestez ezarri beharko diren antolamendu-irizpideak unean unean aplikatu ahala.

Egokiago deritzogu arreta ematea erreformak ezarritako antolatze eta programatze ahalmenak dakarren diskrezionalitateaz, eta hura bere benetako muge-tara bideratzeko beharraz, Europako Elkartearen 9. artikulua debekatzen duen alderdikeria eragozteko xedearekin.

Bestela esanda, beharrezko deritzogu iritzi publikoan honako ideia zabaltzeari: giza baliabideen ustiaketakoa unean uneko edozein estrategiatan derrigorrezko motibazioa izan behar duela plangintza orokorraren helburuak erreferentzia izatea.

Azpitarratu nahi dugu, halaber, komenigarria dela erakunde sindikal errepre-sentatiboenen eskuhartze aktiboa, bai plangintzak eta erabaki estrategikoak gauzatzeko egintzak onartzean, bai onartu baino lehenagoko aldietan, azken helbu-rutzat harturik prozesu horien behar bezalako gardentasuna lortzea, azken finean, jende askorengan baitute eragina.

Hasierako iruzkinok egin eta gero, azter dezagun orain enplegu-plangintza hauek lan-eskaintza publikoetan izaten duten eragin berezia, bai eta, kontrako aldera adierazirik, nolako jitea har dezaketen lan-eskaintza publikoek enplegu-plangintza espezifikorik izan ezean.

Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurriez aritzen den abuztuaren 2ko 30/84 Legearen 18. artikulua idazketa berriak, Zergen gaineko Neurriez, Funtzio Publikoaren Lege-Erregimenaren Erreformatarako eta Langabetuen Babesaz aritzen den abenduaren 29ko 22/1993 Legearen ondoriozkoak, bide ematen du enplegu-plangintzek, beste zenbait neurrien artean, lan-eskaintza publikoetatik eratorritako kanpoko langileen sarbidea bertan behera uztea ahalbidera dezaten.

Plangintza hauetan aurikusitako beste zenbait neurri ere, hala nola antola-mendu-egituren eta lanpostuen eraldaketa, langileen birkokatzea, etab., berarekin batera ekar dezake lan-eskaintza publikoaren hasiera bateko gelditzea.

Hala ere, enplegu-plangintza onartu baino lehenagoko antolamenduaren emaitzetara jo beharko da, edota, dagokionean, plangintza zehatz baten markoak emandakoetara, lan-eskaintza publikoaren suspentsio edota gelditze hori arrazoiz-kotzat jo dadin; hala ez bada, lan-eskaintza publikorik ezak bestelako disfunczioak estal ditzake, enplegu-plangintza bati dagozkion beharrek zuzen gutxi dutenak.

Zentzu berean gogoratu behar da abuztuaren 2ko 30/84 Legearen 18 h) artikulua, idazketa berrian, giza baliabide mailako beharkizun gehigarriak aurrikusten dituela, dagokionean lan-eskaintza publikoetan integratu beharrekoak.

Are gehiago, abenduaren 30eko 42/1994 Legeak, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriez aritzen denak, Administrazioak eta sindikatuek 1994ko irailaren 15ean sinaturiko hitzarmenean hartutako zenbait konpromezu bildurik, aukera onartzen du jite estrukturalako aldibaterako lanpostuak lan-eskaintza publikoetan sartzeko.

Aitzitik, giza baliabideen ustiaketarako erabakiak berbideratzeko moduko enplegu-plangintzarik izan ezean, aurrekontuetan aurikusitako eta dauden lan-gileekin bete ezineko beharrak ezinbestez sartu beharko dira dagozkion lan-eskaintza publikoan. Halaxe dio abuztuaren 2ko 30/84 Legearen 18. artikulua.

Bestela, eta erakunde honen iritzi, disfunzio larria izango genuke: lan-  
eskaintza publikoen suspentsio edo gelditzeak, berez, egitura-eraldaketa, langileen  
birkokapena... bezalako neurriez lagundurik ez badator, ez lioke ezertan lagunduko  
esparru publikoko giza baliabiden ustiaketan ezarri nahi den arrazionaltasu-  
nari.

Estatu mailan onartu eta argitaratu diren erabakiak aztertuz gero, halako  
jarraikortasun bat somatzen da giza baliabideen etengabeko egokitze aldera. Halaxe  
agertzen zaigu hurrenez hurreneko aurrekontuen legeetan, bai eta lan-eskaintza  
publiko eta enplegu-plangintza sektorialetan, etab. Aldiz, EA Eren esparruan egoera  
oso bestelakoa da.

Izan ere, azken urteotan, lan-eskaintza publikoen gelditze bat gertatu da,  
gastu publikoaren murrizketa beharraz arrazoiturik, baina ezagutzen ez delarik,  
edo ezagutarazi ez delarik, enplegu publikorako proposamen zehatz edo berezirik.  
Esan nahi baita, euskal administrazio publikoek ez dute jakin nola helarazi lanpostu  
publiko batera heltzeko interesa duten hiritarrei gelditze hori plangintza serio eta  
zorrotzean oinarriturik zegoelako komentzimendua.

Aitzitik, hiritarrak badaki badela aldibaterako lanpostu-multzo garrantziko  
bat etengabe blokeaturik, eta haiek ohiko moduan betetzea eskatzen du, egiturazko  
jitea dutelako, dagokion lan-eskaintza publikoen bitartez, bestela lanpostu batera  
berdintasun, meritua eta gaitasun irizpideekin heltzeko itxaropena behin-betiko  
galduko bailuke.

Are gehiago, lan-eskaintza publikoak geldirik badira ere, aldibaterako lan-  
postu eskaintza berriak egon badaudela ohartzen da, haietarako administrazio-  
egituren berrikusketa bezalako plangintza eragozpenik ez delarik.

Beharreako da gogoratzea, halaber, batez ere EA Eko administrazio oroko-  
raren zerbitzuan aritzen diren funtzionario edo enplegatu multzo handi baten  
behin-behinekotasun egoera larria, egoera horrek ez baitu laguntzen administrazio-  
unitateei beharrezkoa zaien egonkortasuna ezartzen, batez ere haiek zerbitzu  
publikoen kalitate-hobekuntzarekiko konpromezua hartzea nahi bada.

Ararteko honen iritzian, «disfunzio» hauek guztiek garbi adierazten dute  
beharrezkoa dela euskal administrazio publikoek, zeinek bere arloan, hemen go-  
mendaturiko neurriak har ditzaten, nahiz eta ez den egintza-sail derrigorrezko  
eta hurrenez hurreneko gisa ulertu behar:

1- Enplegu-politika irizpideak ezartzea, dauden aurrekontu-mugen barruan,  
giza baliabideen erabilpen optimizatua garatzeko egintza zehatzak adieraziko dituz-  
tenak.

2- Administrazio egiturak ezarritako irizpideen arabera berrikustea, giza bali-  
abideen beharrak zorrotz definitzeko moduan.

3- Egoki iriztitako prozesuak abiaraztea, aipatu definizioan ezarritako giza  
baliabideen beharrak ohiko eran betetzeko eta ustiatzeko.

4- Lan-eskaintza publikoak argitaratzea, batetik, egiturazko jitea duten  
aldibaterako lanpostu hutsak ohiko eran betetzeko eta, bestetik, aurrekontuetan  
aurrikusita egon arren dauden langileekin bete ezinekoak betetzeko.

5- Azkenik, alderdikeria eragozteko moduko giza baliabideen ustiaketarako  
egintzak ezartzea, plangintza-erabakiak egoki arrazoiturik, bai eta haien

gardentasun beharrezkoa, erakunde sindikal errepresentatiboenen eskuhartzearen bitartez.

## **7.2. GAUR EGUNGO ADMINISTRAZIO-ERREKURTSOEN ERREGIMENETIK BERRAZTERTZE ERREKURTSOA KENTZEAK SORTUTAKO ERAGOZPENAK**

Errekurtsoen erregimenari dagokionez, 1992ko azaroaren 26ko Administrazio Publikoen eta Administrazio Antolamenduaren Erregimen Juridikorako Lege berriaren berrikuntzetako bat berraztertze errekurtsok kentzea izan da. Aldaketa honen ondorioz, epai bidearen aurretik egiten zen berraztertze hori azpiko organoek emandako aginduei bakarrik ezarri ahalko zaie, Administrazioaren goi mailetako organoetatik datozenak berraztertze aukerarik geratzen ez delarik.

Administrazioen estruktura organikoen arauak zenbait egitate agintzerakoan zeregin hori tradizionalki jerarkian gorago zegoen organoaren esku uzten zutenez gero, orain, berraztertze errekurtsoa kentzean, banaketarako bermezko neurriren batzuk hartzen ez badira eragozpen handiak sor daitezke, egitatea administrazio bidez berraztertze prozedura oso zaila izango delako.

Berraztertze errekurtsok lehenago zeukan osakera kritikatu izan zen. Berme izaerarekin sortutako instituzio hau, kasu gehienetan, prozedurak denboran luzatzeko tramite huts bilakatu zen, eta hiritarrentzat administrazio traba gehiago zen egiazko berme-bidea baino. Baina egia da, orobat, zeukaten garrantziagatik edo jokoan zegoen dirutzagatik bestela epaitegien eskuetara nekez irits zitezkeen gai asko Administrazioak berraztertzea lortzeko bidea ematen zuela; administrazio-errekurtsuaren bidez, atzera egin eta emandako pausoak berriz azter zitezkeen.

30/1992 Lege hau estatu osorako sortu zela kontuan hartzen bada, garbi dago Ararteko erakundearen jarduera gaitasunean eragiten duela eta, horrela, gogoeta honen bidez zera lortu nahi dugu: berraztertze errekurtsok kentzeagatik sortuko diren ondorio negatiboak arintzeko, Autonomia Erkidego honetako Administrazioak antolamendu egokitzapenak egin ditzala.

Eusko Legebiltzarrari urtero aurkezten diogun txosten honek ematen digun aukeraz baliaturik, kexa askoren bidetik ikusi dugun premia bat espreski adierazi nahi dugu: alegia, auzitan jarritako administrazioaren jarduera berraztertze premiarean aurrean traba berri bat sortzen da, administrazioaren baliabideek berrazterketarako aukerarik eskaintzen ez dutelako.

Kasu horietan, Administrazioari berak emandako pausoetara berriz itzultzeko aukera ematen dion berraztertze errekurtsuaren baliabidea desagertzearekin, ofiziozko berrazterketak eskaintzen dituen bide murrizteaz kanpo beste bide guztiak galarazten ditu berrazterketa horretarako.

Gogoeta hau ez da, noski, berria; administrazioaren prozedura arautzen duen lege berria aztertu duten autore batzuek gain, Lehendakaritza, Justizia eta Autonomiaren Garapenerako Sailburuaren 1993ko martxoaren 16ko Aginduan

jasota daude 30/1992 Legearen ezarpenari buruzko izapidetzeak ere. Hiritarrek beraien desadostasun guztiekin administrazio-auzietarako epaitegietara jo ez dezaten, lehen aipatutako izapideketekin ahalmenen banaketa bilatzen da, administrazioaren kontrako errekurtsio-bidea bermatzeko mailaketan beherago dauden organoei ahalmenak banatuaz.

Aipatzen ari garen arazo hau islatzen duten espediente gehienak funtzio publikoari dagozkio. Kexa horietako asko lanpostu hutsak betetzeko lehiaketa jendetsuei buruzkoak izan dira, irregulartasunak gertatu eta horiek zuzentzeko administrazio-errekurtsioa tresna egokia izan zitekeelarik. Egitate irregularra burututako organoak bere gainetik goragoko jerarkiarik ez zeukanez gero, eta berrazterketak hirugarren pertsoneri eragiten zenez gero, geratzen zen bide bakarra ofiziozko berrazterketaren aukera murriztailea zen.

Administrazioak kasu batean adierazi zion Arartekoari irregulartasunak konpontzeko ofizioz berrazterketa prozesuari ekingo ziola; arazoak konpondu nahi zituzten beste kasu guztiei epaibidera jotzea beste aukerarik ez zitzaien geratzen.

Horrenbestez, aipatu den arazoa konpontzeko premia aurkitu den banakako kexen espedienteetan Arartekoak hau gomendatu izan du: administrazio-auzibidezko errekurtsioa jarri aurretik administrazio-justiziarako bide bat ezartzea (administrazio-errekurtsio arrunta). Bereziki lehiaketa jendetsuetan ezinbestez beti gertatzen diren arazoei eman beharreko ebazpen zuzena arintzea da horren helburua, lehiakideen interesen defentsa eraginkorra lortzeko.

Arrazoi horiengatik, eta 30/92 Legearen ezarpenarako aipatu ditugun izapideketak gogoratuz, administrazio-errekurtsioen bidea bermatzeko beharra dagoenean neurri deskontzentratzaileak ezartzeko dagoen premia azpimarratu nahi dugu.

### **7.3. LEGE-ERRESERBA PRINTZIPIOA ETA PREZIO PUBLIKOAK ORDAINTZERA BEHARTUTA NOR DAGOEN**

Prezio publikoak, praktikan, Toki Ogasunei buruzko 39/1988 Legeak (TOL) diseinatutako udalen finantzaketarako sistemaren zutabeetako bat dira.

Halaber, apirilaren 13ko 1/1989 Lege Organikoak, Autonomia Erkidegoen Finantzaketarako Lege Organikoari (AEFLO) idazketa berria eman dionak, «beraien prezio publikoak» sartzten ditu erkidegoen dirusarreraren artean.

Bai tasak eta bai prezio publikoak ere funts berbera daukate: alegia, herri-erakundeek zuzenean halako ondasun batzuk edo halako zerbitzu batzuk eskaintzen dituzte, eta haien trukean dirusarrera batzuk lortzen.

Prezio publikoen figura berriaren arauketa osatzeko, Tasa eta Prezio Publikoei buruzko 6/1989 Legea (TPPL) dago esparru lokaletik kanpo; haren motibo azalpenean hauxe agertzen da:

«Bi kasuetan edukiko ditugu dirusarrera publikoak; baina prezioan kontratu gisako eta borondatezko harremana ezartzen da ordaintzen duenarentzat, eta tasan, aldiz, zergak duenaren antzeko beharkizuna agertzen da, bai eta, ondorioz, legezkotasun printzipioaren esijentziak ere.»

Konstituzioaren 31. artikulua eta arau goren horretxetako 131.ak ere finkatzen dute zerga-legezketasun printzipioa deitu izan dena.

Horrela, lehenengo artikulua arabera:

«Legearen arabera, izaera publikoa duten ondare edo pertsona mailako prestazioak baino ezin dira ezarri».

Legearen erreserba, beraz, komunitateak bere buruari ezarri dion berme baten gisa gorpuzten da, eta, azken buruan, hiritarraren ondare eta pertsona mailako askatasunaren berme gisa (Konstituzio-Auzitegiaren Epaia, 19/1987).

Zuzenbide-estatu batean, lege-erreserbak daukan helburu nagusia zera da: herri-erakunderen batek derrigortasunez halako ondarezko prestazio bat eginarazten dienean hiritarrei, horretarako ordezkarien oniritzia edukitzea.

Izaera publikoko ondarezko prestazioen alorrean, zerga mailakoa da garrantzitsuena, baina horrelako izendapen zabal batean beste batzuk ere sar daitezke.

Zergak lege-erreserba printzipioaren mende egon beharra ekiditearren izena aldatzeko tentaziorik egon ez dadin, Konstituzioak era bereko ezarpena jartzen die *izaera publikoa duten ondarezko prestazio guztiei*.

Hala eta guztiz ere -eta puntu honetan bat datoz doktrina zientifikoa eta Toki Ogasunen eta Tasa eta Prezio Publikoen Legeak egindako bereizketarekin-, legegileak zergatasuna ukatu nahi izan die prezio publikoei, horrela horiek legezketasun-printzipioaren mende egon beharra ekidindo zuelakoan.

Hartara, Tasa eta Prezio Publikoek Legeak bere 1. artikuluan *zuzenbide publikoko bi dirubide* direla dioten arren, prezio publikoen ordainarazpenean parte hartzen duten osagaiak definitzeko erabiltzen den terminologia nahita urrunten da zergapidetza esparrutik.

Horren frogaz ditugu Toki Ogasunen Legeak eta Tasa eta Prezio Publikoen Legeak berak ere erabiltzen dituzten esapideak: hots, «ordaintzailea», «ordaingaia» eta «ordaindu beharra» erabiltzen dituzte, eta ez «sujeto pasiboa», «egitate zergagarria» edo «zorpidea», hauek berez bai erabiltzen direnak tasetan, tasen zerga-izaera espreski baietsita baitago lege-antolamenduan bertan.

Egiatan, prezio publikoek lehenago tasek zeukaten esparru bat bete dute, halako moldez non legegileak egindako bereizketak, hau da, zerbitzuak eskatzeko edo jasotzeko orduan borondatezketasuna egon beharra, eta beste ezerk ere ez baitauka inolako eraginik bi figura horien izaera juridikoan.

Zer bilatzen da, beraz, bereizketa horren bitartez? Ikus dezagun, berriro, TPPLk bere motibo azalpenean dioena:

«Labur esanda, Lege honen bitartez hauxe nahi da:

- a) lege-tresna bat eduki, zerga-sistema arrazionalizatzeko eta *simpletzeko*...
- b) finantzazio publikorako tresna horren erabilera *legez malgutu*...
- c) tasa eta prezio publiko kontzeptuak *mugatu*...

Hitz gutxitan esanda, malgutu esaten denean zilegitasuna kendu ulertu behar dugu, administrazioentzat dirusarrerak eskuratzeko tresna «otzanagoa» lortu nahia, alegia.



Nolanahi ere, porrot egin du Tasa eta Prezio Publikoen Legeak bi figura horiek mugatuz lortu nahi zuen helburu nagusiak, hots, formazko jantzia emateak, berez artifiziosoki eraikia zelako.

Hori hala dela ikusteko, nahikoa da begiratu bat egitea legea onartu zenetik gertatu diren epai ugari.

Izan ere, bai autonomia erkidegoetako Justizia Epaitegi Gorenak, bai Konstituzio Auzitegiak berak, eta bai Auzitegi Gorenak ere gero eta zehaztasun handiagoz argitu behar izan dituzte bi instituzio horien ezaugarriak eta izaera.

Beste alde batetik, erraz egiazta daitekeen bezala, zerbitzu berberak batzuetan prezio publikoaren tankera eta beste batzuetan tasarena edukitzen du, udalerrri batetik bestera.

Bereizketa horren lehen ondorioa honako hau da: tasaren kasuan, zenbatekoa ezin da izan zerbitzuaren kostua baino handiagoa; aldiz, prezio publikoaren kasuan, osagai horixe da zenbatekoa finkatzeko gutxieneko maila jartzen duena.

Edonola ere, azterketa hau egitera eramaten gaituen arrazoia da, tresna honen erabilera malgutu nahiaren arrimuan, zerga-administrazioak, udal mailakoek batez ere, lege-erreserbari men egin behar dioten gaiak arautu nahi izan dituztela arau-ebazpenen bitartez, ikusiko dugun bezala.

Toki Ogasunen Legearen arabera, honakoak dira prezio publikoak ordaindu behar dituztenak:

«Ondare publikoa norberaren onerako erabiltzen edo probetxatzen dituztenak, edota zerbitzuen onura edo haien bitartez gauzatzen diren ekintzen onura jasotzen dutenak».

Joan den 1995. urtean, kexa batzuen tramitazioari esker egiaztatu ahal izan dugu nola zenbait udalerritan prezio publikoak ordaintzera behartzen diren pertsonak ez diren Toki Ogasunei buruzko Foru Arauetan finkatutakoak.

Beste horrenbeste esan daiteke aldundien eskumeneko zerbitzuak emateagatik kobratzen diren prezio publikoen ordainketa arautzen duten foru dekretu batzuei buruz, batez ere gizarte zerbitzuen esparruan.

Horrela, adibide batzuk aipatzearen, Gasteizko Udalaren edateko ura hornitzeagatik kobratzen diren prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalak, Toki Ogasunen Foru Arauaren testuari jarraituz, hauxe zioen:

«Arau honen bitartez erregulatzen diren prezio publikoak ordaindu behar dituztenak honako hauek dira: ondare publikoa norberaren onerako erabiltzen edo probetxatzen dituztenak, edota zerbitzuen onura edo haien bitartez gauzatzen diren ekintzen onura jasotzen dutenak.»

Dena dela, 1996rako onartutako testuan, izaera publikoko ondarezko prestazioen ezarpenarako kontsokratuta dagoen jarraibidearekiko errespetuaren ikuspegitik txit garrantzitsu den aldaketa bat sartu da.

Izan ere, udal uren zerbitzuari eta ur beltzen tratamenduari buruzko idatzian sartutako aplikatu beharreko arauen arabera:

«Ur kontsumo eta garbiketagatik bidaltzen diren erreziboen ordainketari dagokionez, maizterren *ordezko* izango dira *jabeak*, pertsona fisiko zein juridikoak izan.»

Berez, arau horretan Gasteizko Udalak 1995etik erabiltzen ari zen praktika bat jaso besterik ez da egin, alegia: etxabeen jabeek eskatzea abonatuak ordaintzeke utzitako ur-erreziboen ordainketa.

Donostiako Udala, bestetik, zerbitzu horretan ordenantzaz baliatzen da arau orokor gisa jartzeko eragindako ondasunak okupatzen dituzten pertsona juridiko edo fisikoak edota *zerbitzuak erabiltzen dituztenak* edo haien prestazioa eskatzen dutenak direla ordainketa egin behar dutenak; ondoren, hauxe dio:

«Ulertu behar da zerbitzuaren onura lehen-lehenik ondasun higiezin erabiltzen duenak jasotzen duela, eta azken buruan ondasun higiezin horren jabeak.»

Hiriko kaleetan automobilak aparkatzearen prezio publikoak arautzeko Bilbo-ko Udalak daukan ordenantza fiskalaren arabera, ibilgailuen gidariei ezartzen die ordaindu beharra lehen lekuan, eta *behartu solidario gisa*, ordea, ibilgailuaren jabeari.

Konstituzioaren 31. artikuluan finkatuta dagoen lege-erreserba printzipioari men egin beharraren ikuspegitik begiratuta, Konstituzio Auzitegiak 1995eko abenduaren 14an emandako epaiak, Tasa eta Prezio Publikoen Legearen zenbait artikuluren kontra aurkeztutako inkonstituzionaltasun-errekurtsoari buruz emanak, hauxe argitzen du:

«Ondarezko prestazioaren *derrigortasunezko ezarpena* edo, gauza bera dena, aginte publikoak bere kasa bakarrik ezartzea ordaindu beharra hori egitera behartuta dagoenaren borondatearekin kontaktu gabe, horixe da azken finean *Lege-erreserbaren esijentzian pisu bereizgarria daukan osagaia*; horregatik, arazorik gabe ondoriozta daiteke derrigortasuna dela izaera publikoko ondarezko prestazioaren funtsezko bereizgarria. (...) Halako prestazio bat derrigortasunez ezarritakoa dela esan daiteke baldin eta erakunde publikoak *derrigorrez behartzen badu partikularra delako ekintza egitera*, bai eta, delako ekintza egitea berez *librea* izan arren, ekintza hori ez bada izatez halako ondasun, zerbitzu edo erakunde publikoen jarduera bat, baizik eta prestazioa ordaindu behar bada ordaintzailearen aldetik beharkizuna sortarazteko borondate edo nahirik berez egon gabe.»

Ikuspegi horretatik, bistan da ordenantza horien arabera prezio publikoak ordaintzeko kontuan «ordezko» gisa aipatzen direnek ez dutela azaldu borondate edo nahi hori, eta berez derrigortuak izan direla; horregatik, berez prezio publikoen kobraketa izan zein ez izan, lege-erreserba esiji daiteke, ezin baita esan betetzen denik udal ordenantza huts batean eskari hori jasotzen delako.

Lege-erreserba Arautegia baldintzatu egiten du, eta horixe dira ordenantza fiskalak.

Nahiz eta Legeak ordenantzetan islatutako ordezkari politiko eta udal ordezkari jarduera-esparru zabalagoa utzi behar dien estatuko gobernuari baino ez

baditu nahi edukirik gabe utzi Konstituzioaren 140 eta 142. artikuluetan aldarrikatutako udalen finantz burujabetasun eta askitasun printzipioak, jarduera-esparru hori lege-erreserbaren printzipioaz mugatuta dago.

Toki Ogasunen *Legearen* arabera prezio publikoa ordaindu behar dutenak Administrazioari eskatu zaizkion prestazioen zerbitzuez baliatzen direnak badira, balio gabekotzat jo behar da derrigortasun hori beste pertsona batzuei ezartzea, ordezeko deitu edo erantzule subsidiario deitu (adibidez: etxebizitzaren jabea, ur horniduraren prezio publikoen kasuan; edo ibilgailuen jabea, araututako zonetan aparkatzeagatik; edo pertsona zaharren senitartekoei, hirugarren adinekoentzako zerbitzuen kasuan), derrigorrez ezarritako prestazioa delako; izan ere, ekintza hori EKren 31. artikulua derrigorrez ezarritako ondarezeko prestazioen eskariei dagokienez dioenaren kontra doa.

1995eko martxoaren 7ko Konstituzio Auzitegiaren Epaiak dioenez:

«Arau horren lehen leerroaldiaren arabera, funtsezkoena da, izan ere, *legeak* halako pertsona bat ordezeko izendatu duela, eta, beraz, pertsona hori zergapekoaren ordezkari behartuta dagoela zerga-beharkizunaren prestazio material eta formalak betetzera; edota *legeak* halako pertsona bati ezarri diola prestazio horiek bete beharra, kasu horretan ordezeko izendapena eman ahal izango zaiolarik, berez izendapen hori erabili ez bada ere.»

Prezio publikoa legetik ez, baina borondatek sortzen den betebeharra bada, horren arabera ez dago ordezekoaren edo erantzule subsidiario edo solidarioaren figura bezalakorik sartzeari, non eta ez den haren oniritziarekin egiten.

Zerga-Lege Orokorren 30. artikuluari jarraituz, sujetu pasiboa da «*legearen* arabera zerga-prestazioak bai zergapeko modura zein haren ordezeko modura bete behar dituen pertsona natural edo juridikoa». Horrekin batera, 37. artikulua aukera ematen dio legeari beste pertsona batzuk zerga-zorraren erantzule izendatzen, bai solidario modura zein subsidiario modura.

Dirubilketarako Arautegi Orokorrek, bestalde, 16.2 artikuluan dioenez, zerga izaera ez duten zuzenbide publikoko zorrak ordaindu beharra zabaldu egin daiteke, eta ezarri *legez edo borondatez* zor horiek kitzatzen behartuta daudenei ere.

Ordenantzak arau izaera daukatenez gero, argi dago ezin dutela inolako erantzukizun-kasurik ezarri, ezta prezio publikoen alorrean ere, ez badago horri buruzko inolako arau-aurrikuspenik dagokion lege-aginduan.

Gertatu dena da Toki Ogasunen *Legeak* ordezkotzat jotzen dituela, etxebizitzetan bizi edo etxabeen erabiltzaile direnei onura dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako *tasei* dagokienez, higiezin horien jabeak, horrelako lege-aurrikuspenik ez dagoelarik prezio publikoetan beraz, baina, esan dugun bezala, bai sartu delarik ordenantzen bitartez.

Jakina, tasen kasuan, lokal horietako jabeak direlako zerbitzu horien onuradunak balira, ez zen beharrezkoa izango ordezekoaren figura ipintzea, zuzenbide osoko zergapekoak izango lirakeelako.

Nolanahi ere, behin eta berriro esan behar dugu zergapekoaren ordezekoari buruzko arau-aurrikuspenean ez dela esistitzen prezio publikoen esparruan, ez

behintzat etxebizitzetan bizi direnei edo lokalen erabiltzaile direnei onura dalkarkieten zerbitzu edo jarduerengatik kobratzen diren tasei dagokienez.

Tasez hitz egitean esan badugu ordezkioak ez direla zerbitzuen onuradunak, eta Legeak -Toki Ogasunen Legeak, alegia- derrigortuta daudelako bakarrik ordaintzen dituztela, ez dago inolako arrazoirik pentsatzeko prezio publikoen kasuan higiezin jabeek prezio horiei dagozkien zerbitzuen onura jasotzen dutela; hortaz, tasen kasuan bezalako aurrikuspenik ez egonda, jabeek zerbitzu horiek ordaindu beharrak ez dauka inolako legezko oinarririk.

Horri gagozkiolarik, Auzitegi Gorenaren 1994ko urriaren 18ko Epaia balio-gabetzat eman zuen Dirubilketarako Arautegi Orokorren 16. artikuluko laugarren idazatia, era guztietako zorren solidariotasuna ezartzen zuelako; epai horrek dioenez:

«Eskubidea eta prozedura zerbait desberdina da zorroreko erantzukizun solidarioaren aldean, eta erantzukizun solidarioa zerga-zorrei dagokienez bakarrik ezartzen bada, eta gainera lege baten bidez, *beste legerik ez dagoenez gero beste horrenbeste ezartzen duenik zerga izaera ez duten zorrei dagokienez, orduan, arautegi baten bidez ezingo da aldatu solidariotasunik ezaren arau orokorra, eta beraz, legezko oinarririk ez edukita, balio-gabetzat jo beharko da.*»

Bestetik, Andaluziako Justizia Epaitegi Gorenak emandako urtarrilaren 30eko 36/1995 epaia eman zuenean Ubedako Udalak baimenik gabeko obrak egiten ari zen enpresa bati kalea erabiltzeagatik ezarri zion prezio publikoa ordaindu beharraren barruko likidazioari buruz, hauxe eman zuen aditzera:

«Azken finean gertatzen dena da 3. zkiko. Ordenantza, eraikuntza-materialekin erabilera publikoko lurak okupatzearen prezio publikoak arautzen dituen, Toki Ogasunen Legeak ezarritako esparrutik kanpo dagoela, TOL horren 41 eta 45. artikuluetan esaten dena gainditzen duelako 3. artikuluan prezio publikoa eragiten duen ekintza izaera finkatzen duenean. Izan ere, ordenantza-arau horren arabera, prezio publikoa ordaindu behar dute lizentziak jasotzen dituzten pertsona edo entitateek, *edota zegoen baimena eduki gabe probetxamendu horren onura jasotzen dutenek (kasu hau ez dago jasota Toki Ogasunen Legean, jabetza publikoak okupatzeagatik prezio publikoa ordaindu beharraren sorrera definitzen duenean), eta horrekin nahi duena jabetza publikoaren legez kontrako erabilera hori prezio publikoa sortarazten duen ekintzat jotzea da, TOLek horretaz egiten duen definizioa kontutan eduki gabe.*

Eta, hain zuzen ere, horrek sortarazi ditu inpugnatutako likidazioaren inguruko arazoak.»

Epairik berrienak, Kanarietako Auzitegi Gorenak 1995eko azaroaren 24an emandakoak, berez -bidenabar eta errespetu osoz esanda- zehazkabetasun terminologiko handia erakusten duen arren (kategoria berebanean sartzen baititu bai prezio publikoak eta bai tasak ere), aukera ematen digu gehiegikeria horrek nolako ondorioak dituen, legeak aipatutako mugetatik kanpo ordenantza fiskal batek

eskubide publikoko dirusarrera batzuen kobraketaren puntu batzuk arautzen dituenan.

Kasu honetan, errekurtsioa aurkezteko arrazoia izan zen halako lokal baten jabeari ura, argindarra eta publizitate zergagatik kobratu beharreko likidazioak bidali zizkiotela, errentan hartutako lokal horretan zerbitzu horiek erabiltzen zituen entitateak ez zituelako ordaintzen.

Ezer baino lehenago, esan dezagun nolako konfigurazioa zeukaten ordaingai horiek: argindarra prezio publiko gisa, ur hornidura tasa gisa, eta, jakina, publizitatearena zerga gisa.

Hala, bada, bosgarren zuzenbide-oinarrian, Salak hauxe dio:

«Toki Ogasunen Legearen 23.2 artikulua arabera, etxebizitzan bizi direnei edota lokalak erabiltzen dituztenei onura dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik sortarazitako tasei dagokienez, zergapekoaren ordezkotzat hartzen dira lokal horien jabeak; horixe bera aurrikusita dago argindar horniduraren prezio publikoa arautzen duen udal-ordenantza ere.

Ondorioz, likidatu diren zerbitzuak erabili dituztenek okupatutako lokalaren jabea baldin bada, eta auzi honetan ez da zalantzatan jarri edo eztabaidatu jabetza hori, orduan zergapekoaren ordezkoa da, eta, beraz, ZLOren 30. artikuluari jarraituz, ordaingai horiengatik erreklamatzeko diren likidazioen ordainketa egin beharreko sujetu pasiboa da, eta ordaindu beharra dauka...»

Puntu honetan gaudelarik, beharrezkoa da ohartaraztea argudio horretan egiten den jauziaz; izan ere, ateratzen den ondorioa berez zuzena da ur tasari dagokionez, udalerrri horretan tasa gisa konfiguratuta dagoelako, eta beraz higiezinaren jabea ordezkotzat hartzea jasotzen duen lege baten bidez araututako zerga denez gero; aitzitik, argindar horniduraren prezio publikoari dagokionez, ezin da sujetu pasiboaz hitz egin, eta are gutxiago zergapekoaz, esapide horiek -lehenago esan dugun bezala- zergen alorrera mugatuta baitaude, eta, berriz esan behar dugu, prezio publikoak horietatik kanpo utzi nahi izan ditu legegileak.

Baina baieztapen hori behar bezain argia ez balitz ere, lehenago esandako epaiak berak hauxe dio bere hurrengo oinarri juridikoan:

«Konponbidea bestelakoa da, ordea, Publizitate Zergari dagokionez; izan ere, lehenago aipatutako Arautegiko 383. artikulua arabera, zergaren sujetu pasibo dira -zergapeko modura- publizitatearen onura jasotzen dutenak, eta, ordezkotzat hartzea, publizitate enpresak; alabaina, horrelako izaerarik ez zaie leporatzen publizitatea jarri zeneko lokalen jabeak, eta beraz jabe horiek ez dira zerga horren sujetu pasiboak. Ondorioz, publizitate horren eragileak onurarik jaso ez zuenez gero eta zerga horren sujetu pasiboa ez denez gero lokalaren jabea baino ez izateagatik, bidezkoa da puntu honetan errekurtsioa ontzat hartzea.»

Labur esanda, jabea berez ez da sujetu pasiboa jabe izate hutsagatik, eta ez da zergapekoaren ordezkotza ere legeak derrigortuta, eta horixe bera esan liteke

argindar horniduraren prezio publikoei buruz ere, epaian errekurso-aurkezleari ezartzen zaiolarik horiek ordaindu beharra lehenagoko oinarri juridikoan.

Azken ondorio gisa, esan dezakegu:

- Zuzenbide Estatu batean, lege-erreserbak daukan betekizun nagusia da halako erakunde publiko batek derrigorrez hiritarrei halako ondarezko prestazio bat ezartzen dienean, horretarako ordezkarien oniritzia duela bermatzea.

- Gaur egun, Konstituzioaren 31. artikulua argitan, eta hainbat epai aztertu eta gero, Konstituzio Auzitegiarena batez ere, eta Tasa eta Prezio Publikoei buruzko 8/1989 Legea eta Toki Ogasunei buruzko 39/88 Legea ikusirik, ezin zaie prezio publikoak ordaintzeko erantzukizuna ezarri -horiek estatu, autonomia, foru edo toki mailakoak izanik ere- Legez finkatuta dauden pertsonak ez direnei, zuzeneko behartu gisa edo subsidiario gisa.

- Euskal zerga-administrazioek, beraz, prezio publikoak arautzen dituzten Legearen azpiko maila daukaten xedapenak moldatu egin beharko dituzte eskubide publikoko dirusarrerak ipintzea onartzen duen Legeak finkatzen dituen ordain-tzaileen definizioa.

- Bien bitartean, egindako erreferentzia horiek baliogabekotzat eta erabil-tezintzat jo behar dira, Lege-erreserbaren printzipioaren aurka doazelako.

#### **7.4. LANBIDE TITULUDUNEN ETA ELKARGO PROFESIONALEN I HARDUERA ARAUTZEKO BEHARRA. PROFESIONALEN ZERBITZUEN ERABILTZAIL E DIREN ALDETIK HERRITA- RREN ESKUBIDEAK BABESTE A**

1- Autonomia Estatutuko 10.22 artikulua jasotzen du Elkargo Profesionalen eta lanbide tituludunen gaineko eskuduntza Autonomia Erkidegoarena dela; beti ere, Konstituzioaren 36 eta 139. artikuluan araututakoaren kontrako ez denean. Nolanahi ere, eta eskuduntza horretan jasotzen diren hainbat funtzio Autonomia Erkidegoak bereganatu baditu ere, oraino ez da gaia arautu, bi lege-proiektu (1986 eta 1988an) eta aurreproiektu bat (1993) aurkeztu izan arren.

Erakunde honen iritzirako ezinbestekoa da gaiari lehen bait lehen heltzea, eragin handia baitu gizartean. Izan ere, zenbait lanbide tituludunen iharduerak herritarren oinarrizko eskubideak erasaten ditu eta hori da, hain zuzen ere, profesionalen iharduera burutzeko modua kontrola dadin eskatzeko arrazoi nagusia, baina, bestetik, Elkargoaren beraren beharra bera ere zuri dezake, lanbidea arautu eta modu egokian betetzeko irizpideak ezartzen dituen erakunde gisa.

Honezker o zenbait autonomia erkidegok lege bidez arautu du gaia (Katalunia eta Kanariak). Estatu mailan, ordea, lege berri bat egin edo 1974ko Kolegio Profesionalen Legea (KPL) legea aldatzeko ahaleginek porrot egin dute, nahiz eta 1978ko erreformaren arabera Konstituzioari egokitu; nolanahi ere, oso atzeratua geratu da eta ez dio egungo errealitate sozioekonomikoari erantzuten.

Estatu mailako oinarrizko legea onartzea onuragarria litzateke ikuspegi orotik; izan ere, eta lege konstituzional zenbaiten interpretaziotik horrela ondoriozta

daiteke, -eta transferentzietarako Bitariko Batzordearen Erabakian horrela aitortzen da-, Estatuari dagozkio gai honi buruzko arlo garrantzitsuenak arautzea, hala nola: Elkargoen izaera publiko edo pribatuari buruzko erabakia eta, lehenengo kasuan, bere erregimen juridiko-administratiboaren oinarriak finkatzea; iharduera profesionala burutzerakoan berdintasun efektiboaren printzipioa betetzen den zaintzea; eta titulu profesionala atera, jaulki eta homologatzeko baldintzak arautzea.

Alabaina, Estatu mailako arau berririk ez izateak ez du inola ere zuritzen Autonomia Erkidegoko legegileak geldik egotea. Eta Autonomia Erkidegoak duen konpetentzia maila handia denez, gai honen inguruan sorturiko problematika konplexua berehala arautu beharrekoa da. Arau-ekak inseguridade juridikoko egoerak sortzen ditu eta denbora aurrera larriagoa izan daiteke, eta, beraz, Erkidegoko botere publikoak ezin daitezke ikusle soilak izan.

Edonola ere, ezin daiteke ahaztu, Elkargo Ofizialen eta ogibide tituludunen iharduketaren arauketak arazo oso liskartsuak sortuko dituela eta ikuspegi plural batetik aztertu eta eztabaida publikoa eta zerikusirik duten sektore desberdinen eskuhartzea bultzatu beharko liratekeela.

2- Eskaturiko lege-arauketa hori gauzatzen den zain egon gabe, Arartekoak, berme-erakunde denez, profesionalen zerbitzuak behar dituzten pertsonen eskubideak errespetatzen diren zaindu behar du, sarritan babesik gabe sentitzen baitira zenbait profesionalen iharduketa irregular edo zabarraren aurrean. Ondoren, erabiltzaileen interesen ikuspegitik, kontutan hartu behar diren zenbait alderdi aipatu behar dira; gerora izango den lege batean jaso daitezkeen edota, gaurtik aurrera, Elkargo profesionalak beren eguneroko lanean kontutan izan beharko lituzketen hainbat aspektu:

a) Indarrean dagoen legediarekin bat esan daiteke -eta etorkizunean izan daitezkeen ikuspegi desberdinen kalterik gabe- Elkargo Profesionalak, eskuduntzen delegazioz edo sakabanaketa arrazoi, zenbait iharduera administratibo burutzen dituzten oinarri pribatuko Erakunde korporatiboak direla eta, honenbestez, Zuzenbide Publikoko Korporazioak. Interes Publikoko helburuak dira, hain zuzen ere, beren izana zuritzen eta beren ezaugarri nagusiak azaltzen dituztenak, (derri-gorrezko adskripzioa, herrialde monopolioa, etab.).

Eta Elkargoaren izaera juridiko publiko horretan oinarritzen da, era berean, zenbait funtzioaren jatorria eta horien artean lanbidearen arauketari dagokiona. Arauketa horren bidez artikulatzen da gizartearen interesen defentsa, zenbaitetan, Elkargokide profesionalen beraien interesen aurkakoak izan baitaitezke.

Hala, Elkargoen disziplina ahalmena da beren helburuak betetzeko ezinbesteko tresna, bere iharduera profesionala deontologia-arauetara egokitu eta, batez ere, herritarren eskubideak errespetatu daitezkeen zaintzeko.

Erakunde honi aurkeztu zaizkion kexuetatik ondoriozta daiteke ez dutela Elkargo guztiek eraginkortasunez betetzen beren ahalmen disziplinarioa eta sarritan somatzen dira gainditu beharreko hainbat erabilera korporatibo, bereziki, herritarren konfidantza profesionalengan sendotzeko eta Elkargo erakundearen sinesgarritasun publikoa berrindartzeko.

Eta honenbestez, Arartekoak, Elkargo Profesionalak hertsatzen ditu disziplina arauak eraginkortasunez aplika ditzaten, era horretara, bezeroen interesen defentsa indartu eta lanbidearen beraren izana sendotzeko bidea irekiko baita.

Nolanahi ere, zaintza lana areagotzea ez da, inola ere, Elkargokideek prozedura zigortzaileetan dituzten bermeen kalterako izango. Aitzitik, legezko-tasunaren printzipioa zaindu behar da bere arlo guztietan, baita lege- edo arau-hauspenak sailkatzerakoan ere. Hala, bada, eta komenigarria izan badaiteke ere autonomia-legeak ez-legezkoen oinarria jasotzea, sailkapen hori osatuko luketen Elkargoko arauak EHAAn argitara daitezen planteatu daiteke. Esaterako, Kataluniako legeak (13/82 legeko 12. a) art.) egin duen hautapena Elkargoetako estatutoak «Diario Oficial de la Generalitat» aldizkarian argitaratzea izan da eta, zalan-tzarik gabe, publikitatearen eta ziurtasun juridikoaren babesle garrantzitsuak dira.

Era berean eta disziplina prozesu osoan zehar babes bermeak ziurtatzeaz gainera, komenigarria izan daiteke berrikustea disziplina organoen osaketa eta funtzionamendua; ez baitira, sarritan, prestakuntza akademikoa eta lan esperientzia ondo egokitzen ezarri behar diren zehazpenetan behar hainbesteko zorrotzasunez jokatzeke orduan. Zuzenbide konparatuko esperientzian oinarriturik, disziplina organoetan legegizon espezializatu eta are Botere Judizialeko magistratuak biltzea gomendatzen da, beren prestakuntza tekniko eta zuzenbide ezagupenak eta Elkargokideen interesekiko nolabaiteko independentzia baitute.

Azken batean, interes orokorraren -zerbitzua herritar erabiltzaileen eskubi-deetan zertzen da- eta espediente zigortzailearen pean egon daitezkeen profesionalen garantien arteko oreka bilatzea eta bultzatzea da helburua. Eta ohitura korporatibista horiek apartatzea ezin daiteke, inola ere, elkargokideen eskubideen kalterako izan.

b) Azpimarratu den bezala, Elkargoen disziplina ahalmena oso garrantzitsua bada ere, ezin da, zenbait profesionalen praktika irregularren aurrean, herritarren interesak defendatzeko babes neurriak baztertu.

Nahiko maiz gertatu ohi da profesional zabar zenbaiten jokabideak -edo *lex artis*-aren kontrako eta are maltzurak ere- kalte larriak eragiten dizkietela beren bezeroei, eta zenbaitetan kalteordain bat jasotzeko eskubidea ere sortzen dutela. Beste zenbaitetan praktika zabarrak edo ez oso zuzenak nahiko arrazoi izan daitezke ordainsariaren zebatekoa murrizteko -edo gutxienez, orekatzeko-.

Kontsumoko beste alorretan gertatzen ez den bezala, gaur egun ez dago profesional baten eta bere bezeroaren artean izan daitezkeen gatazkarik konpontzeko bide egokirik. Askotan auzi-bidea -sarritan penala- baino beste aukerarik ez da izaten, honek guztiak berarekin dakartzan gastu eta kalteekin. Horregatik, guztiz komenigarria da, gatazka konpontzeko bide berriak sortzeko ahalegina egitea.

Indarrean dagoen Elkargo profesionaleri buruzko legeak, dagozkien funtzioen artean honakoa jasotzen du: «Elkargokideek beren iharduera profesionala burutzen eta eginiko lanetik erator daitezkeen obligazioak betetzerakoan sor daitezkeen desadostasunak auzi-erabakiaren bidez konponduko dira, interesaturiko aldeek eskatu ondoren» (2/1974 Legeko 5. n) art.) Zenbaitetan, ordea, hainbat



lanbidetako Estatutuetan epaile funtzioa elkargokideen arteko gatazka edo desberdintasunak konpontzera mugatzen da, baina agerikoa dirudi bide hori zabal daitekeela -eta zabaldu egin behar dela- bezeroaren eta bere zerbitzua hitzartzen duen profesionalaren artean sor daitezkeen arazoak bideratzera.

Demokrazia-sisteman aurreratu eta herritarrak beren defentsa bidez gehiago jabetzen diren neurrian, biderkatu egingo dira profesionalen aurkako erreklamoak. Hala, bada, testuinguru honetan, gatazka horiek epaitegietatik kanpo konpontzeak abantaila ugari ekar ditzake, baina beti ere, bitartekaritza edo arbitraia eginkizuna duen organoak prozedimendu berme nahikoak baditu (independentzia, ezagupen teknikoak, bizkortasuna, etab.).

Begibistakoa dirudi Elkargo Profesionalek, dagokien funtzio sozialaz jabeturik, jokaera korporatibista oro baztertu behar dutela kolektibitatearen interesen defentsa egokia bermatzeko, eta beren iharduera profesionala burutzean sor daitezkeen arazoen konponketan dagokien protagonismoa onartu eta, bide batez, Elkaragoen eta profesionalen beraien izena zaindu behar dutela.

## **7.5. NAHITAEZKO DESJABETZEAREN DISFUNTZIOAK: PREMIAZKO IHARDUNBIDEAREN GEHIEGIKERIA**

- 1- Lege-Aurrekariak
- 2- 1954ko Nahitaezko Desjabetzearen Legea
- 3- Premiazkotzat jotzeari buruzko erregimen juridikoa
  - 3.1. Aldez aurretiko ordainketaren printzipioa
  - 3.2. Premiazkotzat jotzeari buruzko prozedura: NDLko 52. artikulua
    - 3.2.1. Ukitutako ondasunen eta eskubideen okupazioa premiazkotzat jotzea
    - 3.2.2. Aldez aurretiko gordailu-orriak betetzea eta haien ordainketa edo kontsignazioa Gordailu-Kutxa Orokorrean egitea
    - 3.2.3. Ondasunaren okupazioa
    - 3.2.4. Kalteordainaren eskaintza administrazioa eta afektatua bat datozen mugarainokoa izatea
  - 3.3. Administrazioaren praxia
  - 3.4. Sistemaren eragin kaltegarriak
- 4- Jabegoa bortxaz kentzeko prozedura alternatiboak
  - 4.1. Ohiko desjabetze-prozedura
  - 4.2. Tasazio adostuko desjabetze-prozedura
- 5- Gomendioa

### **1- LEGE-AURREKARIAK**

Nahitaezko desjabetzerako gure sistema tradizio frantsesetik datorkigu, eta berori Napoleonek sortu zuen 1810eko martxoaren 8ko legearen bitartez;

Frantzian jabetzaren babeserako eta defentsarako sistema ezarri zuen lehena izan zen, Estatuak herri-lanetarako egiten zituen desjabetzeen aurrean. Haren ezaugarria epaile zibilari berebiziko garrantzia ematea zen.

Frantziako tradizio horren barruan arreta berezia merezi du, gure azterketari dagokion bezainbatean, 1935ko dekretuak, Administrazioaren desjabetze jardun-bideetan premiazko prozedura orokor bihurtzen baitu.

Frantzian indarrean den desjabetze araudia, 1962ko uztailaren 26ko Legea, sistema judizialistara itzuli zen zenbait aldaketaren ostean. Arau horren arabera, epaileak erabakitzen du justiprezioaz eta jabetzaren aldaketaz, eta erakunde berezia sortu zen eskumen zibilean era horretako auzietarako.

Espanian desjabetze sistema sortu eta arautu zuen lehen araua 1836ko uztailaren 17ko Legea izan zen eta, Frantziako eraginaren pean, sistema argiro judiziala ezarri zuen.

1869ko abuztuaren 12ko Dekretuaren ostean, 1879ko urtarrilaren 10eko Legea etorri zen: ezarritako prozedurak bide ematen zuen lur-ondasuna justiprezioa finkatu baino lehenago okupatzeko. Horretarako baldintza gisa ezartzen zuen desjabetzea egiten zuen administrazioak alde aurretik egin behar zuela behin-behineko justiprezioaren gordailu; justiprezioa desjabetuaren peritazioaren arabera kalkulatzeko zen, eta nahiko altua izaten zenez, sistema hori ez zen gehiegi erabiltzen.

Prozedura berezia ez-erabiltze horrek ekarri zuen araudiaren zenbait zuzenketa egitea, erabilpena ahalbideratzeko. Aurrena, Kostalde eta Mugaldeen Desjabetze Legearen bitartez, 1902ko apirilaren 15ekoa, eta gero 1904ko uztailaren 30eko Legearen bitartez, 1879koa aldarazten zuena: jite orokorrak ezartzen zuen alde aurretiko gordailuaren zenbatekoa zerga-balorazioen bitartez kalkulatu behar zela, merkatukoak baino baxuagoak izan ohi direnak.

Edonola ere, 1879ko Legearen sistema 1939ko urriaren 7ko Legearen bitartez hautsi zen. Arau hori «gerra osteko berreraikuntza beharrak» ezarri zuen, harek zioen azalpenak dioen gisan, eta ezarritako sistemak bide ematen zuen lur-ondasuna berehala okupatzeko, kalte-ordaina ordaindu baino lehenago. Betekizun gisa soil-soilik Ministro Kontseiluaren adierazpen bat esijitzen zuen «lanak egiteko premia» onartuz.

## **2- 1954KO NAHITAEZKO DESJABETZEAREN LEGEA**

Oraindik indarrean den 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legeak (NDL), eta haren Araudi exekutiboak (NDA), 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren bitartez onartuak, ekarpen garrantzitsu asko egin zioten desjabetze prozedurari, eta lehen aldiz ezarri zuten Administrazioaren ondare-erantzukizunaren printzipioa.

Legeak, desjabetzerako arrazoi gisa, herriaren onuraz gain, gizarte-interesa gehitzen du. Halaber ezartzen du desjabetzerako prozedura sistema garbi-garbia, jardunbide eredu batetik abiatutik, hiru edo lau fasetakoa, haietako lehena kontuan sartu ala ez:

- Gizartearen onurako edo gizarte-interesekoa deklaratzeko
- Ondasun edo eskubideak okupatzeko beharra deklaratzeko
- Justiprezioa zehaztea
- Ordaintzea eta jabetzan hartzea

III. atalean zortzi prozedura berezi ezarri zituen, berez prozedura osorik *ex novo* ez zirenak, ezpada prozedura-eredu orokorraren gainean egindako aldaketa zehatzak.

52. artikuluko garrantzizkoaren bitartez, ordaintetari eta jabetzan hartzeari dagokion atalean bildua, Legeak xedatzen du «KASU BEREZIETAN, eta Ministro Kontseiluaren akordio bidez, dagozkion ondasunen okupazioa premiazko aitortu daitekeela...». Horrek aukera ematen du kasu «bereziatan» alde aurretiko ordaintetaren araua itzulikatzea, aurrena ondasuna okupatuz eta gero justiprezioa zehaztuz. Horrela testu berriari erantzen zitzaion 1939ko Legearen edukia, eguneratuz, eta lege hori aldi berean bertan behera geratu zen NDLa 3. xedapen behin-behinekoaren bitartez.

Premiazko prozedura berezia aplikatzeko esparrua murrizteko borondatea lege berriaren zioen azalpenean agertzen zen: «Premiazko prozeduraren erabilpena KASU BEREZIETARA egokitu ahal izango da, gaur egun gertatzen ez dena...».

1954ko legeak premiazko prozeduraren BEREZITASUNARI buruz egindako aurrikuspenak alferrikakoak eta ondoriogabeak izan ziren, haien lainotasuna zela kausa, beharbada. Gobernuak berehala onartu zituen zenbait dekretu, hasiera batean egoera berezi eta atipikoetarako aurrikusitako prozedura hura era sistematiko eta orokorrean inposatuz. Dekretuok ezarri zuten, arautzen zuten alorrari zegokionean, haien pean egindako espropiazioak premiazko jitea izango zutela.

Jardunbide orokorraren lekuan, sistematikoki eta behin-betiko, ezohikoa ezartzea 1963ko abenduaren 28ko Legearen eskutik etorri zen, Ekonomi eta Gizarte Garapenerako I. Plangintza ezarri zuena, eta gero II. Plangintzarekin (1968) eta III. arekin (1972) jarraitu zuen. Lege horien arabera, Administrazioak laurteko horretan egingo zuen inbertsio publiko osoa, desjabetzeei zegokienean, premiazkoztat joko zen, nahiz eta Garapen Plangintzetan ez zen egin beharreko lan zehatzik azaltzen, ezpada soil-soilik zenbaki eta aurrikuspen ekonomikoak.

Lege-jardunbide hau berehala orokortu zen, batez ere azpiegitura eta zerbitzuaren alorretan. Horrela, gaur egun ere, arau-xedapen asko aurki ditzakegu, beren egintzak premiazkoztat jotzea aldarrikatzen dutenak:

- Apirilaren 2ko 1.162/82 ED (BOE 136 zk., ekainaren 8koa). Inbertsio Publikoetarako Programa Ezohikoan aurrikusitako herri-lanen premiazkoztatzenaren aitortzea jasotzen da.
- Ekainaren 15eko 10/87 Legea (BOE 144 zk., ekainaren 17koa), Erregai Alorrean Jarduerak modu Koordinatuan Garatzeko Oinarriko Arauei buruzkoa. 10. artikuluan erregaien ekoizpen, bideratze eta hornitzeari dagozkion emakidak eta baimenak premiazkoztatzeneko beharra aitortzen du.
- Telekomunikazioen Antolamendurako Legea, 1987ko abenduaren 18koa (BOE 303 zk., abenduaren 19koa). 17-3. artikuluan xedatzen du

telekomunikazio zerbitzu eramaile edo amaierakoen ustiaketan, desjabetze egintzak behar izanez gero, NDLko 52. artikuluan xedatutako premiazko prozedura berezia aplikatuko dela. Compañía Telefónica de España-ren lan eta instalakuntzei dagokienean, lege berak aurrikuspen bera egiten du 2. xedapen gehigarriko 3. atalean.

Gure autonomi araudira ere pasa da ezegokitzat jotzera ausartzen garen lege-ohitura hori. Horrela, maiatzaren 30ko 2/89 Legeak, Euskal Herriko Errepide Plangintza Orokorra arautzen duenak xedatzen du ezen «*Errepide Plangintza Orokor bakoitza onartzeak berarekin ekarriko du nahitaezko desjabetze legediak aurrikusitako premiazko okupatze adierazpena, plangintzan programaturiko egintzek ikututako ondasun eta eskubideei dagokienean*». Kontutan harturik Plangintza bakoitzak hamabi urteko iraupena duela eta beste horrenbeste luza daitekeela, zail egiten da ulertzen 10 edo 12 urte barru arte egitea aurrikusten ez den lan bat premiazkotzat jotzea.

Orobat abenduaren 21eko 7/92 Legeak, lur-sail ureztagarrien, eskualdeetako hobekuntza planen eta eraldaketa plan orokorren inguruko zenbait alderdi arautzen duenak, (EHAA 10. zk., 1993ko urtarrilaren 18koa) premiazkotzat jotzearen ihardunbidea aipatzen du 6. artikuluan: «Behin Eraldaketa Plan Orokorra edo Eskualdeetako Hobekuntza Planak onarturik, Euskal Autonomia Erkidegoak edo Foru Aldundiek, nori dagokion, beharrezko diren desjabetzeak onartu eta burutuko dituzte, Nahitaezko Desjabetzeen Legeak ezarritako ohiko prozeduraren arabera, lege bereko 52. artikuluan xedaturiko premiazko jardunbidean jasotzen diren aldaketak kontutan harturik.

Arau horren bidez araututako alorrean burutzen diren desjabetze jardueri eragiten dieten legeen bidez egindako izaera orokorreko premiazko aitorten horiek ez dira onargarriak. Arlo zehatz bateko garapenek edo azpiegitura baten ezarpenek izan dezaketen herri-interesa gora-behera, egintza bat-bera izan daiteke premiazkoa ala ez, une bakoitzeko egoeraren arabera.

Logikoagoa deritzogu Lur-zoruaren Legearen berridazketako sistemari, 132. artikuluan adierazten duenean antolamendu-planak onartzeak berarekin dakarrela lanak herri-onurakoak direla eta dagozkien lur-sail edo eraikinak okupatzeko beharra aitortzea. Geroago, kasurik kasu ikusiko da egintza jakin bat premiazkoa den ala ez eta, hala balitz, Gobernu Kontseiluari eskatuko zaio dagokion premiazko okupatze adierazpena, espedientea bideratzeak hiru hilabetetik gora ezin joko duelarik.

### **3- PREMIAZKOTZAT JOTZEARI BURUZKO ERREGIMEN JURIDIKOA**

#### **3.1. ALDEZ AURRETIKO ORDAINKETAREN PRINTZIBIOA**

Espainiako legediak errespetatu egin izan du alde zuretik ordainketaren printzipioa, Konstituzio aurreko legedian Espainiarren Foruko 32. artikuluan jasota

zegoena, bai eta oraindik indarrean diren Kode Zibileko 349. artikuluan eta Nahitaezko Desjabetzeen Legearen 124.ean adierazten dena.

Hala ere, Espainiako Konstituzioaren 33-3. artikulua albo batera utzi zuen betekizun hori:

«Ezin kenduko zaio inori ondasun edo eskubiderik baldin herri-onura edo gizarte-interesa dela kausa ez bada, *dagokion kalte-ordaina medio*, eta legeek ezarritakoaren arabera».

Autoritate handieneko doktrina alderdi batek, García de Enterría eta Tomás Ramón Fernándezek azaldutakoan hain zuzen, alde aurretiko ordainketa derrigorrezkoa delako tesirik garantistena defendatzen segitzen du oraindik. Egile hauen ustez, Konstituzioaren 33-3. artikulua egoki eta testuinguruan interpretatuz, justiprezioaren ordainketa desjabetutako ondasunak okupatu baino lehenagoko betekizuna dela defendatu behar da.

Honen inguruan, Konstituzio Auzitegiak izan du bere iritzia azaltzeko aukera RUMASA kasua zela eta abenduaren 19ko 166/1986 epaian. Han erabaki zuen premiazko desjabetzea Konstituzioko 33-3. artikulua babesten zuela:

«Konstituziaren 33-3. artikulua ez du kalteordaina alde aurretik ordaintzeko esijitzen, eta horri desjabetzea legeek ezarritakoaren arabera egingo delako bermea gehituz gero, artikulua horrek bide ematen du kalteordainaren alde aurretiko ordainketaren araua, eta baita horren premiarik ez dutenena ere. Beraz, kalteordainaren ordainketa desjabetzearen azken fasera atzeratzen duen legea ez doa Konstituzioaren kontra. Desjabetze moeta hauetan, zeinen eredu premiazko deitutakoak diren, desjabetutako ondasun edo eskubideen jabeago edo titularitate aldaketa bera zein unetan egiten den, ez dago kalteordainaren ordainketa alde aurretik egitearen edo ez egitearen baitan, (...)».

### **3.2. PREMIAZKOTZAT JOTZEARI BURUZKO PROZEDURA: NDL-KO 52. ART.**

Premiazko desjabetzearen konstituzionalitatea azterturik, ikus ditzagun orain NDLen 52. artikulua araututako ezohiko prozedura honen aldi anitzak.

Arauk ebazten du edozein unetan jo daitekeela premiazko desjabetzeak ikututako ondasunak okupatzea. Hala ere, Nahitaezko Desjabetzeen Araudiaren (NDA) 56-1. artikulua esijitzen du alde aurretik hamabost eguneko epea ematea kaltetuei entzuteko, eta horregatik premiazko desjabetze hori egin ohi da ondasun eta eskubideak okupatzeko beharraren deklarazioa egin eta gero. Beraz, jardunbidearen aldiak honakoak lirateke:

- 1- Okupatzeko beharra adieraztea, neurri ohikoa prozedura arruntean.
- 2- Okupazioa premiazko desjabetze hori.
- 3- Okupazioa baino lehenagoko akta jasotzea, interesatuei zortzi egun lehenago abisaturik.

- 4- Aldez aurretiko gordailu-orriak betetzea, bai eta premiazko okupatzeak eragindako kalteen zenbatekoa ordaintzea ere, eta berorren ordainketa edo kontsignazioa egitea Gordailuen Kutxa Orokorrean.
- 5- Ondasunaren okupazioa, aldez aurretiko gordailua ordaindu edo kontsignatu eta hamabost eguneko epean.
- 6- Balioespena zehaztu eta ordaintzea.

Aldi horietatik, 2., 4. eta 5. ari jarriko diegu arreta, zeren gainerako hirurek, gertatzen direneko prozedura-uneaz gain, ez baitute inolako bereizgarri aipagarririk prozedura arruntaren aldean.

### 3.2.1. Ukitutako ondasunen eta eskubideen okupazioa premiazkotzat jotzea

Betekizun honen inguruan interesgarriak iruditu zaizkigun hiru arazo aztertuko ditugu:

- A- Organoaren aginpidea.
- B- Hitzarmenaren zioak.
- C- Gorajotzeko aukera.

A- *Organoaren aginpidea*: Estatuko Administrazioak desjabetzen duenean, Ministro Kontseiluak jo behar du premiazkotzat ondasunen okupatzea (NDL, 52. art., 1. atala); eta Autonomia Elkarteek desjabetzen dutenean, zeinean bere gobernu-organoak. Salbuetsirik geratzen dira lege batek aurrikusi eta zehazki adierazitako jotzeak, hala bada arau horrek babesturiko desjabetze-jardunbideek ez baitute inongo administrazio-organoren onarpenik behar.

EAEn, maiatzaren 31ko 4/90 Legeak, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzkoak (EHAA 131. zk., uztailaren 3koa) bere 26-1. f) artikuluan xedatzen du ezen Eusko Jaurlaritzari dagokiola «Nahitaezko desjabetzeak ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa premiazkotzat jotzeko erabakia hartzea...». Xedapen hau berdin aplikatu behar da, edozein delarik ere desjabetzea tramitatzen duen Administrazioa, hau da, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra izan zein foru aldundiak edo udalak izan.

Ikuspegi juridikotik begiratuta, uste dugu zilegi dela kuestionatzea lege bat udal erakundeen jardunetan horrela sartzea ez ote datorren haien autonomiaren kaltetan, norbere interesak kudeatzeko autonomia baitute, Konstituzioko 137. artikulua dioen gisan. Honen inguruan kontutan izan behar da halaber Udal Erregimenaren Oinarrien Legeak, 4-1. d) artikuluan, udalei eta probintziei ematen diela beren aginpideen esparruan desjabetzeko ahalmena, beraz, berorien jardunbideari inolako mugarik ezarri gabe.

B- Hitzarmenaren arazoak: ondasunak premiaz okupatzeko hitzarmenaren fundamentazioari dagokionean, NDAREN 56-1. artikulua esijitzen du ezen «behar bezala arrazoiturik izan beharko duela, kasuan kasuan azaldurik Legearen 52. artikuluko ezohiko prozedura justifikatzen duten motiboekin...»

Egintza arrazoitzeko lege-esijentzia hau izanik ere, hara non Eusko Jaurlaritzaren premiazko okupatze adierazpen Dekretuek apenas jasotzen duten ezohiko prozedura horren egokitasunaren inguruko motibazio azalpenik. Halako moldez non esaldi bakarreko adierazpide batera mugatzen duten, egitasmo edo plangintzaren izenburuaren aurrean:

«Ezin-luzatuzkotzat jotzen da okupazioa zera burutzeko asmotan (irtenbide ematekotan)...»

C- *Gora jotzeko aukerak*: NDaren 56-2. artikulua xedatzen du ez dagoela gora jotzerik ondasunak okupatzea premiazkotzat jo deneko erabakien aurka.

Arlo hau jurisdikzio kontroletik at izatearen kontra behin baino gehiagotan hitz egin du Auzitegi Gorenak, aintzindari izan zelarik 1982ko urriaren 25eko epaia (Ar. 6.036), zeinak ukatzen baitu premiazko jotze-erabakia soil-soilik desjabetze jardunbidea amaitutakoan egin daitekeenik, eta zuzeneko gorajotzea onartzen baitu Konstituzioko 24-1. eta 106-1 artikuluetan oinarriturik.

Kontuan hartu behar da orobat herri-lan bat edo bestelako xedez ondasun jakin batzuk desjabetzea premiazkotzat jotzea ez dela diskrezionalitate handieneko egintza, jurisdikzio kontrola ezinezko egiteko modukoa. Aitzitik, zehazgabeko kontzeptu juridikoa dugu eta, hala denez gero, irtenbide zuzen bakarra onartzen duena eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsora irekia. Izatez, gero eta sarriago gertatzen da EAEko Administrazioaren kontrako auzietan azaltzen diren gertakariak ez izatea nahikoa arrazoi premiazko desjabetzapena adierazteko.

Irizpide honi laguntzeko aipa daiteke Auzitegi Gorenako 1992ko apirilaren 8ko epaia (Ar. 2.632), haren bigarren oinarritze juridikoan halaxe argudiatzen baitu:

«Baina tesi hau, alegia, desjabetze jardunbideko egintzak bereizi inpugnatzea beti prozeduraren akats oinarritzkoekin loturik, edota haren deuseztatze errotikako eta erabatekoekin loturik egon behar dutela, baztertu egin behar da eta baietsi, berriz, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 22-3. eta 126-1. artikuluek esana -orokorrean- eta haren Araudiaren 56-2. artikulua esana -honako kasu honetarakoan- badela aukera berehalako eta berezitateko errekurtsioa egiteko, ez baita onartu behar, Konstituzioko 24-1. eta 106-1. artikuluetan xedatutakoa aplikaturik, inolako Lege batek konstituzioko aginduek emandako garantia hain oinarritzkoak bazter ditzan».

### **3.2.2. Aldez aurretiko gordailu-orriak betetzea eta haien ordainketa edo kontsignazioa Gordailu-Kutxa Orokorrean egitea**

Okupazioa baino lehenagoko gordailu-orrien zenbatekoa balore fiskalen arabera kalkulatzen da: «zergapeko diruaren kapitalizazioa, lege interesen arabera», 4. arauaren esanetan eta, zenbaitetan, era aleatorioan ere kalkulatzen da.

Ohikoa izaten denez, lur-ondasunak desjabetzen direnean, haien zenbatekoa katastro-balioaren arabera kalkulatzen da, lur-ondasunen zerga ordaintzeko erreferentziatzat hartu ohi dena. Katastro-balio horiek eguneratuta ez badaude, haztapen-orrien zenbatekoa oso txikia izaten da.

Zenbaitetan jo izan dute Ararteko erakundera hiritar sumindu batzuek Administrazioak beren ondasunen truke diru-kopuru barregarriak eskaintzen dizkielako, eta konfiskaturik sentitzen direlako desjabetuak baino gehiago, bai eta babesik gabe ere Administrazio txit ahaltsuaren aurrean.

Sarri gertatzen da desjabetuek aldez aurretiko gordailua ez jasotzea, eta horrelakoetan Administrazioak nahikoa du zenbateko hori Gordailu-Kutxa Orokorrean kontsignatzea, hiritarrarentzako interesak sortzen direlarik.

Aldez aurretiko gordailua kontura egindako diru-emate baten moduko bat da, desjabetzeak sor ditzakeen aholkularitza gastuei edo gastu judizialei aurre egiteko erabili ohi dena.

Gure ustez, tramite horrek ez du zentzurik planteiaturiko terminoetan, eta moldatzea komeniko litzateke aldez aurretiko gordailu-orrien zenbatekoa hurbildu edo bat etor dadin Administrazioak egin ohi duen balioespenaren behin-behineko balorazioarekin.

### **3.2.3. Ondasunaren okupazioa**

52. artikuluko 6. arauak xedatzen duenez, aldez aurretiko gordailu-orriaren zenbatekoa eta kalteordainena gordailuan jarri edo ordaindu ondoren, Administrazioak gehienez 15 eguneko epean ekingo dio ondasuna okupatzeari.

Okupazio hori ez da benetakoa izaten, ezpada «Okupatze Akta» esaten zaion agiri batean islatzen den formalitate administratibo hutsa. Inprimaki horretan, ondasuna identifikatu eta okupatu baino lehenagoko gordailuaren zenbatekoa ezartzen da, eta premiazko okupazioak eragindako kalteordainena, haren aldez aurretiko ordainketa edo kontsignazioa izan dela zehazten delarik. Azkenik, desjabetzen duen administrazioaren ordezkariak, udalarenak eta eragindakoak sinatzen dute agiria, azken honek uko egin ezean, horrek agiriaren balioarritasunean eraginik ez duela.

Okupatze akta osatzen denetik hilabeteak eta baita urteak ere joaten dira, Administrazioak ondasuna benetan okupatzeko egintzarik egin gabe, nahiz eta espedientea premiazko okupatze prozeduraz tramitatu den.

Ikuspegi garantista eta berdintasunezko batetik begiratuta, uste dugu gehiegikeria hauek zuzentzeko klausula ezarri beharko litzatekeela, desjabetzearen eraginak denboran mugatuko lituzkeena edo epe jakin batean ondasuna okupatzeko baldintzapean jarriko lituzkeena. Hala izatera, eta adibide modura, okupatze akta egin eta urtebetera lanak edo desjabetzea justifikatu zuten bestelako egintzak hasi gabe egonez gero, espedientea deusezturik geratuko litzateke. Zuzenbide konparatuan badira antzeko klausulen adibideak.

### **3.2.4. Kalteordainaren eskaintza administrazioa eta afektatua bat datozen mugarainokoa izatea**

Arazo hau prozedura premiazkoari zein arruntari dagokio, eta Administrazioak sarritxo bete gabe utzi ohi du.



NDLren 50-2. artikulua araberan: «desjabetuak jasotzeko eskubidea izango du, erabaki gabeko auzi edo errekurtsorik tartean bada ere, bera eta Administrazioa bat datozen mugarainoko kalteordaina, edonola ere behin-behineko ordainketa hori auziko erabakiaren baitan geratzen dela».

Lege-aurrikuspen honen arabera, eragindakoak onartuko ez balu Administrazioak bidalitako haztapen-orria, beronek ohartarazi beharko lioke orri horretan adierazitako kopuruko kalteordaina kobratzeko eskubidea duela. Hala ere, hori ez da ohiko administrazio-praktika, eta ez dira bakanak beren eskubideak jakin ez eta administrazioari kalteordain hori erreklamatzeko dioten eragindakoak.

Uste dugu Administrazio berrak baten jokoera zuzena izango litzatekeela eragindakoari haztapen-orriaren berri ematen zaion jakinarazpen berean, jabeari adieraztea, balorazioarekin bat ez etortzekotan, eskubidea izango duela haztapen-orrian agertzen den zenbatekoa kobratzeko. Horrela, desjabetuek dagokien kalteordainaren zati bat jasoko lukete, Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde-Epaimahaiek baliospenaz erabakitzen duten bitartean.

### 3.3. ADMINISTRAZIOAREN PRAXIA

*Administrazioaren praktikari begiratuta, sistemaren desnaturalizazioa erabatekoa da: premiazkotzat jotzearen ezohiko egoera ohiko prozedura izaten da, eta Administrazioak oso gutxitan jotzen du prozedura orokorrera.*

Halaxe azaltzen du, Espainiako Herriaren Defendatzaileak eskatuta, Lan Publiko eta Hirigintza Ministerioan 1988an egindako ikuskaritza batek, irekitako 1.534 espedienteen laginaren gainean:

- Premiazko prozedura: 1.409 espediente (%92)
- Ohiko prozedura: 125 espediente (%8)

Badugu hainbat datu udalek, foru aldundiek eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek irekitako espedienteen tramitazioaren inguruan, hiru lurralde historikoen Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde-Epaimahaiek emandako informazioan bildurik. Bada, 1995ean 375 espediente aurkeztu ziren Epaimahaietara, eta Epaimahaiek 416 erabaki hartu zituzten. Hona lurralde historikoen arabera banaturik:

- Araba: 46
- Bizkaia: 271
- Gipuzkoa: 99

Epaimahaiek ebatzitako espediente guztien artetik %79 premiazko prozeduraz egindako desjabetzeenak ziren, %8 ohiko prozeduratik, eta %13 tasazio adostuaren bidetik eginak. Salbuespen bakarra Arabako Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde Epaimahaia da, han espediente kopuru handiena tasazio adostukoak eta ohiko prozedurakoak baitira, eta bakarra, berriz, premiazko prozedurazkoa.

Bestalde, 1995. ean Eusko Jaurlaritzak 61 dekretu ebatzi zituen azpiegitura egitasmoetarako eta bestelako egintzetarako ondasun eta eskubideak okupatzea premiazkotzat jotzeko.

### **3.4. SISTEMAREN ERAGIN KALTEGARRIAK**

Eusko Jaurlaritzak onartu dituen dekretu premia-adierazleen kopurua ezin da lotu premiazko prozedurari dagokion Lurralde Epaimahaien aurrean aurkeztutako erreklamazioen kopuruarekin, organo horien aurrean partikularrek aurkeztzen baitituzte erreklamazioak, eta ondasun jakin bati edo hainbati baitagozkio. Aitzitik, premiazko jotzeari buruzko dekretuak egitasmo jakin baten egintzak ukituriko ondasun guztiei dagozkie; hori dela eta, gerta daiteke egunen batean eragindakoek erreklamazio sail amaitezina aurkeztea Lurralde Epaimahaien aurrean.

Suposatzen da premiazko prozedura egoera ezohikoetan erabili behar dela, Administrazioaren jarduera arintzeko. Hala ere, praktikan presa hori eragindakoaren ondasuna okupatu artekoa izaten da; hortik aurrera, balioespina kalkulatzeko eta ordaintzeko, Administrazioak inolako presarik gabe jokatzeko du, eta zenbaitetan baita utzikieriaz ere.

Bestalde, Administrazioak ez du beste inolako neurri osagarririk hartzen bizkorrago eta eraginkorrago aritzeko, ezohiko egoera omen denaren aurrean; beraz, eragindakoaren bermeei dagokien aldi bako bako ez dago presa.

Sistemaren inbertsioaren kalte nagusia da ondasun eta eskubideen titularrei kreditu bat inposatzen zaiela, desjabetzea egiten duen administrazioaren edo desjabetzearen onuradunaren aldekoa, irabazi-asmoko enpresa pribatua ere izan daitekeena. Inolako justifikaziorik ez duen egoera dela deritzogu, eta nola edo halako berme juridikokoa, kreditu-emate osagarria arau zehatz batek babestua izan behar bailuke.

## **4- JABEGOA BORTXAZ KENTZEKO PROZEDURA ALTERNATIBOAK**

Gure antolamendu juridikoak zenbait baliabide erabilgarri eskaintzen du jabe-goa bortxaz kentzeko. Beraz, ezin daiteke esan premiazko zatitza kentzeko prozedura Administrazioaren bitarteko baliagarri bakarra denik jabe-goa eta beste eskubideak bortxaz kentzeko.

Hala ere, albo batera utziko ditugu hirigintza legean jasotako teknikak, egokiak ekipamendu eta dotazioetara bideratutako lur-zoruak kentzeko, ez baitute desjabetze izaerarik; edonola ere, zenbait kasutan, teknika horiek aukera baliagarria izan daitezke dotazio publikoetarako lur-zoruak kentzeko.

Azter dezagun orain nola egokitzen diren bitarteko anitzak eta desjabetze beharrak, azken hauek zerrendatuz:

- 4.1. Ohiko desjabetze-prozedura, Nahitaezko Desjabetze Legeak eta haren Araudiak erregulatua.
- 4.2. Tasazio adostuko desjabetze-prozedura, Lur-zoruaren Legearen Berri-dazketaren 218. artikulua eta hurr., eta Hirigintza Kudeaketarako Araudiaren 201. artikulua eta hurr. erregulatua.

#### 4.1. Ohiko desjabetze-prozedura

Nahitaezko Desjabetzeen Legeak ezarritako prozedura orokorra da, eta kasurik gutxienetan erabiltzen bada ere, ez dugu uste bitarteko gisa gutxietsi behar denik.

Premiazko prozedurarekin alderaturik, ezaugarri du okupatze beharra adierazten duen agiria tramitatu eta gero, lehenago ezartzen duela balioespenaren kalkulatzeko eta ordainketaren aldia, ondasunaren okupazioarena baino.

Prozeduraren ordena aldaketa honek, alegia, balioespena kalkulatzeko agiria lehenago tramitatzea, atzeratu egiten du ondasuna okupatzeko unea, desjabetuaren garantiak areagotuz eta Administrazioaren jardueraren eraginkortasun eta bizkortasunaren kaltetan. Hala ere, premiazko prozeduraren ordeztu ohiko prozedura aukeratzea dakarren atzerapena zein ote den, berehala saiaturiko gara horri erantzuten, Legearen 24. eta 47. bitarteko artikuluek jasotako aldiak zerrendatuz:

- Elkarrekin adostutako jabetze adiskidetsua: 15 egun (NDL, 24. art.). Hala ere, tramitazioaren edozein unetan ados dezakete alderdiek aipatutako jabetzea (NDL, 24. art. eta NDA, 27-2. art.).
- Desjabetzea egiten duen administrazioak jabeari eskatuko dio ondasunaren bere balorazioa haztapen-orrian aurkezteko 20 eguneko epearen barruan (NDL, 29. art.).
- Administrazioak onartu edo, dagokionean, atzera botako du partikularraren haztapen-orria, eta orduan Administrazioak beste bat aurkeztu beharko du, berria eta lehengoari kontrajarria (NDA, 30-1. art.).
- Jabeak 10 eguneko epea du Administrazioaren haztapen-orria onartu edo atzera botatzeko, eta alegazioak egiteko (30-2. art.).
- Administrazioak espediente osoa bidaliko dio Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde Epaimahaiari, eta honek 15 eguneko epea dauka balioespenaz exekutiboki erabakitzeke (Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde Epaimahaiak sortzeaz aritzen den azaroaren 20ko 8/87 Legearen 4. art., EHAA 233. zk., abenduaren 10ekoa).
- Administrazioak Epaimahaiak erabakitako balorazioaren arabera ordainduko dio desjabetutako jabeari.
- Ondasuna okupatzea.

Aztergai dugun gaiari berriro helduz, iruzkin zehatz gisa hauxe adierazi nahiko nuke: tartean dauden interesak jadanik Administrazioaren alde desorekatuak dardenez gero, jarrera adeitsuagoa izango litzatekeela haztapen-orriak aurkezteko ordena aldatzea eta jabeago kentzen duen Administrazioak edo onura jasotzen duenak aurkeztea lehendabizi bere haztapen-orria ondasunaren balioztapena eta guzti; horrela, NDLe ezarritako ordenaren kontra, partikularrak bere haztapen-orria aurkeztean jakingo luke Administrazioak zein tasazio egin duen eta zein balioztapen-irizpide erabili dituen.

Eraginkortasun eta bizkortasun gehieneko administrazio espropiatzaile balezko batek 50 egun baino gehixeago beharko luke, lege-epeak kontutan hartuta, desjabetu nahi lukeen ondasuna okupatzeko, baldin eta Nahitaezko Desjabetzeen

Lurralde-Epaimahaiak bizkortasun berarekin aritu eta 15 eguneko epean erabakiko balu.

Baina epe horiek ez dira errespetatzen, besteak beste, Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde Epaimahaiak atzeratu egiten direlako espedienteak ebaztean. Baina ez dugu ahaztu behar epaimahai horiek Lurralde, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren menpeko administrazio-organoak direla, eta administrazio autonomikoari dagokiola bere organoak egoki hornitzea beharrezko eraginkortasun eta arintasunez ari daitezen.

Aipatu beharra dago, bestalde, zenbaitetan administrazio publikoek, eta bereziki udalek, ez dutela balioespenaren agiria era argi eta sistematikoan ematen, lurralde-epaimahaien funtzionamendu hobeko komeniko litzatekeen moduan.

Jakin ahal izan dugunez, Epaimahaiak espedientea jaso eta interesatuei jakinarazten dien arte igarotzen den aldia, batz bestea, oso desberdina da lurralde historiko batetik bestera:

- Araba: 3,5 hilabete
- Bizkaia: 8 hilabete
- Gipuzkoa: 2,5 hilabete

Ohiko prozeduran, ondasunaren okupazioa Epaimahaiaren erabakiaren menpe dagoenez, administrazio desjabetzaileak du interes gehien Epaimahaiak ahalik eta azkarren erabaki dezan. Premiazko prozeduran, aitzitik, aurrena ondasunaren okupazioa izaten denez gero, Administrazioak lortua du bere helburu nagusia eta, beraz, Epaimahaiak epe barruan erabaki dezan duen interesa, gutxienez jota, desjabetuarena baino txikiagoa da. Hau, bien bitartean, desjabeturik eta kobratu gabe aurkitzen da, bai eta jakin gabe ere -Epaimahaiak erabaki artezenbatekoa izango den balioespena.

Desjabetuak duen garantia bakarra da, bien bitartean, desjabetze-espedientea ireki zenetik sei hilabetetik gora joan direnez gero, legezko interesak bere alde korritzen duela, interes hori Administrazio desjabetzaileak edo onuradunak ordainduko beharko diolarik.

Desjabetze-espedienteak ohiko prozeduran behar duen denborara itzuliz, okupatze beharra adierazi eta ondasuna okupatu arteko epeari begiratuta, eta kontutan harturik administrazio desjabetzailea gehienezko bizkortasunez arituko dela, honako datuok ditugu, lurralde historikoen arabera:

- Araba: 5,5 hilabete
- Bizkaia: 10 hilabete
- Gipuzkoa: 4,5 hilabete

Premiazko prozedurarekin alderatzerakoan, kontutan izan behar dugu prozedura honek gutxienez 4 hilabete behar izaten duela okupatze beharra adierazten denetik ondasuna okupatu arte. Izan ere, lau hilabete horietatik hiru premiazko jotze-adierazpena tramitatzeko joaten dira (espedientea aztertu eta prestatu, Gobernu Batzordearen gai-zerrendan behar besteko aurrerapenez sartzeko, argitaratzea...) eta gutxienez hilabete behar da okupatzea baino lehenagoko akta jasotzeko

(eragindakoei 8 lanegun lehenago bidaltzea, aldez aurretiko gordailu-orria egitea) eta okupatze akta jasotzeko.

Ondorio gisa esan dezakegu Araba eta Gipuzkoan antzerako denbora tarte behar dela desjabetze jardunbide bat premiazko prozeduraz edo ohikoaz egiteko, premiazko prozedura apur bat laburragoa delarik. Bizkaian, ordea, desjabetze jardunbide bat ohiko prozeduran tramitatzeak 8 hilabete inguruko atzerapena dakar.

#### **4.2. Tasazio adostuko desjabetze-prozedura**

Hiri barruan egindako edozein desjabetzetan aplikagarria da, bai eta hilerri edo kanpoaldeko parke handiak bezalako lekuetan ere, edota hiri-zirkunbalazio edo saihezbide baterako, baldin eta lurzoru hori plangintzatik bertatik banatze-arlo batera egokitzen bada, lehen begiratu batera behintzat zailtasun handirik ematen ez duen arazoa.

Aitzitik, beste zenbait kasutan prozedura hau ez da aplikagarria. Adibidez, parke natural batean desjabetzeak egiteko, edo errepide edo trenbide baten egitasmorako, hiriguneetako saihezbideen kasuan izan ezik, horietarako bitarteko egokia bailitzateke tasazio adostuko desjabetze-prozedura.

Biderapenei dagokienean, TRLS delakoaren 218-220. artikuluek eta RGU delakoaren 201-204. artikuluek ezarritakoak dira, hau da:

- A. Espedientea osatu behar duten agiriak egitea:
  - Eragindako lur-esparrua.
  - Prezio orokorrak zehaztea, hirigintza-sailkapenaren arabera.
  - Balioespen-orri bana lur-sail bakoitzerako.
- B. Desjabetze-egitasmoa hilabetez jendaurrean erakutsi behar da, jabe bakoitzari banan-banan jakinaraziz alegazioak aurkezteko aukera duela.
- C. Alegazioak aztertu eta espedientea Foru Aldundira bidaltzea, eskumena duen foru organoak onar dezan.
- D. Eskumena duen foru organoak erabakitzea eta, beraz, okupazioa premiazkotzat jotzea eta interesatuei hitzarmenaren berri ematea.
- E. Eragindakoek 20 eguneko epea dute onartutako balioespenari aurka egiteko.
- F. Eragindakoen kontrako iritzia dela eta, eskumena duen foru organoak nahitaezko desjabetzeen lurralde-epaimahaiari bidaliko dio espedientea.
- G. Desjabetzea egiten duen administrazioak jabeari ordaindu edo, bestela, eskumena duen foru organoak erabakitako zenbatekoa jarriko du gordailuan gordailu-kutxa orokorrean.
- H. Ondasuna okupatzea, okupatze-akta jasoz.

Prozedura hau orekatua dela esan dezakegu, alde batetik, premiazkoa bezain arin eta laburra gertatzen delako eta, bestetik, hura baino bermagarriagoa delako, ondasunen balorazio kontrajarrien aldia ondasuna okupatu baino lehenago ezartzen duelako. Eta ez hori bakarrik, bermea ere ematen baitu Administrazioak ondasuna okupatu baino lehenago eragindakoak eskumena duen foru organoaren

balorazioaren berri izan dezan, balio hori premiazko prozeduran aldeztu aurretiko gordailu-orrietan jasotzen den zerga-balioa baino altuagoa izaten baita.

Kritikagarri deritzogu, udal autonomiari dagokionean, foru organoak EAEn esku hartzeari, eta autonomia administrazioak beste lurraldeetan.

Uste dugu ez dagoela justifikaturik hirigintzaren ikuspegitik, ez baitago defendatu beharreko interes supralokalik. Desjabetzarako ikuspegitik ere ez dago arrazoiturik, desjabetze arloan ez foru aldundiek ez autonomia administrazioek ez baitute eskumen handiagorik, Udal Erregimenaren Oinarrien Legeak eta inguruko araudiak udalei eta aldundiei beren interesak kudeatzeko ematen diena baino.

Sistema honen desabantailarik handiena da ez duela errazten Administrazioak eta partikularrak ondasunen balioaren gaineko hitzarmen adostua lor dezaten, eta beste sistemetan oso aukera erabilia izaten da hori. Hori ez da oztopo baterako tasazioan ere alderdiak ados jar daitezten prozeduraren edozein alditan.

Izan ere, Nafarroako Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko Legeak, bosgarren xedapen gehigarrian, ezabatu egiten du Autonomia Erkidegoaren eskuhartzea udalek tasazio adostuaren bidez tramitatutako nahitaezko desjabetzeetan eta ezartzen du ezen «desjabetze espedientea onartzeko eskumena espediente hori jendaurrean jarritako Administrazio berak izango duela».

## 5- GOMENDIOA

1- Udalek, foru-aldundiek eta EAeko Administrazio Orokorrek berbideratu egin beharko lituzkete beren desjabetze-egintzak, premiazkotzat jotzearen ezohiko prozedura soil-soilik egoera ezohikoak arrazoitutako kasuetan erabiliz.

Desjabetzarako prozedura arrunta edo tasazio adostuarena erabiliz gero, Administrazioak behar dituen lur-sail, ondasun edo eskubideak lor ditzake, eragindakoen eskubideak hobeto errespetatuz eta, batez ere, aldeztu aurretiko ordainketa ziurtatuz, derrigorrezkoa ez bada ere eragindakoa bermea suposatzen baitu.

2- Eusko Jaurlaritzaren Lurralde-Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak ondasun edo eskubideen okupazioa premiazkotzat jotzea EAeko Gobernu-Batzordeari proposatzeko eskumena duenez gero, irizpide zorrotzagoaz aritu beharko luke ea prozedura hori justifikatzen duen ezohiko egoerarik ote dagoen ala ez erabakitzeko orduan, halakorik gertatzen ez den kasuetan atzera boteaz espedienteak.

Bestalde, Gobernu-Batzordearen hitzarmenek premiaren azalpen egoki eta zehatza jaso beharko lukete, klausula labur, zehazgabe eta errepikatuak erabili gabe. Bestela ez luke beteko Nahitaezko Desjabetzeen Araudiaren 56-1. artikuluko dioena, alegia: «ondasunak premiaz okupatzeko hitzarmenak behar bezala arrazoiturik izan beharko du, kasuan kasuan azalduz Legearen 52. artikuluko ezohiko prozedura justifikatzen duten zioak...».

3- Baztertu egin beharko litzateke legeetan premiazko okupatzeen deklarazio orokor eta abstraktuak sartzea, dena delarik ere araudi horrek erregulatu duen arloak duen interes orokorra, horrek ez baitu esan nahi beti premiazko prozedura justifikatuko lukeen ezohiko egoera dagoenik. Uste dugu egokiago litzatekeela Administrazioak arlo horretan kasuan kasuan aztertzea premiazko prozeduraren erabilera arrazoitzeko egoerarik badagoen ala ez, eta baiezko kasuan nahikoa luke EAEko gobernu-batzordeari premiazkoztat jotzeko eskatzea.

4- Administrazio desjabetzaileek zorrotz jokatu beharko lukete Nahitaezko Desjabetzeen Legearen 50-2. artikulua xedatutakoa betetzerakoan, eta oneste-orriekin batera eragindakoari jakinarazi beharko liokete oneste-orrian jasotako balorazioa onartzen ez badu, eskubidea duela kalteordaina berehala kobratzeko, aipatu oneste-orrian jasotako zenbatekoan, Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde Epaimahaiak erabaki arte itxaron beharrik izan barik. Esan gabe doa horrek Administrazioa behartzen duela desjabetzeen kalteordainak ordaindu ahal izateko partidak aurrekontuetan jasotzera.

5- Bizkaiko Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde-Epaimahaiaren funtzionamendua hobetu beharko litzateke, behar bezalako arintasunez jardun dezan eta espedienteak epe laburragoan erabaki ahal izan ditzan. Horrela ez litzateke gehiegi atzeratuko eragindakoak balioespena kobratzeko momentua eta, gainera, Administrazioak kalteordain handiagoak ordaindu behar izatea, legezko interesak direla eta eta, batez ere, premiazko prozeduraz jardutearen aldeko argudio izateari utziko lioke, Epaimahaia asko atzeratzen delako bere erabakiak hartzen.

6- Azkenik, eta erakunde honen eskumen-esparrutik at gelditzen bada ere, komenigarria litzateke Estatuko Administrazioetik Parlamentura nahitaezko desjabetzeak arautzeko lege-egitasmo berria bidaltzea, 1954ko lege historiko eta zenbait arlotan zaharkitua ordezkatzeko, eta aldi berean irtenbidea emateko doktrinaren arlotik eta Administrazioaren egunean eguneko jardueratik sortzen diren arazoetako askori.

## **7.6. INFORMAZIO PUBLIKOA ETA HIRITARREN PARTAIDETZA HIRIGINTZAN ETA ADMINISTRAZIOAREN BESTE ALOR BATZUETAN**

Erakunde honen aurrean aurkeztu diren kexa askotan salatzen denez, Administrazioak hiritarren interesei eragiten dieten akordioak hartzen ditu, baina interesatuek ez dute horien berririk izaten behar bezala informatu ez dituztelako.

Beste kasu batzuetan, Administrazioak emandako informazioa mugatua eta urria delako kexatzen dira hiritarrak; informazio gabezia horiengatik, Administrazioaren ebazpen jakin baten ondorioak zehazki ez ezagutzeak kalteak eragin ahal izan dizkie.

Arazo horiek hirigintza planeamendu alorrean eta azpiegitura lan handietan gertatzen dira batez ere, eta neurri txikiagoan ingurugiro gaitan.

Administrazioaren eta administratuen arteko komunikaziorako sistema zorrotzak ezarri ohi dituzte legeek: aldizkari ofizialetan, egunkarietan eta udaletxeetako

iragarki tauletan iragarki laburrak jartzean datza sistema, eta horietan erabiltzen den hizkuntza teknikoa sarritan, gainera, ulergaitza izaten da. Adibide bat hemen daukagu: Lurraren Legeari buruzko Testu Bateratuak 114-1. eta 116-a) artikuluetan hirigintza antolamenduak onartzeko informazio publikoaren bideraketaz egiten duen arauketa.

Horren bidetik, badaude bi lege onartu berriak: abenduaren 12ko 38/1995 Legea, ingurugiro gaiei buruzko informazioa eskuratzeko eskubideari dagokiona (abenduaren 13ko BOE 297 zkia.); eta otsailaren 9ko 208/1996 Erret Dekretua administrazio-informaziorako eta hiritarrekiko arretarako zerbitzuak arautzen dituen (martxoaren 4ko BOE 55. zkia.). Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Amankomunaren Erregimen Juridikoari buruzko 30/92 Legeak 35. eta 37. artikuluetan jasotzen dituen hiritarren eskubide batzuk modu operatiboan garatzen dituzte lehen aipatutako bi xedapenek.

Askoz zehatzagoa da Lurraren Legearen Testu Bateratuak (1976ko Legeko 4-2. art. bertan behera uzten duenak) 4-4. artikuluan dioena: bertan aurrerapauso bat ematen da, hiritarrek informaziorako daukaten eskubidearen arabera, Administrazioa hiritarren partaidetza bermatzera beharturik baitago:

«Hirigintza planeamenduaren formulazio, bideraketa eta gestioan, hirigintzako administrazio eskudunek INTERESATUEN PARTAIDETZA BERMATU BEHARKO DUTE eta, bereziki, eragindako interesen ordezko erakundeen eta partikularren ekimen eta informazio eskubideak.»

Gure ustez, partaidetzarako sistema legalak areagotu egin beharko liriteke, eta bitartean Administrazioak praktikarako aukera gehiago ematen duten bideak sartu beharko lituzke bere jardueretan, batez ere horretarako aukera gehien ematen dutenetan.

Horrela, eta adibide gisa, hirigintza planeamendu kasuetan eta partaidetza posible den azpiegitura proiektuetan, Administrazioak bere jarduerak eragindakoen taldeei edo auzo elkarteei deitu beharko lieke, beraien balorazioak, premiak eta kezkak adieraz ditzaten. Alor txikietako hirigintza antolamenduetan, hala nola plan partzialetan edo plan berezietan ere eragindako guztiei pertsonalki entzun beharko litzaieke, nahiz eta legeak hori ez agindu.

Edonola, komunikazio-teknikak hobetu eta sustatu egin behar dira, kontzeptuak eta hizkuntza teknikoa ulergarria izateko moduan adieraziz. Horrela, informazio publikorako tramiteek dagokien helburua beteko lukete, hots: hiritarrei, edo horien artetik kontzientziarik handiena daukatenei edo gehien eragindakoei organo publikoek onartutako akordioak eta proiektuak helaraztea edo jakitera ematea. Administrazioak, horretarako, komunikazioa bermatzeko beharrezkoak diren ahaleginak eta baliabide osagarriak onartu eta jarri beharko lituzke, komunikazioa baita hiritarren partaidetzaren oinarria.



**VIII. ATALA**  
**AZKEN ONDORIOAK**

Arartekoa sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 32.2. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesa oro har zein egoeratan dagoen aztertu behar da Eusko Legebiltzarrari urtero egiten zaion txostenean.

Jakina, azterketa hori egiteko, Arartekoak bere aginpide-esparruan burutu dituen ekintzen bidez zuzenean jakin duena erabiltzen du; horrek esan nahi du azterketak ez duela isladatu behar Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak errespetatzearen egoera, baizik eta, maila apalagoan, kexak eta ofiziozko jarduerak aztertu behar dituela, euskal administrazio publikoek hiritarren eskubideekiko duten jarreraren eredia emateko.

Zoritzarrez, balioespen hori egiteko ezingo dira kontuan hartu Arartekoaren bulegora iristen ez diren hiritarren eskubide-urratzeak, ez partikularrek eragindakoak ere, nahiz oso nabarmenak izan, edo Arartekoaren kontrolpean ez dauden administrazioek sortuak.

Salbuespen horiek alde batera utzita, jarraian adieraziko dugu euskal administrazio publikoek 1995 urtealdian zer jarrera agertu duten hiritarren eskubideak errespetatzeari buruz.

Arartekoak eta Estatuko gainontzeko legebiltzar ordezkariak egindako txostenetan sarri adierazten da oso kexa gutxi daudela Espainiako Konstituzioaren I. izenburuaren bigarren atalaren lehen zatian jasotako eskubideetakoren bat ustez urratu dela diotenak. 1995 urtean ere, zorionez, halaxe gertatu da.

Kexa horietatik gehienek zerikusia dute ustez berdintasun irizpidea oro har urratzearekin, lanpostu publiko batera iristeko bidean ustez berdintasun irizpidea haustearekin eta epaile-babes eraginkorrerako eskubidea ustez urratzearekin.

Arartekoaren kezka nagusia honako hau da: herri-agintariek hiritarren bizitzarako eta ongizate fisikorako eskubidea errespetatzen ote duten.

1995ean erakundean hamabi kexa aurkeztu dira euskal hiritarrei noizbehinka emandako tratu txarrengatik. Horietatik hamar presoan senideen elkarte batek egin ditu, eta Estatuko espetxeetan askatasunik gabeko zigorrak betetzen ari diren euskal hiritar batzuen egoera salatzen dute. Hamar kasuok justizia epaitegietan ere salatu dira.

Jakina denez, herri-defendatzaileen lege-jaurbidea arautzen duten legeek diote justizia epaitegietan aurkeztutako kasuetan ez dagoela esku hartzerik. Horrek esan nahi du eskuarki nekez parte har dezaketela gai honetan Arartekoak eta gainontzeko legebiltzar ordezkariak. Izan ere, salaketa justizia epaitegietan egin

ez bada, lege-haustea gertatu delako arrazoizko zantzurik balego, herri-defendatzaileek Ministeritza Fiskalari jakinarazi beharko liokete, hark esku hartzeko.

Gainera, hamar kasu horietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremutik kanpokoak ziren eta Estatuko Administrazioak burutu zituen ekintzak azaltzen ziren; horregatik, nahiz eta salaketak epaitegien aurrean eginak izan, horietatik lau Estatuko Herri Defendatzaileari bidali dizkiogu jakinaren gainean egon dadin.

Ertzaintzaren funtzionarioek ustez emandako tratu txarren aurkako bi kexa ere egin dizkigute. Bi kasuei buruz Herrizaingoak eman zizkigun azalpenak bidezkoak iruditu zitzaizkigun eta kexa horiek egiteko arrazoirik ez zegoela iritzi genion.

Ertzaintzak herri-bakea lortzeko burutu zituen ekintza batzuk gehiegizkotzat jo zirela eta, ofiziozko bi jarduera gauzatu dira, baina gure ekimena bertan behera utzi behar izan dugu kexa horiek epaitegietara eraman dituztelako.

Nolanahi ere, oso garrantzitsutzat jotzen dut kontrol-organo guztiek bat egitea hiritarren ongizate fisikorako eskubidea urratzen duen edozein jokaera kentzeko.

Aurreko agintaldian bezalaxe, kexarik gehienak sorrarazi dituzten gaiak, alde batetik, gizarte-eskubideak deritzenak dira, eta bestetik, Espainiako Konstituzioaren 103.2. artikulua ustez ez betetzea. Artikulu horrek hauxe agintzen die herri-administrazioei: eraginkortasun irizpidearen arabera jokatzeko, Legeari eta Zuzenbideari osotara men eginez eta alderdikierarik gabe guztien interesen alde jokatzeko.

Etxebizitza publikoaren eskaintza oraindik ere ez da nahikoa eta horregatik euskal hiritar askok ezin dute gauzatu etxebizitza duina izateko duten eskubidea. Hala eta guztiz ere, kontraesana dirudien arren, administrazio publikoek gai honetan gutxiago esku hartu izanak kexa gutxiago eragin du, babes ofizialeko etxebizitzak emateko prozedurak ere urriagoak izan baitira. Dena den, maizago kudeatu behar da eraikuntzarako gai den lurra, arazo larri hau nolabait arintzeko.

Hirigintza alorrari dagokionez, kexa ugari arkitektura-oztopoak daudelako sortu dira; horrek agerian jartzen du, salbuespenak salbuespen, herri-agintariek ez dituztela gogoan hartzen ezinduta dauden hiritar asko eta asko.

Eskuarki taldeek aurkezten dituzten beste kexa askoren gai nagusia hirigintza antolamendua eta hirigintza diziplina izan dira, nahiz sarritan legezketasunarekin baino gehiago egokierarekin duten zerikusia. Hala ere, argi eta garbi ikusi dugu horrelako kasuetan Administrazioak informaziorik ez emateak edo, behintzat, behar adina informazio ez emateak eragiten dituela askotan hiritarren protestazko joan-etorriak zenbait proiektu publikoren aurka, izan ere, hiritarrek ez dute beren burua proiektu horietako partehartzaitzat hartzen eta askotan proiektuak arbitrarioak direla iruditzen zaie.

Halaber, kexa anitz sorrarazi ditu informaziorik ezak, osasunerako eskubideari loturik dagoen eskubide instrumentala den neurrian. Informazioa behar bezala zabaltzeko balitz, hiritar ugari ez zukeen medikuntza pribatura jo beharrik izango, edo orain dutena baino iritzi hobea izango zuketena jasotako osasun-laguntzaz.

Zuzendu egin beharko dira anitz kasutan Administrazioak bere jardueran erakutsitako gardentasunik eza eta iluntasuna.

Osasun alorrari begira, kezkarria da hiritar batzuk, presoek esate baterako, osasunerako eskubidearekin duten lotura. Bereziki bermatu behar da askatasunik gabe dauden pertsonen osasuna babestuko dela, batez ere zenbait gaisotasunek -kutsakorrek edo buru gaisotasunak- sorturiko arazo berezietatik arduratuz.

Sarritan Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako droga-kontsumoa izaten da abiapuntua, eta baita horrekin zerikusirik duen gaisotasun kutsakorrek -HIESa batez ere- kutsatzeko arriskua ere.

Oraindik ere ez da nahikoa adinekoei ematen zaien laguntza, egoitzetako nahiz egoitzez kanpokoa; beraz, herri-agintariek orain dagoen hutsune handia bete beharko dute, plan gerontologikoan ezarri diren indizeetara iritsi arte.

Tabernek eta ostalaritza-jarduerak hiriguneetan sortzen duten zarata-kutsadura, tamalez, oso zabaldua dago; halaz guztiz, hiritarrak gero eta gehiago arduratzen dira ingurugiroarekiko arazoez eta, horren ondorioz, herri-agintariek geroz eta gehiago errespetatzen dute ingurugiro osasuntsua izateko eskubidea.

Hiritarrak oraindik ere kexu dira epaiketak ebazteko izaten diren atzerapenez, baina, gainera, gero eta gehiago kexatzen dira abokatu batzuen lanaz; horregatik, ezinbestekoa da kolegio profesionalek, Zuzenbide publikoaren elkarte diren aldetik, abokatu kolegiatuen zerbitzuak erabiltzen dituzten hiritarren eskubideak bermatzeko neurriak gehitu ditzaten.

Azkenik, lanpostu bat erdiesteko eskubidea euskal hiritar askoren helburu nagusia eta herri-agintarien konpondu gabeko arazoetako bat dela adierazi behar dugu. Horregatik, lanpostu publikoetara iristeko bidean berdintasun irizpidea egiaz erabil dadin begiratu beharko dute administrazioek, deialdiko aginduetan agertzen diren baldintza baztertzaila guztiak kenduz.

Gainera, administrazioek enplegu publikoa lortzeko egiten duten eskaintza oro har geldiarazita dago, aurrez inolako planifikaziorik egin gabe, eta horrek gorabehera larriak sortzen ditu, etengabe geldiarazita dagoen aldi baterako enplegua sortuz. Horregatik, administrazio-egiturak aztertu beharko dira giza baliabidezko premiak zehatz-mehatz zein diren jakin ahal izateko, eta ondoren, langile-premiak behar bezala bete eta kudeatzearen, egoki iriztitako prozesuak erabili beharko dira.